

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

XIX
1974
BILBAO

27 FEB. 1975



E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: A. Luis Villasante

XIX
1974
BILBAO

I.S.B.N.: 84-600-1756-7

Depósito Legal: BI - 454 - 1975

Gráficas Ellacuría - Avda. del Generalísimo, 19 - Erandio-Bilbao

René Lafon zenaz zombait hitz

Jaunak:

Hizkuntzalari, euskaltzale eta euskalzain handi baten heriotzea deituratzen dugu. Batere uste ez ginuelarik, René Lafon itzali zaiku.

Eguberriz idatzi bainion orduan naukan ez-ontsa aipatuz, ihardetsi zautan: “Emadazu esku, elgar ulert dezakegu. Eritegian sartu naiz eta ohetik igortzen daukitzut bi lerro hauk. Egia erran, ez dakit xuxen zergatik hunat ekarri nauten. Medikiak dauka baditudala aspaldiko gaitz batek utzi omen daukitan errezelu batzu. Etxean, dionaz, ez daukidate emaiten ahal hemen ukanen ditudan artak. Goazen paso, berdin ez dut nehundik sofritzen, eta goxo-goxoa ilabete ondarreko arras sendatua izanen naizela...”

Esperantza horrekin ginaudelarik, otsailaren lauean, gertatu da Lafon jaunaren seme-orde Georges Beaudouin-ek letra batean aipatzen daukun ezin-bertzea: “Astelehen arratsaldea zen, eta antsia batek harturik, zombait minuta barne, ene aita juan zaiku, balditurik uzten gintuela. Ene amari bihotza gaizkitu zaio, eta ez zuelakotz jendeketarik jasaitzen ahalko, ehorzketak etxekoz etxeko egin ditugu kanpokorik deitu gabe...”

Horra heriotze hortaz dakidan guzia.

Bi hitz René Lafon-en bizitzeaz.

Girondako Mérignac-en sortu zen, Bordaletik sei kilometretan, 1899-ko aboztuaren 4. an.

Bigarren mailako ikaskuntzak egin zituen Bordaleko lizeetan.

1916. ean "Ecole Normale Supérieure" ikas-etxe nagusian on-hartua izan zen 17 urtetan.

1917. an, gerla baitzen, soldadu altxatu zuten.

Handik hiru urteren buruan filosofiako agregazionea irabazi zuen.

Geroztik filosofia erakasiko du, Alençon-en bi urtez, Pau-en hamar urtez, Bordaleko "Michel Montaigne" lizean lau urtez.

1937. an ardietsi du C.N.R.S. delakorat utz dezaten, "tesis" baten apailatzeko.

1939. an gerla: René Lafon igortzen dute artilleria-ko liotinant gisa.

Ondoko urtean alemanek presoner altxatzen dute eta 13 ilabete atxikitzen.

1941. eko abustuan, osagarri ttipikoa baitzen, utzi zuten Frantziarat itzul zadin.

Arcachon-en berriz, ere filosofia erakutsiko du bortz urtez (1943-1948).

1944. eko maiatzaren 2 an dotorgoa irabaziko du, tesis haundi bat aurkeztuz XVI garren mendeko euskal aditgaz.

1948. ko urrian harek idekiko du, Bordaleko Uniberzitatean, euskal mintzaira eta literaturazko irakaskuntza nausia, 21 urtez edukiko duena eta gure lagun Jean Haritschelhar jaunari utziko.

Erran gabe doa hainitz jakintsu-batasunetan barne zela, bai Frantzian, bai Belgikan, bai Rusian; asko eta asko aldizkaritan idazten zuena; bai Parisen, bai Donostian, bai Tolosan, bai Tiflizen, bai Salamankan; mintzaldi egiteko prest zagola ezker eta eskuin, berezki "Congreso"etan.

Mila arrazoinekin bildu zuen Euskaltzaindiak eta euskaltzain oso egin, bai euskal-hizkuntzalari gisa, bai Akitania euskal ohiaren seme gisa.

Gizonaz zer dioket? Ez handi, ez lodi, osagarri mendrekoa balinbazen ere, ordainez borondate hazkar baten jabe zen, langile amorratua. Zortzez zaukan izpiritu zalu xorrotxarekin aise bazeramatzan bere ikerketa guziak. Berekiko urratsetan gizon lañoa zen eta alegera, euskal kanta zaharren xaramelatzen laket zuena. Bertzalde arras familiakoa, amultsuki mintzatuko zitzaizuen bere hurrez bai eta haurren hurrez. Adixkideri, biziki atxikia. Gainera baketsua eta baketierra: bere idazkietan ez du behin ere nehor laidostatzen eta ixilik jasan ditu beti zonbaitek hartaz erran gaixtakeriak. Hots, bihotz onekoa zen osoki gure Lafon.

Bazaudezte behar bada nola filosofoa bilakatu zen hizkuntzalari eta euskalari.

Luze loakiket xeheki erraitea. Huna laburzki:

René Lafon-ek Platon-*ez* nahi zuen tesis bat egin, eta hortako, zuzen den bezala, haren mintzairer berezia barnatik ikeritu. Laster ohartu zen filosofo handiaren hiztegia ez zela osoki Mediterraneo itsas hegikoa. Harritua zagon, ezin asmatuz nundik zetorren berritasun hori. Dumezil-ek salatu zion Platon-en arbasoak Caucase-ko eskualdetik jautsi zirela Helada-rat, bere gisako ele hainitzekin.

Lafon-i piztu zitzaion Caucase-ko mintzairer miatzeko tirria, bainan nola abia leku urrun hoietarat? Dumezil-ek ihardetsi zion ia Trombettik eta Marra hizkuntzalariek erakatsi daukute, *euskara* arras ahaide hurbila dela hango hizkuntzekin. Euskal-herria auzo-auzoan duzu. Zoazi harat eta lot euskarari!

Hamar urtez udan Larrañen ibili da gure Lafon, xuberoarren euskararen ikasten. Denbora berean liburuz-liburu Caucase-ko mintzairer berri ere hasi zen biltzen. Emeki -emeki jabetu zen ez dakit zonbat hizkuntzaz: ulertzen zituen frantsesa, latina, greka, alemana, rusoa, kaskoina, espainola, angle-sa, zazpi euskal-herrietako euskalkiak, eta georgiarra arras

beretu zuen, haletan nun Georgiako gobernuak hari eman baitzion hango hiztegi nausiaren ikuskatzeko eta zuzentzeko lana.

Ez da harritzeko, Tiflis-eko Uniberzitateak “doctor honoris causa” izendatu baitzuen.

Alabainan Lafon-ek ikertu ditu euskararen zoko-moko gehienak: fonologia, hiztegia, dialektologia, deklinaziona, aditza, joskera, autore zaharren mintzairia (Leizarraga, Dechepare, Betolaza, Oihenart) bai eta literatura ere.

Frantzian, Presidentgo batzuekin, egin zuten halere “legion d’honneur” batasuneko zaldun.

Guk euskaldunek gogoan ginuen segur René Lafon-en alderako omen-aldi baten muntatzea: ez gira aski lehiatu, bizi zeno, alde guzietarat berduratuak zituen euskarari buruzko lan baliosen biltzerat eta liburutan argitaratzerat.

Agian, huts handi horren betetzeko, ezagutzak eta esker onak sustatuko gaituzte.

Ez da lan ezinezkoa: eskuetan baitugu urtez-urte bildurik, Lafon handi zenaren artikulu eta lan guzi-guzien zerrenda.

Bihotzak lagunt gaitzala!

PIERRE LAFITTE.

Euskal aurrizkiak

Xabier Amuriza

— Gauza jakina da euskerak apenas dadukala, edo ez zaio-la edukitzen utzi, aurrizkirik, atzizkiekin ahal bezala moldaturik. Inguratzen gaituzten hizkuntza nagusi guztietan, ordea, garrantzia berdintsua dute atzizkiek eta aurrizkiek (zeintzuekin ez baitute zer-ikusirik atze-uzkiek eta aurre-uzkiek). Teoriaz, gabineteko linguistikaz, pentsa liteke euskera bere baliakizun propioez moldatzea, edo bere aurrizki propioak asmatzea. Praktikan ordea, honek ez luke zentzurik. Anitz aurrizki arrotz baina beste hizkuntzetan komun onartu beharra hain gauza agiria eta begien bistakoa da non ez baitu arrazoiketan hastarik ere merezi.

— Hala ere, anitz aurrizkiren onarpena teoriaz emanik ere, kontuzko hauzi bat zaiku, eztabaida sakonik behar duena. Baina bueltarik ez duena da hauziari belarrietatik oratu beharra nolabait. Horrexegatik ausartu gara lan-oinarri arras probisional hau azaltzera, gaiari dagozkion erreserba guztien jakile, kritikatu eta osatua izan dadin helburuz.

— Hitz zerrendetan hiru erdera ematea —gaztelera, frantses eta ingeles— ez da pedanteriarren, aisa ulertzeko arrazoi haundiengatik baino. Gaztelera eta frantsesa erdi erdian hariturik gaduzkaten hizkuntza nagusiak dira, nahi eta ez kondizionatzen gaituztenak euskera eta guzti beste mundura joan nahi ez badugu. Ingelesak aparteko interesa daduka euskera-

rentzat, alde batetik latindar kizkuntzez beste etorki batekoa delako eta bestetik eta batez ere euskerarekin kidetasun haundiak dituelako. Ingelesak nola jokutzen duen hautematea eta begiratzea linguista edo linguistatzako guztien arrazoiak baino fidagarriago da puntu askotan eta inportanteetan.

— Lan hau gazteleratik hasita egin badugu, arrazoi sinple bategatik izan da, alegia, gaztelera bakarrik ezagutzen dugula ondo. Frantsesa eta ingelesa denon artean apur bat jakin arren, hiztegiekin moldatu behar.

— Lan hau ez da hiztegi bat, haztaketa bat, tentaketa bat baizik. Aurrizki batzutan (zori-onez inportanteenetan) segurantzaz dezentea sentitzen da. Beste batzutan ordea, komediak daude. Aurrizki arrotz bat hartu beharrekoa dela konbentziturik ere, euskal atzizkiekin amaierak ematean etab, nor-bera ere lotsatzeko moduko hitzak ateratzen dira inoiz. Lan honetan hitz bat baino gehiago dagoke hemendik lasterrera geuri ere lotsa emanen daukuna. Inoiz, egia aitor, euskal zerrendari dagokion hitza areago jarri da zeozer imintzeagatik, konbentzimenduz baino. Errazena, jakina, konpromisoko hitzak mahainpera botatzea da, zakurrak edo katuak sekula gehiago ez ikusteko lekura eraman ditzan. Goizean aharrausi eta iluntzean zintz egiteko hitz guti behar da behar ere. Baina aski da semaforo bat zer den esplikatzen hastea dozena bat hauetariko hitz berehalaxe aurkitzeko. Zertan esanik ere ez libururen bat itzultzea-edo bururatuz gero. Batek ezin dezake zain egon gaztelera edo ingelesa bezalako hizkuntza hazi bat trumoi artetik erori arte. Nahi bezala ezin bada, ahal bezala irten behar zutitik, bitartean hitz egin behar baita, idatzi egin behar baita. Hizkuntza lege nagusietarik bat da hau ere. Beraz lan hau probisionala dela esateak edozein aurreratzetarako zabalik dagoela esan nahi du. Bestela zentzugabekeria litzateke arlo honetan probisionaltasunik aipatzea, probisionalki hitz egitea edo hizkuntza probisionala zentzugabekeria litzatekeen bezala.

— Lan honek baliorik badu, osoan harturik duke. Zati bat osoarekin zer-ikusirik gabe irakurtzeak ez du kasu askotan balio, ohar guztiak hor-hemen sakabanaturik baitoaz. Egin zitezkeen bestetara ere, ohar jeneral guztiak aurretik batera eman

eta gero aurrizki bakoitzean berari dagozkionak bakarrik. Egin bezala egin badugu, ohar jeneralak honela giharre gehiago eta konkretago dadukatela usterik izan da. Nork-berak nahi bezalako umeak egiterik asmatzen ez den bitartean bidezko da honelako lan tutu bat behintzat nor-berari gogoak ematen dion bezala egitea.

I

UKAPEN - ALDERANTZITASUN - GABETASUN

Hiru aurrizki haundi daude ukapena, alderantzitasuna edo esanahiaren azpikoz goratzea eta gabetasuna edo pribazioa adierazten dutenak: A, DES eta IN. Ingeleseztan IN-en ahizpa da UN. DES esatean, jakina, beste hiru barianteak ere gain-ulerturik daude: DIS, DE, DI, ingelesez Dis delarik nagusi eta ez DES. Frantsesak eta ingelesak NON ere asko darabilate ukapena eta alderantzitasuna adierazteko.

Hitz zerrendekin abiatu aurretik, ohar inportante bat. Sailketa hau, hitz sailen banaketa hau inoiz arbitrario samar irudi dakikeo irakurleari, hitz batzu sail batean baino bestean, edo bietan hobeto leukeela-eta. Ba dago egon ere zerbait arbitrarioritasunik. Alde batetik ez du burua apurtzerik merezi hitz bakoitza sail zehazki definituetan jarri nahiz, akaso orduan hitz bakoitzarekin egin beharko baikenuke sail bana. Sail hauen indarra —edo ahultasuna— hitzen bakoitzasunean baino areago denen osotasunean dago.

Ba dago beste konturik ere, alegia, ukapenaren, alderantzitasunaren eta gabetasunaren arteko mugak sarritan ez daudela zehazki bereziak. Hitz asko berdin sar liteke sail batetan nahiz bestetan, nondik begiratzen zaion egonik aldea. Esaterako, zer da DESOHORE, ohorerik eza edo ohoregabetasuna, ala ohorearen ukapena edo ez-ohorea, ala ohorearen kontrakoa

edo alderantzia? Dударик ere ez berdintsu dela batetara nahiz bestetara definitu.

Hona beste gabe hitz sailak. Akaso ondoren ohar morderik hastea hobe litzateke eta gero irakurri sailak. Bide batez nork bere askatasuna tenta dezake nahi duen lekutik hasirik, nahi ez duen lekuan ez bukatzekotan.

A

Dela ukapen, dela alderantzitasun, dela gabetasun, A honekin aurrizkituriko hitzik gehienak beste gabe onartu beharrekoak dira, hala sustantiboetan nola adjetiboetan.

Abiogenesisia	Abiogénese	Abiogenesis	Abiogenesisia
Abulia	Aboulie	Ab(o)ulia	Abulia
Acinesia	Acinesie, Acinese	Acinesia, Akinesia	Azinesia
Adinamia	Adynamie	Adynamia	Adinamia
Afasia	Aphasie	Aphasia	Afasia
Afonía	Aphonie	Aphony	Afonia
Agnesia	Agénésie	Agensis	Agnesia
Agrafia	Agraphie	Agraphy	Agrafia
Alergia	Allergie	Allergy	Alergia
Amoralismo	Amoralisme	Amoralism	Amoralismo
Apirexia	Apyrexie	Apyrexia	Apirexia
Apsiquía	Apsychie	Apsychia	Apsikia
Arritmia	Arrythmie	Arytmia	Arritmia
Asimetria	Asymetrie	Asymmetry, Unsymmetry	Asimetria
Asistolia	Asystolie	Asystolie	Asistolia
Astenia	Asthenie	Asthenia	Astenia
Ataraxia	Ataraxie	Ataraxia	Ataraxia
Ateísmo	Atheisme	Atheism	Ateismo
Atonía	Atonie	Atony	Atonia
Abúlico	Aboulique	Abulic	Abuliko
Aclínico	Aclinique	Aclinic	Akliniko
Acromático	Achromatique	Achromatic	Akromatiko
Afono	Aphone	Aphony	Afono
Alitúrgico	Aliturgique	Aliturgic	Aliturjiko
Amoral	Amoral	Amoral	Amoral
Amorfo	Amorphe	Amorphous	Amorfo
Anodino	Anodin	Anodyne	Anodino

Anormal Acatólico	Anormal Acatolique	Abnormal Not catholic	Anormal Akatoliko, Ez-katoliko
Atono	Atone	Atonic, Unaccented	Atono
Atóxico	Atoxique	Not paissonous	Atoxiko, Ex-pozointsu

DES

Sail honetan DES-ek gehienez ukapena edo alderantziztasuna esan nahi du. Hauxe da akaso DES-en sailik hedatsuen, zientetarako dudarik gabe DES onartu behar baita.

Decrecer	Decoitre	To decrease	Deshazi
Desaconsejar	Desconseiller	To dissuade	Deskontseilatu, desaholkatu
Desacostumbrar	Desacotumer	To disacustom	Desohitu
Desadornar	Deparer	To disadorn	Desapaindu
Desamortizar	Desamortir	To disentaile	Desamortitu
Desarmar	Desarmer	To disarm	Desarmatu, Harmagabetu
Desaparecer	Disparaitre	To disappear	Desagertu
Desatender	Dedaigner	To disregard	Desaditu
Dscalificar	Disqualifier, dequalifier	To disquility, To unquacity	Deskalifikatu
Descifrar	Dechiffrer	To decipher	Dezifratu
Descomponer	Deranger	To discompose, To disarrange	Deskonposatu
Desconectar	Deconnecter	To disconnect	Deskonektatu
Descubrir		To discover	Desestali,
Desembarcar	Debarquer	To disembark	deskubritu
Desempaquetar	Depaqueter	To disjoint	Desenbarkatu
		To unjoint	Despaketatu
Desenterrar	Deterrer	To disinter	Desehortzi
Desesperar	Desesperer	To despair	Desesperatu
Desfavorecer	Disgracier	To disfavour	Desfaboratu
Dshidratar	Dehydrater	To dehydrate	Deshidratatu
Deshinchar	Degonfler, Desenfler	To deflate	Deshaunditu
Desinflar	Desenfler	To deflate	Despuztu, hertu
Desilusión	Desillusion	Disillusion	Desilusio
Desintegrar		To desintegrate	Desintegratu
Desleal	Deloyal	Disloyal	Desleial
Desnacionalizar	Denationaliser	To desnationalize	Desnazonaldtu

Desobligar Desorden	Desordre Affranchir	To disoblige Disorder	Desbehartu, Desobligatu
Desorganizar Despoblar	Desorganiser Depeupler	To disorganize To depopulate To dispeople	Desordenu Desantolatu, desorganizatu Desbiztandu, despopulatu
Desposeer	Deposeder	To dispossess	Desjabetu, gabetu
Desusar	Deshabituer	To disuse	Desusatu, deserabili
Desventaja Discontinuo Discorde	Desvantage Discontinuu Discordant	Disadvantage Discontinued Discordant Disagreed	Desabantail Desjarraiki
Disfavor	Defaveur	Disfavour	Desakort Desfabore, desmesede
Disímil	Dissemblable	Dissimilar	Desberdin, desantzeko
Desatar	Denouer	To untie	Deslotu
Descolgar	Dependre	To unhang	Deseskegi
Desencuadernar	Derelieu, debrocher	To unbind	Deskuadernatu
Desengañar	Detromper	To undeceive	Desenganatu
Deshacer	Defaire	To undo	Desegin
Deshonesto	Deshonnete	Inmodest, Iewd	Deshonest
Despegar	Detacher, Desceller	To unstick	Desatxiki
Destapar	Deboucher, debonder	To uncover	Desestali
Destejer	Detisser	To unweave	Desirun
Destiempo(a)	Contretemps(a)	Untimely	Desgarai, ez-ordu
Destorcer	Detordre	To untwist, To uncurl	Desokertu
Desamor	Manque d'amour	Disaffection	Desmaitasun, desamorio
Desconfiar	Se defier Se mefier	To distrust	Desfidatu
Descoser	Decoudre	To rip	Desjosi
Descuento	Escompte	Discount	Deskontu
Desendiosar		To undeify	Desjainkotu
Desenfadar	Defacher	To abate anger	Deshaserretu
Desgravar	Degrever	To thresh, to flai	Desgrabatu, desastundu
Desmandar	Decommander Contremander	To countermand	Desagindu
Desmontar	Deboiser	To clear awood	Desmontatu
Desnaturalizar	Denaturer	To change the nature of	Desnaturatu, desnaturaldu
Disconforme	Non conforme	Discordant	Deskonforme

Desandar	Rebrousser chemin, Revenir	To retrace	Desibili
Desaprovechar	Negliger	To misspend	Desprobetxatu
Desestimar	Mesestimer	To contemm	Desestimatu, gaitzetsi
Deshora	Heure hindue	After-hours	Desordu, ez-ordu
Deslucir	Ternir	To tarnish	Desluzitu
Desterrar	Bannir, exiler	To banish	Desherritu, Herbestetu

IN

1. IN-ek ukapena edo alderantzitasuna esan nahi due-
nean, EZ eta DES daduzkagu.

Imprudencia	Imprudence	Imprudence	Dezuhurtzia, inprudentzia
Incompleto	Incomplet	Inccomplete	Ez-oso, desoso
Inconstancia	Inconstance	Inconstancy	Desiraupen, inkonstantzia
Inculto	Inculte	Incult, uncultivated	Ez-jakin, inkulto
Inepto	Inepte	Inept, unapt	Ez-gai, moldagaitz
Inexacto	Inexact	Inexact	Dezehatz
Inhumano	Inhumain	Inhuman	Desgizakor, ez-gizazko
Insuficiencia	Insuffisance	Insufficiency, -cy	Ez-askitasun
Incumplimiento	Inaccomplissement	Non-compliance	Ez-betetze, deskonplimendu
Inaudito	Inoui	Unheard	Ez-aditu, entzungabe
Incierto	Incertain	Uncertain	Dezihur, ez-zihur
Incógnito	Inconnu	Unknown	Ez-ezagun, desezagun
Incumplido	Non accompli	Unfulfilled	Ez-bete, deskonplitu
Indigno	Indigne	Unworthy	Ez-din
Innatural	Qui n'est pas naturel	Unnatural	Ez-natural, desnatural
Inusitado	Inusité	Unusual	Ez-ohitu, ohigabe
Incapaz	Incapable	Awkward	Ez-gai, deskapaz
Incómodo	Incommode	Troublesome	Deseroso

1. Sail honetan IN-dunak osoan hartzen dira aurrizkitik aparte, hitz oso bezala, ez baitirudi IN euskal aurrizki solteztat, autonomotzat hartu behar denik.

Imparcial Imperfecto Impersonal	Impartial Imparfait Impersonnel	Impartial Imperfect Impersonal	Inpartzial Inperfet Inpertsional, ez-pertsional
Implicito Impolítico	Implicite Impolitique	Implicit Impolitic	Implizito Inpolitiko, ez-politiko
Incoherencia Incomunicado	Incoherence Incommuniqué	Incoherence Incommunicated	Inkoerentzia Inkomunikatu, deskomunikatu
Incontinencia	Incontinence	Incontinence	Inkontinentzia, deskontinentzia
Indeterminado	Indeterminé	Indeterminate	Indeterminatu, ez-determinatu
Ineficaz	Inefficace	Inefficacious	Inefikaz, desefikaz
Inmaterial	Inmateriel	Immaterial	Inmaterial, materiagabe
Inmoral Inorgánico	Inmoral Inorganique	Inmoral Inorganic	Inmoral Inorganiko, ez-organiko
Intolerancia	Intolerance	Intolerance intoleration	Intolerantzia, ez-tolerantzia
Incivil Inconsciente Inconstitucional Injusto Incapaz Incultura	Incivil Inconscient Inconstitutionel Injuste Incapable Inculture	Uncivil Unconscious Unconstitutional Unjust Awkward Want of culture	Inzibil Inkontzient Inkonstituzional Injusto, bidegabe Inkapaz, deskapaz Inkultura, ez-jakintza

GABETASUN EDO PRIBAZIO

Gabetasuna adierazteko ere lehengo hirurak daude eta gainera EX.

A

1. Aurrizki honi, gabetasuna zehazki esan nahi duen ad-jetibo batzutan, GABE dagokio ondoen, nahiz eta hemen datozen hitzak oso komunak izan.

Acarpo	Acarpe	Acarpous	Frutugabe
Acéfalo	Acephale	Acefalous	Burugabe
Acleido	Acleidien	Acleidian	Kabilagabe, akleido
Acotiledóneo	Acotyledone	Acotyledon(ous)	Gingilagabe
Aptero	Aptere	Apterous	Hegalgabe

2. Beste batzutan bieri eutsi behar zaie. Goikoetan ere hauxe berau esatea akaso onen. Gehienez bitasun honen alde dago arrazoirik gehien.

Afónico	Aphonique	Aphonic	Afoniko, bozgabe
Anónimo	Anonyme	Anonymous	Anonimo, izengabe
Asexual	Asexué, asexual	Asexual	Asexual, sexogabe

DES

Aurrizki honek gabetasuna esan nahi duenez, bi baliakizun daduzkagu: DES bera eta GABE-GABETASUN.

Desacreditar	Discrediter	To discredit	Desospetu, ospegabetu
Desagradar	Desagreer, deplaire	To displease	Desatsegin izan
Desagrado	Desagrement Deplaisir	Dislike, discontent	Desatsegin, desplazer
Desanimar	Decourager	To discourage	Desadoretu, adoregabetu
Desarmar	Desarmer	To disarm	Desharmatu, harmagabetu
Desautorizar	Desautoriser	To disauthorize	Desbaimendu
Descarnar	Decharner	Disfleish, unfleish	Desharagitu, haragigabetu
Descolorar	Decolorer	To discolour	Deskoloratu, kolorgatu
Descorazonar	Decourager	To discourage	Bihozkatu, desbihoztu
Desfigurar	Defigurer	To desfigure	Desitxuratu, itxurgatu, desfiguratu
Desgana	Degout	Disgust	desgogo, gogogabe, gogo-gaitz
Deshojar	Defeuiller	To defoliate To disleaf	Hostokatu, desostotu
Deshonra	Deshonneur	Dishonour	Desohore, ohorekabe
Destronar	Detroner	Dethrone	Destronatu, tronugabetu
Desuncir	Deteler	Disyoke, unyoke	Desuztatu, uztargabetu
Disgusto	Degout	Disgust, sorrow	Atsekabe, desgustu

Desamoldar	Deformer	To unmould	Desmoldatu, deseratu
Desacostumbrado	Inaccotumé	Uaccostumed	Ohigabe, ez-ohitu, desohitu
Descasar	Demarier	To unmarry	Desezkondu, ezkongabetu
Desdicha	Malheur	Missfortune	Zorikabe, zori-gaitz
Desembridar	Debrider	To unbridle	Desbridatu
Desherrar	Deferrer	To unchain	Desferratu, ferragabetu
Deshuesar	Desosser	To (un)bone	Deshezurtu, hezurgabetu
Despreocupación	Insoncience	Unprejudice	Arduragabetasun,
		Non-prejudice	desardura
Desaceitar	Deshuiler	To take offoil	Desoliotu, oliogabetu
Desadeudar	Acquiter les dettes	To pay debtes	Zorgabetu, Des-zorpetu
Desalar	Dessaler	To take out the salt of	Gesatu, desgazitu, gatzgabetu
Desangrar	Saigner	To bled	Desodoldu, odolgabetu, odolustu
Desarraigar	Derraciner	To eradicate	Errokatu, deserrotu
Descreído	Incredule	Incredulous	Sinesgabe, sinesgaitz
Descuidado	Negligent	Negligent	Axolagabe, ezaxol
Desempolvar	Depoudrer	To dust	Hautsgabetu, deshaustu
Desgrasar	Degraisser	To remove grease	Deskoipetu, desurindu, koipegabetu
Despiadado	Impitoyable	Ruthless	Urrikigabe, gupidagaitz
Destetar	Sevrer	To wean	Desugaztu, desdritu, ditigabetu
Desvergonzado	Devergonde	Shameless	Lotsagabe

IN

Honek ere gabetasuna garbi adierazi nahi duenean, GABE-BAGETASUN dadukagu, edo GABEKO adjetiboa sustantiboaren aurretik badoa: "hitz arrazoigabeak" edo "arrazoi gabe" hitzak.

Incorporal	Incorporel	Incorporeal	Gorputzgabe
Incorrupción	Incorruption	Incorruption	Ustelgabetasun
Incorrupto	Incorrumpu	Incorrupt	Ustelgabe
Incruento	Non sanglant	Incrucial	Odolgabe
Inculto	Inculte	Incult, uncultivated	Eskolagabe, inkulto
Ininterrumpido	Ininterrompu		Etengabe
Inmenso	Immense	Immense	Neurrigabe
Intacto	Intact	Intact	Ukigabe
Invalidar	Invalider	To invalidate	Baliogabetu, inbalidatu
Invicto	Invaincu	Unbeaten	Bentzugabe, menderagabe
Involuntario	Involontaire	Involuntary	Nahigabe
Irracional	Irrationnel		Desarrazoizko, irrazional
Implume	Implume, deplumé	Unfeathered	Lumagabe
Imprevisto	Imprevu	Unforesen	Ustegabe, ez-usteko
Inaudito	Inoui	Unheard	Entzungabe
Incógnito	Inconnu	Unknown	Ezagungabe, ez ezagun
Inconcluso	Inachevé	Unconcluded	Bukagabe
Ineducado	Impoli, inapprivoisé	Uneducated	Hezigabe
Infeliz	Malheureux	Unhappy, unlucky	Zorigabe
	Injuste	Unjust	Bidegabe, zuzengabe, injusto
Injusto			Helgabe
Inmaduro		Immature	Merezigabe
Inmerecido	Immerité	Unmerited	Gatzagabe, gesa
Insubstancial	Insubstantiel	Unsubstantiel	
Inadvertido	Inaperçu	Careless, inadvertent	Ohargabe, konturagabe
Inalámbrico		Wireless	Harigabe
Incoloro	Incoloré	Colourless	Kolorga, kolor(e)gabe
Incompasivo	Impitoyable	Pitiless	Urrikigabe
Inerme	Inerme, desarmé	Unarmed, weaponless	Harmagabe
Informe (adj.)	Informe	Shapeless, unformed	Formagabe, eragabe
Ingrato	Ingrat	Thakless, ungrateful	Eskergabe
Innominado	Innomé, innommé	Nameless	Izengabe
Inodoro	Inodore	Innominaté	
		Scentless	Usaingabe
		Inodorous	
Invertebrado	Invertebré	Spineless	Hezurgabe
		Invertebrate	

EX

Aurritzki honek, ikusten denez, gabetasun esanahiz oso inportantzia urria daduka.

Exangüe	Exsanguie	Blodless	Odolgabe
Exánime	Inanime	Lifeless, exanimate	Bizigabe, hilotz
Exculpar	Excuser, disculper	To exculpate, to exoherate	Deskulpatu, deserrutu
Exheredar	Exhereder, desheritei	To disinherit	Desheredatu, desondoretu

OHARRAK

1. Zerrenda hauei begirada bat ematea besterik ez dago hiru erderak —gaztelera, frantsesa eta ingelesa— gehienez paretsu doazela ikusteko. Inguratzen gaituzten hizkuntza nagusien kidetasun hau (zeren hiru jarri ditugun bezala berdinar jar zitezkeen europar hizkuntza aurreratu guztiak) beste gabe da argudio ebazkor hizkuntza sen apurrik duenarentzat (baratzeko bikuaren hiru xurtenak zaintzeko hizkuntza bat nahi ez badugu behintzat).

Kidetasun honekin batera, deskidetasun arretagarrikerik ere ba dago, aurrizkiak hizkuntza batetik bestera sarritan nahasi eta gurutzatu egiten baitira. Esaterako: Desacostumbrado - Inaccotumé - Unaccotumed; Despiadado - Impitoyable - Ruthless, etab. Naturala denez gaztelera eta frantsesa baterago doaz gehienez, ingelesa delarik sarriago apartatzen dena. Honegatik sailak ingelesaren arauera ordenatu ditugu batez ere, euskerak ingelesarekin berezko kidetasun haundiago dadukala usaterik eta beraz arreta haundia eduki behar diola, nahiz eta, jakina, gaztelera eta frantsesak, hurbiltasunagatik batez ere, gehiago sakatzen gaituzten.

Deskidetasun erlatibo honek gauza inportante bat esan nahi du, alegia, hizkuntza bakoitzak aurrizki bakoitzarekin bere martxa daramala, bere hedadura berezia damaiola. Denen artean baso komunalak balituzte bezala, baina ondoren nork bere arlo propioak ere bai. Honela DES-ek gazteleraz ambito eta jite bereziak ditu, halaber frantsesak eta ingelesak. Batzutan gaztelerazko DES-en arloan ingelesa UN-ekin sartzen da eta frantsesa behar bada sartu ere ez, eta alderantziz, anitz

konbinazio posible egiteraino. Honegatik bide jatorrago litzateke teoriak euskeraz DES-en arloa ematea beste hizkuntzetatik aparte eta gero begiratu zertan dauden kidetasunak eta zertan ez. Nola moldatu, ordea, euskeraz DES-en arlo propiorik, askoren artean euskal aurrizkitzat aitortu ere ez bada egiten? Bai daudela xiste zelebreek gure hizkuntzan!

2. A - IN

Bi sail inportante daude A-dunak eta bat IN-duna euskeraz onartu ditugunak. Baina arau jeneralizat arrazoia ez zen aurrizkia bera, hitza osoan harturik baino. Har al ditezke bi aurrizkiok euskal aurrizki solte eta autonomotzat hau da, hitz eginetatik aparte, beste batzuri ere ezartzeko modukotzat? Arruntkeria bat esateko, ez dagoela premiarik dirudi. Baina ba al du zentzurik hizkuntzan "premia" aipatzeak? Ez askorik. Puntu baterainoko premiak agiriak dira. Baina premiatasunaren kupoa betetakoa, handik aurrera ez daiteke irizpide zuzenegia izan honen hitz edo horren aurrizki premiazko den galdatzea, besteak beste arnasa hartzeko premiatik aharrausi egitekoa alde haundia dagoelako. Adibide bat jartzeko, DES aurrizkia premia hertsizat dadukagu, baina beste kontu bat da gero DES-i zer hedadura konkret eman, honen edo horren hitzi ezarri ala ez, eta ea premiatasun zorrotzaren kupoa bete ondoren, DES-en inguruan A eta IN onartzea ere ez ote legokeen akaso hain gaizki. Ez dugu uste A eta IN euskal aurrizki soltetzat hartzekoak direnik ukapen, alderantzitasun eta gabetasun konzeptoetarako. Baina hartzeko konprimentu haundirik ere ez gero, aharrausi egiteko bada ere. Ba dirudi ingelesak antzera jokatzeko duela IN eta UN-ekin. IN-dun hitz asko darduka baina bere aurrizkitzat, behar duenean edozein hitzi ezartzeko modukotzat, UN erabiltzen duela dirudi eta ez IN.

Beraz, ukapen, alderantzitasun eta gabetasun konzeptoetarako EZ, DES eta GABE-GABETASUN daduzkagu.

3. DES

a) Lau barianteetarik (DES, DE, DIS, DI) DES bakarrik hartu behar dela uste dugu (ingelesak DIS bezala), eta DE ondoko hitza ESEz edo ZETAz hasten denean. Euskaldunek, hitz egikeran DES-era joera gehiago dutela nahikoa argi dago. Hitz arrotz asko: Disgusto, difunto... euskaldunek desgustu, defuntu etab esanen dute, erderaren orbitapera erori gabeko alderdian behintzat.

DEsek hain sarrera haundia eduki badu euskeran, dudarik ere ez zati bat EZ-ekin duen antz fonetikoari zor diola. Honela ez da harritzeko belarri jator askori berdintsu izatea ezberdin eta desberdin, ez-axol eta desaxol, ez-ezagun eta desezagun, ez-ordu eta desordu, etab. Ba dira ordea EZ-dunak nekez edo inoiz ere ez direnak DES-ekin entzuten, hala nola ez-jakin, ez-behar, ez-uste, etab. Nolanahi ere EZ-DES-en mugak gehienez guztiz difuminaturik daude, eta ia aurrizki bakarizat jo daitezke. Biak ia bat izaterainoko antz fonetikoa badute, geuretzat hobe. "Aurrizki ia bakarizat" esan dugu, baina hau, jakina, esakera bat besterik ez, zeren geroago ikusiko dugunez, EZ-i bere aparteko arloa eta autonomia aitortu behar baitzaio, batez ere ukapena zehazki denean.

b) *DES-GABE*. DES-ek gabetasuna, pribazioa esan nahi duenean, euskeraz bi baliakizun erabili ditugu: DES bera eta GABE-GABETASUN: Hona oso kontuan eduki beharreko zerbait.

1. GABE adjetiboen egile da gehienez. Har dezagun adibidez ADOREGABE = desanimado edo zerbaitu.

2. Diogun baita GABE honek adjetiboak ez ezik, sustantiboak ere eman ditzakeela, beraz "adoregabe" desanimado ere izan daiteke. (Euskal atzizkien lanean ikus daiteke GABE-ren sailean subsail dezente bat dagoela, GABE-k sustantiboak atzizkitzen dituena). Nolanahi ere sustantibo taxu gehiago ezartzekotan, GABE-ri TASUN eranstea besterik ez dago. Hala ADOREGABE-tik ADOREGABETASUN.

3. ADOREGABE adjetibotzat (edo sustantibotzat nahi bada) hartuz gero, aditza beronengandik atera behar da:

ADOREGABETU = desanimar. Ohar gazteleraz alderantziz dela: desanimar → desanimado. ADOREGABETU-ri aditz atzizki bat erantsiz gero, GARRI esaterako, ADOREGABEGARRI ateratzen da (gazteleraz “desanimativo” edo zerbaitu) eta adjetibo berri honetatik sustantibo abstrakto bat ateratzeko, TASUN erantsi behar: ADOREGABEGARRITASUN. Hona laburki gaztelerazko prozesoa: Animo → desanimo → desanimar → desanimado → desanimativo → desanimatividad (hitz hauengatik gazteltzaindiak kondena bagaitza, berarentzat okerrago). Hona orain euskerazko prozesoa: Adore → Adoregabe → adoregabetasun → adoregabetu → adoregabegarri → adoregabegarritasun. Prozesu honetan, jakina, bai gazteleraz, bai euskeraz hitz posible asko falta da. Baina aski da bi hizkuntzetako egituren antz eta desantz batzuz kargutzeko. Subraiatu nahi duguna da nolako atzizki pilaketa gerta daitekeen euskeraz prozesorearen azkenerako. Lojrikaz ez dago objeziorik jartzetik. Areago, euskeraren berezitasunaren adibidetzat eman daiteke. Bestalde alemanek lukainkatzen dituzten hitzen ondoan, “adoregabegarritasun”ek hitz-kume bat ematen du.

4. Begira orain beste prozesoa konzepto berak adierazteko. Adore → adoregabe → desadore → desadoretu → desadoregarri → desadoregarritasun.

Bi prozesook berdin jatortzat jo behar ditugu euskeraz. Honek ez du esan nahi biak elkarren errepetizio alferreko direnik. Bata edo beste eliminatu egin behar dela uste duenak ez daduka hizkuntza sen haundirik.

5. Ba da ordea anitz kasu bigarren prozesuak bakarrik balio duena. GABE-tiko hitzak prozesorearen hasierako hitza sustantiboa denean bakarrik erator daitezke. Honela zentzugabekeria litzateke “egintza”tik hasi eta egintzagabe edo egingabe, egintzagabetu edo egingabetu etab jarraikitzea, EGIN-dik hasi behar baita eta aditzetik hasiz gero ez dago beste erremediorik EGIN → DESEGIN → DESEGINGARRI etab segitzea baino. “Egingabe”, egingabetu etab akaso beste zerbait lirateke baina ez orain esaten ari garena.

d) Ohar guztion ondoren, GABETASUNA edo PRIBAZIOA adierazten duten hitzetan, zeinez baliatu, GABE-z, DES-

-ez ala biez? Biez dudarik gabe. DES-en alde arrazoi asko dago, GABE-ren alde ere bai eta bien alde denak. Kontuan edukirik GABE-tiko prozesoa atzizki pilaketa kargatuegia gerta daitekeela prozesoa berean GABE-dunak nahiz DES-dunak nahas daitezkeela eta azkenez baliakizun biek inoiz gauza bera adierazi arren, erabilerak matiz diferenteak emanen dizkiela (gutierrez sinonimoak izanik ere, GABE-dunak eta DES-dunak beti izanen dira hitz diferenteak, beraz hots diferente-dunak, eta hotsak hitzari beste gabe damaio matiz diferentea), DES eta GABE etsaitzat jotzea eta ez laguntzat, hainbeste euskal astakerietarik bat dela uste dugu. Honegatik DES-ek gabetasuna adierazten duen sailean hitzik gehienak bietara euskeraturik datoz. Gure irizpidea zabalkorra da, ez hertsikorra. Beraz "deshojar"i HOSTOKATU ETA DESHOSTOTU edo "disgusto"ri ATSEKABE eta DESGUSTU... jartzean, ez dugu esan nahi bata ALA bestea, bata ETA bestea baizik.

e) Baina ba dago hots kontua baino gehiago ere. DES eta GABE baliakizun xit diferenteak dira izan ere eta batetiko nahiz bestetiko hitzak inoiz sinonima soilak gertatu arren, gehienan esanhi edo behintzat matiz desberdina dadukate. Honela "desaceitar"en DESOLIOTU eta OLIOGABETU, "destetar"en DESDITITU eta DITIGABETU, "desgrasar"en DESKOIPETU eta KOIPEGABETU, etab, etab jarri badira, ez du inola ere esan nahi sinonimo hutsak direla, hitz diferenteak ez ezik, esanhi eta anbito oso diferentea baitadukate. Berdin IN-en ere: INBALIDATU eta BALIOGABETU, EZAGUNGABE eta EZ-EZAGUN, ESKOLAGABE eta INKULTO, etab. Oso inportantea da hau kontuan edukitzea sinplekerian ez erortzeko. Diferentzia hauen arrazoiak luzeak lirerateke, zeren atzizki nahiz aurrizki bakoitzak bere anbito eto orduan esplikazioak lekutaraino lihoazke. Gainera DES-en eta GABE-ren antzak eta desantzak, jeneralki behintzat, erraz antzematekoak dira.

f) Azkenez sail hauetako eta urrengoetako hitzik gehienak euskal kide bakarrez etortzeak ez du esan nahi hura BAKARRIK, hura BEDEREN baizik. Lan honen helburua ez da hiztegi bat egitea, aurrizkien ikuspen zabal bat ematea baizik,

eta honetan sinesturik gaude hitzen eta batez ere aurrizkien artean etsaigoak, antagonismoak sortzea eta irizpide eliminakorrez jokatzea hizkuntza bat izorratzeko bideetarik bat dela.

4. EZ

Honi aurrizki bezala bide guztiak zabaldu behar zaizkio dudarik gabe. DES-en antagonistatza? Inola ere ez, sozietzat baizik. Non dagoke diferentzia? Hona kontuan eduki beharreko puntu batzu.

a) DES-ek askoz ere hedadura zabalago daduka arlo gehiago harrapatzen baitu: ukapena, alderantzitasuna, gabetasuna eta geroagoko beste sail batzutan ikusiko diren beste batzu.

b) EZ-en arloak ukapen eta alderantzitasun bakarrik izan behar duela dirudi, ukapen batez ere. Esanahi hauk bezar, EZ-en eta DES-en arlo komunalak. Gertatzen dena hitz askotan ez dagoela ukapen, alderantzitasun ala gabetasun den berezterik. Baina ba daude beste asko ukapena nahikoa zehazki sujeritzen dutenak. Hauxek dira EZ-i bereziki dagozkionak.

d) Gaztelerak ez du NO aurrizkitzat erabiltzen, bai ordea eta ugari frantsesak eta ingelesak. Hona bietako zerrenda bana.

FRANTSES

Non-activité
 Non-comparant
 Non-combattant
 Non-conciliation
 Non-etre
 Non-existence
 Non-jouissance
 Non-lieu
 Non-moi
 Non-pareil
 Non-residence
 Non-reussite
 Non-sens
 Non-usage
 Non-valeur

INGELES

Nonesuch
 Nonfeasance
 Nonresidence
 Nonconformist
 nonconformity
 Nondescript
 Nonsuit
 Non-ego
 Nonpareil
 Nonsense
 Nonsensical
 Nonsensicalness

Ez da axola zaikuna hitz hauen euskerapena ematea, euskerazko EZ-ek hauen antz-antzera joka dezakeela adieraztea baizik. Areago, EZ-ek frantsesaren eta ingelesaren NON-ek baino zabalera askoz ugariago eduki dezakeela eta behar duela uste dugu. Honela lehenago agertuez gainera, amai gabeko lista bat osa liteke EZ-i nolako onura atera dakikeon ikus arazteko. Hona adibide batzu:

Ez-jaun
Ez-izate
Ez-lege
Ez-nitasun
Ez-nortasun
Ez-balio
Ez-esistentzia
Ez-morrontza

Ez-diru
Ez-lan
Ez-bizitza
Ez-asmamen
Ez-mugimendu
Ez-ordain
Ez-interbentzio

Lista lekutaraino luza liteke. Ez dago bururik hautsi beharrik hemengo hitzik gehienak nola itzul litezkeen beste hizkuntzetara, sarritan komediak baileudeke. Konpon bitez berak egun batez gure literatura irakurri beharrik balute eta hone-lako hitzik aurkitu. Lista lekutaraino luza litekeela esateak ez du esan nahi EZ edozertarako eta edonoiz erabiltzea zentzuzko denik. Bakarrik diogu baliakizun oso aberats bezain labur eta adierazkor dela. Gero beste kontu bat izanen da hitz asko ego-kiak ala tentelkeriak diren. Harri bat mendian behera bezala, lehenengo bota egin behar da eta gero ikusi noraino heltzen den. Aurrizki hau oso urruti heltzekoa da noski, abiada apur bat emanez gero.

5. GABE - GABETASUN

GABE-ri buruz ez dago ezer apartekorik esan beharrik. Bai ordea, GABETASUN-i buruz. Atzizki doble hau nekez agertuko da aurrizkien hitz zerrendetan, eta atzizkietan ere ez litzateke askorik agertuko beste hizkuntzetatik euskerara ibiliz eta ez alderantziz.

a) GABETASUN-ek ez daduka pareko kiderik gaztele-raz eta frantsesez. Ba dira A eta IN aurrizkietan batez ere

GABETASUN-ez ondo itzul daitezkeen hitzak, baina jeneralean GABETASUN-ek bere arlo propioa daduka, frantsesetik eta gaztelaraz sarritan bi hitzez edo berek jakin nola konpondu beharko lukeitena. Amai gabeko lista bat eman liteke.

Bihozgabetasun	Ikasgabetasun
Babesgabetasun	Baliogabetasun
Izengabetasun	Legegabetasun
Pozgabetasun	Mugagabetasun
Kapitalgabetasun	Moralgabetasun
Ahalgabetasun	Zorgabetasun
Plangabetasun	Lurgabetasun
Bizigabetasun	Etengabetasun
Klasegabetasun	Helburugabetasun
Langabetasun	Jaungabetasun

Ingelesak, ordea, GABE-GABETASUN honen egitura berbera daduka eta oso ugaria gainera. Hona batzu.

Healthlessness	Osasungabetasun
Lucklessness	Zorikabe,
Ruthlessness	zorigabetasun
Shamelessness	Urrikigabetasun
Carelessness	Lotsagabetasun,
Clo(u)rlessness	-keria
Pitilessness	Arduragabetasun,
Heartlessness	-keria
Thanklessness	Kolorgatasun,
Thoughtlessness	koloregabetasun
Blamelessness	Gupidagabetasun
Guilelessness	Bihotzgabetasun,
Shapelessness	-keria
	Eskergabetasun,
	-keria
	Burugabetasun
	Errugabetasun
	Tolesgabetasun
	Itxuragabetasun, -keria

Ingelesari NESS eta euskerari TASUN kenduz gero, jakina, adjetiboak geratuko lirateke. Ruthless = urrikigabe, blameless = errugabe, etab.

Lista hau lekutaraino luza liteke. Asma al daiteke paretasun literalagorik? Arrazoi bat gehiago euskerak eta ingelesak egituren bertan dadukaten barne kidetasuna ikusteko. Bistan dagoenez, GABETASUN ETA GABEKERIA gauza beraren bi aurpegi ahizpak dira.

GABE-GABETASUN honekin ere, jakina, lukainkategi bat atera liteke sen onez ibili ezik, ingelesez ere bezala LESS-LESSNESSEkin. Baina nolana den GABETASUN (bere ahizpa GABEKERIAz ere berdintsu esan daiteke nahiz eta honen arloa harena baino askoz meharragoa izan) baliakizun oso emankorra dela aitortu behar.

b) Balio al du GABETASUN honek A aurrizkiaren lehen zerrendako hitzak euskeratzeko? Esaterako:

Anodinia	Mingabetasun
Ateísmo	Jainkogabetasun
Afonía	Bozgabetasun
Apirexia	Sukargabetasun
Adnamia	Indargabetasun
Asexualidad	Sexagabetasun
Arritmia	Ritmogabetasun
Abulía	Gogogabetasun
	Etab.

Hauzia ez da bat ALA bestea, bata ETA bestea baizik. Sail honetako hitzak beste gabe hartzeko kondiziodun hitzak dira jeneralean. Beste hizkuntzei begirada bat ematea besterik ez dago. Orduan euskeraz bi hitz behar al ditugu gauza bere-rako? Gure ustez ateismo eta jainkogabetasun ez dira inola ere gauza bera, gramatikakeria elkoraren edo garbikeria tentel baten mende eroritako hizkuntzan izan ezik. Baina irizpide honekin ez al daiteke beste edozein hitzez ere berdin esan? Dударик ere ez bakoitzaren sen kontua dela asko. Hizkuntzan beste anitz gauzatan bezala, arrazoi guztiek dadukate barrenean beren desarrazoi zati bat. Hitz arrotz batzu daude duda gabe hartzekoak, beste batzu duda gabe ez hartzekoak eta bi-tartean sail haundi bat geratzen da dudazkoa. Esaten ari garenak dudarik gabe hartzekoen artean daude, euskeraz kide egokirik duten ala ez pentsatzen hasi aurretik. Irizpidea ez da ganera hitz bat hartu ala ez, hitzak atomizaturik ikusiz, "tankera" honetako hitzak baizik. Beraz A zerrendako bat edo beste kenteak edo sartzeak ez du tankera aldatzen irizpidea sendotzen baizik.

d) Gabetasuna adierazteko —hitz arrotz bat ez sartzearen hobeto— beste baliakizun bat erabiltzen da sarritan.

Anodinia
Abulía
Ateísmo
Incorporeidad

minik eza,
min-eza
gogorik eza,
gogo-eza
gorputzik eza,
gorputz-eza

Mujikaren hiztegian ba da hamaika honelakorik. Bistan dago joko hau itzul-inguru bat dela. Beste kapitulu batean, hitz elkartuen sailean esaterako, bere toki berezia luke, baina hemen ez dezakegu inola ere onar. Baliakizun hauen kontra ez dadukagu ezer, jakina, atearen kontra ez dadukagu beza-la, baina atea oinetakotzat erabili ere ez gero. Berez aipatu ere ez genuen egin behar hiztegieta eta idazkeran ere errecurso honetara hian joera haundia egon ez balitz.

BI JOERA OKER

1. Lehen joera okerra da hartu beharreko hitz arrotzak euskal hitz batera derrigor bihurtu nahi izatea. Anitz adibide eman daiteke. Hona hiru:

Agenesia
Apatía
Adinamia

Antzutasun
Epeltasun,
hiltasun
Ahuleria

Agenesia antzutasun-ez euskeratzen dutenak dudarik ere ez halaxe egokien uste dutelako dela. Baina era honetara honelako hitzen esanahia ondo adieraz daitekeela emanik ere —zein gehiengan zehaztasunaren baino areago garbikeriaren tranpa baita— edozein hizkuntzatako kontua da hau —gurea “edozein hizkuntza” ez dela-eta ez bagaude behintzat, geure bakantasun sakratuaz masturbaturik—. Gazteleraz ere ba dau-de “agenesia”z batera “esterilidad, infecundidad, impotencia” etab, euskeraz baino gehiago segur asko, baina ez “agenesia” elimintatzeko. Hauxe izan da eta izanen ere da zori-xarrez euskerazko hutsik nabarbenetariko bat. Hortik anitz euskal hitz

hainbeste konzeptotarako erabiltzea non azkenerako bere esanahi propioaz ere duda sortzen baita —eta adierazi beharrekorik adierazi gabe, jakina—.

Gauza bera alderantziz esana: hitz bera mila esanahi antzeko baina diferentetarako erabiltzea. Ba daude euskal hitzak eginala arraultze ohosten zaion epetxa baino izorratuago geratzen direnak azkenerako. Esaterako KENDU hitz guzti haue-tan agertuko da Mujikaren hiztegiari: “Quitar, desposeer, abolir, derogar, suprimir, privar, substraer, restar, arrancar, destituir, confiscar, usurpar, retirar, suspender, anular, invalidar, cancelar, arrebatar, descontar, eliminar, excluir, exceptuar, exonerar, eximir—” eta abar eta abar epetxa abar artera disekaturik erori arte. Beste adibide bat: XARTEL = Cédula, billete, tarja, etiqueta, esquila, papeleta, ficha, tarjeta, cartulina, postal, póliza— eta segi aurrera epetxaren arraultzeak epetx-kumetu arte. Eta hainbeste ahalegin eginda gero, entera hadi XARTEL bera ere aurrekoak bezain hitz arrotza dela.

Orriak eta orriak bete daitezke honelako adibideekin. Hitz hauk, jakina, —kasuon KENDU eta XARTEL— ez dira aipaturiko erdal hitzen kidetzat datozen bakarrak. Ez diogu erdal hitz bakoitzari euskal euskal kide berezi bat jarri behar zaionik ere. Inoiz beste hizkuntzetako sinonimo zerrendak alferreko proliferazio bat ematen dute. Baina hau eztabaidagarri da. Bueltarik ez duena da ezin daitekeela hitz bat goma bihur edozein konzeptotara hel arazteko antz baten edo guti gora behe-ratasun baten izenean. Joera hau hiztegietatik aparte ere ia patolojikoak zaikula esan daiteke.

2. Bigarren joera, aurrekoa bezain okerra eta errotua, da hitz baten euskeralbena itzul-inguru batez edo esakera batez (esaldi oso batez ez denean) ematea. Mujikaren hiztegia honelakoz josirik dago. DES-ekin gabiltzanez gero, hona DES-dun adibide batzu:

Descristianizar
Descargar
Descoser
Desembolsar
Desenvainar
Despintar

Kristau ohiturak
kendu
Zama kendu
Sakeletik (toxtatik,
zakutik, zarpat-
ik) atera

Desmentir
Difamar
Discurrir
Divergir

Ezpata azaletik
(zorrotik, leka-
tik) atera
Margoak ezabatu
Gezur-diok esan
Izen ona kendu
Batetik bestera
ibili / Gogoan,
buruan erabili
Urrunduaz joan,
mailaka alde
egin

Beste aurrizki batzu aipatzearren bakarrik:

Reeditar
Predefinir
Industrializar

Berriz argitara
eman
Aurretik erabaki
Lantegiak jaso

Orriak eta orriak bete daitezke honelakoz. Begien bistan dago jokabide honekin dudatzekoa dela hizkuntza ala hanburgesak aterako diren.

LEHEN PUNTUA: “Esakerak” eta “azalakerak” berezi beharra. Esaterako, “bizkarrak jaso” esakera berezitzat datorriku belarrira bat ez dela zerbaiten erantzule egiten adierazi nahi denean, baina “lantegiak jaso” ez dugu uste azalkera soil batetik gora pasatzen denik, hau da, “industriatu”ren (“industrializar” esateko “industriatu” harturik) definizio edo esplikazio soil bat. “Larrua kendu”k —larrutzea hitzez hitz ez denean— norbait ezer gabe, sosik gabe uztea sujeritzen dauku, baina “kristau ohiturak kendu”k ez dugu uste ezer apartekorik dadukanik (akaso “kristau belarriak kendu” jarri balitz, zeozer), DESKRISTAUTU-ren definizio edo azalkera soil bat izatea besterik. Hona gainera hiztegiko itzul-ingururik gehienak ez direla esakerak, azalkera hutsak baino.

BIGARREN PUNTUA: Esakeratzat jo daitezkeela emanik ere, ba da oraindik gakorik. Hitz bat ez daiteke, arau jeneralez, esakera batekin itzuli. Esakerek, jakina, beren toki inportantea dadukate edozein hiztegi dezentetan, baina hitzen ondoren gehigarri bezala. Esaterako “responsabilidad”-i eus-

keraz “erantzukizun” jarriko diogula emanik, “Irresponsabilidad” honela letorke hiztegian: Irresponsabilidad = Deserantzukizun (eta beste hitzen bat edo batzu akaso, sinonimoak edo matiz direrentedunak). Hauen ondoren, eta ondo berezirik esakerak: bizkarrak jaso = no responsabilizarse; zorroa inori bizkarreratu = cargar a otro las responsabilidades, etab. etab.

Baina egin ezin daitekeena zera da, “irresponsabilidad”-i euskeraz “bizkarrak jasotze” ezarri eta aurrera. Zailtasunak egiazkoak eta konponbideak ez errazak direla emanik, joera hauxe da, aurrekoarekin batera, hizkuntza bat deskalabratzeko biderik artezena.

II

IN eta DES-en gainetiko esanahiak

IN

IN - BLE

IN aurrizkitzat eta BLE atzizkitzat daramaten hitzak, esaterako “incalculable”. Hauxe da akaso IN-en sailik inportantea. IN-BLE honek EZINA edo EZINTASUNA esan nahi du. Euskeraz hiru era daude ezina adierazteko: EZIN, GAITZ eta EZKOR edo EZ + hitza + OR/KOR. EZIN eta GAITZ berdinki erabil daitezke. Diferentzia dago EZIN-ek ezintasun osoa adierazten duela, GAITZ-ek ordea, berez gaiztasun, zailtasun haundia adieraziko zukeen, baina aski da atzizkien lanean GAITZ-etik harako hitzen zerrendari begirada bat ematea, gehienez berau ere ezintasun osoa adierazteko erabili izan dela ikusteko. EZKOR-i buruz OR-KOR-*ez* atzizkituriko hitzen ukapena besterik ez da. EZ hau batzutan aditzezko gaia-raren eta OR-KOR atzizkiaren artean sartzen da: HILKOR → HILEZKOR, ASEKOR → ASEEZKOR. Bestetzutan EZ bera

lehen-jartzen da: HILKOR → EZHILKOR, ASEKOR → EZ-ASEKOR...

Hiruretatik zein eta nola erabili? GAITZ eta EZIN ezintasuna adierazi nahi den guztian erabil daitezke. EZKOR, ordea, OR-KOR-en ukapena besterik ez denez gero, hitza —gehienean aditza— OR-KOR-ez atzizkitzekoa denean bakarrik erabil daiteke. OR-KOR-en esanahiari eta GARRI-tiko diferentziari buruz, ikus atzizkien lanean OR-KOR-i dagozkion oharrak.

Honetaz gainera kontuan eduki EZIN-ekiko hitzak sustantiboak nahiz adjetiboak izan daitezkeela. Honela HILEZIN berdin daiteke “inmortal” nahiz “inmortalidad”. GAITZ-i eta EZKOR-i ordea TASUN erantsi behar sustantibo abstraktoa adierazteko: ATZEMANGAIZTASUN; HILEZKORTASUN, EZ-HILKORTASUN.

Hau honela lehenengo sailean GAITZ eta EZIN-dun hitzak datoz. Erdal hitz bakoitzari biak ezartzeak ez du esan nahi biak zaizkigula berdin, praktikan, kasu bakoitzean, bata edo bestea egokiago gerta baitaiteke, baina ez dugu aurkitzen nolabait berezteko arau jeneralik, Azkueren hiztegian behintzat, GAITZ-ek ere gehienez ezintasuna adierazten baitu. Berezpiderik onena GAITZ-ek gaiztasuna, zailtasuna eta EZIN-ek ezintasuna adieraztetik letorke. Uste dugu jokabide hauxe dela zentzuzkoen eta emankorren eta honetan abantaila generamakio erderazko IN-BLE-ri.

Incalculable	Incalculable	Incalculable	Kalkulagaitz, kalkula-ezin
Incognoscible	Inconnaissable incognoscible	Incoginizable	Ezagugaitz, Ezagut-ezin
Incomible	Inmangeable	Uncatable	Jan-gaitz, jan-ezin
Incompatible	Incompatible	Incompatible	Elkar-gaitz, elkart-ezin
Incompreensible	Incomprehensible	Incomprehensible	Uler-gaitz, ulert- ezin
Increible	Incroyable	Incredible	Sines-gaitz, sinezt-ezin

Indomable	Indomptable	Untamable, Indomitable	Hez-gaitz
Inmemorial	Inmemorial	Inmemorial	Oroit-gaitz, oroiit-ezin
Inmensurable	Inmensurable	Inmensurable Measure-less	Neur-gaitz, neurt-ezin
Innumerable	Innombrable	Numberless	Zenba-gaitz, zenbat-ezin
Insano Inseparable	Insalubre Inseparable	Insane Inseparable	Berez-gaitz, separa-gaitz,
Insoportable	Insupportable	Insupportable	Jasan-gaitz, eraman-ezin
Interminable	Interminable	Interminable, Endless	Buka-gaitz, buka-ezin amaigabe, azkengabe
Irremisible	Irremisible	Irremisible	Barka-gaitz, barka-ezin, barkagabe
Irrevocable	Irrevocable	Errevocable	Bihur-gaitz, bihurt-ezin, bueltagabe
Inapagable	Inextinguible	Inextinguishable	Itzal-gaitz, amata-gaitz, itzal-ezin
Incontable	Innombrable	Innumerable	Konta-gaitz, konta-ezin
Inescrutable	Inscrutable	Unsearchable	Iker-gaitz, ikert-ezin
Infranqueable	Infranchis	Unsurmountable	Iragan-gaitz, gain-ezin
Insumiso	Insoumis	Disobedient	Makur-gaitz, men-gaitz
Irrealizable	Irrealisable	Unfeasible	Egin-gaitz, egin-ezin
Inaplazable	Inajournable	Unadjournable	Luza-gaitz, luza-ezin
Inasequible	Inobtenable	Unobtainable	Atzeman-gaitz, atzeman-ezin

EZKOR

Esanik dagoenez, EZKOR hau OR-KOR ondo dagoenean bakarrik erabil daiteke. OR-KOR-ek —atzizkien lanean ikus daitekeenez— zerbaiten eta batez ere norbaiten barne propietatea edo joera adierazten du, erderaz BLE atzizkiari —beste batzuren artean— dagokiona. Baina BLE honek sarritan aditzak espezifikatzen duen egintzarako ahalmena, posibilitatea esan nahi du. MOVIBLE → que puede ser movido = MUGI-GARRI → mugitua izan daitekeena. (Hau, jakina, GARRI-ren esanahietarik bat baizik ez da, eta ez ezagunena noski) MUGIKOR, ordea, berez mugitzeko joera edo ahala duena litzateke, erderaz MOVIL edo zerbaitu. Gaztelerez ere sarritan bi atzizki diferentz berezten dira bi esanahiak: TOLERABLE = jasangarri, toleragarri eta TOLERANTE = jasankor, tolerakor. COMPRENSIBLE = ulergarri, konprenigarri eta COMPRENSIVO = ulerkor. Baina nola BLE-k ere biak adieraz ditzakeen, kontu eduki behar OR ala GARRI dagokion. (Ikus atzizkien lanean esanahi hau GARRI-rekin batera dadukaten beste atzizki batzu: KIZUN, GAI, TEKO... etab). Nahiz eta sarritan OR-KOR-en ukapena EZIN-ez eta GAITZ-ez ondo moldatu ahal, dudarik gabe kasu askotan EZKOR-ek bizikiago adierazten du IN-BLE-ren ezintazun intrinsekoa.

Kontuan eduki azkenez GARRI-tik OR-KOR-era bitarteko mugak sarritan ez direla hain garbiak, halaber beraz, GAITZ eta EZIN-etik EZKOR-era ere. Zerrenda hauetan beraz gehienak bietara edo hiruretara datoz, biak edo hirurak jartzeari buruz lehenago ere esanak gogoan edukirik.

Improductivo	Improductif	Unproductive	Ez-emankor, ez-produzikor, ez-produktibo
Incombustible	Incombustible	Incombustible	Erre-ezkor, ez-errekor, erre-gaitz
Incorruptible	Incorruptible	Incorruptible Corruptless	Ustel-ezkor, ez-ustelkor

Incrédulo	Incredule	Incredulous	Sinest-ekzor, ez-sineskor, sines-gogor
Incurable	Incurable	Incurable	Senda-ekzor, senda-gaitz, senda-ezin
Inestable	Instable	Instable	Egon-ekzor, egon- gaitz, desetable
Infalible	Infailible	Infallible	Huts-ekzor, huts-ezin
Inflexible	Inflexible	Inflexible Unbending	Bihur-gaitz, bihurt-ekzor
Inmortal	Inmortel	Inmortal	Ez-hilkor, hil-ekzor, hil-ezin
Insatiable	Insatiable	Insaciable	Ase-ekzor, ase-gaitz
Insensible	Insensible	Insensible	Ez-sentikor, senti-ekzor
Intolerable	Intolerable	Intolerable	Jasan-gaitz, tolera-gaitz
Intolerante	Intolerant	Intolerant	Jasan-ekzor, ez-tolerakor
Invariable	Invariable	Invariable	Alda-gaitz, alda-ekzor, ez-aldakor
Inadaptable	Non adaptable	Unadaptable	Egoki-gaitz, egoki-ekzor, ez-egokior
Incomprensivo	Non comprensivi	Incomprensivē	Ez-ulerkor, konpreni-ekzor
Inconmovible	Inebranlable	Unshakable	Mugi-gaitz, mugi-ezin
Irrompible	Incassable	Unbreakable	Hautsezkor, hauts-gaitz

Akaso gaztelerazko hitzetan egon daiteke dezehastasunik. INCOMPRESIVO-ri, esaterako, EZKOR bakarrik dagokiola argi dago. Beste batzutan ez hain garbi. Baina euskerazko esanahia eta diferentzia bistan dago. Esaterako, "Gaztea sendakor, zaharra senda-ekzor" esakerak esan nahiko luke gazteak berezko joera, erraztasuna dadukala sendatzeko, zaharrak ordea ez dadukala halako berezkotasunik. Honetaz gainera "zaharra senda-gaitz" esaten bada, beste matiz bat ematen zaio, kantzerra senda-gaitz dela esateak lukeen bezala. Alderantziz ordea, gaixo honi erremediorik aurki dakionean, kantzerra

“sendagarri” dela esanen da, gazteleraz “curable”. Eta matiz joko hau bukatzeko, ez litzateke kontradikzio esatea: “kantzerria senda-ezkor baina sendagarri da”.

Aurreko kapituluan zerrenda bat zetorren IN-dun hitzak osoan hartzen zirena, baina batzuri ondoan hitz bera DES-*ez* edo EZ-*ez* aurrizkiturik, hala nola, impersonal = inpertsonal eta ez-pertsonal; incomunicar = inkomunikatu eta deskomunikatu; incontinencia = inkontinentzia eta deskontinentzia. Honekin bistan dago zer esan nahi den, hau da, berdinean DES-*era* joera askoz gehiago dadukagula. Esanik dago, eta zerrendei begiratu bat ematea besterik ez dago, hizkuntza bakoitzak atzizki bakoitzari bere hedadura berezia damaiola. Hitz osoak harreran, IN-en kontra ezer eduki gabe, DES-*i* begikotasun askoz gehiago diogu eta EZ-*i* ere bai ukapena garbi nabari denean. Sail honetakoei buruz ere berdin esan daiteke. Honela estable, probable eta abarri ondo iritziz gero, hauen ukapena edo alderantzitasuna IN-*ez* egin beharrean DES-*ez* ere ondo legoke: Inestable edo desestable, improbable edo desprobable, etab.

Aurrizki honena bukatzeko, sail honetako IN-dunak euskeraz beste hitz aparteko batez itzulirik datoz edo bietara.

Impaciencia	Impatience	Impatience	Ezin-egon, inpazientzia
Impaciente	Impatient	Impatient, Restless	Urduri, inpazient
Imposible	Impossible	Impossible	Ezinezko, imposible
Indeciso	Indecis	Indecisive	Ezbaiti, ezbaikor
Infecundo	Infecund	Infecund, barren	Agor, antzu
Insubstantial	Insubstantiel	Unsubstantial, inane	Gatzgabe, gesa
Inapetente	Atteint d'inappetence	Inappetent	Jangar, jakan

DES

1) Dakusagun orain DES-en falta den beste sail inportante bat. Hemen DES-ek kanpora atera esan nahi du: DES-HOBITU = hobitik kanpora atera; kanpora irten: DESBIDE-

TU = bidetik kanpora irten; zerbait atera, kendu edo aparatatu: DESHILTZATU = hiltzeak atera edo kendu; DESKORTXATU = kortxoak atera edo kendu; DESDITTU = ditia kendu edo utz arazi; DESKOROATU = koroa kendu... etab. Ikusten denez, elkarren antz antzeko matiz mordo bat. Dударik gabe DES da aurrizki nagusia hemen. Sail hau eta aurreko kapituluko DES bigarrena batez ere oso antzekoak dira izan. Beraz banaketa honi nahikoa arbitrario iritz dakikeo, hemengo batzu han eta alderantziz sar baitaitezke. Baina kidesatunen barrrenean diferentziak ere ba daude sailetik sailera, ez akaso hitzetik hitzera.

Descargar	Decharger	To unbat To discharge	Deskargatu, deзамату
Descarrilar	Derailler	To derail	Deserraildu
Descentrar	Decentrer	To decenter	Dezentratu
Desembolsar	Debourser	To disburse	Desboltsatu
Desoxidar	Desoxider	To deoxidize	Desoxidatu
Desplazar	Deplacer	To displace	Desplazatu, deslekutu
Desviar	Devoyer	To deviate	Desbidetu
Desalinear	Faire perdre la ligne droit	To destroy the lineation	Deslerrotu, desiladatu
Desasosegar	Inquieter	To disquiet	Desosegatu, desbaretu
Descercar	Declore	To unfence	Deshesitu
Descerrajar	Deverrouiller	To take off the lock	Dezerrailatu
Descorchar	Deboucher	To uncork	Deskortxatu
Desencapotar	Oter le capote	To uncloak	Deskapotatu
Desenvainar	Degainer	To unsheate	Deslekatu
Desorbitarse	Sortir de son orbite	To get out of orbit	Desorbitatu
Destetar	Sevrer	To wean	Desdittu, desugaztu
Destornillar	Devisser	To unscrew	Destornilatu
Destripar	Etriper	To (un) bowel	Destripatu, deshestetu
Desuncir	Deteler	To unyoke, to disyoke	Desuztatu

2) Beste bi atzizki daude DES-en ikus berri dugun esanahia bera dutenak: EX eta EXTRA.

EX

Aurrizki honen esanahietarik bat hain zuzen “kanpora atera”, “kendu” etab da.

Excarcelar	Desprisonner	To dis(im)prison	Desgartzelatu
Exclaustrar	Defroquer	To secularize	Desklaustratu
Excomulgar	Excomunier	To excommuni- cate	Deskomekatu
Exfoliar	Exfolier	To exfoliate	Orritu, desorritu
Exhumar	Exhumer	To exhume, to unbury	Deshobitu
Expatriar(se)	Sexpatrier	To expatriate	Desaberritu
Expropiar	Expropier	To expropriate	Desjabetu, espropiatu

Ikusten denez, EX guztiak DES bihurtu ditugu. Esanahi honetan ez dago EX hartu beharrik DES baita askoz geureago eta esankorrago. Begira “excarcelar”en nola frantsesak eta ingelesak ere DES era jotzen duten. Beste atzizki askotan ere gertatzen da hau, hizkuntza bakoitzak atzizkiekin bere gisa eta libreki jokatzeko duen agergerri.

EXTRA

Aurrizki hau adierazteko modurik erabilienak euskeraz KANPO eta AT aditz-lagunak izan dira, era nahikoa onargarriak irtenik: legez-kanpoko, arauz-ateko etab. Nahikoa onargarriak esatean, kontuz zer ulertzen den. Ez diogu inola ere legez-kanpoko berez gaizki dagoenik, baizik adjetibo bakarizat, gaztelerazko “extralegal”en kideztat onargarri ote den. KANPOKO-ren aurreko sustantiboa bada eta bere aldetik beste atzizkiren bat badarama, gauza konplikatu da. Honela “extraoficial” adjetiboa sustantibotuz, hau da, TASUN erantsiz egiten da sustantiboa. Baina adjetiboa sustantiboturik sorturiko adjetibo berria berrira sustantibotu nahi bada (akerrak-adarrak-okerrak-ederrak-akerrak...), orduan konplikatuz ez ezik berunak funditzen dira. Extraoficialidad = ofizialtasunez-kanpokotasun... Era hauk ez dadukate irtenbiderik, hitz joakoak egiteko-edo ez bada.

Eragozpen intrinseko hauei hizkuntza nagusi guztiek onartu dutela gaineratuz gero, EXTRA euskeraz ere onartu beharreko aurrizkia da, EXTRA-OFIZIALTASUN etab geraturik. Ez litzateke nabarbenkeria euskal egitura hutsezko adjetiboeri ere EXTRA aurrizkitzea: LEGEZKO-EXTRA-LEGEZKO, etab.

Extraconstitucional			Extra-konstituzional
			Extra-konstituziozko
Extrajudicial	Extrajudiciel	Extrajudicial	Extra-judizial
Extralegal	Extra-legal	Illegal	Extra-legezko, deslegezko
Extralegalidad			Extra-lege, deslege, extra-legetasun, deslegatasun
Extraoficial		Extraofficial	Extra-ofizial, desofizial
Extraoficialidad			Extra-ofizialtasun
Extraterritorial		Extraterritorial	Desofizialtasun
			Extra-territorial
Extraterritorialidad	Extraterritorialité	Extraterritoriality	Desterritorial
			Extraterritorialitate
Extraparlamentario	Extra-parlamentaire		Desterritorialitate
			Extra-parlamentari
			Extra-parlamentuzko
Extraordinario	Extraordinaire	Extraordinary	Desarrunt
Extraviar	Fourvoyer	To mislead	Desbidetu

Ikusten denez, EXTRA-rekin batera dabil DES ere. DES egoki datorren guztian, DES-era jotzen dugu, batez ere EX, EXTRA eta honelako aurrizki kazkarrak direnean.

3) DES-en beste bi sail datoz orain, aurrizkiaren esanahiaz beste irizpide batekin bereziak.

a. Hitz asko dago hargatik edo honegatik osoan hartu beharrekorik, DES aurrizkitik aparte. Esaterako destino, destilatu, dimititu... hartzerakoan, etimologiarako bakarrik kontsidera daiteke aurrizkia, baina hemen ez zaiku etimologiarik axola eta hitza osoan hartzen da. Beste htz batzutan etimolo-

giatik aparte ere aurrizkia aisa berezteko moduan dago, hala esaterako, disimetria = di - simetria, distentsio = dis - tensio, etab. Baina nola esanik baitago euskal aurrizki solte eta autonomotzat DES bakarrik hartu behar dela, kasurako hauk ere osoan hartzea bezala da.

Declamar	Declamer	To declam	Deklamatu
Declarar	Declarer	To declare	Deklaratu
Deducir	Deduire	To deduce	Deduzitu
Defender	Defendre	To defend	Defenditu
Definir	Definir	To define	Definitu
Degradar	Degrader	To degrade	Degradatu, desgradatu
Depreciar	Deprecier	To depreciate	Depreziatu
Destilar	Distiller	To distil	Destilatu
Devaluar	Devaluer	To devalue	Debaluatu
Difamar	Diffamer	To defame	Desfamatu
Diferencia	Difference	Difference	Diferentzia
Difracción	Diffraction	Diffraction	Difrakzio
Dilatar	Dilater	To dilate	Dilatatu
Dimensión	Dimension	Dimension	Dimentsio
Disertar	Dissertar	To dissertate	Disertatu
Distancia	Distance	Distance	Distantzia
Distensión	Distension	Distension	Distentsio
Divergente	Divergent	Diverging	Diberjente
Divertir	Divertir	To divert	Dibertitu
Divorcio	Divorce	Divorce	Dibortzio
Desarrollo	Developpement	Development	Desarroilo, debelopamendu
Diferir	Differer	To delay	Diferitu
Dimitir	Se demettre	To resign	Dimititu
Disimetría	Dyssymmetrie	Unsimetry	Disimetria
Disonar	Dissonner		Disonatu
Disparar		To discharge	Disparatu

b. Zerrenda honetako hitzak aurrizkitik aparte euskera-zen ditugu, beste hitz independente batez, nahiz eta batzutan biak imini. Honelako hitzak asko dira eta honela euskeratzean ez da DES-en gutiespenez, kasu hauetan euskeraz hitz egokirik ba dela usterik baino. Alderantziz ere hamaika euskerazko DES-dun sortuko da beste hizkuntzek beste bide batetik itzuli beharko dutena.

Decaer	Dechoir	To decline, to decay	Erori...
Desaprobar	Desapprouver	To disapprove	Gaitzetsi
Desnudar	Denuder	To desnude, to undress	Biluztu
Desplumar	Deplumer, plumer	To deplume, to unplume	Lumatu
Desposeer	Deposeder	To dispossess	Gabetu
Desunir	Desunir	To disunite, to unjoint	Banatu
Discriminar	Discerner	To discriminate	Berezi, diskriminatu
Disculpa	Excuse	Excuse	Atxakia
Discutir	Discuter	To discuss	Eztabaidatu
Disgregar	Desagregar	To disperse	Sakabanatu
Disgusto	Degout	Disgust, sorrow	Atekabe, desgustu
Dislocar	Disloquer, desboiter	To dislocate	Trokatu
Disolver	Dissoudre	To dissolve	Urtu
Dispensar	Dispenser, exempter	To dispense with	Azketsi, dispentsatu
Disponer	Disponer, arranger	To dispose	Atondu...
Distorsión	Distorsion	Distorsion	Bihurdura
Distribuir	Distibuer	To distribuite	Banatu
Decaptar	Decapiter	To behead	Buru-moztu
Degollar	Egorger	To behead	Lepa-moztu, deslepatu
Desalar	Dessaler		Gesatu, desgazitu
Desayuno	Dejeuner	Breakfast	Gosari
Descanso	Repos	Rest	Atsedon
Descornar	Decorner, ecorner	To dishorn	Adar-moztu, desadartu
Descreído	Incredule	Incredulous	Sinesgaitz, sines-gogor
Descuartiza)	Ecarteler	To quarter	Zatikatu, birrindu
Desfallecer	Defaillir	To faint	Unatu...
Desgranar	Egrener	To thrash	Aletu, garautu
Desinflar	Desenfler	To deflate	Ertu, despuztu
Deslizar	Glisser	To slip	Lerratu
Desmentir	Dementir	To give the lie	Gezurtatu
Desmoronar	S'ebouler	To fall down	Lur-jo, gain-beheratu
Desollar	Ecorcher	To skin	Larrutu
Despedir		To see off	Agurtu, despeditu
Despeñar	Precipiter	To precipitate	Amildu
Desprecio	Mepris	Disregard	Arbuio, mesprexu
Difluir	Se repandre	To spread out	Isuri, hedatu
Disfrute	Jouissance	Enjoyment, use	Gozamen
Disidir	Faire dissidence		Saihestu

d. Azkenez euskal aurrizkirik inportanteen honen kon-
tuak bukatzeko, DES-ek beste hizkuntzetan baino zabalpen ge-
hiago eduki dezake akaso euskeraz. Ikusi da EX, EXTRA, IN
eta oraindik agertuko diren beste batzu ahal den guztian DES-
ez euskeratzen ditugula. Ez bakarrik hau, baizik DES-ek ba
du bide arlo arras propiorik eta diferenterik zabaltzeko eus-
keraz, naturaltasun guztiz gainera. Honela es litzateke bat ere
gehiagikeria honelako hitzak erruz sortzea. Ez zaiku orain
axola gatzeleraz nola itzul litezkeen pentsatzen hastea.

Desneke	Desaitortu
Desatseden	Desulertu
Desugaldu	Desoharmen
Desurritu	Desaditu
Deshornitu	Deseragin
Desarindu	Desharrotu
Desastundu	Desgailendu
Deslekartu	eta abar eta
Deskonorte	abar eta abar.

III

Hiru aurrizki batzen ditugu hemen beren esanahietarik
bat “bigarren”, “ondoan” edo “aurrez aurre” egotea dena. Ho-
na sailak:

CONTRA

Contradique	Contre-digue Contre-remblai	Counter-dike	Kontra-dike, Bir-dike
Contramarca	Contre-marque	Countermark	Kontra-marka, bir-marka
Contraprueba	Contre-epreuve	Counterevidens	Kontra-froga, bir-froga
Contracarril	Contre-rail	Chack rail	Kontra-errail, bir-errail

Contrapuerta	Contre-porte	Inner large door	Kontra-ate, bir-ate
Contratuerca	Contre-ecrou	Lock-nut	Kontra-torka, bir-torka
Contraventana	Contre-fenetre	Shutter	Kontra-lehio
Contra canal	Soigne d'un canal	By-channel Counter drain	Kontra-kanale, bir-erreten
Contrafile	Contre-pointe	Back edge	Bir-aho
Contraalmirante	Contre-admiral	Rear-admiral	Kontra-almirante, kontra-admiral
Contraclave	Contre-clef	Voussoir	Kontra-giltza
Contra costa	Cote opposée		Kontra-kosta
Contra danza	Contre-danse	Country-danse	Kontra-dantza
Contra figura		Double	Kontra-figura
Contra muelle			Kontra-kai
Contra muro	Contre-mur	Counter-mure	Kontra-murru

SOBRE

Sobreañadir	Saraiouter	To superadd	Bir-erantsi
Sobrecenar	Reveillonner		Bir-afaldu
Sobrecerco		Welt	Bir-hesi
Sobrecuello	Rabat	Coller	Bir-lepo
Sobrefalda		Over skirt	Bir-gona, gain-gona
Sobrellave	Second serrure	Double key	Bir-giltza
Sobresello	Second sceau	Double seal	Bil-sigilu

RE

Recámara	Garderobe	Ward-robe	Bir-ganbara
Recocina		Back kitchen	Sukalondo, Bir-sukalde

RE-dunak esanahi honekin akaso gehiago ongen dira, baina kasurako berdintsu da.

OHARRAK

A) Lehenengo puntua da hiru erderek KONTRA-n bakarrik daramatela paretasunik (CONTRA, CONTRE, COUNTER) eta bertan ere ez sarri. Gainetikoetan nork bere gisa di-

harduka. Honek esan nahi du hitz sailak gazteleratik gabe frantsesetik edo batez ere ingelesetik egitera, beste sail klase batzu aterako ziratekeela.

B) Nolanahi den, euskeraz azaldu nahi dugun konzeptoa argi dago. Ikusten denez, batez ere KONTRA eta BIR erabiltzen ditugu.

KONTRA onartzea bistako iruditzen zaiku:

1. Gure preposiziotzat dudarik gabe dadukagulako.
2. KONTRA-ren esanahietarik bat euskeraz haxe delako hain zuzen. Bizkaian behintzat “horma kontran egon”, “kale kontran bizi” etab gazteleraz “cerca” edo “junto a” dira.
3. Beste hizkuntza nagusiek ere osoan hartu dute, hala preposiziotzat nola aurrizkitzat.

KONTRA-ren kontra ezer dadukanak, ez daduka zeren alde egin askorik.

D) BIR-en kasua eztabaidagarriago da, nahiz eta asko akaso BIR, euskal aurrizki garbia dela-eta, edozertarako hartzeko prest egon, KONTRA ordea, arrotza dela-eta, gaitzetsirik, BIR-ek latineko BIS-ekin KONTRA-k latineko CONTRA-rekin haina zer-ikusi ez balu bezala.

Baina jatorri kontu ergelok alde batera utzirik, BIR-en alde arrazoi asko ikusten da.

1. BIR honi aurrizki bezala ahalik eta zabalpiderik gehien eman behar zaio, aurrizki esankorra bezain emankorra delako.

2. Ez da aurrizki honi bideak derrigor ireki nahi izatea bakarrik. Arrazoirik haundiena da esanahi honekin BIR oso erabilia izan dela eta dela. Gertatzen dena hitz batzuri loturik geratu dela, erdi-fosildurik, soltura apur batez eduki zitzakeen posibilitateak galdurik. Fosilmendu kontu hau euskal atzizki askotan ere gaitz zaharra da, gurpil zorotik atera ezinik: hala daude hizkuntza dagoen bezala dagoelako, eta hizkuntza hala

dago bere baliakizunak hala daudelako. Izan ere bir-amona, bir-arto, birloba (biloba - iloba), bir-hari, bir-lora, bir-esku, bir-aitoa, bir-gari, bi-behar (= bir-behar), bi-belar (= bir-belar) etab (ikus hauk Azkueren hiztegian) hain naturalki esan dituen jendeak zergatik ez berdin esan bir-marka, bir-errail, bir-froga, bir-ate, bir-gona, bir-giltza, etab?

3. Bidezko denez, ez ditugu hitz bererako baliakizun biak erabiliko, nahiz eta zerrenda hauetan biak imini batzuri. Noiz bata eta noiz bestea hiztegia egiterako kontua da. Hemen axola zaikuna biak direla egokiak eta jeneralki BIR-ek hedadura eta posibilitate gehiago dadukala esanahi honetarako.

4. Hitz batzutan bat nahiz beste antzera ondo egon arren, bi aurrizkiok oso diferenteak direla dudarik ez dago. Esanahi honetan kointzidentzia bat edo konzeptoen ahaidetasun bat gertatzen dela soilki. Baina berton ere aisa berez daiteke, jeneralki behintzat, bata-besteengandiko aldea. Hala esaterako, "contraventana"ri KONTRA-LEIHO bakarrik zaio, eta ez BIR-LEIHO. Ez da deskuidoa, apropos baizik. Izan ere "bir-leiho" ez litzateke gaztelerazko "contraventana", hau da leihoa babes-teko zurezko edo zerbaitezko orria, beste leiho bat baizik, leiho printzipalaren ondoan edo aurrean dagoena, baina leiho beti. Berdin lirатеke bir-horma, bir-teilatu, bir-ximini etab.

5. Azkenez BIR honen "bigarrentasuna" materialki gabe, zabalki hartu behar da, hau da zerbait lehenagokori edo zerbait printzipalagori nolabait erreferentzia egiten diona. Bestalde hizkuntza lege elementala da hau baliakizun bat fosilmentutik atera nahi denean, edo alderantziz hobeto akaso, edozein aurrizkik edo atzizkik honelaxe jokutzen du fosildurik ez badago. BIR-en kasuan ere, beraz, berdin ondo leudeke honelako hitzak: bir-arrazoi, bir-lege, bir-jainko, bir-gizon etab etab, hauetako "bigarrentasunak" fisikoaz beste erlazio modu bat duelarik.

IV

CONTRA - ANTI

CONTRA: Hauxe da aurrizki honen sail nagusia. Hemen oposizio garbia, antagonismoa adierazten du. Aurreko sailean aurrizkitzat dudarik gabe onartu badugu, hemen arrazoi gehiagoz. Bestalde aurrizki hau euskeratzeko erabili ohi diren era guztiak —hitz elkartuen, esakeren edo inguraketen bidez— ez dadukate irtenbide haundirik. Iraupide bakarra dute erabiltzaileok asper gaitzen arte, eta ba liteke oraindik epea luzatzea, euskaldunok nekez aspertzen baikara alferreko eta ganorra gabeko inguraketak egiten.

Contraataque	Contra-attaque	Counter-attack	Kontra-atake
Contraaviso	Avis contraire	Counter-notice	Kontra-abisu
Contrabajo	Contre-basse	Contre-bass	Kontra-baxu
Contrabatería	Contre-batterie	Counter-battery	Kontra-bateria
Contracorriente	Contre-courant	Counter-courrent	Kontra-korronte
Contradecir	Contredire	To contradict	Kontra-esan
Contragolpe	Contre-coup	Counter-stroke	Kontra-kolpe
Contrahacer	Contrefaire	To counterfeit	Kontra-egin
Contraorden	Contre-ordre	Countermand	Kontra-agindu
Contrapeso	Contrepoids	Counter-weight	Kontra-pisu
Contraproyecto	Contreprojet		Kontra-proiektu
Contrapunto	Contrepoint	Counterpoint	Kontra-puntu
Contrarreforma	Contre-reforme	Counter-Reformation	Kontra-erreforma
Contrarrevolución	Contre-revolution	Counter-revolution	Kontra-erreboluzio
			Kontra-iraultza
Contraseña	Contre-marque	Countermark	Kontra-seinu
Contraveneno	Contrepoison	Counter-poison	Kontra-pozoin
Contrapaso	Contre-pas	Back-steam	Kontra-pausu
Contraoponer		To oppose	Kontratu, oposatu
Contraseguro	Contre-assurance		Kontra-seguru
Contrasentido	Contre-sens	Counter-sense	Zentzugabekeria
Contratorpedero	Contre-torpilleur	Destroyer	Kontra-torpilari
Contravapor	Contre-vapeur	Back step	Kontra-bapore
Contra caja			Kontra-kutxa
Contrafirma			Kontra-firma
Contrafuero	Infraction a un "fuero"	Infringement of a charter	Kontra-foru
Contranatural			Kontra-natural
Contraacusación	Contre-accusator		Kontra-salapen

Contraestructura		Kontra-akusazio
		Kontra-egitura
		Kontra-estruktura
Contrafuego	Contre-feu	Kontra-su
Contra-recio		Kontra-prezio
Contravalor	Contre-valeur	Kontra-balio

Zerrenda honetan agiri denez, hiru erdal hizkuntzak oso batera dabilta gehienez aurrizki honi buruz. Baina hiztegiei begirada bat botatzea besterik ez dago hizkuntza bakoitzak aurrizki honekin arlo komunalez gainera bere barruti berezia damaiola ikusteko. Gaztelarazko CONTRA-dun askok ez darduka kide parekorik frantsesez eta ingelesez, eta alderantziz. Honek ez du KONTRA euskal aurrizkitzat hartzeko ezer kentzen, arau jenerala baitesten baizik, alegia, hizkuntza bakoitzak aurrizki bakoitzari bere jite eta hedadura propioa ematen diola eta euskerak ere beste hainbeste egin behar duela.

ANTI: Aurrizki honek ere, KONTRA-k bezala, oposizioa, kontratasuna adierazten du. Batzutan bi aurrizkiok gurutzatu egiten dira hizkuntza batetik bestera. Lehenago esanik daudenekin hau ez da bat ere berri.

1. Sail honetan sustantiboak datoz. Hauen egikera erraza da, sustantiboari ANTI lehen-jarri, beste hizkuntzetan bezala.

Anticiclón	Anticyclone	Anticyclone	Anti-zikloi
Anticuerpo	Anticorps	Anti body	Anti-gorputz
Antídoto	Antidote	Antidote	Antidot
Antiliberalismo	Antiliberalisme		Anti-liberalismo
Antilogía	Antilogie	Antilogy	Antilogia
Antimilitarismo	Antimilitarisme	Antimilitarism	Antimilitarismo
Antinomia	Antinomie	Antinomy	Antinomia
Antipapa	Antipape	Antipope	Anti-aitasandu
Antimpirina	Antinpyrine	Antinpyryin	Antipirina
Antípoda	Antipode	Antipode	Antipode
Antisepsia	Antisepsie	Antisepsy	Antisepsia
Antítesis	Antitoxine	Antithesis	Antitetsis
Antitoxina	Antithese	Antitoxin	Antitoxina
Antifermento	Antiferment		Anti-orantza
			Anti-fermentu
Antigas		Gas mask	Anti-gaz
Antitanque		Antitank	Anti-tanke
Anticloro			Anti-kloro
Antimateria			Anti-materia
Antineutrón			Anti-neutroi

2. **ADJETIBOAK:** Berez hauetan ere aurrizkiaren alde-tik ez dago eragozpenik, adjetiboen beren egikeran baino. Esaterako “humano” adjetiboa euskeraz GIZA-tik ateratzekotan, nola esan, giza + marratxo eta hitza (giza-lege eta abar), gizazko, gizakoi, gizakor, gizatiar, gizabera, gizatsu...? Soluzioa ez da batek besteak eliminatzea —batez ere bakoitzak bere anbito berezia baitaduka— urritasunari bide emanaz, baina ez eta aberastasuna delakoaren izenez, hauzia lanbrotasun berezga-bean utzi ere. Euskeraz hemendik dago akats haundia, hots, erderaz “humano” bezain adjetibo arrunt bat —denek berdin esana— euskaraz anitz era diferentetara ikusten dela. Hala ere hau atzizkietako kontua da. Hemen axola zaikuna da zeinnahi adjetibo hartu, aurretik ANTI jartzea besterik ez dagoela. “Antihumano” aurkitzean dudak sortzen badira, ez da ANTI-gatik, “humano”gatik baino. Beraz posibleetarik bat harturik, esaterako GIZAKOI, ANTI lehen-jartzea besterik ez dago, ANTI-GIZAKOI geraturik.

a) Sail honetan hitz batzuri bi euskal kide jartzen zaizkie, bata komuna bera eta bestea euskal atzizkiren batez osatua. Beste batzuri bat bakarrik, euskal atzizkiren batez osatua.

Antiaereo	Antiaerien	Anti-air craft	Anti-airezko
Anticatarral	Anticatarrrhal	Anticatarrrhal	Anti-katarrozko, anti-katarral
Anticonceptivo	Contraceptif	Contraceptive	Anti-sorgailu, anti-haur
Anticonstitucional	Anticonstitution- nel	Unconstitutional	Antikonstituzioz- ko, -nal
Antihumano	Antihumain		Anti-gizakoi, anti-gizazko...
Antilegal	Antilegal	Illegal	Anti-legezko
Antipatriótico	Antipatriotique		Anti-abertzale
Antirreglamen- tario	Antireglementaire	Against the rules	Anti-arauzko, anti-erregelazko
Antivenenoso	Antiveneneux	Antivenenian	Anti-pozointsu
Antiartístico	Antiartistique	Unartistic	Anti-artezko, anti-artistiko
Antimonárquico	Antimonarchique	Antimonarchical	Anti-monarkiko, anti-monarkiar
Antireligioso	Antireligieux	Antireligious	Anti-erlijioso, anti-erlijiozko
Antitetánico	Antitetanique	Antitetanic	Antitetaniko, anti-tetanozko

Antiesclavista	Antiesclavagiste	Emancipationist	Anti-esklabista, anti-esklabotar
Antievangélico	Antievangelique		Anti-ebanjeliko, anti-ebanjeliozko
Antigramatical		Ungramatical	Anti-gramatikal, anti-gramatikazko
Antiguberna- mental	Antigouvernementel		Anti-gobernuzko, anti-gobernutar
Antinatural		Unnatural	Anti-natural, anti-naturazko
Antirrepublicano	Antirepublicain		Anti-errepublikao anti-errepublikar
Anticolérico			Anti-goleriko, anti-kolerazko

Zerrenda honetan euskal atzizkiz osaturiko hitzak gogor edo erraro samar egiten badira, ez da noski ANTI-gatik —nahiz eta askok honixe egin muzinik garratzenak— ondoko hitza edo hitzaren egikera baizik, “humano”ri buruz esana bera gertatzen baita besteetan ere. Izan ere euskeraz adjetiboen egikera da eten gabe topo egiten dugun puntu gaitzetarik bat. Arrazoi haundietarik bat gure atzizki adjetibo-egileen ugaritasuna da. Bigarren arrazoi nagusia da atzizkiek zaulitasuna, soltura hartuz joan beharrean, mugaturik, hesiturik utzi ditugula, bakoitzari bere arlotxo izendaturik, zehaztasun gaizki ulertuaren izenean. Beste arrazoirik ere ba dago adjetiboen egikerako puntu gaitz honi buruz, baina hau kontu luzeak lirateke eta ez noski hemengoak. Orain axola zaikun bakarra da adjetibo erraro samar hauengatik ez dadila ANTI aurrizkia gaizki atera, hori ez baita ANTI-ren erru, ondoko adjetiboena baizik.

b) ANTI-ri laguntzen dion adjetiboa beste hizkuntzeta-koa bera denean, ez dago problemarik.

Antialcohólico	Antialcoolique	Antialcoholic	Anti-alkoholiko
Anticlerical	Anticlerical	Anticleridal	Anti-klerikal
Anticristiano	Antichretien	Antichristian	Anti-kristau
Antihistórico	Antihysterique	Antihysterick	Anti-histeriko
Antiministerial	Antiministeriel		Anti-ministerial
Antineurálgico	Antineuralgique	Antineuralgic	Anti-neuraljiko
Antipoético	Antipoetique		Anti-poetiko
Antisemita	Antisemite	Anti-semite	Anti-semita
Antisocialista	Antisocialiste	Antisocialist	Anti-sozialista
Antiestético	Antiestetique	Unsghtly	Anti-estetiko

Antimoral
Antisubmarino
Antiimperialista

Anti-moral
Anti-submarino
Anti-imperialista

V

RE - EX : INDARTZAILEAK

RE: Sail honetan RE indartzaile da edo gehitzaile. Batzutan ez du ezer gehitzen, adjetibo bat aditz bihurtzen baizik. Hala “rejuvenecer” ez da “berriro gaztetu” edo “gazteagotu” “gaztetu” soilki baizik. Gaztetu eta gazteagotu ez dira izatez berdinak, baina hau euskeraren kontua da.

Ba dirudi frantsesak eta ingelesak aditzetan bakarrik dabilabela indartzaile hau, ez ordea adjetiboetan gaztelerak bezala: reagudo, resalado, etab.

Euskeraz bost era ikusten ditugu indartzailatzat.

1. Erarik arruntena aditz-lagun batez: xit, arras, oso, guztiz... xit zorrotz, guztiz on, etab.

2. Hitza errepetituz: gazi-gazi, bel-beltz, uka eta uka, etab.

3. Aditzetan era konparatiboa: gazteagotu, sendoagotu, etab.

4. Aditzetan KA frekuentatiboa sartuz: ikuskatu, ehokatu, azterkatu, etab. Hau jakina, ez dago edozein aditzi sartzerik. Berdin KETA sustantiboetan: Harrapaketa, bilaketa, etab.

5. BIR ere erabil al daiteke indartzailatzat? Baietz esan daiteke. Ez litzateke gainera gazteleraren itzulpen literala, gauzak berez dakarrena baizik. Izan ere berriztasunetik indartasunera salto tipia dago. “Bi bider edo berriro etorri” eta “bi bider gordinago izan” elkarrengandik xit hurbil daude. Zuzen bezain jator daude beraz honelako esanak: sua bizituz eta berbizituz zihoan; gauzak beltz ez ezik bir-beltz daude; uka eta

bir-uka; gazi nahiz bir-gazi... etab. Dударик gabe BIR-ek posibilitate berri haundiak daduzka.

Sail honetakoak, bada, RE aurrizkitik aparte euskeratzen dira gehienak. BIR azal berri dugun esanahiaz guti agertzeak ez du esan nahi aplikazio guti dadukanik. Gertatzen dena BIR-ek bere arlo propioa edukiko lukeela RE-tik aparte eta segur asko askoz zabalagoa. Erderatik euskerara ibiltzearen eragozpenak.

Reafirmar	Reaffirmer	To reaffirm	Sendoagotu, bir-baitetsi
Reagravar	Aggraver, empire	To aggravate a new	Astundun, bir-astundu
Reagudo	Tres aigu	Very acute	Xit zorrotz, bir-zorrotz
Reavivar	Raviver	To revive	Bizitu, biziagotu, ber-bizitu
Rebusca	Recherche	Research	Bilaketa
Recrudecer	Redoubler	To recrudescence	Gordindu, gordinagotu
Reforzar	Renforcer	To strengthen	Indartu, sendoagotu
Reblandecer	Ramollir	To soften	Bigundu
Rejuvenecer	Rajeunir	To impart youth	Gaztetu
Remirar	Reflechir	To review	Ikuskatu
Remoler	Remoudre	To grind excessively	Ehokatu
Revolcarse			Iraulkatu
Repleto	Replet	Replete	Bete-bete, xitbete, bir-bete
Requemar	Surchauffer	To reburn	Kiskali
Resalado	Tres salé	Very salty	Gazi gazi, bir-gazi, xit gazi
Retostar	Rotir de nouveau	To toast again	Xigortu, bir-erre
Retumbar	Retentir, resonne	To resound	Burrunbatu
Reverdecer	Reverdir	To reverdure	Berdatu
Revivificar	Revivifier	To revivify	Bizkortu, zuzpertz
Renovar	Renouveler	To renew	Berritu
Remojar	Detremper	To steep, to imbue	Beratu
Renegar	Renier	To deny, to abnegate	Ukatu, arnegatu
Refrescar	Refraichir	To refresh	Freskatu
Recontento	Tres content	Very pleased	Poz-pozik, xit-pozik, bir-pozik

EX ere batzutan, RE bezala, indargarri da, nahiz eta zerrenda honetako hitz askori ezer apartekorik ezartzen ez. Nolanahi, ez daduka inportantzia haundirik eta indartzaile denean RE-ri buruz esanek berek balio dute hemen ere. Indartzaile ez denean euskal hitz batez itzuli edo bera hartu.

Exacerbar	Exasperer, irriter	To exacerbate	Sumindu,
Excandecer	Exasperer	To irritate, to	gaizkoatu
Excavar	Excaver	enrage	Sutu
		To excavate	Eskabatu
Exclamar	Exclamer	To exclaim	Oihuztatu, hots egin
Exornar	Orner	To adorn	Adelatu, apaindu
Explanada	Esplanade, glacis	Platform, glacis	Lautada
Expalanar	Niveller	To explain	Lautu
Expurgar	Expurger	To expurgate, to expurge	Garbitu, espurgatu
Exudar	Exsuder	To exude	Izerditu
Exulcerar	Exulcerer	To exulcerate	Ultzeratu

RE - EX-en GAINETIKO ESANAHIK

RE: a) Sail honetan RE-k berriztasuna, errepetizioa adierazten du. Hauxe da aurrizki honek sailik inportanteena. Euskaraz dudarik gabe dagokiona eta ahalik hedadurarik gehien eman behar zaiona BIR da.

Readmitir	Readmettre	To readmit	Bir-ametitu, bir-onartu
Reanudar	Renouer	To renew	Bir-hasi
Feargüir	Redarguer, retorquer	To redargue	Bir-arguditu
Rearmar	Rearmer	To rearme	Bir-harmatu
Recobrar	Recouvrir	To recover	Bir-kobratu
Recomponer	Recomposer	To recompose	Bir-konpondu
Redescuento	Reescompte	Redicount	Bir-deskontu
Reeditar	Reediter	To reedit	Bir-argitaldu, bir-editatu
Reelegir	Reelire	To reelect	Bir-hautatu
Reembarcar	Rembarquer	To reship, to re-embark	Bir-enbarkatu,

Reencarnar	Reincarner	To reincarnate	Bir-gizatu
Reengendrar	Engendrer	To regenerate	Bir-sortu,
	de nouveau		bir-jeneratu
Reexaminar	Examiner	To re-examine	Bir-azertu,
	de nouveau		bir-esaminatu
Reflorecer	Refleurir	To reflourish	Bir-loratu
Rehabilitar	Rehabiliter	To rehabilitate	Bir-gaitu,
			bir-habildu
Reimprimir	Reimprimer	To reprint	Bir-irarri,
			bir-inprentatu
Repetir	Repeter	To repeat	Bir-esan,
			errepetitu
Replantar	Replanter	To replant	Bir-landatu
Retraducir	Retraduire	To retranslate	Bir-itzuli
Revivir	Revivre	To revive	Bir-biztu
Reabrir	Rouvrir	To reopen	Bir-ireki
Reaparecer	Reapparaître	To reappear	Bir-agertu
Reatar	Rattacher	To tie again	Bir-lotu
Recaer	Retomber	To relapse	Bir-erori
Recocer	Recuire	To cook again	Bir-egosi
Recoser	Recoudre	To sew again	Bir-josi
Recubrir	Recouvrir	To over lap	Bir-estali
Redorar	Redorer	To regild	Bir-urreztu,
			bir-urreztatu
Reedificar	Reedifier,	To rebuilt	Bir-eraiki
	Rebatir		
Reeducar	Reediquer	To train	Bir-hezi
Reenviar	Renvoyer	To send again	Bir-bidali
Refreír	Fríre de nouveau	To fry again	
	ou excessivement	(excessively)	Bir-frijitu
Rehacer	Refaire	To repaire	Bir-egin
Rehervir	Rebouillir	To boil again	Bir-irakin
Reincidir	Recidiver	To relapse	Bir-erori
Renacer	Renaitre	To be born again	Bir-jaio
Retransmitir	Retransmettre	To relay	Bir-transmititu,
			bir-eman
Revender	Revendre	To retail,	
		to resell	Bir-saldu
Reventa	Revente	Retail,	
		second sale	Bir-salmenta

b) **Sail honetan azkenez, RE-rena bukatzeko, hitz mordo inportante bat dator aurrizkitik aparte osoan hartzen edo euskal kide batera osoan itzultzen dena.**

Recitar	Reciter	To recite	Errezitatu
Recomendar	Recommander	To recommend	Gomendatu
Reconciliar	Reconcilier	To reconcile	Adiskidetu
Reconstituyente	Reconstituant	Reconstituent	Zuzper-arazle,
			zuzpergailu

Reembolsar	Rembourser	To reimburse	Errenboltsatu
Reforma	Reforme, Reformation	Reform, Reformation	Erreforma
Refresco	Refraichissement	Refreshment	Errefresko
Reintegro	Reintegration	Reintegration	Erreintegro
Reparar	Reparer	To repair	Erreparatu
Repasar	Repasser	To repass	Erreparasatu
Representar	Representer	To represent	Errepresentatu, ordezkatu
Reproducir	Reproduire	To reproduce	Ugaldu, erreproduzitu
Repudiar	Repudier	To repudiate	Zapuztu
Restablecerse	Retablir	To reestablish	Sendatu, zuzpertz
Retirar	Retirer	To retire	Erretiratu
Revista	Revue	Review	Errebista
Revolución	Revolution	Revolution	Erreboluzio, iraultza
Rebotar	Rebondir	To rebound	Errebotatu
Recargo	Surcharge	New charge	Errekargu
Reclamar	Reclamer	To claim	Erreklamatu
Recoger	Recueillir	To gather, to collect	Hartu, bildu
Recrear	S'amuser	To recreate, to amuse	Jostatu
Remolque	Remorque	Towing	Erremolke
Renegar	Renier	To deny, to abnegate	Arnegatu
Retejo	Rentaitage	Retiling	Erreteila
Revalidar	Revalider	To ratify	Errebalidatu

EX: a) Sail haxe da **EX**-tik gehien axola zaikuna, nor-bait edo zerbait lehen zena orain ez dela adierazten duena. Zerrenda honetan agiri denez, gaztelerak eta frantsesak pareki darabilte **EX**. Ingelesak ordea ez du **EX**-ik esanahi honekin erabiltzen (hiztegietan behintzat ez dugu aurkitu). Ingelesa bere era batzuz balitatzten da: **PAST, SOMETIME, FORMER:** the past president, the former consul etab.

Euskeraz bi era ikusten ditugu egoki:

1. **EX** bera onartu beharrekoa da dudarik gabe, falta egi-ten daukulako batetik eta erdian harturik gaduzkaten bi hiz-kuntza nagusiek harturik dadukatelako bestetik.

2. **IZAN**, erabilia izanez gainera, guztiz egokitzat jo behar da, berezkuntza inportante bat eginik. **IZAN**-ek era konjuga-

tuan DEFUNTU esan nahi du: gure aita zena = gure aita defuntua gure alkate zenak = gure alkate defuntuak. IZAN-ek era adjetibozkoan ordea, EX-en esanahia daduka: gure alkate IZANAK = gure ex-alkateak. Bidezko denez lehenengo erak beste pertsonak ere ametitzen ditu, batez ere hirugarren plurala: gure gudari zirenek = gure gudari defuntuek. Halaber adjetibozko erak ere ametitzen du plurala: herriko alkate izanei = herriko ex-alkateei. Berezkuntza hau ez dakigu euskalki guztietakoa den. Guk ezagutzen dugun inguruan hala da behintzat eta jeneraltzea merezi duela ematen du.

OHI-ri buruz ez dezakegu ezer esan ez baitugu Azkueren hiztegitik baizik ezagutzen. Azkuek dakarrenetik ba dirudi hedadura haudi samarrekoa izan dela: nausi-ohi, ertor-ohi... = ex-nagusi, ex-erretore...

Norbaitek galda dezake: Zergatik IZAN ontzat eta egokitzat emanez gero, EX ere onartu edo alderantziz? Hemen ere, beste kasu askotan bezala, hauzia ez dela uste dugu bata ALA bestea, bata ETA bestea baizik. Ez du merezi uste hau arrazonatzan hasterik.

Exalcalde	Exalcade, ex-maire	PAST	EX-alkate, alkate izan(a)
Excorredor	Ex-coureur, anciencoureur		EX-korrikari, ko- rrikari izan
Exdueño	Exmaitre		EX-jabe, jabe izan
Exministro	Ex-ministre	THE FORMER	EX-ministro
Expolicía	Ex-grippe-coquin Ex agent de police		EX-polizia,
Expresidente	Ex-president		EX-presidente
Expofesor	Ex-professeur	SOMETIME	EX-profesore, ex- -iraasle
Exrector	Ex-rector		EX-erretore

IZAN, jakina, batzuri bakarrik jarri arren, edozeini ezartzekoa da, berdin OHI.

b) EX-ena bukatzeko azken zerrenda bat dator, zeinetan EX etimologiaz garbi agertu arren, hitza OSOAN kontsideratzen baita, arrotza bera harturik edo euskal kide batera itzulirik.

Exagerar	Exagerer	To exaggerate	Esajeratu, gehiegitu
Exceder	Exceder, depasser	To exceed, to surpass	Goitu, gaindu
Excepción	Exception	Exception	Ezepzio
Excesivo	Excessif	Excessive	Gehiegizko
Excluir	Exclure	To exclude	Exkluditu
Excursión	Excursion	Excursion	Eskursio
Excusa	Excuse	Excuse	Atxakia
Exhibir	Exhiber, montrer	To exhibit	Eshibitu, erakutsi
Exhortar	Exhorter	To exhort	Esortatu
Existencia	Existence	Existence	Esistentzia
Exoftalmia	Exophthalmie	Exophthalmia	Esoftalmia
Exosmosis	Exosmose	Exosmose	Esosmosis
Exotérico	Exoterique	Exoteric	Esoteriko
Expedición	Expedition	Expedition	Espedizio
Expedir	Expedier	To send	Espeditu
Experiencia	Experience	Experience	Esperientzia
Experimento	Experience, essai	Experiment	Esperimentu
Expirar	Expirer	To expire	Espiratu, hil
Explicito	Explicite	Explicit	Esplizito
Explorar	Explorer	To explore	Esploratu, ikertu
Explosión	Explosion	Explosion	Eztanda
Explotar	Exploiter	To work	Eztandatu, esplotatu
Exportar	Exporter	To export	Esportatu
Expulsar	Expulser	To expel	Bota
Extraer	Extraire	To extract	Atera

V

ANTE - PRE

Bi aurrizkiok gauza bera esan nahi dute eta egitura bera dadukate nahiz eta PRE askoz ugariago izan hizkuntza guztietan.

PRE: 1) Sail honetan sustantiboak eta adjetiboak datoz. Hauetan ez dago dudarik AURRE-AURREKO eta AITZIN-AITZINEKO direla egokiak lekuzko eta denborazko lehentasuna adierazten denean. Edozeinek esaten du "gerra-aurre", "ez-

kon aurreko” etab. Gainera OSTE-OSTEKO-ren eta ONDO-ONDOKO-ren (POST-en agertuko direnen) simetrikoak dira.

Preadamita	Preadamite	Preadamite	Adan-aurreko, Preadandar
Precolombino	Precolombien	Pre-columbian	Kolon-aurreko
Precordial	Precordial	Precordial	Bihotz-aurreko
Predorsal	Predorsal	Predorsal	Bizkar-hezurau- rreko
Prefacio	Preface	Preface	Hitz-aurre
Prehistoria	Prehistoire	Prehistory	Historia-aurre, prehistoria
Prehistórico	Prehistorique	Prehistoric	Historia-aurreko
Prejudicial	Prejudiciel	Prejudicial	Judizio-aurreko, epai-aurreko
Prenupcial	Prenuptiel		Ezkon-aurreko
Prenatal	Prenatal		Jaio-aurreko

2) Aditzen aurrizki denean, arau jeneralez, PRE onartu behar da dudarik gabe. Hizkuntza guztiek onarturiko eta hain hedadura haundi eta esankorreko aurrizki hau ordezteko baliakizunak (aurre, aitzin, lehen, etab) konponketa bortxatuegiak dira, irtenbiderik gabeak. Honek ez du esan nahi baztertu egiten ditugula ANTE-n ikusiko den bezala. Soil soilki, beste kasu guztietan bezala erregela jeneral eta haundiago bati gagozkio, hau da latinezko aurrizki nagusiak, beste hizkuntza guztiek beren garaian komunzki onartu zituztenak eta gero hain hedadura zabala eta sarritan teknikoa bildu dutenak beste gabe onartu behar direla, orain arte ere nahikoa denbora galdu baitugu. “Beste gabe” hau ez da noski arbitrariotasunaren ezagugarri, zeren kondizio hauetako aurrizkiak beste gabe hartzeak derrigor hartu beharrezkoak direla esan nahi du eta derrigorra ez da inoiz arbitrario. Aurrizkien trena euskerak galdu bazuen (demagun ez zuela akaso behar, ibili behar haundirik ere ez baitzedukan), ez dago berriro harrapatzea beste biderik. Goiti-beherekin ez goaz inora.

Preconcebir	Preconcevoir	To preconceive	Presortu
Predecir	Predire	To predecit	Preesan
Predestinar	Predestiner	To predestinate	Predestinatu
Predeterminar	Predeterminer	To predetermine	Predeterminatu, pre-erabaki

Predisponer	Predisposer	Predispose	Pregertu, preatondtu
Preelegir	Elire d'avance	To pre-elect	Prehautatu
Preestablecer	Preetablir	To pre-establish	Prejarri, pre- -ezarri
Preexistir	Preexister	To pre-exist	Pre-esistitu
Prejuzgar	Prejuger	To prejudge	Pre-iritzi
Premeditar	Premeditar	To premeditate	Premeditatu
Premorir			Lehen-hil
Prenotar	Noter d'avance	To prenote	Prenabari
Preconocer		To foreknow	Pre-ezagutu
Predefinir	Prefinir	Predetermine	Predefinitu
Prefiguruar	Representer d'avance	To prefigure	Prefiguratu, pre-iruditu
Preordinar	Ordonner d'avance	To preordain	Pre-erabaki
Presentir	Presentir	Foresee	Presentitu, presomatu, igarri
Prever	Prevoir	To foresee	Pre-ikusi

3) Sustantibo eta adjetiboetarako lehenengo numeroan **AURRE-AURREKO** eta **AITZIN-AITZINEKO** onartu baditugu ere, ba daude arau hartatik apartatzen diren lau puntu:

a. Aditzekin **PRE** bada egoki, naturala da aditzetik datorren sustantiboak ere **PRE** eramatea: Pre-esistitu → pre-esistentzia, pre-ezagutu → pre-ezagutza...

b. Batzutan **PRE**-k zerbaiten aurrekoa gabe, aurreko zerbait esan nahi du. Esaterako "prejuicio" ez da iritziaren aurrekoa, aurreko iritzia baino. Diferentzia garbi dago "gerra-aurre" eta "aurreko gera" konparatzean. Honelakoetan **PRE**-ri hobeto deritzagu, hala nola, pre-iritzi, prenozio, pre-erabaki...

d. **AURRE-AURREKO**-k eta **AITZIN-AITZINEKO**-k lekuzko esanahia dadukatela esan dugu. Batzutan ordea, **PREK**-k lehentasun lojiko edo filosofikoa —nolabait esatearren— adierazten du. Esaterako "prekontzient" kontzientzia baino maila elementalago edo honelakotsu bat litzateke. Hauetan ere **PRE**-ri hobeto deritzagu: prekontzient, presozial, prelojiko, etab. (Pentsa bide batez hauk **AURREKO**-kin moldatzekotan nolako odolosteak aterako liratekeen). Aurrizki baten matiz bilaketa honek katuari bost hanka bilatzea eman dezake (katu batzuk eduki ere bai gero). Baliteke hitzen batetan edo bestetan ze-

hazkerian erortzea, baina hemendik nabarien atera behar den konklusioa zera da, honelako aurrizki inportanteek beren historia luzean esanahi pilo oso ugaria batu dutela eta hitzen batzutan edo bestetzutan dezentki samar maneiatu arren, konjuntuan, orotasunean ez dagoela ezein hizkuntzatan ordezeko egokirik. Euskerak aurrizkirik ez badu ez da beste hizkuntzak baino urriago delako berez, ez eta beste hizkuntzetatik hain "bakana eta antz-gabea" delako ere, beste hizkuntzek aspaldi egin zutena egin ez duelako baizik. Honela aurrizkirik inportanteenak latinezkoak dira inguruko hizkuntza nagusi guztietan. Euskera ez bada latin-kumea, pentsa ingelesak, alemanak eta abarrek ere guk haina ahaidetasun guti dadukatela latinarekin.

e. Azkenez, nahiz eta lojikalz lehenengo sailean sartze-koak izan, ba dira hitzak PRE-kin dauden bezala uztekoak: prerromantizismo etab.

Preadamismo	Preadamisme		Preadamismo
Prefijo	Prefijo		Aurrizki
Prehistoria	Prehistoire	Prehistory	Prehistoria, historia-aurre
Prejuicio	Prejudice	Prejudice	Pre-iritzi
Prenoción	Prenotion	Prenotion	Prenozio, pre-ezagutza
Prerrafaelismo	Preraphaelisme		Prerrafaelismo
Prerromanticismo			Prerromantizismo
Presciencia	Prescience	Prescience	Prezientzia, prejakintza, pre-ezagutza

Zerrenda hau laburra da hiztegiek apenas batzen baitute tankera honetako hitzik. Baina aski da edozein zientzia adarretako zerbait irakurtzea PRE-k zabalkunde haundia dadukala ohartzeko, ez bakarrik liburuetan, hizkera arruntean ere baizik. Hona zerrenda luze posible bateko batzu, gehiegi pentsatu gabe datozenak: Prekontzient, pre-unibertsitari, presindikal, prekondizio, pre-hauzi, pre-ebatzi, preberotze, pregizazko, pre-izate, pre-eredu, prenatura, pre-ohitura, etab etab.

ANTE: Aurrizki honetarako ere PRE-ri buruz esaniko guztiek balio dute, diferentzia bakarrez ANTE aurrizkia PRE

baino askoz urriago dela. Arau jeneralez ez dirudi ANTE hartu beharrik dagoenik.

1) Sail honetan AURRE-AURREKO-dunak datoz. Berdin litzateke, jakina, AITZIN-AITZINEKO ere. Ez dute komentariorik behar.

Antebrazo	Avant-bras	Fore-arm	Besa-gain
Antecámara	Antichambre	Antecahmber, Anteroom	Gela-aurre
Anteiglesia	Parvis	Antechurch	Eliz-aurre
Antejuicio	Avant jugement	Fore judgement	Judizio-aurre, epai-aurre
Anteojos	Lunettes, longue-vue	Spy-glass	Betaurrekoak
Antepuerta	Contre-porte	Anteport	Atal-aurre
Antepuerto	Avant-port	Outer port	Bortu-aurre, kai-aurre
Antesala	Antichambre	Antechamber	Sala-aurre, gela-aurre
Antepalco	Avant-logis		Palko-aurre
Antenombre			Izen-aurre
Antediluviano	Antedilubien	Antedilubian	Uholde-aurreko
Antemeridiano	Antemeridien	Antemeridian	Eguerdi-aurreko
Antenupcial	Antenuptial	Ante nuptial	Ezkon-aurreko
Anteclásico			Klasiko-aurreko
Antecolombino			Kolon-aurreko
Anteislámico			Islam-aurreko

2) Bigarren sail honetan aditz batzu datoz zeintzutan LEHEN jartzen baita ANTE-ren ordezeko. Aditz sail honek inportantzia urria daduka eduki. Beren helburua gehiago da komentario bat egiteko bide ematea. Esanik dago PRE onartzeak ez duela esan nahi AURRE, AITZIN, LEHEN... gaitzesten direnik. Lehenago ere sarri aipaturiko hauzia dago hemen ere. Irizpide okerra da PRE-ren onartzea ala ez hiru hauen pentzudan jartzea. PRE eta beste aurrizki inportanteen onartzea aurreragoko hauzia da, AURRE, AITZIN eta LEHEN PRE-ren ordezeko egokiak liratekeen pentsatzen hasi aurrekoa. "Liratekeen" noski, zeren praktikan, herriaren erabilera arau-bidetzat hartzekotan, hauek PRE-k berak baino garantia gutiago dadukate. Baina arrazoiek dudarik gabe beste leku batetik joan behar dute. PRE onartutakoan beste hirurok ere zabalduko dute beren bidea, hizkuntza legerik elementalenak sinesten baditugu

behintzat. Zer neurritan? Ez dago hori aurretik igartzetik, erabilerak berak ebaztekoa baita. Hegan egiteko kondizio funtsezko batzu behar dira. Gero beste kontu bat izanen hegakera baldarra ala dotorea den. Latinezko aurrizkiak hegada jasotzeko nahi eta ezkoak zaizkigu, beti sasitzatik irten ezinik ibili nahi ez badugu. Hegada jasotakoan airea zabala da eta sobera leku dagoke AURRE, AITZIN, LEHEN eta beste aurrizkietan ageruriko baliakizun posible guztientzat. Egoera honetan, sasitzan dabilen artean, euskeraren beraren ahalmen propioak ere gatiaturik geratzen dira. Ez dago dudarik aurrizki komun enonartze zabalak era batera euskal baliakizunen bidertze eta ugaritze harrigarria dakarkeela kolpera. Honek kontradikzio badirudi ere, aztertzaile arinentzat bakarrik noski. Euskera denik bakarena eta diferenteena bada ere, hizkuntza legeak ez dira guk asmatuak. Hortxe daude inguruko hizkuntza nagusi guztietan. Guri arretagarrien zaikuna aipatzeko, ingelesak ere ba du bere baliakizun propiorik ugari PRE-kin batera, eten gabe aberasten eta ugaritzen ari delarik. Ameskeria garbia litzaiegegu egun batetik bestera ingelesaren hegada eta hegakera geuretu nahi izatea, baina bideak haundi haundika behintzat sobera argi erakusten dauzkigu. Dudarik ere ez ingelesa bezalako hizkuntza baten portaera mila bider fidagarriago dela euskaldun bakoitzak geure barrenean daramagun linguista-kumearen iritziak baino. Norbaitek ihardets lezake jokaera hau beste hizkuntzetan ere gaitzetsirik dagoela, gaztelerak, esaterako, edo gaztel akademikoek "ingeleskerien" kontra dihardukatela, berdin ingelesak "frantseskerien" kontra etab etab. Hauzia honela jartzen duenak ez du askorik ulertzen gakoa non dagoen, zeren hemen gagozkion kontua ez baitatza hizkuntza desarroilatuek beren artean darabilten nor-gehiagoketa mailan, orain lau mende denek berdintsu moldatu zuten azpi-estrukturan baizik.

Zerrenda honetan LEHEN-dunak datoz. Berdin sar genitzakeen AURRE eta AITZIN ere, eta ANTE-n bezala PRE-n ere. Honek ez du esan nahi hirurak egokitasun berdinekoak direnik.

LEHEN-ek hiru esanahi ahizpa (lehenago = antes, lehenengo = en primer lugar eta lehenengo = el primero) eduki ahal izateak ez likeo aurrizki honi ezer kenduko, aitzitik ordea, zabalpen eta aberastasun gehiago emanen. “Likeo” diogu, eta ez “dio”, zerrenda hau eta lan honetako beste antzekoak gehieanean saio esperimentalak besterik ez baitira. Norbaitek esan lezake zergatik ez ditugun besteak ere —PRE, DES, etab— hauen maila berean jartzen, hots, esperimental gisa. Oker narbarbena litzateke pentsakera hau. PRE-k, DES-ek eta abarrek mendeak daramatzaten beren esanahia eta arloa praktikan zehaztuz eta taxutuz hizkuntzaren maila eta adar guztietan. Horrexegatik dira hain zuzen nekez ordeztu ahal izatekoak. Beste kontu bat hartu nahi diren ala ez, hala litzatekeen bezala barrikurik ez hartzearren iheri abiatzea. Baina inork ez du dudan jarriko barkua itxas-ontzirik egokienetariko bat dela.

Anteceder	Preceder	To antecede	Lehen-izan
Antedatar	Antidater	To antedate	Lehen-datatu
Antedecir	Predire	To predict	Lehen-esan
Antepagar	Payer d'avance	To prepay	Lehen-ordaindu
Anteponer	Placer devant	To place before	Lehen-jarri
Antever	Prevoir	To foresee	Lehen-ikusi
Antecoger	Emporter devant soi		Lehen-hartu
Antepasados	Ancetres		Asabak, arbasoak
Antepenúltimo	Antepenultieme		Azken-hirugarren
Penúltimo	Avant dernier		Azken-bigarren

Zerrenda honetan agiri denez eta naturala denez, ANTE eta PRE gurutzatu egiten dira hizkuntza batetik bestera. Honen esan nahi du aurrizki elkar-gehigarriak direla eta beraz LEHEN eta abar ere berdin sar zitezkeela PRE-ren zerrendan.

PRE-rena bukatzeko azken sail bat dator zeinetan batzu euskal kide batez itzultzen baitira eta bestetzu aurrizkitik aparte hartzen, osorik hartzekoak dirala usterik.

Predicar	Precher, proner	To preach	Predikatu
Prefecto	Prefet	Prefect	Prefekto
Preferencia	Preference	Preference	Preferentzia, nahiagotasun
Preludio	Prelude	Prelude	Preludo
Preparar	Preparer	To prepare	Preparatu

Preposición	Preposition	Preposition	Preposizio
Presencia	Presence	Presence	Presentzia
Presidir	Presider	To preside over	Presiditu
Presidente	President	President	Presidente
Emporter devan	Preter	To lend	Prestatu
Presumir	Presumer	To presume	Presumitu
Presupuesto	Butget	Budget	Presuposto, Bujet
Previsión	Pretention	Pretension	Pretentsio
Prevaricar	Prevariquer	To prevaricate	Prebarikatu
Prevenir	Prevenir	To prevent	Prebenitu

Bi ohar beste aurrizki guztietarako ere balio dutenak:

1) Aurrizki batean honelako hitz sail inportante bat OSOAN onartzen dela esatea aurrizkia bera ere onartzekoa dela esatea bezalatsu da, zeren hauk bezalako hitz inportante batzutan bere presentzia onartuz gero, zer zentzu luke osoan hartzen diren hitzetan bakarrik onartzen dela esateak, baina ez aurrizki autonomotzat? Berezkuntza hau hizkuntzalariek egin dezakete, baina ez hitz egileek. Hala ere zentzu apur bat ba duela ezin uka. Honegatik aurrizki guztietan agertzen da —dagoenean edo merezi duela uste denean— honelako zerrenda bat.

2) Hitz batzuri, “preferentzia”ri esaterako, “nahiagotasun” ere jarri zaio, eta beste antzekoren bat edo batzu ere jar zitezkeen. Norbaitek esan lezake: nola litekek “nahiagotasun” bezalako hitz argi eta garbi bat edukirik “preferentzia” ere ondoan utzi? Gure irizpidea, lehen ere nonbait adierazia, argi dago: Hizkuntzaren barne desarroiloari ondo ez ezik beharrezgo eta lege funtsezko deritzagu. Honela NAHIAGO-tik NAHIA-GOTASN-era saltatzea asmakeria gabe, deribaziorik berezkoe-na eta naturalena da. Hitz berriak sortzea ez da berez garbikerian erortzea, hizkuntza bizi baten lege naturaletarik bat baik. Hauzia haurgintzakoa bera da, haur normalez ala muntroz herditzen den. Baina gure irizpidearen bigarren alderdia ere argi dago, hots, hizkuntzaren berezko ahalmenak ere trabaturik, larakoa jorik geratzen direla oraintsu aipaturiko azpi-estruktura kontua erabaki arte. Azpi-estruktura honek ez du inola ere esan hizkuntzaren barne-egitura, bere jite berezia. Gure inguruko hizkuntza nagusi guztiek azpi-estruktura, edo

gain-estructura edo dena delakoa berdin samarra dadukatela esatean, ez al da inor eroriko hizkuntzen unea, muina sastakazten dela pentsatzeko sinplekerian. Ingelesak eta gaztelerak, adibide bat jartzeko, diogun azpi-estructura hain komuna edukirik, elkarren antzik ere ez dadukate. Hauk honela, eta beste arrazoi batzurengatik, “preferentzia” hor geratzen da “nahia-gotasun”-nekin batera, eta alderantziz, elkarren herrarik ez zelik gabe.

Beste hitz arrotz batzu —Euskal-Herri osoko haurrek eta haurren gurasoek oinez ibiltzeaz batera ikasi zituzten hitzak “arrotz”-tzat jotzea adar-jotze gehiegi ez bada— “preparatu” esaterako, bakarrik etortzeak ez du esan nahi honen euskal sinonimoak edo antzekoak arbuizaten direnik, “preparatu” gazteleraren, frantsesaren eta ingelesaren bezain geure dugula baizik.

VI

POST - SOBRE - ULTRA - TRANS - SUPER - SUPRA

1) POST, ULTRA eta TRANS esanahi ia bereko aurrizkiak dira, PRE eta ANTE-ren simetrikoak. SOBRE-k esanahi honekin oso inportantzia guti daduka bere zerrenda urriak erakusten duenez. Lau aurrizkiok lekuzko eta denborazko esanahi garbia dutenean, nahikoa argi dirudi OSTE-OSTEKO edo ONDO-ONDOKO eta HANDIKO direla egokiak.

Poscafé	Pousse-café	Chasse	Kafe-ondo
Posfecha	Postdate	over date	Data-ondo, fetxa-ondo
Posguerra	Apres-guerre	Post war	Gerra-oste, guda-ondo
Posmeridiano	De l'apres-midi	Postmeridian	Eguerdi-osteko
Posparto	Couches	after-noon	Herdi-ondo
Postdiluviano	Posterior	Child bed	
	au deluge	Postdiluvial	
Postescolar	Postscolaire		Uholde-ondoko
Postoperatorio		Postdate	Eskola-ondoko
			Opera-ondoko

Postdata	Postscriptum	Postdorsal	Data-ondo, post- data
Postdorsal	Postdorsal	Postdate,	Bizkar-hezur-os- teko
—————			
Ultramar	Outremer	Over sea	Itsas-oste
Ultramarino	D'outre-mer	Ultramarine	
		Over sea	Itsasoz-handiko
Ultramontano	Ultramontain	Ultramontane	Mendiz-handiko
Ultrapuertos	Au dela des cols	Beyond the ports	Bortu-oste
Ultratumba	Outre-tombe	Beyond the grave	Hil-ondo, heriotza-oste
Ultramonte			Mendi-oste
Ultrasolar			Eguzkiz-handiko
—————			
Sobremesa	Dessert	After diner	Mahain-ondo, mahain-osteko
Sobrepardo	Couches	Child bed	Herdi-ondo
—————			
Transalpino	Transalpin	Transalpine	Alpeez-handiko
Transandino		Transandean	Andeez-handiko
Transatlántico	Transatlantique	Transatlantic	
Transmarino		Transmarine	Itsasoz-handiko
Trastienda	Arriere-boutique	Backshop	Denda-oste, denda-atze
Trascoro	Arriere-choeur	Behind the choir	Koru-oste, koru-atze
	Arriere-train		Gurt-atze
—————			

2) TRANS-ek ordea, gehienez edo sarri behintzat, gogorago eta antzeko hitzetan, "handik" edo "ostean" gabe, "zehir" esan nahi du. Honela "Transiberiano" Siberian zehar doan, alderik alde pasatzen duen trenaren litzateke. Esanahi honekin TRANS bera onartzea dirudi ondoen, ZEHAR-ekin ez baita era egokirik ikusten. "Alpeetan-zeharreko", "Siberian-zeharreko" eta abar ez daude, ez, gaizki, baina ez dugu uste TRANS-i konpetentzia egin behar diotenik.

Bide batez, AR-TAR atzizkiaren nobedade bat dator hemen. Euskal atzizkien lanean esaten da atzizki honi balio handia atera dakikeola adjetibo kalifikatzaile berezleak osatzeko, zeintzutarako hain gaizki ibiltzen baikara sarri hainbeste atzizki edukirik ere.

Transahariano	Transsaharien	Transsaharien	Transaharar
Transalpino	Transalpin	Transalpine	Trans-Alpetar
Transatlántico	Transatlantique	Transatlantic	Trans-Atlandar
Transcontinental	Transcontinental	Transcontinental	Trans-kontinental
			Trans-kontinentetar
Transiberiano	Transiberien	Trans-Siberien	Trans-Siberiar
Transmarino		Transmarine	Trans-itsastar
Transandino		Transandean	Trans-Andetar

AR-TAR honek ez daduka ohi bezala, nongotasunaz, jatorriaz zer-ikusi zuzenik. EZ da adjetibo kalifikatzaileak egiteko arlo berria ematea besterik, gazteleraz “ino, ico, al...” atzizkiek egiten dutena bera. Hau ez da “iko, al...” atzizkiak derrigor ebitatu nahi izatearren, ez eta gutiagorik ere. IKO, AL eta honelako atzizkiak (esaterako, nazionalAL, estetIKO, etab) frantsesizat edo alemantzat haina jo ditzakegu euskalduntzat. Arrazoia beste bide batetik doa, alegia, AR-TAR-i (eta honi bezala beste atzizki batzuri ere) hedadura berri hau ematea ez dugula uste “berrikeria” edo “garbikeria” denik, hizkuntzaren desarroilo naturala baizik. Ustea hauxe da, beste kontu bat izanik uste azartatua ala okerra den.

Aisa galda daiteke “Alpeez-handiko” etab onartu duenak nola gaitzets dezakeen “Alpeetan-zeharreko” etab, biak egitura berdinekoak izanik. Lehenengo esan beharra dago hizkuntza kontuan —gurea dagoen unean batez ere— lojikak puntu bateraino bakarrik balio duela, eta handik aurrera bakoitzaren senak —anitz eta anitz faktorek gidatua noski— ebazten duela, edo hobeto akaso, bere jitea, joera erakusten. Lan hau puntu askotan haztaketa bat, tentaketa bat besterik ez da, baina sinesturik hauxe dela hizkuntza bat egiteko moduetarik bat, jeneralena ez esatearren. Bigarren kontua da hemen ez dugula ezer onesten ez gaitzesten, tankera, joera nagusi batzua azaltzen baizik. Azkenez TRANS-en puntu konkret hau nolabait ebaz-

teko, ez litzateke disparate gehiegi TRANS esanahi bietarako onartzea, "trans-Alpetar" biak izanik, "Alpeez-handiko" eta "Alpeetan-zeharreko", hark hauk bazter arazi gabe eta alde-rantziz. Ingelesak ere ba duke segur asko euskerak haina modu TRANS gabe moldatzeko. Hala egin ez duenean zerbaitegatik izanen.

3) SUPER, SUPRA eta SOBRE-k lekuzko gainekotasun garbia dadukatenean, dudarik ere ez GAIN-GAINEKO dela kide egokia.

Sobrecopa	Couvercle d'une	Lid of a cup	Kopa-gain, kopa-
Sobrejalma	Couverture sur 1	Cover for a	
		pak saddle	Xalma-gain
Sobrepuerta	Tringle	Cornice	Atal-gain
Sobrequilla	Contre-quille	Keelson	Kila-gain

Superciliar	Sourcilier	Superciliary	Bekain-gaineko
Superhumeral	Ephod	Ephod, superhu- meral	Bizkar-gaineko
Supernumerario	Surnumeraire	Supernumerary	Numeroz-gaineko
Superponer	Superponer	To superpose	Gain-jarri
Supersónico			Hots-goitiko
Supersonido			Hots-goiti
Supracostal	Surcostal		Saihets-gaineko
Supraterrenal	Surrenal	Suprarrenal	Errain-gaineko
Suprahepático	Sus-hepatique		Gibel-gaineko
Supramaxilar	Sus-maxilaire	Supramaxillary	Matrail-gaineko
Supracerebral			Burezur-gaineko
Supraterrenal			Lurrez-gaineko

4) SOBRE: Sarritan aurrizki honek esanahi zabalago eta dezehatzago daduka, lekuzkoa baino areago neurritzkoa, kopu-ruzkoa. Kontura frantsesean eta ingelesean beste aurrizki batzu nahasten direla, SUPER eta EXTRA batez ere. SUR SOBRE-ren pareko izanik, ez bata ez beztea hartu behar dira euskeraz. SUPER eta EXTRA onartzekoak direnez gero, gehie-
nez ere SUPER erabil daiteke zerrenda honetako esnahidun hitzetan.

Baina honelakoetan ere GAIN erabil daitekeela eta behar litzatekeela uste dugu, zeren nobedade samar izan arren, baliakizun dotore bezain adierazkor baita. Nobedadea GAIN aurrizkitzat erabiltzean legoke, irten-biderik gabeko beste anitz itzul-inguru bazterturik.

Ohar bat bide batez beste aurrizkietarako ere balio duena, alegia, aurrizkiek hala erabilkeran nola adierazkortasunean abantaila izugarriak daduzkatela. Beste gabe ulertzekoa da hau hizkuntza sen apurrik duenarentzat. Akaso ba dagoke izarren batean hizkuntzarik ez aurrizkirik ez atzizkirik ez duenik, pertsonak ere han ez baitute akaso ez atzerik ez aurrerik edukiko. Baina gure munduon nekez pentsa daiteke altura honetan atzizkirik eta aurrizkirik gabeko hizkuntzarik, aurrerik ez atzerik gabeko pertsonarik inoiz topatzen bada ere. GAIN-ek aurrizkitzat erabiliz gero arlo haundiak harrapatuko lituzke. Inondik egokitasunik ikusten denean, aurrizkien alde jo behar da beti, batez ere euskeraren oraingo unean.

Sobrealimentación	Suralimentation	Supernutrition	Gain-elikatura, gain-azkurri
Sobre alimentar	Suralimenter		Gain-elikatu
Sobrehumano	Surhumain	Superhuman	Gain-gizazko
Sobrenatural	Surnatural	Supernatural	Gain-natural
Sobrescribir	Etiqueter	Superscribe	Gain-idatzi
Sobrepaga	Surpage	Extra-pay	Gain-ordain, Gain-pagu
Sobreprecio	Majoration	Extra-price	Gain-prezio
Sobresueldo	Surpage	Extra-wages	Gain-soldata
Sobrecarga	Surcharge	Surcharge, over loaf	Gain-zama, gain-karga
Sobrecargar	Surcharger	To over-charge	Gain-zamatu, gain-kargatu
		To surcharge	Gainalde
Sobrefaz	Surface	Surface	Gain-izen, izen-goiti,
Sobrenombre	Surnom	Surname	Bir-izen
Sobreedificar	Batir sur un batiment	To over build	Gain-eraiki
Sobreganar	Gagner excessivement	To win in excess	Gain-irabazi, lar-irabazi
Sobrentender	Sous-entendre	To understand of course	Gain-ulertu
Sobreponer	Superposer		Gain-jarri
Sobreprima	Surprime		Gain-hobari

Sobresestrar	Sursemer	To sou over again	Gain-erein
Sobretasa	Surestimation		Gain-tasa, lar-espen
Sobretasar	Surestimer		Gain-tasatu, lar-etsi

5) SUPER, ULTRA, SOBRE: SUPERLATIBOAK. Aurizki hauek, SUPER-ek batez ere, maila superlatiboa adierazten dute sarritan. Euskeraz ba daude superlatibo era batzu, beste hizkuntzetan bezala. Hala ere SUPER-i eutsi behar zaio-la uste dugu. Arrazoi nagusia da ez dela izatez superlatibo soilak, beste matiz erraz igartzeko bat dadukala baizik. Gaztele-raz ere "muy fino" edo "finisimo" eta "superfino" ez dira berdin, areago oraindik "superhombre", "supermercado", etab. Beraz esanahi honetarako beste hiru hizkuntzek darabiltzaten guztietarik SUPER onartzen dugu dudarik gabe, berau baita komuna eta azken batez latinezkoa. ULTRA ere —beste sail batean hartzekoa dela esanzen dugunē gero— erabiltekoa litzate-ke esanahi honekin. Gaztele-razko hiztegiak ez du ULTRA-rik matiz honekin batzen, bai ordea frantsesak eta ingelesak. Bai-na gaztele-raz ere, hiztegiek batu ez arren, hizkeran eta liburu-etan noiz-nahi topatzen da honelakorik: ultramoderno, ultra-famoso, ultraderecha, ultraprogresista, etab.

Superabundante	Surabondant	Superabundant Overabundant	Super-ugari, xit ugari
Supercemento	Superciment		Super-zementu
Superdotado			Super-burutsu
Superfino	Superfin, surfin	Superfine	Super-fin, fin-fin
Superfortaleza			Super-kemen
Superhombre	Surhomme	Superman	Super-gizon
Supermercado	Supermarche		Super-merkatu
Ultracentrifugo		Ultracentrifuge	Ultra-zentrifugo
Ultraísmo		Ultraism	Ultraismo
Ultraísta		Ultraista	Ultraista
Ultraliberal	Ultra-liberal		Ultra-liberal
Ultrarrevolucio- nario	Ultra-revolutio- naire		Ultra-iraultzaile
Ultrarrealista	Ultra-royaliste		Ultra-erregetiar
Extracorta (onda)		Ultra-short	Ultra-labur

Sobreabundante	Surabondant	Superabundant Over abundant	Super-ugari, xit ugari
Sobrebarato	Tres bon marche	Very cheap	Super-merke, merke-merke
Sobrecaro	Tres cher	Very expensive	Xit garesti, super-garesti
Sobrelleno	Trop plein	Over flowing	Bete-bete, gai- nezka

6) SUPER = GEHIEGITASUN. Batzutan aurrizki honek —SOBRE-k ere bai inoiz, frantsesez eta ingelesez SUR-ek bezala— gehiegitasuna adierazten du. Hemen ere SUPER-i deritzagu egoki, beste era hau onartu ezik, eta hauxe da: LAR, hain zuzen “gehiegi” esan nahi duena. Berez sail honek ez luke aurrekotik diferente izan behar. Berezketa hau egiten badugu, batzutan LAR honixe egoki deritzagulako da. LAR honen eragozpen bakarra Bizkaia aldean bakarrik ezagutzen dela. Baina euskalki batetik denetara zabal litekeen edozer probetxatu behar dela irizpide zuzentzat edukitzekotan —eta eduki behar da dudarik gabe— hauxe dela uste dugu kasu argi bat. Bizkaitarroi LAR “gehiegi” bezain etxeko zaiku, eta SUPER baino esankorrago ere bai gehiegitasuna adierazi nahi denean. Hauk honela, LAR-ek beste abantaila haundi bat daduka, alegia, aurrizkitzako ezin egokiago dela, ez baita egitura bat ere bortxatu behar. “Lar saturatu”tik “lar-saturatu”ra, hau da, LAR aditz-lagun soil bat izatetik aurrizkitzat jotzera salto mental erraza dago, baina salto garrantzitsua, aurrizki bilakaturik baliakizun oso emankor gerta baitaiteke hemen datozen hitz apurrez gainera.

Superpoblación	Surpeuplement	Superpopulation	Superpopulazio, lar-populazio
Superpoblado	Surpeuple		Super-populatu, lar-biztandu
Superproducción	Surproduction		Super-produzkio, lar-produzkio
Sobrestimar		Overestimate	Lar-etsi, lar- -iritzi
Sobrecargar	Surcharger	To surcharge	Lar-kargatu
Recalentar	Surchauffer	To superheat	Goritu, lar- -berotu
	Suroxider		Lar-oxidatu
	Suroxigener		Lar-oxigenatu
Sobresaturar	Sursaturer	To overcloy	Lar-saturatu

Hona orain OVER ingelesaren zerrenda bat:

To overboil	Lar-irakin
To overbuy	Lar-erosi
To overcoulour	Lar-koloratu
Overconfident	Lar-riido, fidoegi
Over-delicacy	Lar-samurtasun, samurregitasun
To overdrink	Lar-edan (aditz eta sustantibo hau)
To overeate	Lar-jan (aditz eta sustantibo hau)
To overfatigue	Lar-nekatu
Overfull	Lar-bete, beteegi
To over-grow	Lar-hazi
Over-indulgence	Lar-urriki
To over-pay	Lar-pagatu
To overpraise	Lar-goraldu
Overpressur	Lar-presio
To overproduce	Lar-produzitu
To overspend	Lar-gastatu
To over-strain	Lar-tiratu
To overstudy	Lar-ikasi
Overwork	Lar-lan

OVER honi beste hitz askotan egokiago letorkio euskeraz GAIN; hau agertzen den zerrendetan OVER-dun bat baino gehiago aurkituko da. Zentzugabekeria litzateke honelako hitz guztiak derrigor itzuli nahi izatea, ingeleseko OVER honek historia luzea eta hedatsua baitaduka. Baina hitz hauetan argi dago LAR oso egoki jartzen dela, azken batez aditz-lagun bezala egitura berdin berdinez erabiltzen baitugu. Hemen, gorago esan bezala, inportantzia duena aditz-lagunetik aurrizkirako salto mentala ematea da. Belarriek eta buruak salto hori emanaz gero, hots, edozein hitzi lehen-jartzeko moduko aurrizki bilakatuz gero, emankortasun eta ahalmen izugarriak hartuko lituzke. Hizkuntzaren aurrerakada bat dudarik gabe. Euskeraz asmatzaile edo sasi-asmatzaile gehiegi gaude lehen ere, baina ba dirudi LAR aurrizki bihurtzea ez litzatekeela asmakeria, gauzak berez eskatzen duen eboluzio naturala baizik.

Tentazio bat sar liteke 5-garren sailekoei ere LAR, GAIN edo antzekoren bat ezartzeko, baina adibide bat jartzeko, ez dugu uste GAIN-GIZON, ez GOI-GIZON; ez LAR-GIZON, ez

GIZON-GOITI ez antzekok adierazten duenik SUPER-ek SUPER-GIZON-i damaion matiza. Esan daiteke: zergatik ez luke adieraziko, hala adieraz dezala erabakiz gero? Posibilitate hau emanik ere ez dugu uste SUPER utzi bear denik. Sarritan posibilitateak egoki iruditzen dira ez hainbeste beren egokitasunagatik, beste zeribait tokirik ez uztearren baizik. Baina nola SUPER onartzea naturalen iruditzen baitzaiku, gain-gizon, goi-gizon, lar-gizon, gizon-goiti etab beste zeozertarako libre geratzen dira, hitz egokiak eta dotoreak noski beste konzepto batzu edo akaso konzepto berri batzu adierazteko.

Gehiegitasuna adierazteko aditza bera era superlatiboan jartzea ere ondo legoke, jakina: Kargatuegi = lar-kargatu. Izan ere bizkaitarroi berdin zaiku esatea: kafe hau lar-kargaturik dago edo kafe hau kargatuegi dago.

LAR-ek hemen agiri diren hitzetarako baino zabalpen gehiago eduki dezake. Lan hau alderantziz egitera, beste hizkuntzei loturik aurkitu gabe, LAR-ek zerrenda posible hoberik luke: lar-neke, lar-balio, lar-lan, lar-gose, lar-edale, lar-salmenta, etab. Baina honetarako aurreragoko pausoak eman behar.

Azkenez LAR-en berririk ez dakientzat, aski da GEHIEGI bera dela pentsatzea, izan ere Bizkaian gehienek LAR nahiz GEHIEGI indiferentki erabiltzen dituzte. Baina gu gagozkion helbururako, LAR-i buruz esanak GEHIEGI-rentzat ere, berdin berdin balio dutela emanik, gauza inportante bat argi utzi behar da, alegia, LAR GEHIEGI baino askoz egokiago dela aurrizkitzat.

7) TRANS: Batzutan aurrizki honek esanahi berezia daduka, gaiaren aldakuntza, azpikoz goratzea edo zerbaitu. Honelakoetan dudarik ere ez TRANS onartzeaz.

Transfigurar	Transfigurer	To transfigure	Transfiguratu, transiruditu
Transformar	Transformer	To transform	Transformatu
Transformismo	Transformisme	Transformism	Transformismo
Transmutar	Transmuer	To transmute	Transmutatu
Transsubstancia- ción	Transsubstantia- tion	Transsubstantia- tion	Transsustantzia- tze, -zio
Transustancial			Transustantzial, Transustantziazko

TRANS-ena bukatzeko, azken zerrenda honetako hitzak osoan hartzen edo osoa itzultzen dira:

Transferencia	Transferement	Transfer	Transferentzia
Transferir	Transferer	To transfer	Transferitu
Transmigrar	Transmigrer	To transmigrate	Transmigratu
Transmitir	Transmettre	To transmit	Transmititu
Transportar	Transporter	To transport	Transportatu
Transporte	Transport	Transport	Transporte
Transitivo	Transitif	Transitival	Transitibo
Transladar	Translater	To transfer	Transladatu, trans-lekutu
Transcribir	Transcrire	To transcribe	Bir-idatzi, transkribatu
Transgredir	Transgresser	To transgress	Hautsi, trangresatu
Transgresión	Transgression	Transgression	Hautsapen, transgresio
Transplantar	Transplanter	To transplant	Landatu, bir- -landatu
Translimitar	Depasser les bor- nes	To trespass	Desmugatu
Transnombrar	Confond les noms	To misname	Izen-erratu, izen-aldatu
Trasbisabuelo			Heren-aitona

ULTRA: Trazendentziakko esanahia duenean edo hitz oso teknikoak direnean, dudarik ere ez **ULTRA** onartzeaz:

Ultramicroscopio	Ultra-microscope	Ultra-microscope	Ultra-mikrosko- pio
Ultrarrojo	Infra-rouge	Ultra-red	Ultra-gorri
Ultravioleta	Ultra-violet	Ultra-violet	Ultra-more
Ultracústica			Ultra-akustika
Ultraísmo		Ultraism	Ultraismo
Ultramarino	Epicerie	Grocery	Ultramarino (?)
Ultrapresión		Ultra-pressur	Ultra-pressio

SOBRE: Honena bukatzeko, batzutan aurrizkitik aparte dadukate kide egokiagorik:

Sobreasar	Rotir davantage	To roust again	Kiskali, xigortu, lar-erre
Sobrecrecer	Surcroitre	To overgrow	Haziegitu, lar-hazi
Sobreestimar		To overestimate	Sobera-etsi, gehiegi-etsi

Sobreexcitar	Surexciter	To overexcite	Erresumindu
Sobrehueso	Suros	Splint-bone	Hezur-haudituta
Sobrepasar	Surpasser, deborder	To surpass	Graindu, goititu
Sobrevenir	Survenir	To happen	Gertatu, gaineratu

SUPER: Azken sail honetan hitz batzu datoz beste gabe osoan hartzen direnak. Ez du, beraz, axolarik kasu bakoitzean SUPER-ek zer matiz dadukan.

Superconsciencia			Super-kontzien- tzia
Superfetación	Superfetation	Superfetation	Super-fetazio
Superfosfato	Superphosphate	Superphosphate	Super-fosfato
Superintendente	Superintendant	Superintendent	Super-intendente
Superlativo	Superlatif	Superlative	Superlatibo
Supertónica			Super-toniko
Supervivencia	Survivance, survie	Survivorship	Super-bizitza

SUPRA ere berdin:

Supraconsciencia			Supra-kontzien- tzia
Suprainteligencia			Supra-adimendu
Supranacional			Supra-nazional
Suprarrealismo		Surrealism	Supra-errealismo
Suprasensible	Suprasensible	Suprasensible	Supra-sentikor, supra-sentigarri

HIPER-ek ere ba ditu honelako hitzak. Super, supra nahiz hiper berdintsu zaizkigu, hirurak erabiltzekoak izanik tokatzen denean.

VII

SUB - INFRA - INTRA - VICE

SUB: Sail honetan SUB-ek lekuzko esanahi zehatza darduka, "behean" edo "beheko". Euskerazko kidea PE-PEKO-k izan behar du dudarik gabe. AZPI ere bai inoiz.

Subcostal	Sous-costale	Sub-costale	Saihespeko
Subcutáneo	Sous-coutane	Sub-coutaneous	Larru-peko
Subfluvial	Sous-fluvial	Sub-fluvial	Ibai-peko
Sublingual	Sublingual	Sublingual	Mihi-peko
Sublunar	Sublunaire	Sublunar	Ilargi-peko
Submarino	Sous-marin	Submarine	Itsas-peko / Sub-marino
Submaxilar	Sous-maxilaire	Sub-maxillary	Matrail-peko
Subranquial		Subbranchial	Zakatz-peko
Subscribir	Sous-crire	To subscribe	Suskribatu, Harpidetu
Subsuelo	Sous-sol	Subsoil	Lur-peko
Subterráneo	Souterrain	Subterranean	Lur-azpi, zoru-pe
Subtropical	Subtropical	Subtropic(al)	Tropiku-peko, sub-tropikal

INTRA: Ez dago aurrizki hau hartu beharrik, euskal atzizki batzuren artean sobera adieraz baitaiteke. Nola-nahi, garrantzia urriko aurrizkia da.

Intra-muros	Intra-muros	Intra-mural	Intra-muros, Horma-barren
Intramuscular	Intramusculaire		Muskulu-peko, muskulu-arteko
Intravenoso	Intraveneux		Zain-peko
Introversión	Abstraction (del'ame)	Introversion	Introbertsio

INFRA: Aurrizki hau agiri den hitz guti baina teknikoean onartu beharrekoa da dudarik gabe. PE-PEKO atzizkiak osaturiko hitzek ez dezakete irten-biderik eduki. Gainera INFRA-k zientzia adar dibertsoetan hedadura handia eta xit egi-na daduka.

Infraorbitario	Sous-orbitaire	Infra-orbital	Infra-orbital, orbita-peko
Infrarrojo	Infra-rouge	Infra-red	Infra-gorri
Infraestructura	Infrastructure	Substructure	Azpi-estruktura
Infravalorar			Infra-baloratu, guti-etsi
Infradesarrollado			Infra-desarrollatu
Infrahumano			Infra-gizazko

SUB - VICE

Bi aurrizkiok karguei buruz bigarrentasuna, urrengo maila beherantz adierazten dute.

SUB: Esanahi honetan SUB-i berari eutsi behar zaio, edo hobeto akaso, SUB-i bai behintzat.

Subdelegado	Sous-delegue		
	Subdelegue	Subdelegate	Subdelegatu
Subdiácono	Sous-diacre	Subdeacon	Sub-diakonu
Subdirector	Sous-directeur	Subdirector	Sub-direktore
Subgobernador	Sous-gouverneur	subgovernor	Sub-gobernadore
Subinspector	Sous-inspecteur	Subinspector	Sub-inspektore
Suboficial	Sous-officier	Subofficer	Sub-ofizial
Subprefecto	Sous-prefet	Sub-prefect	Sub-prefektu
Subbrigadier	Sous-brigadier	Sub-brigadier	Sub-brigadier
Subintendente	Sous-intendant	Interintendant	Sub-intendente
Subjefe	Sous-chef	Under-chief	Suz-buru, sub-nagusi
Subsecretario	Sous-secretaire	Undersecretary	Sub-idazkari

BIR-ek balio al du SUB hau adierazteko? Hain zuzen sail honetan bigarrentasuna adierazten delarik, ez leudeke akaso hain gaizki honelakoak: Bir-alkate, bir-inspektore, bir-nagusi, etab. Egia da bir-alkate gehiago dela “bigarrenez alkate”, “bigarren alkate” baino. Ba dago aldea batetik bestera. Baina hau ez litzateke eragozpenik haundiena, zeren batetik besterako ahaidetasun, hurbiltasun haundirik ere ez baitaiteke uka. Ba da hizkuntzetan arbitrariotasun haundiagorik. Eragozpenik haundienak beste bi hauk dira.

a) BIR-ek ba duela Hemendik aparte ere nondik ibili haundirik

b) eta batez ere SUB ezer pentsatzen hasi aurretik hartu beharreko aurrizkia dala uste dugulako.

VICE: Aurrizki hau agertzen den hitzetan, kasuren batean-edo izan ezik, **ORDE** dela egoki uste dugu. **ORDEKO** eta **ORDEZKO**, berez eta lojikaz ondo egonik ere, hitza alferrik luzatzea besterik ez da eta beraz konplikazioak sor arazten. **ORDE** hutsak sobera adierazten du behar dena, areago oraindik, **ORDE** hitz elkartuetan edo atzizki bezala jatorrago eta zaharrago dela esanen genuke honelako hitz hain herritar bezain ezagunek adierazten dutenez: Aita-orde, ama-orde, anaia-orde, urre-orde, etab.

Vicecanciller	Vice-chancellor	Vice-chancellor	Kantziler-orde
Vicecónsul	Vice-consul	Vice-consul	Kontsul-orde
Viceconsulado	Vice-consulat	Vice-consulate	Kontsul-ordetza
Vicegerencia	Vice-gerance	Vive-gerency	Jerente-ordetza
Vicegerente	Vice-gerant	Vice-gerent	Jerente-orde
Vicegobernador		Vice-governor	Gobernadore-orde
Vicepresidente	Vice-presidence	Vice-president	Presidente-orde
Vice-presidencia	Vice-presicence	Vice-presidence	Presidente-orde- tza
Vice-rector	Vice-recteur	Vice-rector	Erretor-orde
Vicesecretario	Sous-secretaire	Assistant secretary	Idazkari-orde
		Assistant secreta- ry ship	Idazkari-ordetza
Vicesecretaria	Sous-secretariat	Assistant treasurer	Kutxari-orde
Vicetesorero			
Virreina	Vice-reine	Viceroy's wife	Erregina-orde
Vicerreinato	Vice-royauté	Viceroyship	Errege-ordetza
Virrey	Vice-roi	Viceroy	Errege-orde

Hemen dadukagun duda bakarra, eta ez tipia, ez da ORDE onetsi ala ez, VICE beste gabe gaitzetsiko den baizik. Izan ere VICE hemen agiri diren hiru erderek ez ezik, beste europear guztiek ere masiboki harturik dadukate. Beraz akaso soluzio zuhurrago litzateke hauzia orde ALA vice gabe, orde ETA vice jartzea.

SUB: Sail hau berez lehengo SUB-ena bera litzateke, han karguei buruz zena hemen jeneralago izanik. Beraz SUB-ek gutiagotasuna, tipiagotasuna adierazten du, zerbaiten behera-goko urren maila. Hemen ere dudarik gabe SUB onartu behar da.

Subconsciente	Subconscient	Subconscious	Sub-kontzient
Subarrendador	Sous-locataire	Subrenter	Sub-maizter, sub-errentari
Subclase	Sous-clase	Subordinate-class	Sub-klase
Subcomisión	Sous-commission, sous-comite	Sub-committee	Sub-komisio
Subgénero	Sousgenre	Subgenre	Sub-mota, sub-jenero
Subtítulo	Sous-title	Subtitle	Sub-titulu
Subdesarrollo	Sous-developpe- ment		Sub-desarroiilo
Subforo	Contrat de sous ferme		Sub-foru
Subdividir	Subdiviser	To subdivide	Bir-zatitu
Subdistinguir		To make subdistintion	Bir-beretzi

SUB-ena bukatzeko anitz hitz dago osorik hartu beharreko edo osorik itzuli beharreko:

Submarino	Sous-marin	Submarine	Submarino
Subordinar	Subordonner	To subordinate	Subordinatu
Subrogar	Subroger	To surrogate	Subrogatu
Subsidio	Subside	Subsidy	Subsidio
Sustancia	Substance	Substance	Sustantzia
Sustantivo	Substantif	Substantive	Sustantibo
Suburbano	Suburbain	Suburban	Suburbano
Subvención	Subvention	Subevention	Subentzio
Subversión	Subversion	Subevention	Subertsio
Subjetivo	Subjetif	Subjetive	Sujetibo
Subjetivismo	Subjetivisme	Subjetivism	Subjetibismo
Subsistencia	Subsistance	Subsistency	Subsistentzia
Sublevar	Soulever	To raise	Sublebatu, matxinatu
Sustituto	Substitut	Substitute	Ordezko
Substituir	Sustituer	To substitute	Ordeztu
Subterfugio	Subterfuge	Subterfuge	Ihes-bide
Subyugar	Subjuguer	To subjugate	Menderatu, uztarperatu
Suponer	Supposer	To suppose	Eman...
Sostén	Soutien	Support	Sostengu
Sostener	Soutenir	To sustain	Sostengatu, eutsi
Socavar	Effondrer	To undermine	Azpi-jan
Someter	Soumettre	To submit	Makur-arazi
Sonsacar	Soutirer	To obtain something by cunning	Erasan
Sonrojarse	Faire rougir	To redden	Lotsatu, gorritu
Soportar	Supporter	To support	Jasan, soportatu
Sorprender	Surprendre	To surpris	Atzeman, sorprentu
Sosegar	Apaiser	To appease	Sosegatu, baretu
Suposición	Supposition	Supposition	Aieru, suposizio

VIII

UNI-MONO - BI-DI - TRI - CUATRI... - MULTI - POLI

UNI-MONO: Aurrizki hauen kide zuzena eta argia BAKAR da atzizki bezala erabilirik.

Unicelular	Unicellulaire	Unicellular	Zelule-bakar
Unicolor	Unicolore	Unicolour	Kolore-bakar
Unicornio	Unicorne	Unicorn	Adar-bakar
Unifoliado	Unifolie	Unifoliolate	Hosto-bakar
Unilateral	Unilateral	Unilateral, one-sided	Alde-bakar
Unipersonal	Unipersonnel	Unipersonal	Pertsona-bakar
Unisexual	Unisexuel, unisexualé	Unisexual	Sekso-bakar
Unívoco	Univoque	Univocal	Zentzu-bakar, uniboko
Unípede	Monopede	Uniped	Oin-bakar
Unísono	Unissonnant	Unisonous	Hots-bakar
Monocordio	Monocorde	Monochord	Hari-bakar
Monocotiledóneo	Monocotyledone	Monocotyledo- nous	Atal-bakar
Monocromo	Monochrome	Monochrome	Kolore-bakar
Monóculo	Monocle	Monocle	Begi-bakar
Monofásico	Monophasé	Monophas	Fase-bakar
Monófilo	Monophylé	Monophyllous	Orri-bakar
Monólogo	Monologue	Monologue	Bakar-hizketa
Monórrimo	Monorrime	Monorime	Rima-bakar
Monosilabo	Monosyllabe	Monosyllable	Silaba-bakar
Monospermo	Monosperme	Monospermous	Hazi-bakar

Erabil al daiteke BAKAR aurrizkitzat ere? Bai noski “bakar-hizketa”n agiri denez. Saila asko luza liteke: bakar-lan, bakar-toki, bakar-bizitza, etab etab, ELKAR-en ikusten zen antzera. Baina hauek UNI-k eta MONO-k gehienez dadukatenaz beste esanahi bat dadukate, alegia, ez bat den edo daukan zer-bait, batena dena baizik. BAKAR aurretik doanean —bakar-enpresa eta antzekoak— gazteleraz “individual, privado, solitario...” etab litzateke.

Hitz askotan ordea hain teknikoak eta unibertsalak izanik, MONO-ri eutsi behar zaio ez aurrizkiagatik beragatik, hitz osoagatik baino. Gainera zerrenda honetako hitz asko, nahi eta ere, nekez antola daiteke taxuz BAKAR-ez baliaturik, lehen ere sobera horniturik gauden hitz mounstroetariko bat gehiago jaurtiki nahi ez bada behintzat.

Monogamia	Monogamie	Monogamy	Monogamia
Monogamo	Monogame, monogamique	Monocotyledonou:	Monogamo
Monogenismo	Monogenisme	Monogenisme	Monogenismo
Monografía	Monographie	Monography	Monografía
Monolito	Monolithe	Monolith	Monolito

Monometalismo	Monometalisme	Monometalism	Monometalismo
Monomio	Monome	Monomial	Monomio
Monopolio	Monopole	Monopoly	Monopolio, Monopol
Monoteísmo	Monotheisme	Monotheism	Monoteismo
Monotelismo	Monothleisme	Monothelitism	Monotelismo
Monotipia	Monotype	Monotype	Monotipo
Monotonía	Monotonie	Monotony	Monotonia

BI-DI: Bi era daduzkagu BI-DI hau euskeraz adierazteko: BIKOITZ atzizki bezala eta BI aurrizki bezala lehen-jarri-rik. Ba liteke gure BI-BIR-ek latinezko BIS-ekin eta erderetako BI aurrizkiarekin kointzidentzia hutsa baino zer-ikusi gehiago edukitzea elkarrekin.

BIKOITZ-i buruz ez dago ezer esan beharrik sobera argi baitago.

Bigarren era dudazkoago edo ez-ohituago da, honek ez du- larik esan nahi ez-jatorrago dela. BI aurrizkitzat erabiltzeak bi abantail haundi ditu: aurrizki izatea batetik (lehenago ere esan- nik dago nolako preferentzia zor zaien aurrizkiei) eta beste hiz- kuntzekiko kidetasuna bestetik. Hauei laburtasuna eransten ba- zaie, bi ez ezik hiru abantail dira.

Era hau jatorra den duarik ez dago, ez bakarrik BI-rako, HIRU, LAU, eta gainetiko beste zenbaki guztietarako ere bai- zik. Honen zerrenda herritar bezain ezagun hau ikustea beste- rik ez dago: bi-burdina, bi-jorrai, hiru-oin, hiru-ortz, hiru-zulo, hiru-zaku, lau-buru lau-marai, lau-hortz, bi-jorrai, hiru-oin, hiru-hortz, hiru-zulo, hiru-zaku, lau-buru, lau-marai, lau-hortz, lau-oin, lau-zuri, bost-orri, bost-hortz, hamar-hatz, etab. Azkue- ren hiztegian ikus daitezke hauk. Gainera nonnahi ezagutu izan dira honelako gaitz-izenak: bi-mutur, lau-begi, etab. Garai ba- tean, betaurrekoak urri zebiltzanean oraindik, betaurrekodun edozeini esaten zitzaion "lau-begi".

Hauetatik hitz bat, akaso ezagunena, hartzeko hona nola lihoakeen zerrenda zenbakiz zenbaki: Hortz-bakar, bi-hortz, hiru-hortz, lau-hortz, bost-hortz, sei-hortz, zazpi-hortz, hamar- hortz... ehun-hortz... anitz-hortz... oro-hortz. Era berean, "hortz"ek haina eskubide dadukala esan behar beste edozein hitzek ere zerrenda hau bezain jatorrik egiteko.

Adar-bakar, bi-adar, hiru-adar, lau-adar, ehun-adar... aniztadar.
 Gurpil-bakar, bi-gurpil, bost-gurpil, ehun-gurpil... anitz-gurpil.
 Hile-bakar, bi-hile, hiru-hile, lau-hile, sei-hile...
 Urte-bakar, bi-urte, hiru-urte, bost-urte, mila-urte, ehun-urte...

Begira orain LAU-HORTZ-en prozesoa, adibide bat hartzeko. Lehenengotan segur asko "lau hortzetako haitzur" edo zerbaitu esanen zuten. Gero lanabesa ezagutu eta berezitu-ala, "haitzur" kenduko zioten, "lau hortzetako" geraturik. Geroago "tako" kendu eta "lau hortz" hutsetan geratuko zen. Azkenez "lau" eta "hortz" elkartu (mentalki noski, ez ortografiaz, zeren hitz hau asmatu zutenak ez baitziren segur asko letra-gi zonekin askorik fidatuko) eta hitz bakar bilakatu zen: Lau-hortz edo lauortz, Azkuek dakarren bezala. Hitz hau etxean hartu genuenok hitz bakartzat, sinpletzat genedukan, "etxe", "zulo" nahiz beste edozeinen pare. Prozesu honetan hizkuntzaren aurrerakuntza, desarroilo izugarria nabari da. Beraz "lau-hortz" dioenari "lau-hile" ere berdin natural zaio "cuatrimestre" esateko etab. Hona ordea prozesu hau ez dela desiratzeko zatekeen haina jeneraldu. Baina ez dago dudarik hala egiteko sobera oinarri dagoela. Eta nola beste aldetik baliakizun hau hain emankor eta aurrera eragile baita, dudarik ere ez aurrizkien zirkulazioan toki berezia zor zaiola.

Orain arte esanek sustantiboetarako bakarrik balio dute, edo hobeto akaso, orain arteko hitzak sustantiboak ziren. Balio al du baliakizun honek adjetibo egiletzat ere? Baiezkoan gaudede. Esaldi hau, esaterako, guztiz zuzen legoke: "gizon bi-zangoak abere lau-zangoek haina korri lezake". Hemen "bi-zango" eta "lau-zango" adjetibo soilak dira. Gazteleraz ere bicolor, bimoto etab adjetiboak dira. Halaber frantsesez, ingelesez eta beste hizkuntzetan ere. Beste batzutan ordea, adjetiboegi dagokien bukaera jartzen diete: bilabial, bilateral, bisexual... eta ez bilabio, bilado, bisexo... Euskeraz berezketarik egitekotan DUN erantsirik egin daiteke egokien: bi-burudun, lau-zangodun, bi-seksodun... TAKO ere hor dago (lau-koloretako, ehun-zangotako...) gramatika zorrotzez akaso ortodoxoago litzatekeena. Baina gabiltzan arloan "ehun-zangotako", "ehun-zangodun" bihurtzea uts gramatikala baino areago aurrerapen bat dela

uste dugu. Gehienez nola-nahi, DUN bera ere ez imintzearen aldeko gara.

Hasieran aipaturiko bi erak beraz hiru bilakatu dira, bigarrena bikoitza baita: HORTZ-BIKOITZ, BI-HORTZ eta BI-HORTZDUN. Zerrenda honetan hirurak jartzen ditugu gehienez, zeinek ez baitu esan nahi hitz guztietan hirurak behar direnik edo berdin ondo leudekeenik. Erabilerak ebatzi beharko.

Bicapsular	Bicapsulaire	Bicapsular	Bi-zorro, bi-zorrodun, zorro-bikoitz
Bicarburo Biciclo	Bicarbure Bicycle	Bicarburet Bicycle	Bi-garburu Bi-gurpil, bi-ziklo
Bicolor	Bicolore	Bicolour	Bi-kolore, bi-koloredun, kolore-bikoitz
Biconvexo Bicorne	Biconvexe Bicorne	Biconvex Bicorned	Bikonbexu Bi-adar, bi-adardun, adar-bikoitz
Bicéfalo	Bicepkale	Bicephalous	Bi-buru, bi-burudun, buru-bikoitz
Bifloro	Biflore	Biflorate	Bi-lore, bi-loredun, lore-bikoitz
Bilabiado	Bilabie	Bilabiate	Bi-ezpain, bi-ezpaindun, ezpain-bikoitz
Bilateral	Bilateral	Bilateral	Bi-alde, bi-aldedun, alde-bikoitz
Bilingüe	Bilingue	Bilingual	Bi-ele, bi-eledun ele-bikoitz
Bípedo	Bipede	Biped	Bi-zango, bi-zangodun, zango-bikoitz
Bisexual	Bisexual	Bisexual	Bi-sekso, bi-seksodun
Bifásico	Biphase	Biphase	Bi-fase, bi-fasedun
Bimestre	Bimestre	Bimonthly	Bi-hile

Bisemanal	Bihebdomadaire	Semiweekly	Bi-astetako /
Bisílabo	Bissyllabe	Bisillabic	Bi-silaba, bi-silabadun, silaba-bikoitz
Dicotiledóneo	Dicotyledone	Dicotyledonous	Bi-atal, bi-ataldun,
Dicromático	Dichromatique	Dichromatic	Bi-kolore, kolore-bikoitz dikromatiko
Didáctilo	Didactyle	Didactylous	Bi-hatz, bi-hatzdun
Dipétalo	Dipetale	Dipetalous	Bi-orri, bi-orridun
Díptero	Diptere	Dipteral	Bi-hegal, bi-hegadun hegal-bikoitz
Ditono	Ditone	Ditone	Bi-tonu

Ba da BI-DI-dun anitz dudarik gabe osorik hartu beharreko aurrizkitik aparte.

Bigamia	Bigamie	Bigamy	Bigamia
Bigamo	Bigame	Bigamous	Bigamo
Bimetalismo	Bimetalisme	Bimetalism	Bimetalismo
Binomio	Binome	Binomial	Binomio
Dikotomia	Dichotomie	Dichotomy	Dicotomia
Dilogia		Dilogy	Dilogía
Dimorfo	Dimorphe	Dimorphous	Dimorfo
Diptongo	Diphthongue	Diphthong	Diptongo
Diteismo	Ditheisme	Ditheism	Diteísmo

TRI: BIDI-ri eginiko oharrek berek balio dute honako ere paretasun osoz, BI izan beharrean HIRU izanik.

Triciclo	Tricycle	Tricycle	Hiru-gurpil, hiru-gurpildun, triziklo
Tricolor	Tricolore	Tricolour	Hiru-kolore, hiru-kolordun
Tricorne	Tricorne	Three-hornet	Hiru-adar, hiru-adardun, adar-hirukoitz
Tridente	Trident	Trident	Hiru-hortz
Triduo	Triduum	Triduum	Hiru-urren
Trienio	Triennium	Triennium	Hiru-urte

Trifásico	Triphase	Triphasic	Hiru-fase, hiru-fasedun, fase-hirukoitz
Trifloro	Triflore	Triflore Three-flowered	Hiru-lore, hiru-loredun, lore-hirukoitz
Trilátero	Trilateral	Trilateral	Hiru-alde, hiru-aldedun, alde-hirukoitz
Trilingüe	Trilingue	Trilingual	Hiru-ele, hiru-eledun, ele-hirukoitz
Trimestre	trimestre	Trimester	Hiru-hile
Tripode	Trepied	Tripod	Hiru-oin
Trirreme	Trireme	Trireme	Hiru-arraun
Trisemanal		Triweekly	Hiru-astetako/Hi- ru-astekari
Trisílabo	Trissyllabe	Trisyllabic	Hiru-silaba, hiru-silabadun
Tritono	Triton	Tritone	Hiru-tonu

Ba da TRI-n ere anitz hitz aurrizkitik aparte osorik hartu beharreko.

Triángulo	Triangle	Triangle	Triangulu
Tricotomía		Trichtomy	Trikotomia
Trilito	Trilithe	Trilith	Trilito
Trinomio	Trinome	Trinomial	Trinomio
Triptico	Triptique	Triptich	Triptiko
Triptongo	Triphtongue	Triptong	Triptongo
Triunviro	Triumvir	Triumvir	Triunbir(o)

TRI honetan duda bat sor liteke ea HEREN-ek ere balio ote duen. Bai noski baina beste esanahi baterako. Diferentzia argi dago: HEREN-AITONA hirugarren aitona edo hirugarrenez aitonatua edo honelako bat da. HIRU-AITONA edo AITONA-IRUKOITZ ordea era batera hiru aitona dituena-edo litzateke —gaitz samar noski, baina auskalo gure esabak nola maneiatzen ziren—.

Azkuek HEREN-GUSU batzen du, hirugarren gusu dena. Honela lihoake katea: Lehen-gusu, bir-gusu, heren-gusu, lau-gusu, bos'-gusu, etab. Baina HEREN-SUGE ere batzen du, eta Azkuek batuz aparte tradizio haundiko hitza izan da Euskal-Herrian. Hona ordea HEREN-SUGE ez dela "hirugarren

suge” suge hirukoitza baizik, hiru buru dituena. Hala dirudi behintzat ipuinetan ematen zitzaizkigun esplikazioetatik. Honela izanik, hitz errespetagarri bat ba dago behintzat HEREN-ek “hirugarrentasuna” ez ezik “hirukoitzasuna” ere adieraz dezakeela ikusteko. Ba liteke Azkuek batu ez arren HEREN-SUGE-ren pareko hitz gehiago egotea. Lehenago ere aipaturiko fosilmendu kontua dago hemen. Heren-suge tradizioz zaharrenean eta euskaldunen ahorik gehienetan hain hitz naturala eta aipatua izan bada, horrek esan nahi du HEREN-en eta euskaldunen aldetik ez zegoela berez eragozpenik HEREN-ek “hirukoitzasuna” adieraz zezan eta beste hitz batzutara ere zabal zedin. Izan ere bi esanahiak, “hirugarren” eta “hirukoitz”, hain elkarrengandik hurbil daude non hizkuntzak zaulitasun apur bat edukitzera, biak elkarrekin nora-nahi ibiltzeko modukoak baitira. Ba dago, bai, arbitrariotasun haundiagorik hizkuntzetan.

CUADRA-CUATRI:

Cuadrángulo	Quadrangulaire	Quadrangle	Lau-angulu, kuadrangulu
Cuadrumano	Quadrumane	Quadroumanous	Lau-esku, lau-eskudun, esku-laukoitz
Cuadrúpedo	Cuadrupede	Four-handed	Lau-zango, lau-zangodun
Cuadrísílabo	Quadrísyllabe	Quadruped	Lau-silaba, lau-silabadun
Cuadrifolio	Quadrifolie	Quadrísyllable	Lau-orri, orri-laukoitz
Cuatricolor	Quadricolore	Quadrifoliate	Lau-kolore, kolore-laukoitz
Cuatrienio		Quadriennium	Lau-urte
Cuatrimotor		Four-engine plane	Lau-motor
Cuadrilátero		Quadrilateral	Lau-alde, lau-aldedun
Cuadrinomio	Quadrinome	Quadrinomial	Kuadrinomio
Tetraivalente		Quadrivalent	Kuadrivalente.

Berdin segi daiteke bost, sei, hamar... ehun... mila... numeroak bukatu arte.

MULTI - POLI:

Bi aurrizkiok hartzeko duda izpirik ez dago. Arau jeneralez, ez dago euskeraz hauen ordezeko egokirik aurkitzerik dekretoz kreatu eta ezarri ezik. Egia esan hizkuntza hauzi guztietako arrazoiak dira atakagarri, hala hartzearen aldekoak nahiz kontrakoak. Ba dela, ez dela, ba litekeela, balio duela, ez duela... Azkenean esan zaharrarena: balego eta balitz, ez aharrausi ez zintz. Sarritan arrazoiak imintzen hastea dena lorrintzeko modurik onena da. Kasu honetan bi aurrizki hauen onartzeari eztabaida guztien aurretiko kontua deritzagu. Euskera normal eboluzionatu izan baliz, hauk eta beste anitz aurrizki berez berez onartuak izanen ziren eta gaurko lana —lanik egotekotan— ez zatekeen arrazoi bila buruak apurtzea, gehienez ere kontra ezer egon litekeen galdatzea baizik. Hala egin dute beste hizkuntza guztiek eta hala gaude oraindik gauden bezala guk ere beste hainbeste ez egitearren.

Poliandria	Polyandrie	Polyandry	Poliandria
Poliarquía	Polyarchie	Polyarchy	Poliarkia
Policlínica		Polyclinic	Poliklinika
Policroísmo	Polychroisme	Polychromism	Polikroismo
Policromía	Polychromie	Polychromy	Polikromia
Poliedro	Polyedre	Polyedron	Poliedro
Polifagia	Polyfagie	Polyfagia	Polifagia
Polifásico	Polyphase	Polyphase	Polifase
Polifonía	Polyphonie	Polyphonism	Polifonia
Poligamia	Polygamie	Polygamy	Poligamia
Poligenismo		Polygenesis	Poligenismo
Poligloto	Polyglotte	Polyglott	Poligloto
Polígono	Polygone	Polygon	Poligono
Poligrafo	Polygraphe	Polygraph	Poligrafo
Polimorfo	Polymorphe	Polymorph	Polimorfo
Polimorfismo	Polymorphisme	Polymorphism	Polimorfismo
Polinomio	Polynome	Polynom	Polinomio
Polisilábico	Plysyllabe	Polysyllable	Polisilaba
Polisintético	Polysynthetique	Polysynthetic	Polisintetiko
Politécnico	Polytechnique	Polytechnic	Politekniko
Politeísmo	Polytheisme	Polytheism	Politeismo
Multicolor	Multicolore	Multicolour	Multi-kolore
Multifloro	Multiflore	Multiflorous	Multi-lore
Multiforme	Multiforme	Multiform	Multiforme
Multilatero	Multilateral	Multilateral	Multilateral, anitz-aldendun
Multimillonario	Multimillionnaire	Multimillionaire	Multi-miloitsu

Multiplicar	Multiplier	To multiply	Multiplikatu, bidertu
Multinomio	Multinome	Multinome	Multinomio
Multipedo		Multiped	Multi-zango, anitz-zango
Multipolar	Multipolaire	Multipolar	Multi-polar, anitz-polo
Multicopista	Apareil de poly- copie		Multi-kopista

Nahiz eta gutiago, PLURI ere ba dago hauekin batera, hiztegieta ez baina liburueta eta abar noiz-nahi aurkitzen dena: Pluriempleo = pluri-enplegu, etab.

Euskeraz ez al dago, bada, aurrizki hauk adierazteko modurik? Jakina baietz, beste hizkuntza guztietan ere ba dagoen bezala. Gainera ez badago, asmatu egiten da eta kito. Euskaldunok ba dakigu, bai, ofizio honen berri. Baina euskerazko baliakizunek aurrizki komun hauekin BATERA jokatu behar dute, ez KONTRA: Ingelesaren adbidea jartzeko, POLY eta MULTI-rekin batera maiz darabil MANY ere: Many-celled, many-coloured, many-cornered, many-headed, many-sided eta etab.

Euskeraz, ingelesak MANY-rekin antzera, hiru baliakizun egoki izenda ditzakegu.

a) TSU: Atzizki hau batzutan egoki jar daiteke, POLI eta MULTI hain zuzen ugaritasunaren aurrizkiak baitira. Esaterako, koloretsu, miloitsu etab. multicolor, multimillonario etab izan daitezke. "Batzutan egoki jar daiteke" esan dugu, zeren TSU-k, hain aurrizi ugaria eta bestela ere nortasun haundikoa izanik, bere beste esanahi batzuekin nahastea arma araz baitezake. Esaterako BURUTSU buru asko dituen baina areago buru ona, buru argia dadukana da, beraz ingeleseko many-headed "burutsu"z itzultzea oker legoke. "Koloretsu" bera ere kolore askodun ez ezik, kolore bizidun ere izan daiteke. Eta honelako beste zenbait puntualizazio segur asko alferreko. Kontuak jorik, arau jeneralez TSU-k ez duela balio POLI eta MULTI-ren ordezkotzat.

b) ANITZ: Honi buruz BI-ri eginiko oharrak berak eman daitezke.

1. ANITZ eta HITZA. Honela han agertzen ziren guztiei beste bat erants dakikee: Adar-bakar, bi-adar, sei-adar... anitz-adar. Hortz-bakar, bi-hortz, lau-hortz... anitz-hortz etab.

Honetarako euskerak nahikoa oinarri emanaz gainera, beste hizkuntzetan ere normal egiten dute joko hau. Hala gazte-leraz, frantsesez nahiz ingelesez MULTI eta POLI-ren lagunak sustantiboak dira beste gabe sarritan: Multicolor, multicolore, multicolour. Frantsesez eta ingelesez polyphase; ingelesez multi-phase, multiform etab. etab. LAU-HORTZ-en genekusan eboluzio lojiko ber-bera egin daiteke hemen ere: Lau hortzetako haitzur-anitz-hortzetako haitzur → lau hortzetako-anitz hortzetako → lau hortz-anitz hortz, eta azkenez hauxe berau hitz bakar bezala: lau-hortz eta anitz-hortz.

2. ANITZ eta DUN.

Lau-hortzdun — anitz-hortzdun
 lau-zangodun — anitz-zangodun
 lau-burudun — anitz-burudun, etab etab

3. ANIZKOITZ.

Adar-hirukoitz — adar-anizkoitz
 Atal-bostkoitz — atal-anizkoitz
 begi-laukoitz — begi-anizkoitz, etab etab.

d) ASKODUN:K Zango-askodun, miloi-askodun, alde-askodun, kolore-askodun, oin-askodun etab etab. Era honek nahikoa esplotagarri ematen du. ASKOKOITZ ere, jakina, ez legoke gaizki.

Norbaitek ihardets dezake baliakizun guzti hauk nahikoa eta sobera direla, POLI, MULTI, eta PLURI adierazteko. Irizpide hertsikor honekin huts gabeki gertatuko dena da ez batzuk ez bestetzuk ez dutela bururik aterako. Kontradikzio badi-rudi ere, euskal baliakizunek POLI eta MULTI-rekin batera bakarrik garai dezakete, inola ere ez GABE eta gutiago kontra. Batek aurrizki komunak onarturik eta askatasun sikolojiko osoz idatziz euskal baliakizun propioren bat erabiltzea pentsa-

tzen duenean, garantia haundiago dago egoki erabiltzen eta hizkuntza aurrera arazten ari dela. Baldin ordea, POLI, MULTI eta PLURI gaitzesten dituenari, hitz asko bortxatuak, derrigor-tuak —abortoak ez esatearren— aterako zaizkio. Honela euskal bailakizunak berak ere, irabazle irten beharrean, lorrindurik, izorraturik geratzen dira, lehenago inoiz aipaturiko epetx-ama bezala. Alderantziz ordea, hala kasu honetan nola beste aurrizkietan ere, dudarik ere ez euskal baliakizunak asko ugarituko eta emankortuko direla oinarri ganorazko batzuren gainean abiatutakoan.

IX

AB - AD

Bi aurrizki hauk oso inportanteak eta derrigorrezkoak dira, hitz mordo haundi eta inportante baten osakai baitira. Hala ere ez dugu uste aurrizki solte eta autonomotzat hartu behar direnik, OSORIK hartu ala OSORIK itzuli baizik. Hau-xe da behintzat Gaztel Akademiako Enziklopedia hedatsuan datorren hainbeste honelako hitzen azterketatik atera dugun konklusioa. Aurrizki hauk ez dira atal solteak, osatzen dituzten hitzei —asko eta inportanteak noski— loturik doazenak baino.

1) OSORIK HARTUAK:

Abdicar	Abdiquer	To abdicate	Abdikatu
Abjurar	Abjurer	To abjure	Abjuratu
Ablativo	Ablatif	Ablative	Ablatibo
Ablución	Ablution	Ablution	Abluzio
Abolir	Abolir	To abolish	Abolitu
Aborto	Avortement	Abortion	Aborto
Absolver	Absoudre	To absolve	Absolbatu
Abstenerse	S'abstenir	To abstain	Abstendu, abstenitu
Abstraer	Abstraire	To abstract	Abstraitu
Absurdo	Absurde	Absurd	Absurdo

Abuso	Abus	Abuse	Abuso
Abogado	Avocat	Advocate	Abokat
Adagio (mus)	Adagio	Adagio	Adagio
Adjetivo	Adjectif	Adjective	Adjetibo
Administrar	Administrer	To administer	Administratu
Admitir	Admettre	To admit	Ametitu
Adorar	Adorer	To adore	Adoratu
Alegar	Alleguer	To allege	Alegatu
Adjudicar	Adjuger	To adjudge	Adjudikatu
Aducir	Alleguer	To adduce	Aduzitu

2) OSORIK ITZULIAK:

Aberración	Aberration	Aberration	Okerkuntza, saiheste
Abirritar	Abirriter	To abirritate	Gesatu, desumindu
Ablegación	Ablegation	Ablegation	Herbeste-aldi, herbesteratze
Abominar	Abominer	To abominate	Gaitzetsi, higuindu
Absceso	Abscès	Abscess	Zorne, haunditu
Abundar	Abonder	To abound	Ugari izan
Abyección	Abjection	Abjection	Doilorkeria
Aborrecer	Hair	To hate	Gorroto ukan, erre ukan
Abscisión	Abscision	Excision	Ebaki, zarrastada
Adagio	Adage	Adage	Esaera
Adaptar	Adapter	To adapt	Moldatu
Adherir	Adherer	To adhere	Atxiki, itsatsi
Adjunto	Adjoint	Adjunct	Alboko, ondoko
Admirar	Admirer	To admire	Miretsi
Adoptivo	Adoptif	Adoptive	-orde
Adornar	Orner	To adorn	Apaindu, adelatu
Adquirir	Acquerir	To acquire	Ardietsi, jabetu
Adverbio	Adverbe	Adverb	Aditz-lagun, adverbo
Adecuar	Approprier	To fit	Egokitu
Adunar	Unir	To joint	Batu
Adverar	Certifier	To certify	Egiztatu, zertifikatu
Advertir	Advertir	To apprise	Nabaitu, haute- man / Ohar- -arazi
Advocación	Invocation	Invocation	Deitura
Advenedizo	Parvenu	Upstart	Etorkin, kanpotai

Hemen ere esan beharra dago lehenengo, ez direla euskal hitzak agortzen eta bigarren ez direla hitz arrotz hauk biribilki ezesten, “premiarik” ez dugula ikusten baizik, “premiatasunari” buruz beste toki batean esanak kontuan edukirik.

AUTO

Hona beste aurrizki bat onartzeko arrazoi guztiak alde daduzkana. Dударik gabe aurrizki honekiko hitzak euskeratzeko egin ohi diren itzul-inguruak bortxatuak izanez gainera, adierazkortasun urria dadukate aurrizki honek ematen duenaren aldean. Hemen ere esan beharra dago eragozpenak aurrizkiaren aldetik gabe, hitzaren gaiaren aldetik datozela. Esaterako nola esan “autopropulsar” autopropulstsatu ala auto-bultzatu (edo bultzatu-ren ordeaz antzekoren bat) ala biak? Adjetibora pasatuz gero, are eragozpen gehiago dago (Auto-propulstore, auto-propulstsari, auto-bultzari, autobultzatzaile...) baina ez aurrizkiaren aldetik, hitzen edo atzizkien aldetik baino.

Autocami3n	Camion automob- .bile	Mtor lorry	Auto-kamioi
Autodidacto	Auto-didacte	Autodidactic Selftaught	Auto-didakto
Autogiro	Autogire	Autogyro	Auto-jiro
Autoinducci3n	Eelfinduction	Selfinduction	Auto-indukzio
Automotor	Automoteur	Self-movinn	Auto-motor, auto-mugitzaile
Autom3vil	Automobile	Automobile	Automobil
Autosugesti3n	Autosuggestion	Autosuggestion	Auto-sujestio
Autopista	Autoroute	Speed way	Autopista
Automatismo	Automatisme	Automatism	Automatismo
Aut3geno	Autogene	Autogenous	Autogeno
Autobi3grafo		Autobiographer	Auto-biografia
Aut3ctono	Autochtone	Autoctonous	Autoktono
Aut3grafo	Autographe	Autograph	Autografo
Autoplastia	Autoplastie	Autoplasty	Autoplastia
Autonom3a	Autonomie	Autonomy	Autonomia
Autopsia	Autopsie	Autopsy	Autopsia
Autocr3tica		Selfcriticism	Auto-kritika
Autogamia		Autogamy	Autogamia
Autorretrato		Self-portrait	Auto-erreturatu

Autovacuna	Autovaccin		Auto-etziketa, auto-bakuna
Autotipia		Autotype	Autotipo
Autoamputar			Auto-moztu
Autoanálisis			Auto-analisis
Autoavión			Auto-abioi
Autoeducación			Auto-heziketa
Autoencendedor			Auto-izekitzaile
Autopropulsar			Auto-propulstsatu
			Auto-bultzatu
Autoservicio			Auto-serbitzu

AUTO honekin, jakina, beste anitz eta anitz euskal hitz aurrizki daiteke, hala nola auto-urriki, auto-egin, auto-goralben, auto-herale, auto-ezagutza, auto-hondatu, etab, etab.

Aurrizki hau euskeratzeko “nor bere buruaren” eta beraz, segun zer kasutan, “neure buruaren, zeure buruaren, beren buruen—”, eta honelako esakerez baliatzea efikaza litzatekeela emanik ere, kirkira bat eskabadore batekin harrapatu nahi izatea bezalatsu litzateke.

CO - CON

Aurrizki inportante hau sailkatu beharra badago, ez da aurrizkiagatik beragatik, euskeraren beraren egiturak eragiten duen banaketagatik baizik.

I. ADJETIBOAK: Sail honetan adjetiboak datoz eta du-darik gabe IDE-KIDE-ri eman behar zaio nagusitasun osoa.

Coacreador	Creantier avec un autre	Cocreditor	Hartzedun-ide
Codeudor	Codebiteur	Codebitor	Zordun-ide
Coeterno	Coeternel	Coeternal	Beti-kide
Coheredero	Coheritier	Co-heir	
		Co-inheritor	Ondore-kide, hereda-kide
Cointeresado	Cointeresse	Cointerested	Interes-kide
Colocutor	Interlocuteur	Collocutor	Solas-kide, mintza-kide
Comensal	Commensal	Commensal	Mahain-kide

Compatriota	Compatriote	Compstriot	Aber-kide
Consanguíneo	Consanguin	Consanguine	Odol-kide
Consustancial	Consustantiel	Consustantial	Iza-kide, sustantzia-kide
Contemporáneo	Contemporain	Contemporaneous	Denbora-kide, aldi-kide
Copartícipe	Copartageant	Copartner	Parte-kide
Correligionario	Correligionaire	Co-religionist	Erljio-kide
Coagente		Coagent	Ajente-kide, koajente
Codelincuente	Delinquant avec un autre	Codelinquent	Hogen-ide, Kodelinkuente
Coetáneo	Contemporain	Coetaneous	Adin-ine, mende-kide
Coinquilino	Colocataire	Coinmate	Maizter-kide
Colactáneo	Frere-soeur de lait		Diti-kide, ugazkide
Compatrono	Patron avec d'autres	Co-patron	Patroin-kide, ugazaba-kide
Condiscípulo	Condisciple	School-fellow	Ikas-kide, eskola-lagun
Consocio		Partner	Sozio-kide, sozio-lagun
Cónyuge	Conjoint		Ezkon-kide
Copropietario	Coproprietaire	Copropietor	Jabe-kide
Coadministrador		Coadministrador	Administrari- -kide
Coadquirente	Coacquereur		Ardies-kide
Colegislador		Colegislativo	Legegin-kide
Compaisano			Herkide

Ikusten denez IDE-KIDE sustantiboei, aditzei nahiz adjetiboei erants dakikee, baina adjetiboak eratorriz beti. LAGUN-ek ere balio lezake esanahi berdinez. Ohar bide batez ingeleseko FELLOW-k egitura ber-bereko hitzak sor-arazten dituela: School-fellow = eskola-lagun, etab, etab. Paretasun hertsia-gorik ezin asma. Nola-nahi IKE-KIDE asko eta sobera delakoan gaude, LAGUN-ekin osaturiko hitzak areago hitz elkar-tutzat jorik adjetibotzat baino. Dena dela, hemen axola zaikun bakarra zera da, IDE-KIDE dela CO-CON- aurrizkiaren euskal kide egokia. Honek ez du esan nahi CO-CON-dun adjetibo arrotz guztien kontra gaudela, ez eta gutiagorik ere. Baina orduan ez ditugu aurrizkiagatik hartzen, OSOAN kontsideratu-

rik baino. Hona honelako zerrenda bat: Koadjutore, kontizent, kontsonante, koefiziente, kolektibo, etab, etab.

II. ADITZAK: Hemen dator gakoa IDE-KIDE-k ez baitu balio aditzik egiteko. "Eraman-kidetu" esaterako, ezer izaitekotan ez litzateke "batera eraman", "eraman-kide edo kargalagun bihurtu" baizik. Nola-nahi aditz reflexiboa litzateke, inola ere ez transitiboa.

1) Hitz asko dago erderaz CO-CON-*ez* aurrizkizturik egon arren eta inoiz akaso aurrizkia atal solte bezala berezteko egon arren, gaur unitate bakartzat har daitekeena. Orduan bi aukera daude: a. Hitz arrotza osoan hartu. Asko dira izan ere aurrizki honekikoak, euskeraz beste gabe onartu beharrekoak.

Colabobrar	Collaborer	To collaborate	Kolaboratu
Combinar	Combiner	To combine	Konbinatu
Comentar	Commenter	To domment	Komentatu
Comparar	Comparer	To compare	Konparatu
Competir	Concourir	To compete	Konpetitu
Componer	Composer	To compose	Konposatu
Comprender	Comprendre	To understand	Konprenitu
Comprometer	Compromettre	To submit	Konprometatu
Computar	Computer	To compute	Konputatu
Concentrar	Concetrer	To concentre	Konzentratu
Confederar	Confederer	To confederate	Konfederatu
Confiscar	Confisquer	To confiscate	Konfiskatu
Conformar	Conformer	To conform	Konformatu
Conjugar	Conjurer	To conjugate	Konjugatu
Conjurar	Conjurer	To conjure	Konjuratu
Conmutar	Commuter	To commute	Kommutatu
Conservar	Conserver	To conserve	Kontserbatu
Convencer	Convaincre	To convince	Konbentzitu
Cooperar	Cooperer	To cooperate	Kooperatu

Comisión	Commission	Commission	Komisio
Compromiso	Compromis	Band, jeopardy	Konpromiso
Concurrencia	Concour		Konkurrentzia
Conferencia	Conference	Conference	Konferentzia
Conmoción	Commotion	Commotion	Kommozio
Contrato	Contrat	Contract	Kontratu

b. Euskal kide batez itzuli. Honelakoak ere asko dira. Hona zerrenda bat gaztelera hutsez: Colectar, combatir, comedir, compadecer, comparecer, compeler, complacer, concatenar,

conceder, confortar, conducir, conmemorar, conmovet, consolar, contestar, corresponder, conturbar, corroborar, corromper, contribuir, convalecer, conversar... eta sustantiboak: coloquio, compuerta, consecuencia, contorno, coyuntura...

Ez ditugu hitz hauk beste hizkuntzetan emanen, ez eta euskeraz ere, begiratu hutsez baitirudi ba dutela euskal kide egokirik, nahiz eta batzu hartzekoak egon akaso. "Conducir", esaterako, automobilen eta abarren gidatzea denean, dudarik ere ez "konduzitu" dela. Nola-nahi, argi dago sail honen tankera.

CO-CON aurrizkidunetan talde hauxe da inportanteena eta ikus daitekeenez, aurrizkiak etimologiarako bakarrik konstatzen du gehienez ere, gehienak latineko hitzak, deabruak jakin noiz sortuak, baitira.

2) Baina ba daude CO-CON-ek bere nortasunari eusten dion hitzak. IDE-KIDE-k aditzik egiteko ez duela balio esan dugu, TU erantsiz gero aditz reflexiboak sortuko bailirateke, nola errege-kidetu, ikas-kidetu, aber-kidetu... zeintzuk ez baitezakete konplementu zuzenik eraman. IDE-KIDE aditzetan erabiltzeko modu bakarra —jatorra eta asko esplotatzekoa noski— euskerari hain bere zaion aditz bikoitzak egitea da IDE-KIDE-dun adjetiboei IZAN erantsirik, NAHI IZAN, GOSE IZAN, BILDUR IZAN, eta abarren antzera.

Cohabitar	Cohabiter	To cohabit	Biztan-kide izan
Coheredar	Coheriter	To be joint heir	Ondore-kide, hereda-kide izan
Colindar-confinar	Confiner	To confine	Muga-kide izan
Compartir	Copartager	To compart	Parte-kide izan
Condolerse	Compatir	To condole	Samin-kide izan
Congratularse	Congratuler	To congratulate	Poz-kide izan
Congeniar	Sympatiser	To be congenial	Gogaide izan

Teoriaz konplementu zuzendunak ere baliakizun honexekin konpon litezke, esaldiari beste egitura bat emanik. Hala esaterako "conllevar las deudas" = "zorren eraman-kide izan" etab.

Baina beti ez dago hau egiterik eta aurrizki propio baten beharrari ezin ihes egin.

a. **BATERA** lehen-jartzea soluzio on bat izan daiteke, nahiz eta fidantza haundirik ez eduki aditz-lagun honek bezala bururik aterako duen.

Coeducación	Coeducation	Co-education	Batera-heziketa
Concelebrar	Celebrer ensem- ble	To concelebrate	Batera-ospatu
Conllevar	Aider a suppor- ter	To bear with any one	Batera-eraman
Convivencia	Action de vivre ensemble	Living together	Batera-bizitza
Convivir	Vivre ensemble	To live together	Batera-bizi

b. **ELKAR**-ek gehiago konbentzitzen gaitu, batez ere in-transitiboetan, **BATERA** baino egokiago baita hitz elkartue-tarako.

Coloquio	Colloque	Colloquy	Elkar-hizketa
Cooperación	Cooperation	Co-operation	Elkar-laguntza
Convivencia	Action de vivre ensemble	Diving together	Elkar-bizitza Elkar-bizi
Convivir	Vivre ensemble	To live together	

ELKAR-ek hedadura handia har lezake, erderaz **CO-CON**-dik aparte itzuli beharko litzaketekena, hala nola elkar-lan, elkar-erakunde, elkar-ariketa, elkar-egagutza, elkar-lotura, etab etab. Hauek erderaz zer itzulpen lukeiten beren kontua da. Esaterako, **ELKAR-LAN** = trabajo en equipo, trabajo colectivo, edo zerbaitu.

ELKAR-ek eragozpen haundi bat daduka aditz transitiboetarako, alegia, “bateratasuna” gabe, “batak-besteatasuna”, “elkarrekikotasuna” adieraziko lukeela. Honela **ELKAR-ERAMAN** ez litzateke “batera edo elkarrekin eraman”, batak bestea edo batzuk besteak eraman” baizik, gazteleraz “llevarse unos a otros” eta ez “conllevar” edo “llevar juntos”. Hala ere ez zaiku nabarbenkeria gehiegi iruditzen **ELKAR**-i matiz berri hau ematea, bere esanahi ohikotik urruti ez dagoena gainera, nahiz eta inoiz nahas-bide izan akaso. Honela elkar-esistitu, el-

kar-administratu etab coexistir, coadministrar etab izan daitezke. Dena dela, oso dudazko kontua da hau eta segur asko ezeste ko arrazoi guztiak dituena.

d. Aurreko prozedimenduei hain gakotsu baderitzagu, batez ere da CO-CON onartu beharreko aurrizkitzat dadukagualako eta orduan ATERA eta ELKAR-ekin gorago eginiko tentaketak sobera leudeke. Hitz inportatuak direnean aurrizki eta guzti hartzeari hobe deritzagu. Honela "federatu" hartuz gero, hobe "konfederatu" ere beste gabe hartzea, berdin administratu eta ko-administratu, kreatu eta kon-kreatu, esistitu eta ko-esistitu, etab.

Baina honelakoetarako onartuz gero, zergatik ez euskal jatorri hutsekoetarako ere, zeren "esistitu, federatu, administratu etab" onartzea erabakitakoan, "eraman" bezain euskal hiztatzat jo behar baititugu, luzaroegi erortzen ari garen tentelkerietan erortzen jarraiki nahi ez badugu. Gainera berezkuntzarik egotekotan, ez du bereziko —ez daduka zertan ere— zeintzu diren hitz inportatuak eta zeintzu etxeakoak. Ber-bera esan daiteke idazleez ere —idazleak badira, jakina, eta ez linguista-kumeak—. Beraz KO-KON euskal aurrizkitzat hartzeko dudarik es dadukagu.

Coacusado	Coaccuse	Coaccused	Ko-akusatu, ko-salatu
Coadquisición	Adquisition en commun	Joint acquisition	Ko-erdiespen
Coexistir	Coexister	To coexist	Ko-esistitu
Concelebrar	Celebrer ensemble	To concelebrate	Ko-ospatu, konzelebratu
Concrear			Ko-kreatu
Confederar	Confederer	To confederate	Konfederatu
Conllevar	Aider a supporter	To bear wuth any one	Ko-eraman
Cohabitar	Cohabiter	To cohabit	Ko-habitu
Coheredar	Coheriter	To be joint heir	Ko-heredatu
Coedificar			Ko-eraiki
Cogestión			Ko-jestio (elkarren arteko jestio edo eramantza)

KO-KON onartzeak ez dio zertan ezer kendu IDE-KIDE-ri, BATERA-ri ez ELKAR-i. Anizgarrenez esan eta bir-esan dugunez, honelakoetan jar litezkeen antagonismoen kontrarioak gara. Gainera gagozkion kasuan nahikoa garbi berezten da baikoitzaren anbitoa. Esaterako elkar-lan, elkar-bizitza, elkar-ekin-tza, etab egokiago dira ko-lan, ko-bizitza, ko-ekin-tza etab baino. Alderantziz ko-esistitu, kon-federatu eta abarrerako ez du merezi beste modurik pentsatzen hasterik. ELKAR-ek, INTER-en ere agertuko den bezala, arlo haundia harrapa dezake. Areago IDE-KIDE-k. BATERA-ren posibilitateek, gaurkoz behintzat, urriago dirudite. Lau baliakizun hauen artean (hiru hauk eta KO-KON) sarritan idazlearen senak eta idazteko barne solturak erabaki beharko. Ez da hau guti, alegia, idazleak idazkeran askatasun sikolojiko osoa senti dezala, neurri batzuren barrenean hizkuntzaren egile jokatzeko, eta "neurri" hoiaren artean KO-KON onartzea dudagabetzat emanaz gero, eginak erakutsiko du.

INTER

Aurrizki honekiko hitzik gehienei ARTE-ARTEKO dago-kie, osorik harturiko hitztan izan ezik. Arretagarri da ARTE-k, sustantiboen eratorle gisa, beste hizkuntzetan akaso kiderik gabeko ahalmenak daduzkala. Honela "nazio-arteko" "internacional" bada, NAZIO-ARTE "conjunto de naciones", "comunidad de naciones" edo honelakotsu bat litzateke, ARTE-k adierazten duen elkarrekikotasunez beti. Anitz eta anitz hitz elkartu osa daiteke (ikus ARTE, atzizkien lanean), bi edo hiru hitzetako esaldietara jo ezik.

1) Sail honetan ARTE-ARTEKO-dunak datoz.

Intercelular	Intercellulaire	Intercellular	Zelula-arteko
Intercontinental	Intercontinental	Intercontinental	Kontinente-arteko
Intercostal	Intercostal	Intercostal	Sihets-arteko
Intercutáneo	Intercutane	Intercutaneous	Larrupeko
Interdigital	Interdigital	Interdigital	Hatz-arteko

Interestelar	Interstellaire	Interstellar	Izar-arteko
Interlínea	Interligne	Interline	Lerro-arte
Interlineal	Interlineaire	Interlineal	Lerro-arteko
Interlunio	Interlune	Interlune	Ilargi-arte
Intermedio	Intervalle	Interval	Bitarte
Interministerial	Interministerial	Interministerial	Ministro-arteko
Intermuscular	Intermusculaire	Intermuscular	Muskulu-arteko
Internacional	International	International	Nazio-arteko
Interoceánico	Interocéanique	Interoceanic	Ozeanu-arteko
Interóseo	Interosseux	Interosseous	Hezur-arteko
Interplanetario	Interplanétaire	Interplanetary	Planeta-arteko
Intertropical	Intertropical	Intertropical	Tropiku-arteko
Interarticular		Interarticular	Bilgune-arteko
Interdental		Interdental	Hortz-arteko
Intermaxilar		Intermaxillary	Matrail-arteko
Interurbano	Interurbain		Hiri-arteko
Intervocálico		Intervocalic	Bokal-arteko

2) Hitz asko osoan hartu beharrekoak dira aurrizkitik aparte.

Interferencia	Interference	Interference	Interferentzia
Interferir	Interferer	To interfere	Interferitu
Intermitencia	Intermittence	Intermission	Intermitentzia
Interpolar	Interpolar	To interpolate	Interpolatu
Interpretar	Interpreter	To interpret	Interpretatu
Interregno	Interregne	Interreign	Interreinu
Intervención	Intervention	Intervention	Interbentzio
Interviú	Interview	Interview	Interview
Interventor	Interventeur	Controller	Interbentore

Har kontuan hemengo hitz batzuren egiturarako ARTE-k ez duela nahi eta ere balio. "Interkoneksio" esaterako ez da "koneksio-multzo" edo "koneksio-arte", nazio-arte zen bezala, "arteko koneksio" baizik, edo argiago, "elkarren arteko koneksio" edo "elkar-koneksio". Eta hona modu honetako sustantiboetan kide egoki bat dadukagula: ELKAR. Hala ere honelako hitzetan bieri eustea iruditzen zaiku jeneralki bidez-elkar-komunikatu / interkomunikatu, etab.

INTER-en lekuan ENTRE agertzen denean, ELKAR-en egokitasuna argiago geratzen da jeneralean. Ba dirudi frantsesak darabilela ugarien ENTRE hau. Ingelesak INTER-era jotzen du gehiago eta gaztelera erditsuan. Hona frantseseko zerrenda bat:

Entr'accuser(s')	Elkar-salatu, elkar-akusatu
Entradmírer(s')	Elkar-miretsi
Entraide	Elkar-laguntza
Entr'aimer(s')	Elkar-maite izan
Entr'avertir(s')	Elkar-abisatu
Entre-baiser(s')	Elkar-musukatu
Entre-battre(s')	Elkar-jo, elkar-zartatu
Entrechoquer(s')	Elkar-xokatu
Entre-devorer(s')	Elkar-jan
Entre-hair(s')	Elkar-gorrotatu
Entre-louer(s')	Elkar-laudatu, elkar-goraldtu
Entre-pousser(s')	Elkar-sakatu
Entre-secourir(s')	Elkar-sokorritu
Entre-tuer(s')	Elkar-hil

Beste toki batzutan ere esan bezala, salto mental handia dago ELKAR hitz soltetzat hartzetik aurrizkitzat hartzera eta ahalmen berriak ematera. Hizkuntzaren aurrerakada noski.

Naturala denez, INTER-en laguna autonomoa denean bakarrik erabil daiteke ELKAR. Zentzugabekeria litzateke in-teferitu, interpretatu, intermitentzia etab elkar-feritu, elkar-pretatu, elkar-mitentzia etab esatea, feritu, pretatu, mitentzia... INTER gabe ez baitira ezer. Biketa honek etimologoentzat (bai jende biribila izan behar duela honek) bakarrik axola du.

3) INTER-dun hitz asko dago osorik euskal kide batez egoki itzultzekorik.

Intercambiable	Interchangeable	Interchangeable	Trukagarri
Interceder	Interceder	To intercede	Bitartetu
Interceptar	Intercepter	To intercept	Eragotzi, interzeptatu
Interdecir	Interdire	To interdict	Debekatu
Interdicción	Interdiction	Interdiction	Debeku, interdikzio
Interlocutor	Interlocuteur	Interlocutor	Hitz-lagun, solas-kide
Interpelar	Interpeller	To interpellate	Galdatu / -gana jo
Interponer	Interposer	To interpose	Tartetu
Interrogar	Interroger	To interrogate	Galdatu, galdekatu
Interrumpir	Interrompre	To interrupt	Eten
Intersección	Intersection	Intersection	Elkar-ebakidura
Intervalo	Intervalle	Interval	Tarte, bitarte

Intercalar	Inserer	To insert	Tartekatu
Intercambio	Contre-echange	Interchange	Truke, elkar-truke
Intermediar	S'interposer	To intermediate	Bitarteko izan
Intermediario	Intermediaire	Agent	Bitarte(ko) tu
Intermitir	Suspendre, discontinuer	To intermit	Bitarteko Moztu, intermititu
Intersecarse	Se couper	To intersect	Elkar-ebaki

SEMI

Aurrizki honen euskal kide zehatza ERDI da.

I) Batzutan SEMI-k gauza baten erdia esan nahi du, bi zati berdinetarik bat. Orduan ERDI dagokio atzizki bezala edo hitz elkartuen bigarren bezala.

Semicilindro	Demi-cylindre	Semicylinder	Zilindro-erdi
Semicircular	Demi-cercle	Semicircle	Zirkulo-erdi
Semicircunferen- cia	Demi-circunfe- rence	Semicircunfe- rence	Zirkunferentzi- -erdi
Semiconsonante	Demi-consoone	Semiconsonant	Kontsonante-erdi
Semidiámetro	Demi-lunaison	Halfmoon	Ilargi-erdi
Semilunio	Demi-ton,	Semitone,	Tonu-erdi
Semitono	semiton	half tone	
Semivocal	Semi-voyelle	Semivocal, semitowel	Bokal-erdi
Semicadencia		Semicadence	Kadentzi-erdi
Tonu-erdi	Mitie d'un dia- metre	Semidiameter	Diametro-erdi
Semieje	Mitie d'un axe	Half axle	Ardatz-erdi
Semicorchea	Double croche	Semi-quaver	Kortxe-erdi(?)
Semifusa	Quadruple croche	Double demisemi- quaver	Fusa-erdi(?)

II) Beste batzutan SEMI-k erdi netoa gabe, gaiaren zati bat bakarrik adierazten du, osora heltzen ez dena. Hemen ere ERDI da SEMI-ren kidea, baina aurrizki bezala lehen-jarria. Honela "gizon-erdi" gizonaren erdia, "erdi-gizon" ordea, erdizko gizona, gizon osora heltzen ez dena.

Semicromático		Semi-chromatic	Erdi-kromatiko
Semidiós	Demi-Dieu	Demi-God	Erdi-jainko
Semidiososa	Demi-deese	Demi-goddess	Erdi-jainkosa
Semitransparente	Presque transparent	Semitransparent	Erdi-garden Erdi-transparente
Semidifunto		Half-deade	Erdi-hil
Semidormido	Demi-mort	Half asleep	Erdi-lo
	Presque endormi		
Semiforme	A demi formé	Half formed	Erdi-egin
Semivivo	Demi-vivant	Holf alive	Erdi-bizi
Semidragón			Erdi-herensuge
Semielaborado			Erdi-landu
Semiinconsciente			Erdi-inkontzient

III) Ba dira SEMI-dunak osorik hartzea edo osorik itzultzea egokien dena.

Semifinal			Azken-aurre(ko) azken-urren(go)
Semipelagianismo	Semi-pelagianisme	Semipelagianism	Semi-pelagianismu
Semipelagiano	Semi-pelagien	Semi-pelagian	Semi-pelagiano, Semi-pelagiotar

Hauetan ere irizpide hertsikorrez ERDI-rekin balia daiteke, “erdi-pelagianismo”, “erdi-pelagiano” etab geraturik. Ezin uka gainera ERDI sobera egoki, argia eta adierazkor dela kasu guztietarako eta abantailik haundiena dadukala alde, herriak masiboki erabilia dela. Kasurik egotekotan euskal baliakizun argirik eta konbentziokorrik dagoena, hauxe litzateke bat. Hala ere ez gara SEMI eliminatzearen aldeko, eta zerrenda hauetan agertzen diren apurrak baino gehiago ere akaso SEMI-rekin uztea ez litzateke zentzugabekeria. Alde batetik sinetsirik gaudela SEMI eta beste anitz aurritzki onartzeak ez duela euskera inola ere mordoilotzen, gutiago bere jite, jeinu berezia kraskatzen. Bestetik hor dago ingelesa (eta beste hizkuntza hazi guztiak) euskerak haina modu eduki arren SEMI zakutik hartzera botatzeko, hirurak darabiltzana, HALF, DEMI, eta SEMI, eta guk aurkitu gabeko besteren batzu ere bai segur asko. Hau “ingeleskeria”, “arrotzkeria”, (“pedanteria” ere bai akaso) dela esan liteke. Gure arrazonamendua sinplea da, alegia, ingelesa

bezalako hizkuntza baten portaeran gehiago fidatzen garela gure uste partikularretan eta beste batzuren usteetan ere baino (batez ere euskaldunoi ia patolojiko zaikun iritzi-saltsaz biguindu-takoan). Jokabide hau, beste edozein bezala, huts eta astakeria galanten iturri gerta daiteke. Ez dago biderik amildegira ez daramanik, gehiegi luzatzen eta behar den lekuan jiratzen ez bada.

Norbaitek esan dezake lan hau, pre-iritzi batzu gaindu ustez, haundiagoetan erori dela. Egia biribila. Hizkuntza, arraultzea bezala, egiten den bezalakoa da, baina ba dira arraultzeak ipurdia apurtzen dutenak. Hizkuntzan ez dago —gutiago euskeran— hutsetik hasterik, impartial gogo ergelez. Hemen gor-mutuek ere beren iritziak eta pre-iritziak daduzkate eta ez du hortik libratzerik amaren sabeletik hilobira bitartean dabilen inork. Lan hau pre-iritziz josirik dago, bakarrik pre-iritzi batzu beste batzu baino zentzuzkoago eta azartatuago direla, eta bidezko denez, guri hementxe azalduak iruditu zaizkigu zuzenenak.

Arrantza, hots zakarra bada ere, astoak egiten dakienik finena da eta ba dirudi ez duela berak lotsa haundirik sentitzen, ez baitzaio isiltzeko edo hoberik ikasteko ardurarik ikusten. Nolako arrantza, halako belarriak. Nolako herria, halako hizkuntza.

Gai Laburrak

APORTACION A LA HISTORIA DE LA EUSKAROLOGIA

CARTA DE CITRA-TUMBA A DON BONIFACIO ECHEGARAY

Justo Garate

I

DE LA OPORTUNIDAD EN LAS RESPUESTAS

En nuestra querida RIEV el año 1934 (págs. 128 a 130), don Bonifacio Echegaray, ese mi finado amigo (q. e. p. d.) me dirigió un artículo titulado *Los supuestos precedentes de los vocables "Euzkadi" y "Euskaria"*. *Suum quique*, donde en una sola línea me llamaba "querido y admirado amigo, culto e inquieto Doctor".

A la verdad, eso desarmaría a uno, pero mucho más si tomamos cuenta de las circunstancias del ambiente, hora y lugar en las que salió a luz dicho artículo.

Suelo contestar a los envites, pero siempre cuando lo requiere el interlocutor, si los temas son de resonancia popular y de repercusión y efectos poco científicos, tanto en mi contra —como pudo ser en aquella época— como a mi favor,

como lo ha sido desde 1939, en ese muy restringido aspecto.

Hoy, ya más balanceadas las corrientes filológicas y la situación general, voy a hacerlo con más libertad.

Así como Chateaubriand escribió sus *Cartas de ultratumba*, me he permitido hoy titular a ésta como de *citra*, ya que, aunque no ha de llegar al destinatario, ha de ser leída por bastantes personas que quizá creyeran que a aquél le asistía la razón. No estaría por ello bien el que me callara por aquella triste circunstancia.

Por otra parte, también un periodista argentino, Sáenz Hayes, contaba de cartas escritas por el emperador Pedro II del Brasil al sueco Linneo que había fallecido cien años antes. Pudo hacerlo sin duda, pero lo difícil era que obtuviera respuesta. Sin embargo, cuando murió en Buenos Aires, Eva Perón, se abrió un buzón especial que recibía las cartas destinadas a dicha extinta señora.

En 1953, en el número 13 del Boletín Americano de Estudios Vascos, con el título de *Los nombres de nuestra tierra*, y combatiendo el que Sánchez Albornoz hablara del "llamado País Vasco", traté de ése y otros temas relacionados en un capítulo, pero mi exposición no obtuvo respuesta alguna. Paso a copiarlo algo enriquecido.

II

DE EUSKARIA A EUZKADI

"He seguido pensando y recogiendo notas sobre esta materia conexas, sobre la que ya antes había escrito yo en la RIEV criticando el ensayo *Euzko* de Sabino Arana, que siempre me había parecido deleznable, aunque muy ingenioso.

En la revista *Gernika*, que salió en Buenos Aires, hay una interesante exposición de opiniones acerca del nombre euskérico de Vasconia, en los años 1951 y 1952, números 17, 18, 19 y 20.

Me choca no haber topado en ella, entre 19 juicios, sino una sola vez con la voz Euskaria, con la que se designó un mapa muy divulgado, editado en Francia, y que dio origen al eufónico adjetivo de *euskariano*, usado por los franceses, por Campión, por Vicente Arana, Jaca, una revista argentina que la puso por título y por mí. Con toda probabilidad, la voz Euzkadi se inspiró en la voz Euskaria (por lo que ha hecho muy bien en citarla el amigo López Mendizábal), de la que no es sino una pequeña variante gráfica. Y sabido es que en la RIEV y luego, he mostrado:

1.º Que Chao nos llama raza solar. No creo pensara en el Sol Naciente o Japón, ni en el estado del Sol de Aristónico de Pérgamo, ni en el ciudad del Sol de Jámbulo y de Campanella.

2.º Que el concepto solar del vocablo *euzko* de Sabino Arana, procedía de Aizkibel, de quien la tomó Prichard (para su libro de 1841, editado en Londres), como luego otros varios.

3.º Que la palabra Euzkadia la había escrito Eusebio M. Azkue, antes que Arana. Importa poco que la aplicara a la musa de Vizcaya como lo señala Lino Aquesolo en este Boletín, 1962, página 34.

4.º Que el grupo *eusk* lo escriben a veces *con z*, Fray Pedro de Astarloa en Urteco Domeca T/I/página 1 del prólogo de 1816, el Carmelita de Santa Teresa en *Ikasquizunac*, de igual fecha (página IV), Ulibarri el *perratzalle* de Abando, en 1823 (Euskera, 1961, página 232, según lo publicó el Hermano Berriochoa) y Aizkibel en su manuscrito *Literatura bascongada*, página 18, en 1851.

5.º Que en el fondo, Euzkadi, con dos variantes gráficas, apenas una fonética y con supresión del artículo, era lo mismo que la preexistente Euskaria, pues el “ri” o “di” se usa también fuera de arboledas, por ejemplo en *gaztedi* o *gasteri* (juventud) y el paso de uno a otro se da por ejemplo en Baggaria y Pagadi (hayedo).

6.º Que la mayoría de quienes tienen alguna reputa-

ción científica en vascolología, cree que esa *z* de Euzkadi es una cacografía, hecha ley por los aranistas, que creen que Sabino Arana fue infalible o estuvo acertado sólo en un período arbitrario de su vida, pues en otros escribió *euskera* con *s*, como los demás. He demostrado en mi libro de 1936 *La Epoca de Astarloa y Moguel* con una fotocopia, que ellos publicaron alterada la grafía de Sabino, es decir, *mejoraron* a su maestro, en una poesía dedicada a Astarloa (página 158).

Euskaro es una denominación muy usada en los dos tercios finales del siglo pasado, que pasó a títulos como el de Ladislao Velasco.

Su relación con euskariano es tan clara como la de italo e italiano y la de ukranio y ucraniano.

El Padre José Ignacio Arana, en la página 97, usa la palabra Euskaria el año 1895. Eskeria es un nombre de la isla de Corfú en la Odisea.

III

EVOLUCION DE LA HIPOTESIS SOLAR DE AIZKIBEL

- 1596 bazcuence, en un manuscrito de Lesaka. Príncipe de Viana, número 20, página 490, año 1945.
- 1597 *Bazque* escribe Bonaventura Vulcanius.
- 1816 Fray Pedro Astarloa, *euzcaldunen* y *euzqueraz* (sic).
- 1816 Fray Bartolomé de Santa Teresa: *Ezcaldunac* (sic).
- 1823 Ulíbarri, Perratzalle de Abando, *euzcaldun*.
- 1836 Chaho. Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques. París. Llama Orientales a los vascos, pero a pesar de que era bastante fresco, no osó más.
- 1838 Aizkibel. Notas y Adiciones a las Berichtigungen de Humbold. Escribió su hipótesis solar; *eusko* viene de *eguzki*, siguiendo la dirección de la supuesta génesis de Inkas peruanos y Mikados japoneses.

- 1841 Prichard. *Researche of the Mankind*. Allendesalazar. Número 575. Vinson no lo citó.
- 1851 Aizkibel: *De la Bibliografía y Literatura Bascongada y de sus diferentes dialectos*. Manuscrito *Euzk-era* (sic).
- 1868 Góngora y Martínez, Manuel (Profesor de la Universidad de Granada). Andalucía. Página 119. Allendesalazar, número 72. Vinson no lo citó.
- 1871 Becerro de Bengoa, Ricardo. *Apuntes arqueológicos de Alava*. Vitoria, ed. Vda. de Egaña e hijos.
- 1873 Rodríguez Ferrer, Miguel. *Los Vascongados, su país, su lengua y el Príncipe Luis Luciano Bonaparte*. Allendesalazar, número 1.229. Vinson, número...
- 1896 Sabino Arana. *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*.
- 1900 González de Echevarri (Vicente), y Ramírez de Olano (Eliodor). *Alaveses Ilustres, T. I.*, página 343.
- 1901 Sabino Arana. *Ensayo Euzko*. Revista *Euzkadi*. Bilbao.
- 1908 Segunda edición en Bilbao.
- 1933 Justo Garate. *Interpretación de la toponimia vasca. II*. RIEV, número 3, página 352. San Sebastián.
- 1934 Bonifacio Echegaray. *Los supuestos precedentes de los vocablos Euzkadi y Euskaria*. RIEV, páginas 124-130. San Sebastián.
- 1936 Justo Garate. *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*. Bilbao, 1936, página 109.
- 1942 Enrique de Gandía. *Orígenes prearios del pueblo vasco*. Buenos Aires. Ekin, páginas 61 a 63.
- 1962 Lino Aquesolo. José Pablo de Ulibarri Galíndez. *Boletín Amigos del País*. San Sebastián, página 34, nota.
- 1962 Justo Garate. *Carta de citratumba a don Bonifacio Echegaray*. Boletín de Amigos del País. San Sebastián.

IV

TERCIA DON BONIFACIO

No me parece fácil aniquilar los dos capítulos precedentes, pero el señor Bonifacio Echegaray, académico de la Lengua Vasca, aportaba allí dos datos bibliográficos que yo no conocía:

El 1.^o es un hecho de valor, el de que B. de G. en "Euskal Esnalea", año VII, página 225, año 1917, hablaba del poema inédito de Eusebio M.^o Dolores Azcue, del año 1862, donde se emplea la palabra *Euzkadia*.

El 2.^o, es que lo comentaba J. de E. en la misma publicación, año VIII, página 14, 1918.

Eso quita valor a mi publicación del tomo XXIV, página 351 —de la RIEV— como "descubrimiento", aspecto que no me interesaba, pues lo que buscaba yo entonces y ahora, eran tres cosas de mayor interés: si el vocablo "Euzkadi" de Sabino Arana era un neologismo, si tenía un aspecto etimológico nuevo y si era ortográfico o cacográfico.

Bonifacio Echegaray, en el artículo *Vasconia* del Espasa, creía que es neológica la forma ideada por Sabino Arana. Su argumento es la confesión de la gran pereza lectora de Arana Goiri.

Aun prescindiendo de la noticia forzosa que del vocablo *Euskaria*, había de tener, por ejemplo por las *Leyendas de Euskaria* de Vicente Arana, impresas en Madrid en 1882, haré notar que una cosa es que una persona descubra algo por sí misma y otra que descubra algo por vez primera para su pueblo, país o humanidad. Y éste es el único sentido importante del vocablo *neológico*, pues lo otro es el descubrimiento del Mediterráneo por cualquier persona que se acerque a ese mar desde su villorrio natal, lo que seguirá sucediendo por los siglos de los siglos. Nunca olvidaré la impresión que me produjo a mis diez años, la forma en que en la Concha donostiarra miraba al mar, larguísimo tiempo, un hombre de unos 30 años,

que vestido con atuendo segoviano, contemplaba el Océano Atlántico que sin duda acababa de descubrir... en el glorioso sentido que concede don Bonifacio a Arana Goiri, al otorgar que una forma publicada en 1900, era neológica porque su autor era nada erudito.

Y que en cambio la grafía de don Eusebio Azkue que la había escrito en 1862, o sea, 39 años antes de que la hiciera don Sabino de Abando, no era neológica, porque es la misma *Euskaria* ya conocida mediante la sustitución de la letra *s* por *z* y la letra *r* por la *d*, muy corriente en vascuence.

Parecerá curioso que hayan podido escribirse esas frases que no son sino hábiles concesiones a las masas, que los escritores honrados *no deben hacer*.

No lo he citado durante la vida post-guerra, de don Bonifacio en España, pues algún daño hubiera podido acarrear, lo que yo no quería, naturalmente. Y quien me conoce no dudará, porque le consta, que de igual manera he combatido el que se hable de la “invención *estúpida* del vocablo “Euzkadi” como lo ha hecho un escritor, o de “neologismo *estúpido*” como lo ha hecho un ministro, pues precisamente ese adjetivo lleva implicaciones, como la reciente del diputado Domingorena en el Parlamento argentino el 2 de julio de 1959, que ha repercutido hasta en el sesudo “The Times”, de Londres.

V

EUSKARICHOA

Por otra parte, el señor Echegaray no cree que fuera yo quien hallara en la revista *Euskal Erria*, tomo 16, páginas 8 y 9, la palabra *Euskarichoa* en una poesía de José Vicente Echegaray, escrita en 1829, porque no la ve en conexión con los nombres de nuestra tierra.

Sin embargo, fui yo mismo quien la halló (1) y la cité y la cito hoy a pesar de esa observación posterior del académico o euskaltzain, porque es muy sabido que se deben aportar en filología todas las palabras de aparente raíz común, sin llegar yo por mi parte al extremo de mal gusto de Humboldt que conexionaba las voces *euskera* y *eusi* que, según Larramendi, designa ladrido (Prüfung, cap. 18).

VI

ECOS DE LA DISCUSION

Que yo sepa o recuerde, hay dos tratadistas que han mentado esta discusión.

El segundo es el señor Seijo Zarrandicoechea en su libro *paradisíaco* sobre el euskera, hacia 1953.

Es el primero Enrique de Gandía, un prolífico investigador y publicista argentino cuyo padre era de Orduña, siendo su madre de Liguria.

Creo conviene que vuelva a publicar la reseña que tras la aparición de su libro, escribí en un decenario vasco de Buenos Aires.

“E. de Gandía. Orígenes prearios del pueblo vasco. Editorial Ekin. Buenos Aires. 155 páginas. Abril de 1943.

Teniendo la discreción de no juzgar de nada de lo que yo haya podido aportar a esta obra del infatigable historiador argentino, se me permitirán algunos comentarios y aclaraciones. De hace tiempo era esperada una “Historia de la gramática y filología vascas” y en ese sentido presenté una moción

(1) Ya escribí en el epílogo al Chaho (página 245) que consulté los 79 tomos de la revista *Euskal Erria* y de ello son testigos los Sres. Angel Rodríguez Herrero, Echevarría y Arrieta, de la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya.

a la Sociedad de Estudios Vascos, donde fue calurosamente acogida: sin embargo, en nuestra tierra, con tanto archivo y biblioteca acerca del tema, nadie se decidió a efectuar ni siquiera en parte esa labor. Ha sido acá, en la Argentina, donde un conocedor del *métier* literario, y un habituado al empleo de la bibliografía, disponiendo además de una editorial como quizá no hemos tenido otra en Vasconia, ha lanzado esta obra que, no vacilo en asegurar, será de las que más citas y plácemes merezcan a su autor.

Sorprende realmente el acierto de quien no siendo especialista en la materia y usando de materiales en su mayoría aportados consigo (desde Europa) hace más de una docena de años, haya dado tal vigor y claridad a su trabajo.

Hay un par de erratas en la lectura de los materiales proporcionados por los inmigrantes republicanos, como en la página 60, en que en vez de collado y Lepeder (collado hermoso) se lee Koldo y Lepedu. El Lepuzain que se cita está hacia Ta-falla y quiere quizá decir guarda o centinela del collado.

También el estenianos de las páginas 58 y 145 debe leerse como estonianos.

Advertimos que Astarloa, el célebre polemista de la Apología, se llamaba Pablo Pedro y no al revés (24) y que yo no citaba el segundo nombre en el título de la obra de 1936 citada en la página 52, a posta para evitar confusiones con su hermano Fray Pedro, el del sermonario titulado "Urteco Domeca".

La raya vertical de la página 111 es a lo largo del río Somorrostro y no a través y coincide con el límite de los obispados de Armentia (Alava) y Valpuesta, éste con su sede en la actual provincia de Burgos, hacia el año 1035, como se ve en el mapa del tomo Alava de la Geografía del País Vasco de Carreras Candi, frente a la página 166, en cuya leyenda hay, por cierto, una trasposición de obispados.

Y ahora, que hablen los lectores de la parte de afuera.

VII

VIZCAYA COMO DESIGNACION VASCA GENERAL

Voy a seguir ahora con la corriente general de mi artículo de Buenos Aires, acerca del profesor don Claudio Sánchez Albornoz.

Pierre d'Urte decía en su libro de 1712 que era nativo de S. Jean de Luz en la provincia de Labour, en la Cantabria francesa llamada vulgarmente *país de basque* ou *bizcaye* en francés y *Escalherria* ou *bizcaya*, en euskera.

Los ingleses la llaman en general Basque Country, pero alguna vez leemos "Life in the Land of the Basques", como escriben Nolan y Locke en febrero de 1954 en el National Geographic Magazine, de los Estados Unidos.

También Rodolfo Oroz escribió algo de los Países Vascos (Homenaje a Fritz Krüger, página 381, del T. I), desde Chile.

Unamuno tradujo en 1889 el Bizcaye de los Reiseskizze de Humboldt como País Vasco, denominación que usa también don Miguel el año 1913 (vide tomo III, *De esto y de aquello*, página 57); se ve, pues, que la consideraba forma correcta. Más tarde yo a aquel ensayo di el nombre de *Vascónica*.

VIII

ALGUNAS RAICES ESLAVAS

Allí establecía yo una relación entre los vocablos derivados de *slovo*, palabra de la que vienen eslavones, eslovacos, eslovenos y yugoslavos. Y de pod, pol y pom en idiomas eslavos.

Los sorbos o wendos de Lusacia se llamaban Polavianos por el Elba, que ellos llaman río Lava, significando "junto al lava".

Pomerania es junto al mar, como la Primoria de los croatas.

Pomerelia es junto al lago. Polesia es junto a hondonada. Polonia sería campos, como el ruso Polyana, que es también roza o desmonte.

I LETRAZ BUKATZEN DIRAN ITZAK BESTE ITZ EDO ATZIZKIEKIN LOTZERAKOAN NOLA JOKATZEN DUDEN

Zatarain-darr Ambrosi

Euskaltzain guztiok eta euskaltzain eztiran askok bada-kigu E edo O letraz bukatzen diran itzak beste itzen batekin edo atzizkiren batekin alkartzera koan azkeneko E edo O letra ori A biurtzen dala. Esate baterako:

Arte: Artamendi, Artazarraga, Artadi, Artagan, Artatxo ta abar;

Etxe: Etxabe, Etxaleku, Etxaburu, Etxaluze, Etxaeta, Etxaundi, Etxauts eta abar;

Bide: Bidazabal, Bidaondo, Bidasolo, Bidagoiti, Bidanausia, Bidakorta ta abar;

Ote: Otaola, Otadui, Otatzua, Otamendi, Otagorrieta ta abar;

Neke: nekatu; eske: eskatu, eskari; ate: atadi, ataska, ataoste; molde: moldatu;

Torre: Torrabil, Torrabarri, Torrabitate, Torraeta, Dorrazubi, Dorrazuriaga ta abar;

Baso: Basabe, Basarte, Basaburu, Basagoiti, Basabide, basakatu, basaurde ta abar;

Pago: Pagadizabal, Pagamendi, Pagatza, Pagazarra, Pagazubia, Pagatzaurtundua ta abar;

Solo: Solabarri, Solaguren, Solabe, Solarte, Solalde, Solabilla, Solageztua ta abar;

Soro: Soraluce, Sorabide, Soraberriaga, Sorabilla;

Garo: Garamendi, Garaeta;

Mando: Mandabideta, mandazaiñ;

Uso: Usategi, usakume;

Ego: egatu, egal, egalari, egabera.

I letraz bukatzen direnetaz berriz Azkue-ren iztegiak onakoan besterik eztió:

— I sufijo: 3.º (c) sufijo determinativo de ciertos infinitivos primitivos, desinencia tal vez la más usada de todas. Estas son las cinco vocales (la U es por lo general terminación de verbos derivados) y las consonantes L y N. De ellas son separables (es decir, verdaderos sufijos) la I y la U y, en ciertos casos, la N. La I se separa y se elide: A) (c) antè el infijo —TE— y los sufijos -KIZUN, -KOR, -MEN y otros: ikuski, ikuskizun, ikustea (c). Estas palabras se derivan de IKUSI. La I es inseparable en las sílabas di, ti, gi, ki; lo cual es debido a razones eufónicas que rechazan uniones, como DMEN, TKIZUN, GMEN, KTE, etc. No se dice irudmen, sino irudimen, “imaginación”; jaurtkizun, sino jaurtikizun, “cosa arrojada”; ebagmen, sino ebagimen, “corte”; eukt, sino eukite, “posesión”, etc.

Nere ustez bukaerako I letra geyenetan galdu egiten da; ona adibideak:

Iturri: Iturrondo, Iturralde, Iturrate, Iturbe, Iturbide, Iturburu, Iturraín, Iturrena, Iturmendi, Iturbero, Iturriotz (Iturriotz ere bada), Iturrotzaga, Iturgaitz, Iturrobi, Iturgorta, Iturkoa, Iturtza (Iturritza ere bada), Iturtzaeta, iturbegi, iturrama.

Uzterri: Uztarpe, uztarrestalki, uztarredo, uztartu.

Ardi: Arbide, artalde, artesne, arkara, artillo, artzar.

Arri: arrobi, artzulo, arkaitz, Arburu, Arbelaitz, Artzabaleta, Arzabaltza, Arrate, Hardoi, Arregi, Arlaban, Arzubialde, Arluzeaga (Arriluzea ere bada), Hartzubehere, Arratzua,

Arratzola, Artzuaga, Hargain, Mugartegi, Arrandiaga (Arriandiaga ere bada), Armintza, Arsoloa, Mugarra-ga, Harretxe, Argutxiagoiti, Artzubide, Artzubieta, Arrarte, Arbe, Arbitarte, Arbulu, Argibel, Arratibel (leen Arrategibel), Artzabe, Artzaondo, Garralde (= Harralde).

Burdi = gurdi: burtaga, burtaker, burtaket, burtasto, burtalbo, burtarasa, burtardatz, burterrai, burteda-zulo, burtegan, burterrailla, burterresto, burtesi, burtesto, burtetxe, burtezpata, burtigun, burtirrizko, burtoe, burtorratz, burtorrazi, burtxirriko, burtzain, burtzail, hurpil.

Ipurdi: ipurtaundi, ipur-masail, ipurterre, ipurteker, ipurtargi, ipurtel, ipurtikara, ipurtzulo, ipur-kankar, ipurkoloka, ipurloka (B-m), ipurmami, ipurtaire (Lg) ipurteste.

Zaldi: zalbide, zaltoki, zaldun, Zaldunbide, Zaldegigana, zaldaleak irabazi.

Elorri: Elormendi, Elortza, Elordi, Elortegi, Elortondo.

Begi: bekain, betondo (begiondo ere esaten da), betazal, betargi, bekatxu, betarro, betarte, betazain, betazpi, beteraztun, beteri, beteritzu, betterre, betertz, betesa, betexkel, betespal = betezpal, betezkel (begi-okar), betikara, betilla, betillun, betinguru, betintza, bethireki (Oih), betizu, betoker (begi-okar ere esaten da), betosko, betoskol, betsein, betulo, betzain, betzinte, betzurda.

Belarri: belarluze, belarmotz, belarrondoko (irurok I-rekiñ ere esaten dira, agian belarr-etik ateratako itzekin naasi ezti-zagun).

Ogi: otordu, otorde (RS-534, G-59), otazal, otondo, otapur, otzara, opil.

Beste aldi batez aipatu nai nituken itz batzuetan bukaera -ARI izanik alkarzean I galdu ta -AL biurtzen da:

Afari: afaldu, afalondo, afalordu (gure aldean F ordez P esan oi degu).

Bazkari: bazkari, bazkalondo, bazkalordu, bazkaldar, bazkallurre.

Gosari: gosaldu, gosalondo, gosalordu, gosalarte, gosalatzin, gosaldar, gosalaurre, gosalgarai, gosalketa.

Gari: galburu, galbide, galbae, galeper, galepaille, galereite, galerne, galgorri, galjaite (B), gal-jorra, galmotz, galondar, galorraz, galots, galsoro, galzikin, galtzuondo, galtzuztar, galtzuri, galtzerri, galtzuzkur, Garmendia.

Guztioik ikusi ondoren galdera bat datorkigu ezpaitetara: ¿Zergatik beste itz batzuekiñ ezta orrelakorik gertatzen? Esate baterako mendi, zubi, iri = uri itzak alkartzen diranean ere eztude I letra galtzen; ¿zergatik? Eztakit; agian naspide gerta litezkelako; esate baterako urik URI-tik Urarte, Urondo, Urbazter eta abar; aterako bagenitu Uri ordeztu UR-etik ateratakoak lirakela uste ekungo genuke. Berdintsu Mendiondo ordeztu Mendonde esango bagenu' Mendaondo ote dan dudan geldituzte; Iriarte ordeztu Irarte esan ezkerre berriz' Ira-arte = garo-arte adi genezake. Zubi itzari I kendu ezkerre' ZUB- geldituko litzauguke, ta alkartzeko itxura txarrekoa da: letra bakardi-aurrean B bereala galtzeko arriskuan litzake, ta letra ba alkarki aurrean berriz lotzeko oso gaizko gertatuko litzake: gogoratu Zubando ta Zubgarai eta oen antzeko beherenbatzu.

Dana dala, orrelako batzu ere badira:

Egiguren ordeztu Eguren

Zubiurruti ordeztu Zuburruti (Bergara-n)

Mendiarte ordeztu Mendarte (Zeraiñ-en)

irurok Oregi jaunari ikasi dizkiot; besteok berriz Mariano Gallastegi jaunak esan zizkidan:

ekak = ekarri egidak (Elgoibar-en)

izartu = izarditu; au ezta Elgoibar-koa bakarrik:

“Amikuse-ko Gillon” izeneko kantuaeren bertsoerenbatek onela dio:

ezta izertu nahi

oraiko neskatxa.

Gipuzkoan, eta agian beste alde batzuetan ere bai *ekarri egidazu* edo *ekarri idazu* ordeztu *ekatzu* esan oi degu.

Azkenez oñatiarrik geyenek Olabarrieta ordeztu *Olabarta* esaten du.

-ARR BUKAERA DUDEN ITZ BATZUTAZ*Zatarain-darr Anbroisi*

Barriola-tarr Abelino zanari entzundako iritzibat ikertu nai nuke. Alegia' itz edo izen batzutako -ARR bukaerak *aundi* esan nai dula. Jaun arek aipatzen zituan iruzpalau izenetatik bakarra gogoratzen zait, eta orregatik Azkue-ren iztegia buruz-buru ikusi det, arinka bada ere. Orrela ediren ditudan izenetatik batzutan -ARR bukaerak itxuraz eztu *aundi* esan nai, e. b.: adarr, baztarr, bizarr, bizkarr, bigarr, illarr, maillarr, --mausarr eta bildu ezitudan beste batzu.

Baiña beste itz mordoska batean argi dago -ARR bukaerak *aundi* edo *gogorr* edo orrelakorenbat adirazten digula. Beste batzutan berriz' orren argi ez egon arren' gauzak geyegi beartzeke adirazpen ori atera genezakela uste det. Azkenez' -ARR bukaerak *eme* eztana, *arra* esan nai duneko itzak edo izenak ere badira, ta adirazpen ortaz azkenean zerbait esatekoa naiz.

Ona bildu ditudan itzak:

Abarr (abe-arr?); azkarr (atz-arr); aldaar (alda-arr, B-m, en declive); kaiarr (kaio-arr, G-don-ond (!), mallón; kaio (AN-ond, B-1, BN-ald, G, mallón = goéland); kedarr (AN-b-est, B, BN-ald, G), kedarra (B-a-m-o), kearr (G-and-don-us-zeg) (Beterri-n *kiarr* esaten degu, beraz gureztat ezta kedarr) (ke-arr); kaltarr (kalte-arr, G-and); makarr (melko-arr?) = mantarr (L-ain); maldarr (malda-arr) = malka-rr; mantxarr (Gc, beti atzetik eta aurrekoak eziñ arrapaturik dabillena) (mantxo-arr); mantzarr (G-aya, mujer desaseada e indolente; erderaz ere askotan entzun oi da *mansarda* lanerako gogorik edo kemenik eztuan emakumea adirazteko onek ere mantso-arr dala dirudi); mearr, mehearr (no-arr, mehe-arr: estrecho, ajustado, angosto; gg. negatx B-a-o-tx, demasiado delgado, megatx; emon gatx = gaitx = aundi; gg. arkaitz = arri-gaitz = arri aundi); nakarr (B-a-g-l-m-mu, desganado, sin voluntad: nai-ke-arr?); negarr (neke-arr?); mimenarr (B, mimbres mayor;

mimou Be, mimbire menor y el más fino; beraz (mimen-arr); ostarr (AN-aezk, hostarr (L.)rrim) (1.º rama fresca; 2.º BN-aezk, L-ain, mosquero; 3.º AN-b follaje; osto-arr); palarr, 3.º (B-tx, azada que se emplea para cortar pedazos de tierra y hacer trincheras: pala-arr?; paparr (papo-arr); uarr (Be), crecida de aguas, uharr (L) torrente (ur-arr; gg. zuberutarrezko uhaitz = ur-gaitz); zangarr (zauzo-arr); zumarr (zumo-arr).

Orain ARR eta EME, biak agertzen diran bi bikote:

legenarr (lepra) ta legeneme (= legenzuri = albarazo = lepra blanca);

otarr (B-g, L-ain, árgoma dura), otarr (AN-b), otharr (BN-am-gar, S, argomal grande: ote-arr); oteme (B-g, árgoma blanda, árgoma sin pinchos; ote-eme).

Baliteke jatorriz *arr* aundi edo gogorr izatea, *eme* berriz ttiki edo bigun. Gure zuzo-izkuntzetan *arr* eta *eme* adirazteko *gizonezko* eta *emakumezko* esaten ditude: latinezko *mas*, *masculus-etik* *maschio(i)* mále(f) male(e) masculino, *macho(g, p)*, eta german-izkuntzetan berriz *Mann* edo *man-etik* *männlich(d)* *mannelijik(n)* *mandlig(dk)*; latinezko *femina-tik* *femina(i)* *femelle(f)* *female(e)* *femea(p)* *hembra (g)*, eta german-izkuntzetan berriz *weiblich*, *vrouwelijik*, *kvindelig*.

Baiña abere edo pizti *arra* ta *emea* bereizteko' alemanez, danetarr izkuntzaz ta ingelesez txit modu bereiziak erabiltzen ditude. Alemanez (*artza*) *arra* ta (*artza*) *emea* adirazteko' (*artza*) *gizontxo*a ta (*artza*) *emakumetxo*a esaten ditude: (*Bär*) *Männchen* eta (*Bär*) *Weibchen*. Danetarr izkuntzaz berriz' *ollarr* eta *ollo*: *Hanbjrn* eta *Hunbjrn*, *artzaollarra* ta *artzaolloa*. Ingelesezt bestela jokatzan dude: *he-bear* eta *she-bear*, beraz pranztsez *lui-ours* eta *elle-ours* esango balude bezela.

Baliteke euskera zaarrezko jokabidea len aipatu dedana izatea: *artza* aundia ta *artza* ttikia, *artza* *arra* ta *artza* *emea* alegia. Izan ere, geyenetan arrak emeak baiño aundigoak izan oi dira.

Orain bukatzeko utzi ditudan itz batzu.

Batzar eta *biltzarr* garai batean batu-zarra eta bil-zaharr zirala esan oi zan; baiña beti biltzarr izan da, beinere ez bil-

tzaharr. Nere ustez argi dago batze-arr eta biltze-arr dirala. Ta ontatik batzarre gaizki esana dagola ateratzen da.

Deadarr (AN, B, G) deedarr (B,...) deiadarr (BN, L-ain, S) deihadarr (BN, Sal) diadarr. Emen baliteke bi itz izatea:

batetik' *deiarr* = dei-arr, oju aundi esango bagenu bezela;

bestetik' *dei-adarr*: gogoratu gau-adarr (Bc) cuerno que se toca de noche para asustar a jabalíes, zorros, etc. Esate baterako: txalaparta jo aurretik jotzen omen zan adarrari ongi zegokion *dei-adarr* izena.

Gero *deiarr* eta *deiadarr* itzak askoren aetan naastea ezta arrigarri orain ere "txistua entzun det" eta "kanpaia entzun degu" egokiago esanak izan. "Deiarra entzun det" esatea ta "deidarra entzun det" esatea berdintsu dira, "deiadarraren otsa entzun det" bigarrenoi baiño jatorrago bada ere; ta "deiadarr-deiarra entzun det" esatea berriz' itsusi-samarra litzake.

67-8-25

EDUR, ERUR, ELUR: ¿zein da zaarrena?

Zatarain-darr Anbroisi

Orañ ogei urte ta geyago' gau batez amets egin nuan, eta ametsetan onako itz-bikoteok gogoratu zitzaizkidan; afari ta afaldu, bazkari ta bazkaldu, gosari ta gosaldu, sari ta saldu. Alegia *saldu* ta *sari* ideko itzak dirala, saldu ta saritu ia itz bat dirala. Orain ogeirenbat urte Biarritz-en egin zan Euskal Batzarrean gauza ori aipatu nuan, agian Laffite jaunak gogoan ukanen du, eta Gavel jaunak ezetz orantzun zidan, bi itzoik etzaudela alkarrekin zer ikusirik, eta *saldu* latinezko *sal* (gatz) itzetik zetorrela, leen gauzak gatzaren truke ematen ziralako. Gaiñera' zaarrena *r* dala, ta askotan *r* ori *l* biurtzen dala.

Ain gizon sonatuari erantzutea, ta aren esanak arenbeste

gizonan aurrean gezurtatzea etzitzaidan egoki iruditu, ta gauzak ortan utzi genituan.

Azkue-ek ere Gavel-en iritzikoa dirudi; bere iztegian *ziurr* itsa *erurr* zear eta *edurr* itzetik datorrela baitio. Baiña egia bestela dana nere ustez garbi dago. Jatorri zigurrezko itz batzu aipatu gogoratzea naikoa degu.

Angelus > aingeru > aingvrv; azelum > zolv > zeru; maledicere > madarikatu; placatum > palakatu (G) > berekativ (Z); voluntatem > borondate; cale > kare; capella > kapela > kaperu; oleum > olio > orio; clucea > koluka, kolka; > koreka; villanum > billau > birau (G-us: ;zura bai biraba!); cala(vera) > gal(ondo) > gara, garr(ondo); azkenez Lauazeta zanari entzun nion bat: cingulum > inguru > vngvrv (Z);

Jatorriz *r* zudenetan' *r* ori ezta *l* biurtzen: canara > ganbara (ganbala-rik ezta); ceresia > gerezi, koriza, kerexa (gelezi-rik ezta). Arau onen kontrakoa *izan liteken* bakarbat dakit: kalaño (Mg-lez-oy) < garano < garawón; gogoratu Oihe-narte-ren 76-g atsotitza: "behorraren ustikoak eztitu sendi garanoak". Izan litekela diot; izan ere Gaztel-Akademiaren iztegi laburrak *garañón* itzaren bigarren esan-naitzat *camello padre* dio, ta kalaño itzari euskal-aldakuntza egin ezkeru' *garaño* itza sortzen zaigu. Beraz kalaño itza garaño baiño zaarragoa ete dan susmoa sortzen zait. Ona gosaldu ta gosari bikotearen antzeko batzu:

bordaltu ta bordari (R); astalkatu ta astari; dendalگو ta dendari; ugaldu ta ugari; estalpe, estali ta estari; euskaldun (eusko-ele-dun) eta euskera; erdaldun eta erdera; galburu, galbae, galbide, galbikatx, galbera, galeperr eta gari; elbarri, elgorri, elgaitz eta eri; zamaldun, zamaltzain eta zamari; abelgorri, abeletxe ta abere.

Oyek gogoratu ondoren' errez siñets liteke ondorengo oetan ere jatorrizkoa *l* zana: belar > berarr > bedarr; elurr > edurr; Ilunberri > Irunberri; Ullibarri > Uribarri; belarri > berarri (?) > beharri > bearri; baldin > balin > barin (Ng-olk...); bularr > bularr > burar (R, Z) > budarr (R); solo > soro; olita > oritz (B-oñ); biligarro (Z) > birigarro; galharr

(Nb) > garharr (L) (abarr igarr); iruli, iraul, irauli > iraur, iraurri (Z); malluki > marrubi; mihul > mihur (migura?) (Uhlenboek 56); mulko > murko; mantal > mantar; joale > joare; tal-tal-tal > tar-tar-tarr; tilin-talan > durin-daran (G-us: Aldatseko Bonipaxio zanak esana: Oriyo-ko kanpanak durin-daran asteianian...).

Beste aldakuntza bat ere agertu zaigu: *r* letratik *d* letrara jotzea. Emen ere aldakuntza zigur parebat badegu: aer > aire > aide; amorem > amorio > amodio. Beraz edurr, bedarr eta budarr uste osoz esan genezake erurr, berarr eta burarr baiño berriagoak dirala, ta jatorrenak elurr, belarr eta bularr dirala.

Aldakuntza guzi oyen arauz-kontrako bat aipatu bear det: burulete, burute > bulhute; eztirudi besteak indartzen duden arauari indarrrik kentzeko gauza danik.

67-11-24



P. M. Urruzunoren omenezko batzarrea, Elgoibarko Udaltxean. Ezkerretik eskubira: Ulazia jauna, "Ongarri" Elkartearen ehendakaria; Ajubita jauna, Elgoibarko alkatea; A. Luis Villasante, euskaltzainburua; Juan San Martin, idazkaria; A. Antonio Zabala eta Xalbador Garmendia, Euskaltzaindikoak.

Batzar txostenak 1973

Elgoibar, 73-I-28

ELGOIBARKO BATZARRE AGERIAN EGINDAKO HITZALDIAK

EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA

Jaun-Andreak:

Elgoibarrera dator gaur Euskaltzaindia. Herri bizkor, langile, aurrerazale eta euskaltzale honetan egiten du bere batzarrera. Batzarre onek bi zati izango ditu. Lehenbizikoa: euskal irakasle titulua lortu dutenei hartako agiriak eta diplomak banatuko zaizkie. Eta bigarrena: Don Pedro Miguel Urruzunoren omenezko hitzaldiak.

Bi gauzaok badute batak besteakin zer ikusi. Euskera, gure herriaren ondasun hau, bizirik ateratzea, indartzea, landare berriei pasa arazitzea: hori da Euskaltzaindiaren kezka nagusia. Hortarako, hil edo biziko burruka honetan, euskerak eskolak behar ditu, irakasleak behar ditu, liburuak behar ditu. Hizkuntza aurrenik mintzatzeko egina izan da, ezpainetan erabiltzeko. Baina gaur eguneon, XX. mendeko egoera honetan, ia mintzatzeari bezain beharrekoa bihurtu da irakurtzen eta idazten jakitea ere.

Hortarako eskolak eta irakasleak behar-beharrezkoak ditugu. Jainkoari eskerrak, premia honen kontzientzia bizia har-

tu du gaur gure herriak. Horregatik, euskal irakasle tituludun izan nahi dutenak, gero eta gehiago dira gure artean. Horregatik, hainbeste, bai gizonezko eta bai emakumezko ere, etorri dira titulu hori lortzeko igaro behar ziren esaminak egitera. Euskaltzaindiak pozarren ikusten du kezka hau gehituaz doala. Eta benetan herriaren txaloak eta eskerrona merezi dute irakasle titulu hori lortu duten jaun andre hoiek.

113ri banatuko zaie orain segitun euskal irakasleko diploma edo agiria. Eta okasio hau aprobetxatu nahi dut jaun-andre hoiei zorionak eta bai eskerrak ere emateko, Euskaltzaindiagan ipini luten konfiantzagatik. Eta bide batez hauxe esan nahi diet: aurrerantzean ere, euskeraren aldeko lanetan, zer-edo-zeren laguntza behar izango balute, Euskaltzaindia, bere ahal izatearen neurrian, prest izango dutela beti, laguntza hori emateko.

Baina gramatika, hiztegi eta horrelakoen bidez ikasten dena gehienetan hizkuntzaren gainaldea, azala edo estruktura izaten da bakarrik, eta hizkuntza hori baino gehiago da, inondik ere. Horrezaz gainera, hizkuntzak badu arima bat ere, odol bat, barne izerdi bat.

Hau argitzeko, hezuraren adibidea ipiniko nuke nik. Hezurak badu kanpoaldetik azal gogor bat, maskorra bezalakoa. Eta barrenean muin gozoa eta bizia.

Hizkuntzan ere halatsu gertatzen da. Kanpoko azala edo estruktura hori ikasi egin behar da, baina ez da aski. Barneko muinera heltzen izaten dira lanak.

Eta euskeraren muin edo arima hori, nola edo non ikasi? Euskaldun jatorretarik batez ere. Hoiei entzunez, hoiekin hartu eman izanez.

Eta Urruzuno bezalako idazleetarik. Bai. Ez naiz ni hemen hasiko Urruzuno nor zen kontatzen, eta idazle bezala dituen dohaiak aztertzen. Badira gaur hemen hiru hizlari, eta hoiek jakingarri franko emango digute. Baina hauxe bederen esan nahi nuke: Harrobi paregabea direla Urruzunoren liburuak euskeraren arima hori jasotzeko.

Euskerak baditu esanmolde jatorrak, bere-bereak eta bereziak, eta hoietan dago batez ere euskeraren arima. Urruzu-

noren lanak, berriz, aberats-aberatsak dira esaera jator hoietan. Beste aldetik, irakur-errazak, atseginak, umore sanoa dariotenak, farre eragiteko sekulakoak. Maisu bikaina da Urruzuno euskera kontuan. *Eritzi* aditza zeinen egoki erabiltzen duen! Eta *zukean* aditz forma, ta abar.

Elkar hizketa bizi biziak, herrikoiak eta sarkorrak ditu beti. Gainera, orduko ohitura eta bizimoduaren ispilu eta erretratu zehatz bat utzi digu bere ipuinetan.

Ez-izenak ere garai hartako giro eta bizimodutik hartuak dakarzki: Tunbalero, Urre pina, Eulia ta Erlabioa, Dibortzio...

Joan den urteko udan, Urbiako zelaian hain zuzen, ikusi nuen norbait bere txakurrari deika, eta "Jandalo" deitzen zion. Gutxitan entzuten dira hain egoki jarritako izenak, eta hargatik, noski, gogoan gelditu zitzaidan. Geroago, berriz, jakin dut txakur-izen hori Urruzunoren lanetan datorrela.

Nun ikasi ote zuen Urruzunok bere euskera paregabe hori, nolatan bereganatu ahal izan zuen hizkuntza honen arima eta muina? Herritik hurbil egonez, euskaldun jende jatorrari maiz entzunez. Badakigu halakoxea izan zela Urruzuno apaiza. Gizon laua, umila, harentzat ez zegoen ez zuri ez gorri, ez aberats eta ez pobre, denekin berdina, beti gizartekoa, bihotz handikoa, esku zabala, maitakorra.

Batzuek uste dute euskera batua eta herri euskera elkarren etsai direla. Baina hori ez da egia. Batak ez du bestea kentzen. Lokarri gozoa eta ezkontza zorionsua egin beharra dago bataren eta bestearen artean. Euskera batuak estruktura bat ematen digu. Baina hezur horrek mami edo muin bat ere behar du, eta euskaldun hizlari eta idazlari jatorretarik jasoko dugu hori baitipat.

Urruzunoren lanak garai hartako aldizkarietan sakabana-turik zeuden. Elgoibar-tar zintzo batzuek hartu zuten lan guzti hoielik bildu, kopiatu eta garbitan jartzeko nekea. Ez zen neke arina, oso astuna baizik. Baina neke horrek bere ondore gozoa izan du guztion onerako. "Auspoa" liburutegia lan bilduma hura argitaratuz doa, eta gaur Urruzunoren lanok guztion eskuetan dira.

Azkenik, aukera ona dut hauxe Elgoibarko herriari, herriko agintariei eta alkate jaunari eskerrak emateko, euskeraren alde agertzen duten gogo biziarengatik. Eta euskera lantzen hainbeste lan egin zuen herriko seme baten ohoretan gorazarre eta oroigarri eder hau antolatu dutelako.

URRUZUNOREN AROA

A. Arrue jaunaren hitzak

Agintari agurgarriak. Euskaltzain eta laguntzalle anaiak. Jaun-andreak. Jaungoikoak egun on dizuela guzioi.

Jaialdi auek euskal-idazle ospetsu bat, elgoibartar Pedro Migel Urruzuno, gogoratzearren antolatuak dira noski. Zorionak eta eskerrak, apalki, Euskaltzaindiaren izenean, jaialdi auen antolaketan esku-artu dezuten elgoibartar guzioi. Egia esan, merezi baitzuan oroimen au Urruzunok. Alde batetik, zuen erritarra zalako, eta bestetik, zuen euskaltzaletasuna berak ongi ordeztu zualako. Egia osoa baitda erdal-idazle batek eskribatu zuana: "Los pueblos estiman a los hombres, no por lo que han sido, sino más bien por lo que han representado".

Nere itzalditxoaren gaia, Urruzuno bizi izan zan aroa, garaia, denbora, izango da.

Badu gai onek iñolaz ere ajola. Gizakume bati, bera bizitzen dan aroak eskuarkiro itzal aundia ematen baitdio. Ta idazlea bada, berriz, are aundiagoa. Esan izan oi da, ta arrazoiarekin gañera, idazle batek, nai badu ta berdin nai ez badu, inguruko aidearen eta giroaren mendean eskribatu bear izaten duala.

Guziok dakizuten bezala, Pedro Migel Urruzuno milla zortzireun eta berrogeita laugarren urtean jaio ta milla bederatzireun eta ogeita irugarrenean il zan.

Beraz emeretzigarren mendeko erdialdean etorri zan mundura. Ta mundua, edota beintzat Europa, politika saillean, artean Frantziako Erreboluzioaren ideiak sortutako burruken eta eztabaida-pean arkitzen zan.

Ez degu gaur betarik arlo au sakonki aztertzeko. Gañera gai labaña baitda. Dana dala, aro artan iru egintza nagusiek izan zituen eragipen ajolatsuenak Euskalerrian: Españaiko lenengo Errepublika, karlisten bigarren gerra ta gerra arek Euskalerritari ekarri zizkan ondoren gaiztoak. Lenengo bi egintza oriek eta orobat Vaticanoko lendabiziko Kontzilioa ere saiesturik, mintza gaitezen zertzobait karlisten bigarren gerrako ondoren gaizto aiezaz.

Milla zortzireun eta irurogeita amaseigarren urteko lege batez, Gipuzkoako, Bizkaiako ta Arabako Fueroak indargabeta utzi zizkiguten. Españaiko agintarien erabaki onek naigabe aundi-sakona sortu zigun euskaldun guzioi. Are geiago: andik urte batzuetara ere izan genituen gipuzkoarrok gai ontan atsekabe bat baño geiago. Nik gaur bat bakarra gogoratuko dizuet: Donostian milla zortzireun eta larogeita amairugarren abuztuan izan zan gertakuntza itun bat.

Gau batez, Donostiako Bulebarrean, bertako musika-taldeari, beste egokiera askotan bezala, jendeak "Gernikako Arbola" jo zezala eskatu zion, baña musika-taldeak, iñolaz ere agintarien esanen bat beteaz, eskariari uko egin zion. Orduan donostiarrak, Iparragirrerren eresi illezkorra kantatuaz eta ¡Gora Fueroak! deadar egiñaz, ibilkunde bat antolatu zuten, baña Avenidara eldu ziranean, Guardiak tiroka jendea sakanatu zuten. Iru donostiar an il ziran eta zauritu, berriz, ogeita amar-bat gutxienaz.

Ez dakit ezagutzen dezuten gertakuntza negargarri onekin zertzobait zer-ikusi duan kontutxo irritsu-samar bat.

Gertakuntza ura izan zan egun artan, Toulouse Lautrec pintatzalle prantzes ospetsua Donostiara etorria zan. Beste emengo pintatzalle ezagun batek, Regoyos-ek, ekarri zuan onera, eta biak elkarrekin Españian barrena ibillaldi bat egiteko asmoetan ziran. Baña Guardiak gauean Toulouse Lautrec atzitu ta luto egin zuten. Arista aundia izan arren, Toulouse Lautrec gizon erdi-el-barri ta ñaño bat baitzan, eta nonbait Guardiak ikusi zuten bezain laister, begitan artu zuten. Dana dala, ta Regoyos-en lagun batzuei eskerrak, bereala askatu zuten, baña urrengo goizean bertan pintatzalle prantzesa itzuli zan ostera Parisa esanaz noski: “Je m'en fiche de votre España negra”.

Euskal -literatura saillari dagozten aro ontako egintzarik nabarmenetako bat, euskaltzaleen artean orduan sortu zan bereizkuntza da noski. Bai, euskera garbi-zaleen eta euskera errikoia-aren aldekoen arteko oraindik ere irauten duan bereizkuntza.

Baña bereizkuntza ura sortu baño len, emen, Gipuzkoan, izan zan denbora artan euskaltzale ta idazle bat euskeraren alde egoki jokatu ta lan egin zuana: Jose Manterola, “Cancionero Vasco” deritzaien liburuen egillea ta “Euskalerrria” aldizkariaren sortzallea.

Naiz olerkari goienekoa ez izan arren, Iparragirrek ere aro ontan izan zuan zertxobait eragipen. Orixe-k dio: Karlsten guduak ere Fueronganako maitea irazeki zigun, eta literaturan ixuri aundik utzi ezpazun ere, Iparragirre tarte ortatik atera zan”.

Ezin utziko degu bidenabar bederik aitatu gabe ere Martzelino Soroa, euskal-teatroaren sortzallea ta “Azak eta Naste” idaz-lan-sorten egille aditua. Soroa ere guipuzkoarra zan —donostiarra— eta Urruzunoren adiñetsukoa. Ta, benturaz, elkar ezagutuko zuten noski. Dana dala, usmatzen da beintzat bazuetan beren ipui errikoietan alako elkarren zantzu apur bat.

Baña laga ditzagun alde batera euskera garbi-zaleen eta euskera errikoia-aren aldekoen arteko eztabaidak. Bai, esan be-

zala, oraindik ere, gutxi edo geiago, irauten baitdute eztabaida oriek, eta, beragatik, gai au ere labaña da ta gañera gorroto-garria, ta ez genduke iñor mindu nai. Ez mindu ta ez losen-txatu, jakiña.

Aldi ontan sortu zan Euskaltzaindia, zeatzki milla bedera-tzireun eta emezortzigarren urtean, eta bere lenengo lendakaria Resurreccion Maria Azkue izan zan.

“Diccionario Vasco-español-francés” ospetsuaren egillea aitatu degun ezkerro, ezin geldituko gera esan gabe berak sortu zituan “Euskalzale” ta “Ibaizabal” aldizkarietan Urruzunok lan ugari-samar argitaratu zituala.

Españaiko beste lurralde batzuetan ere sasoi ontan beren izkuntza berezien literaturak berpiztu ziran. Cataluñan berpiz-kunde ari lenengo bultzakada Joakin Rubió-k eman zion, eta beraren lanari jarraitu zioten idazle ezagunenen artean Verdaguer, Maragall eta Guimerá arkitzen dira. Galician, berriz, lanketa artan bertan geiena alegindu ziran idazleak Rosalía de Castro, Curros Enríquez eta Lamas Carvajal izan ziran.

Auek dira laburki Urruzunoren aroko bai politikako bai literaturako egintza arduratsuenak. Baña, nola eragin zuten egintza auek Urruzunoz?

Donostian joan zan azaroan Euskaltzaindiak egin zuan batzarrean Pierre Lafitte-k irakurri zigun txosten ernagarri batean esaten da, ipuiak bost motetakoak izaten dirala: paganoak, giristinoak, ixtoriokoak, amets-hutsezkoak eta irri-solasak.

Ongi. Urruzunoren ipuiak geientsuenak irri-solasak dira. Baña baditu bestelako batzuek ere. Onela, bere “Gabon gau bateko oroipenak” ixtoriokoa da. Gaia, karlisten lenengo gerra du, ta bukaeran gerra mota guzien etsai garbi bat bezala agertzen zaigu Urruzuno. Bere azken-errenkadetan onela dio: “Gloria zeruan Jaungoikoari eta pakea lurean gizonai. Iguzu arren pake ori; pake egiazkoa; pakean eta alkar maitatzen bizi, eta pakean eta zure amorean il gaitezen...”

Euskaldun fededun-eredu ta apaiz onbidetsu bat izan zan Urruzuno, ta, jakiña, ipui giristinoak ere baditu. "Mariatxoren loreak" deritzana, adibidez. Ipui ontan Ermita batei buruz dio: "Sortu zan reboluzioa. Euskalerrian ere izan ziran baliente batzuek eta Ermitatxoak ere izan zituan bere etsaiak. Tellatu ta ate berria egin bear zitzaizkiolako aitzakiarekin, zaarrak kendu ta berririk egin ez, gelditu zian lau paretiak, eta andik laister sasia ta larra".

Orobat, amets-hutsezkoak ere utzi zizkigun Urruzunok. "Euskalerritik zerura" deritzana, esate baterako.

Ordea, ta esan bezala, bere ipui geientsuenak azkeneko motakoak, irri-solasak dira. Ipui orien artean asko ijitoei buruzkoak dira. Bere denboran Elgoibarren eta Elgoibar inguruan nonbait ijito ugari-samar biltzen ziran. Egia esan, antziñan ere ijitoak Elgoibarko erria gogoko izan bear zuten. Milla seireun eta amazpigarren urtean Gipuzkoako agintari ta aldunak Zestoa-ko urian egin zuten Batzar Nagusi batean, ain zuzen ere Elgoibarren ijitoak egindako gaiztakerietaz mintzatu ziran.

Gaur dan egunean, ez Elgoibarren bakarrik, Gipuzkoan eta berdin Euskalerrri osoan, ijitoak gutxitu egin dirala dirudi. Esan nai degu, alegia, berenez ijitoak diranak, arrazaz eta odolez ijitoak diranak. Bestelakoak, au da, gizakume diruzale ajolakabeak, egia esan, gure uste apala da, gutxitu ezezik ugaritu egin zaizkigula. Baña... goazen arira.

Esan bezala, Urruzunoren ipui askoren gaia ijitoen biziera da. Ipui orietan garbi ikusten dana da, gañera, bera ijitoekin oso ondo etortzen zala. Ain biotz on-aundia zuan nonbait. Eta ori gañera berak ere gutxi gora-beera ijitoei buruz guk bezalatsuko iritzia zualarik. Entzun bestela bere bertso auek:

Mundu onetan
Nai badezu bizi,
Ijitoai beti
Geldi-geldi utzi.

Mingarria da Urruzunok, ijitoekin ainbeste artu-eman izan zitudan euskaltzale argi arek, ijitoen mintzaira bereziko euskaltzale iztegitxo bat ez eratzea. Orrelako iztegitxo bat, alabaña, euskaltzale guzientzako onurako-izango litzake. Ta Urruzunok, baldin bururatu izan balitzaio, gertuko zigun gai ontaz ziur asko lantxo egokien bat.

Gaiñontzean, eta esate baterako, jan-edan-gaiak ere erabilli zitudan Urruzunok bere idaz-lanetan, batez ere olerkietan. Ta bere “Ardoaren Bentajak” deritzana, iñoiz euskeraz ardoari buruz idatzi diran goieneko bertsoen mallan arkitzen da. Are geiago: Chile-ko gaurko poeta ospetsu Nicanor Parra-k bere “Coplas del Vino” olerkian, Urruzunok len aitaturako berean dakartzkien burutapen antz-antzekoak erabiltzen ditu. Urruzunok dio adibidez: “Ardoak egiten gaitu danok *ana*”, ta Nicanor Parra-k berriz: “...el vino *hermana* los corazones”.

Itz bi Urruzunoren idaztankerari ta umoreari buruz, saill auek ere beraren aroarekin zer-ikusi zerbait badute-ta.

Esan degu, alegia, Urruzunoren garaian euskaltzale batzuek izkuntza garbizaleak zirala ta beste batzuek, berriz, izkuntza errikoia aldekoak, eta ain zuzen ere bereizkuntza au garai artan sortu zala.

Urruzuno bigarren euskaltzale-taldeko ortakoa izan zan. Bateon batek izan lezake apika arlo ontan iritzi berekikoa. Baña ala ere ziur gaude euskaltzale benetakoak aitortuko dutela noski gutxienaz, alegia, Urruzunok merezi duala beintzat euskaldun guzian begiramen osoa euskera errikoiaz ain jator-ki bere idaz-lanetan baliatu zalako. Ez degu aztu bear, gañera, iñolaz ere izkuntza guzietan izketa jatorraren iturri bakarra beti erria izaten dala.

Umoredun bezala ere Urruzuno errikoia izan zan. Len ere bein edo bein esan izan oi degu, eztakigula zergatik baña, euskaldunak, geientsuenak umoredunak izan arren, idazten dutenean askotan, damurik, umorea edo *unorea* —Ernio-inguruko errietako zarrak esaten duten bezala— albora uzten dutela.

Bestalde, esan genezake oker aundirik gabe, gaur dan egunean munduan umorea, edota beñepein umore alai, gain-beera dijoala. Norbaitek esan du, ta ederki gañera, erri aberats eta aurreratuak ez dutela askotan beeragokoak baño aurpegi argiagoa izaten.

Dana dala, iritzemalle batek egoki zionez, Urruzuno gizon arraia ta alai izan zan, eta umoredun bezala, berriz, gure us-tez beintzat, gain-gaiñekoa. Euskalerrian beñepein idazle gutxi, oso gutxi ere, izan baitditugu berak bezalako umore erri-koi, alai ta landugabeko arin-xaloa erabili dutenak.

Beste gai batzuek ere Urruzunori buruzkoak gogoz joko genituke. Alegia, nola milla bederatzireun eta emeretzigarren urtean Euskaltzaindiko urgazle egin zuten; nola bere garai artako euskaldun jator asko bezala zarronzalea izan zan; nola jende guziekin, goikoekin eta beekoekin, gizasemeekin eta emakumeekin, zaarrakin eta gazteekin, eta baita ijitokoekin eta mojakin ere zein ongi konpontzen zan, eta abar eta abar. Baña ordua aurrera dijoakigu ta bukatzera goaz.

Zorionak eta eskerrak, berriro diot, apalki, baña biotz osoz, Euskaltzaindiaren izenean, jai-aldi auen antolaketan esku-artu dezuten elgoibartar guzoi. Zuen erritar Pedro Migel Urruzuno orain berrogei ta amar urte il zan, baña ikusten degunez, oraindik ere bere oroimena zuen artean bizi da ta, baldin onela jarraitzen badezute, ez da sekulan ere ilko noski.

Ziur asko, une ontan, Don Pedro Migel zeruko zirrikituraren batetik bere aurpegi alaiarekin irriparrez begira edukiko degu, bere erritarrak, zuek, elgoibartarrok, bizitza guzian bera ibilli zan euskeraren aldeko bidetik zabiltzatela ikusirik.

Baña ez zuek bakarrik, elgoibartar maiteok, euskaldun guziok ere beartuak gaude noski bide ortatik bertatik arretaz jarraitzera. Ordea, ori bai, guziok bat egiñik eta gaurko gure arteko eztabaidak eta bereizkuntzak osoro eta bein betiko bazterturik.

Euskera baita euskaldunon izkuntza berezia, euskaldu-

non kulturaren oñarririk nagusiena, euskaldunon altxorrik baliotsuena, ta gañera ta egiazki —zergatik ez esan?— euskaldunon Fueroen kutxa zaarraren giltza.

Agur, jaunak. Agur t'erdi. Ta gaizki esanak barkatu.

URRUZUNO, IDAZLE

A. Zabala jaunaren hitzak

Idazle ugaria

Idazle bat goratzearren bilduak gaude gaur emen. Ala ere, beste ezer baño len, gauza bat esa bearrean gera: idazle orrek, Urruzuno'k, etzuan bere libururik ikusi ta ezagutu. Bere libururik esan det. Eliz-liburu bat baño geiago euskeratu zuan: *Zeruco Arguiya edo ¡Ondo pentsatu! berriya*, Tolosa, 1885, ta *Meza Santua zer dan*, Durango, 1915. Bañan oiek itzulpenak dira; ez bere-bereak, beraz. Bertsotan *Igande escolaraco jarritaco cantac* ditu; auek, ordea, ez dute, uste dedanez, libururik osatzen, liburuxka bat, *folleto* bat baizik. Naiz-ta oso onak izan, itzulpen oiezaz ez degu ezer esango; ezta liburuxka orrezaz ere.

Danok dakiguna, Urruzuno'k garai artako aldizkari guzietara bialtzen ta zabaltzen zituan bere idazlanak, ta an da emen, ardi galduen gisa, gelditu ziran. Urruzuno'k etzuan bere lanik beste moduz ikusi. Aldizkari oien izenak: *Euskal-Erria*, *Euskaltzale*, *Ibaizabal*, *Baserritarra*, *Euskal-Esnalea*, *Argia*, *Jesusen Biotzaren Deya*.

Urruzuno'ren liburu guzrak, bera il ondoren agertu dira, aren ipui ta bertsoak andik eta emendik bilduta. Lenengo argitaratu zana: *Urruzuno'tar P. M'en ipuiak* deritzana, Iruña, 1930; ta beste guziak Auspoa Liburutegiak atera ditu: *Euska-*

lerritik zerura (1961); *Iru ziri*, 1965; *Ur-zale baten ipuiak*, 1965; ta, azkenik, omenaldi ontarako prestatu dana: *Sasiletrau baten ziria*.

Danetara, bost liburu; ta geiago egiteko ere gai-paltarik ez dago. Bostetatik iru, aituta daude; bi bakarrik salgai, azkeneko biak. Ta auetatatik ere, *Ur-zale baten ipuiak* deritzana, laister agortuko dana. Ez du edozein idazlek olako arrera onik izaten. Erriaren gogokoak, beraz, Urruzunoren lanak.

Bere lenengo ipuia, *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zan, 1886 urtean. Urruzunok ez du bere izenez firmatzen; *Ur-zale batek* jarrita baizik. Bañan umeak aita nor duan, ez dala zalla igertzen; ain zuan joskera berezia gure Urruzunok.

Azken idaz-lana, berriz, *Argia*'n agertu zan, 1923.IV.22'an, bera il da zortzigarren egunera. Ama Birjiñari eskeiñitako zazpi bertso dira. Onela bukatzen zuan:

aldendu gabe zure ondotik
beñere mundu onetan,
bizitutzeko beti-guzian
zurekin zeru goietan.

Iltzera zijoala jakin eta eskari ori egiten diola ematen du; ta ondoren, oiean sartu zala azken arnasa emateko. Eriotzera arte lan ta lan aritu zan gizona degu, beraz.

Asi zanetik, 1886 urtetik alegia, eriotzak 1923'an eraman zuan arte, 37 urteko tartea izan zuan. Ori da euskal aldizkarietan lan egin zuan denbora. Eliz-liburuak euskeratzen, lenago asia izango zan bearbada.

Bitarte orretako idazlanak, zenbat ote? Saiatu naiz kontatzen, eta 320 kontatu ditut. Gutxi gora-bera or nunbait izango dira; bañan zorrotz ta juxtu kontatzeko, askoz denbora geiago bear litzake.

Ta galdutakorik ere badu. *Baserritarra* izeneko bi aldizkari izan dira: bata, Bilbao'n Sabino Arana'k agertzen zuana, politika-aldizkaria; bestea, Donostin Pepe Artola, B. Iraola ta gañontzeko garai artako donostiar euskal idazleak ateratzen

zutena. Onako au amabostean bein izaten zan, ta Urruzunok ia amabostero idazten zuan. Danetara, 167 ale edo zenbaki izan ziran-; bañan orain arte agertuak, 102; 65, beraz, falta diranak. Ta, ziur aski, Urruzunoren ia beste ainbeste lan, aldizkariarekin batera galdurik. Iñork baleki sorta osoa nun dagoan, biontz ezkerretuko genioke aren berri ematea.

Urruzunoren iturriak etzuan, beraz, agorraldirik izan. Iturri ugari ta oparoa izan zan. Ori beintzat aitortu bear zaio, ta are geiago oraindik, beste zerbait kontuan artzen badegu:

Urruzunok bazuan, noski, idazteaz beste lanik. Urruzuno Mendaro'ko mojen kapellau izan zan, ta bere apaiz-lanak gotik egiten zituana. Elizkizun ederrak gustatzen zitzaizkion, ta, maiz xamar, aietarako bear ziran kantak ere, berak egiten zituan, bai letraz eta bai musikaz. Are geiago, jende asko etortzen zitzaion, bai jende xumea —eskaleak eta abar—, bai apaizak ere, zerbaiten galde edo konsulta egitera. Zabalik beti, Urruzunoren atea. Onela zion *Jesus en Biotzaren Deya*'k Urruzunoren il-berria ematean: “Azkeneko Aste Donean asko nekatu emen zan, eta beraz nekaldi gogortxuak eriotza erakarri zion.” Onenbesterekin esana dago, idazlanak txolarteetan egin bearke zitala. Ez du edozeinek txolarteetan olako lanik egiten. Askok, ezta egun guzia emanda ere. Langille purrukatu, beraz, Urruzuno zana.

Urruzunoren idazlanak bi taldetan bildu ditezke: ipuiak eta bertsoak. Bestelakorik ere badu bat edo beste; bañan oso bakanak. Ez, noski, talderik osatzeko ainbat. Orregatik, ez degu oiezaz ezer esago. Ipuiei buruz mintzatuko gera geien-bat, ukaeran bertsoei buruz zerbait esateko.

Umorea

Onela dio Urruzunok idazki batean:

—Aizazu, Iñaxixo: Zein da bizar beltz-dun ori?

—Orixe dezu bada Iparragirre'ren erederua.

—Zer eredau ete zuan ba? Kitarria?

—Ez, umore ona.

—Tripia betetzeko... eztakit...

—Ez; apizioz dabill. Orain zartzara obra miserikordiazkoak eitten ei dabill.

—Zer obra da?

—Triste daudenak konsolatzia.”

Guk ez dakigu zeñengandik eredatu zuan Urruzunok bere umorea; bai, ordea, erentzi aundia jaso zuala. Bere denbora guzian besteri banatzen aritu zan, eta ala ere etzitzaion ezertxo ere gutxitu ta eskastu.

Ta triste daudenak konsolatzia errukizko egintza baldin bada, dan bezela noski, egintza ori bai gogotik eta benetan egin zuala.

Onela zion Arrue jaunak orain amasei urte idazlan batean: “Gaiñontzean, eta *euskal umoreari* buruz, esan genezake oker aundirik gabe, Euskalerrak idazle gutxi izan dituala, oso gutxi ere, Urruzunok bezala unore berezi ori beren lanegiñetan irauli dutenak: *Mogel Peru Abarka'n*, Domingo Agirre *Ga-roa'n*, Bustintza ta... beste bat edo bi, geienaz.”

Bai, Urruzuno umore-zale degu, gure umoristarik aundienetako bat. Aren ondotik, bere donostiarikeri guziekin, Bitoriano Iraola jarriko nuke nik. Zoritxarrez, olakorik gutxi degu gaur, ez bearrik ez degulako baño...

Gauza batez arrituta nago aspaldi; arrituta ez-ezik, kezkatuta ere bai. Gure erria oso umore-zalea degu. Or ditugu bertsolariak; baita ere edozein lagunartetan kontatzen diran gertaera ta pasadizoak; ta or, batez ere, erriren izketa-modua. Gure erriak ez daki izketan egiten, umorezko zirikadarik ezker-eskubi banatu gabe. Ori, danok dakiguna da. Zergatik ote dan, beste kontu bat da. Bada emen, nik uste, sikolojia-lan baterako gaia.

Bañan arrigarria au da: alde batetik, umoredun erria; ta, bestetik, umore gabeko idazleak... Nai duanak nai duana esan dezala, bañan nik ez det au ondo arrapatzen. Aitortzen det neroni naizela lenen pekataria. Bañan onek esan nai du, euskal literaturak ez duala bear bezela euskal izaera erakusten; erria bide batetik dijoala, ta gu, euskaltzaleok, bestetik.

Umored-mota asko dago. Badira umore onak eta txarrak, legunak eta zakarrak, gozoak eta mikatzak. Umorearekin bromakin bezela gertatzen da: broma on batek adiskide berri bat egingo dizu; ta broma txar batek, etsai berri bat.

Urruzonoren umorea nolakoa ote? Urruzunorena oso umore garbi ta gozoa degu; biotz garbi ta gozo batetik jaioa alegia. Urruzunoren umoreak ez du iñor zauritzen; ezta arramaskarik txikiena egiten ere.

Onak ez du esan nai Urruzunok malizirik etzuala. Apaiz txiki arek bazuan, bai, bere malizi-puskatxoa. Izan ere, batere malizirik gabe ez da, nik uste, umorerik. Zergatik ez du, ba, iñor samintzen?

Bere umore ori maitetasunez beterik dagoalako. Maitetasuna zeñentzako edo zerentzako? Bere ipuietan agertzen dituan persona guzientzako.

Persona idatzi baño len, zalantzetan egon naiz, itz ori erderazkoa dala ta euskerazkorik ezin arkiturik. *Kristaua* ia-ia jarria neukan, bañan Urruzunoren alkar-izketa batez oroitu naiz. Onela dio ijito-andre batek erretore bati:

—Liña-putzuan bataiatutakoa nai du nerekiñ konparatu?

—Liña-putzuan?

—Bai, jauna, liña-putzuan; ark bear zuen izena Liña, eta ez Prantxiska.

—Nork bataiatu zuen?

—Mañexek.

—Nola?

—Ara, jauna: putzuan iru sartu-atera egiñ zizkion, esanaz: “Uka pirme, kasta gaiztoa; aitaren partetik lapurreria, amarenetik ordikeria, mundu guzia dezu zuria, Prantxiska.”

Ez det uste bataio orrek kontzilio ondoren ere kristau egiteko balio duanik; ezin, beraz, *kristaua* jarri... Bañan bat-batean Urruzunoren beste itz bat bururatu zait, eta itz orrekin esango det. Bai, Urruzuno'k maite ditu, ta beren akats ta guzi maite ere, bere ipuietan agertzen dituan *ankabiko* guziak. *Ankabiko* oiezaz itzegin nai nuke orain.

Ankabikoak

Ankabiko oiek ez dute eremu aundirik betetzen; beren bizi-lekua oso txikia da luze-zabalean. Urruzuno Mendaro'n bizi zan. Ipar aldean, zortzi bat kilometrora, Deba ta itxasoa zeuzkan; bañan Urruzunok ez du aitatzen ez itxasorik, ez itxas-gizonik. Ego aldean, berriz, sei bat kilometrora, Elgoibar zeukan, ta andik bereala Eibar ta Plazentxi. Ala ere ez du aitatzen ez ango industriarik, ez langille jenderik. Urruzunoren mundua, Deba ta Elgoibar bitartean dagoan erreka-zulo illun ta luzea da. Menditarte orretan bizi diran jendeak agertzen ditu bere ipuietan.

Jende oiek zein dira? Mota guzietakorik dago: tabernari, jueza, alkatea, praille, neskazar, mutilzar, pregonari, sasi-letrau, perratzañlle, txorroskille, mozkor, klerikata ta antiklerikala, bertsolari, ikazkin, nagusi, morroi, iñude, zapatari, soldatu, mitin-zale, ta abar ta abar. Ta, batez ere, batez ere diot, ijito jendea; ijito jendea bere ijitokeri guziekin.

Zerrenda luzea jarri det, bañan izen bat izkutatuaz. Zein ote? Apaiza. Apaiza ere agertzen da Urruzunoren ipuietan, bañan beti bigarren maillean; ez du aurrera atera ta danen bistara azaldu nai. Zergatik ote? Apaiza, Urruzuno bera dalako. Ez dago ortaz zer duda egin. Erriarekin eten-gabeko artu-emanetan bizi zala esan, bearra degu oraindik artu-eman oien agerpen, ara or apaiza, Urruzuno bera alegia, azaltzen dan ipuiak.

Ortega y Gasset jaunak onela dio Baroja'ri buruz: ... *ha tenido que ir al margen de la sociedad actual, y precisamente en eso que suele considerarse como el escombros social —los golfos, los tahures, los extravagantes, los vividores, los suicidas— creyó encontrar un asunto* (1).

Olako zerbait ere badegu, nik uste, Urruzunorekin. Jende xume ta arlotea Urruzunorena; jende umilla, pobrea, ta nola-baitekoa ere bai makiña bat aldiz. Urruzunoren kuttunak jende

(1) Ortega y Gasset: "Ideas sobre Pío Baroja" ("El Espectador", I).

auek dira; len esan bezela, maite ditu, ta beren akats guziekin maite ere.

Jaio zaneke eungarren urtea dala-ta, amaika bider entzuna-
nak gera aurten Baroja'ren izena, baita ere *barojianos*, *tipos
barojianos* ta ola-moduzko zenbait esaera. Era berean, guk ere
asma genezake "urruzunotar" itza ta "urruzunotar ankabikoak"
esan... Ez dago gaizki, bañan luzetxea da; aski izango da "urru-
zunotarrak" esatea.

Zenbait idazle mundu berri baten sortzalleak izan dira;
ta mundu berri ortan persona askori, *ankabiko* askori, eman
diote bizitza. Alakoxeak, adibidez; Baroja ta Galdós. Bi erdal
idazle auek aitatu ditut, ez noski Urruzuno aien malleko ta
pareko egin naiean, zer esan nai dedan obeki ulertarazteko
baizik.

Urruzunok ere mundu berri bat sortu du, euskal mundu
bat; esan bezela, mundu txiki bat geographiaz, bañan *anka-
biko*-mota askoz ondotxo betea. Ez det uste gure literaturan
iñor danik, Urruzunok ainbat persona, ainbat *ankabiko*, bere
idazkietan agerrarazten duanik.

Euskal literaturan azaltzen diran lagunik geienak, alako
geldi-antza bat dute; maiz xamar serioegiak dira. Baita gure
pinturan ere. Gure pintatzalleak euskal arpegi jatorrak era-
kusten oi dizkigute beren kuadroetan, bañan bai serioak ere,
askotan beintzat. Urruzunorekin, ordea, olakorik ez da. Nik
beintzat, nere irudipenean ezin ikusi det urruzunotarrik, bere
ezpañetan irripar pikaro xamar bat gabe.

Urruzunoren euskera

Nik ez dakit gramatikalariak zer esango duten Urruzo-
noren euskeraz; bañan, nere iritzirako, Urruzunok euskerarik
asko zekian, euskeraren jabe zan.

Izkera guzietan bi mail arkitzen ditut: bata, gramatikak
erakusten duana; ori, arrotzak ere ikas lezateke. Bestea, ez
dago gramatiketan, erriaren ezpañetan baizik; beste au jaki-
teko, edo beintzat Urruzunoren añean jakiteko, bi gauza bear

dira: lenengo, izkera ori amaren bularrarekin batera ikastea, ta, bigarren, erriarekin eten gabeko artu-emanetan bizitzea.

Urruzunok biak zituala, zer esanik ez dago. Guk orain Urruzuno maixu aitortzen degu, berak maixutzat erria artu zualako. Nekez arkituko da euskal idazlerik, arek bezin ondo erriaren euskera ematen duanik.

Garai artan, euskaltzaleen artean modan jarria zegoan garbizaletasuna esanda entenitzen zana. Gaur, ziur asko, garbiza-lekeria esango genion, geiegizkoa izan baitzan. Bañan auzi ori pakean urtea obe, gaur ere beste geiegikeririk asko badegu-ta.

Urruzunok etzion moda orri jarraitu. Arek egin zuana da, euskerarik errikoiena ta jatorrena bere lanetan erabilli ta eztabaida guziak or konpon utzi. Obeki esateko, etzituan or konpon utzi, baizikan, eztabaidetan ikorekin sartu gabe, zuzenbidea nundik nora zan garbi asko erakutsi.

Orduko idazle guziak, Urruzunoren bidetik abiatu izan balira, beste txori batek joko zion gaur kuku euskerari. Bañan idazleak etzuten ulertu, edo etzuten ontzat artu, Urruzunok erakusten ziena, ta okerbideetik bota zituzten beren egiñal guziak.

Urruzunoren merituak lenengo aitortu zituana, Sebero Al-tube jauna izan zan. Aitamen luzetxoak izango dira, bañan merezi dute emen jartzea. 1933 urtean, "*La vida del Euskera*" izeneko itzaldi bat eman zuan Donostin; urrengo urtean Bilbaon argitaratu zan. Artatik artzen ditut puska auek:

... Hace ya unos 40 años que se inició en Bizcaya y G-ipúzkoa el movimiento conocido con el nombre de "renaci-miento euskerista".

En aquella época el euskera era hablado, casi exclusiva-mente, en toda Bizcaya (con excepción de Bilbao y las En-cartaciones) y en toda Gipuzkoa; aquí incluso en la capital donostiarra.

... se iniciaron los trabajos encaminados al susodicho "renacimiento euskerista" persiguiendo como finalidad principal (con un optimismo sin límites) la total extirpación de los elementos alienígenas importados al euskera, incluso los más extendidos y arraigados desde tiempo inmemorial.

... el absurdo plan de procurar el exterminio de las palabras populares de origen extraño fue seguido por toda una generación de escritores de los pasados años...

Altubek, bi idazle jartzen ditu eredutzat: Kirikiño ta Urruzuno. Auek etzioten giro galgarri ari obeditu; ta giroak agintzen duanari ez obeditzeko, ez da buru argia bakarrik bear, baita biotz ausarta ere. Bai, nere iritzirako beintzat, gizon agertu ziran Kirikiño ta Urruzuno.

Altubek, lenengo Kirikiñooren goralpenak egiten ditu, ta urrena Urruzunorenak. Oni buruz ona nola dion:

En medio de tantas publicaciones euskéricas carentes de savia popular y, por consiguiente, de belleza artística en el lenguaje, surgió el año de 1930 un libro intitulado "Urruzuno'tar P. M'en Ipuiak", una obra de las muy pocas originales que, entre las publicadas en estos tiempos, merece verdaderamente el título de literaria. El euskera que emplea Urruzuno en ese libro es la transcripción fiel del habla de pueblo; por lo mismo es rico en modismo, idiotismos y demás locuciones típicas que adornan el lenguaje ágil, vivaz y expresivo de la masa popular euskaldún; por otra parte, los conceptos, ideas y pensamientos que exteriorizan los personajes creados por Urruzuno reflejan con la mayor exactitud las manifestaciones más íntimas del alma de las gentes de nuestro pueblo. Se trata, por todo ello, de un libro que debiera servir de modelo a la literatura vasca del género popular.

Pues bien: algunos euskalzales, puestos en trance de hacer la crítica de ese libro, no supieron decir otra cosa sino que "es bueno en cuanto al contenido, pero que su lenguaje resulta poco depurado en relación con el que usan los escritores de nuestros días".

Para que el libro que comentamos satisficiera a aquellos críticos, hubiera bastado, por lo visto, con que un niño que supiera manejar el diccionario, sustituyera aquellas voces por otras, consideradas como "puramente" euskéricas; es decir, que allí donde Urruzuno escribiera "Ordu onean, Diru asko, beko kalean..." cambiara estas frases por "Gabeuki onean, Txindi asko, Beko traxidean...", convirtiendo el lenguaje claro, transparente y expresivo del original, en árido e ininteligible para la masa euskaldún.

Esta clase de críticos nos hace la impresión de las de aquel que juzgara un cuadro de Miguel Angel o de Murillo como inferior a un cromo de feria, porque éste estuviera colocado en un marco dorado con reluciente purpurina.

Len esan bezela, aitamen luzetxoa izan da, bañan merezi zuana. Nik onela esango nuke: Urruzunok egitez erakutsi zuan, batere teorikarik sortu gabe; ta Altubek, Urruzunok egitez erakusten zuanaren teorika atera zuan. Zein baño zein prestuago bi euskaltzale auek. Emendik sei urtera, Altube jaio zanetik eun urte beteko dira. Zuzen izango da, gaur Urruzunori egiten ari gerana, orduan Altuberi egitea.

Urruzuno, bertso-jartzalle

Oraindik ere zer esan asko zegoan Urruzunoren ipui ta prosari buruz, bañan au luze dijoa ta utzi egin bearko degu. Bada, ordea, oraindik, ezer esan gabe ezin utzi ditekean beste zerbait: bertsoak.

Urruzunok bertso asko ta asko jarri ta publikatu zuan. Ta guzi-guziak, teknikaz eta muñaz, gorputz-animaz alegia, oso erri-koiak, bertsolaritzaren legeen araura egiñak.

Bertsolari ez diranak, diranak baño askoz lasaiagoak dira puntuetan. Bertso osoa irakurri gabe ere, puntuak bakarrik ikustea, aski izaten da askotan bertsolari baten lana dan edo ez dan erabakitzeko. Urruzuno oso xuxena ta aberatsa zan puntuetan. Aren liburu bat artu ta bertso bat billatu det; edozein.

Ona emen puntuak: ardatza, aberatsa, latza, esperantza. Beste bertso batenak: gutxian, etxian, kotxian, biotzian. Alakoxeak dira beti Urruzunoren puntuak.

Ta barrengo muñaz zer esango? Irakurleak berak juzga beza; ona emen, puntuak berexi ditugun bi bertso oiek:

Baztarturik an dauzka
goru ta ardatza,
gubernatzeko dio
esaten baratza;
atxurraren kirtena
omen dago latza,
etxea goratzeko
ai zer esperantza!
Bizitu naiz eta ez
denbora gutxian,
umee kiñ lan asko
egiñez etxian;
andria pasiatzen
ederki kotxian,
pena andirik gabe
bere biotzian.

Bañan gu baño erabakitzaile oberik badago: erria. Ta erriak, Urruzunoren lanak edozein bertsolarirenak bezela artu izan ditu.

Urruzunoren bertso-sail bat baño geiago bertso-paparetan azaldu da. Beti bezela "Bertso Berriyak" ipintzen du gañeko aldean; bañan zeñek jarriak diran esan gabe. Orrela argitaratu ziran "Kantatutzera nua nere istoria" asten diran bertsoak, baserriter gizagajo batek ijitoekin egiten duan asto-tratuaz jarriak. Zestua'ko Tomas Etxabe'k bialdu zidan kanta-paper ori. Aitzol zanaren bertso-bilduman ere iru tokitatik etorriak daude bertso oiek: Donostitik bi lekutatik eta Plazentzitik. Ta Goiz-Argi'n ere argitaratu ziran, Aita Garate'k oñatiar bati, Alejandro Irizar'i, jaso zizkion bezela.

Andre ezkonduak eta neskarrek alkarri kantatutakoak ere bertso-paperetan publikatu ziran. Azkoitiko Lardaskanda baseritik etorri zitzaidan papera; *Argia*'n ere agertu ziran.

Patxi Motzaren kantak ere bertso-paperetan publikatu ziran; paper bat Arizkunen jaso nuan, eta beste bat Donostin.

Ta orain berriro lengora goaz: Bertsolaritza ere ain menderatua, ain barrena sartua zuan gizon onek, zenbateraño maite zuan erria? Urruzunoren idazkietatik eta bizitzatik ikasbide jator asko atera genezake. Bañan, nere iritzirako, denen sustraia ta oñarria auxe da: erriaganako zuan maite-tasuna.

Urruzuno ain bertsolari ikusirik, orain urte batzuk, bertso-biltzeari ekin nionean, aren illobetara azaldu nintzan, osabaren paperen artean bertso-paperik-edo ba ote zan galde-tuaz. Urruzunok, derrior bear zuan bertso asko irakurria; ta bertso irakur-zale bazan, gorde-zale izatea ere... Bañan etzekiten ezer ere. Olako paperik somatu etzutela erantzun zidaten. Ez nuan, beraz probetxurik izan. Beste norabaitera eramana izango ote dira? Ez dakit.

Danok dakiguna, mojen komentuetan, kapelluari meza ematen laguntzeko, auzoko mutiko bat edo beste izaten dute. Urruzunoren meza-laguntzalleetatik bat nor izan zan badakigu: Eusebio Mugertza, urteen buruan *Duque de Kilimón* edo *Mendaro Txirristaka* esanda ezagutuko zana. Bertsolariaz gañera, bertso-saltzalle purrukatua. Oraindik ere askok eta askok eta askok izango dute gogoan. Azkeneko urteetan, erdera-euskerazko bertsoak publikatzen ta saltzen zituan. Asierran, ordea, euskera utsezko bertsoak zituan, ta ez nolanaikoak. Aren euskera utsezko bertsoekin, liburu mardul bat osa diteke.

Bañan nola dakigu *Mendaro Txirristaka* onek mutil koxkorretan Urruzunori meza laguntzen zionik? Berak kanta-paper batean ala diolako. Lenengo, erderaz:

*Yo cacé un gavilán
cuando era monaguillo;
me decía el capellán:
"Eusebio, tú eres un pillo!"*

Ta urrena, euskeraz, argibide polit au ematen digu:

Ura zan Pedro Miguel
Urruzuno jauna,
bertsuetan sermoia
egiten zuana.

Kontu polita au ere, Zeñek usteko zuan orrenbesteraño zanikan? Apaizak bertsotan sermoia, ta, azkenerako, meza-laguntzalea ere bertsolari biurtu... Datorren urtean betetzen dira eun urte, *Mendaro Txirristaka* au jaio zanetik.

Eskerrak

Bukatu baño len, bi izen aitatu nai nituzke, ain merezia duten esker ona gugandik izan dezaten.

Urtetan eta ixil-ixilik, bi lagun oiek lan aundia, lan gaitza, egin zuten, Urruzunoren idazkiak andik eta emendik biltzen; biltzen ez-ezik, makinaz kopiatzen ere bai. Ta ala, gaur emen bildurik bagaude, gaur Urruzunori omenaldirik egin bazaio, bi lagun oiei zor zaie geien-bat.

Oietako bat emen degu: Jose Maria Etxaniz Urruzuno jauna, Urruzunoren illoba. Besteak atsegiñik aundiena izango zuan gaur emen egoteaz, bañan mundu ontatik joana degu: Antonio Arrillaga jauna.

Beraz, nere itzaldi au bukatzeko, jaun oientzat txaloaldi bero bat eskatuko nuke.

PEDRO MIGEL URRUZUNOREN OROITZA*Julene Azpeitia*

Don Pedro Migel Urruzuno jaunari, nere aitak zion zor bat ordaindu nai nuke gaur.

Nere aita, Marcos Azpeitia, zumayarra, karlistak egin zuten bigarren gerratean, soldau ibillia zan, 18 urtetik 22 garreneraiño, baiña ez iñungo legeak arrapatu zutelako, bere gogoz jua da baizik, orduko bertso-berri, bertso-paper edo “bolandera” batzuentan kantatzen zuten bezela:

Boluntariamente
artu nuen arma
negarrez utzirikan
aita eta ama.

Lenengotik, SantaKutz abadeakiñ mendian ibilli zan, beste amar mutillekiñ, arma gabe, gorosti makilla aundi bana besoan zutela, arik eta fusillak ekarri zituzten arte.

Lenengo izan zituzten fusillak “azpeitiana” izena zutenak, zazpi kilo astunean. Geroago, “manchester” edo orrelako izendunak, Ingalaterratik ekarriak. Orduantxe bai pozik SantaKutz abadearen mutillak!!!

Gure aitak ezan oi zuan: “A!, fusillak gizonari indar aundia ematen dio. Guk, Mantxester fusill bana artu genduanean, Madrilleraiño juteko bildurrik ez gendun, SantaKutz abadeakiñ”.

Endarlatza'n karabiñeruak afusillatu zituztenean, an zan gure aita, “partidako” beste mutill danekiñ. Euren izenak ondo zekizkian, eta nungoak ziran: bat Ernani'koa, beste bat Abaltzizketa'koa, eta abar. Zertzelada aueek, ondo jakiñ bear nituzke nik, ainbeste bider, gaztetxoa nintzanean aitari entzundako gauzak diralako.

Gauza auek esaten asiten zan guztian, esan oi zuan: “bart arratseko aparria baiño obetoago oroitzen naiz ba ni, egun artako gorabeera guziekiñ”.

Gero, SantaKutz abadeak iges egiñ bear izan zuanean, nere aitak (beste batzuekiñ) lagundu zion Donibane Loitzuneraño, eta ango kaian, negarra begian zuala betiko agurtu.

Zortzigarren batalloian sartu zituzten SantaKutz'ekin ibilli ziran mutillak, nere aita ere bai. “Eta Durangoko Andra Mari eleizpean 8 garren batalloi berriak formatu eta eleizpeari bira osoa eman ziola esatean: “ayek mutillak, danak euskaldunak, sasoirik onenean Somorrostro'n ill- ziran geyenak. Gutxi gel-ditu giñan bizirik”.

Baiña goazen, Don Pedro Migel apaiza jaunari, nere aitak zergaitik zion, nik gaur ordaindu nai dudan zorra esatera.

Nere aita zauritua izan zan, ez dakit Oyartzun'en edo Ernani'n, eta Loyola'ko Gaxotegira eraman zuten. Bala bi zituan aldian, bat, ezkerreko besotik sartu, eta bizkarretik ertena, ta bestea barruan gelditua. Garai artan, zaurituak sendatzeko ziran erremendioakaz / cerato simple eta cerato compuesto / ikusia dago, alegiñak egiñarren, nere aitari barruan gelditu zitza-yola bala.

Denbora luzean egon bear izan zuan Loyola'ko Gaxotegian. Eta orra nun ezagutu zuan Don Pedro Migel, gure aitak, ainbeste maite izan zuan abade ona.

Don Pedro Migel jauna, egunero juaten zitzayon ikustaldia egitera, eta alkar izketan egon oi ziran, nere aita oean etzanda eta Don Pedro Migel jarlekuan exerita, patxadaz.

Egun batez geldetu zion: Aizak, Zumaya, eskolan asko ibilia al aiz?

Eta nere aitak: Ez jauna. Lenengo Jaunartzea egiñ arte-raiño bakarrik, eta orduan ere ez egunero. Egunero itxasora, 10 urte nituanetik; eta itxasora erten eziñ zanean, eskolara. Amabi urterekiñ egiñ nuan Jaunartzea, eta geyago, agur eskola! Itxasora beti. Amar urte nituala, Kontzesio egun baten (abenduaaren 8 an) bi orduan egona naiz ni Gijon'go barran uretan, ez ittoko, bai ittoko, itxasontzia galduta.

Don Pedro Migelek: Gizajoa! Ez uan ba gogo aundirik izango, berriz itxasora juateko?

Baiña, biziko bagiña, juan egiñ bear, jauna.

Beste egun batean esan zion:

I, Zumaya: Ik eskolan ikasi bear euke. Neuk erakutsiko diat.

Eta nere aitak: Ay, jauna!, edade txarra daukat nik, eskolan ikasteko.

Urruzunok: Onena, mutill, onena. Gainera, pozarren neuk erakutsiko diat.

Eta ala, irakurtzen zekian ezkeru, idazten beriala ikasi zuan nere aitak. Ikasiago ta pozago, baita ere ikasi zituan Aritmetika deritzayon gayan ikasten diran gauza errazak; zenbakiak erderaz idazten eta esaten; asmaketa errazak egiten eta abar.

Ekarri zion "AÑO CRISTIANO" izendun liburu bat, ba-karrik gelditzen zanean, irakurri zezala esanez, goizean ordu betean, eta arratsaldean beste ordu batean, egunero papertxo bat utziaz, noraiño eldu zen jakiteko.

Sor Sotera izena zuan moja batek, esaten zion ordua noiz betetzen zan.

"AÑO CRISTIANO" dana irakurri zuanerako erderaz "derrotian" irakurtzen bai omen zekian.

Gero ekarri zion, itxasgizonak euskeraz erabiltzen dituzten itzekin, euskeraz eta erderaz egindako iztegi lerro luze bat.

Adibidez:

Illargi betea = Plenilunio

Illargi berria = Novilunio

Illgora = Cuarto creciente

Illbera = Cuarto menguante

Itxasgora = Pleamar

Itxasbera = Bajamar

Ipar aize = Viento Norte

Ego aize = Viento Sur

eta abar, eta abar. Bai nere aitak buruz ondo ikasi ere.

Jesukristok bere Berri Onean, esandako: “Ez dakienari erakustea”, ondo baiño obeto bete zuan Don Pedro Migel’ek nere aita zanakiñ. Augatik nai det nik zorra ordaindu.

Loyola’n luzaroan egonda erten zan nera aita, bigarren bala berekiñ zualarik (andik urtietara, ezkondata gero, berez berez erten zion).

Gerratea amaitu zen. Bizirik gelditu ziran mutillak, geyenak Amerikara jo zuten, gure Lege Zarrak kendu zituztelako, Euskal Erritik igesi. Ze burubide oker eta negargarria!!! Euskal Erria gazteri gabe gelditu zan, eta Ego- Amerika izan da euskal abendaren illerria, “El gran cementerio de la raza”, idazle aundi batek esan zuan bezela.

Gerrate bat amaitzen danean, gizonezkoen utsunea agertzen da, ta Gipuzkoan ere ala gertatu zan.

Donostia’ko Komandancia de Marina’n azterketak egiten zirala jakiñ zan Zumaya’n eta ondo ertetzen zuten itxas gizonnei, erdaraz “de cabotaje” esaten zayen itxasontzietan, agintzeko baimena ematen ziotela”. “Marinero patrón” tituluz.

Nere aita juan zan Donostia’ra, Komandancia de Marina-n egiñ zuan azterketa, eta bere titulua patrikan ekarri zuan.

Nere aitaren adiñeko gizonik ez zan Zumaya-n Donostiako Komandancia-n titulua ateratakorik.

Ordutik itxasoan ibilli zan beti, itxasontziko agintari. Ezkondu zan eta ni txikia nintzalarik, ekaitz gaizto bategaz izterra autsi zuan itxasoan. Elgoibarko Don Pedro Arrillaga senlagille ospetsuak sendatu zuan.

Ba zekian nere aitak, Don Pedro Migel, Mendaroko mojen xapillau zala, eta idatzi zion. Baita Don Pedro Migel etorri ere. Zer poza artuko zuan nere aitak! Geroztik ez zuan Don Pedro Migel ikusi. Sendatu zanean, berriz ere itxasora juan zan, len baiño ontzi aundiagoan, eta Lisboan arribadan zegoala, izan gendun Zumayan, Don Pedro Migel Urruzuno zanaren ill-berria.

Nere aita etxeratu zanean eta eriotzaren berri jakin, esan zion amari: Pena dut etxean ez gertatua, etxean izan banintz, juango nintzan ba bere elizkizunetara. Ori baiño geiago zor nion nik abade on ari". Eta begietatik malko bik erten zien. "Zeruna izan dedilla, eta an alkar ikusteko izan gaitzela", esan zion amak.

Don Pedro Migel Urruzuno jaunari, nere aitak zion zor bat ordaitzearren etorri naiz gaur gorazarrezko batzar onetara. Ordaindu ote diot?

* * * * *

Donostia, 73-II-23

EUSKAL-ADITZEKO HIRU -KE ATZIZKIAK

P. Lafitte

Euskal aditzean iduriz hirur *-ke* atzizki aurkitzen ditugu:

— lehena, izen-ordedun formetan, hala nola: *duke, zu-keen, luke, buke* hitzetan;

— bigarrena, aditz-izenari lotzen zaiena, hala nola: *egiteke, beldurtzeke* hitzetan;

— hirugarrena, *adituketu, janketu* bezalako aditz koropilatsu bakar batzuetan.

Askori galde bat heldu zaio gogorat: ea hirur *-ke* horiek egiazki hirur direnetz, ala ez ditugunetz batetarat jo behar. Bertzela erran dezadan: ea hirur iturburutarik heldu diren, ala bakar batetarik; eta, azken kasu huntan, zointarik.

—oOo—

Itxuren arabera, *egiteke* eta *beldurtzeke* bezalako formak dira ulert-errexenak.

Xuberon, Baxenabarren eta Lapurdin ez ditugu behin ere erabiltzen; heien orde *egin gabe* eta *beldurtu gabe* bezalako erran-bideak derabiltzagu.

Egite-ren orde *egin* ezartzea eta *beldurtze*-ren orde *bel-durtu*, gauza guti da. Jakin behar *-ke* eta *gabe* ez diren funtse-rat-eta hitz ber-bera, bata bertzearen laburpena izanez.

Hain xuxen, Lapurdin berean ohart gaitezke *gabe* hitza-ren lehen izkia (g) gogortua dela *dohakabe* bezalako hitz ba-zuetan, eta beraz haren lehen forma *kabe* zitakela.

Bertzalde, nahiz bi hitzetan eta borts silabetan idazten dugun *dударик gabe*, gehienek hiru silabetan ahoskatzen dugu, erranez batzuek *duaika*, bertzek *duaike*. Horra bada *kabe ka* edo *ke* bilakatua, lehenago *ahalkabe*, *ahalke* bilakatu zen be-zala.

Iduriz *kabe*-k eman ditu fonetikaz *kae*, *kai*, *kei*, *ke* edo *ka* atzizkiak, eta *gabe*-k: *gae*, *gai*, *gei*, *ge* edo *ga* (1).

Kae kai bilakatzea edo *gae gai* bilakatzea ez da mirakulu: Lapurtarren *bahea* ez dea *baia* deitzen mugaz bertze aldean?

Aldiz *kai kei* eta *ke* bilakatzeak ez gaitu ere harritzen, *bait* ikusten dugularik *beit* eta *bet* bilakatua. Berdin ginioke *gai*, *gei*, *ge* hitzez.

Itxuren arabera, *egiteke* hitzeko *-ke* hori ez da beraz *kabe*-ren laburpen bat baizik.

—oOo—

Orai dugun ikus *-ke* hori bera kausitzen den *duke*, *zukeen*, *luke*, *buke* bezalako formetan!

Hasteko, fonetikaz iduri du baietz. Ezen, Axular-ek ha-meka formetan *kai* derabilia *ke*-ren orde eta 19 formetan *kei* (2): *kei* gisa berean zerabilaten Pouvreau-k, Oyhenart-ek, Haraneder-ek eta bertze askok.

(1) Ikus Azkueren Iztegia, I, 312 (-ga), 458 (--ka, -ga), 460 (*kai*, *gai*); bai eta L. Michelena, FHV, 254, 412 (*gabe*, *bage*, *baga*, *ga*, *ka*, *ge*, *ke*), 91 (*gai*, *gei*).

(2) Ikus Fontes III, n.º 8. Gabriel Aresti. *Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra "Gero"*, pp. 197 -220. O edo e-ren aintzinean kausitzen dira *kai* eta *kei* horiek: *zeneraukaio*, *zeneraukaie*, *lekidikeio*, *nituzkeien*. — Ikus halaber Ithurry, Grammaire basque, n.º 143.

Bainan semantikak laguntzen ote gaitu bide hortan?

Lehen so aldian ez da biziki ageri.

Eman dezagun *datorke*. Hitz horrek noiz nolako ikurrak baditu:

- Pello badatorke, badu aski indar etortzeko;
- Pello badatorke, aitaren baimena ardietsi du;
- Pello badatorke, hala dirudi, hala diote;
- Pello badatorke, hots, etorriko da.

Marka dezazke beraz ahala, baimena, iduripena eta geroa. Lau erran-nahi horietarik batto badea hirur bertzeri nausitzen zaienik?

Hainitzek, Azkuek bezala, badaukate *-ke* horrek ahala duela behin-behinenik adi-arazten eta gaineratiko ikurrak horri datxizkola. Egia erran, baimena bederen ez da esku-bidezko ahal bat baizik, bertzen ganik ukana, eta iduripena kanore hutssezko ahal bat. Azkuek miresten zuen, anglesak, “joanen naiz” adi-arazteko, *I will go*, “joan nahi dut” baitio, guk eskuaraz umilkiago “noake” diogularik, erran nahi baita “joaiten ahal naiz”. (Hitztegia I, 478).

Txillardegik aldiz uste du *ke* horrek *geroa* duela lehen-lehenik aditzerat emaiten, eta ikur hortarik jalgitzen direla bertzeak. Funtsean badakigu gero edo futurotik atera ditazkela erran-nahi berezi asko; huna zonbait adibide, nihauren gramatikatik aldatuak:

- agindua: ebatsiko ez duzu;
- ohidura: goxoki bizi da: zortzi orenetan jeikiko da, gosalduko, egunkaria irakurriko...
- ustekeria: etorri ez denaz geroz, gaxo izango da;
- ahala: eginen ditudanak egin ditut;
- damua: hainbertze uso izaki eta armarik ez izanen!

Zer nahi den, ikur horien guzien arteko ahaidegoaz, iker dezagun nola *gabe* baitan aurkitu ahal izan duten beren iturburua.

Gabe-k berenaz eskasa, hutsa, eza markatzen du. “Irinik gabe, ogirik ez” diotalarik, erran nahi dut: “iririk ez, ogirik ez”.

Bainan *gabe*-k badu bertze enplegurik. “Negua gabe xerria hil dugu” erraiten badut, ez dut negua osoki ukatzen; diot bakarrik xerri-hiltzea neguari aintzindu zaiola, lehendu zaiola, negurako bidean uzten gintularik.

Ezkongai hitzak, hain xuxen, bi balio horiek baditu, eta hirugarren bat gainerat. Alabainan ezkongai erraiten zaio: ala ezkontzerat doanari, izan dadien gizongai ala emaztegai, frantsesez “futur” erraiten baitiogu; ala ezkontzeko on denari, frantsesez “mariable”.

Berdin egin bide da *datorke* bilakatu den *datorkai* delakoa, erraiteko *dator*-futuro edo *dator*-garri, geroa edo ahala markatzen duelarik.

Xuberon bertzalde *gei*-ek nahia ere marka dezake: guk “joan gogo dut” erraiten dugularik, Xuberotarrek “jun gei dit” diote: eta alde hortarik *noake* ez ote da anglesen “I will go” delakoaren auzo hurbil?

Uste dut badudala *-ke* hortaz aski erranik. Barkatu argi baino ke gehiago bota balinbadautzuet.



Gelditzen zait hirugarren pondu bat argitzeko.

Sarako Pedro Garmendia zenaren nota batzuetan irakurtu dut bazela Etxalarren Arburua deitu apez bat, sortzez kostatarra. Apez horrek bazerabiltzan aditz-forma berezi batzu, nik behin ere entzun ez ditudanak.

Huna Garmendiak altxatu dituenak:

- adituketzen zaitut;
- eleizan goizik arkituketzen naiz;
- eztituzula angulak maite? Itz dizut janaren janaz janke-tuko dituzula!
- emengo euskera erabilliketu det.

Itxuren arabera, *ke* horrek ohidura markatzen du. Orroit gaiten gorago erran dugunaz: eskuarazko geroak, Lapurdin berderen, ohidura adi-araz dezake. Nork daki *ke* futuroaren kutsua ez ote duen hartu forma bitxi horrek?

Hola balitz, hirur *ke* atzizkien batasuna argitua lizateke.

* * * * *

Donostia, 73-III-30

LAU ERROMANTZE

Victoriano Gandiaga

ERROMANTZE ala BALADA?

BALADA latin-gaiztoko *ballare* hitzetik dator. Hasieran dantzari laguntzeko poema dramatikuei zeritzaien hala. Noiz-baitzuetan erromantiku edo sentimental aideko kantu xoilei ere balada deitu izan zaie. Baina, batez ere, historia edo lejenda bat aipatzen duten poema narratibu, bizi eta xumeei dagokie balada izena. Bihotzak ditu jo-muga: Maitasuna, gorrotoa, errukia, bil-durra-eta nahi ditu sor-arazi entzuleen bihotzetan. Persona letragabeak letragabeentzako sortuak dire eta gizaldiz gizaldi ahoz-aho eman eta atzemanak. Geuk ezagutzen ditugu poema herri-koi narraziodunez dantzari kantuz laguntzen zien personak: Panderu-jotzaileak.

Españan, balada literatur jeneroaren jenioak, ERROMANTZEAN du ispilurik ederrena.

ERROMANTZEA. Españan, balada narratibuari erromantzea deritzaio. Maitasun, misterio edo abentura narrazioak dira. Erromantze bakoitzak bere melodia edo doinua du. Herri musikaren benetako bitxi dire melodia hauek. Erromantzea ez da kontatua beraz, kantatua baizik. Doinuaren laguntzaz errezago ikasten da eta nekezago ahazten. Aldi eta toki bakoitzetako gus-to, gogo eta egokierak egindako aldaketak izan oi ditu erromantzeak, izen bereizi berak ere aldatzerainokoak.

Erromantze, balada ala kantu lirikuak soilki? Nolabait deitu behar nien bai, eta erromantze izenpean azalduko ditut 1967-1968 urteetan Araotz Oñatiko auzoan bildu nituen melodiadun 4 poema ok. ARANZAZU aldizkarian argitaratuak dira.

“Neska soldatu” eta “Soldadu sartu nintzan” Aita Villasantek iruzkindu zituen.

Erromantze edo diralako 4-rok eskeintzen dizkiot gaur ondoen aztertu ditzakean Manuel Lekuona jaun argiari.

1. NESKIA SOLDAU

Jose Maria Satrustegui jaun azkarrak “Boletín de Amigos del País” deritzaion aldizkarian, “versión vasca de la doncella guerrera” deitzen duen erromantzea eman zuen 1967 gn urtean. Satrustegui jaunarekin ez nekiala, urte hartan bertan bildu nuen nik *Neskia soldau* deritzaion hau. Gure herriak ere kantatu izan duen literatura unibersaleko gai baten testigutza damaigu. Satrustegui jaunak Nafarroako Urdiainen bildu zuen. Nik Araotzen, Leona Ugarterengandik. Amari entzuna zuela esan zidan. Haren seme-alabak ez bide zioten entzun arik eta neuri kantatu zidan arte. Neska soldau hau Giputza zela, dio kantuak. Monja Alferezarekin ba ote zerikusirik? Baina haura Katalina zen —dio A. Villasantek—, eta hau Agustina Antonia. Jesus izena izen arront bezela jokatua agerri da erromantza hontan. Bigarren ahapaldiko 3gn eta 4 gn bertsoetako

“Anjele Ondassetan
Buenos airasetan”,

Satrustegi jaunak bildutakoaren argitara hauxe da:

Anjelen onduan ta
Buenos Airesetan.

Neraut e-ma-kumia probintzi-a-ri-a le-tri-rik eskola-rik

bate-re gabi-a le-tri-rik eskola-rik bate-re gabi-a

- | | |
|--|--|
| 1. Neraut emakumia
probintziania
letrarik eskolarik (bis)
batere gabia (bis). | 4. Monja sartzera noia
komentu batera
Jesus-aren esposa (bis)
betiko izatera (bis). |
| 2. Rejimentu bi izan ditut
amar urte onetan
Anjele Ondasetan (bis)
Buenosairasetan (bis). | 5. Oraintxen da denbora
izena muratzeko
Agustina Antonia (bis)
naizela esateko (bis). |
| 3. Batetikan lau balazo
bestetik enfermo
Jaunaren abixuak (bis)
oiek dira klaro (bis). | 6. Ariot ama neuria
probintziania
ongi lastimatzen naiz (bis)
zu despeditzia (bis). |

2. NESKA SOLDADUARENA

ARANZAZU aldizkarian eta Urtarrileko alean azaldu zen aipatu dugun "Neska Soldau". Leona Ugartek emana ikusi ondoren, Arantzazuko Albitxurira ezkondu zen Maria Barrera Araozko alabak, haiek baino bertso gehiago eta beste boz batetan gogoratzen zituela esan zidan. 82 urteko Maria Barrera hau gogoramen handikoa da eta kantu zalea. Maria baino askoz zaharragoa den Jose Joakin Zumalde aitajaungandik jakin dut zera ere: Maria gazte zanean eta Ojala baserrian bizi zanean, "haitzeko eperra" deitzen ziotela Maria honi. Bertsoak atxintxika baten bota zizkidan, baina bozik etzidan berealakoan kizkurtu. "Lehenao ederki kantaitten neban nik hori, baina orain ezin dot ondo, eta kitto. Neure den-

poran kantaittia izan bazan, ederki kantauko neban, bai! Boza oso lastimosa dauka kantu honek". Azkenean, hala ere, askatu zuen eztarria eta horra bertso eta doinu.

(Oharra: Lastimoso hitza hirutan agertuko da. "Hitz horrek errukixa emuten daukala esan gura dau", esan zidan Maria Barrenak.)



- | | |
|---|--|
| 1. Gaztiak kantuan ta zarrak eragusian, ori da pasatzen dana bardin mundu guzian. | 6. Rejimentu bi izan ditut amar urte onetan Anjel de Ondasetan Buenas Airasetan. |
| 2. Etxetik urten neban Mariatzeko illian amasei urterekin, neure txoramenian. | 7. Nerau emakumia ofizialia letrarik eskolarik batere gabia. |
| 3. Soldadu sartu nintzan Agorraren bostian kabo ero sarjento izateko ustian. | 8. Agustin Antonio izan da neure izena. Ori aitu dezutenok ezta neure izena. |
| 4. Ni lako fortuna notu arrapatu? Amaika illabeteko sarjento nombratu. | 9. Oraintxe da denboria izena murtzeko, Agustina Antonia, naizela esateko. |
| 5. Urte bete baiño len nintzan teniente, rejimentutikan be nintzala ausente. | 10. Batetik lau balazo bestetik enfermo, Jaunaren abixuak oixek ditut klaro. |

- | | |
|--|---|
| 11. Moja sartzera noa
komentu batera
Jesus-aren esposa
betiko izatera. | 13. Adios, ama neuria
probintziania,
ongi lastimatzen naiz
zu despeditzia. |
| 12. Amar urtian errege
serbitu detalako
dotia gertu daukat
moja sartutzeko. | 14. Baiña oraindik ere
bizi naizen artian
gogoan izango zaitut
neure biotzian. |

3. SOLDADU SARTU NINTZAN

1967. Timotea Guridiri jaso nion. Maria Josefa Zumaldek lagundu zidan hemen ematen dudan bestetan osatzen. Bertso berriak ez dirana bistan dago. "Austriatarren garaia gogoratzen digula iduri du —dio Aita Villasantek—. Italian, Pais Bajuetan, Frantzian, Kataluñan, Portugalen eta abar, España gerratan odol-ustutzen ari zen garaia. Erregeren ejerzi-tua gizonex eta diruz agortua arkitzen zen hein haura. Etze-goex ez gizonik ez sostengurik "hainbat eginkizunetarako", Felipe IV garrenak Agredako Jesusen Maria beneragarriari behein eta berriz esaten zion bezala".

Errege hitza izen bereizi bezala jokatua ageri da.

Sol dodo sartu nintzan zortzi bat urte - Ko - E -



- errege serbi - duta txikitin parian pai-ña ai, libre i- za- te - Ko.

- | | |
|--|--|
| 1. Soldadu sartu nintzan
zortzi bat urteko,
Errege serbidu-ta,
txikitin parian paiña,
ai, libre izateko. | 2. Erregek ez dau biar
gizon ezkondu-rik
baizikan mutil libre
txikitin parian paiña
ai, libre libretxorik. |
|--|--|

- | | |
|--|---|
| <p>3. Mutillak biar eta
mutillik egon ez,
Errege sillan dago
txikitin parian paiña
ai, jarrita negarrez.</p> <p>4. Neskak ba-daude baiña
ez dute balio.
Erregeri begitik
txikitin parian paiña
ai, negarra darío.</p> <p>5. Bergaran nindoela
brigariarekin
enamoratu nintzan
txikitin parian paiña
ai, damatxo batekin.</p> | <p>6. Etxe zuriko dama
ikusten badezu
gorantziak eiola
txikitin parian paiña
ai, esango diozu.</p> <p>7. Nor eroi eman dizun
galdetzen badizu
Felis de Aranburu
txikitin parian paiña
ai, esango diozu.</p> <p>8. Felis de Aranburu
ain gizon trebia,
Bergaran billatu dau
txikitin parian paiña
ai, beretzat andria.</p> |
|--|---|

4. BERTSO LASTIMOSOAK

Migelentxikiñeko Marijoxepa Zumalde Araoztarrak kantu asko daki eta ongi kantatzen du. Hemen jarriko dudan hau ez omen da fraide bati kantaittekoa. Gogorreixa bide da. Gainera ahaztuta ere ba ei dauka ixa. Dena dela, tiraka-biraka atera ahal izan niona ifiniko dut. Eta zerbait gehiago: Marijoxepari jaso niona haren aizpa Maxima Txantonmalduenakoari kantatzen hasi nintzaion, ea harek nondik jotzen ote zuen. Maximak zenbait aldakuntzarekin kantatu zidan. Haren kantaera ere ifiniko dut. 1967-an jaso nuen kantu hau eta bertsoak ez ezik doinua ere oso lastimosoa zuela esan zidaten bai Marijoxepak eta bai Maximak.



Marijoxepak

Etorri nintzarian
Frantziako partetik
ama billatu neban
etxian bakarrik.
Bakar bakarrik eta
bai triste tristerik
silliaren espaldan
haiziak harturik.

Egun on Jainkuak dizula
ama ona neuria,
halan euki deizula,
bai, seme maitia.
Ezkondua ala ezkongei
zatoz ba semia?
Ezkonduta nator ba
bai, ama neuria.

Frantzesia ala espafiola
daukak ba andria?
Frantzesia daukot ba nik
bai, ama neuria.
Frantzesik etxuau biar
erranik etxian;
hona ekarri gabe
hil zazu bidian.

Maximak

kortetik
nuan

sillan jazarri ta

Gabon
daikala

ator

izak

MARIJOXEPAK:

Guaziok ba, guaziok,
guaziok anaia.
Hor billatuko xuau
ta hiltxeguk andria.
Egun on Jainkoak dizula,
andra ona neuria.
Halan euki daizula,
bai senar neuria.

Hamalau asto hor ditut
urrez kargaturik,
haiek emungo dizut,
utziazu bizirik.
Haiek neuriak dira
zuk emun gaberik.
Hemen hil biarko dezu
dudarik gaberik.

MAXIMAK:

Guaziok ba, guaziok
anaia neuria,
birian billauko xuau
andria neuria.
Andria, nora zuaz
zaldi horren gaiñian?
Hemen hil biar dezu
dudarik gabia.

Andria, jetxi zaitex
zaldi horren gaiñetik:
hemen hil biar dezu
dudarik gaberik.
Hiru saiñeko hor ditut
urrez bordaturik,
haiek emungo dizut
utziazu bizirik.

Haiek neuriak dira
 zuk emun gaberik,
 hemen hil biar dezu
 dudarik gaberik.
 Hiru anaitxo ditut
 soldadu juanik,
 harek hemen baneuko
 ez neuke bildurrik.

Utziok ba, utziok,
 utziok anaia,
 etzaiz errukitutzen
 holan ikustia?
 Lenago esan biar eban
 esan duan berbia,
 onezkero emun xat
 lenengo golpia.

Utziok ba, utziok,
 anaia neuria.
 Pena emuten xotak
 holan ikustia.
 Lenago esan biar ebian
 esan duan berbia,
 onezkero hartu xok
 erida golpia.

Horra dena: Araotzen bildu nituen kantuetatik 4 hauek poesia mota batetakoak direla iruditzen zait. Bertso berri, erro-merikanta eta abarregandik diferenteak eta gutxiagotan entzuten dugun jenero batekoak. Niretzat balada edo erromantze aidea dute. Eta zuentzat? Manuel Lekunona jaunaren iritzia jakitea gustatuko litzaidake.

EUSKALDUNEK ZER BEGIZ DITUZTEN ABEREAK IKUSTEN

Pierre Larzabal

Jendaia bakotxak baditu bere ikusmen bereziak abereri buruz. Indietan, behiak sakratuak dira. Musulmanentzat, zerria da madarikatua. Afrikako batzuek dituzte sugeak etxekotzen.

Euskaldunak ere, bere eran ditu abereak nabaitzen eta pre-
 zitzen.

Bizi emaileari agur

Gure baserritarrak gorai patzen ditu orots eta arrak (zezen, ahari, oilar eta bertze). Laket zaizkio abere horien edertasun eta indarra. Errespetatzen ditu urrix eta emeak. Haukien pollitasun eta emaitzak ohoratzen.

Bainan gutiesten eta erdeinatzen ditu berez antzu direnak edo gizonaren eskuz antzutuak: "Idi", "zikiro" eta "mando" hitzak dira gizon batentzat, burla gaxtozkoak.

Nere ustez, garaiz, biziaren beharra zen gaur baino geiago nabaitzen, familia bakotxak kasik deus erosi gabe, behar baitzuen bizitzekoa bildu eta zaindu. Hortarik datorke, ordu hetan, bizi berri emaileak hartze zuen goresmena.

Abere sakratuak

Gure eskualdean, gaur oraino, badira abere batzu hil-behar ez direnak, errana baita heien hiltzeak zori-txarra ekartzen duela. Horietarik hiru bereziki ezagutuak dira: Ainhara, Jainko-txakurra eta Kattalin-gorria.

Leku batzuentan, gatu bat hiltzeak ere ondorio gaxtoak dakarzukiela diote.

Nik uste, sineskeria horiek badukete zer ikusirik, kristau-aro aintzineko sinismenekin.

Eskualdun eta Frantximentek desberdin ikusten

Eskualdun ala Frantximentek, ikusbide bertsuak dauzkate hainitz aberen on-gaitzez... Adibidez, erran-merran bertsuak datorzkiote ahorat, asto, lehoin, zinaurri edo bildotsen jiteak jujatzen dituztelarik.

Bainan halere, abere zonbaitez, bi alderditarat dira mintzo: *Behia* deitzen da frantsesez norbait gaxto (Quelle .vache!). Eskuaraz, behiak ez du entzuten holako ahopaldirik.

Zakurra

Gizon maltzurarentzat guk diogu: Zer gizon zakurra! Eta “zakurra” deitzen dugu, norbaiti itsutuki jarraikitzen dena, bere nortasunari osoki uko eginik ... Holako errankizunik ez da frantsesez.

Zikiroa

Eskuaraz “zer zikiroa!” erraiten da astoa baino astoago den gizonarentzat. Holako esaerik ez da frantsesez.

Mando orotsa

“Zer mando orotsa emazte hori!”. Frantsesez holakorik ez da erraiten ... Izanik ere “Quelle jument, cette femme-à...”

Ziminoia

Mozkor batentzat erraiten da “ziminoan da”. Erran hurenk ez du itzulpenik frantseserat.

Biligarroa

Norbaitasun okerraren jabe denari deritzaio: “Zer biligarroa!”. Frantsesez ez da holakorik.

Izen-goiti gaiak

Euskal-Herrian eta guziz baserrietan, hainitz jendek badituzte abere izenak, izen-goitizat. Askotan izen-goiti horiek, burasotarik haurren ganat jausten dira.

Norbaiti, abere baten izena ematen diote, abere harekin zerbait antza duelakotz, jitez, gorputzez, jokabidez edo bertze edozoin moldez. Emaztek, gizonek baino izen-goiti gutiago ukaiten dute. Ez ote amatasunari ekarria zaion errespetuaren gatik, edo ere, emaztea gizartetik, gizona baino baztertuago bizi zelakotz.

Dena den, gaur oraino, gure baserritan, ehunka entzun ditazken izen-goitiak dira: Untza, pika, amia-moko, liztafin, buzoka, zizari, basurdea, gatua, sagu, sugea eta holako.

Itsas-gizonak ere baitira aberez eta aberekin bizi, ekarriak dira elgarri ur-aberen izen-goitien emaiterat. Gure arrantzarietan nork ez ditu ezagutzen: zapolarrua, korrokona, mazupla, zardin eta holako.

Gaurko egunean, aberekilako zibilizamendu herrikoi hori galtzen ari da. Tresnatzea, hiritartzea, orokilatzea direla-ta, egoera nortasun-gabeko batean sartzen ari gira.

Funts-gabeko izen-goitiak

Eskuaraz badira asko erran-merran, funts-gabeak, beharrik helburu, ahozkatzean botatzen duten soinuaren gatik. Adibidez:

Lau, lau, lau,
zardin eta bakallau.

Halaber, abere batzuen izenak baitira bi erran-naikoak edo bitziak edo ... gordinak, berez eta beren soinu bakarraz dira iren-goiti. Huna etsenplu batzu: Gizon kakamerlua! Gizon arkulua! Gizon artxipotea! Kaikuburua! Zozo kumea!...

Bururatzeko, gure iduripena da aberekin bizitzeak, gizonari asko erakaspén gogoetagarri ekartzen diola.

Gure beldurra da, gaurko gizona, aberetarik baztertuz, ez ote den abereago bilakatuko.

* * * * *

Gasteiz, 73-IV-27

**JOAN BAPTISTA GAMIZ RUIZ DE OTEO
XVIII MENDEKO ARABAR EUSKAL OLERKARIA**

1696-1773

J. Goikoetxea-Maiza

ESATEKOEN IZENBURUAK:

Ixtorio mixterio.

Sabando. Aurtzaro-gaztaroak. Euskera. Kanpo-aldi. Jesuita-naian. Arabatik Iruñara, Gatzela eta Galizian zear.

Iruñan diruzai.

Zer gizamodu zen: a) gorputzez; b) izpirituz.

Buru-lantzen. Zer irakurri zuen.

Bertsoginean.

Ideiak eta jokaerak.

Itza, dabilena.

Kirats eta... usaigozo ere.

Gamiz, emakume anitz!

Gatzelaniatik Euskararuntz.

Eusko Folk-lore bilketan aitzindari?

Euskara baitan noibait ere.

Euskaldunen gauzaeza **EDER**-erako.

Zenbat idatzi zuen euskaraz.

Liburu eta esku-izkribuen baikuntza.

Erasoak erbestera.

Eriotza eta il-ondoko gorazarrea.

Ixtorio mixterio

Bere Olerkientzat isila eskatu zuen Gamizek izan du isil ortatik aski, nor zen eta zer egin zuen argitu-joranetan baigabilta bi mende geroago ere.

Isil eta are. Aren eskuizkribuak aurkituta gero ere lanak izan bai-dira aita nor zuten garbitzen. Lo zegoen oetik beingo beingoan erbestera aizatua, bere idaztiak eskutik galdu zituen, izan ere, zoriaren arabera utzirik.

Zergatik ez ziren paperok beste bere lagunekin Estadua-ren liburutegietan baituak izan (1), edo non lo egin duten arrez-

(1) Guglieri Navarro, Araceli: Documentos de la Compañía de Jesús en el Archivo Histórico Nacional. Introducción de Francisco Mateos, S. J. Razón y Fe (Madrid 1967). Oarra "Introducción"-i dagokio: "El secuestro de papeles jesuíticos en el s. XVIII, su concentración en Madrid, vicisitudes y estado actual", Vidik aurrera.

kero, edo, ezik, nondik nora diren ibiliak eta nola jo duten Loyolako artxibura, auskalo.

Dakigularik, Aita Jose Inazio Arana (1838-1896) izan zen izkribuok aurkitutako aurrena. Gamizenak zirenik, ordea, ez zen jabetu; bilbilitar José Butrón Mújica-renak uste izan zituen, ostera; eta uste oker ortatik idazle berri bat asmatu zingun, bertan-bera XVIII mendeko euskal-idazle zerrendan aragoitarra sartu eta zegokion eskubidea arabarrari ukatuaz (2).

Ez zen, ordea, utsean jausi Arana oker ortan. Izan zituen irizpidea labaindu ta txirristarazteko laineko zerak: bestea beste, poesi-liburu beraren izenburua aurrenik, pergamin-azalean tinta beltzeko izki andietan nabarmen ezarria: *Versos varios del P. Butrón*, alegia.

Ala ta guztiz ere, edozein argitaratzaileari oroz gain eska dakiokena, liburu irakurri, Aranak ez zuen egin, arretaz beinik bein. Ala egin izatera Gamizek berak emango zion bere berri, izena ainbat olerkiren buru edo buztan argi eta garbia ezarria denez. Ortara gabe ere, noiz zen ila Butrón, noiz idazten estreinatua Gamiz, begiratzea aski zukeen, zen txoriaren lumaz ez zena ez jazteko.

Susmorik artzeke igaro zen paper auen albotik Pérez Goyena bera ere, Loyolako artxibua arakatu zuenean.

Jesuitak erbesteratuta erregearen aginduz gelaz gela egin-dako liburu-miraketan, Gamizenean aurkituak izan ziren esku-izkribuak aurkibide batean izendatuak daudela dio Goyenak: 208 liburu eta 36 paper-sorta. Esku-izkribu oietarik zen emen nagokion olerki-liburu au. Baitura artatik nola ies egin zuen ezin jakin.

Dena dela, artxibu au arakatzean ez zuen Goyenak Gamizen liburutzat ezagutu. Poetatzat aitatzen baldin badu, ez da liburu au irakurri diolako, baitutako esku-izkribuen zerrendan ageri delako baizik, nik uste. Onela dio Goyenak: "Era el Her-

(2) Henao. Gabriel: *Averiguaciones Cantábricas* (Tolosa 1895). t. VI. Apéndice VI: *Reseña Histórica de la literatura cántabra o vascongada*, núm. 47, Siglo diez y ocho, pág. 92: "...el P. Joseph Antonio de Butrón y Mújica jesuita alabes". Eskerrak Lino Akesolo-ri adiarazpen onen-gatik.

mano Procurador del Colegio, hombre muy avisado que tenía su vena de poeta” (3).

Ixtorio-mixterio ontan liburu-jabea nor zen Loyolako artxibu-zai bat KONTURATU zen lehenengo. Liburu-azalari barrukaldetik erantsita, orritxo batean utzi zuen bere aurkipe-naren berri: “Estos versos no son del P. Butrón... Son del H. Juan Bta. Gamiz, que fue muchos años procurador del Colegio de Pamplona y de quien hay muchas cartas en el archivo de Loyola”.

Zerbait geroago, 1923ko irailean Doneztebe-n ospatu-bigarrren Euskalegunetako itzaldietan, A. Joakin Azpiazu izan zen, noizbait ere, egilearen egiazko izena ARGITARA EMAN zue-na. Ez zuen ala ere arabar poetaren isil-adurra zearo sutsitu; ain urriak eta murriak izan ziren jalgi zituen berriak, erdi-argitan utzi zuen Gamizen antz-irudia. Aski izan ziren berriok, alere, Onaindia, Mitxelena, Baztarrika, Berriotxo (eta agian besteren batek ere), Butrón erautzita, arabarra bere bertsoen jabe eman zezaten.

Azpiazuz gero, ta ark dion *paper zarrak* Loyolako liburu-tegian aurkituta, neu izan nintzan 1968ko EGAN-en Gamiz areago argitu nuena. Areago argitu, bainan guztiz ez; onela amaitu bai-nuen: “Oraingoz bego ontan nere lantxo au, Gamiz ilda berreun urte betetzean, argitasun osoagoak eman-zai”.

Urte-muga ortara elduak garenez, ondoko lerro auek nai lukete agindutako “lan osoago” orren biribilgarri izan. Areago, ogei ta amasei paper-sortataraino badituela Gamiz joriak Archivo Histórico Nacionalean jasoak ba dakit. Oiek ikus gogo dut; etsita bainan, ez dudala oietan euskarazkorik deus aurkituko; eta, orobat, lerro auek izango ditugula Gamizi buruzko azken-argitasunak.

Nolanai ere, kosta zaio Arabari bere semea aurkitu ta argitzea. Ez dio beingoan “nerea” deitu ahal izan.

(3) La Avalancha (revista). Pamplona, 8-II-1929.

Euskaldunongan “banatua”, alabainan, Gamiz au. Araban sortua arren, nafarra da letraz, bizkaitarra izkeltz, giputza testamentuz: euskal batasun-giroak zekarren fruitu zabal antzo, “Irurak Bat” ikurrez argitzeaz zegoen egun sentian.

*Sabando. Aurtzaro-gaztaroak. Euskara. Kanpo aldi.
Jesuita naian*

Gasteiz-ti Lizarra-runtz Maestu-n ezkerrera artuta, baso-aldapetan zearka-mearka amarbat kilometro eginik jotzen da Sabando. Arkaitz-bizkarrek inguratua, basa-txoko batean etzina, Orixe-ren Uitzik aina arexek bai “eper-kabi iduri”. Foru-diputazioaren esku manerrea salatzen du distiraka dagokion txukuntasunak. Beheraka doan errixka-merrixka, alere, Sabando. Iadaniko berrogei ta amar ta are familien aldean, egungo zortzi-bederatziek ileta trixtea jo arazten diote bertako jende larriari, duela berreun urte Gamiz poeta liluratuak egin erripintura bixi ta bitxiaren kontrapuntuz.

Egun alaiago aietako batean, 1696ko apirilaren 8an, jaio zen gure poeta.

“En la Yglesia Parrochial de la Villa de Sabando a los ocho días del mes de Abril de mil seiscientos, y noventa, y seis años. Yo Domingo de Goicoechea... baptice ha Juan Bapta. hijo legitimo de franco. de Gamiz, y de Angela Ruiz, Vezos. desta dicha V^a de Sabando”.

(Sabando. Bautismos. Libro 1.^o, 1601 a 1719, folio 63 v.).

Bere bigarren emazteagandik izan zuen Prantziskok Joan Batista, bosgarren era uzkur-ume. Beste bi zituen aurreko emazteagandik. Sabando bertakoak ziren ait-amak; ondoko Oteo-tik etorria aitona.

Jaiotetxearen aitamenik ez du Gamizek bere idaztietan.

Sabando goiko ALEGRIA etxea erakutsi didate erriko bi agure zaharrenek Gamiztarren bizileku ta gure idazlearen jaio-

tetxe (4). Ez dira, bainan, gamiztarrak egungo Alegria-ko biztanleak. 1886an jaiotako Pablo-kin galtzen da aien zuztarra Sabandon. Eginalak egin, ez dut nora aldatu ziren aztarnarik atera ahal izan.

Jaioterria, ostera, ogei ta bat amardun-etan kantatu zuen bizkor eta bero. Ez dezaiogula, gero, politta denik uka; bestela,

*no solo dire q miente
sino que es un majadero.*

Euskaraz mintzatu zen txikitan. "Agur, adiskidea", despeditzen da lagunagandi karta batean. Betikoa edo sarritakoa du AGUR ori eskutitzaren azken-itx. Euskal olerkari estreinatuz "euskal gaizto" aitortu bazitzaigun ere, jatorra ta betea derizkiot aren izkuntzari, Sabandon indarrean bizi zelazko aitor garbiz. Euren jatorrean damazkigu toki-izenak ere, izkuntza galdurik duten errietako izen-apurketarik gabe: "La fuente de Urasulo"z gainera,

*Sabando con sus Ayares
con Arboro, y bengo baso
Yguiuriaga, y goico baso
y otros montes singulares (5).*

Lana ta jolasa, izerdia ta atsegin garbiak izan zituela txikitako lagun, esan gabe doa. Aldiz eta tokiz urrun, poeta liluratuak antolatu zigun sorterriaren pinturan nekazal-bizitza uts utseko errixka zen Sabando, gaurkoa bera bezala; basoz eta alorrez, etxaberez eta pistiz, amuarraiz eta txori-eiziz joragoa baiñan. Kanpo-zabaltasunak eta ibil-aldiak, uretako busti-aldiak eta merienda ugariak ditu gogoan ondorengo urteetan ere. Udaberriko landare mardul, ala kozkortu ta indartu zen Joan Batizta gaztea, bere bizitzako azken-bururaino "vires robustae"kin ibiltzeko zegoena.

(4) Agureengandiko argitasunoi ez derizkie fidagarri direnik Angel Ibisate Lozares doktore jaunak: Gamiz asko zela Sabandon, aztarnarik uzteke erritik iadanik aldegina. Gamiz familiarekiko jakingarri batzu Ibisate jaunari zor dizkiot, esker onez.

(5) Descripción dela Muy Noble y Leal Villa de Sabando, 74 orr.

Izadiarekiko sentibera egin zuen inguruaren edertasunak sabandotar au. Sarri aldatuko ditu bere olerki-pentagramara kanpo-ederrak biotzondoan jo dizkion musika isilak.

Laino beltxaska bat pinta dezagun, ordea, poetaren zeru urdin onetan: bearra. Erriaz diarduela, onela aitortuko:

*lo que entre ellos es sensible
es q hay bastante pobreza
pension comun de nobleza...*

Urrutira gabe, etxaldekoiei lotua zuen bearraren itzal iguina. "Oficio, pastores, pobres", dio ozta ozta iloba bati buruz eliz-agiri batek.

Areago: teilatupean, berenen baitan zuen etxekotua. Bearrak aizatu zuen etxetik norabait, nora ez dakigula. Ba dugu ala baiezteko gauzarik. Lehenik: nobizio sartuta bereala, Coaña-ra bidalia izan zen, ikastetxeko sukaldari nagusi. Langintza aurrez ikasteke ez zaitkeen sukalburu ifinia izan; Villagarcía-aldian ez zuen astirik izan orrenbesterako, ta, Sabandon irtetzeke egotera, ez zukeen modurik sukalar-teaz jabetzeko. Bigarren: nobizio-sarrerako paperak letra garbi ta dotorez ditu firmatuak, eskolan berriki ta saiatuki jarduna denaren itxuraz. Letra eder ura ez da, egundaino, nekazalgo-artzaingoetan pul-soa galdu duenarena.

Uste dugu ordea, orduan eta oraindik orain arte ere oi zen bezala, gure ikastetxeren batean etxe-lanetarako artua izango zela. Morroi oieri beti ematen zitzaizen eskola, Anaia burujantzixegoren bat edo Aitaren bat irakasle zela. Euskalerriko gure ikastetxeetarik Bilbo-Iruñtakoak soilik izaten ziren mutil-bearretan.

Kanpotik ibilia zela bere gaztetan, ziurtzat jotzen dugu; Bilbo izan zela, edo Iruña, aren egonlekua, litekeelazko utsean laga bear da.

Nondi-naiti dela, Villagarcía de Campos-era (Valladolid) jo zuen, ogei urteak loretan, jesuita-naiaz.

Arabatik Iruñara, Gaztelan zear

1716ko apirilaren 21ean sartu zen bizitza berrian. Sendo artutako erabakiz sartu, ahapaldi bati sinistera (6). Sarberri, artarako nagusien azterketari izkribuz erantzun zion, aipatua dugun firma txukun ura aitorrari erantsiaz.

Ez zen euskotar bakarra Villagarcían. Ba zuen lagunik franko, urte berean sartutako Agustin Basterretxeaz gainera. Ez zuela, baizik, luzarokoa izan euskal lagunartea Gaztelan; esan bezala, ilabete gutxiren buruan Coruñara sukaldari bidalia izan bait-zen.

Bi urteen buruan zinitzak emanda, beste bost-bat-sei iraun zuen Galiziako uriburu artan. Areagoko doaiak, jabe zenez, erakutsi bait-zituen lanbide apal artan, Valladolid-ko San Inazio ikastetxera aldatu zuten, diru-kontu ta aministrazioan jantzi zedin.

Bere graduko Anaien taldean letragabea bera bakarra izaki, tupin eta eltzeetatik paper eta matematiketara aldatuan ez zuela naigabetu, nago. Etxe eta ikaskuntza berrian alegitar Bixente Arrue Anaia duke irakasle.

Pauso berdineko egunen joan-etorrian bat izan zuen Gamizek, Pisuerga-ko uriburu-aldian, gogoangarria: 1726ko Andre Mari abuztukoa. Azken zinitzak emanda, bere jesuita-ginean "ostrokoa" teiltuan ifintzea aina zen fest-eguneko ura, Prest dagoke arrezkero zernai-noranaitara bidal dezaten.

Iruñan diruzai

Tenore artan, ain zuen, bere ondasunek pot eginda, diruzai argi ta ausart baten premian aurkitzen zen Iruñako La Anunciada ikastetxea. Gamiz da zorren oldarrari aurre emateko autatua. Ala adierazten du 1728ko azaroaren 20an Iruñati Loyolan jasotako karta batek. Azaro-ondarrean edo abendua-

(6) "Dueño Divino / por mi destino / oy me resigno / con toda afición / pues q me inclino / a ser Theatino (jesuita) / sed mi padriño / en mi pretension", 9 orr.

ren lehenetan iruñaratu izango zen Gamiz, “mas que en breve” etortekoa dela bai-dio bost egun geroago beste eskutitz batek. Dena den, otsailaren lehenetati bere esku zeraman diru-kontua edo zor-aministrazioa, “Pamplona y febrero 5”koa bai-da Loyolan aurkitu diogun eskutizik zaharrena.

Ba du piska baterako. Berrogei ta bost urteko zama astuna bizkarrean. Zoriz, guretzat: lanaren astunak aki edo txintxinaren soinuak oki dezanean, olerkigintzara joko bai-du atsedan bila.

Bainan oraingoz ez dago poesiarako aren bizarra. Ito-larrian aurkitzen da, zazpi mila zilarrezko dukaten zorpean. Edo berak dioenez: “Emen nago triku biurtuta, arantzak barrukaldera bainan”. Artan Loyolara nai luke, Basilikako elizgintzan buru-belarri ari den diruzaiaren lagun; “...de buena gana iria por salir de esta miseria, q no ay paciencia ya. Agur”, berriz ere (8).

Etsita dagoela eman-arren, ez zen aisa errenditzeko gizona Gamiz. Bere burua “imbencible” ikusteko dagoenak (9) jasan egin zuen oraingoan ere eta aldiz aurretik artzekodunen oldarra eta, ezarian baiarian, zorretatik garbitu erreka jotako ikas-tetxea. Bertsoginean atzematen dugu 1736rako beinik bein, eta, neguari ies egina dela soma dezakegu kantuari emana den txoria.

Ona, bada, tranpalera igoa gure gizona, ta, begibixtan dugunez, atemagun ze gizamodu den.

Zer gizamodu zen

Alferrik da erretrato osorik edo ta pulamentuzko zirri-borrerik ere espero dezagun: aren irudiaren ertz-marratxo batzu geienez ere, poesi-baratza maneatzekoan ustekabean eskutik joanak.

(7) “Pamp”. (Pamplona) y julio 21 de 1731”.

(8) Pamplona, 29-IX-1730.

(9) 75 orr.

a) *Gorputzez*: Sail andiko gorputza zuela dirudi. “Aurpegiz ezagutzen ez bazuen ere, txikia bearko zuela nolana ere ark izan”, aurpegira bota zion laidoz aserretu zitzaion bati. “Presumido de cogote / chiquito zarrapastroso / ñiñ ñaña...” eta antzeko tsirloraz jazten du iguin duen beste bat, “A cierto” deitu Amarrekoan (10). Gabilcenchoetako bere neskatxa miretsiari, ostera, “gorputz duzula galant” lorea botatzen dio (11).

Buruko ille sarriak areagotzen zuen bere indar-planta. Arekiko beleno biurtuta dagoela ta, ikusi zoriz, il egingo duela idatzi dion mojatxoari, “mongita mia” egiten dio umorez,

*...para ser calavera
tiempo no me ha de faltar
y si asta ahora no soy
no me querais enterrar (12).*

Sudur-gainean betaurrekoak? Litekeena. Bere liburuaren buztan, olerki-papertxo bat ezarri zuen, sakeleko ibiliaren ibiliz tolesturetatik agitz urratua. Antsizko bertsoak, Santa Lutzia begibistaren zaindariari oiuka.

Katarrotxo baten berri doi doi jasotzen diogu bere idazki guzietan arabar oni, “a quien las tercianas huyen al primer contacto”.

Aisa somatzen dira aren indarrak eta sasoia, duen gaitz-gabeko gorputz bikainean. “Vires robustae” erasten diote Catálogo guziek Gamizen izenari urterik urte, aguretu arterainoko guzian utsik gabe.

Ibilerak salatzen zituen aren indarrak. Ibilera kementsua arena. Ontara artzen diogu beinik bein “Dies irae” doinuan etxeko guziei egin-farre-errettratoan Gamizi berari dagokion ahapaldia: Ibilkera zalapartaria; naiz, mandoa drotean, Barañain-go landara joan; naiz, etxebarruan, lagunetara bildu.

(10) Décima de 1742, 12 orr.

(11) 149 orr.

(12) 37 orr.

*Si a Barañain o a Letura
ba Juan en abreviatura
espanta toda criatura (13).*

Akatsik aurki al zezaiokeen gorputz ari? Aserretuta, "jiboso" edo olako zerbait botarik izango zion orduraino oso adiskide izan zen emakume batek. Gamizek onela jaso du aokaldia bertso batean:

*Dizes q no me quieres
por esta giba (14).*

b) *Izpirituz*: Dena den, gorputz-irudia eman nai izan ez digunak, gogo-barrena beinik bein ez digu artaraino ezkutatu. Onela ikusten du Gamizek bere burua:

*un buen Juan;
yo que soy Juan de buen alma.*

Areago beretik:

*Unos me llaman cachorro
otros cordero inocente
por tal me tiene la gente
y creo tienen razón (15).*

Umorea dario xulo guzietatik. Farra eragitea gustatzen zaio. Ziri-bertso batzu Eguberritako mai-ondoa alaitu-gogoz aterata, irakutzea galerazi dion nagusiari jipoi au egozten dio bere isil-apunteetan: "ay algunos retores q hazen gala de ser melancolicos" (16).

Ilgo balitz! opa izan dion mojatxoari umorez erantzuten:

*Yo no me quiero morir
por aora a la verdad
dejadme vivir q ay tiempo
muy largo en la eternidad (17).*

(13)

(14) 51 orr.

(15) 86 orr.

(16) 37 orr.

Agortu ezineko iturria du umorea ta maltzurkeria; maltur-tasuna nioke, "Juan de buen alma" aren maltzurkeria baida askotan.

Iraizeko aserrealditxo batzu arrapatu dizkiogu an, or, emen, bere idazkietan. Alakotan, aren izpiritu bikainak ez du zuzenean bakeske joan gabeko onik. Edo ta, arte ohez, umorezko eztitan akabatu aserre-furrundazko liztorrak.

Emandako itza ez dezaiotela jan beintzat. Orduan bai ez duela egongarririk Gamizek. Itzera egon edo aren adiskidegoa galdu, or aoiztar adiskide bati plantatzen dion dilema. "Itza, muga" zaion euskaldun zahar aietakoa dugu arabar au.

Trebe zen, ordea, motiborik gabe aserratu zaion emakume ezagun eta adiskide andiari aurpegi emateko:

*Quieres estar en tus trece
y yo estare en veintiquatro,*

bere doniane jaioteguna adiaraziaz (18).

Odoletik zen Gamiz lanerako. "Escribo mas que el tostado" nonbait (19) badio ere (ta egia, Goyenak dioenez, 36 izkribu-karpeta baitu zizkioten erregearen mandatariek erbesterakoan), gelako eserlekuak aina zaltokiak gogortuak zituen bere ipurmami galantak. Bide-aldi luzeak egin bear izan zituen Nafarroaz kanpo, Gaztela, Bizkaia ta Gipuzkoan zear. "Quien se halla libre de este age", egiten du bere "viage"ei buruz (20).

Bere egitekoek non eska, an zegoen beti prest. Egitekoetan, berriz muinera joko zuen zuzen, ez txori adar-saltari. Orrela, bere eundaka kartak arazoari lotuak ditu beti, bestelako berriez oso murriz.

Iruña osoaren mandatarari esango zenuke. Mojaena bereziki. Kanonigoek ere baliatu ziren aren zerbitzuz: Katedralean obra bat egin bear dela? Ibero azpeitiarrari planoak eginaraztea Gamizen bizkar utzi, eta libre.

(17) 16 orr.

(18) 77 orr.

(19) 52 orr.

(20) 49 orr.

Lan-beteaz non aseko, bera zen aurrena besteei aize ematen: "Mandar, q el babazorro se portará".

Denekin portatu zen. Loyolarekin bereziki. Santutegi andiko arri labratuek, beste ez-ezagun askorenekin batera, josia daramate arabar saiatu onen izena; Rotxapea-ko militarrei edo uriko dendariei ark erosi eta "el lacunzano" aita- seme karreolariekin bidalitako bolboraz lertuta, eman bait-zuen Izarraitz alma mater orrek Loyola andia eraikitzeko arria.

Onespen andia irabazi zion zabaltasun orrek jendearen baitan. "Mandar y Agur", dio bere donianeko eskutitzari lepoa moztuaz, "q estoy lleno de gente a darne los dias". Ez zituen, noski, esku-utsik etorriak izango, zuen makurrik nabarmenetako bat ongi bilatua zeukakiotenetik.

Gezurra badirudi ere, milizkari amorratua bait-genuen gure Gamiz sendo ura. Goxo-kozko bat erakutsi besterik gabe aruntz onuntz erabil zaitekeen, ume antzo, alako gizatzarra. Eta ez da esate aldera esana. Adierazi garbiak erein zituen makur orrenak an-or-emen olerkietan barna (21). Inor susmoti jartzeko aina, birtute utsetikoa ote zuen mojaekiko bere serbi-zaletasun ura beintzat, ala baita ere "miscens utili dulci", bide batez.

Umekera orrekin topo eginaz, buru argiko gizonaren argi-printzak darizkio, bestalde, arabar oni non-nai ari den. Izen andirik irabazi ez bazuen edo toki goirik jo ez, bere asiera apal eta eskolagabeagatik izan zen.

Gora-naia darakus beti. Zer-edo-zertarako abagunerik eskualdera baldin badatorkio, oratu egiten zalantzarik gabe. Orrela, ikastetxeko letra-giroaren abaroan, bere burua eskolarien mailara jasotzen leiatuko da, ezkutuan bederen. Ez zuen asko pentsatu bere biziaren biziko ler gaizto aiek, kea iduri, ezerezean suntsiturik, tarte-lan apal eta baldatx aiexek ain zuzen bere izena euskal elerti sail mearrari josita etorkizunerako utzi bear ziotenik.

(21) 15 orr. azkenean; 20 orr.

Buru-lantzen. Zer irakurri zuen

Buru-lantzeari ahal zuentxoia emana, ez zegokeen Gamiz liburuez ahaztuta. Etxean bertan zeukan nai ainako aukera liburutan. Ostu zizkiotenak kontatzeke, 4.000 ale bazituen bere liburutegian. 1580an sortu ta Euskalerriko jesuitenetan zaharren eta ospatsuen zen La Anunciada ikastetxea.

Erregeen mandatariek egin-bilketan, 208 liburu aurkitu ziren Gamizen gelan. Geienak San Inazio elizakoak, diosku Pz. Goyenak. Bainan beste gainerakoak? Gamizen gelako liburu-zerrenda arakatuta jakingo genuke nondik zoazen aren liburu-aukerak. Baikuntzaren ondoren egindako "Indice" edo liburu-kontaktetan argi bai-dago adierazia zein gelatakoa den liburu bakoitza.

Asmo ori bete bitartean, eskuetan dudan aren poesi-liburua beste argibiderik ez dut galdera orri erantzuteko. Literatura ta Matematikak oso gogokoak zituela ateratzen da poesi-liburu ortatik. Kalkulo zalea zen. Poesi-artearen or ezarri ditu lekuko kalkulo-prolemak, olagarroa garajejan bezain ezlekuan.

Historia zale gainera. Pz. Goyenak berriz ere: "De uno de estos legajos (Gamizen gelan aurkituak, alegia) formaba parte la "Historia de Navarra", escrita por Pedro Agramont, en un tomo en folio que consta de 622 folios"...

Ikas-liburutan, Gramatika eta Elertia sailekoak erabili zituela bertsogintzan egindako lehen-saioek darakuskigute.

Olerkarietan Lope de Vega bat beintzat ez zitzaion arrotza. Parnasora bide, Musatxoen lagunartean ibili atseginak egin zen "por aficion y divertimento". Divertimiento —solasez— batez ere, Gamiz zen umoreko eta maltzurakin.

*Amigo, lo de Castalia,
lo de Apolo y de las musas
Vrania y cosas confusas
yo no se si son de Ytalia;
si acaso son de la Galia
Narbonesa Erato y Clio,*

*desde aora me desvío
de semejante caterva
y atengome a la conserva
con agua fria en estío.
Pues quando hablan del Par-
o del Pindo y Elicona [naso*

*pienso es alguna rollona
o rocin en pelo raso.
Y pues que sera el Pegaso?
Es acaso algun pegote?
Y thespiadas! Q almodrote!*

*Sin duda q yo imagino,
a la ley de pobre theatino
[(jesuíta)
son cosas de Don Quixote.*

(“Décimas”, a Dn. Martin de Vrsua, vedel de nuestros estudios de Pamplona, julio d 1743...”)

Ona, berriz, “Don Quixote” aren aotan edo luma-puntan. Larramendi ere aitatu eta aitatzekoa dugu: Larramendi olerkaria (!) bainan.

Ikastetxeak bizirik zeramazkien 200 ureetatik laurdena Gamizek betetzen zuen, eta berak erosi bizi-laurden ortako liburu guziak. Kanpokoendako ere asko erosi zuen.

La Anunciada-ko solairuetan itzali gabe zebiltzen ahartean Moret et aizaren errainu arinak. Bere aldikoetan, Isla, Fray Gerundio-ren aita, Solano, Elizalde, Mendiburu, Kardaberaz..., bakoitza bere irakats eta idaz-joranetan. Ikastetxeko giroak kulturara ta buru-eskolatzera zeraman Gamiz berez eta errez.

Ikastetxeak bizirik zeramazkien 200 ureetatik laurden ingurua (1580-1767) diruzaiak betetzen zuen, eta berak erosi bizi-laurden ortako liburuak. Kanpokoendako ere asko erosi zuen.

Eta ona, Gamizen liburuetikikoan, bere alde argienetako bat: liburu-inprimatzaileekiko arr-emanak. Arr-eman luze eta astunak.

“Una de las más puras glorias, dio Pz. Goyenak, entre las muchas que cuenta el Colegio pamplonés de la Compañía, será la de haber promovido el cultivo de la bella lengua vascongada. Los excelentes religiosos Mendiburu y Cardaveraz redactaron e hicieron imprimir en las prensas pamplonesas muchos más libros en vascuence que los que hasta su tiempo habían salido”.

Zenbat joan-etorri egin zuen argitalpen oietan Gamizek, berak bakarrik daki. Aitamen asko du orrelako orretatik bere eskutizetan: Or Kardaberaz, Larramendi, Mendiburu eta aiza. Arabar diruzaiagandik dakigu 864 erreal kosta zitziola Kar-

daberaz oparoari Gogojardunetako irakurgaien lehenengo liburua eta 520 bigarrena. "Pamp^a (Pamplona) y febrero 28 d ;1748?" darama eskutitzak.

Joan-etorri aietan ez zuen Gamizek asko pentsatzen, bazter lotsatuenean bederen, an geratuko zela bere izen apala ere ikastetxeko maisu ezagunagoekin batera geroari lotua; eta geratu ere, pekatu antzo ezkutuaren ezkutuan ariltzen ziarduen isil-bertso aiengatik, ain zuzen.

Jakina, jardun auek ez zutela Gamiz euskal olerkaria zearka baizik arrapatzen. Arabar idazle au erdararako ari zen eta gaztelaniazko arietan nahastuta gero biltzen da bere lur eta odoloko izkuntza jatorrera, ate-xulo mearretik gatua bezala luxaturik.

Bertsoginean

Kultura-arrankurak aspalditik zeukan minbera Gamizen golkoa. Lau lagun izan zituen, Galizi-aldian, bere anai-graduak eta lauretan bera bakarra zen eskola gabea. Iruñako triku-egoerak aina zulatu zuela nago Galizi-aldiko bere arloterriak. Iruña-ratuta laster, ikastetxeko letra-giroaren alde, letra eder loratzen asi ziren arantza aiek.

Ots, bainan: utsetik eta ezjakinetik, tarte-lan (22) eta buruaringarri artu zuela berrogei ta areagoko diruzaiak bertsogintza, ez barru-irakinaren erdi-bearrez, ionizko bein "está la vena (poética) madura" badio ere (23).

Isilean lotu zitzaion lanari, bainan gogatsu. Gizon eldua, ez da lotsa, kuadernoa artuta, gramatikalarien antzera itz erorkideak (kontsonanteak) lerro lerro finkatuaz, Parnasoruntz lehen-pausoak ematen.

"Consonantes de Baptista y Juan" pilatuaz egin zuen aurre-saioa, bere izenaren omenez. Gero, "Consonantes de eta con

(22) Lehenengo orr. et passim olerkien buruko azalpeneta.

(23) 25 orr.

tema a las viejas”, “Consonantes de *ata*” eta “Consonantes de *ino*”, dena “Minuete” etan, *eta*-ko “Seguidillak” ez baizik. Milako bat bertso denera, Iztegi bateko lerrokada antzo, sei orritan estu estu.

Mutiko biurri antzera ausardiaz egindako bertso-jolason ondoren, adibidez,

*Una vieja carroña
seca y con dieta
está a una mona vizca
dando la teta (24)*

benazko bertso gintzara jo zuen, letra txukunez erdarazko ta euskarazko amar mila bertsoko liburua beterik.

Ideiak eta jokaerak

Euskal saila axola bazaigu ere, erdarazkoetara gabe ezin genitzake Gamizen ideiak eta jokaera ezagutu. Erdal poesiara-ko egin-prestamenek berek emango bai-dute, geroenean, euskal bertsoen fruitua ere.

Denetarik dago Gamizen arlo zabal orretan, gai andi ta sakonetik ezik. Begi-axala zerk jo, belarri-aratza zerk ukitu, an da Gamiz, gain-irristari beti. Artista-usteko aizerik ez da Gamizen buruan sartu. Bere egoen makala dakielazkoa da. “Coadjutor iliterato” dela sinetsirik dago, bestek bere eza orretan uki dezaten minbera bada ere. Labur: bere olerkiez zer iritzi duen, ezagupide oberik ez dugu bertso-liburuari berak ezarritako izenburua baino:

“Ofrecimientos varios de Poesía aunque de poco numen que en diferentes ocasiones oportunas e escrito aunq algunas de ellas (no sabiéndose la alusión sobre q caen) parece q tienen poca alma. Otras q sean escrito no mas que por afición ô divertimento”.

Asi-utzika, tarteka marteka jardun du geienetan, gogoeta desberdinaz. Aisa igartzen zaizkio bertsoetako gora-beraok, uin bizkar antzo. Geienetakoa izango du “poco numen”, “ocasiones oportunas”, “poca alma” ori. Inoiz inoiz gora-nai pixka bat, “afición ô divertimento” orri eskerrak; bainan egakada sendorik bein ere ez.

Zaletasun andia, noski, eta ondoz, asto askok lasto asko bear bezala, laket ere andia ortik bertatik:

*...es imposible q cure
ningun medico a este loco,*

egiten dio Gongora-ko markesari. Eta zertxobait beherago berari:

*...ya mas desde aqui
admitirá mi disculpa
de q mas versos esculpa
pues conozco mi locura...*

Itza, dabilena:

Oiko itzez gustatzen zaio esaera beti. Iguin ditu itz arrotz eta arraroak. Birao gorria botatzen dio “perruna” itz ez-ezaguna bidali dion bati:

*Sarnoso, di ¿qué es perruna?
que aquí no se usa tal frase.
Apolo a rayos te abrase
aunque aun estés en la cuna (25).*

Iritzi berdina dama, Periko ta Marikaren aoz, Iruñako zenbat gertaerei jorratu bat emanaz:

Perico:

*Cierto que eres charra,
Marica, pues veo
desberguenzo dizes
¿donde as oido eso?*

Marica:

*Eres un pobrete
 si te espantas de esto,
 pues aca lo dizen
 aun hombres de pelo.
 Y a donde uno se halla
 me parece acierto
 vsar lo que se usa
 y en Grecia hablar griego (26).*

Orregatik, gauza bakoitza duen bere izenez nai du erabilia dadin: ipurdia dadila ipurdia, eta ez, izena ere ukaturik, alako gorputz-zati ederra itzalera baitu, oi dugunez.

Kirats... eta usai gozo ere...

Eta ona nora garakarzkian gaiak berak Gamizen bertsoen aritik. Ezin utzizkoa bai-dugu arabar poetaren itzekiko dotriña ori. Eta dotriña utsean planto egin izan balu! Sudurrak eta be-larriek ezin ainbat bai-darie Gamizen bertsoei usain eta soinu txaharrekotik.

Ormaiztegiko zakurrak trenakin norgeigoka egina, —jo ta pasa— (eta zakurra izendatuakin ez dago zertan arriturik). ori bera lortu zuen Gamizek, Zubieta-ko erretorearen alde, “el perro de Lizaso” deituakin erabili zuen bertso-despittan. Mila-erdi bana bertso (?) dituzte, emendik onek andik arek, elkarri jaurtikiak, eta “Zakurrak” beste-arenei “Decimas del mas pri-vado lugar” derizkienak. Poesia-profanaketa onetan, kontrala-ria zer salatuko, bera aisa txapeldun Lizasoko “zakur” ura, be-re zakur-estilorik jatorrenaz. Zozoak beleari... Bien artean gar-bi bezate nor den zozo, nor bele.

Euskal olerkiei, ordea, (xorta bat baizik ez izan ere) ez da-rie kiratsik. Neskatxekikoak ditu denak, gero areago azalduko

dugunez; udaberriko neskatx loratuak, auen gozoaz lehengo ki-rats guziak suntsi nai bai'lituen, bakoitzari

*jazmiña eta carmiña
...matel bietan
ondo ifiniric (27).*

Gamiz, emakume anitz!

Emakumetik erruzkoa dago Gamizen poesi-liburuan: 50 orrialde ema-bertsoz beteak, liburuaren erdi ta are. Emakume-ekikoak ez direnetan ere ba ditu, eta asko, gai ortako zitzada eta pasarteak.

Poesien balioari begira, biziagoak eta jatorragoak dira, oro ar, erdal emakumeak euskaldunak baino. Ala, noski, bearko bearrez; beren etxeetan begibeteen edo kale-arietan begi-ertze-tik ikusiak izaki. Ez ditu irudimenak jantzitako txorimaloak; beren izate jator eta beroz begi-axala bederen ukitu diotenak baizik.

*Auxori, Iruña limurtuaz,
"y del sexo femenil
de vellezas mas de mil"*

bota badio ere, bestaldera jokatu du Gamiz pikaroak, angó emakumeteria pintatzekoan iguin eta atsotuetatik aukera andisamarra eginaz. Izenburu batzu esandakoaren alde: Consonantes de eta con tema a las viejas; Pinturilla de una dama; A una monja enfadada; A una presumida; A cierta doncella fea; Otra que tal; (las mujeres) Pican si las hazen mal; etab.

Ontan, bada, zerbait pentsa bearrean al gera Gamizi buruz?

Bertsoren bat edo beste ba dario, bere bakarrean susmogarri litzaigukeenik. Alegia,

*No quiero que me quieras
ni yo quererte;
por no corresponderte
iré a galeras, (51 orr.)*

egiten dio adiskidetik etsaira aldatu zaion bati. Bainan konfiantza eta adiskidetasunari dakiola or Gamiz, derizkiot. Egunoroko kale-ibilieta eta dendaketa emakume askokin zeukan itzak trukatu eta jardun bearra. Arr-emanei, ordea, konfiantza ta adiskidegoa darie berez berez.

*De haberte querido estoy
corrido y abergonzado*

egiten dio beste olerki batean aserretu zaion Filena bati, aurrekoari berari, ausaz. Bainan goraxego aditzera eman digu zer duen orko "quererte" ori:

*Que yo asta aqui te estimaba
fue mentira el negarlo (77 orr.)*

Filena arekiko estimazioa besterik ez du, barren, "querer" itz erabili ori.

Dantzako nesgaztearen eder eta zoliari erreparatuaz Larramendi ez zela kezkatu, Pilar de Cuadra idazleari irakurri ustea dut, Corografiaz ari dela. Ezago kezkatu arabar xalo au, ala fede:

*Otras (señoras son) flacas y transidas
remedio contra lujuria
q el mirarlas es penuria,
aunq otras son muy de ver
q el mirarlas es plazer
sin que se les haga injuria.*

(1738an, Garez-eko emakumeei buruz, 26 orr.)

Or dena esana eta Gamizen alde garbitua. Iruñako beste emakume batekin biurritu, eta "picarillo travieso" tzat plazara jalgirik, ainbat maite duen bere bokazioa arriskuan ikusita,

*por mi ingenuidad
armar quieren mi desdicha*

aitortzen digu larriturik. (80 orr.) Sinets daiogun, Jainkoa ta bere burua testigu eginiko golko-bertsoa du eta.

Lagunartean ez zen arekiko susmo txaharrik. Il ondoren laudoriozko gorazarrea egiten dio Luengo historialariak.

Alere, Gamiz, emakume anitz!

Gaztelaniatik euskararuntz

Ba da motiborik Gamizen emakumeteria aizera dezagun. Mutxurdin oietako baten zaputzak bilakatu bait-zigun Gamiz erdal poeta euskal olerkari. Pasadizuak Quevedo-ren alako beste antzeko ura dakarkigu burura nai ta ez.

1748ko azaroan, Tafallako ferira joatekoa zenez, "Jesus" bordatu bat ekar zezaiola eskatu zion Iruñako neska batek. Baten orde bi ekarri zizkion Gamiz zen serbitzari kunplituak eta, sarri oi zuena, Amardun batekin jabearen esku utzi, sanotasun osoan:

*...si ofreci motolito
embiar un Jesus bonito
quiero salir de congoja
y por q vsted ESCOJA
dos Jesuses le remito.*

Errena zen ain zuzen emakumea ta "escoja" itz errugabea irantzat artu ta fraile bertsogile bat autaturik, erronka jo zion Gamizi bertan bera:

*tendra abogado mi honor
tendra tu astucia fiscal.*

Goian zerua behean lurra gelditu zen Gamiz, frailearen amalau Amardunek egin-topoz.

*...por mi ingenuidad
quieren armar mi desdicha,
por la razón sobredicha
tratan de hecharme a perder.*

Ala noski. Bai bait-zekien nolabaiteko emakume kontua bere lepo plazara zabalduz gero, kontu zorrotza eman bearko zuela nagusien aurrean, bere izen ona garbituaz; jesuitekikoa

egina zeukan bestela. Isila bear zuen batik bat, zaratarik ez atera, ez barreiatzen laga. Orregatik, bere barrua ustuz amabi Amardun idatzi bazituen ere, “no di (al público), dio, “para no meter bulla”.

Iskanbila nai zuen ostera emakumeak, Iruñako maiseatzai-leen ortzetan Gamizen plaza-izen garbia marruskatu ta eio, artu-usteko irainaren ordainez. Zer da, bainan, orko irain ori? galde egiten du Gamizek bere kolko-bertsoan:

*Pues válgame Dios! Señora
aquí de Dios!, a que fin
tanta copla y retintín
tanta Decima canora?
la llamé Yo acaso mora?
la falté en algo al respeto?
la descubrí algún secreto?
Nada menos; pues porq
es toda esta bulla, que
me pone a mí en tanto aprieto?*

Ez zeukan galdetu bearrik; “picarillo travieso” tzat garbi salatzen zuen emakumeak eta:

*Tal vez dirás muy sagaz
por cubrir tu picaresca
porq se muebe esta gresca?
porq se turba la paz?*

Erantzunik bako galdera. Isildu beste erremediorik ez zeukan neskari bekoz beko.

*No me parece razón
responder qual probocado,
q es ageno de mi estado
y contra mi condición;
pues aun q me hacen el son
de picadillo travieso
y armar me quieren con queso*

*para q saliese al vaile,
no saldrá con ello el frayle
ni se reirá el congreso.
Solo digo en otro metro
lo q dijo un Licenciado
a otro semejante autor
que se metió a cortesano:
con ese saco una musa
es una vision del diablo.
No es para ti, frayle amigo,
esto del monte parnaso;
arto mejor te cairá
tratar del monte calvario.*

Besteari gomendatua berak bete, Parnasoa Galbarioaz trukatatu, egin zuen Gamizek betirako. Naigabeak agortu zion olermena, duela amabi urte borborrean lertua. Egoki emen, ontan asko pentsatzeke berak egin-bertsoa:

*En la Elicona bebi
agua ayrada con espuma
y el no poder más me abrume
sin q me pueda explicar,
y enfadado del pesar
arrojo tintero y pluma (28).*

Luma-botatzen dagoen txoria ez da kantari; isildu egiten da. Isildu zaigu Gamiz erdalduna betiko. Amardun soil soil bat egingo du moja batentzat formalean, bizirik dauzkan ogei ta bost urtetan.

Eusko Folklore bilketan aintzindari?

Poesia utzita, folk-lore arloan igitari biurtu zen. Isilaldi ontakoak ditu, dagoeneko bilduak zituen Tafallako (1739) eta Sangosa-koez gainera (IX-1741), Garez (IX-1754) eta Oteizako

gaitz-izen bilketak (24-II-1758). Bilketaok, ene ustetan, folk-lore arlo berezi ontako aintzindari ta bide-urratzaile biurtzen dute arabar saiatu au Euskalerrian. Egia, bertsoan jarri zituela izengoitiok Gamizek; bainan jardun ori ezin leioke benazko olerki-lantzat artu, jostaketa eta denpora-pasatze soila baizik ez zenetik. Redondilla, Erromance, Minuete, Dabilzentxo, Amalauko, Amarreko, zortziko andi eta txiki, bertso mueta guzietan landuta, ia berreun bertso tara inguratzen da, mila puntu izengoitiz beteta. Diru kontaketa ta gainerako arazoez burua aski nekatzen edo zioten, itxura, oporrari edo gauza-ezeko jardunari orrenbeste denbora emateko zegoelarik. Edo bestela, Iruñako emakumeagatik aserrez geroz, uko egin ote zien ordu rarte oiko bertso-gaiei ta aritze aldera ari ote zen txirribirri auetan?

Ba dirudi, urteen joaneran, bizitzako neke ta kaskatekoek zentzatu ta pentsatiago biurtu dutela Gamiz eta, Poesiara orde z, Arrazoiarengana doala abaro bila:

*“Doña Razón mi reposo,
mi quietud y mi sosiego,
descanso de mis afanes,
alibio de mis desvelos”* (80 orrialdean)

Euskarara noizbait ere:

Dena dela, izengoitiok, euren bertso-moldaketaz utsarte bat bete, eta euskaragandik urrun zebilen idazlea bere errira itzuli, edo, itsumutil antzo, errira bidean ifini beintzat, egin zuten.

Zenbat denbora egin zuen benazko bertso gintzantik opor, edo noiz lotu zitzaion euskarari, ez dezakegu oraingoz garbitu, erdal olerkien gain edo barren ezarri oi zituen urte, il eta egun-mugarriak euskarazkoetan finkatzea utzi zuelako. Gauza bat ba dakigu ziur, alere: erdara zapuztuta gero lotu zitzaiola euskarari; Iruñako nexka ark ireki-zauria ahartean odoletan due la estreinatzen bai-da euskal olerkari, lau ko baikor eta kement su onekin:

*Erderaz eztuzu nay
ene viotza
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza (29).*

Susmo-bide bat dugu alere bere euskalduntzearen muga finkatzeko: 1760 ko abendurako euskal izkuntzaz arduratuta dabil Gamiz, il orren 18an egin-karta lekuko:

“Sea de servir de embiarme con Lanz en la 1.^a ocasión un Juego del diccionario del Bascuence del Pe. Larramendi, con el aviso de su coste. y mandar, y Agur.”

Ogei ta sei egun geroago:

“Dejo— abons. (abonados) los 560 de von. (vellón) del Diccionario p^a qdo. llegue”. Mande y Agur”. Pamp.^a (Pamplona) y Enero, 24, de 1761.”

Aurrez, aspalditxo, 1749aren azkenetan, izan zituen Larramendiren mandatuak eta arendako goraintzi eta aitamenak; Arte-aren edo 1745ean argitaratu-Iztegiaren aipurik inon ez, ordea. (1761 ontan, eskatutako eperrak Loyola-bidean ifini dituela-ta, egazti goxoen truke joan ote zitzaion, bada, andoaindarraren liburukote astuna?)

Bere euskalduntze denbora-mugak finkatu-urren ibili ba zen ere, erdarazko olerki geientsuenetan egin izan zuenez; azkemik ezjakinean utzi ginuen, mugabako aldi-aitamen ontaz:

*Iruñetic, gaur egunen
estaquit zer iletan
oraiñ eta seculaco
naidituzun urtean (30).*

(29) Dabilcenchoac, asieran.

(30) Ofrecimedu batzuc, bukaeran.

Nolanai ere, azken urteetako jarduntzat jotzen diogu bere euskal bertso gintza, 1970 inguruko edo or nonbaitekoa.

Euskaldunen gauza-eza

Norbaitek berotuta lotu zitziola euskarari, dio Azpiazuak. Ala, noski. Bearra ere bai norbaitek bultz eginarena. Erdal olerkietan ain oparo azaldu dituen euskotarren poesiarako gauzaez, etsi gaizto eta konpleju aiek, lehen lehenengo bertso-tik erakutsi bai-dute euren mutur itsusia euskarazkoetan ere.

*Erderaz eztuzu nay
ene viotza,
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza:
ycuzco deugu
albadaygueequin zerbait
nola bear degu.*

*Gaizqui ba doaz ere
orra euzqueraz
ifin naiz au eguiten
neure bildurraz;
eguizu farre
gaizqui mintzacenbadut
lotzaric bague.*

Kemenak atereaz, bildur ez delazko aitorpen ausarta aurretik jareginaz atera da erdira. Gauzak bere onean eta naturalean egotera ez zeukakeen orren bearrik.

Alabainan, besterik da Gamizek erdararekiko iadanik azaldua digun gauzaez eta konplejua, besterik emen euskararekiko agertzen diguna.

Erdaldunek gu geu geneuzkaten, euskotarrok alegia, gure izkuntza ta guzi poesiarako gauzaez-ekotzat, nor eta euskaldun ginelakoz, "asna nación" omen ginelakoz, ain zuzen (oker ez banago). Ala Larramendi atera zen egunetan. Gaitz onek anka ta buru joa ageri da Gamiz *erdalduna*.

Beste bide batetik doa, ostera, konplejuaz diardukigun Gamiz *euskalduna*. Ezta aitamenik ere ez bere Arabaren, edo bizi den Nafarroaren edo beste inongo euskal lurrenik, ezta izkuntzarenik ere. Poesiarako balio-ez ori ez du gure izkuntzaren bizkar edo lepo lotzen. Gamiz bera da, Gamiz euskal poeta, gauza-ez eta farregarri; ez izkuntzagatik gero, bera *euskal-gaizto* delako baizik: "eguizu farre / gaizqui mintzacenbadut".

Zerk eragin du Gamiz baitan aldakuntza ori? Eskuetan zituena Larramendiren liburuek ez ote? Beste edozein izkuntza aina dela euskera, ta gure letra-alorrean fruitu oberik ez egona izkuntzaren jabe ez geralako dela, eta ikasi egin bear dugula: ori bai-da Larramendik esana ta euskaldunoi gomendiatua. Gomendio orri Gamiz jaramon egina zela pentsatzea, bigabekeria ez dela ta, nago; Iztegiak gainera Artea ere bai bait-zeukan, gramatika orretako olerki-ahapaldi baten errainu garbia Gamizen beste ahapaldi bat gerizatuz atzeman dugu-ta.

Oriz-ko jauregian bat-bateko bertsotara beartu nai du Gongora-ko markesak Gamiz erdal bertsolaria, bazkalondoko solaskizunez. Puntua ipini ere egin dio bein-da-berriz: "Sólo con la pluma en la mano" eta "Ramillete en cinco platos". Alferrik. Isilik egon da arabarra andikiaren aurrean, ez diote itzik atera ahal izan. Zergatik?

*Mi Dueño y señor Marqués,
derrepente y en la mesa
no me mande a mí esta empresa
de coplas, aun q dé pies;
por que de un pobre Alabés
no ay q esperar agudezas
si no es algunas simplezas
q enfaden sin diuertir
... (31).*

Olermenaren liztorra kolkoan, ez zen berealakoan Gamiz etxeratu, markesari sei Amardun bidaltzeko. Egundoko bertsoak dirala aiek, Apolo bigarrena dela bera, egiten dio markesak erantzunez igorritako Amalaukoan.

Eta lehengo beretik Gamizek markesari:

*Al ver la carta de Vsia
tan llena de relumbrones
dige a mi sotana nones,
no creas que es cortesia.
Vn trago de malhasia
o rancio de calidad
curaran mi ceguedad
para tener en memoria
que soy de junto a Vitoria
y no me entre vanidad.*

Ez du bere buruarekiko edo arabarrekiko soilik alako uste antzua. Ezpal eta ari bereko jotzen ditu nafarrak ere, Oriz-ko bikarioa bezala iruin-seme euskotar aurrereenak ere.

“El vicario de Oriz” izenpean Amalaudun bat bidali dion markesari, alako bertso bikainak nola ditezkeen mendian sortuak arrituta, idazten dio:

*No pensé q los curas de la aldea
tubiesen humorada de hazer sonetos,
pues criados entre Ayas y de Abetos
cada uno pensé q era un badea.*

Bainan, “Yo me temo que sea con cirineo” bukatzen du sinetsi ezinik.

Ez ditu gorago altxatzen “iruñshemeak”. 1730eko garizumaz bi predikari azaldu ziren Iruñan, zein baino zein zoroago. Zoratuta zekarten jende guzia euren gerundiokeriaz. Alderdi bitara banatuta, bertсотara jo zuten denak, bakoitza bere frailearen alde eta bestearen aurka, uri guzia bertso-paperez beterik:

*Todo era coplas y gracias,
todo una risa tirada
y en fin todo una bobada,
persuasiones y eficacias (32).*

Irugarren predikari, denei erasotzen die Gamizek:

*Venid, locos Yruñshemes,
quien os mete en el Parnaso
ni montar en el Pegaso
si sois unos cascabeles?
Nunca hubo en este clima
quien fuese alumno de Apolo
ni ay noticia de uno solo
desde Pamplona a la China.*

Euskal lurretik eta bertako semeengandik gauza andirik ez du Gamizek espero. Bainan euskal antzutasun uste ori Gaztelatik ekarri digu barren. 1736an, andik Nafarroaratu berri, ots, estrenako bere olerkian, eraso zigun orrela euskotar anaioi.

Urte mordoska bat geroago, Larramendiren beinik bein liburuak ikusita euskal alorrari igitaia erastekoan, ostera, ez du uskal lurraren edo euskal gizonaren edo euskal izkuntzarek aitzakiarik. Bere prestaera eskasaren bildur da soilik. Euskal gaizto da, ez daki bear aina euskera bertsotan asteko. Farregarri daiteke, bainan gaizki mintzatzen delako.

Zenbat idatzi zuen euskaraz

“Bi olerki luze eta lau llabur, dira Gamizen Euskal olerki-lan guzia.

- I. “Euscaraz gaiztoetan. Ofrecimedu (sic) batzuc. au eguin za, Garezeraco”. 22 ahapaldi dira, launa bertsokoak; beraz 88 bertso, guztira.
- II. “Dabilcenchoac”. 17 ahapaldi, zazpina bertsokoak; 119 bertso, denera. Irar-utsegite askotxokin Azpiazuk argitaratua: “Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak Doneztebe-n”. Gaubeka. Bermeo (1926).
- III. “Oñecochoa, verce aldeco dabilcenchoac Cantatceco. tonuarequin”. Zortzi bertso, guztira.

- IV. "Veste bat, arendaco". Bi bertso, guztira; bertso-izena eramateko dina baldin badira.
- V. "Vete (sic) bat ere bai aren daco". Lauko txikia da, izan.
- VI. "Veste tunucho berribat". Amazazpi bertso, euskarazko azkenak. Beraz, 238 bertso osatzen dituzte Gamizen sei olerki-saoiek". Onela idatzi nuen EGAN-en Gamiz irakurleei aurkeztuaz. (EGAN (1968), 1-6, 4garren orr.)

Mila-laurden eskas bertso, bertso gutxi dira erdarazko amar mila ta are bertsoko liburu gizenaren aldean. Zerrenatxo lotsatua baizik ez sail zabalaren alboan. EUNETIK BI DOI DOI.

Beraz eta erraz burutik mihira datorren galdera emen: "Ez ote zuen, bada, ori bestetxorik idatzi?". Diogun baietz zailantzarik gabe, dugun ziurtasunaren aldera, gainerako bertso-rik ez dugun arren. "Euscaraz gaiztoetan" olerkiaren ondotik eta "Dabilcenchoac"-en aurretik, bien tarteko, itzok ezarri zituen gure poetak:

*Sasquibat Ardo ezansuena
ta picher bat oguia.*

Bainan lehenengo batean misteriozkoa nerizkion esakun ori olerki baten izenburua da garbi garbi. Alakoa da dagoen tokiz, eta alakoa duen idazkeraz edo moldez, gainerako olerki izenburuen era berera azpimarkatua dagoelarik.

Erraza da or gertatua asmatzen. "Euscaraz gaiztoetan..." olerkia aldatuta, "Sasquibat Ardo..." ezarri nai izan zuen, izenburua ifintzera iritxirik; bainan aurrera egin ordez, izenburua lepamoztuta, "Dabilcenchoac" sartu zuen aren tokian, maite-poesia maite-poesiakin lagunduaz, erriak oi dion "ideakoak ideakoekin" (ideakoak ideakoekin) kunpliturik. Gero ahaztu egin zitzaion edo astirik ez zuen izan aldatzeko, tori ta tati, pitxer-ogitik eta saski-ardotik jango-erango genukenean utzurik. Damurik orrela; umorezkoa izango bait-genuen izen jostailu orren ondotiko poesia ipurdiaren defentsan egindako erdal anaia bakartiaren euskal senide farretia, noski.

Ba daiteke, baita ere, euskal olerkigintzan ziarduela, 1767ko apirilaren 2ko gau zorigabe artan, guztiz ustegabeen, Carlos IIIren erbeste-legeak luma eskutik kendu izatea.

Ageri den baino geiago idatzi zuelazko ustearen alde ba dugu beste zera bat txit jakingarrria.

Iru sailetan berezia dago Sabandoko poetaren liburua: erdarazko, euskerazko ta "clave"zko sailak, alegia. Erdal-euskal sail bikotea elkarren segidan dago, erdian uts-tarterik gabe. Noski; gaztelaniaz geiago idazteko asmorik ez zuenak jaioko ez ziren bertsoendako tokiriz ez bear. Bukaera-bertsoa, azken-agur antzo, gaizki egindakoen barkeskea da, gainera.

Bigarren sailetik irugarrenera, ostera, euskarazkotik clavezkora alegia, ogei ta bi orrialde daude zuri-beztu gabeak, egindako edo egin-asmoko euskal poesiendako gordeak bai-leuden.

Gamiz zen lanerako gizona eta olerkigintzari alako gustoa artua ez zait inondik ere sinesgarri poesia-operean egona zaittekeenik. Bazitekeen lehengo bere kemen aiekin jardun ez jardutea, indarrrik ere aski galdua bait-zegoen azken urten oeterako; betiko bere "vires robustae" aiek, dagoeneko, Catálogo-etan "vires mediocres" etara eratxi zaizkiolarik.

Liburu eta esku-izkribuen baikuntza. Erbestera. Eriotza

Artan, bizitzako arrats-beheran, inor bere senaz sort-lurmin oi denean, aize erauntsiak sustraitik ateratako zuaiza bezala, bat batean eta ustekaben erbestera iraitzia izan zen.

1767ko apirilaren 3ko oilaritean La Anunciada ikastetxea arma-gizonez inguratua esnatu zen. Bizi-lagun guziek kanpora bear zuten. Bi bakarrik gelditu ziren baituta, lagunengandik berezi: etxeko nagusia ta diruzaia, Gamiz. Erregearen aginduak ala erabaki zuen:

“Hecha la intimación (del Real Decreto) procederá (el juez comisionado) sucesivamente, en compañía de los Padres Superiores y *Procurador de la casa*, a la judicial ocupación de archivos, papeles de toda especie, biblioteca común, libros y escritorios de aposentos, distinguiendo los que pertenecen a cada jesuita y juntándolos en uno o más lugares... (33).

Ba zen, areago, beste agindu bat diruzaiarekikoa, ots, Gamizi zegokiona:

“...y con respecto a los procuradores, que debían permanecer por espacio de dos meses hasta entregar las cuentas, incluían (las “Instrucciones del modo con que deben hacer los comisionados los inventarios de los papeles, muebles y efectos de los Regulares de la Compañía de Jesús” en el n.º VII) al final de una serie de diez preguntas por las que debían ser interrogados, sobre personas, jesuitas o no, con quienes se carteaban, paradero de las cartas y cuenta y razón de todos los negocios, tratos, pagos y cobranzas y asuntos que quedaban pendientes” (34).

Esan leide, bada, nagusia bera aina diruzaiara zela arazo aren guziaren ardatz. Liburu eta esku-izkribuei buruzko zeatzasunak zorrotzak ziren benetan:

“...los libros y papeles que se hallen en los aposentos se reconocerán uno por uno y se harán inventarios particulares con indicación de la persona en cuyo poder se hallaron...” “*Aunque fuesen poesías, papeles satíricos* o de cualquier especie, no se habían de despreciar, sino colocarse con cubierta separada”.

(33) Guglieri Navarro, op. cit., Introduc. X.

(34) Ibid. XII.

Baikuntza au egiten zen

“...para recoger las estampas satíricas y en especial las del “Juicio Universal”, en que Carlos III figuraba en el infierno, y se vendía en Barcelona; a los reos de esta clase de delitos se les imponía “pena de muerte y confiscación de bienes” (35).

Komeria orren egilea jesuitaren bat zela uste zuten, eta, ustekabean papel guziak baiturik, egile ura arrapatu-uste zuten.

Liburu eta esku-izkribu bilaketaren ondoren eginiko “Indice alfabético general de impresos de la librería y aposentos”ek liburu-eukitzaile bezala bere izenez aitatzen du Juan Baptista Gamiz. 208 liburu aurkitu zizkioten bere gelan. Pz. Goyenak dioen “mamotretos o legajos”etako 204retatik 36 Gamizen gelakoak ziren. “La especificación de los documentos contenidos en esos capítulos es poco esmerada” dio berriz ere Goyenak. Geuk ez bai-dugu arakatu, poesia liburu au izendatu dagoen ala ez, geurenetik ez dezakegu esan.

Ez dakigu, ezta susmorik ere, bere artaldeti nola iges egin zuen liburu “ardi galdu” onek. “Notorio es que manos poco limpias se apoderaron de no pocas (obras), a raíz de la salida de los Padres, o las hicieron desaparecer”, berriz ere Goyenak.

Bere esku-izkribuekikotik aise askatu zen Gamiz; ez, baina, lotsa eta amorru bizirik gabe, bere golkorako isilean idatzi-lanak besteen begietara edatu bearrez. Artara baino lehen naiagoko zuen, —aise somatzen dena—, mila pusketan apurtu.

Artara, ordea, ez genukeen arabar euskal idazle (urriren bederen) baten berririk; ez nere adiskide on Fernando Bidegain-ek El Diario de Navarra-ko “Picaresca Navarra” sailean “Streaking”ari buruz argitara dituen artikulu bitxietarako gairik; ez, benazekoetan, idazle beronek “Picaresca Navarra” bererako artu dizkion olerkirik; ez Deustuko irakasle Inazio Elizalde-k bere “Navarra en la Literatura” libururako auke-

ratu dizkionik ere; ezta eman dizkigun Iruña barruko historiiei eta orduko jendeen oiturei buruzko jakingarri baliozkorik ere. Naiko galera sobera ez dugunondako.

Diruekikoak ere emandako epeaz aurreti garbitu zituen. Gamiz ezagutzen zutenendako ez arrigarri, kontuak garbi, txukun eta egunean berean eraman-zale zenetik. Arlo ontakoak dira 36 “mamotretos o legajos”etako geienak edo denak. Beraz, lehen aurrerratu dugunez, esperantza gutxi dugu euskarazkorik geiago aurki dakiokgunik.

Erbestera

Ainbeste maite zuen Euskalerrriari agur esan besterik ez zedukan ia. Cartagenara bidali zuten, bada, ongi zainduta, andik, itsasoz, aurrea artu zioten lagunetara bil zedin. Atzerrian utziko zituen bere ezurrak, Mendiburu, Kardaberaz, Basterretxea, Meagher eta ainbeste ta ainbestek bezala.

Sei urteko bizia duke erbestean; eriotza areago, bizia ezen. Ez zen mamitan bizi izan, bere anaien adur bereko. Aren il-bezpera eguna Italia-aldiko beltzetan beltzena jo daiteke. Beste zapalketak beste, liburu ta paper-miratze zorrotza egitera zetzozela agintariak eta, urduri ibili ziren denak beren paperak arakatzen eta susmogarriak desegiten.

Gamizek ez zuen ortan lanik, azkenetan zegoelako ez ezik, izkriburik ere izango ez zuelako, seguraski. Besterenik, ordea, zenbat idazki joan zen surtara! Bererik ez duela paper muturtxo bat ere autsiko, ala zankoa, aitortzen du Luengo-k, eta ausardia oni esker onik atera zuen bere “Diario de la expulsión de los jesuitas de España” egunkari esku-izkribatua, Loyalolan 69 liburu-aletan duguna.

Eriotza ta gorazarrea

Pasarte orren urrengo lerroetan Gamizen il-berria damai-gu Luengok:

“Ha muerto en Casa-Lequio que esta fuera de Bolonia el H.^o Baptista Gamiz Coadjutor. Al tiempo de nuestra desgracia era Procurador en el colegio de Pamplona, y por esta razon se quedo alla por algun tiempo, como los mas de los Procuradores, y no llevo a Corcega hasta algunos meses despues, que nosotros estabamos en aquella isla.

Un lance mui gracioso le sucedio en Pamplona, y otro en el camino, y los insinuaremos aqui brevemente. Declaro a un Religioso, con quien se confeso, que tenia consigo algun dinero, y no le quiso absolver, si primero no lo declaraba ministro executor, no obstante que le aseguro, que todo o la mayor parte era del P. Juaquin Solano, a quien se lo havia regalado el mismo Reyno de Navarra, por haver cuidado de una edicion de su Historia. Que ignorancia de hombre! o que iniquidad, e injusticia!

El otro fue, que habiendo encontrado de camino hacia Cartagena en una misma posada con otro H.^o Procurador de otro colegio, se dieron un abrazo de Charidad, segun se usa en la Compañia en tales circunstancias, y habiendo visto uno de los conductores, como si con aquel abrazo hubieran tocado a alborotar, y poner en armas a todo el Pueblo, se lleno furiosamente de colera, y despues de haberlos cargado bien de desverguenzas, llevo a uno de los dos a otra posada.

Era este H.^o Gamiz mui piadoso, devoto y espiritual, mui humilde, servicial, y obsequioso, pobre, y mui austero consigo, y en todo un Religioso exacto, y fervoroso.

Hoi se le ha hecho el oficio en la Parroquia, a donde pertenece aquella casa, y aunque mui distante de la ciudad, como el tiempo, y los ca-

minos no eran malos han ido muchos de Bolonia a decir misa, y asistir a su entierro. Era ya anciano de mas de setenta años, y natural de Sabando en la Diocesis de Calahorra" (36).

Goratzarrerik ez zezaiokeen Luengok egin, ezarri zion jesuitekikoa baizik. Bainan ba zuen besterik guri atsegin zaigunik. Maite zuen Gamizek bere Araba jatorra, euskaraz ere mintzatzen zena. Euskotar egiten zuen bere burua, "vizcainos"en sailean sartzen zen beti. "Vizcainoak", burdin-mendietako seme izaki, arlo xotiletarako ez zirela gauza bota zionari zalantza andirik gabe bidali zion erantzun zorrotz eta trebea (37).

Ainbeste euskotar, gaur bezala, euskaldun agertzeaz lotsa ziren tenore doakabe artan kementsu aitortu zuen ark:

*Erderaz eztuzu nay
ene viotza
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza.*

Beste alde on asko dituelarik, emen azaldu dugunarengatik bakarrik ere merezi du Arabak bere seme argitzat jaso ta ospa dezan XVIII mendeko euskal olerkari Juan Baptista Gamiz eta Ruiz de Oteo.

(36) Luengo, Diario de la la expulsión de los jesuítas de España. Año de 1773, tomo VII, parte 1.ª, 163-165 orr. Esku-izkribu jatorra, Loyolako artxibuan.

(37) Izenik gabeko olerkia, 71 orr.

GAMIZ-en OLERKIAK

DABILCENCHOAC

Erderaz eztuzu nay
ene viotza
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza

ycuzco deugu
albadaygu eguin zerbait
nola beardegu.

Gaizqui ba doaz ere
orra euzqueraz
ifin naiz au eguiten
neure bildurraz

eguizu farre
gaizqui mintzacenbadut
lotzaric bague.

Choriac arboletan
dirade pocic
euren libertadeaz
cantaceagatic

alan nainuque
egon ni ere baña
esta posible.

Ay ene chori ariñac
egatzen duzu
jaulaco carcelbaga
fortuna duzu

nic ecin ala
cerren loturic nago
prisione bago.

Lenago ezaun du baño
uzteduei guciac
Neronebat zerala
bay zera estiac

dulce ta gozo
zugatic gauza gustiac
izten dut oso.

Ene suertea da gogorr
zu gogorrago
ezpazaiste bigundu
galduric nago
bigundu zaiste
orrequin gure gauzac
dirade nazte.

Farre eguiten baduzu
dirudi Aingueru
ta ifinbazadiz seria
gucia da ilundu
ene Yguzquia
odeybaga icuzcodut
zure aurpeguia.

Zure vrresco vleac
nauco galduric
catena orrequin nauco
ongi loturic
ene maytea
azcatuta emadazu
libertadea.

Ay ene begui belchac
ilic naucazu
euqui eguizu piedade
ta pistu nauzu
Ay ene mina
enezat gauza guciac
dirade ozpina

Zure beguietan dago
ene suertea
naibaduzu vizia
edo eriotzea
 ene laztana
 zugatic eguingodut
 nic aldaidana.

Duzu beguicho bazuc
ta aurpeguichobat
a egaz joatecodut
tentaciobat
 gaode gueldi
 obequi da ondo egon
 ta ez gaizqui ibili.

Jazmiña eta carmiña
daode nazturic
zure matel bietan
ondo ifiniric
 gutziz da ederra
 amparatu nauzute
 ay ene eperla.

Ezcuac duzu leun
lepoa churi
elurrezco bularra
zureac dirudi
 or vildu duzu
 munduco perfeccioac
 nola bearduzu.

Becoqui duzu zabal
eta orzac churi
zudurra eder ta chuzen
espanac gorri
 gutziz cumplitua
 zure amudioetan nornay
 daude galdua.

Guerria duze mea
eta oña chiqui
gorputz duzula galant
nor naic badaqui
 onec ilnau ni
 naiduenac vizi onequin
 ezpedi ifini.

Ain laster zeinda ezaundu
jotziza viotzen
iltzeaquin zure amudioa
ta ezta atarazten
 dago fixoric
 veñere eztut aztuco
 ta eztut damuric.

Asqui da ezan dudanac
disparateac
barcatu bearco duzu
erorean itzac
 juicioa galdudut
 zuc eraman duztazu
 eta itzul bear dust.

*Oñecochoa, verce aldeco da-
bilcen choac cantatzeco. tonua-
requin.*

Bay; Bay.

ez, ez, ez, ez, ez,
zugatic ene beguiac
daude negarrez
 ez, ez

bay, bay, bay, bay, bay.
ni joan nai zurequi eta
zuc estuzu nay.

veste bat, arendaco.
Lacrincron fararirayrena
lacrincron fararirayron.

veste bat ere bai arendaco.
Goazen goazen goytira
goazen vallera
goazen errecaledetic
gaur paseatzera.

veste tunucho berribat.
Mutil batec ezan dust
naizla galanta
badaquit ori
carricatic noanean
jantziric ongui
agradatzeco

ezancio Alcateari
ene biotzeco
farala ralarequi
ezandio Aytari ta
dio viurtu bedi
Amari ezan ta dio
ycuzco dugu
errespuestea esta gaizto
bodac daucagu
vda irago bañolen
beardegu ezcondu.

Euscaraz gaiztoetan. Ofrecimedu batzuc. au, eguinza, Garezeraco

Ene viotza nequeaz dago
ausencia luce onetan
ene beguiac bustiric
zugatic negarretan

Beti gavez, eta egunez
zaode ene gogoan
zure seriedadea daucat
beti beguian aurrean

Beguiratu eguidazu
Lastima andi bategaz
bestelacorren (1) ilconaiz
zugatic neure penas

Naibaduzu vicinadi
biraldueidazu carta
eta an ezan eguidazu
berori bizi dala

Osasunaquin bazaude
ni miñbaga egongonaiz
zeregatic, zure gauzac
guciac eneac dira

Zu gaisqui bazaude ni
preciso gaiztuconaiz
cerren bien gorputzetan
bacarric da arimebat

Albanei ni orr egon
joateco paseatzera
atso ura estegu erango
bacarric joan beargara

Joango gara naibaduzu
zubira edo errotara
edo serorean aldetic
aspiti errecaledera

(1) "Bestelacorren": Gamizen beraren erratum bat da; "bestela cerren" esan nai zuen, iñolaz ere.

Beste egunen beste aldetic
zure paseo artara
ta errecachoa iragoteco
emango deust escua

Espadu nai escua eman
iragocodut besoetan
estu cer vildurric euqui
bustizaistela errecan

Aldabaygu veste egunen
joangogara ardanzera
matsic espadagos ere
gustos ibilco gara

Almorzu ona erango degu
toetillaonbat vrdaiaz
probechu andi eguingoduzco
campu zabaltazunaz

Sangregorioco aldapatic
goazen verris aurrera
videa ezpadaigu galdu
guero itsulceco atzera

Bero eguin badai iguzquiac
juango gara itzalera
ta descansatuco degu
oliboan azpian

Onela ondo paseatuta
viurtuco gara hechera
ta ondo refrescatuazguero
ifini jucztera

Onela iraungo baluque
auhse da bay vissia
baña emengo gusto gustiac
fite acabatzen dira

Esperanzas vizigara
egoteco ceruetan
ta an ezta izango ausenciaric
beti egon alcarregaz

Arathse bay joanbeardugu
arathse ene maytea
orrequin dure amistade
seculaco izangoda

Ene groainciac emozute
ene adisquide gustiai
beitico echeco genteai ta
beytiagoco arreba biai

Onequin aDios maytea
guardazaitela Jaincoac
anitz urte osasunaquin
nic beardudan vecala

Yruñetic, gaur egunen
estaquit zer iletan
orain eta seculaco
naidituzun urtean

Bere escuac mun eguitendu/
chiquiain serbitzalea
zure errendimenduetan
afectuoso adisquidea.

Sasquibat Ardo ezansuena
ta picherbat oguia (2).

(2) "Sasquibat Ardo ezansuena / ta picherbat oguia" ez da bertso biko bat, ezta gaineko olerkiaren zati ere. Olerki berri baten izen-burua da, noski, Gamiz-ek egin eta aldatu-asmo zuena, bainan aldatzeke utzia, gure ikus-galez.

OLERKIAK

Dabilcenchoac, Ofrecimedu batzuc, Oñecochoa, bi Tonu ta Tunuchoa dira Gamizen olerkien izenburuak. Gogo emagun gaztelaniazko Seguidillas, Ofrecimientos Varios, Estribillo, Tona-da eta Tonadilla-en itzulpen zeatzak direla izenburuok denok. Liburu osoaren izena eta, beraz, euskerazko atalarena ere aurrez aitatua dugun "Ofrecimientos varios de Poesía" da bide batez.

Dabilcenchoac

Amazazpi ahapaldi, zazpina bertsoak, 119 bertso denera: oná Gamizen euskarazko estreinako bertsoaketa. Irar-uts askokin Azpiazuk 1926ko Doneztebe-ko euskal jaien ondoren aterea, olerki au bakarra dabil arrezgero gure literatura eta bibliografietan, arabar au euskal idazleen zerrendan ezarriaz.

"Amudioa" du kopla onek kantagai. Neskatxa zoragarri bat aurkiturik artu duen biotzondokoa ta, orren sustrai, bere maitearen edertasuna jalkitzen ditu galai batek.

Kopla presta-lanetan nondik nora ibilia dugun, oin-arrasto batzuen berri atera dezaiokegula uste dut. Kopla zahar eta folk-loreak izan dute or gutxi edo geiagoko zerikusirik, oker ez banago. Folk-lorearen igortzitxo bat edo beste ateman genion lehenago ere, asierako bertso jostalari berrizu aietan, Ez zaio axola kopla zaharrean amar atso eta emen bat bakarra den, zazpi asto ala txerri baten gainean alako atso oiek doazen. San Joan bezperako su-kantaren oiartzuna garbi entzuten da or, Gamiz adinekoa iadaniko gazte saltari aren amesetan delarik:

San Joan dala San Joan
zapatu arratsaldean
amalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoen gainean.

Mutil maitaleak gatibu ikusten du bere burua "prisione baga" neskata eder batek biotzondoa dardaratu dioenentik. Ona koplak zaharra eta Gamizena bekoz beko:

Choriac { arboletan - pocic - libertadeaz - cantaceagatic
kayolan - tristerik - - du kantatzen.
alan (libre) - nai nuque - esta posible!
kanpoa - du desiratzen - libertadea zoin eder!

Bigarren ahapaldian ere kontraz-kontrako berbera, bai lehengo koplarekin,

Chori { egatzen duzu - jaulaco - carcelbaga
ariñac { kanpoa desiratzen - kayolan - libertadea zoin eder!

bai beste bigarren kanta zahar batekin ere:

("ene maytea") { loturic nago - prisione baga
txikitxu polit ori { kateatu ninduzun - librea nintzana.

Zer lotura, zer kate den ori...

Gamiz:

Zure vrresco vleac
ongui loturic nauco
ene maytea
emadazu libertadea

"Zure vrresco vleac
nauco galduric
catena orrequin nauco
ongui loturic
ene maytea
azcatuta emadazu
libretadea".

Lope:

Zure vegui ederroc
cativaturic nave
ene lastana
librea nintzana.

Zure vegui ederro(c)
Ene lastana
Cativaturic nave
Librea ninzaná. (38)

Ondorengo bertsoak neskatxaren erretratoa baizik ez dira burutik beartzetara. Etorriz, Gamiz euskaldunak erdaldunari zor dizkiola geienbat ahapaldiok, esango nuke. Gongora-ko markesak Amalauko batean arabarrari idatzi zionez,

*De vos mismo pretendo aqui valerme
y a vuestros versos compararos solo. (39)*

Izan ere, Dabilcencho-etako neskatxaren erretrato au aurrez gaztelaniaz egina zuen beste emakume batenaren aldakia baizik ez da; alderantzizko aldakia, bainan. Sarri oi duen bezala, mutxurdin zimela pintatzen du erdarazkoan, loratan dagoen udaberriko neskatxa ezea, ostera, euskarazkoan. Bataren eta bestearen aurpegitzar-aurpegitxoak bekoz beko ifini besterik ez dago konturatzeko:

Erdaraz

*Tu cavello erizado...
Palmo y medio de frente...
Tienes una carota...
Con tu nariz torcida...
De color de mostaza
tienes los labios...
Tienes unos dentazos
de burro viejo...*

Euskaraz

*Zure vrresco vleac...
Becoqui duzu zabal...
Duzu aurpeguicho bat...
Zudurra eder ta chuzen...
Duzu...
espanac gorri.
.....duzu
orzac churi...*

Bainan sustrai-bila asita, berriz ere lehengora jo bear: kanta zaharretara. Euskarazkoa erdarazkotik baldin badago, erdarazko au, era berean, beste euskarazko batetik dago. Ikus, ezperen, EVSKALDUNAK poemako "Artazuriketan",

Pitiri Trakets-ek ez du goxôna aukeratu:
nesk zâr baten antza bertsuz emaiten du;

(286-87 berts.)

Ikusi nuanean
 zure ille latza...

Ikusi nuanean
 zure bekokia...

Ikusi nuanean
 nik zure sudurra...

Oiek, goiko ahapaldiei dagozkienak; eta berriro gainera:

En cada ceja...

Entre zeja y pestañas...

*...ocupan tus orejas
 los arrabales.*

*Tu barbilla parece
 ...eres barbuda*

Ikusi nuanean
 nik zure bekaiña...

Ikusi nuanean
 zure belarria...

Ikusi nuanean
 zure okotza...
 gaztaiña morkotsa.

Beste ahapaldi batzu eusko folk-lorearen arikoak ditu, erdarazkoen igortzirik gabe. Onela,

Elurrezco bularra
 zureac dirudi

Ikusi nuanean
 nik zure bularra

Gamizekiko kontuak argitzen diardugula, ezkuta ezinekoa dugu, (salbo eta) ipurdiari buruz emana digun dotrinari atxikiaz, folk-lore bertsoetako bekokiari inguratu dion anaitxo politta (!).

*Tienes una carota
 como un pandero
 que tiene menos gracia
 que mi trasero*

Ikusi nuanean
 zure bekokia
 iruditu zitzaidan
 zartagi-ipurdia.

(Dabilcenchoac-in zerikusirik ez du, noski, ahapaldi onek; bainan arabar olerkaria bere bertsoginean nondik nora ibilia dugun erakus garri dela esango nuke).

Uztagun ori, bainan, eta fiñagotik “jazmiñ eta carmiñ, perla eta rubi” etara goazen. Larramendirenak ditugu lore eta arribitxi oiek; errege gazte ilotzaren itxura edertzeko erabiliak; bainan arabarrak, bertan bera, neskatxaren aurpegira aldatuak. Itz eta irudi berberak bertsogile bien jardunetan, Iztegiak gainera ARTEa ere Gamizek ezaguna eta erabilia zuelazko susmogarri.

Larramendi

Elurrez ta carmiñez
aurpeguia
edertzen
nor gueiagoca
perlac...

Elurréz ta carmiñéz
edértzen aurpegui-á
Perlac ta rubiác ere
norc gueiágo cebiltán.

Gamiz

Jazmiña ta carmiña
matel bietan
gutziz ederra
nazturic
ay ene eperla!

Jazmiña ta carmiña
daode nazturic
zure matel bietan
ondo ifiniric.
gutziz da ederra
amparatu nauzute
ay ene eperla!

Larramendiren Arte-az baliatu ote zen Gamiz, ala, oiko esakun eta pinta-gaiak ziren auek tenore artan? Bateraegi datozela nioke alabear utsez gertatua izateko.

Oñecochoa ta gainerako tonu eta tunuchoac.

Dabilcencho-kume dira “Oñecochoa” ta gainerako bertsojende xehe ori. “Oñecochoa”, verce aldeco dabilcenchoac cantatzeco” dela aurreratzen digu Gamizek. Ondoko beste tonu ta tunuchoak “Dabilcenchoac” nagusi jauna koplazteko egin ditu,

“arendaco” direla bi bider adiaraziaz. Zer esan andirik ez dago xeheteria orretaz. Lelotzat darabailzkian orko ezak eta bayak zaizkigu tenore artako komerietatik ere.

Lacrincron fararirayrena

Lacrincron fararirayron.

Esan-nairik gabeko itz-jokoak oi dira olamoduzko leloak kanta-bertso eta koplætan. Alere, zerbait esan naiko luke “lacrincron” orrek, Azkuek dakarren “Lakrinkun” en pare baldin bada beintzat. “Emakume lakrikuna”, mujer coqueta” damaigu adibidez. Egoki, esan-nai orretan, amodiozko koplak kantatzeko. (“Lakrikun: niño gótico, petimetre” ere txartelean jasoak dut ez dakit nondik).

Lelo zaharra, noski, eta ezaguna. Zazpi bider darabil Munnibek bere El Borracho Burlado“ren azken “scenan”:

“Lakirikon pararirareña,
lakirikon
parariraron”.

“Ujua” generitzaieke berez orrelako esanei, “Emezortzi Serore” izeneko poematxoari jaramon egitera. Ujua eta “Uxta” ere bai; Orixe-k berak erdaratzen digun “resoplidos”, alegia. Uju, “¡jupa labirulena!” (Euskaldunak: Iruleak).

Veste tunucho berribat

Izenak berak aski dio puskatxo au zer den: Dabilcenchokume, aren doinu-ari, ura kantuz emateko. Berezko olerkia, bere buruaren jabe dena, ematen du alere bere amazazpi puntukin. Amazazpiko txaldana, bainan; odol gabea barruz ta baldatxa azalez bere 7-5-5eko bertso-neurritan.

Veste bat ere bai arendaco

Iruzki koxkor au ere “arendaco egina” da, Dabilcencro-
-endako alegia, beste bere senide txikiak bezala. Ala noski,
bere 7-5eko neurriaz ari lotua bai-dago; bainan gaiaz “Ofreci-
medu” izeneko izeneko olerki luzearen ezpal eta arikoa da,
onen itzez osatutako Laukoa denez. “Ofrecimedu” orrek bai-
-dakartzki maitaleak bere kuttunarekin egindako pasierak “al-
dapaz, vallez” eta “errecaldetic”.

Beraz, Dabilcencho-aren xeke-jendearen atze eta Ofreci-
medu-aren aurre dela uste dut bere tokia, bataren eta bestea-
-rengana beso bana zabalik dituela, bien lokarri. Bainan doala
batakin doala besteakin, ez dut uste Poesi andi bietako ez ba-
tak ez besteak penarik izango luketenik ura ondotik galduarren.

Ofrecimedua

Bigarren olerki luzea, au; bainan aurrena ezarria libu-
ruan. Lerrokada luze au ifini zion egileak izenburuko:

*Euscaraz gaiztoetan. Ofrecimedu batzuc. au. eguin za Ga-
rezeraco.*

Sari erabili oi du “ofrecimientos” itza olerkien buru edo
barru. Liburu osoaren izenburua ere OFRECIMIENTOS VA-
RIOS DE POESIA da, izenburu bakar au erdal-euskal sail
biendako dela bidebatez.

ESKAINITZA izena egokiakoa noski ari natzaion olerki
onendako, olermenak barruan irakina inoi eskaintzea denez
gero.

Irudimen utsetikoa Dabilcenchoac, egiaren barrutikoa da,
ostera, Ofrecimedua. Aritze alde soilera ez zen aritu emen ber-
tsoginean. “au. eguinza(n) Garezeraco”, aditzera eman digu
egileak. Gares, Garex, Garez, Puente la Reina-ren antzinako
izen jatorra. EPISTOLA bat da mamiz eta tajuz, Iruñan (?)
bizi eta Garezen andregaiia zuen eskolabako batek eskatuta
egina, antza.

Bertati bertarako solasaldi bat, maite-aitorpen bat, barru-ustu bat, ordainezko karta-eske bat... ori guzia da eskutitz au, urte, il, egun eta tokiaren izen eta guzi, ezagunendako "groainciak" ere falta ez direlarik.

Ez dugu, beraz, aurrekoan bezala, folk-lore ta erri kantetara joan bearrik olerki onen iturri bila. Tenore artako maite-poesia ta literatura irakurria duen susmoa artzen zaio, noski, begi iltzaile ta gainerako orbel oietan; bainan maiteasunari berario dario emengo gaia etorri jator eta naturalean. Orregatik ez du, irudipenezko Dabilcencho aietan bezala, emen bar kapen eskerik ere:

*barcatu bearco duzu
erorean itzac
juicioa galdudut
zuc eraman duztazu
eta itzul bear dust.*

Izkuntzarekiko kezka du azalari edo jantziari buruz. Dabilcenchoetan "neure bildurraz" jardun baldin badu (aur asiberria eror-bildur oi da); emen, bildurta aitortzen ez bazaigu ere, ba daki ibil-baldarra dela ta "euscaraz gaiztoetan" diarduela. Aurrez esanak garenez, Gamizen letra ederrekiko gauzaez eta etsipen gaizto ura ez da jaio-lurretiko edo izkuntzaren traketsetikoa, bere ezjakinetikoa baizik. "Euskal gaizto" ari da.

Sasquibat Ardo ezansuena
ta picherbat oguia.

Gorago ("Zenbat idatzi zuen euskaraz") azaldu dut zer den lerro pare au, lehenengo batean misteriozkoa neretzat, gauza argi ta ziurra gaur. Olerki au eduki izatera, jakin izango genuen nola moldatzen zen Gamiz euskalduna maitetasunaz besteko gaietan. Auetan airosago maitezkoetan baino. Ez dut dudarik egiten.

Zer iritzi Gamiz olerkariari?

Gamiz *euskal* olerkariari, noski. Asi-utzika jardun zuen, tarteka marteka; edo eguoroko lanaren aringarri edo, aldiz, txolarteen betegarri: “por aficion y divertimento”.

Gamiz ez da poeta. Bertsogile geienez ere, txaldan eta baldatzik aski duena gainera.

Eskolako buru-jazterik ere ez zuen izan, berak beratara, betiko bere gora-nai artan bere buruari isil-etzutuan eman ziona besterik. Isila eskatzen dio zertan ari den dakien bati, “pues por un simple borrico me graduarían en casa” (40). “Coadjutor iliterato”tzat dauka bere burua. Geienez ere, “mis conceptillos trasiego”, edo “esta la vena (poética) llena” eta “es imposible q cure ningun medico a este loco” aterako zaizkio bere baikor-aldirik andianean. Erdarazkoei buruz esanok euskarazkoentzat ere balio dute, nor berari datxizkionak dira-ta.

Alako gaitasun eta tresna eskasekin landu zuena ain urria da, bestalde, iritzi bat kopurutzekorik ozta ozta du emanik. Bere sail mear ortan, berriz, landare-mueta bat bakarra landatu zuen: maitetasuna, emakumea. Gamiz, emakume anitz! Eta zer egingo zuen baliozkorik, biotza eman ez zezaikeen maite-bertsotan?

Eremuko bidaztien fantasiako “itxurak” aina dira Gami-zen emakumeak: irudipenak piztu dituen iesiko figurak. Berekari nai bazenitu edo bostekoa eskaini, utsal gertatuko litzazkizuke, txorimaloa bezain gezurrezko.

Egundoko kaskal soinua dute Dabilcenchoac beintzat. Txorimaloa, orra esanik. “Erdera-eran egiña da, erderaz seguidillas ta “dabilcenchoac” esan oi diotenekoa. Euskerazko erorkidetasun ta litzik ez dauka ezer”, idatzi du Azpiazuk, eta ondotik erantsi: “Baño zarra ta pollita”. Ba da merezi duen aina esatea (41).

(40) 22 orr.

(41) Euskera zarraren apurtxoak, Joakin Azpiazu-ren txostena. Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak, Gaubeka (Bermeo 1926), 126 orr.

Obetzat daukat "Ofrecimendua", poesia bakun, tolesgabe, larrekoa. Bere maitearentzat mutil maite-mindu batek Gamizi eragina da; biotzeko sentimenturik ez bai-dago, ordea, truka-tzerik, somazko maitez egina izaki, ba du onek ere naiko motel-eri eta pilpira-falta.

Jantziz ere ez dira itxura obeko. Folk-lore ta erri-kanteta-tik atereak (batzu beintzat, uste dudanez), sail oetan oi diran ahapaldi txukun eta dotoreek zerbait jantziko zituztela Gami-zenak espero ziteen, noski; bainan eder-pantasia askorik gabe atera zaizkio. Erdal egituran biribildu du Gamizek bere ber-tso-jendea; metro arrotz orretan neurtu ere itzen joanera: *suer-tea* (biko), e-ne *vio-tza ne-queaz* da-go, etab. Erabat, Az-piazu berak Recio-renari buruz esana: "Ez dago itz-neurlarien biotzean bear dan goiargiaren dirdir aundirik"...

Bere olerkiekiko iritzia emana da Gamiz bera. "Numen sin quilates" dela berea erro errotik aitorturik, burubidezko on-dorioa atera du ortik: "poesía de poco numen, de poca alma" dela berea. Ta Barkeske datorkigu bertatik:

*que bien merece perdon
el que con afecto canta* (42).

Barkagarri da. Bere begitarako zituen golko-bertsoak, ustekabe-an eta nai-ez'ean plazara ialgita, ain ikusgarri azaldu ez ba-dira, errua ez dezaiogun indarrez eta nausikeriaz etxea zabaldu ta zapaldu ziotenari egotzi.

Besterik izan zen Gamizen errua: bidea ez asmatua. Tre-beagoa zen bertsolaritzarako beste ortarako baino, ene ustez. Zakukada dexentea bait-zuen umore eta maltzurkeriatik. Gau-zak beren farre-adarretatik eldu zalea zen. Adi bidez: "Sasqui-bat Ardo ezansuena ta picherbat oguia" entzunik, bertsotara jo zuen itzetik ortzera, xeibrekeria ura ospatuaz. Ardo-ogi oiek ziren aren izpiritu jostaria bazkatzeko jan-edan egokiak.

Egon ere, aiputan egon zela dirudi Gamiz bertsolaritzan. Artarakoa bai'litzan, "con empresa de versos", "dando pies" tentatzen du Gamiz berez-berez Gongora-ko markesak 1740 abuztuko egun batez, bazkalondo algaratsua igaro nairik.

*Vssia con garabatos
quiso q yo delirase
y q de la raya pasase
para tener q reir.*

Berbera gertatzen da Lizarran, Granadako dukearen jauregian, zazpi urte geroago.

Bainan markesaren puntu fiñak iritxi ez zuena aisa lortu zuen dukesak maliziazko berearekin. Erleak bezala oi dira emakumeak: "pican si las hazen mal". Erantzun kunplitua Gamiz maltzurragandik artu zuena: 130 bosteko, emandako puntuaz bukatuak, eta zortzi geiago aien eskaintza eginaz.

Izenburu orretan eskaini-olerkia eman izan baligu, jakingo genuen garbi zenbaterainokoa zen bide ortatik. Artutakotik beinik bein ez zuen aurrera andirik egin.

"Izkuntza-larientzat sail obeak izango ditu Gamizek, euskal bertso ta letrazaleentzat baino. Nafarlariak eta arabalariak pozik izango dira, probintzia bietako berri bitxi anitz bai-du arabar nafar onek" idatziaz bukatu nuen EGAN-go nere artikulua. Eman-zai dago Gamiz zabala, inori ezer ukatu ez ziona.

GAMIZ-EN HIZKERAZ ZERTXOBAIT

Hendrike Knörr

Jaun-andereok:

Hasiera batez, arabarra naizen honi zera esan zidaten: Gamiz-en aditza aztertu behar nuela. Ordea, ez nauzue ni azterketa hori egiteko behar bezain gaia, eta bestetik beste gauza asko zen aipagarri. Horregatik, neure lanean hauxe egina dut: adizkera desberdin guztiak bildu; hitz eta hitz-eta-morfemak alfabetoari dagokionez ezarri, eta Gamiz-en hizkeraz ohar batzuk izkribatu, neronek baino trebeagoren batek argi handiago noiz emango digun zain.

1. Gamiz-en bertsoak Bizkaiko euskaraz dira batipat, Nafarroakoarekin nahasirik (beude oraingoz esateko modu hoiak).
Ikus:

Bizk.

emon,er(o)ango,
euzqueraz,
uleac, alan
atara, alcarregaz,
bategas,
errespuestea.

Nafar.

eman, eraman,
euscaraz,
belohac, anitz,
ardo, atso ura,
carrica.

Aditza ere bai Bizkaikoa da. Eta Bizkaian sarritan gertatzen denez, "s" eta "z" nahasten ditu Gamiz-ek:

ezan, penas, gaisqui, zabaltazunaz, gusto.

Gernikan maiz entzun dudan legez, Gamiz-ek ere intemporal darabil, intemporal erabili beharrean:

"ifin naiz au eguiten".

Hizkera honen aurrean zer pentsa? Hau nere uste ustela dateke, baina luzaro Iruinean bizi zen Gamiz-ek Iruineko mintzaira hartu zuen, oinharria Sabando-koa zela, ordea. Hauzia, noski, ez dugu argituko euskalkien historia eta gora-beherak hobe aztertu arte (1).

(1) Ikus L. Mitxelena: "Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval". "Homenaje a D. José Esteban Uranga" baitan. Iruinea, 1971.

2. Erdarakadak nonnahi aurkitzen ditugu Gamiz-en bertsoetan. Gisa da, Gaztelan luzaro bizi izanda eta Iruinea garai hartan nahiko erdaldundua zatekelako.

3. "Zarete"/"Zaree" gabe, "zera" aurkitzen dugu, esaterako, Bartolome Madariaga-rengan. Gamiz-ek, alderantziz, honako hau esaten du:

"zera estiaC"

"Berori"-tik "zu"-ra pasatzen da batzutan:

"Zuk eraman duztazu (juicioa)
eta itzul bear dust".

4. Neure/Ene behar den moduan darabil, "nere" nehoiz ageri ez dela.

"zaode ENE gogoan".

"ilco naiz zugatio NEURE penas"

"ifin naiz au eguiten NEURE bildurraz"

"ENE suertea da gogorr"

"ENE viotza nequeaz dago".

5. Baldintzazko esakunak ongi darabilzki Gamiz-ez, subjuntiboa behar den moduan ezarriz:

"albadaygu eguin zerbait"

"ta ifin bazadiz seria".

6. Hona non esakera harrigarri batzuk:

"bodac daucagu"

"gauza gustiac izten dut

"ezcuac duzu leun"

"bere escuac mun eguiten dut".

Nere ustez, horrez (eta bestek) esan nahi du erdarak aurre-rapen handia egina zuela bai Gamiz-engan bai Sabandon eta Hegoaldeko Nafarroan. Gernikan sarritan entzuten da kaleko mutikoen ahotik: "Gizon horrek (= hoeik) ezagutzen DOT", edo "Gauza guztiak baDAKIT".

Adizkera sintetikoak

A. *Intransitiboak*

IZAN

naiz
da
gara
zera

dira, dirade
nadi
bedi
zaiste
zadiz

EGON

nago
dago
zaode, zaude
dagos, daode

(imper.)
gaode

JOAN

noa
doaz

(imper.)

goazen

B. *Transitiboak*

UKAN

dut
du
degu, deugu, dugu
duzu / dituzu
duei

nau
nauzute

deust, dust
duzco
duztazu
dio

nuque
luque

zaitela

EGIN

naizu
eguizu
eguidazu, eidazu

dait (?) (aldaidana)
dai

(alba) daygu, daigu

(alba) nei

EDUKI

nauco
naucazu
daucat
daucagu

JAKIN

daquit
daqui

ERUDI

dirudi

EMAN, EMON

emandazu
emozute

GAMIZ-EK ERABILITAKO HITZAK

acabatzen
aDios
adisquide
adisquidea
afectuosco
agradatzeco
ain (2)
aingueru
ala
alan
albadaygu (2)
albanei
alcateari
alcarregaz
aldaidana
aldapatic
aldeco
aldetic (2)
almorzu
amadioetan (sic)
amari
amistade
amudioa
an (2)
an (2)
andi (2)
anitz
arathse (sic, 2)
arboletan
ardanzera
ardo
arendaco (2)
arime
ariñac
arreba
artara
aspiti
asqui

ataratzen
atso
atzera
au (2)
auhse (sic)
aurpeguia
aurpeguicho
aurrean
aurrera
ausencia
ausenciaric
azcatuta
azpian
aztuco
ay (3)
aytari

ba
ba- (13)
bacarric
baga (4)
bague
vallera
baña (2)
baño
barcatu
bat (9)
batec
bategaz
batzuc
bazuc
bai
bay (8)
bear (6)
bearco
becoqui
bedi
begui

beguiac (2)
 beguian
 beguietan
 beguicho
 beguiratu
 beitiagoco
 beitico
 belchac
 veñere
 bere
 bero
 berori
 berri
 verris
 besoetan
 beste (2)
 veste (4)
 verce
 bestela
 beti (3)
 bezala
 bai
 videa
 bien
 bietan
 bigundu (2)
 viotza (2)
 biotzeco
 viotzen
 vildu
 vildurric
 biraldu
 viurtu
 viurtuco
 vici (3)
 bizi
 vissia
 vizia
 bularra
 busti
 bustiric

 campu
 cantaceagatic
 cantatzeco
 carcel
 carmiña
 carricatic
 carta
 catena
 cer (= zer)

cerren (= zeren. Ikus "zerren")
 ceruetan
 chiqui (2)
 chori
 choriac
 churi (2)
 chuzen
 copla
 cumplitua

 da (9)
 dabilcenchoac (2)
 (espa) dagos
 (espa) daigu
 (ba-) dai
 damuric
 daode
 (ba-) daqui
 (ba-) daquit
 daucat
 daude (2)
 degu (4)
 dugu
 deugu
 descansatuco
 deust
 dust (2)
 dio (2, ukan)
 dio (2, jo)
 dira (2)
 dirade (3)
 dirudi (2)
 disparateac
 dituzun
 doaz
 du
 dudan
 dudanac
 duei (= dute)
 duenac
 dut (7)
 (ba-) dut
 duzu (11)
 (ba-) duzu (2)
 duzu (1a)
 duzco (= deusku)
 dulce

 echeco
 hechera
 eder

ederra
 edo (3)
 egatzen
 egaz
 egon (4)
 egoteco (2)
 eguin (2)
 eguingo (2)
 eguiño
 eguiten (4)
 eguidazu
 eidazu
 eguizu (2)
 eguinza
 egunen (3)
 egunez
 elurrezco
 emengo
 eman
 emango
 emadazu
 emozute
 eraman
 erango (= eroango)
 erderaz
 ere (3)
 eriotzea
 erorean
 erremenduetan
 errecan
 errecachoa
 errecaidera
 errecaidetic
 errespuestea
 errotara
 escua (2)
 escuac
 ezcucac (2)
 espanac
 estiac
 esperanzas
 es (taquit)
 es (tu)
 es (tuzu)
 ez (tuzu)
 ez (tut) (2)
 es (padu)
 es (padagos)
 eta (7)
 euqui (2)

euren
 euscaraz
 euzqueraz (2)
 ez (9)
 ezan (= esan) (7)
 ezaun
 ezaundu
 ezin

faire (2)
 faralaralarequi
 fararirayrena (2)
 fite
 fixoric
 fortuna

gaisqui
 gaizqui (3)
 gaizto
 gaiztoetan
 gaiztuco
 galant
 galantea
 galdu (2)
 galdua
 galduric (2)
 gaode
 gara (7)
 garezaraco
 gaur (2)
 gauza (2)
 gauzac (2)
 gavez
 genteai
 goazen
 gogoan
 gogorr
 gogorraco
 gorputz
 gorputzetan
 goytira
 gozo
 gorri
 grocinciac
 gusto
 gustos
 gure (2)
 guarda
 guero
 (-az) guero

gueldi
 guerra
 gucia
 guciac
 guziac
 gustiac (2)
 guztiz (2)
 gustiai

 icuzco
 ycuco (2)
 ibilco
 ibili
 ifin (2)
 ifini (2)
 ifiniric
 iguzquiac
 yguzquia
 il
 ilco
 ilic
 iletan
 ilundu
 Iruñetic
 iltzeaquin
 irago
 iragoco
 iragoteco
 iraungo
 itsulceco
 itzul
 itzac
 itzalera
 izango (2)
 izten (= uzten)

 Jaincoac
 jantziric
 jaulaco
 jazmiña
 joan (2)
 joango (2)
 juango
 joateco (2)
 jotziza (= josita)
 jucatzera
 juicioa

 -la (2)
 lacrincron (2)

laster
 lastima
 laztana
 len
 lenago
 lepoa
 leun
 libertadea
 libertadeaz
 loturic (2)
 lotza
 lotzaric
 luce
 (ba) luque

 matel
 matsic
 maytea (3)
 mea
 mina
 miñ
 mintzacen
 mun
 munduco
 mutil

 nadi
 nago (2)
 nai (8)
 nay (2)
 naiz (4)
 naiz (la)
 naizu
 nau
 naucazu
 nauco (2)
 nazte
 nazturic
 negarrez
 negarretan
 nequeaz
 Nerone
 neure (2)
 ni (6)
 nic (4)
 noanean
 nola (2)
 nornay
 normalc
 nuque

obequi	serorean
odey	suertea (2)
ofrecimendu	
oguia	ta (15)
oliboan	(es) ta (2)
ondo (3)	(ez) ta (2)
ongui (2)	(es) taquit
on	tentacio
ona	(es) tuzu
onec (akt. sing.)	(ez) tuzu
onela (2)	(ez) tut (3)
onequin	tonuarequin
oña	tunucho
oñecochoa	tortilla
or	
orr	uda
ori	uleac
orra	ura (= hura)
orrequin (4)	urdaiaz
orain	urresco
orzac	urte
osasunaquin (2)	urtean
oso	uzte
ozpina	
-pa-	
paseo	zabal
paseatzera (2)	zabaltazunaz
paseatuta	(ba) zadiz
(ez) pedi	zaita (= zaitza)
penas	zaiste
perfeccioac	(ezpa) zaiste
picher	zaiste (1a)
piadade	zaode
pistu	zaude (2)
pocic	zeinda
posible	zer
preciso	zera (= zara)
prisione	zera (1a)
probechu	zerbait
	zeregatic
refrescatuaz	zerren (= zeren)
	zure (10)
Sangregorio	zuc (2)
sasqui	zugatic (5)
seculaco (2)	zu
serbitzalea	zubira
seria	zudurra
seriedadea	zureac

Oharra: Hitz-zerrenda hau ez dagokio beti alfabetoari. Elkarren zer ikusirik duten hitzak ondoan ezarri ditut maiz.

Hitzak bertsoetako zer lekutan dauden erraz da edireiten, hirurehuntsu bertso besterik ez delako. Parentesis arteko zenbakiak zera esan nahi du: zenbat aldiz agertzen den hitza edo hitza eta morfema. Zenbakirik ez denean, jakina, behin bakarrik agertzen dela esan nahi da.

DABILCENCHOAC

Joan Bapta. Gamiz

Erderaz eztuzu nay
ene viotza
euzqueraz copla eguiten
eztut nic lotza
Ycuzco deugu
albadaygu eguin zerbait
nola beardegu.

Gaizqui ba doaz ere
orra euzqueraz
ifin naiz au eguiten
neure bildurraz
eguizu farre
gaizqui mintzacenbadut
lotzaric bague.

Choriac arboletan
dirade pocic
euren libertadeaz
cantaceagatic
alan nainuque
egon ni ere baña
esta posible.

Ay ene chori arifiac
egatzen duzu
jaulaco carcelbaga
fortuna duzu
nic ecin ala
cerren loturic nago
prisione baga.

Lenago ezaun du baño
uzte duei guciac
Neronebat zerala
bay zera estiac
dulce ta gozo
zugatic gauza gustiac
izten dut oso.

Ene suertea da gogorr
zu gogorrago
ezpazaiste bigundu
galduric nago
bigundu zaiste
orrequin gure gauzac
dirade nazte.

Farre eguiten baduzu
dirudi Aingueru
ta ifin bazadiz seria
gucia da ilundu
ene Yguzquia
odeybaga icuzcodut
zure aurpeguia.

Zure vrresco vleac
nauco galduric
catena orrequin nauco
ongui loturic
ene maytea
azcatuta emadazu
libertadea.

Ay ene begui belchac
 ilic naucazu
 euqui eguizu piedade
 ta pistu naizu

Ay ene mina
 enezat gauza guciac
 dirade ozpina.

Zure beguietan dago
 ene suertea
 naibaduzu vizia
 edo eriotzea

ene laztana
 zugatic eguiñgodut
 nic aldaidana.

Duzu beguicho bazuc
 ta aurpeguichobat
 a egaz joatecodut
 tentacio bat

gaode gueldi
 obequi da ondo egon
 ta ez gaizqui ibili.

Jazmiña eta carmiña
 daode nazturic
 zure matel bietan
 ondo ifiniric

gutziz da ederra
 amparatu nauzute
 ay ene eperla (1).

Ezcuac duzu leun
 lepoa churi
 elurrezco bularra
 zureac dirudi

or vildu duzu
 munduco perfeccioac
 nola bearduzu.

Becoqui duzu zabal
 eta orzac churi
 zudurra eder ta chuzen
 espanac gorri
 guztiz cumplitua
 zure amadioetan nor nay
 daude galdua.

Guerria duze mea
 eta oña chiqui
 gorputz duzula galant
 nor naic badaqui
 onec il nau ni
 nai duenac vizi onequin
 ezpedi ifini.

Ain laster zeinda ezaundu
 jotziza ziotzen
 iltzequin zure amudioa
 ta ezta ataratzen
 dago fixoric
 veñere eztut aztuco
 ta eztut damuric.

Asqui da ezan dudana
 disparteac
 barcatu bearco duzu
 erorean itzac
 juicioa galdudut
 zuc eraman duztazu
 eta itzul bear dust.

— “jotziza” errata bat da, noski; “josita” bear duela dirudi, “iltzequin josita, ta orregatik” dago fixoric”.

— “eroREAN”: Cf. Azkue, Morfologia; item Iztegi Aundia, letra R, “-Rean” Tomo II, edic. Gran Enciclopedia Vasca, pág. 193, col. 2-3. Et passim.

(1) Nere ustetan “eperra”.

— Lehenengo ta bigarren olerkien artean “Sasqui bat ardo esansuena/ ta picher bat oguia” ikusten da. Gauza arraroa! Zer da hori? Olerki baten izen-burua, inolaz ere; Gamizek kopiatu nahi izan zuena ta, damurik, kopiatu gabe utzia. Olerki gehiago idatzi zuen siñale garbia, noski.

EUSCARAZ GAIZTOELAN. OFRECIMEDU BATZUC. AU, EGUINZA, GAREZERACO

Ene viotza nequeaz dago
ausencia luceonetan
ene beguiac bustiric
zugatic negarretan.

Beti gavez, eta egunez
zaode ene gogoan
zure seriedadea daucat
beti beguian aurrean.

Beguiratu eguidazu
Lastima andibategaz
bestelacorren ilconai
zugatic neure penas.

Naibaduzu vicinadi
biraldueidazu carta
eta an ezan eguidazu
berori bizi dala.

Osasunaquin bazaude
ni miñbaga egongonaiz
zeregatic, zure gauzac
guciac eneac dira.

Zu gaisqui bazaude ni
preciso gaiztuconai
cerren bien gorputzetan
bacarric da arimebat.

Albanei ni orr egon
joateco paseatzera
atso ura estegu erango
bacarric joanbeargara.

Joango gara naibaduzu
zubira edo errotara
edo serorean aldetic
aspiti errecaidera.

Beste egunen beste aldetic
zure paseo artara
ta errecachoa iragoteco
emango deust escua.

Espadu nai escua eman
iragocodut besoetan
estu cer vildurric euqui
bustizaistela errecan.

Albadaygu veste egunen
joangogara ardanzera
matsic espadagos ere
gustos ibilco gara.

Almorzu ona erango degu
tortillaonbat vrdaiaz
probecu andi egingo duzco
campu zabaltazunaz.

Sangregorioco aldapatic
goazen verris aurrera
videa ezpadaigu galdu
guero itsulceco atzera.

Bero eguin badai iguzquiac
juangogara itzalera
ta descansatuco degu
oliboa azpian.

Onela ondo paseatuta
viurtuco gara hechera
ta ondo refrescatuazguero
ifini juczera.

Onela iraungo baluque
auhse da bay vissia
baña emengo gusto gustiac
fite acabatzen dira.

— “bestelacarren” (!) Errata bat dela argi dago = “bestela cerren”; fotocopian aise ikusten da itza gaizki idatzi ta letra bat ezabatuz konpondu nai izan zuela

Gamizek.
(Juan Bapta. Gamiz.
Sabando 1696, + Casa Lequio, 1973. Olerki argitara gabea. Loyola.)

EUSCARAZ GAIZTOETAN

Esperanzas vizi gara
egoteco ceruetan
ta an ezta izango ausenciaric
beti egon alcarregaz.

Onequin aDios maytea
guarda zaitela Jaincoac
anitz urte osasunaquin
nic bear dudan vezala.

Arathse bay joan bear dugu
arathse ene maytea
orrequin gure amistade
seculaco izango da.

Iruñetic gaur egunen
estaquit zer iletan
orain eta seculaco
nai dituzun urtean.

Ene gorainciac emozute
ene adisquide gustiai
teytiagoco arreba biai.
beitico echeco genteai ta

Bere escuac mun eguiten dut
chiqui ain serbitzalea
zure errendimenduetan
afectuosco adisquidea.

OÑECOCHOA, VERCE ALDECO DABILCEN/CHOAC
CANTATZECO. TONUAREQUIN

Bay; Bay.
ez, ez, ez, ez, ez,
Zugatic ene beguiac
daude negarrez

ez, ez
bay, bay, bay, bay, bay.
ni joan nai zurequi eta
zuc estuzu nay.

VESTE BAT, ARENDACO

Lacrinron fararirayrena
lacrinron fararirayron.

VESTE BAT ERE BAI
ARENDACO

Goazen goazen goytira
goazen vallera
goazen errecaledetic
gaur paseatzera.

VESTE TUNUCHO BERRI BAT

Mutil batec ezan dust
 naizla galanta
 badaquit ori
 carricatic noanean
 jantziric ongui
 agradatzeco
 "esan dio" segur aski
 ezancio Alcateari
 ene biotzeco

farala ralarequi
 ezandio Aytari ta
 dio viurtu bedi
 Amari ezan ta dio
 ycuzco dugu
 errespuestea esta gaizto
 bodac daucagu
 vda irago bañolen
 beardegu ezcondu.

URKABUZTAIZKO TOKI-IZENAK

Kepa Enbeita

Arabako lurrean bizi gera. Urkabustaiz Udal'ean. Euskeraz mintza gera gu lur honetan eta ez da jendea ez eta lurra horrekin arritzen. Arabako, batez ere Udal honetako, lehengo tradizioarekin ondo lotzen da gure mintzaira. Ez dugu jendeen deitura, etxeen izen eta lurren izenari begiratzea baino. Gizonak elkarri izen bat jarri diete eta baita ere bere lurreri. Izen horrek jartzean arrazoi bat izan zuen, gizonaren nungoa eta kualitatea, edo lurren baliotasuna. Eta esan-nahi edo arrazoi hori itzean, izkuntzan gelditu zan. Hau kultura bat da, herri kultura. Eta guganarte eldu da, nahiz eta guretzako ilun egon izen horren lehenengoko arrazoia. Hau Lehengoan kultura belaunik belaun izkuntzaren bidez mantenitzea da.

Esan dut Urkabustaiz Udal'ean jendea eta lurrak ez direla arritzen gu euskeraz mintzatu arren. Jendeen abizenak, emen ez dira "patronimico" deritzen horretakorik asko, honelakoak dira: UGARTE - ITURRATE - INTXAURREGI - URTARAN-LARRAZABAL - MURGA - EGILUZ - AGINAKO - LANDAZURI - URBINA - SARALEGI - LARREA - TEILAETXE - SALAZAR - URIONDO Ta abar.

Izen hauek ez dira errez galduko belaunik belaun iraungo dutelako aitaren izenez semea ezagutzea edo deitzea legeak agintzen duen bitartean.

Lurren izenak beztela, gizonak bere lurrari bere kualitate edo arrazoia adierazteko eman dizkion izenak, galtzeko zorian daude, eta ez gizonak, erabiltzen ez dituelako. Gizonak izen hoiek erabiltzen ditu eta izen horrekin ezagutzen eta ezagutu-arazten du bere lurren lana eta lan egiteko kera. Baserrian berderen, baserritarraren bizitzaren parte dira bere lurren izenak.

Urkabustaizko Udal'ean lur izen hauek entzun ditezke jendearen agoan eta paperetan idatzita dauden bezala jarrita, interpretaziorik eman gabe, ez eta aldaketarik egin:

IZARRA - MARROBARO - BASAUDE DE ARRIBA -
IZARZA - IGALDE - SOTETA - CASCO BELUNDA - LOGORRI - LACUINAGA - PERRUNIARAN - ITURRI - SANTORZARDI - BASARRATE - CASCO ONDONA - MARTOSOLO - ZUBINTO - ALEDIAGA - ESCARGA - UGARCARA - ARANA - AGIRZA - ASPURU - LA ERIA - MENTEGI - ARRANSARI - TENTORRA - RESCANZABALA - PARITIBAR - URIACARNO - LEZABERRI - MURIAGA - ALDAY - LANGIZANO - UGALDE - LA ZUREZA - URRIQUIBARRA - USASO - OTAZOLO - ZEBERRI - IZAURA - ESLABAN - GIBIJO - ARTIKO ALDAY - RIBASTEL - IBAIZABAL - LANDABERDE - ECHABE - SAKONA - IGIDU - INOSONDO - AMEZOLA - ARRARTIGUTXI - ARKAZA - PARRAMBURO - LEZIAGA - IBARROLA - BONIAGA - SOLAGACHO - BASALDE - UGARTE - PARRAZAR - CHABONARTE - PADURCOBARRUTI - OYARBE - OCARANZA - SOLANDI - ARTEAGA - USASOLO - GODAMITURRI - ESCARZA - GODAMO - QUEREJAGA - CORTETA - IBISI - VENTAS DE UGAZI - SARASOLA - AMARROGUIN - PADORGAN - LA RABALZA - PETROSOLO - ZAYA - OZKUBE - PADURAS - ZORROQUIN - SURIONDO - BERAZA - ORRUMA - POLITURRI - ARRASTARIA - ALTUBE - LARRABE ABAJO - LARRABA ARRIBA - ZUBIGUTXI - ESCAILARREGUI - ARGISTE - LANDAZABAL - SORROSTE - SUSARNA - OYARDOBE - CASTRO ONDONA - DEHESA ONDONA - ITURRIOZ - PARRANGIBEL - MENDIBIL - SARACHUBI - ZUBIGITXI - LARRABE - BIZKARRA.

Izen honekin eta atzerakoekin baserritarrak ezagutzen ditu bere lurrak. Orainartean ala izan da eta baserritarrentzat izen horrek historia bat, bizitza bat daramaki barnean ainten-aitengandik jaso.

Orain "Concentración Parcelaria" delakoarekin izen honekin denak galduko dira ezer esaten ez duten izen abstraktoek ordez sarturik: polígono 1, polígono 2 ta abar; lurrak beren izeenez ez eta numero batekin ezagutzuz, lehenarekin eten bat eginez.

Ez ahal da posible, esaten dugu, ondo dagoen "Concentración Parcelaria" hori eginagatik lurren izenak konserbatu? Polígono X deitu beharrean, Ugarte, Solandi. Lurgorri edo gutxi asko tokatzen zaion izenez deitu, lehenarekin etenik egin gabe, lur honetan gure mintzairak utzi duen kultura jarraituz berrizatzeko? Ez dakigu zein téknika problema sortuko duen honela egin nahiak, baina ez dugu aurrez problema aundirik ikusten.

Dei bat egiten diegu ahal duten instituzioeri, batez ere gure lehenaren ain konserbadore ona den Diputazioari, problema hau kontuan artu dezan eta posible dan nehurrian soluzioak eman.

Herrietan bizi dan jendearentzat bizitza bat galtzea da, beti izan duen izen hori, lurreri deitzeko izen hori kentzea; eta izkuntzarentzat eta herriarentzat kultura galtze aundi bat.

Bi itz honekin ez dugu problema planteatu besterik egiten. Estudio baten aintzin solas besterik ez da. Estudio hau Diputazioari berari ere eskatu daitekio ta Euskaltzaindiak laguntza eskaini. Diputazioak uste dugu badituela bideak hau egitako.

Gure partetik ez dugu denporarik izan gauza sakonik egiteko. Baina problema mai gainean dago.

Egunen batean, paradisura eldu aurretik izango ahal dugu denpora gehiago ta ekingo diegu lan honi edo besteri edo behar danari begira lan egiten.

Gaurkoz ez da aintzin solas edo oihu bat besterik.

Donostia, 73-V-25

LEIZARRAGAREN ADITZA DALA TA

Josu Oregi

FONTES-en 11.gn alean (1972 urteko IV.ean), Arestik FLEXIONES VERBALES EMPLEADAS POR LEIZARRAGA DE BRISCOUS, EN SUS TRADUCCIONES VASCAS DE 1571 delako lana eskeintzen digu beraskoiztarrak darabilzkien aditz-flesioen hurrenez-hurrenezko zerrendaz osaturik.

Jakiña denez, Lafon-ek lan hori dagoaneko egiña zuen (LE SYSTEME DU VERBE BASQUE AU XVIIe. SIECLE, Leizarragarenez gainera Etxeparenak, REFRANES Y SENTENCIAS-ekoak eta Garibairenak barne dituala. Bestalde, Arestik ez bezela, aditz-flesioei ditxekon Leizarragaren esakuneak ororik ematen dizkigu, aditz-arauak ulertu ahal izateko lagungarri. Arestirenaren eta Lafonenaren alderatze bat aixa egitekoa dugu beraz, bat ote datozen ikusteko.

Oharkabean edo irar-lanean ixuritako bi huts aurkitu dizkiot Arestirenari lehen-begiratu batean.

Lehenbizikoan, eta ATXEKI aditzaz diharduala,

C) PASADO DATIVAS DE PASIVAS

De singular 1a.

singular 3a. ZATXEKAN jartzen du,
(NI hari) ZATXEKAN, beraz,
(HURA hari) ZATXEKAN.

bear lukeala garbi dagoenarren.

Bigarreanean, NORK-dun aditz laguntzallearenetan,

(haiek haik) dituZkeite

dakar; Leizarragak, ordea, "ditukeiZte" ematen du (1), Arestik berak zuzen aldatzen dituan

litukeiZte, ditzakeiZte, zitzakeiZte, litzakeiZte

(1) ... "hec ikussiren ditunqueiZtenen gainera..." (Ap., XI-11).

flesioetan bezelaxe Z askargillea KE atzizkiaren aurrean ez bañan TE aditz-jabearen ondoan daramala (2).

Huts larriagoa, noski, Lafonek

ETXEKI eta EXEKI/IEXEKI

eta beste zenbait gramatikalarik

ATXIKI eta IZEKI

deitzen dieten aditzak nahastu, eta horien flesio guztiak AT-XIKI-renak bai-liran ematen dituanean egiten duena.

Leizarragarenak azter baditzagu, egungo gure X eta TX, esateko hutsik egiteke CH eta TCH-ren bidez ematen zituala ikusiko dugu; Arestik berak ere, arau horrekin bat datozen.

xede-xipi-xahu-xoil-gaixto-xuxen-khexu-katexima
enpatxa-altxa-bortxa-etxe-behatxu-martxo

eta beste zenbait eta zenbait aldatzen dizkigu.

Leizarragak dakartzkien aditz-flesioak honako hauek ditugu:

- 1) labe daichekanera... (Mat., XIII-42)
- 2) eta gatchetzan honen heretageari (Mat., XXI-38)
- 3) catchetzate hari (Mat., XXVI-48)
- 4) hari catchetzate (Mark, XIV-44)
- 5) candela cachecana (Juan, V-35)
- 6) ene manamenduey datchetena (Juan, XIV-21)
- 7) (hura) baitzatchecan synagogari (Ap. E., XVIII-7)
- 8) eta guciy baitacheté Iaincoaren zeloa (Ap. E., XXI-20)

(2) Irar-hutsa dala agerian dagoenarren, aditz batua dela eta DITUKE/DITUZKE bikotean bigarrena nahi eta ezko dugula esan izan denez gero, oraingo honi aipatu beharrezko derizkiot. Ni neu ere DITUZKE aukeratzearen alde nagoenarren ez dut uste, Leizarragarengan finkaturik benintzat KE-ren aurrean Z jartze hori hautsi eziñeko lege dela esan ditekunik.

- 9) ecen gaizquia datchetala niri (Errom., VII-21)
- 10) eztatchecalaric buruari (Kol., II-19)
- 11) on denari catchetzate (Tosal., V-21)
- 12) haren oinac ... labean beçala çachetela (Apok., 1-15)
- 13) çazpi lampa suz çachetenik (Apok., IV-5)
- 14) stang suphrez çachecan batetara (Apok., XIX-20)
- 15) suz eta suphrez dachecan stagnean (Apok., XXI-8)
- 16) letra elkarri datchetzanac (Abc)
- 17) sacramenduac hitzari ... datchetzala (I. C. gure Iau-
nuaren Euangelioco doctrina purari...)
- 18) Elcarri datchetza (Christino batec...)

Flesio horietaz gainera, alde batetik.

ETCHEQUIDURA (eta ERATCHEQUI, ERATCHEQUI-
TEN, ERATCHEQUIRIC), eta bestetik.

IECHEQUI (eta IRACHEQUI, ERAICHEQUI)

dakarzkienez gero, CH-dunak IEXEKI/IZEKI-ri eta TCH-du-
nak ETXIKI/ATXIKI-ri dagozkiela garbi ikusten da (3).

Bestalde, erabil-legez ere bi aditzok ezberdin ditugu.

ETXIKI/ATXIKI, NORK gabeko NORI-dun dugu, EUTSI,
JARRAI eta EKIN bezelaxe, eta

ni sokari nautso

ni bideari narraio/narraika

ni lanari nakio-ren

arau berdin-berdiñez,

ni sokari natxikio/natxeka

dagokio zuzen-zuzen. Lekuko, eta Leizarragarenen baieztagarri,

Oihenarten ATXEKA (HI HARI), (HURA HARI) DA-
TXEKO/DATXEKA

(3) Arestik, ordea, Leizarragaren IRACHEKI (Katix., 35 igandea
IRATXEKI aldatzen du.

Axularren (HURA HAIEI) DATXETE

Mendiburun (HAIEK HARI) DITXEZKO, (HURA HARI)
ZITXEKON

Agirren (HAIEK HARI) DITXEOZKA

Lardizabalen (HURA HARI) ZITXEKAN/ZITXOKAN/
ZITXEOKAN

eta abar, eta abar.

IEXEKI/IZEKI-ren hauzia nahasiago azaltzen da. Lardizabalen GRAMATIKA-n IRAKIN, IRAUN eta JARDUN-en kide dugu, NORK-dun, eta aditz-gai ezagunik ez daukanarren flesioan HURA itxurakoa daramana beraz:

nik dirakit - diraut - dihardut - DIZEKAT

Hala ere, lehenago NORI-dun izana bide dugu. Lardizabalek berak (Test., 512)

gure biotzaI etzizekaten

dio (4), Larramendik ere Mendibururi egindako eskutitz batean

zure biotzaRI dizeka

idazten du, eta Leizarraga bera ere, TESTAMENTU BERRICO MATERIEN ERIDEITECO TAULA-n

berroaRI suz iechequi

jartzen dauanean, erabil-arau zaharrago horren lekuko dugu.

INOTSI-ri eta ERAGON-i antzera gertatu bide zaie, Azkuek jasotako

edurraRI deragoio - euriaRI dinotso

NORI-dunen aldean Lardizabalek

niK deragoioT - niK biñotsaT (< b (ad) inotsat)

ematen bait-ditu. Lehenago NORI-dun izan,

haRI deragoIO → harK deragoio

haRI diñotsO → harK diñotso

(4) Azkuek, "biotzaK" behar lukela dionean, zuzenketa ustel bat egiten dio.

aldakuntza gertatu, eta NORK-dun bihurturik
 nik deragoiot, hik deragoiok, hark deragoio, guk deragoiogu...
 nik diñotsat, hik diñotsak, hark diñotsa, guk diñotsagu...
 sortu izanaren itxura oso-osea daukate (5).

Lafonek egiten duanez Leizarragaren IEXEKI NORK ga-
 beko NORI-duntzat jotzea bidezko da beraz. Nolanahi ere, IE-
 XEKI/IZEKI-ren eta ETXEKI/ATXIKI-ren erabil-arauak na-
 hastu eziñekoak dira.

Honela bereiz ditezke, beraz bi aditzon flesioak:

ETXEKI/ATXIKI-ri dagozkionak,

hura neri orain
 hura hari orain
 hura haiei orain
 gu hari orain
 zuek hari orain
 haiek hari orain
 hura hari lehen

DATXET 9.gna.)

DATXEKA (10.gna.)

DATXETE (6.gna.)

GATXETZA (2.gna.)

ZATXETZATE (3,4 eta 11 gnak)

DATXETZA (16.gna)

ZATXEKAN (7.gna)

IEXEKI/IZEKI-renak berriz,

hari orain
 hari lehen
 haiei lehen

DAIXEKA, DAXEKA (lehenbizikoa eta 15.gna)

ZAXEKAN (5 eta 14.gnak)

ZAXETEN (12 eta 13.gnak)

(5) Schuchardt-ek flesio hauek euskal-aditzaren bilakakuntzaz jabe-
 tzeko garrantzi aundikotzat jotzen ditu. Horretarako, aditz murritzei bere
 murribasuna nondik datorkieken sakonki azertzea oso interesgarri litzake;
 ez ordea banan-bana, oro-har baizik.

Zortzigarrena zalantza-bide gertatzen da. Aditz-gai ezaguna daukanez gero (Iainkoaren zeloa), eta NORI-dun izaki, Lafonek ATXIKI-renen artean jartzen du, bidezko danez.

Hala ere, greko hizkuntza ezagutzen dutenei galdera bat egiten ausartuko nintzake; izan ere, Leizarragak

... eta guciey baitacheté Iaincoaren zeloa
dion hori, aurrean (Lafonen aburuz) euki zuen frantseszkotan

... et tous son zelatuers de la loy
dakar. Grekozko "zelotai" (hots, ajolatsu, arduratsu) dugu
beraz esakune horren giltzarri; bestalde, Duvoisinek

... eta guziak legearen aldera *khartsu* dire
itzultzen du, eta Zaitegik "arbasoen ekanduak ardurarik *go-riena*" zaintzen zituztela dio.

Zenbait erderetan, berriz, "celo" horren beste esanahia (abereen ar-gosea, alegia) euskeraz bezelatsu "beroa" adierazten duten hitzen bidez ere ematen dute:

euskerazko BERO, GAR, GORI
frantsesezko CHALEUR
italierazko CALDO
inglesezkko HEAT, e. a.

Gazteleraz ere, ARDIENTE izan ohi da, esaterako, CELO-ri itsastan zaion izen-lagun bakarra.

Leizarragak ere ez ote zuen, agian, bide hortatik jo nahi izango? Horrela izatera flesio hori ATXIKI-rena ez baiñan IZEKI-rena genuke, X-ekin idatzita egoteaz bat letorkela.

Diodan hau ontzat hartzea bestetik oztopabide litzaigukela aitortu behar, ordea, "Iainkoaren zeloa"-ren ordeZ "ze-loZ" edo bait-legokioke,

suZ iexeki
bezela zeloZ iexeki
izan zedin. Dakitenak mintza bitez.

Diodan, bukatzeko, Lafonek, Schuchardt-ek esana jasoaz, bi aditzok iñoiz bat izan zitezkeala onartzen duela. Ni neu ez nator uste horrekin bat, baiñan nolana ere Leizarragarentzat bi zirala argi eta garbi dago.

Arestik, beraz, bi aditz nahastekatzen dizkigu, eta hortik.

DAXEKA, ZAXEKAN eta ZAXETEN

emateke utzi eta Leizarragak ez dakarren ZATXETEN sartu izatea.

Dena dela, bere horren gisako lanak onuragarri dirateke, euskera-gaietan noiznahi sortzen zaizkigun gandoak hastandu eta zoko illunak argitzeko bultzagarri.

SUA IZTUPARI BEZALA GATXETZA GU EUSKARARI

Gabriel Aresti

Oregi jaunak “off-side” hartu nahi ukan nau, edo hartu egin nau, berdin dit. Mila eta hirurehun eta gehiago flexio berbal dituen katalogazio batetan hiru huts aurkitu dizkit. Hori gaitikeko begirada batetan, ezen sakonkiago behatu balu, gutiezez hamar aurkituko balizkidake, edo hamahiru.

Gainera Lafon jaunak lehenago egin zuen lan hori. Baina isiltzen edo ignoratzen du Oregi jaunek, Lafonek baino lehenago lan ber-bera egin zuela Dodgsonen. Beraz, infernu ber batetan erretzeko gara biak.

Oregi jaunarentzat, Lafon jaunarentzat bezala, gauza bat da “datxeka” eta beste bat “daxeka”, lehena gaztelaniazko “agarra” eta bestea “arde”. Bai eta, seguru aski, Leizarragarentzat ere. Axularrentzat ez. Ez eta, enetzat ere.

Hala eta guztiz ere, ene lanean gauza bat zegoen objetibo, eta beste bat subjektibo. Objektiboa flexioen bilaketa zen, eta subjektiboa haien klasifikazioa. Arrazoi bakar bategatik klasifikatu

nituen bi tipoak batera: Leizarragak berbo hori, edo hoik, flexioetatik aparte erabiltzen ez duelako: Bakarrik haien faktitiboak: “eraichequi”, “eratchequi”, “iechequi”, “iraichequi” eta “irachequi”, beti lehen aipatutako bigarren zentzuan, eta deribatu nominal bat: “etchequidura”, hau lehen zentzuan.

Leizarragak bai, CH-dun flexioak Oregi jaunak aipatzen duen zentzuan erabiltzen ditu, salbo kasu batetan. Oregi jaunak, kasu honetako difikultatea errazteko, grekora jo nahi du. Ez dut joera horren premiarik ikusten, mundu guztiak jakin behar baitu (zeren hala probatu baitzuen Buonaparte printzipeak: “Le Verbe Basque en Tableaux”, pág. 83), Leizarragak bere tradukzioak frantzesetik egin zituela.

Enezat, berriz diot, berbo bakar bat dago honetan “atxeki” (edo “etxeki”). Gaztelaniaz *prender* erranen nuke. Eta berdin datxeka iztupari sua edo orratz bat edo esku bat, berdin datxeka Oregi jaunari ama euskararen ganako amorioaren sua edo eztarritik gorbata dotorea.

Baina hizkuntza dialektalizatu egin da, eta suaren atxekitzeari modu batetan erraten hasi zen, eta gainerako gauzen atxekitzeari bestela. Honela ailegatu gara Bizkaian erraten ditugun “eskegi” eta “isitu” hauetara, giputzei hain nardagarri zaizkien hauetara.

Beraz bekatu bekar bat aitortu behar dut: Hizkuntza beridiomatizatu nahi ukana.

Neure eskerririk beroenak errendatu behar dizkiot Oregi jaunari “off-side” hau seinalatu didalako, baina ni ez nintzen aritzen footballean, rugbyan baizik. Eta erregelak diferente dituzte jokook.

Arrasate, 73-VI-21

ARRASATEKO BATZAR EGUNEAN EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA

Jaun-Andreak:

Egun on guztioi!

Arrasateko herri bizkor, langile eta aurrera-zale honetan egiten du gaur batzarrea Euskaltzaindiak. Halaxe eskatu zeniguten eta guk halaxe hitz eman genizuen. Asko luzatu dugu hitz horren betetzea, baina azkenean heldu da eguna. Eta batzarrea Arrasaten egiten denez gero, bidezkoa zen Arrasatek eman dituen euskaltzale ospetsuak bertan gogoratzea. Ez denak, noski. Honelako ospakizun labur batean ezin gai hau bere zabalera eta luzeera guztian hartu. Bi jaun gogoratuko ditugu, bakarrik gure batzarrean: Juan Karlos Gerra eta Severo Altube. Biak Euskaltzaindi honen batzarkide izanak. Biak herri honetan edo jaio edo biziak. Eta biak guztiontzat ispilu eta eredu bikainak.

Guk hemen batzarre hau egiten dugun unean bertan, beste ospakizun bat ospatzen da Ataun-en. Badakizute zein esan nahi dudan. Gure Euskaltzaindian euskaltzain oso den jaun baten gorazarrea: J. M. Barandiaran-ena. Honen aurretik egin dugun geure arteko bileran jaun honi telegrama bat bialtzea erabaki da. Zorionak beroki emanaz, eta Euskaltzaindia gorazarre horri gogo-bihotzez elkartzen dela adieraziz.

Eta orain, gaurko batzarreari hasiera ematekoan, euskaltzain laguntzaile berriei izendapenen diplomak banatuko zaizkie. Joan den hileko batzarrean hiru euskaltzain ohorezko eta sei euskaltzain laguntzaile izendatu ziren. Ohorezko mailatakoak urrutitxo daude honera etortzeko: Norbert Tauer jauna Txekoslovakian, Karl Bouda Alemanian, eta Antonio Tovar ere Alemanian. Euskaltzain laguntzaile mailakoei banatuko zaizkie, bada, diplomak. Izendapen honegatik zorionak emanaz batera, gaurko batzarre honetan Euskaltzaindiak batzarkide berri hauei bere ongi etorria eta agurra eman nahi die.

Adiskide eta gogaide maiteok: Ongi etorriak izan zaitez-tela gure elkartera! Euskaltzaindiak ongi daki orain arte egin duzuen lanaren berri. Eskerrak ematen dizkitzue, bada, eging-dako lanagatik, eta aurrerantzean ere lanean ariko zaretela es-pero du. Ohore baino gehiago, lanerako deia da izendapen hau. Izena ere halakoxea duzue: euskaltzain *laguntzaileak*.

Askotan entzun diot Lafitte jaunari nola kargu hontara-ko izendatua izan zenean, Azkue jaunak lan bat egin arazi zion. Nik ere eskatu egingo nizueke gure hileroko batzarre-etarako lan bana gerta dezazuten, bakoitzak nahiago duen gaiaz, batzarrean irakurria izan dadi. Era hortara elkartea-ren lanetan sar-araziak eta osoko batzarkide edo zati biziak bihurtuak geldituko zarete.

Zorionak, bada, eta eskerrak, berriz ere, bihotzez guztioi!

JUAN KARLOS GERRA, ARMARRI-ZALEA

Kerexeta-tar Jaime

Agur, guztioi!

Orain illebetete-edo, Arrasate'ko gizonezko bi etorri yata-zan Elorrio'ra, Juan Karlos Gerra armarri-zaleari buruz zer-bait itz egingo neukean eskatzen. Nire itzaldiak luzea ala la-burra izan bear eban itandu neutsen, eta ogei miñuturen ba-tekoa naikoa zala erantzun eusten. Orrela izan ezkerro, baiez-koa emon neutsen, iñorentzat aspergarri izaterik ez nebala nai-ta. Emen, bada, orain zuen aurrean. Eta geiago bagarik, sartu gaitezcan gure gaian.

Nor izan zan gure Juan Karlos Gerra? Ezpai bagarik, gure artean izan dogun armarri-zalerik gorengoena. Guztiok daki-zue armarriak zertzuk diran: etxe batzuetako ormetan dago-

zan irudi landu batzuk, erderaz, *escudo de armas*; Naparroa'ko Larraun'en *mazmorroak* deritze, eta *ikurdi* be erabili izan da.

Gerra jauna Donostia'n jaio zan, 1860'garren urtean, eta Arrasate'n il, 1941'garrenean. Alan bere, ia bere bizitza guztia ementxe, Arrasate'n igaro eban. Lege-gizona, eta Euskal-tzain laguntzaillea. Erdi-aroko euskal-eresi eta bertsoetaz be ainbat idatzi eban aldizkarietan, esate baterako, "Euskalerriarren alde" izenekoa, RIEV'en, "Euskera"n, "Euskal-esnalea"n, ezagutzen ez ziran edo gutxi ezagutzen ziran eresi zaar-zaarrak azterturik eta argitara emonik. Jatorri-gaiak be erabili ebazan, gaiok armarri-gaiaz alkartuta joaten dira-ta. Izan be, iru dira, Gerra jaunak diñoanez, euskal-sendi edo familien kanpokaldeko izaera-ezaugarriak: oiñetxea edo jatorria, abizena edo apilledua eta armarria. 16'garren menderarte, norberaren abizena oiñetxearen izena izaten zan, oiñetxearen izena artzen zan, sarritan gurasoen abizena alde batera itzirik edo oneaz alkarturik. Jatorriak aztertzen diranean, ainbat aldiz ikusten da esan dogun au. Ejenplu ezagun bat ekarriko dautsuet: guztiok entzun dozue Elorrio'ko Balentin Berrio-Otxoa zoriontsua; bere aurretiko-aurretikoa Bergara'tik Elorrio'ra etorri zanean, 16'garren mendean, bere emaztearen oiñetxearen izena artu eban bere abizenagaz batera; bera, odolez, Otxoa zan, eta Otxoa de Berrio artu eban —Berrio'ko Otxoa—, basarri-etxea *Berrio* zan-eta. Bere seme-alabak, illobak, birrillobak eta gerokoak be Otxoa de Berrio erabili eben; Balentin'en aitak, ostera, Berrio-Otxoa, eta Balentin'i be orixe ezarri eutsoen. Baiña odolez, Balentin Otxoa izan bear eban, aitaren aldetiko leenengo abizenari jarraiturik.

Gerra jaunak onetzaz, jatorri-gaiaz, "Ensayo de un Padrón Histórico de Guipúzcoa" izeneko liburua idatzi eban, 1928'garren urtean, eta beste lan jakingarri bat argitaratu be bai: Esteban Garibai'k —au be Arrasate'ko semea — amaseigarren mendean idatzi ebana: "Linajes Bascongados contenidos en las Grandezas de España" izenekoa. RIEV'en argitaratu eban —oraintsu *La Gran Enciclopedia Vasca*'k barrero argitaratua—, bere oarrak ezarten eutsazala.

Armarri-gaiaz, bere libururik entzutetsuena, "Estudios de Heráldica Vasca" da, 1927'garren urtean irugarrenez argitaratua. Barruan dakarrena auxe da: "Diccionario Heráldico de la Nobleza Guipuzcoana"; Gipuzkoa'ko eundaka jatorri ta armarririk dakaz; an agertzen dira Arrasate'ko irurogeta amar armarririk be, gero aitaturiko doguzanez. "La Heráldica entre los Euskaldunas": gai au, armarririk gai au, Euskalerrria'n noiz eta zelan zabaldu zan azaltzen dausku, eta geien erabilten diran irudiak eta ezaugarriak, euskal-jatorrien ainbat armarririk jakiñerazoririk. Eta azkenez, "Lecciones de Genealogía y Heráldica".

Liburu orren leenengo zatian, Arrasate'ko irurogeta amar armarririk agertzen dirala esan dautsuet, eta, beraz, etheen izenak. Puntu au jakingarri izango yatzuela uste dot, eta azaldu egingo dautsuet, pentzamentuz izanda bere, zuen erriari begiratu bat egin dagiozuen. Abarrategi (Gesalibar'en, Santa Ageda'n); Alkitza, Altzarte, Andikano-Loiola (Erdiko kalean), Aranguren, Aranguren-Andikano (Zarugalde arrabalean), Arbe, Areaga edo Arteaga, Arrasate (Arrasate jatorriarena, ez erriarena. Bide batez, ba-dakizue nik baiño obeto erri onen izen jatorra, leenengoa, Arrasate zana, Gipuzkoa'ko errietaririk antziñakoenetarikoa; gero, barririk, Kastilla'ko amargarren Alonso erregeak uri edo *villa* egin ebanean, 1260'garren urtean, izena aldatu eta Mont-Dragón ezarri eutsan, Monte del Dragón = iransugearen Mendia). Arrazola (armarririk au, leen, Ferrerías kaleko etxe-torre baten egoan, egun batzuetan San Bizente Ferrer egon zan etxean; baiña an etxe barriak egin ebezanean, Madalena arrabaleko etxe barririk aldatu eben); Arroaga (Gesalibar'en), Artazubiaga (Bedoña'n) eta Bañez de Artazubiaga (jatorri au, Bañez taldearen buru zan, eta Gebara taldearen azpian ez gelditzearren, Bedoña'ko bere etxeari sua emonirik, Arrasate'ra jatsi zan bizi izaten. Orregaitik, bere armarririk goiburu edo divisa au dakar latiñez: Pro nostri generis libertate combusta: Geure jatorriaren askatasunagaitik errea. Amabosgarren mendean, jatorri onetako bat, Martin izenekoa, Ganboarren taldekoa, Arrasate'tik Garagartza'rako bidean, Ibarreta basarri ondoan, Aramaiona'ko oiñaztarrak il egin eben; eta

aren illetan, aren emazte alargunak, Ozaeta'ko Santxa Otsoa'k, eresi entzutetsuok abestu ebazan:

Oiñetako lur au yabilt ikara,
 lau aragiok bere an berala...
 Martin Bafiez Ibarreta'n il dala.
 Artuko dot esku batean gezia,
 bestean zuzi iraxegia,
 erreko dot Aramaio guztia.

(Aldi aretako andrazkoak be ez eben, gero odol beroa!)

Artzamendi, Barrena, Barrutia (Udala'n), Barrutia de Etxagibel (au be Udala'n), Barrutia-Mendia (Beeko arrabalean), Barrutia-Salinas (Iturriotz kalean), Barrutia-Umendia (Ferrerías kalean), Bergara, Bidau edo Bidaurre, Etxeberri edo Etxeberria, Elizgarai (Gesalibar'en), Ereinuzketa (Gara-gartza'n; emengoxea izan zan Santiago de Compostela'ko "Kardenal Mondragon" esaten eutsoena, baiña abizena Ereinusketa eban); Gabiria (Ferrerías kalean), Garibai (leen aitatu dogun istorilari ospatsua jaio zan etxea, jatorriz oiñatiarra izanarren aitaren aldetik; bere ama, barriz, Arrasate'koa); Garita-Bergara (Erdiko kalean), Garro (Erdiko kalean), Gordoa-Iramain (Erdiko kalean), Gerra (San Prantzisko plazatxoan), Guraia (Iturriotz kalean; oiñaztarren buru Arrasate'n), Ibinarri, Irigoien, Jauregi (Gesalibar'en), Jauregibarria (emen eta Gara-gartza'n), Mendia (Uribarri'n), Merkado, Merkado-Okendo (Iturriotz kalean), Mojategi edo Monxategi (Musakola'n), Mondragon, Mondragon-Arazola eta Mondragon-Bidaurre, Narriondo, Olabarrieta (Bizkai'tik etorria), Olabe, Olalde (gaiñean beronen izena dakar), Olariaga, Oleaga (Uribarri'n), Oro (ez da erderazko urrea), Oro-Usoa, Osinaga, Ozaeta (Erdiko kalean), Errotaetxe edo Rotaetxe (Gesalibar'en), Sagurdia, Salinas (Goi-koetxe izenekoan, Gazteluondo kalean, eta beste bat Beeko kalean), Sologaiztoa (Bedoña'n), Uriarte Urrupain, Zabala (Iturriotz'en), Zabaleta, Zamalloa (Garibai istorilaria emengoxea izan zan amaren aldetik), Zaraa, Zaraa Bolibar (etxe onetako batek jakiñerazo eutsan Yuste'n bosgarren Karlos enperadoreari, San Quintin'go gudaketa entzutetsua nok irabazi eban); eta azkenez, Zilaurren.

Alan be, aitatu doguzanetatik gaiñera, Arrasate'ko beste jatorri askok daukez euren mazmarro edo eskuduak, etxeetan ipiñita euki ezarren, ainbatek eta ainbatek, edo etxeak egikeran ipiñi ez ebezalako, edo etxeak eginda gero aukeratu ebezalako, edo orretarako diru-aukerarik izan ez ebelako. Orre-gaitik, banatu edo bereiztu egin bear litzake erderazko *escudo* izenaren esan-naia: ondo da ormetan ezarrita dagozanai *armarri* —arma-arri— esatea. Baiña, arrietan landuta ez dagozanai, zelan? Mazmarro? Ikurdi? Izan be, zuk zeure eskudua euki daikezu; ez, ostera, orman arrizkoa, papeletan agertzen dana baiño. Ez da bardin euskeraz esaterakoan.

Batek edo bestek auxe itandu daike: “Baiña, zetan ekin eutsan, bada, Gerra jaunak arlo orri, aundikien uskeriak baiño ez dira-ta?”. Emen, sarri entzun izan dodan eritzia: *armarri-gaia* aundikien uskeriak dirala. Ba-daiteke beste errietan orrela izatea, baita leenengotan Euskalerra'n bere; baiña gero ez. Emen be, jakiña, batzuk aundikiak izan dira *diru-aldetik*, ez osterantzean. Euskalduna, edozein euskaldun, aundikia beste teko odol-garbikoa izan dala agertzen da beti. Auxe bakarrik egin izaten zan: bere aurretikoak emengoxe oiñetxeakoak zira-la autortu ta egiztatu, probatu, auzi-bidez; auzi orri “prueba de hidalguía” esaten yakon erderaz. Eta epaiaz batera jasoten eban bere armarria erabilteko eskubidea. Ulertzeko da, beraz, Euskalerra'ko jatorriak España'ko beste guztiak baiño eskudu geiago eukitea. Ez ikaratu onetzaz, olantxe da-ta. Eta au onela dala konturatzeko, oraintsu argitaratu dan Cadenas y Vicent'en “Repertorio de Blasones de la Comunidad Hispánica” izeneko liburua aztertzea baiño ez dago.

Geien-geienetan, jatorri bakoitzak aukeratzen edo egiten eban bere ikurdia, eskudua; batzuetan, barriz, Rey de Armas eritzan jaunak, Erregearen baiezkoaz. “Algunos de ellos (de los escudos) —diño Isasti'k 1625'garren urtean— son por merced o privilegio que algún Rey o Príncipe concedió”. Azken oni, “executoria real” esaten yakon.

Beraz, odol-garbiko edo aitaren seme izatea eban edozein euskaldunek jaristen eban agiriz, agiri-orrietan. Bere jatorriko

oiñetxea Euskalerrria'n egoala egiztatu bear, besterik ez. Begira: duke, markes, konde ta orrelako tituluak, emonak izaten dira, erregeak edo laterriko (naziñoko) agintari nagusiak emonak; geien-geienetan diruaren bidez jaristen dira, odol-garbiko izan ezarren bere. Euskalduna, ostera, berez izan da odol-garbiko, erderaz "hijodalgo, hidalgo, noble" deritzona. Au beti irakurri izan da agirietan, dokumentuetan. Begira Isasti istorilariak 1625'garren urtean, "Compendio Historial de Guipúzcoa" izeneko liburuan diñoana: "Capítulo VII. Que todos los naturales de la Provincia de Guipúzcoa, que probaren ser originarios de ella, de sus antiguos pobladores del tiempo inmemorial, sean declarados por hijosdalgo en propiedad y posesión. Lo cual mando así guardar y cumplir y ejecutar inviolablemente ahora y de aquí adelante por siempre jamás". Agiri au España'ko irugarren Felipe erregeak emon eban, Lerma'n, 1610'garren urtean.

Odol-garbiko: zegaitik? Euskaldunak moruen edo judarren odolaz naastu ez iralako. Orrexegaitik. Garrantzi aundikoa au? Euskalerrria'rentzat bai. Zegaitik? Beste ondoren artean, norbere odol-garbitasuna egiztatu edo probatu baiño leen, ona bizi izatera iñor ezin etorri izan zeitekealako. Foru-liburuak dakar ori, eta, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n beintzat, zeatz-zeatz beteten zan. Eta bere odol-garbia probatzen ez ebana, erritik jaurtia izaten zan. Elorrio'ko liburuan be bein baiño geiagotan agertzen da ori; Gipuzkoa'n be bardin. Entzun, bestela, Isasti istorialari berak diñoana:

"Capítulo VI. Que en la Provincia de Guipúzcoa y Villas y lugares de ella no sea admitido por vecino persona alguna que no sea hijodalgo. (Fuero moderno, tít. 41, cap. 2, pág. 327). Don Carlos (I de España y V de Alemania), por la gracia de Dios Rey de Romanos, Emperador semper Augusto, etc., etc., ordenamos y mandamos, que de aquí adelante en la dicha Provincia de Guipúzcoa y Villas y Lugares de ella no sea admitido ninguno que no sea hijodalgo por vecino de ella, ni tenga domicilio ni naturaleza en la dicha Provincia, y cada y cuando algunos de fuera parte, a la dicha Provincia vinieren, los Al-

caldes ordinarios cada uno en su jurisdicción tenga cargo de escudriñar y hacer pesquisa a costa de los Concejos; y a los que no fueren hijodalgo y no mostraren su hidalguía los echen de la Provincia, y que los Alcaldes tengan mucha diligencia en lo susodicho sopena de cada cien mil maravedís para los gastos de dicha Provincia. Y si pareciere que alguno por falta de información o de otra manera, que no siendo hijodalgo vive en la Provincia, luego que constare, sea echado ¿de ella, y pierda todos los bienes que en ella tuviere... Dada en la noble Villa de Valladolid a 13 días del mes de Julio del nacimiento de nuestro Salvador Jesucristo de 1527 años”.

Gizaldiz-gizaldi bete da erabagi ori gure artean. Aurreko mende-erdian, karlisten gerra-ostean, Foruak galdu ziranean galdu zan Foru-lege ori, eta arrezkero parrastaka etorri izan dira eta datoz kanpotarrak. Lege orrek batez bere, beste arrazoi batzuren artean, iraunerazo izan ei'ditu gure erriak euskaldun izaten jarraitzen.

(Bide batez, auxe esan daikegu, gaiñera: *inmigraziñua* eta *inbaziñua* ez dirala gauza bera, gutxiago erria txikia danean. Inbaziñuak errien izate-eskubideak ausi egiten ditu. Benetako ta bidezko inmigraziñua auxe da: erbestekoa edo erbestekoak erri batera doazanean, bertako lez biurtzea, lekuan lekuko izkuntza, oiturak eta ekanduak eta gaiñerako zer guztiak eura-kanaturik. Baiña parrastaka etorri ezker, erria ito egiten dabe; eta erriaren berezitasunak artu bearrean, eurenak ezarten dautsez erritarrak. Eta ori ez da inmigraziñua, zapalkundea baiño. Inmigraziñuan, kanpokoa erri-barruan murgilduta gelditzen da; zapalkundean, barriz, inbaziñuan, errien izate-eskubideak ausita geratzen dira, erria itota geratzen da.)

Noiz asi ziran erriak ikurdiak erabilten? Noiz euskaldunak? Euskaldunak izan ete-ziran Peninsula onetan eskuduak leenengoz erabilten asi ziranak? Onetzaz eta armarren inguruan gelditzen diran ainbat gairi buruz luzaro ekingo geuskio, baiña ez dago orain astirik, nire ogei miñutuok bete dira-ta.

Entzuleok: Gerra jaunak ondo ta argi ikusi eban armarrigaiak eban garrantzi andia euskaldunarentzat. Ikurdiak nor-

beraren jatorria, oiñetxea, abizena agertzen dau. Ikurdia norberaren aurretikoen ezaugarria da irudiz landua edo jantzia, abizen izenpetua.

Ondorenak. Zer atara ete-daikegu esan dogunaz? Gure aurretikoai jarraiturik, arduratu gaitezala geiago gure jatorriaz; egin dagiala bakoitzak bere jatorri-zugatza, erderaz “árbol genealógico” deritzona, eta antxe agertuko yakoz ainbat eta ainbat bere odoleko euskal-abizen: gure txikitasunean, abizenetan beintzat beste edozein erri besteko aberatsak ba-garata. Aal dagianak, atara dagizala gure basarri-etxeen argazkiak, fotografiak, erretratuak, basarri-aurreak eta arek euki daikezan aparteko esku-lanak, erti-lanak, euskal-jatorriai izena emon dautseenak batez be basarri-etxeak dira-ta. Eta iñok ez dagiala esan gai au “desfasatua” dagoanik, erti-lanak, edozein erriren istoria-barruan, leengo, gaur eguneko eta betiko dira-ta.

Gerra jauna: geure eskerrona agertzen dautsugu zure lan bikaiñagaitik. Agur eta txalo zuri, euskaldunon eta Arrasaterren izenean.

ALTUBEREN TESTAMENTUA OROITARAZIZ

Luis Villasante

Gernikarra naizenarren, nik ez nuen Altube jauna Gernikan ezagutu. Haren ezagutza geroztikakoa dut. Txikitan Arantzazura etorri, eta komentuan, apaiz ikasketak egiterakoan, Altuberren zenbait liburu irakurri eta sakontzeko aukera izan nuen. Honela izan zen ene lehenbiziko ezagutza Altubekin.

Pertsonalki, berriz, aurpegiz-aurpegi, 1952. urtean ezagutu nuen bera; eta ez hemen, Frantziako Paben baizik. Place Clemenceau, Hotel de l'Europe deritzaion ostatu etxean. Urte har-

tan Frantziara itzuli bat egiteko egokiera izan nuen, eta orduan, Altube non zen jakinik, bisitatxo bat egin nion. Aspaldidanik enetzat maitagarri eta beneragarri zen jauna, aurpegiz ikusteko eta ezagutzeko zoria izan nuen. Urte asko bota zituen han, herbestean. Geroago Gernikara itzuli zen, eta bai Gernikan eta bai Euskaltzaindiko batzarreetan ere berriz ikusi eta tratatu nuen, baina beti bakanka, mehatz eta denbora gutiz.

Gernikan biziagatik, bera mondragoitarra zen, arrasatearra. Eta bere jaioterria ez zeukan saltzeko. Eta okasioa zetorkion une guztietan aipatuko zuen. Frantzian zegoen denboran, liburuxka bat atera zuen frantsesez. Eta hara zer dioen 98. orrialdetan. Latinezko esaera bat aipatzen du: "Solus labor parit virtutem, sola virtus parit honorem". Eta segidan hauxe dio: "On la lit sur la façade d'une vieille maison d'Arrasate, ville laborieuse du très laborieux Pays Basque".

Eta segitzen du oraino: "Dans la même ville on entend un vieux dicton basque qui, sous forme plus lapidaire, exprime une idée analogue: *Jan ta lan*. Il faut manger et travailler. Ce vieux dicton, par son sens, peut être considéré comme une curieuse anticipation de la moderne aspiration, aujourd'hui en vogue, de l'élévation du niveau de vie et de production".

* * *

Nik ez dakit zergatik, baina badira Euskal Herrian zenbait herri, nortasun berezi baten jabe direnak. Eta herri hoietako semeak jaioterriaren harrotasuna erakusten dute beti. Herri hoiaren artean Mondragoe da nabarmenenetako bat. Garribai-k bere obra guztien aitzinean ipiniko dizu nongotarra den. Eta harrigarriago dena, baita Domingo Bañez, teologo handi eta Santa Teresa Avilakoaren direktore espiritualak ere. Bera ez zen hemen jaioa, baina hemendik zuen bere jatorria, eta hark ere jatorri hori ez zuen saltzeko, nunbait.

Aspaldidanik herri langile, urduri, bizkor, burdinolez eta lantegiz betea dugu Mondragoe. Eta gaur? Guztiok dakigu zernolako handitze eta hazitze miresgarria ezagutu duen azken

urteotan. 30.000 bizilagun izango ditu gaur. Koperatiben esperimentzia beste inon baino urrutiago eta aurrerago eraman du Mondragoek.

Ezin ahaztuzkoa dugu Arrasate euskal literaturan. Gari-bai, Juan K. Gerra, Altube: hirukote maitagarri honen oroitzapena ez da sekula euskaltzaleen bihotzetan itzaliko. Baita Barrutiak ere (euskerazko teatroari hasiera eman zionak), zer-ikusi handia du herri honekin, hemen bizi bait zen iskribau. Eta hoiiek guztiak baino lehenago, XV. mendean, hor dira Mondragoe erre zeneko kantak, euskal literaturan ditugun lore pitxirik zaharrenetakoak. Eta orain bizirik direnen artean ere euskal idazle arrasatearrak ez dira falta. Zilegi bekit Jokin Zaitegi eta Gaizka Barandiaran-en izenak aipatzea. Eta oraino beste euskaltzale suharren izenak ere esango nituzke, baina dena aipatzerik ez dago.

Gaur bezalako hazitzerik, ordea, ez du sekula ezagutu Mondragoek. Eta hauxe da gure kezka. Orain arte hemen beti bizi-bizirik gorde den euskaltasun hori, hazitze horrek berorrek ez ote digun jango. Herri honek euskaldun iraungo ote du, gero? Gaur-eguneko aurrerapenen uholdeak, bizimolde berriaren astinduak, ez ote du gure euskera itoko? Bai. Beldur izatekoa da.

Eta bide gurutze larri honetan, euskera zaintzeko eta salbatzeko, zer jokabide hartu, arretaz eta buru-bihotzez begiratu beharra dago. Hain zuzen, hortarako Altube jaunaren erakutsi nagusiak gogoratzea ondo baino hobeto etorriko zaigu. Bera bait da Euskaltzaindiak bere lehen aroan euki dituen gizon argienetako eta jakintsuenetako, eta euskeraren bizi-tzaren problema hontaz inor ez bezala kezkatu dena. Behin baino gehiagotan azaldu izan ditut Altube jaunaren ikusmoldeak; euskera bizia gorde, zaindu eta indartzeko berak proposatzen zituen bideak (Ikus "Euskera" 1963-1964, 293-313; 1971, 77-83). Laburpen trinko bat baizik ez dut hemen egingo.

Honako hiru puntu hauetan bilduko nuke nik, euskera bizkortu eta salbatzeko Altubek ematen duen dotrinaren muina:

1) Lehenik. Guztien gainerik eta aurretik, aho hizkuntzari eman behar zaiola lehen tokia. Hizkuntzak ezpainetan erabiltzeko eginak direla, eta hori gabe ez direla deus ere. Engainu ikaragarria izango litzateke, beraz, liburu piloak euskeraz ateratzeaz dena eginik dagoela uste izatea. Irakurri eta idatzi, gainerik gauza da, bigarrena. Oso axola handikoa, noski, baina hitz egitearen gainerik eta ondorik etorri behar duena. Hitz egiteak huts egingo balu, beste hori ez litzateke deuse-tarako. Irakurri eta idazteak, hitz egin gabe, ez du euskera salbatuko.

2) Bigarrena. Baina irakurri eta idazteak ere badu bere axola. Beti handia, eta gaur handiagoa, kultura hain zabaldu-rik den aro honetan. Zer moduzko literatura nahi zuen Altubek euskerarentzat? Garbikeria zen orduko giroa. Idazlerik gehienek hortik jotzen zuten. Bide hau kaltegarria zela kargutu zen bera, eta hori aldarrikatzen du bere obra guztietan. Herriko hizkuntzan lur harturik eta sustraiturik diren hitzak, nahiz eta erderatikoak izan, errespetatu eta haintzat hartu behar ditugula esaten digu behin eta berriz eta aspertzeko. Eta arrazoi hau ematen du: hitz hoiek geureak ditugula, euskerak beretu dituenak direla.

Kultura, teknika eta jakintza sailean euskeran nabari den hitzen falta erremediatzeko, ingelesaren bidea proposatzen digu Altubek. Hau jartzen digu eredu eta bide erakusle bezala. Ingelesak ez du higuinik, hitzak —behar direnean— nondiknahi hartzeko eta etxeratzeko. Bakar bidea, besteen bide zabaletik aldendurik ibiltzea, oraintxe izango litzaziguke inoizko kaltegi-rena. Hauxe da Altuberen iritzia. Ez dugula iritzi hau behar hainbat kontutan hartu, gauza jakina da. Hitzen kontuan idiekiera gehixeago eukitze horrek, Altubek uste zuen bezala, euskeraren bizitzari ez kalte, baina mesede egingo zion seguru aski.

3) Hirugarrena eta azkena: Euskera idatziaren batasuna. Badirudi puntu hau aurreko punduen kontra doala, baina ez. Honek ez ditu aurrekoak ezeztatzen eta haiek ere ez hau; eta Altubek ongi zekian hori. Idazten dena denontzat idazten da,

eta horregatik euskera mota berdin bat behar dugu hortarako, idatzizko zereginetarako, alegia. Idazte kontuan batasun bide hori hartzen dute hizkuntza guztiek. Eta euskerarentzat ere hori hartzea hil edo biziko gauza dela, eta lehenbai-lehen egin beharrekoa zela, garbi ikusten zuen Altubek. Idatzizko beharretarako tresna batua, egokia eta trebea egiten asmatzen ez badugu, hilotzik geldituko zaigu euskera, aguro gainera. Ez da hau nik esana, Altube jaunak baizik. Altubek gai hontaz ugari utzi du idatzirik. Nik pasarte bat aldatuko dut xoilki. Horra haren hitzak, bizkaierazko bere euskalkian esanak: "Gogoan euki daigun egi itzal au: gaur eguneko giza-artu-emonetarako, batasunezko eta errijaz adiskide bizi dan idatz-izkerarik euskeraan aurkitzen ez padogu, gura nai ez, erdereetara joko dogula danok, utsune ori beteteko. Zoritzarrez, egi itzal eta samin orren ondorenak, larregi ere agiri dira, daborduko ere, euskaldunon artean" (Ikus Altubek Euskaltzaindian egindako sarrera-hitzaldia, "Euskera" 1921, lehen zenbakia, 3-49).

Altube jaunak hitz hauek esan zituela 50 urte paseak dira. Hontan ere jaramon handiegirik ez diogula egin, aitortu behar da.

* * *

Erakutsi hauek ditugu Altuberen testamentua bezala. Hirugarren puntuaz (batasunarenaz, alegia) eraskin gisa zertxobait adierazi nahi nuke, eztabaida garrantzak sortu bit dira gure artean, eta zenbaitzuk ez diren gauzak zabaldu eta sinestarazi nahi dituztelako.

Altube jaunak esan digun bezala, euskera idatziaren batasuna egitea gauza premiatsua dela uste du Euskaltzaindiak. Eta hain zuzen, hori uste duelako, langintza honi lotu zaio. Garbi ikusten du, hori gabe, hizkuntza batek ez duela gaur etorkizunik. Ez da gai, alegia, eskolan irakatsia izan dadin, ez da tresna egokia idatzizko beharkizunetarako eta zabalkunderako. Altubek

begi erneaz orain dela 50 urte ikusi eta esan zuena, Euskaltzaindia egitera jarri da. Ez du berak bakarrik egingo, ez bait da hau berak bakarrik egin lezakeen lana. Baina bide erakusle edo gidari bat egonezik, ez da egingo. Eta erantzukizun hori, berari dagokiolako, beregain hartu du Euskaltzaindiak.

Eta, jaunak, zintzoki eta leialki haxe esan nahi dizuet. Euskeraren bizitza salbatzea eta indartzea dugu lan hontan geure asmo eta kezka bakarra. Badakit gure ahalak eskasak direla, ez direla gure asmoen parekoak. Baina Euskaltzaindia, sorrera egunetik egotzi zitzaion betebeharra bete nahiz dabila. Eta egun hartatixe dauka Euskal Herriarekin zor hau: idatzizko zereginetarako tresna batua gertutzeko zorra. Batasun honek, beste aldetik, ez du esan nahi etxeko hizkera eta euskalkiak gutietsi edo baztertu behar direnik.

Oker adituak argitzeko eta zuzentzeko, esan behar dut, gainera, batasun moldagintza hontan Euskaltzaindia ez dagoela inongo taldekeriari lotua. Euskera bera lotua ez dagoen bezala. Euskera, guztion ondarea da, herri baten ondasuna da. Sines-tunek eta sinesgabeek, politika alderdi guztietakoek, nekazari-ek eta ola-gizonek, gizarte maila batekoek eta bestekoek, denek osatzen dute herria. Eta hizkuntza, orobat, denon ondasuna da. Ondasun orokorra. Denon gainetik dena.

Asmo orokor honekin ari da Euskaltzaindia lanean.

Ondotxo dakit nik zer-nolako harriak jaurtitzen dizkiguten sarritan, bai ezkerretik, bai eskuin aldetik, eta horrexegatik gauza hauek esan beharra zegoen. Zintzoki esan eta bir-esan nahi dut, bada, Euskaltzaindia, bere langintzan, ez dela inoren morroi, ez dagoela taldekeriari eta alderdikeriari lotua. Euskaltzaindiak euskera eta euskerari oso-osoa begiratu behar diola, eta halaxe egiten duela bere lana.

Han ez zaio inori galdetzen sinestedun ala sinestegabe den, edo zein politikakoa den. Ez gara hortarako biltzen. Herri baten ona zaintzeko, hizkuntza zaintzeko ardurak biltzen gaitu han. Ardura horrek, maitasun horrek biltzen gaitu. Ba ote da

gauza ederragorik? Bestela, berriz, gizartean bizitzea ere ez litzateke posible izango. Esan nahi dut: hontan edo hortan iritzi desberdina dugulako, guztion diren gauzetan ere zatikatuturik ibiliko bagina, nola gizartean elkarrekin bizi? Zorionez, hertsikeria horrentzat Euskaltzaindian ez dago lekurik. Gainera, Euskaltzaindiak ez dio inori batasun gauzetan iritzi desberdina edo bestelakoa izateko eskubiderik ukatzen. Baina nor bere iritziaren alde jokatzekoan, inor beztutzea, inor iraintzea, ez direnak esatea, hori ez, hori ez da libre, ez da kristauki eta gizonki jokatzea.

Eta euskera ez ditzagun bestelako gauzekin nahas. Ez erlijioarekin, ez politikarekin, ez ideologiekkin. Guztiona da. Herri baten ona da. Eta dioedan hau berdin diot nahiz alde batetik nohiz bestetik nahastutzen dabilzanengatik.

Gauza labur baina beharrezko hauek esan nahi nituen arrasatear prestu eta argi baten oroigarria egiterakoan. Etorri ere, hark irakatsitakoaz bete-betea bat datoz eta.

Eta honenbestez, eta bukatzeko, mila esker denoi. Mila esker egun hauetako jaialdi, hitzaldi eta ospakizun zoragarri hauek antolatu dituzten guztiei. Eskerrik beroenak batez ere Arrasateko Udalari, Euskaltzaindiari egin dion harrera ezin hobeagatik.

SEBER ALTUBEREN BIZITZA, MUSIKA LANA ETA BIBLIOGRAFIA

J. A. Arana

I. SEBER ALTUBE MUSIKUA

Euskaltzainak, Jaunak, Agur:

Opagarria da neretzat hemen, zuen artean, ezarritzea, batezbe Seber Altubetzaz zeozer esatea agindu didazutenean. Institutuzio agurgarri honi dagokion itzal guztiagaz, eta adiskide izan zan eta maixu dan Altube Jaunari zor diotan maitetasun osoagaz mandatu hori bete nahi nuke. Astiz premiatuak garenez gero, gaiaren mamira noa, zuen baimenakin.

Altube Jaunaren biografi eta lanari buruz barri ugariak eta euskal albiztarien gehienak. Bere bizitzaren mugarriak finkatuta dagoz. Baina Altube inguruan esandakoak, nere ustez, garrantzitsuak eta garrantzitsuenak izan arren, ez dira esan dezakeguren guztiak. Jaiotzaz mondragotar eta bizitzaz gernikar izan zan gizon ospetsu honen inguruan esandakoen utsunak betetan saiatuko naiz ba Gernikan musika usaina daukaten arazoetan sartzera behartu naute nere musikaren zaletasunak eta jaiotzherriari diotan maitegoak. Bestalde, Altube beragaz musika arloan hartueman atsengingarriak izan nituan. Altxor baliotsu legez berak hil orduko emon zidan liburu, iten eta partiturak gordeta ditut. Nere osaba Julio Bareñokin Altubek izan zuen idazkitza be nere eskuetan dago. Honek dira lan honen iturburuak.

Soldadutza bukatuta, 1.901 an eldu zan Gernikara Seber Altube, Benigno bere anaiakin. Mondragoiko albokariak izan ei ziran anai biak, esan zidan Felix Ormaetxeak, Gernikara etorritako ermutar jatorrak. Bitoriano Balerdi, Mondragoiko organulariaren ikasle izan zala bere haurtzaroan esan zidan gero Seberok. Eta danak dakigu zer zan orduan halako maixua-

ren ikasle izatea: gure Herriko organulari haundiak giro berri eta hezipide sortzaileak ziran. Hurakin organu eta harmonia ikasi zuen ba gure Seberok; baina horrez gainera, beragandik egoski zuen Gernikako giroan iraultza bat sortzeko ekarri zuen zaletasuna.

1.870 inguruan bazegoan Gernikan musika banda bat Patxo Toñaren zuzendaritzapean; Andra Mari elizan Etxebarria, lekeitiarra, organulari eta musikegile zan aldi aretan. 1.890 an musika banda bi zeuden, bata "zaharra" zerizkiotena, Juan Manuel Goirirena, eta bestea "barria" Balentin Diez Elurena. Urte bi lehenago Andra Mari Parrokian organu Walter barri bat osatu zan. Baina gure mendearen asieran banda hoiek desegin ziran eta beharrezkoa zan berriz holako talde bat antolatzea eta Uribatzarrak herriko musika banda bat sortzea erabagi zuen. Hoi en zuzendaritza batetako konkursora, 22 urteko giputz bat, Mondragoiko albokari eta Balerdiren ikaslea aurkeztu zan, "Cor Jesu" bandarako martxa bat eginaz. Eta hor daukagu Altube Gernikako Herri-Bandaren zuzendari aututa. Bereala talde osatuten du eta ereskin zaharrak batuaz 1.902 ko Inaute Igandean agertzen da Pasilekuan Banda berria. Urte bete barru, 18 musiku adoretsekin, bertan Gernikan antolatutako konkurso baten lehenengo mailakoen artean ezarritzen da gure Sebero.

Garrantaziko urtea da 1.903 garrena Altuberentzat eta Gernikako musikarentzat. Durangotik dator Andra Mariko organura Juan Ojanguren, organulari haundia. Herriko abeslarien artean kezka bat ernetan da eta Altubek "Gernika" izenezko abesbatza sortzen du urte horretan. Eugenio Zamezaren lendarikitza pean batzen dira Bitoriano Askondo, Juan Bastarretxea, Ojanguren bera —tenor samurra, noski— Jaime Olaortua, Toribio Iturbe, Txomin Alegria, Teodoro Arana, Felix Naberan, Cesar Olaortua, Juan Goitia, Dario Areitio, etabar. Hoi en artean dabil Bonifazio Etxegarai: bere eskuz idatzita ikusten det partitura baten "nik, giputz sutsua izan arren, Gernikako abesbatzaren garaipena goratzen det nere herritarren gainetik". Egun haietan Gernikako abeslariak Donostiko Konkursoa ger-

tatzen zeuden. Eta hor doa Altube, 1904 ko Irailak 11 an, bere 34 abotsdun orfeoi txikiagaz Donostira eta lehenengo saria irabasten du. Zein zan Altuberen bide berezia hain laburrean eta jende urriakin garaipen hoiek lortzeko? Abots ez indartsuak baina saioaldietan ondo heziak zirela Gernikako abesbatzarenak, dio Seberok. Hitz hoiek emoten digute bere artearen azalpena: gorputzez argal eta liraina, izpirituz zorrotz, zintzo eta zehatza. Eta danetan iraunkorra.

Baina naigabeak be bazituan Altubek pozaldi haren bitartean. "Euzkadi" egunerokoan (1.928 ko apirilak 5) diosku berak Seberok: "Antxiña-aintxiñatikoa ei zen Gernikan Eguen Gureneko prosesiyoan "Jesukristori kendu ezker" abestiyori kantateko oitura; baiña orain ogetabost urte inguru, galazo egin eben eliz-agintariak (Basilio Diaz de Espada Parrokuak, noski) behar dan lotsaz barik, garraxika ta ganora barik ekiten eutsela kantariyok eta". 1.903 an zan galerazpen hau. "Baiña sei edo zortzi urte geroago, Bonifazio Omaetxebarria Parroku ta oraingoxe alkatia (Lopez de Calle Jauna) uri-agintari zirala, barriztau zan kantu ori abestuteko oitura; baña orain ederto eta egoki, uriko musikiak lagunduta kantau oi da: lenengo, neskatilla bikain eta abots zolidun pillotxu batek, gero, erri gustiyak erantzun oi-deutsela". Eta Gernikan esaten dan legez, ha izan zan Altuberezentzat garaipen eta poza: bere musika banda eta orfeoia bat eginda, eleiza barruan "Jesukristori kenduez gero" abestu. Altube zuzendari zehatzak moldatu zituazan musiku eta abeslariak saiotalde jarraikiakaz garraizi harek aldenduaz.

Urte pare baten lortuta zeukan Seberok musiku famatuaren izena. Gernikara etorri berria, entzun zituan Altubek bertako Marijesiak eta beingoan harmonizatu zuan lau abotsatarako herri abesti hau. Bertan 1.903 garren urtean, Kasimiro Olazabal "Katxitxu" gandik ikasita, lau gizon abotsatarako harmonizatu zituan "Bagera zazpi probintzi" eta "Mertxikaren lorearen ederra". Galo Ibinagabeitia elantxobetarra gandik —Seberok dion legez— ikasi zuen "Maitatuten dotan aingeruarentzat", eta abesti hau be bere abesbatzarentzat harmonizatu zuen baina Azkuek aldatutako letra barriagaz.

1.905 ko Irailean, berriro doa Sebero bere orfeoiakin beste Konkurso batera: 70 abotsetako orfeoia agertzen du Bilbon. Laurent de Rilleren abeslan bat zen danontzat ezarria eta Azkue Jaunak itzulita abestu zuen Gernikako abesbatzak. Saint-Saënsen "Oda de Horacio" be abestu zuen, eta Altuberen baliola erakusteko gertaldi bat aitatzera noa: ereslan honen partiturak irarrita banandu ziran orfeoi guztien artean. Partitura hori estudiatukeran, utsune bat aurkitu zuen Seberok akorde baten. Hori bai prolema! Utsune horregaz edo partitura aldatuta abestu? Baina Zameza Lendakariak, Altubek jakin gabe, Saint-Saënseri idatzi zion Parisera. Eta beingoan eldu zan erantzuna, Altuberi errazoa emonaz.

Konkurso honetarako egin zuen Seberok "Zezenak dira" edo "Ama baten estualdiak" deritxogun Poema musikala. Partitura hau be, lehendabiziz lau gizonen abotsatarako egin zuen Altubek. Geroago osotu zuen sei andra-gizon abotsetarako. 1.957 an Pobetik Barewori idatzi zion Seberok: "Aranztazun, Euskaltzaindiaren Batzarrean abestu ei da nere Zezenak dira". Eta Marzelino Idoiagak Bareñori idatzi zion legez, praile kuru batek abestu zuen partitura hori Batzar horretan. Gernikara Pobetik etorri ondoren beltzik zegoan Altube partitura hori galduta zegoalako. Zorionez, baina Sebero hil ondoren, atzeman nituan partitura biak, bai lau gizonen abotsetarako baita ere sei andra-gizonen abotsatarako Altubek beran eskuz egindako partiturak.

Musika bandan, Akademian eta Orfeoian betetan zuen Altubek bere eguna. Baina 1.908 garren urte inguruan erne zan Seberon beste kezka bat: hizkuntzaren ardura. Urte bete lehenago, 1.907 an, berriro doa bere abesbatzarekin Donostiko Konkursora. Berak eta Nazario Oleagak euskerara itzuli zuen Laurent de Rilleren "Tziganes" en letra. Seberok erabilitako partituran euskeraz eginda daude holako oharrak: "Arinegi ez", "Larregi ez", "Bizkor" etabar. Aldi haretan, ene ustez, batzen ditu Seberok euskal folkloreko abestiak ta bai harmonizatu ere: "Aita San Antonino". "Uso zuria", "Boga" (ez arrantzaleena, beste bat baino) "Basoko Izarra" etabar.

Baina urteak joan da etorri, Altuberen bizitza aldatzera doa. 1.913 an Unxeta ta Esperanza ren arma fabrikan lanuzte bat gertatu zan. Eta Gernikan zeuden armerurik gehienak Eibarrera biurtu ziren; beste batzuk, bertan geratuta, fabrika barri bat sortu zuen: Alkartasuna. Lehenengo Gerentea Gabino Seijo autatu zuen eta gerotxuago Zabalaurentena handik debora gutxi barru urten da hirugarren fabrika bat sortu zuena. Hirugarren Gerentea, Simon Garteiz mundakarra izan ondoren, Seber Altube kargu horretarako deitua izan zan eta Alkartasuna arma fabrika 1.922 ko Maietzak 13an erre arte jarraitu zuen. 1.918 ko Apirilak 5an pistola barri baten asmagiri edo patentea lortu zuen "Sivispace" izenpean. Fabrika horrek orduan 120 langile daukaz. Sasoi haretan langile zan Felix Ormaetxeak esan zidan Seberotzaz: "asko jakinda be, arrokeririk bapez".

Oso lanpetua zegoen Altube urte hoietan eta 1.916 an musika banda utzi beharrean aurkitu zan. Askenengo agertaldiak bandaren buruan izan ziran Elantxobeko gaiaren inaugurazioa, Bilbon Indautxuko Zezen Plazan erestaldia eta Elorrioren Berriotxoaren omenez egindako erromezaldia. Gernikako musika banda esku onetan geratu zan: Altuben ondoren Manuel Gainza, Sestaotik etorritako banda zuzendaria, buru jarri zan, orain Algortako "Biotz Alai" abesbatzaren zuzendariaren aita. Eta 1.919 Altuberen ikasle bat, Segundo Olaeta lumotarra, musika bandaren zuzendari autatua izan zan. Altubek sortuniko musika banda ze maileraino eldu zan adieraziko digu Urretxuan 1.920 an konkurso baten irabasi zuen lehenengo sariak zuen lehenengo sariak.

Baina musika banda utzi arren, orfeoiagaz jarraitu zuen Altubek. 1916 an hil zan Zameza Lendakaria eta arratsaldean egin zuen Seberok "Si iniquitates" lau abotsatarako, hurrengo goizeko hiletan orfeoiak abestuteko. Egun haretakoa izango da bai ta ere ene ustez "Indefensus hostis" tenor bakarrak, organu laguntzaile, abestutekoa.

1.922 an erre zan, esan dotan legez, Alkartasuna arma fabrika. Ordurako Altubek makina bat idazlan eginda zeukan

musika eta euskeratzaz, eta Euskaltzaindian be sartuta zegoan, Txomin Agirreren lekuan. Urte hoién Irailean apropos jatorko Altuberi Gernikako Euskal Ikaskintzaren Batzarra. Musiku eta euskalzain legez parte hartu zuan Batzar horretan. Nik hemen musika arloa baino ez det ikutuko.

Ordurarte, "Gernika" orfeoia gizonak bakarrik osotuten zuten. Batzarreko jaialdietarako sortu zuan Altubek andra-gizonezko orfeoia. Eta Seberoren zuzendaritza pean batzarkidei eta herriari erestaldi bat eskeini zion, beste batzuen artean, Aita Donostiren "Iru xito" eta Azkueren "Xalopin xalo" abestuaz. Aita Donosti —Altuberen pareko zehatza zan noski— arrituta geratu zan Altubek emondako interpretazioagaz eta hala agertu zion zorionak emanaz. Eresaldi haren berri gehiago jakin nahi dutenak jo dezakete "Gure Herria" aldizkarira • (1.922 ko Urria, 591/2 horrialdera).

1.928 ko Bariku Gurenean, sei andra-gizonezko abotzetarako, musika banda laguntzaile, Altuberen "Neure Pekatuak" lehenengoz abestu zan. Lumoko Kurutze-Bidean antxinatik abestuten zan melodia eta Olaetxearen "Kristinau Doktrina" tik hartutako hitzak daramazki Koru Haundi horrek. Gernikako Kurutze-Bideko abestia be, hiru gizon abotzetarako eta orkesta txikiarentzat, berak Altubek eginda dalakoan nago, baina lehen aitaturakoa baino arinagokoa.

1.933 an Reficeren "Missa Choralis" abestu zan lehenda-biziz Andra Mariaren Parrokian, Altuberen zuzendaritza pean. Hauxe da, nik dakitanik beintzat, Altube Jaunaren askenengo eskuhartzea musika arloan. Baina ez da ez Altube Jaunaren amaia, hurak sortutako giroa bizirik dago ta.

Bestaldetik, Errepublikagaz batera 1.931 an Gernikako Alkate autatua izan zan. Kargu honen ardurakaz eta 52 urtedun gaizorik izan zanez gero, bere orfeoia be Altubek utzi egin behar zuan. Eta 1.936 ko Irailak 29an Pobera joan zan bere emazte Gregorikin. Handik berriz Gernikara 1.958 an etorri ta, hemen hil zan 1.963 ko Abuztuan 27 an. Goian bego.

II. ALTUBEREN MUSIKA ETA IDAZLANAK

Euskaltzaindiaren Urre-eztaiak zirala ta bialdu nion Aita Villasanteri Altuberi buruz egindako Bibliografia bat. Nere lantxo hau EUSKERAn agertu zan (1.971 - 83/85 horrialdeetan). Harrezkero beste Altuberen lantxo batzuk be atzeman nituan, batzuk Aita Villasanteri jakin-eraziak eta beste batzuk nere paper artean geratu diranak. Auñamendik argitaratutako Jon Bilbaoren Bibliografiak be berri batzuk emon dit. Hoienganera, Altuberen ereslanak be aipatu beharrezkoak dira, nere ustez. Danekin egin dotan zerranda hau da:

- 1.901 COR JESU, Musika Bandarako martxa.
- 1.903 MARIJESIAK, Lau gizonen abotsetarako (4 g. a.) abestia.
BAGERA ZAZPI PROBINTZI, 4 g.a. abestia.
MERTXIKAREN LOREAREN EDERRA, 4 g.a. abestia.
MAITE MAITE DOTAN AINGERUARENTZAT, 4 g.a. abestia.
- 1.905 ZEZENAK DIRA (AMA BATEN ESTUALDIAK), 4 g.a. abestia.
- 1.908 AITA SAN ANTONINO, 4 g.a. abestia.
USO ZURIA, 4 g.a. abestia.
BOGA, 4 g.a. abestia.
BASOKO IZARRA, 4 g.a. abestia.
- 1.911 EUSKERAZKO ITZAK, Euskal Esnalea, I - 58/60.
POLITAK, Euskal Esnalea, I - 90/91.
- 1.912 AMA!, Euskal Esnalea, II - 127/128.
BETARGITXU (UME IPUINA), Euskal Esnalea, II - 243/247.
- 1.913 CUESTIONES GRAMATICALES: LOS SUFIJOS -Z, -ZAS Y SUS VARIANTES, Euskal Esnalea, III - 49/50.
LOS SUFIJOS -Z, -ZAS Y SUS VARIANTS, Euskal Esnalea III - 100/101, 172.

- SOBRE ALGUNOS SUFIJOS, Euskal Esnalea, III - 354/362, 369/384.
- URREGORRIZKO IRAKURGAIK UMEENTZAT, Euzkadi, X - 157/158.
- 1.914 NOIZ S ETA NOIZ Z?, Euskal Esnalea, IV - 141/143.
- 1.916 EL COMPAS DE ZORTZIKO, Euskalerrriaren Alde, 56. SI INIQUITATES, 4 g.a. abestia.
- 1.916 INDEFENSUS HOSTIS, tenor bakarra ta organurako abestia.
- 1.917 MUTILTXUENTZAT. TXANDER ZINTZO. IPUIA, Euskal Esnalea, VII - 42/45.
- 1.918 MEMORIA DESCRIPTIVA PARA SOLICITAR PATENTE DE INVENCION EN ESPAÑA POR MEJORAS EN LAS PISTOLAS AUTOMATICAS (argitaratu gabe).
- 1.919 DE SINTAXIS EUSKERICA, Euska Esnalea IX - 28/55, 51/55, 74/83, 99/106, 119/128, 140/144, 159/163, 177/183, 195/204, 218/226, 250/264. Gero, 1.920 en Donostiko Mema y Ciak argitaratu zuen liburu baten.
- 1.920 EUSKERAREN JOSKERA DALA TA, Euskal Esnalea X- 40/41, 60/62, 76/77, 91/92, XI- 133, 147/148, XII- 105.
- ERDERATIKO ITZAK; ITZ BARRIAK ETA ANTXIÑANO ITZAK, Euskera, II - 44/54.
- IZKUNTZ JAKINTZIA ETA EUSKERIAREN BIZITZIA, Abenduaren 28 an egindako Hitzaldia, bere euskalzain sarreran. Euskera, 1.921, 3/49.
- 1.921 EUSKERA GAIK: "AL" NOIZ? Euskal Esnalea, XI 153/155.
- 1.922 BA ALA BAI? Euskera, III - 63/70.
- EUSKEL ITZ BARRIAK, EUOK ERALTZAKO ERDERAK ZETARA LAGUNDU BEAR DEUSKUEN, III Eusko Ikaskuntza, 78/93.

- 1.923 ELIZALDE'TAR KOLDOBIKA-REN ERIOTZA, Eusko Ikaskuntzaren Deya, V - 10/12.
DE FONETICA VASCA, Riev, XIV - 517/534.
- 1.924 BOSTARRIKA, Riev, XV - 369/370.
- 1.925 I, J, Y, Euskera, VI - 40/44.
MODISMOS EUSKERICOS, Euskera, VI - 67/87.
- 1.926 MARIJESIAK, 6 ag.a. abestia, musika banda lagunduaz.
ZEZENAK DIRA, 6 ag.a. abestia, musikoa banda lagunduaz.
- 1.928 GUERNIKAKO EGUN GURENAK ETA EUSKERAZKO KANTAK, Euzkadi, IV - 5.
NEURE PEKATUAK, 6 ag.a. abestia, musika banda lagunduaz.
EUSKALERRIKO EKANDU ONAK, Txistulari, III - 2.
YOSUKISTO GURE YAUNAREN NEKAUSTEA, Riev, XIX - 653654.
BATASUNAREN BIDEAN, Euskera, IX - 67/85.
- 1.929 ERDERISMOS, Euskeran, lehenengo, eta urrengo urtean, Bermeoko Gaubekaren Idaztegi-Irarkolan, 316 horri.
- 1.930 SOBRE DIFUSION DEL EUSKERA; Euskal Esnalea, XX - 124/125.
- 1.932 EL ACENTO VASCO EN LA PROSA Y EN EL VERSO, Gaubeka, Bermeo, 332 horri.
AURRESKUAREN ALDE, Txistulari, XXV - 5 horri.
- 1.933 AITA DONOSTIREN LAN EDERRA, Tistulari, IIgn. haroa, I - 3.
- 1.933 KANPION JAUNAREN OMENEZ, Txistulari, IIgn. haroa, II - 3.
NOTAS SOBRE EL SANTORAL VASCO O DEUN IXENDEGI EUSKOTARRA DE ARANA GOIRI'TAR SABIN, Euskera VIV, II - 153/196.

EUSKALTZAINDIARI (SOBRE LEXICOGRAFIA),
Euskera, XIV 263/265.

LA VIDA DEL EUSKERA: DIVULGACION DE LOS
PRINCIPIOS DE LA LINGUISTICA GENERAL APLI-
CABLES A SU DEFENSA, Euskera, XIV - 299/397
(Hitzaldia). Gero argitaratu zan Bilbon, Editorial Vas-
ca, 1934, 108 horri.

1.934 OBSERVACIONES AL TRATADO DE MORFOLO-
GIA VASCA DE DON RESURRECION MARIA DE
AZCUE, Euskera, XV - 5/231. Gero argitaratu zuen
Bermeon Gaubekak 232 ko liburu baten. La Gran Enci-
clopedia Vasca-k be argitaratu dau gure egunotan, Az-
kueren Morfologia-gaz batera.

1.936 MAS SOBRE LA VIDA DEL EUSKERA, Euskera,
XVII - 1/192.—Gero argitaratu zuen berriz Gaubekak
Bermeon liburu baten.

1.939 TEMAS VASCOS: SOBRE EL NOMBRE DE LA PA-
TRIA, DE J. GOROSTIAGA, Euzko Endan, I - 15.

1.947 FONETICA Y ETMOLOGIA EUSKERICAS, Eusko Ja-
kintza, I - 29/33, 295/304, 1.948, II - 21/22, 617/622,
1.949, III - 155/158, 1.950, IV - 74/89, 309/315.

LA FONCTION DE LA DOULEUR, lehenengoz gazte-
leraz idatzia, argitaratu gabe.

1.949 LA UNIFICACION DEL EUSKERA LITERARIO, Eus-
ko Jakintza, III - 181/204.

1.950 LEXICO CASTELLANO VASCO, argitaratu gabe.

ERDERAKADARIK TXARRENAK, Eusko Gogoa,
I, II, III.

ERBESTETUEK ERBESTETUEI,

Euzko Gogoa, I.

1.951 SOBRE EL VOCABLO VASCO GUDUA, Homenaje a
Don Julio de Urquijo, I - 351/360.

ACENTUACION ESPAÑOLA Y FRANCESA DE LOS APELLIDOS Y TOPONIMOS VASCOS, Gernika, 1.951 tik 1.953 eraino.

OBSERVACIONES A UNAS NOTAS DE CH. BOUDA, Euzko Jakintza, V - 67/68.

UN PROCES LINGUISTIQUE AUTOUR DE SABINO ARANA GOIRI, Gure Herria, XXIII - 188/189. Idazlan hau Leizaola, Jemein Monzon eta Ziaurriz ekin alkar lanean eginda dago.

1.952 AGUR, AZKUE JAUNA, AGUR, Gernika, 20/21.

1.954 SOBRE MITXELENA S.: AMA-SEMEAK ARANTZAZUKO KONDAIRAN, Euzko Gogoia, V - 102/104.

1.956 LITERATUR EUSKERA: SOBRE SINTAXIS VASCA, Euskera, I-3/13.

EUSKALTZAINDIARI: SOBRE DEFENSA DEL EUSKERA, Euskera, IV - 43/56.

1.957 LAZTANTXU ETA BETARGI, Alderdin lehenengoz argitaratuta, eta gero Baionan liburu lez, 43 horri.

1.958 LA FONCTION DE LA DOULEUR, Pau, 120 horri.

1.959 OLABIDE TA GIZA SOIÑA, Euzko Gogoia, IX - 507/508

1.960 EIBARTARRAK ETA EUSKERA, Euskera, V - 61/65.
EUSKERARI BURUZ, Euskera, V - 329/333.

* * *

Zerrenda hau amaituta, bertan agertzen diran idazlanetatik askok badaukate musikagaz zerikusirik. Momentu honetan, eta ez larregi nere hitzak luzatzeko, aipatuko neuke EL ACENTO VASCO liburua. Hizkuntza eta musika artean dauden loturak estudiatzen ditu Altubek, tesis hau jarriaz: hizkuntzari musika dario. Hizkuntza bereziak bere musika jatorra izango du. Orain urte batzuk dirala bialdu nion Madridera Agustin Gonzalez de Azilu, alsasuar musikegileari Altuberen liburu horri. 1971 an Espainako "Premio Nacional de Música" irabasi

zuen Altuberen tesis hori erabiliaz. Ba dauka bai meriturik Altube Jaunak bere ereslanetan, sortu zuen giroagaitik eta bere tesis hoiak emon digun ondorioagaitik.

Amaitzerakoan, Mondragoiko agintariei eta Euskaltzaindiari eskari bero bat: Sebes Altube eta Lertxundiri omenaldi hau eskeini diogu, baina gaur goizean ez dedin amaitu eta gure ezkerona betikorra izan daiten, Altube Jaunaren izena kale bateri jarri dezaioten Gernikako agintariei ofizialki eskatu egiozue.

Eta gaizki esanak, parkatu.

* * * * *

Donostia, 73-VII-27

USA LEKU-IZENA ETA BERE ESAN NAHIA

Juan San Martin

Leku-izenak, agiri zaharrak bezala dira, tokian tokiko bezala eta aldakuntzarik gabe jaso beharrezkoak. Lekuko jarri behar diranean, agiri zaharretan grafia errespetatu behar den erara, leku-izenak bertako dialektu edo euskalkian jaso beharrezkoak dira.

Urtetxoak dira Gorbeako *Usategieta* eta Elgea-mendiko *Usakoaitza* mendi tontorreri izena zuten bezala gordetzen ahalagindu nintzena, baina eginahalak egin, mendizale gehiago ziren zuzenketa ustean *Usotegieta* jartzen zutenak, eta denborarekin *uso* (o-kin, a-ren ordez) bezala gelditu da mendizaleen Federazioko listetan. Ez ordea Gorbeako eta Elgea-mendietako artzairen artean; hauen ahoetan *usa* iharraitzen du.

Denok dakigu, Euskaltzaindikoak behinik-pehin, usoen tegia, izenez *usategi* bihurtzen dala, *usotegi*-ren ordez. Baina, Gorbea eta Elgea-mendiko gailur horien kasu hortan, nere ustez, ez dute zer ikusirik ere uso hegaztiarekin, eta bai herri basoentzat erabiltzen zen *usa*-rekin.

Esandakoaren argigarri zenbait ageri emango ditut. Lehen-dabizi zahartasuna adiaraziko diguten batzuk, gero idazle eta euskalari batzun eritziak, ondorean maiztasuna agertuko duten leku-izenen zerrenda eta azkenik usoezin ikustekorik ez duten leku-izenak. Horiek ikusi ondorean konturatuko gara, guttienez, bi esan nahi dituztela gure leku-izenetako *usa*-k: *Uso* (erdarazko "paloma") eta *usa* (= "terreno comunal") sustraie-tatikoak.

Agiri zaharretan

Usalbaque, 1346an, Elgoibarko "Carta-puebla"n agertzen denez Madariaga eta Marikutxa inguruko mendi baten izena. Gaur ere larrak dira eta dolmen baten arrastoak daude.

Usaguiola de Leya, 1388an, Bizkaiko Ziortzako (Zenarrutzako) Kolejiataren saroi edo eskortaren izena, Iturrizak *Historia General de Vizcaya-ren* (lehen edizioa) 167garren orrialdean dakarrenez.

Usalo, 1484an, Azkoitian, I. López-Mendizabalek *Etimologías de apellidos vascos-en* dakarrenez.

Usaondo, 1484an, Azkoitian, I. Lopez-Mendizabalek aipatutako liburuan.

Usarraga, 1536an, Antzuolan, I. Lopez-Mendizabalek dakarrenez.

Usabaraza, 1566an, Azpeitian, I. Lopez-Mendizabalek dakarrenez.

Usabiaga, 1570an, Azpeitian, I. Lopez-Mendizabalek aipatutako lanean eta A. y A. Garcia Carraffa anaiak *El solar Vasco-Navarro-ren* VI. tomoan.

Usabel, 1575ean, Arratian, I. Lopez-Mendizabalek dakarrenez.

Usa-iturrieta, 1578an, Elgetako leku-izena, bertako Udaltxeko Artxiboan aurkitu dudanez.

Usaetxe, 1587an, Azpeitian, I. López-Mendizabalek dakarrenez.

Usandizaga, 1738an, Asteasun, I. Lopez-Mendizabalek eta Garcia Carraffa anaiak dakartenez.

Usarralde, 1741ean, Betelun, I. Lopez-Mendizabalek eta Garcia Carraffa anaiak. Gainera, A. eta A. Garcia Carraffa anaiak beste deitura batzuk ere agertzen dituzte, urte gabe, *Usansolo* Galdakaon, *Usaola* Gordexolan eta Durangon, eta

Usategi Lazkaon eta Galdakaon.

Usaberarza, 1754an, Hernaniko mendi baten izena M. Larramendik bere *Corografía de Guipúzcoa-n* dakarrenez.

ERITZIAK ETA AGIRIAK

J. A. Mogelek *Peru Abarka-n* (1881ean Durangon egin zen edizioan), 110garren orrialdean dio: "Baagoz inguruban usa edo erri-basuac". Eta 1899an argitaratu zen *Peru Abarka-ren* erdal itzulpenenan, 60. orrialdean: "*Ya hay en los alrededores montes comunales*", dio. Ideia bera iharraiturik, Justo Garatek *La época de Astarloa y Moguel* liburuaren 68. orrialdean, *Peru Abarka-ri* buruz ari delarik, Mogelen eritzia agertzen du: "*Da "usa" como bosque comunal, lo que sirve para Usánsolo y otros vocablos.*"

R. M. de Azkuek *Dicc. Vasco-Español-Francés-aren* bigarren tomoko 382garren orri-aldean: "*USA (B, G), ejido, campo o monte común de los pueblos*". (ondorean ihartzen dituen hitzak Mogelen *Peru Abarka-tik* hartuak dira).

Gregorio de Mujikak *Monografía Histórica de la Villa de Eibar-en* 10. orr. hara zer jaso zuen: "*En un acta de 1766 se*

dice que se saquen a candela las Nobalias, usas y montes. En otra de Junio de 1767 se dice "Regulación de las tierras comunes que llaman usas, hecha por...". En 1790 se dice que hay una usa vacía en la inmediación de la casería achekua". En los documentos del Archivo se habla mucho de cuestiones referentes a estos terrenos comunales, que aparecen citados con variedad de nombres. Unas veces se les nombra con el dictado español de novalías, otras veces se les llama eunos o unos, usas y quinones, reservándose el nombre especial de egurzas para el caso particular en que terreno comunal sirva para que los vecinos se provean de leña. Eunos, usas y quinones son nombres apenas usados en nuestro país. A usa da el docto euskerólogo Sr. Azkue en su excelente Diccionario esta significación: "ejido, campo o monte comunal de los pueblos". Quinon es indudablemente el Kiñon mencionado en el citado Diccionario con esta significación: "parte de terreno que cede el pueblo en el reparto vecinal". Euno o Uno no lo encontramos en el Diccionario vasco ni en el español".

M. de Unamunok, bere lan batean, *Derecho consuetudinario de España, I - Vizcaya* ("Obras completas", edic. Barcelona-Madrid, 1958, tomo VI, p. 284), esaten du: "En algunos pueblos, donde el monte común era muy extenso o se hallaba a corta distancia, tenían facultad los vecinos para entrar en él siempre que quisieran y tomar lo que necesitaran: tal, por ejemplo, en Cenarruza. Llamaban a esto usiek, los usos."

J. Caro Barojak, *Dos notas descriptivas: La agricultura en Vera de Bidasoa y caza de palomas en Echalar lanean* ("Eusko-Jakintza", vol. V, 1951, 119. orr.) honako hau dio: "Generalmente todos los puntos geográficos que tienen nombres tales como Usateguieta, Usategui, etc., tenían antes palomar (Usoa = paloma; Ate = puerta; tegui = sitio) y se conocen altos a los que los cazadores van con escopeta a acechar el paso de las palomas en los valles navarros de Vera, Bertiz, Baztán, Aezcoa, Salazar, el Roncal y más al interior en las sierras de Urbasa y Andía.

L. Michelanak, *Apellidos vascos*-en 106. orrialdean: “592. uso “paloma” (empleado también como nombre propio): *Usabaraza*, *Usabiaga* (*Usobiaga*, de *usa-obi-*), *Usaeche*, *Usandizaga*, *Usaola*, *Usarte*, *Usoategui*, *Usularre*. “Generalmente todos los puntos geográficos que tienen nombres tales como *Usateguieta*, *Usategui*, etc., tenían antes palomeras” (J. Caro Baroja, E. J., V, 119). Aunque *urzo* es una var. de *uso*, en el caso de *Ursua*, *Ursuegui* será mejor pensar, p. ej., en (*h*)*ur*.

I. Lopez-Mendizabalek, *Etimologías de apellidos Vascos*-en 732/733 orrialdeetan: *Usa* = grama.

José A. Mugica-k, *Los apellidos de Iberia* (Bilbao, 1965) liburuaren 153garren orrialdean: *Usa* = grama; *Usa* = pasto.

Plazido Mujikak bere *Diccionario Castellano-Vasco*-n, 447. orr.: “vocablo común. 4: monte común, terreno comunal, ejido = erri-baso, uri-baso, erri-lur... usa BG.

LEKU-IZENEN MAIZTASUNA

Izenon maiztasuna adiarazteko, toponimia gai honetaz egin diren bilketa zerrendak eta aukera izan dugunean beste zenbait lanetan aurkitu ditugunak hartuko ditugu lekuko.

Luis de Eleizalde-ren *Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, XX (1964) aldizkarian *Usa* sustraidunak 132/133 orrialdeetan dakartzki. Baina, beretarik, *usa*, herri-baso edo herri-lurrekin zer ikusirik eduki leikeenak bakarrik jasotzen ditut, adibidez: *Usaba*, campo de Zudaire (Nab.). *Usabakotxena*, paso de palomas en la sierra de Elguea (Oñate, Gip.). *Usabaso*, monte de Ondárroa (Bizk.). *Usaberartza*, caserío de Deba (Gip.). *Usabiaga* o *Usabiaa*, caserío de Itxaso (Gip.). *Usagua*, heredad de Buruaga (Zigoitia. Alaba). *Usain*, término de Mezkiriz (Erro, Nab.) *Usako*, molino de Zañartu (Oñate, Gip.). *Usalortu*, caserío de Yurre (Bizk.). *Usamendi* y *-berri*, caseríos de Villabona (Gip.). *Usandia*, término de Villafranca (Gasteiz, Alaba). *Usandizaga*, caserío de Azpeitia (Gip.). *Usansolo* (antes

Uzuensolo), barrio de Galdakano (Bizk.). *Usategieta*, término de Foronda (Alaba). *Usao*, caserío de Bengoetxe (Galdakano, Bizk.). *Usaran*, fuente y término de Argiñao (Gesalatz, Nab.). *Usarana*, monte del ayuntamiento de Iruraiz (Alaba). *Usarditzanea*, véase Sorarrain-borda. (*Sorarrain-borda*, *-Emparan*, *-Usarditzanea*, caseríos de Larraul, Gip.). *Usarraga-aundi*, *-berri*, *-maisakoa*, *-santi* y *-txiki*, caseríos de Deba (Gip.). *Usarroa*, molino de Deba (Gip.). *Usasti*, véase Oruesagasti. *Usaya*, monte de Ezkarai (Logroño).

Eleizalde ber-berak, vokalak *a*-ren ordeztzen *e* formaz aurkitzen diren toki-izenak: *Use*, caserío de Mendata (Bizk.). *Usebal*, heredad de Olano (Zigoitia, Alaba). *Usebaso*, bosque de Ayangiz (Bizk.). *Useran*, término de Bidaurre (Gesalatz, Nab.). *Useti*, caserío de Garai (Lezama, Bizk.). *Usetxi*, casa de Arzuri (Olza, Nab.). Badira beste batzuk *Us*-etik hasten direnak ere eta gehienok arestian jarritako adibideekin zer ikusia dutenak noski: *Usiasandi*, heredad y terreno comunal de Gizaburuaga (Murelaga, Bizk.). *Usibide*, término de Nabatz (Juslapeña, Nab.). *Uskorta*, caseríos de Larrazkitu (Bilbao, Bizk.). *Uskuain*, terreno inculto de Arbitsu (Nab.). *Uslakabe*, término de Bera (Nab.). *Usola*, término de Luzaide (Nab.). *Usolo*, heredad de Dima (Bizk.). *Usondo*, véase Oxirondo. *Ustapide*, caserío de Arrona (Gip.). *Usalde*, heredad del caserío Usua en Ibarrola (Murelaga, Bizk.). *Usurbe*, caserío de Beasain (Gip.). *Ususko-barrena*, término de Abaurrea-alta (Nab.). Zerbait urrutiago izango dira noski *Uza*, *z*-kin aurkitzen direnak, inoiz *s*-tik aldatuak badira ere. Hala ere, ez dira alde batera baztartzekoak era orokor batean begiratu behar diren garaian. Ondorenean datozten batzuk, *Uzabal* = Usa-zabal; *Uzarreta* = Usa-zaharreta, e. ab. izan ditezke. Hauekin bukatzen dugu L. Eleizalderen zerrenda: *Uzabal*, caserío de Tolosa (Gip.). *Uzabaleta*, monte de Urgoiti (Galdakano, Bizk.). *Uzabaleta*, monte de Legazpia-Oñate (Gip.). *Uzarreta*, monte de Isatsondo (Gip.). *Uzegi* (Hucegui), variante del actual Uztegi. *Uzilarri*, molino de Arakaldo (Bizk.).

Gerardo Lopez de Guereñu, *Toponimia alavesa* argitaratzen hasi zen "Anuario de Eusko-Follore"-ren XVI. tomotik

(1956); *U* letrara oraindik ez da heldu, baina *Usa* sustraidun leku-izenen harteko jasoak ditu: *Usabelarza*, *Usansolo*, *Usabiabiaga*, *Usandizaga*, *Usaguerra*, *Usaluzeta*, *Usanaga*, *Usandia*, *Usarana*, eta abar.

Ignacio Zumaldek, *Historia de Oñate* (San Sebastián, 1957) liburuaren 358 garren orrialdean dakar: *Usabakotxena*. "En 1853 se comenzó en el término de Usabakotxena a explotar una mina de carbón mineral, en la que en 1857 seguían todavía trabajando, es de suponer sin grandes resultados."

J. M. de Barandiaranek ere jasotzen du Villafranca de Ordizia-n *Usabe-gaña*; ikus, "Munibe", VIII (1957) 86garren orrialdean (Eusko-Folklore". Materiales y cuestionario, 3.ª Serie, n.º 9).

Jesus Elosegik, *Catálogo dolménico del País Vasco* (Zaragoza, 1958), Rev. "Pirineos", 306/307 orr., Sarako *Usategieta*-ko Larria eta Tonbako-erreka izeneko trikuharriak aipatzean, katalogazioaren 227, 228, 229 eta 230 fitxetan; eta 282.orr. Gorbeako Odoriagako *Usengatzu* trikuharria, 134. fitxa.

Fr. Luis Villasantek Graziano Anduaga Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin osaturiko *Aitonaren uzta* bilduman (Zarautz, 1961), 25/26.orr., *Usaakotxena* dakar Gaboño mendia eta Artiako San Juan baserriaren tartean. Eleizaldek eta Zumaldek aipatzen duten *Usabakotxena* ber-bera da.

Julio Caro Barojak, *Los vascos y la historia a través de Garibay* (San Sebastián, 1972) liburuaren 79garren orrialdean: *Usaco*, Oinatiko San Prudencio hauzoko baserria. Hauzoaren izen zaharra Zañartu da, Eleizaldek bere zerrendan eman zuen bezala, *Usako* izen berau aipatzean.

Justo Garatek, *Dos raíces geminadas en el vocablo "Gupúzcoa"* lanean, "Fontes Lingvae Vasconvm", IV (1972), n.º 11, 146garren orrialdean dakar *Usakua*, Donamaria (Nafarroa) herriko leku-izena. J. Garate berak, lan honetan, 139garren orrialdean ematen du *Usa*-ren balioa edo esan nahia, "terreno comunal" bezala Bizkaian ezaguna zala azalduaz, J. A. Mogelen *Peru Abarka* lekuko hartzen duelarik. Lehen ere aipatua

dugu, *Usa*-ri buruzko eritziak agertzean, *La época de Astarloa y Moguel-en* ere uste bera adiarazi zuela.

Herrietan bada beste bat ere zerrenda hoietan ez datorrena, Gipuzkoako *Usurbil*, 1371an “*Carta-puebla*” hartzean *Belmonte de Usúrbil* izenez. Eta mendizale garanontzat oso ezagunak dira Gorbeako *Usategieta* tontorra, Andia-mendietako (Lizarraga, Torrano) *Usabide* eta Elgea-mendiko *Usakoaitza*, Arlabandik hurbil Arabako Marieta eta Gipuzkoako Gatzaga mugatzen dituen mendia. Orain, mendizaleen Federazioko listan ere, *Usokoaitza* bezala agertzen da, eta Instituto Geográfico y Catastral-eko mapan (Mapa 1:50.000, hoja 112, 2.^a edic. 1954) 915 m.-dun gailur edo kota, okerreiz *Isicoaitza* jartzen da, *Usakoaitza* jarri beharrean. Mapa berean (hoja 113, 1.^a edic. 1944), z-kin dator s-ren ordeztu, *Uzacochena* dalakoa.

USO-TIK NEKEZ ETORRI DITEZKENAK

Ukatu ezinezkoa da, *Usa* horietako asko *uso* = “paloma”tik datoztela, *Uso-tegi* = *Usategi*-ra; *Uso-etxe* = *Usatxe* edo *Usetxe*-ra; eta abar, legez horrela bihurtzen direlako. Baina sustrai hoietako leku-izenik gehientsuenak *usa* = “ejido” edo “terreno comunal”etik datoztela esango nuke. Leku-izen bezala duen maiztasuna agertzeko bildu ditudanetan asko baitira *uso* = “paloma”tik ezinezkoak. *Usakua*, *Usako*, *Usagiola*, *Usandia*, *Usaondo*, *Usao*, *Usarralde*, e. ab. harrigarriak baitira. Harrigarriak diren bezala, o, a-ren ordeztu dutenen arteko *Usola*, *Usolo*, *Usondo*..., heurak *usa* = “comunal”ekin hobeto ulertzen direnez gero. Eta, behar bada, *Uside*, *Uskorta*, *Uskuain*, *Usurbe*, *Usurbil*, *Uzelai*, e. ab. *usa*-tikako bezala errazago konprenitzen dira.

Dena dela, *uso* = “paloma”tik izatean, *Usakoaitza*-k *Usaitza* edo *Usaoitza* behar zuen izan, *-ko* atzizkia galdurik; eta *Usabide*, Andia-mendiko bide bat da, gizonak eta abereak ibiltzeko, eta ez *uso*ak ibiltzeko. Puntu honetan ez dugu zalantzarik.

Honegatik, *uso*-tik nekez etorri ditezkenen arteko ditugu, adibidez, honako hauek: Araban, *Usakoaitza* (Arlabango mendietan), *Usagua* (Zigoitia), *Usandia* (Villafranca, Gasteiz), *Usarana* (Iruraiz); Bizkaian, *Usagiola* (Ziortza), *Usansolo* eta *Usao* (Galdakaon), *Use* (Mendata); Gipuzkoan, *Usako* (Zañartu, Oinarti), *Usandizaga* (Asteasu), *Usabiaga* (Azpeitia), *Usabe-gaño* (Ordizia), *Usaberartza*, *Usarraga-aundi* eta *Usarroa* (Deba), *Usarditzanea* (Larraul), *Usaberarza* (Hernani), *Usartza* (Eibar); Nafarroan, *Usakua* (Donamaria), *Usabide* (Andiako mendietan bide baten izena), *Usarralde* (Betelu), *Usaba* (Zudaire), *Usain* (Mezquiriz), *Usaran* (Geselatz).

Bestalde, *Usabaso*, *Usaberartza*, *Usako*, *Usalortu*, *Usamendi*, *Usaluzeta*, *Usandia*, *Usandizaga*, *Usansolo*, *Usao*, *Usarroa*, *Usaran*, *Usolo* eta abarrek berez adiarazten dute “ejido” edo “comunal”etiko sustraia dutela.

Usa = “terreno comunal” bera, erdarazko “uso”tik etorri diteke. Baina, esan beharra dut, leku-izenik gehienok oraindik euskaraz egiten den tokietakoak direla, edo euskarazko toki-izenak onduen gordetzen direnetakoak, eta beti ere euskaraz egiten den partetik ez hain urrutikoak. Bestalde, euskal toponimia urri den lekuetan aurkitzen ez dena. Honez gainera, kontu izan behar dugu hitzaren aintzinasuna arestian aipatu ditudan agiri zaharretakoak haintzat harturik. Horiek adiarazten bai digute izenon aintzinasuna.

Mogel, Azkue eta Gregorio Mujikaren eritzi eta agiriak ezagutu ondorean, bilketazko txosten honen bidez, leku-izenen ikerketan aurrerantzean kontu gehiago eskatzen dugu *usa* = “comunal”en alde; eta, kasu bakan batzuk ukatzeke, ez hainbeste *uso* = “paloma”ren alde.

LEIZARRAGA, BONAPARTE, ETA BESTE

Josu Oregi

Maiatzeko batzarrean irakurritako nere txostenean, eta Aresti jaunak Leizarragan aditzari buruz FONTES-en argitaratutakoaz niharduela, Arestik ETXEKI eta IEXEKI-ren flesioak aditz bakar batenak bai-liran jartzen dituenarren Leizarragarenetan bi aditz bereiziri dagozkiela esaten nuen.

Aresti jaunak bere erantzuna irakurri ondoren, Satrustegik FONTES-en orrialdeak eskeiñi zizkigun biori, gure iriztiak azal genitzan. Eskeintza hortaz baliatu-asmoz Arestirena birrirakurri nuenean, ordea, zera ikusi nuen: Nere txosten hartan esaten nuenaz biok erabat bat gentozela.

Izan ere Arestik, bere erantzunean, DATXEKA eta DAXEKA Lafonentzat eta neretzat bi direla esan ondoren, hitzez-hitz honela diosku: BAI ETA, SEGURU ASKI, LEIZARRAGARENTZAT ERE. Hauzia garbi dagoela uste dut beraz, horixe bait-zen, eta ez beste, nik niona. Axularrentzat bestetara dela ba dakigu, eta Arestirentzat berdin baldin bada, zorionak eta bejondaiola; ni ez nintzen Axularren eta Arestin aditzez ari, Leizarragarenaz baizik. Areago: ERRETZEA adierazten duen aditz hori, egun, berak dion eran erabilli behar ez danik ere ez nion; Leizarragak bestela zerabilhela, eta kito.

Egia esan, Arestik bere lanaren objetibu eta subjelibutasuren dion hortan nik ez diot fitsik ulertu. Bere lanari honela zeritzan: FLEXIONES VERBALES EMPLEADAS POR LEIZARRAGA DE BRISCOUS EN SUS TRADUCCIONES VASCAS DE 1.571.

Beraz, Leizarragan flesioak sailka jartzean, ETXEKI-ri buruzkoetan bi bide aukera zitzaken: Bata, Leizarragak darabilzkianez bi aditzeko bai-liran eman, eta bere ustez bakarrari

dagozkieneko oharra egin, edo eta, bestela, bere iritziz dago-kienez aditz bakar batekotzat jarri eta Leizarragak bestela zera-bilzkiela aditzera eman. Subjetibutasunari, hor, ohar bat egite-ko haiñako tokia baizik ez dagokio.

Haritzelar jaunak zionez (eta ni berakin bat nator), Ares-tirena bezelako lanak jatorrizkoetara joteko aukerarik edo be-tarik ez daukatenak idazle zaharren euskereaz jabe ditezen arras baliotsu ditugu; horretxegaitik hain xuxen, eta horrela-koentzat okerpide gerta ez zedin egin nion nere ustez beharrez-ko zuen zuzenketa, eta ez "off-side" harrapatu nahiez. Gaiñera, oker esan ez badidate beintzat, norbait "off-side" harrapatu nahiez gero oharkabean tokiz-kanpo uzten saiatu behar omen; nik, ordea, nere txostena irakurri baiño hillabete eta erdi lehe-nago jakinarazi nion Arestiri hartan nerabilen gaia.

Laguntzailleez beste aditzentzat Lafon jaunak azter-lan ho-ri egiña zuela esan, eta Dogson-ek lehenago egin zuela aipatu ez nuelako, Arestik bere inpernikidetzarako hartzen nau. Dogson-ek ez zuen ordea, nik dakidanez, lan hori osorik egin, eta Lafon-ek bai; horra hor zergaitik hartu nuen azkenengo-a-rena Arestirenakin alderatzeko.

Beste batean, eta neretzat zalantzazko gertatzen den aditz-flesio batez niharduela, grekozkora jo nuen argi-billa. Gaizo ni! "MUNDU GUZTIAK JAKIN BEHAR BAITU (ZEREN HA-LA PROBATU BAITZUEN BONAPARTE PRINTZIPEAK) LEIZARRAGAK BERE TRADUZIOAK FRANTZESETIK EGIN ZITUELA".

Damurik, xehetasun bat ahantzi bide zaio Arestiri. Bona-parten ustez, Ginebra-ko eleiz-gizon protestanteak egindako itzulpena euskeratu zuen Leizarragak. Printzeak, hori esateko, frantsesez 1616.gnean argitaratutako batekin alderatu zuela ja-kingarri da, eta are jakingarriago, Ginebra-ko eleizgizonek egin eta lehenbizikoz ofizialki onartu zena 1588.gnean azaldu zela.

Leizarragak 1571.gnean hartaz nola balia zitekeen ez dakit...

Baiñan, Lafon-ek erakusten duanez, bai Leizarraga eta bai Ginebra-ko eleiz-gizonek OLIVETAN-en itzulpen zaharrago batez baliaturik egin bide zituzten bereak, eta Olivetan-en, grekozkoaren, VULGATA delakoaren eta Leizarragarenen alderaketa bat egin ondoren, hitzez-hitz honela dio: "LIZARRAGUE ET SES COLABORATEURS, TOUT EN SUIVANT SURTOUT LA TRADUCTION FRANÇAISE, ONT DONC TENU COMPTE DU TEXTE GREC..."; euskeraz: Leizarragak eta bere laguntzailleek, gehienbat frantsez-itzulpenari jarraitu bazaizkio ere, grekozkoa ere gogoan izan dute beraz... Hori horrela izaki, zillegi bekit galdera bat egitea: Nor ote dabil, hontan, MUNDU GUZTIAK jakin behar lukenetik urrutiago?

"Hontan", diot, eta horixe'esan nahi dut. Bestetan, eta Aresti jaunari zinez diotsat, Euskaltzaindiak iñoiz "lehen Leizarragalogo" titulua eman beharko balu, eta bozetara egin, nerea beintzat ez litzaioke faltatuko.

Besteak beste, eta lehenbizikora joaz, ETXEKI eta IEXEKI bi aditz izan eta gero nahastekatu ote diran, ala lehenbizi bakar zena harrez gero bitaratu ote denekoa beste hauzi bat dugu. Aresti jaunak bere iritziaren aldeko arrazoiak bere txostenean baiño zehazkiago eman nahi balizkigu ikaskizun interesgarri bat geneukake.

Donibane Lohitzune, 73-VIII-31

AITA BLAS MENDIONDOkoa (1873-1914)

P. Lafitte

Aurten ehun urte, sortu zen euskal-idazlari bat, orai gehienek ahantzia. Haren orroitzapena nahi ginuke lerro hautan

laburzki piztu, GURE HERRIA agerkarian luzexagoki apaitzeko bezperan.

Lekorne-ko eliza-agerien arabera Luka Babaquy 1873 ko abenduaren 20 ean sortu zen. Agerrean, Aita, Pierre Babaquy zuen, etxekoa. Ama, aldiz, Graziana Arrambide, Baigorriarra.

Sei haurriden zaharrena zen: arreba bat bazuen, Maria, eta lau anaia: Jean (cadet), Jean (Menez), Jean Bautiste, Jean Pierre.

13 urtetan ama hil zitzaion, 17 urtetan aita. Beharrik etxen osaba bat nausitu baitzen haur hoiien guzien gidatzeko.

Lukak gazterik ikasi zuen irakurtzen eskuarazko katiximan.

Hamabi urtetan Hazparneko Freretan iragan zituen sei ilabete, ez gehiago.

Eskolatik gelditu —eta—, berehala lur-lanari eman zen, osabaren manupean.

Herrian mutiko serio baten fama zuen: aho garbia, xehea, elizakoa, pilotari, pollita, kantaria, etxe onekoa, irakurtzailea.

* * *

Hemezortzi urte zituzkeen, gertakizun harrigarri batek inarrosi zuenean.

Egur xehatzen ari omen zen, iluntzean. Eta horra bet-betan galde bat senditzen omen gogo guzia setiatzen diola:

¿Zer duk mundu hau? Bai, funtserak eta zer duk?

Arrunt zurabiatua dauka gogoeta horrek.

Lana egiteko izaki, egin nahi nolazpait eta ezin. Azkenean eskuan zuen aizkora edo puda bere gisa utzirik, hor jarzen da, dena pentsaketa, biziaren nora-bideaz, bere biziaren nora-bideaz.

Ororen buru, berak ez dakiela nola, ideia bat heldu zaio:
—Apez banindadi?

Egunak joan, egunak etorri, ideia ez zitzaion histen, hazkartzan baizik.

Etxegarai apeza, Lekurneko bikario hamabi urtez egona, herrian berean erretor izendatu berria zen. Luka ongi ezagutzen zuen. Mutikoa joan zitzaion bere kasuaren aipatzerat.

Abegi ona egin ziola apezak, ez da dudarik; bainan zuhurtziarekin. Adin hortako bokazionea behar zen frogatu. Otoitz eta sakramendueri jarraik-arazi zuen nasai-nasaia, bainan deus ere kendu gabe etxeko eginbidetarik.

Ilabeteak iragan ziren eta Luka egundaino ez bezela apezteko xedetan egoki.

Jaun erretorak pentsatu zuen frugantzak aski iraun zuela eta erran zion gizon gazteari:

—Lehen bai lehen parte emak osabari hire xedetaz.

Osaba ez zitzaion estakuruka hasi ere. Agerretik atera zen jadanik apez bat, Paulino Babaquy, Bidarteko bikario hil zeno 28 urtetan pikotak ere emanik, 1869 ko irailaren 21 ean. Zertako ez zen etxe beretik bertzerik aterako?

Osabak ihardetsi zion ilobari:

—Jainkoak zer galdatzen baitauk eta hura egizak. Ene gatik libro hiz.

* * *

Luka joan zen Belokeko Beneditanoen Komenturat. Han mintzatu zuen Dom Agustin Bastres abade famatua: ea hura ere bere komenturat har zezaken, bai ala ez.

Dom Bastres han zagon duda mudatan. Mundutik urrundurik apez egiteko xedea bai xede saindua zitzaion, bainan adina hor izaki eta apezteko eskolak ez ttipiak.

Lukak konprenitu zuen ez zuela jo... behar zen aterat. Lekornerat itzuli zen, soldadugotik landa ikustekotan.

Luka Babaquy Baionen hiru urte egon zen soldadu, 49 garren erreximenduan. Serjant gradurat ere heldu zen, eta asti-orduak baliatu zituen eskolatzan.

Baionan ohartu zen bazela kaputxin komentu bat eta bere buruarekin egin zuen:

—Beharbada horiek hartuko nie.

Desarmatu bezain sarri, Etxegarai jaun erretora lagun, harat jo zuen. Kaputxinen buruzagiak bihotz-bihotzez hartu zuen: anaiatzat, hasteko eta bat, onets zezaketen duda-mudarik gabe, berak nahi zueneko; apezgaitzat, aldiz, Probintziak erabaki behar.

Babaquy-k deliberatu zuen zango bat bederen sartuko zuela kaputxinetan, bigarrena ere jarraikiren zelako peskizan.

Lekurnerat joan zen, ahaide-adixkideri agurrak egin beharrez, eta berehala Baionako Kaputxin-etxerat itzuli, geroaren haiduru. Latinaren ikasteko gramatika bat eskuratu zuen eta hartan murgildu.

Baionako buruzagiak hartsuki artamendaturik Tolosatik baia etorri zen, Babaquy on-har zitakela anaiagaitzat bai eta apezgaitzat.

Berehala Luka bidali zuten CARCASSONNE hirirat, hango komentuan frailegurat heldu zen, BLAS izena hartzen zuelarik.

1899 ko irailaren 9 an eman zioten kaputxinen jauntzia; ondoko urtean lehen botuak egiten zituen (1900-IX-17).

Millan-ko eskola baterat igorri zuten ikasle-zain bi urtez.

Frantziako lege tzarrek fraileak desterratu zituzten. Tolosako Probintziako kaputxinak Espainiarat joan ziren ihesleku-beha, Burgos-etik haratago.

1903 ko urriaren 4 ean Blas anaiak egin zituen alde bateko botuak eta hura ere Espainian sartu, teologiaren ikasteko.

1906 eko martxoaren 31 an Burgoseko artzapezpikuaren eskuetarik hartu zuen apez-ordenua.

Buruzagiek deliberatu zuten Baionako diosesako Euskaldu-
nez arloa hartuko zuela. Oiharzunen izanen zuen egoitzar, Le-
garrean, eta handik joanen zen Behar-aran predikatzerat, mu-
gaz bertze alderat.

Adorazione, lehen komuniona, erretreta, Heren-ordenako
biltzar, orotaratz bazuen deia. Laster predikari handitzat fama-
tu zuten bazter orotan, eta galdatu zioten otoi publika zituan
bere predikuak apezzen zerbitzuko.

Horrela hogoi-ta-lau prediku segurik makina jo zituen eta
polikopiatu.

Aldiz, 35 hitzaldiz eman baitzituen HEREN-ORDENAKO
ERREGLAREN XEHETASUNAK, liburutan agertu ziren 1914
ean.

* * *

1914 eko gerla hasi zenean, Aita Blasek ez zituen bere 41
urteak bete.

Nahiz Frantziak desterratua, sartu zen berehala frantsesen
oinazetan parte hartzera, Baionako gaztelu berrirat presentatu
zen eta soldado laguntzailatzat hartu zuten bere adinaren gatik.

249 garren erreximendua ari zuten apailatzen gudu-tokie-
tarat igortzeko.

Aita Blasek jakin zuen erreximendua hortako Euskaldun
eta Landesaren artean ez zela nehor apezik. Orduan deliberatu
zuen joanen zela heiekin eta aintzindarietara galdegin zeien fagore
hori. Aise ardietsi zuen eta, diotenez, gerlari gaiek atsegin han-
dia ukan zuten hain lagun goxoa harturik.

Azilaren hogoian joan zen Baionatik 249 garrena eta Aita
Blas loriatua zen lagunaren artean egiten ahalko zuen apez-lanaz.

Zorigaitzez apez-lan horrek ez zion luzaz iraunen. Gerla-
pezoinetaratz orduko azilaren 26 an skrapnell bala batek kol-
patu zuen handizki, eskuineko sorbaldatik sortu eta biri gain-
-aldean gelditurik. Orduko gutun batzuek eman xehetasunetan
har ditzagun bizpahiru. Bonbardamendua hastean Aita Blas bi
lagunekin zen eta hirurak otoitzari lotu zitzaizkon bere alde.

Bet-betan gainerat erortzen eta zartatzen zaie obuz bat. Hiruak hunkituak dira: kaputxina sorbaldan, bigarrena ixterrean, hiru-garrena hil-etsian delarik.

Azken huni oharturik, Aita Blas herrestatzen da ahal bezala, hiru aldiz alditxartuz atsoluzionearen emaiteko, hiltzen ari den lagunari.

Berak ere elizakoak ukan zituen Etienne dominikano baten gandik eta eritegi batera ereman zuten, ziolarik: "hobeto zen ni hiltzea, bortz haur eta alargun bat uzten dituen euskaldun gaiso hori baino".

Ondikotz, biharamungoan, azilaren 29 an, Aita Blas gorputz zen.

Ehorzketa ederrak egin ziozkaten, hainitz soldadok inguratzten zutela haren kutxa, eta bereziki heien arteko hamalau apezek. Marne departamenduko Fismes herrian ehortzi zuten soldaduen hil-harrietan. Bainan hil-harri horiek desegin zituzten gerlatik landa eta gorputzak bertze nonbait ezarri. Ainhoako jua erretor den Jean Babaquy, Aita Blas-en iloba, ibili da osabaren hobi berria nun den jakin nahiz, bainan ezin du atxeman.

* * *

Haren Obraz, bi hitz bakarrik.

Oixtion iragaitean aipatu ditugu haren 24 prediku eta "*heren ordenako erreglaren xehetasunak*" deitu liburua.

Bonifacio de Ataun Aita Kaputxinak Ameriketara agertu artikulu batean salatzen du, Espainiako gerla hasteko mentean, Ondarrabiako komentuak bazauzkala Aita Blas zena paper batzu, bainan ez jakin han egon zirentz. Harat jo dugula asma dezakezue. Zorigaitzez komentu hartako liburuzainak ez du orai arte paper belios horien hatzik ere aurkitu.

Lekaroz-eko komentuak aldiz, mailegatu dauzku 24 prediku polikopiatuak. Heietan Aita Babaquy-k azaltzen ditu Jainkoaren lehen manamenduak, laugarrenaren alartzean gelditzen

delarik. Funtserat- eta hiru bertute teologalak ditu bereziki ikertzen.

Heren Ordenako erreglari buruz ere predikuak egin ditu eta liburutan ager-arazi, Aita Saindu Leon hamahirugarrenak berritu legea oinarritzat hartuz eta hari hertsia-hertsia jarraikiz.

Berak bere aintzin- solasetan aitortzen du bere Ordenako jakintsunek han-hemenka eman xehetasunez baliatu dela; baina ez du bibliografiarik erakusten.

1860 etik ordu arte San Frantsesen Heren Ordenaz hamar bat euskal liburu agertu baitziren ez dakigu ea heietarik batto ere irakurtu zuenentz.

Haatik segur gira euskara hainintz bazuela irakurturik: ezen ez du izkiribuz ardurenean ez aitaren, ez amaren euskalkirik erabiltzen, ez Lekornekoa, ez Baigorrikoa; bai ordean Lapurdiko klasikoa. Adibidez, ez du izkiriatzen NIZ, HIZ, GIRA, ZIRA, ZIREZTE, ZAKON, ZITZAKON, baina NAIZ, HAIZ, GARE, ZARE, ZARETE edo ZAREZTE, ZAION, ZITZAION, eta abar. — zombait aldiz — arras bekan — ZAIZKE ezartzen badu ere ZARETE-ren orde, edo ZEIE, ZAIOTE-ren lekuan.

Zer nahi den, euskara herrikoa du, errexa, frango garbia halere baina bere baitarikako hitz berririk gabea. Bi hitz baik ez diozkagu altxatu, hiztegieta ez direnak: BEHARREZIA (*gabezia* bezala egina) eta BIOLA, *beihala* -ren ordekoa.

Joskera aberatsa du. Ez da beti beretik artzen. Solasa badaki nola laburt ala luza. Aditza noiz balia, noiz ken. Hitzari zer gisaz garrantzia eman.

Erakuspenari buruz, ez otoi bila haren predikuetan filosofia bihurrik ez teologia goiegirik. Ez da leize horietan galtzen.

Jakin eta nori mintzo den, bere ardurako aditzaileen hein hura aski zaio. Haatik jakitate komun hori maisuki azaltzen du: argiro, bidezki, adimenduz eta bihotzez.

Ageri du Diharassarry baten eskolakoa dela, bainan Sara-tar famatuak eskas zuen goxo batek lagundurik. Hiriart Urru-ty-ren eite hainintz baluke, haren bizitasuna eta luma xorrotxa balitu, doi bat alegrantziarekin. Aita Blas-ek ez bide zuen bere luma lerratzerat utzi nahi ele jostagarrietarat, berenaz gizon plaxenta alegera eta lagunkina zelarik.

Damurik gerlak landare Fruitutsu hori errotik moztu bai-tzaukun, Euskal literaturaren kaltetan.

«IKUSTEN DUZU GOIZEAN» KANTUAREN AIREAZ BI SOLAS

L. Dassance

Elgarrekin gertatzen girenean, hain gogotik emaiten ditu-gun khantoreak noizkoak ditazken eta nork eginak hamarretarik bederatzieta ez dakigu; bakarrik espaldikoak direla bai, ahotarik mendez mende beharrietarat iragan direla guk ikasi arte; bainan gehiagoko argirik ez dugu, ez ere izanen menturaz behin ere!

Segurki, herriak hain barna beretu dituen kantu zenbaitez badakigu Iparragirrek, Elizanburuk, Otxalde-k, Dibarrart-ek, Liqueix edo Etchaun-Iruri batzuek asmatuak eta moldatuak di-rela —pertsuak edo hitzak bederen— haatik, hainitzetan, aire xahar baten jauntzia baliatuz.

Bainan, bertze guziak? *Bereterre Xenak*, *Apez beltxarenak*, *Atarratze Jauregikoak* edo *Urtsukoak*, *Xoriñoak kaiolan*, eta holako?

Alabainan, ditugun herri-kantu bildumak ez dire hain aspaldikoak: lehenatarik bat eta naski ezagutuena, J. O. J. Salla-berry Mauleko lege-gizonarena, 1870 ean agertu da, beraz, duela ehun eta hirur urte.

Urte bat lehenago, Euskal-kantu liburu xume bat bertze ziberotar batek agertarazi zuen gutiago hedatua izan dena eta goroztik gutiago ezagutua dena: "SOUVENIR DES PYRENEES — 12 airs basques choisis et notes par Madame de la Villehélio" (1).

Kaiertto pollit hori gure lagun musikazaleek hain segur ezagutzen baitute aipatuko dugu bakarrik: "Zortziko" deitzen duen airea, eta musikaren ondotik daukan oharra:

"On a mis sur le chant en Majeur de ce zortziko de charmantes paroles, le Laboureur heureux, qui sont maintenant très populaires eta araient obtenu, il y a quelques années, le prix de poésie donné amuellement à ses compatriôtes par M. Antoine d'Abbadie...".

Egia erran, delako zortzikoari behako bat eman orduko, ezagun da "Ikusten duzu goizean" orok ezagutzen duten olerkia-arentzat J. B. Elissanburuk hautatu zuen aire edo doinu berbera dugula.

Liburutto horri esker baginakien beraz Euskal-Herri osoan, eta denbora laburrik barne, halako hedamena ezagutu zuen olerkia mendiz haraindiko aire batean moldatua izan dela.

Gure adiskide Pierre Lafitte kalonjeari esker, huna berriz nun, orai, bertze froga bat ekartzen ahal dugun gauza hortaz:

Eskuetan eman daukun kaier xahar batean aire bera kausitu dugu eta aurkintza horren berme huna airearen kopia, bertze seinalerik ez duena hastapeneko hitz hautaz bertzerik:

"HORRA NUN DEN URNIETA..."

Urnieta hori Donostiari hurbil den herri bat omen da. Damurik, hitz bakar horiek emanik gelditzen baita gure kaierttoa...

Agian, gure Eskualzain adiskidek, Lecuona, Zabala edo Zatarain jaunek hastapen horri emanen diote ezagutu ginukenen segida!

(1) Andere Villehélio-ren gazteko deitura Carricoburu zen eta Schuttan sortua zen.

HISTORI AZTARRENAK EUSKAL HITZETAN

Xabier Kintana

Gauza ezaguna da hizkuntzak bere mintzatzaileei mundulerkuntza eta ikuskera berezi batzuk gainezartzen dizkiela, baina mintzatzaileek, era berean, hizkuntzari ere aldakuntza nabariak egiten dizkiote, beren histori textuinguruan bizi dituzten gorabeheren ondorio.

Denboraz, hizkuntzak belaunaldi ezberdinen emariak oro zeharo bereganatzen ditu, eta jadanik, hizkuntza hori arruntki erabiltzen dutenentzat, hitzak eta esaera guztiak elkarren paretsu gertatzen, batzuk eta besteak noiz, nola eta zergatik sartu diren berezten ez dakitelarik. Linguistikak, ordea, hitzen fonetikazko itxuratik zerbait atera dezake haien khronologiaz.

Euskaraz, kasu batez, *errege*, *lege*, *gerezia* eta *laket* hitzen fonetikak argiro erakusten digu latinetikoko hitz horik gure hizkuntzak J. Kristo ondoko III. mendea baino lehenago hartu zituela, bokalarteko *-g-* eta *-c-* (*-e* edo *-i* aurrean egon arren) beren izaera oklusiboa ongi gorde dutelako. Gerortzikakoak izan balira, **erreje*, **leje*, **zerezia* eta *(*p*)*lazet* gisakoak lirateke, inguruko erromantzeen arauera.

Ba ditugu, ordea, beste batzuk latinetik gabe, latinetikoko hizkuntza erromantzeren batetik etorriak, hala nola, *meza*, *borrondate*, *birjina*, *apaiz*, *martxo*, *mehatxatu*, *altxatu*, *tertzio...*, dituzten aldakuntza pronetikoengatik III. mendez gerokotzat har ditzakegunak.

Noski, hemen baten batek, arrazoi osoaz gainera, hitz hauetariko batzuen noizkotasuna igertzeko beste bide bat ere ba dela esan diezadake, hots, hitz horiek adierazten dituzten gauzak edo eta kontzeptuak noiz sartu ziren jakiteko, historiak ere laguntasuna eman diezagukeela; esate batez, erlijio hitzak kristautasuna Euskal Herrira sartu zen garaikoak badira, aski da historiaz berau jakitea, beste gabe, hitzei ere data bera emateko.

Alkondara, alkate, izara, merxika, alboka, kutun/gutun eta antzekoek, beren arabiar jatorriaz, argiro azaltzen digute arabiarrek Espainiaratuz gerokoak direla, ez lehenagokoak.

Are garai hurbilagoetan hitz berriak idazleen eta ideologiaren eraginez sartu zaizkigu, Historiaren gorabeherengatik ez zenean. Hortxe ditugu, kasu, *hiztegi* (lehengo S. Pouvreau-kerabilia), *hirurtasun* (J. Etxeberri Ziburukoarengan), *Gogo Saindua* (Oihenartek dakar), *bokantza, alosia* (J. Etxeberri Sarakoak), *kondaira, garrantzi* (Larramendik), *aberri, ikurrin, Euzkadi, lendakari, gudari, ikastola, abesti, izparringi, gaimel, txadona, Euskaltzaindia* eta abar, Sabino Aranak eta bere jarraitzaileek asmatuak eta zabalduak.

Hauetz gainera, ba daude munduko asmakarien izenak, bai nazioarteko eran eta bai, euskaltzale garbizale batzuen arduraz, euskaraz nola edo hala moldatuak: *telefono/urrutizkin, telebista/urrutikuskin, irrati, kafe/akeita, astronauta, lasser, garaje, automobil/gurtarin/berebil...* Belaunaldi gazteak ere bere emaitza utzi du, zientzi eta politik arloan batez ere: *iraultza, proletalg oa, langileria, komunikabide, kontraesan, aitzinamendua, aurreritzi, baldintza...*

Azkenez, Euskal Herriko Herriko gertaera historikoetan oinharriturikoak aipa ditzakegu: *matxinada, zamakolada, karlistada, fatzistada, aranatakkak*, e a., pertsona edo talde izen konkretu batzuetatik sortuak.

Antzekoa dugu, eta zinez bitxia, *nafarreri* hitzaren kasua, txostentxo honetan bereziki aztertu nahi nukeena.

Azkueren hiztegia lekuko, gaur egun hitz honek hiru bariante ditu: *nafarre(r)i/naparreri/nabarreri*, zabalera lehen biak hedatuenak izanki.

Etymologia, itxuraz bederen, argia da: *nafar + eri* "nafar gaixotasuna" alegia; baina dakusagun benetan honela den. Dakigunez, herritarren izenak dira euskaraz sustantiboen aurrean jar daitezkeen adjektibo bakarretakoak, *Nafarrate, nafar euskalduna, frantsesporru, frantsesarbi* e.a. lekuko.

Hasierako *nafar* hori “Nafarroakoa” dela frogatzea ez da, bestetik, inola ere gaitza. Kontuan har bedi, e. b. *naparreri* esaten duten euskaldunak *Naparroa* eta *naparra* esaten dutenak berak direla, hots, $f > p$ bilakatzeko usadioa dutenak. *Nabarri* era hori, Azkuek dakarrenez, Nafarroa Garaiko eta Behe-reko zenbait tokitan esaten da soilki, besteak Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian komunak diren artean.

Hitz horren esangura, ordea, ez da leku guztietan berdina, toki batzuetan “viruela” den artean, beste batzuetan “sarampión” delako. Bizkaian, gainera, Gernika aldean guttienez, abereen “apatxarteko-a” edo “glossopeda”ri ere esaten zaio. Zenbait tokitan, gainera, “viruela”/“sarampión” artean berezketa egiteko, horietako bati *astonaparrerria* esaten zaio.

Honetaz, eta Azkuek bere hiztegian dakarran *napar-min* “epizootia” kontuan hartzen badugu, ondorio bat har dezakegu, alegia, *nafarreri* hitzak berez ez zuela gaurko esangura konkretuetarik bat, “gaixo edo eritasun langita, gogor bat” baizik, jendeak era askotako gaixoak izendatzeko erabiltzen duenez gero.

Hitz honen sustrai historikoak topatzen aritu gara eta hona hemen gure ondorioak.

1. Hitz hau zaharra da gure hizkuntzan, jadanik *eri* hitza galdurik dagoen lekuetan (Bizkai osoan eta Gipuzkoako leku askotan guttienez) oraindik deribatuetan sendo diraue-lako; *kakeria*, *ahuleria*, *ahoeria*, *elgorri*, *elbarri*...

2. Ez dago dudarik *nafar* edo *napar* hitza “nafartar” dela, zeren, batzuek uste moduan, “nabar, pokardatu” balitz (cfr. *viruela*, *varirole* < *variola* < *varius*) aurrean gabe, adjetibo kalifikatzaile bat izanik, atzean ipini beharko litzatekeelako. Honela dugu, kasu, *elgorri* (eri + gorri) eta *elbarri* (eri + barri), eta ez **gorrieri* edo **barrieri*. Harrigarria litzateke, azkenean, *nabar*-etik *napar* edo *nafar* gisako formak sortzea, “nabar” esanguraz, dakigularik behintzat, inon erabili ez direnak.

Eritasun honek duen beste izenak, *baztanga*-k alegia (Gipuzkoako zenbait herritan erabiliak) *Baztango* ibarrarekin zer

ikusia duela dirudi, agian hortik ere eritasunaren nafar jatorria frogatuz.

3. Gaixotasun honen izenaren jatorriaz zenbait datu eman dezakegu *Introducción a la Historia de España* deritzon liburitik (1) aterata.

1347. urtean Kiptxak-eko khanak Kaffa izeneko hiria se-tiatu zuen Krimean, eta katapultaz murrailen gaineratik izurrite bubonikoaz hildako batzuen gorpuak jaurtiki zituen, hiritar haien artean izugarrizko eria sarteraziz.

Urte berean Jenua-ko untzi batzuek, Itsas Beltzetik etorrita, Siziliako portuak kutsatzen dituzte eta handixek mendebaleko mundu osora zabaldu.

1348. urtean Sardiniara heltzen da, eta handik Espainiara eta Frantziara, 1349.ean Erdiko Europara, Ipar Afrikara, Korsika, Italia, Flandes eta Ingalaterrara. Hurrengo urtean, 1350. ean, Eskozia, Eskandinavia eta Herrialde Baltikoetaraino ailegaten da.

Hilak.—Florentzia, 1339.ean zeduzkan 100.000 bizilagunetatik 50.000tara jaitsi zen 1351.ean; Venezia 110.000tatik 70.000 tara.

Aragoiko erresumara 1348.eko apiril-maitzean heldu zen izurrite beltzau. Urte berean, irail-urrian, Nafarroako erresumara sartu zen. Populazioaren jautsapena ikaragarria izan zen. Lizarrako merinaldea, esate baterako, % 70ak baino gehiago hil ziren.

Noski, Mediterraneotik zetorren gaixo hau Euskal Herri osora. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaira batez ere, Nafarroaren bidez kutsatu zen, eta ez da beraz harrigarri, hainbeste heriotze zekarren eri beldurgarri hari *nafarrería* deitzea.

Geroago, ordea, *nafarreri* izena, modu jeneralago batez, edozein gaixo gogorri deitzeko erabilia izan da, jatorrizko usadiotik hastandaturik. "Viruela"ren inguruan ari diren gai-

(1) Ikus Bibliographia.

xotasunak izendatzeko gelditzea, behar bada, iragan denbora batzuetan eritasun honek ukan zukeen eragin gaiztoei zor zaie, jendeak aurreko beste eri gaizto haren izena emanaz. Honetan geure Herriko medikuek zerbait argi lizagukete. Ez dezagun ahantz euskaraz “peste, plaga” hitzak ba dituela beste izen batzuk, *mintte*, eta *izurrite*, kasu, batak eta besteak edozein eritasun mota gogor bati zuzenduak.

Hauk dira, beraz, neronek, linguistika eta historia aldetik izen honi buruz aurkitu ditudan argitasunak.

BIBLIOGRAPHIA:

- AZKUE, Resurrección María de: *Diccionario Vasco-Español-Francés*, 2.º tomo, Tours, 1905-1906.
- UBIETO, Antonio; REGLA, Juan; JOVER, José María; SECO, Carlos: *Introducción a la Historia de España*⁷, Ed. Teide, Barcelona, 1970.
- MICHELENA, Luis: *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Publ. Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbao, 1970.
- DAUZAT, Albert; DUBOIS, Jean; MITTERAND, Henri: *Nouveau Dictionnaire Étymologique et historique*², Larousse, Paris, 1971.

* * * * *

Donostia, 73-IX-28

ETXEGINTZA ETA ARKITEKTURAKO HIZTEGIAREN GERTUKETA

Jose Miguel Zumalabe

Bi bat urte dela, eta Euskaltzaindiaren deiari erantzunaz, etxe honetan bertan bildu ginan, Laffite jauna, San Martin eta Zatarain jaunak eta neroni.

Arkitekto jaun batek eskaria eginik, “Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro” delakoak zuzendu omen zion Euskaltzaindiari, Etxegintza eta Arkitekturako hiztegia moldatzea, gaztelera-euskeraz eta euskera-gaztelera.

Ni tarteko izatea profezio aldetik dator, nere ogibidea etxegintza izanik.

Billera horretan, zuzenbide batzuk eman da gero, nere eskutan utzi zen lehen pausoak egitea.

Hona nolaz begiratu zizaion egiteko honi:

— Lehenengo, eta helburu garrantzitsuena hauxe, euskera-gaztelerako fitxeroa osatzea, euskerak gai hontarako dituen hitzak jasoz.

— Bigarren, fitxero hori atzekoz aurre, hau da, gaztelera-euskerara bihurtzea.

— Hirugarren, gaur gizalan berezi honek eskatzen duan beharri errantzuna eman, hitz berrien bidez, aipatutako fitxeroa osatu, euskerak agertzen duan hutsuneak beteaz.

Lehenengo pausoa oso aurreratua dagoela uste dut, berehala esango dudan bezela; bigarrena, erdibidean eta hirugarrena, hitz berrien moldatzeari, batzordearen egitekoa derizkiot. Ari naiz hitz zerrenda gazteleraz gertutzen eta laster eman beharko diogu hasiera lan honi. Gorago esan dudanez lehenengo atalari iritsi diogu garrantzi haundiena hau da, euskerak eskeintzen dituen hitzak jasotzeari.

Hona hortarako zein iturri erabili ditudan:

— *Azkueren hiztegia* arakatu dut osorik. Lan neketsua hauxe, 45.000 hitz inguru jasoak bait deude bertan. Neketsu samarra bainan onuragarria..

Milla eta ehun bat hitz jaso ahal izan dut. Hau izan dut iturririk oparoena.

— Gero, *Pierre Lhanderen* "Dictionnaire Basque-Français"ek eman dit, bere 283 g. orrialdean 150 bat fitxa pillatzeko aukera.

— Irugarrenez, *Seminario de ETNOLOGIA DE ARANZADI*.—Para un atlas Etnográfico del Pueblo vasco-Cuestionario n.º 1-Casa rural, ikusi dut.

— Laugarren *Anuario de Eusko-Folkore*, San Martin jaunak adierazi zidan eta ari naiz aztertzen, bai lehen parte-koak (gerra aurretikoak), V, VI, VII, VIII, IX eta XII g. tomoak, bai bigarren partekoak (gerra ondorengoak).

— Beste iturria, HEGATSEZ, San Martin eta Basauri jaunak moldatu duten librutik, bizi diran hitz lauzko idazleen bilduman dakarren hiztegitik hartuak, San Martin jaunak bialdu dit ehun bat fitxa. Egungo idazkietan erabiltzen diranak beraz.

— Bisente Saralegi, arkitekto zanaren hiztegitxoa ere jaso dut. Laburra, 120 bat hitz, baina oso ona. (Baztan aldekoak danak).

— Jose Javier Iraeta, tolosar aparejadore gazteak biali dit beste zerrenda interesgarria.

— Julio Caro Baroja'ren "Los Vascos" miatu dut, bainan ezer gutxi arkitu neure asmoetarako.

Azkeneko, neronek ere, lanlekutan jaso ditut gaur gaurko hitz batzuk. Fitxa bakoitzean, jakiña, aipatzen da nun jasoak eta nun erabiltzen diren. Oraingoz 1.400 fitxa bildu dut. Lan hau burututakoan 1.500 ingurura iritxiko da. Fitxero hau irikia utziko dut. Esan nahi dut, handik edo hemendik hitz berriak sortzen diranean, lanlekutan sortuak edo idazleak erabilliak, nahiz ta hiztegia argitara emana izan, bertan pillatuko dira eta egoki bada, gero esango degun modura, profesionalen artean banatuak. Urrengo urratsa fitxero honi buelta ematea izango da. Egin-behar honi asiera eman diot. Erraz konturatu gaitezkenez gaztelara-euskerazko fitxa hauek arraz gutxiago dira. Erderazko hitz bakar bateri, askotan 3, 4 eta baita 7 hitz ezberdiñak degokie, euskalkiak beren hitz bereziak bai dituzte. Ezin esan oraingoz, gorago aitaturako 1.500 fitxa hoiiek zertan geldituko diran. Adibidez esango dut, lehenengo 400 hitzek 252 gaztelerazkoak eman dutela. Hein honetan 1.500 fitxak, 900 bat hitzek balioko dute.

Azkanetz, eta gaur egunean lan sail honetan beharrezko diren hitz guziak osatzeko, Barcelonako "Colegio de Arquitectura de Cataluña y Baleares"ek argitaratu duen hiztegia eta *GLOSARIO técnico de Arquitectura*, asmo berean egiña, biak Buenaventura Bassegoda doktoreak antolatuak, hartu ditut argibide. 2.000 hitz sartu ditu bakoitzean. Beraz milla bat hitz berri aukeratu behar lirake esandako arauera. Nere ustez, ala ere, badago Bassagoda'ren hiztegian anitz izen baztatu geni-

tzakenak, zahazkiro hartuta etxegintza alorretik kanpo daudenak, adibidez: acaparar, acobardar, acontecer, afrontar, eta horrelako beste asko.

Kontu egin dezagun denera 500 hitz barri beharko dirala konposatu. Hitz hoiien zerrenda, gazteleraz, antolatzen detanear batzordeari aurkesteko asmoa dut, zein jokabidez lan hau aurrera eraman erabaki dezan.

Zilegi bakit kritika apurtxo bat egitea hiztegi profesional edo zientzi adar berezi bati buruz, egin diraneri eta aurreran-tzean egin ditezkeneri.

Azken aldi hontan ikusi dugu bi hiztegi esandako asmotan argitaratuak.

— Bata, Iñaki Garmendia jaunak egiña; **IDURIDUN ITXAS-IZTEGI**-Erdera-euskera, Euskera-erdera, 1970.

— Bestea, Aita Karlos Goenak konposatua, **GIZA-BIZIA**. Iztegia, izenez ornitutako anatomi-irudiak, 1973.

Ez nijoa lan hoiien azterketarik egitera. Besterik da emen nere xedea. Bi liburu eder hoiien praktikotasunari begirutzen diot bereziki, arazo nagusitzat jotzen bai dugu denok haxe.

Aita Goenak ere argiro azaltzen du kezka bera, **GIZA-BIZIA** horren atarian. Aita Olabide'ren **GIZA-SOÏÑA** izeneko liburuari buruz, honela dio:

“ordutik (**GIZA-SOÏÑA** argitaratu zanetik alegia) 56 urte igaro dira. Bere lan izugarriak, aïtortu bearrean gera, ez du bitarte onetan erantzun geiegirik izan.”

Hiztegi hauek (eta beste ainbeste esan nezake Etxegintza eta Arkitekturari buruz daramagun honengatik) liburuak argitaratu eta besterik egiten ez badegu, ezer gutxi bultzã litzaketeko ahozko hizkuntzari.

Hiztegi profesionalak, ogibidez egiten ditugun harremantarako, eguneroko tresna ditugu, beraz eten gabe erabili beharrezkoak. Literatura edo intelektual asmoz egiten diranen aldean, badute, praktikotasunari begiratuaz eragin aparta bat. Bainan hortarako zabalkunde berezi bat eskatzen dute. Zabalkunde hau, alderdi batetik, beste edatze orokorrak baino erre-

zago agertzen zaigu. Adibidez Etxegintzarako hiztegia lankera hortan jardutzen dutenek, erabiliko dute noski, beraz Arkitekto eta Aparejadoreak. Haueri beraz eskeini beharko diegu. Eta ez eskeini besterik gabe, baizik beren eskutan ipini. Hor-tarako hego-euskal herriko tekniko hoi-en izenak eta zuzenbi-deak eskuratzen ari naiz. 2.000 bat dira denera.

Informazino hau lortzea ez da zaila. Dakizuten bezela "Co-legio Profesional" etan biltzen dira eta berhoietan aurki ditezke datu haiek.

2.000 lankide hoi-en artean badira euskaltzaleak. Zihur na-go zertxo bat bultza ezkerro lan-lekutan gehiago entzungo dirala euskal hitzak, euskalzale sutsu hoi-ek izango dira bultzatzaille kementsuenak. Hau lortzen ez badugu, alperlantzat joko nuke eginahalak.

Profesio bakoitzean beste hainbeste egin behar litzake, eta hori, hiztegi erabatekoak eta sakonak argitaratze-ari itxadon gabe. Hau da, hiztegiak osatzen ari garen batean lankide-eri eskeini, ez liburuak, hitz zarrenda labur eta berezi batzuk baino. Hiztegia biziago izango da, eta euskal hitzak gehiago zabaldu-ko dira.

LITERATURA-MOTAK MUGATU NAHIAN ASMO BATZUK

Martin Ugalde

Saio labur hau zertaz izango den argitu aurretik, zertaz izango ez den aipatzeak lana erraztuko ditalakoan esan nahi dut: hemen ez dutala literatura-moten hixtoririk egingo, eta ez dutala euskeraz idatzi denaren berririk emango ere.

Hau batetik.

Bestetik, azaldu nahi dutanaren eragina nondik nora sortua den aipatu nahi dut, honek ere bai bait du bere garrantzia: gure errian oraintsu ugaltzen ari diren sariketa batzutako mahaikide izatea gertatu zait, eta ikusi dutanez, sari bila datozen lan hoietan literatura-motak aski nahastuak datoz. Ez naiz ni garbi zale amorratu hoietakoa, eta ez ditut literatura-mota klasikoak: *ipuina*, *kontua*, *olertia*, *antzerkia*, *nobela* —laburra eta luzea— eta *saioa*, kutsu gaberik ikusten; ezina da, gainera. Gai hau mahaikide bati aipatzerakoan honek ongi esan zidanez, ba dakit literatura-mota hoiien mugaketak xinpleak ez direla, eta gaurko askatasun berriak molde hoiek berritu eta askotan aberastu ere egin dituztela.

Eta, egia bait da, nik ere halaxe aitortzen dut hemen.

Baina konplejidade berri hau aitortu eta onartu eta gero ere, uste dut gai honek bere arreta eskatzen duela. Literatura moten mugaketak piska bat aztertzeak ez dio sortzaileari bere lana egiteko behar duen askatasunik kenduko; bestalde, jakinaren gainean dagoenak bakarrik du aukerak egiteko askatasuna.

Nere asmoa, azterketa honi laguntzeko zerbait eskaintzea besterik es da.

Lana ahal dutan gehien errazteko eta laburtzeko, bereizten errazagoak diren literatura-motak: *antzerkia* eta *olertia*, alde batera utziko ditut, eta *ipuina*, *kontua*, *nobela* —laburra eta luzea— eta *saioa* izango dira piska bat mugatzen saiatuko naizenak, literatura-mota hoiek nahasten bait dira gehien.

IPUINA ETA KONTUA

Ipuina eta *kontua* askotan esan nahi berarekin erabiltzen ditugu, eta bakoitzak bere nortasun berezia ba du.

Erderaz “short story” edo “conte” edo “cuento” deitzen dioten literatura-mota askotan euskeraz *ipuina* bezala aipatzen da. Eta nolatan gertatzen den iturrira joateko bi uste aipa ditzaiegu: 1) gazteleraz nahasketa bera dutela, eta 2) “short

story” edo “cuento” bezala aipatzen den literatura-motak ez duela euskeraz orain arte lantze aundirik izan.

Hala ere, gure iztegi batzutan berezkuntza hau egiten da:
PIERRE LHANDE-nak hauxe dio:

Ipuhi, iphuin: Conte, récit plus ou moins mensonger.

Khondu, khontu: Conte, narration.

BATASUNAREN KUTXAK Pierre Lhande-k bezala:

Ipuina: Gezurrezko gertaera entzungarria, dio, eta erasten dio: Haurrentzako pasadizo asmatua.

AZKUE-k berriz:

Ipui: Cuento, fábula, dio, eta,

Kontu: Cuento, narración.

Eta **PLAZIDO MUJIKAK**:

Kontu: relación, narración. Ipuin: fábula, ficción.

Hemendik atera dezakeguna, ba, hauxe da:

Ipuina: Gezurrezko gertaera entzungarri bat dela; batez ere umeentzat; baina baita hixtorian zehar ahoz-aho pasa izan den asmaketa ere.

Kontua, berriz: idatziz egina bezala sortu den literatura mota bat dela.

Orain, *ipuinak* eta *kontuak* berez dituzten ezaugarri nabarmenenak aitatu ditzagun.

“*Ipuina*” zer den

Ipuina da, noski, gizarteak ezagutu duen literatura-biderik zaharrena: ahoz-ahokoa.

Gizonak beti izan du: batetik, gainontzekoei zer gertatzen zaien jakiteko barru-barruko gogo bat, eta bestetik, nor-beraren esperientzia gainontzekoei erakusteko eragin bizia.

Ba, ipuina, komunikazio egarri honek gizona jarri duen bideetatik zaharrena izango da.

Ipuinaren bide zahar hau izen-gabekoa, anonimoa, da; eta ez inorena ez delako, denen artean egina, irekia, izan delako

baizik. Ipuina, gizon eta emakumeak balaunaldiak zehar eta erri batetik bestera, erantsi eta kendu dizkiotenarekin, idatziz jarri den arte etorri den bide luze eta arrigarri bat da.

Iturriak non ote?

Menendez Pidal-ek dioenez, gizonaren adimena berarekin jaio dela esan genezake, eta ipuina pilatzen joan den jakintza, erri askotako jakituriaren laburpen aberats bat dela. Ipuinen eta mitoen sorbideak ez dabilta urrun, eta hontaz Martin Etxeberriak gauza interesgarri franko esan digu *Jakin*-ek argitarara berria duen *Euskaldunen ipuin arrigarriak* liburuan.

Eta "kontua" zer den

Ipuina zaharra bada, kontua berri-berria dugu.

Emeretzigarren gizaldiak kontu-idazle on-onak eman ditu: Alan Poe, Maupassant eta Gogol, iru aipatzeko; baina ogeigarren gizaldian artu du kontuak gaur duen indar berria: orain egunkariak eta aldizkariak maiz argitaratzen dituzte, eta kontu-liburuak ugaltzen ari dira; gure artean ere, eta batez ere sariak direla merio, literatura mota hau ugaltzen asia da.

Hala ere ba du oraindik lotsa bat: "Txanogorritxu"-ren ipuin-motarekin lotzen dutela askok.

Eta ez da hala.

Ba dituzte *alkarrekikoak*, noski; ipuinak eta kontuak gehienetan laburrak dira, irakur-aldi batekoak; kontatzen diren hixtoriak mirengarri den zerbaitek bereizten ditu; gaiak, bietan egi-itxurakoak edo sineskaitzak izan ditezke, eta sortzen diren korapiloak sintesisko teknika berri batekin argitzen dituzte. *Ezberdintasunak* ere ba dira, ordea: ahoz-ahoz etorri den ipuinak ez dakar inoren izenik, erriak sortua da, eta kontua, berriz, ikasia eta landua da, egile ezaguna du eta idatzi bidez sortu eta betiko finkatua geratu da; ipuinak bere ipuin-ondore edo ikaspena dakar, eta kontuak ez.

Horacio Quiroga kontalari aundiak dionak mugatzen du, behar bada, kontuaren izakera ondoen:

Kontua, jo-muga batera tiratako darda edo fletxa bat da.

Eta ba dakigu darda bere bidetik urteten bada ez dela jo-mugara iritxiko.

Honek kontua *neurritz* mugatzen du, eta neurri honek ematen dio kontuari bereizgarri duen laburtasuna; baina laburtasun hau ez da tankerak edo formak agintzen duen zerbait, barrutik daramanaren *ondorena* baizik: kontuak ekintza bat besterik ez du konta behar; kontalaria, abiadorea bezala da, ezin da egazkinarekin toki askotara irixteko asmotan urten, ez eta bi tokitara joateko asmoz ere, *toki jakin batera* irixteko asmoz baizik; norabait iritxi nahi badu behintzat.

Nobelatik bereizten duen zerbait ageri da hemen.

Zuzenerako duen grina honek esan nahi du, kontuan, nobelan ez bezala, bideko gertakizun, eranskin eta joan-etorriak alde batera utzi eta aurretik aukeratutako jo-mugara, mamira, joan behar duela. Kontuan ez da kontaktzen den gertakizunaren *aurrekorik* eta ez *ondorenik* ere esaten; alde batetik argazki baten itxura du: unetxo bat, sistada bat, erakusten du, bi-ziaren zati motx, bakar eta esplikatzen ez dena.

Beste oinarriko bi legetara makurtu behar du kontuak:

1) *Ekintza, akzioa, etengabeko jario bat bezala edatu behar du egileak.* Eragozpenik eta oztoporik gabe, ingurune gabeko ibai bat bezala, eta gaiak agintzen dion igi-neurrian jexki behar du.

2) *Kontalariak, ekintza adierazteko behar-beharrezko dituen itzak besterik ez ditu erabili behar.* Itzak ekintza adierazi dezakete, baina ezin dira ekintzaren ordeko bezala erabili; behar-beharrezko diren itz juxtuak bakarrik erakutsiko dute ekintza garbien; itz hoiek arkitu egin behar. Nobelaren teknika, hontan zabalagoa da.

Baina kontuaren teknikek ahaleginean erabilita ere, ezin dute berez miresgarria den kontuaren ondoriorik iritxi egilearen zentzuak, gaitasunak, arteak eta sortzeak berezko duten azken puntua eransten ez badiote.

KONTUA ETA NOBELA

Kontua eta nobela alkar lotzen dituzten iritziak ba dira.

Gayol Fernandez-ek, esate baterako, uste du kontua nobela-labur bat baterik ez dela.

Hala ere, gehienak ados daude nobela eta kontua bi literaturamota direla.

Hara hemen berdinak ez diren berezgarri batzuk:

1) Kontuak, esan dugunez, gertakizun bakar bat kontatzen du, eta nobelak, asko. 2) Kontua laburra da; nobela, luzeagoa. 3) Kontua, bizisakon-bortitza da, eta nobela, berriz, zabal-edatsua. 4) Kontuan, egileak eskutik eta firmeki artu eta asieratik bukaeraino aurretik markatutako bidetik eraman behar ditu personajeak, eta behar-gorri hau da, ain zuzen, kontuak behar duen tensio bizi-sakon-bortitza sor arazten duena; nobelari, bestalde, personajeak askotan sortzen ari diren neurrian asten dira berezitasuna eta karakterra artzen, eta egileak uste ez duen bideetatik abiatzen dira.

Bai kontuak eta baita nobelak ere, gai berdina dute: bizitza; lantzeko erabiltzen diren erreminta eta bideak dira ezberdinak. Hala, nobelak eta kontuak bi literatura mota ezberdinak erakusten dituzte; ez aurkakoak, bikiak edo paraleloak baizik.

Nobela eta nobela-laburra

Nobela, literaturak erakus lezaken adibide oso eta konplejoena da. Bizia agertzea, gizonaren bizitza-bide eta mail guziak erakustea, gizartearen ispilu izatea, da nahi duena; ez gutxiago.

Stendhal-ek halaxe mugatu zuen: "nobela, bide zabal batean pasiatzen den ispilua da".

Teknikari buruz, iru dira nobelaren lehengai bereizgarriak: *gertaera*, *personajeak* eta *ingurua*.

Gertaera ez da, kontuan bezala, bakarra; bizi osoa erakusteko nahimena duenez, nobelak gertaera aundi eta txikiak eta beren arteko dituzten arreman, elkarkizun eta elkarren aurkako gai guziekin osatzen du bere bilbe edo trama.

Nobelako *personajeak*, egitan bizi balira bezelakoak izan behar dute, eta dagokien leku, inguru eta giroan aurkitu behar ditu irakurleak. Kontuan ez bezalako xehetasunarekin ematen dira nobelan. Personaje hoiek batzutan, Aldous Huxley-en *Bir-pondu* edo *Contrapunto*-n eta Pasternak-en *Doctor Jivago*-n bezala, personajeak lehenengo mail berean agertzen dira; beste egile batzuk, personaje-masa edo personaje-kolektiboak erakusten dituzte, Jorge Icaza-ren *Huasipongo*-n bezala, eta oraindik beste batzutan, *Mme. Bovary* eta *David Copperfield*-en bezala, personajeak sinbolikoak dira.

Inguruak, nobelan garrantzi aundiagoa du kontuan baino. Mauriac-ek ezin zuen nobela bat idatzi bere personajeak biziko ziren inguruaren xehetasun guziak argitu arte, eta inguru fisikoa dela, inguru soziala dela, nobelagileak arreta aundia jartzen du inguru hau guzia egiazki erakusten.

Baina oraindik ez ditugu nobela eta nobela-laburra berdinkatu.

Nobela laburrari dagokionez, erri bakoitzean ba du esan nahi berezia: ipar-amerikarrek nobela laburra eta luzea, biak; egiten dituzte, eta bati eldu gabea balitzake lez "novella" eta besteari "novel" deitzen diote. Prantsesak, berriz, izan dira garai batean nobela laburraren formula gehien erabili dutenak. Espainian, nobelak aundia izan behar du; zenbat eta orri eta pixu gehiago, idazlea orduan eta ospetsuagoa.

Baina mota berdinekoak dira, eta neurriak ez du ezer esan nahi.

Nobela luzeak eta nobela laburrak, emaztekien gonon gorabeheraren antzeko iztilu bera adierazten du: non dago, eta zeren baitan, neurria.

SAIOA

Nobela batean arazo soziolojikoak eta dotrina politikoa, sozial edo erlijiozkoak azaltzeko tentaldian idazle guziak erortzen dira noizean behin.

Baina lan hoiek denak saioaren arloan daude.

Saioa, gogoetaren bide literario bat dela esan genezake. Arrokeriarik gabe eta teknikakeriarik gabe, gaur gizonak dituen ainbat galderen azterketak lagunkiro eta errazki egiteko bide berezi eta aberats bat. Saioa ez da erakus-bide bat bezala erabiltzen; idazleak gai horretaz berria duela uste duen puntua inori erakusteko beste asmorik ez du.

Neurriz laburra izaten da, eta bere tokia egunkarietan eta berezkiro espezializatuta landuak diren aldizkarietan ez da izaten, aldizkari literarioetan baizik; gizaldi honetako saioak, artea, literatura eta zientzi-bilaketa uztartzen bait ditu maiz.

Eta bukatzeko, asierako asmo bera azaldu nahi dut: hemen ez dutala literatura moten hixtoriarik egin nahi izandu, eta euskeraz idatzi denaren berririk ere ez dutala eman. Lantxo honek xuxen puntu batean jarri nahi zuela bere begia: izkuntza eta kultura guzietan orokorra den literatura-moten mugaketarako asmo batzuk azaldu.

Beste aldetik, hemen aitatu diran mugaketak ez dira kutsuen beldur; nahasketa eta korapilo batzuen argigarri bakarrik esanak izan dira.

«Ñ» ETA «LL» IDAZTEAREN ALDE

Zatarain-darr Anbroisi

Arantzazu'n onetsitako "OINHARRI" etatik 8'garrenak onela dio:

"Direlako hots bustiez, hau esan diteke: arras leku gutxi gelditzen zaiela, daramagun bidetik bagoaz. Batasunerako onenik, bide honi deritzat:

a) Idatz dezagun, gutxienez, *iñ* eta *ill*, *ñ* eta *ll*'ren orde, hitz adierazkor (expressif) horietakoak ez baldin badira, behin-

tzat (-ño atzizkia daramatenak eta); *baña, baño, oillo*, etc., ez *baña, baño* eta *ollo*. Hitz azkenean, gainera, beti *-in, -il*: gain, zail.

b) Hobe, ordea, *il, in* idaztea soil-soilik, aski bait litzake hori'edozein ohar dedin i hori dela medio, bere euskalkian, hurrengo *l* ete *n* bustiak direla: giputzen artean, esaterako, *ibili, baina, gaintik, laino, min-ondo* idazten dena *ibilli, baña, gaintik, laino* (edota *baña, gañetik, laño*) miñondo irakurri ohi dela".

¿Idazkera orren aldeko arrazoiak? SIC VOLO, SIC JUBEO: STET PRO RATIONE VOLUNTAS. Arantzatu'n entzun nuan arrazoi bakarra' Krutwig'ek karta batean idatzia izan zan: "orrela itzak jatorrago gelditzen dirala", alegia jatorrizko itxuraz gelditzen zaizkigula.

Arrazoi ori txit kaxkarra litzake, egia balitz ere; leenago ere esan edun dut ementxe: idazterakoan itzen jatorria aztertu bear bagenu' bizpairu euskaldun ez beste guztiok euskeraz idazteari utzi egin bearko geniokela. Izkuntza geienetan geienek nola esaten dudenari begiratzen zaio, ez itzaren jatorriari: gaztelaniz *hemos, hueso, Zaragoza* idazten dude, ez *habemos, oso, Caesaraugusta*. Prantzesez ere *livre, livresque* batetik, *librairie, libraire* bestetik, naiz eta laurak latinezko *liber, libris*'etik eratorriak izan; era berez' latinezko *liberare* itzetik *libérer, libération* batetik, eta *délivrer, délivrance* bestetik.

Euskeraz ere aukeraterakoan edatuena zein dan begiratu bear genuke: esate baterako *arrañ, artzaiñ* eta *ordaiñ* itzak *arrai, artzai* eta *ordai* baiño askoz ere edatuagoak dira, beraz ñ'dunak aukeratu bear genituke; jatorritik urrerago edo urrunago egoteak eztu zer-egñik. *Mariñel* itza ere euskalki guztietan orrela ebakitzen da, eta orrela idatzi bear genuke; BATASUNA liburuxkan agertzen dan bezala *marinel* idaztea' egiñik geneukan batasuna desegitea da.

Itz bat bizpairu itxuraz darabilgunean' edatuena aukeratu bear dugu. Esate baterako: *gaztaña* itza euskalki guztietakoa da, *gaztaina* eztaikit nongoa, eta *gaztena* berriz Uztaritz, Bai-

gorri eta Aldude'koa. Ori aski litzake denok *gaztaiña* (edo *gaztaña*) idazteko. Baiña geiago ere badugu: jatorrena ere *ñ'duna* dala, naiz batzuk besterik uste edun. Izan ere' itz onen jatorria garbi dago: latinkume guztiek *ñ* otsa adirazten baitude (egia esan *lingua romanescaz* nola esaten dan eztaikit): italeraz eta gascoiñeraz *castagna*, prantzesez *châtaigne*, catalaneraz *castanya*, gaztelaniz *castaña*, portugeraz *castanha*. Emen garbi dago *gaztaña* dala zaarrena, eta *gaztain*, *gaztaina* eta *gaztena* aldakuntzak dirala. Orrelako aldakuntzak eztira euskeraz bakarrik gertatu, prantzesez ere ugari dira: *baigner* eta *bain*, *empoigner* eta *poing*, *éteignoir* eta *éteint*, *aillade* eta *ail*, *oeillade* eta *oeil*, *soigner* eta *soin*, *éloigné* eta *loin* (catalaneraz *lluny* eta *llunyá*, *biak* jatorrizko *ñ* soinuaz); aipatzen dugun itz berberaz ere bai: *châtain* (*gaztaiña*-kolore argia). Orrelakoak gogoratuz-kerok' pentsa genezake euskerazko *gain-gaiñeko*, *zain-zaiñean*, *egiña* eta *egin-berria* eta orrelako beste askotan ere gauza berbera gertatu dala: jatorrizkoa sapai-otsa dala, alegia, eta sapai-ots ori letra alkarkoien aurrean bakarrik galtzen dala. Beraz *gaiñ artan*, *artzaiñ aundi bat* eta beste asko orrela idaztea eztala euskaldunik geienon ebakitze-moduari dagokiona bakarrik, bai-zik eta jatorrena ere ori dala.

Beraz orain Krutwig jaunaren iritzia ikertu nai dut; orretarako' BATASUNA liburuxkan *ñ* edo *ll* kenduta agertzen diran eta jatorri argia duden itzak ikertuko ditut.

habaila (A) *abail*, *abaila* (B, G) *habail* (S. P.) *habailla* (L), *habal* (BNc, L, Sc): *abala bat* (BN-ald). (Lh) *abaila*, *abaila* (L); *Hirb abal* BN(H); *habal* S(A); *habaila* L(H-A); *gg.haballa* (BN-uzt, Lf): *zer emazte haballa!* Liburuxkak aukeratua Lapurdi'n bakarrik agertzen zaigu, baiña Lapurdi'ñ ere *abaila* esaten da. Löpelmann'ek dionez' lat. *vallus*, *vannus*'en ttikigarria.

adreilu Iztegiatan 14 itxuretan agertzen da; baiña *adreilu* ezta agertzen. Jatorria gaztelanizko *ladrillo*, beraz jatorrenak *ladrillu* (Azkue'k eztama) eta *adrillu*; gero *dr* errezago ebakitzekeo zerbait aldatu egin dira.

akuilu Iztegietan bederatzi moduz dago, baiña liburuxkako *akuilu* eztago. Jatorria garbi dago: it. aguglione, fr. aiguillon, cat. agulló, port. agulhao, gazt. aguillón > aguijón (muller > mujer bezala). Jatorrena eta edatuena *akuillu*.

apain gazt. apañar, cat. apanyar, port. apanhar, it. impugnare; jatorriz *apaña*, eta emendik *apain-apaña*, *apaindu*.

bainu it. bagno, bagnare; fr. bain, baigner (emen garbi dago euskeraz *iñ* idazkera nola sartu zaigun); g. baño, bañar; cat. bany, banyá; port. banho, banhar. Azkue'k eztama; Lhande'k maiñu L, N, maiñhu S dio; Larrazketa'k mañü, mañhatü. B, G bañu danez'kero' ñ'dunak euskalki guztietan badirala esan, genezake.

beila it. veglia, cat. vetlla, fr. veille (lat. vigilia) béar. belha. Jatorrena eta edatuena *beilla* edo *bella* (AN-b, B, G; Sc (Lk); Hb).

bilatu lat. pilare (compilare, expilare) it. pigliare, fr. piller.

bilau(n) Lat. villanus, gazt. villano. Lhande'k Oih. 496 (bilain) 288 (bilen) eta 283 (bilun) aipatzen ditu; lenengoan *bilau*n dago, besteetan ezer ere ez. Errekondo'tarr Augustin zanari eta nere aita zanari bestela entzun edun nien: ;zura bai *biraba!*, beraz villanu > birau. Iztegiek diodenez' bi ditugu edatuenik: *billau* eta *bilau*n; liburuxkako *bilau* ezta ageri.

bilo Au etzan Batasun-iztgei batean sartzekoa, euskaldunetik laurden batek bakarrik ezagutzen baitu. Lat. pillus, capillus; Azkue'k billo, bilo (ANc, BN), bilho S. Emen latin-kumeek eztude II zaarrik, eta euskeraz ere eztiduri txit edatua.

borrai(n)a, *-oina*. Azkue'k borrai (B, G) burruillu (B-gald), borraña (R), borroin (R), morriun (L-ain), morroin (BN, S), murruiñ (S), murrun (Duv); Lhande'k gaiñera murrion (BN-ald) eta muruñ (S-Fx). Aukera nola egin dan eztakit, baiña liburuxkak eskeintzen dizkigun iru formak

eztira iñon ere agertzen. Corominas'ek dionez' cat. borraja, borratja; cat. dial. borrya; agian euskeraz orrenbeste aldetan agertzen diran sapai-otsak (ñ eta ll) or dude sustraia.

eztainu Lat. stannum, it. stagno, cat. estny, port. estanho, gazt. estaño, fr. étain, béar. estagn. Azkue'k eztama, baiña B, G estañu dala uste dut; Lhande'k estainu H, estañu S(Fx), eztainu (Hb), beraz liburuxkako z orrek Hiribarren'en iztegian egotea beste indarrik eztu. Garbi dago estañu dala edatuena eta jatorrena.

gaztaina Leen aipatu dut. Azkue'k dionez' gaztaiña (c..) kastaiña (R).

goilare fr. cuiller, prov. cuilher, port. colhar > colher (Löpelmann). Azkue'k goillare (BN), koillara (Bc), koillir (L); Lhande'k: gollare N, koillir L, kollara, kollira, kullera, kullida, kullira (H); kuller S (*kullera* zurezko: ikus Haritxelharr'en L'oeuvre poétique de Etchahun, 320 a). Emen ere ll jatorrizkoa da; liburuxkako *goilare* ori iñon ere ezta ageri. "Bakoitzak bere euskalkian bezela ebaki bear duaneko agindu famatuak ¿zer itxura egiten du emen? Euskaldun guztiek itz au ll sapai-otsaz ebakitzen dudenez-kero ¿noren mesedez idatzi bear dugu il? ¿Ez al-litzake obe geinek sapai-otsez ebakitzen dudena ñ edo ll jarriaz idaztea, et ain, il edo n, l (ganean, enganatu, akulu) ebakitzen deneri beren moduz irakurtzeko esatea?

kamaina Azkue'k: kamaiña (B-b-l-oñ, AN-b, G-and); kamain (H) Lhande'k. Oihanarte'k ere *kamaña* idazten zuan: ikus RIEB-4-222a. Harrieta'k *kamain* ematen badu ere'beraz -a atzizkitzat joaz' eztakigu atzizkiarekin nola ebakitzen zuan: kamaina ala kamaiña. Beraz liburuxkaren aukera edonola ere gaizki dago, a errokoa baldin bada alde guztietan *kamaiña* agertzen baita. Corominas'ek dionez (cama) Cameña arag. 'cama de paja o ramaje' Beraz ñ jatorrizkoa da.

*kein*u gazt. guiño, guiñar, fr. clin, cligner, cat. guiny, guinyar. Emen ere jatorrena eta gaiñera euskalki guztietakoa ñ'duna da.

koinata, -tu Azkue'k eztama; nere ustez koiñadu, koiñata, koiñeta, kuiñadu (B, G). Lhande'k: koinatu C; koñat, koñata (BN, Sal); kuñat, kuñata S (Gèze); goneta L-besk; koinatxa (Hb). Larrazketa'k: küñat, küñata (béar. cuñade anc, béar. cuñate). Lat. cognatus; it. cognato, cognata; cat. conyat, conyada; port. cunhado, cunhada; gazt. cuñado, cuñada. Emen ere ñ jatorrizkoa da; ñ'dunak lapurteraz kanpo danetan agertzen dira, eta Lapurdi'ñ ere itsas-egian ñ eba-kitzen dudela esango nuke.

laba(i)na Löpelmann'ek: lat. lamina; it. lama, pört. lamina; nabela; gal. lamela, fr. lame, lamelle. Corominas'ek: lat. novacula > navacula > port. navalha; cat. dial. navalla, Alto Aragón novalla. Itxuraz *n* eta *l* alkarkoiek toki-trukatzea egin dute, baiña sapaï-otsa leengo tokian gelditu da. Dana dala' sapaï-otsa jatorrizkoa da.

lami(n)a Azkue'k: lami (AN-b) (V. lamiña); lamina (BN-ald), lamiña (Bc, G-ori, L, S) 1.º lamia, sirena; ...Lhande'k: lami (H) 1.º C lamie, goule, vampire, être fabuleux qui suce, dit-on, le sang des enfants. Lamina N, lamiña L, S (A) lamie, sirène, monstre fabuleux. Itxuraz *lamia* ezta iñongoa, eta *lami* ezta *lamiña*; eta *lamina* Aldude'n bestetan esaten danik zigurki ezta agertzen, beste alde guztietan *lamiña* agertzen da. Benetan: lamia eta lamina aukeratzea batasunaren alde jokatzeko danik eztut ikusten.

leinu Azkue'k: leinu (AN, BN, G?, L, S) baiña berridazten dituan adibideetan garbi dago leiñu ere idazten zala: etzara zure leiñutik eta ethorkitik hastandu (Ax 1.^a-7-14) raza, descendencia, linaje.—2.º (L) familia.—3.º (G?) tribu: Israelko amabi leiñuak (Ur. Matth. XIX-28). Lhande'k: leinu, leiñu C (H), leiñhürü S, leñu (H) V. leinu (Cf. fr. lignée). Beraz jatorrena eta edatuena *leiñu* da.

liho, *linu* Azkue'k: lino, liño (AN, BN, B, G); liñorraxa (AN-b), liñorrazi (Sc) liñondo (Bc, Gc), liñhuzi (BN-baig); liho (BN-ald... L-s). Lhande'k liho L, N (H); linho et dé-

rivés V. liho et composés; liño N, liñu S Var. liho. Beraz lenengo aukera' *liho'* Aldude'n eta Senpere'n bestetan ezta agertzen; bigarrena berriz'*linu'* iñoen ere ez. Eta *liño* (liñu) (Bc, Gc, AN, BN-baig, S) ia euskalki guztietakoa' arrika bota dude. ¿Jatorriz *linum* zala? Corominas'ek: línea, 1490 (liña, h. 1250). Tomado del latín *linea*... (deriv. de *linum*, 'lino' cat. llinatge, disimilación del ant. catalán lliyatge, derivado de llinya, 'línea' (hoy línia): beraz catalanera eta gaztelania dira ñ galdu dudenak, portugeraz ere oraindik *linho* da. Pratzesez *gn* ezta ageri, agian jatorri bereko *ligne* itzarekiñ ez naastearren.

maila it. maglia, gazt. malla, port. malha, fr. maille; *ll* jatorrizkoa da.

maina Azkue'k: maiña (ANc, Bc, Gc, Lc, Sc); maina (L). gazt. maña, port. manha.

mailu Azkue'k: maillu (AN-b, Bc, BN, Sal., Gc, S); Lhande'k: mailu C, maillu S, N mailluka L. Beraz *ll* euskalki guztietan. fr. maillet, béar. malhuc, gaz. martillo, cat. martell, martellet. Corominas'ek: lat. malleus, cast. majo (S. XIII). Larrazketa'k: martellü Sc, BN. Emen ere *ll* jatorrizkoa da eta euskalki guztietakoa.

makila Azkue'k: makila, makilla (c); Lhande'k: makhila L, makhilla C (Cf. lat. bacillum) makila, makilla et composés V. makhila, makhilla. Beraz *ll* euskalki guztietakoa da. Jatorriz bacillum, diminutivo de baculum, bastón. Gg. fr. béquille; beraz *ll* jatorrizkoa da.

marinel Azkue'k: mariñel (AN, B, G, L); Lhande'k: mariñel L (A, Sal.); Haritxelhar jaunak esan zigunez' BN-baig ere bai. Gg. Salaberri'ren Chants Basques liburuan: Ezkontzen balin bazira mariñelarekin. Marinel iñon ere ezta ageri. Len *goilare'*ri buruz esan dudanak emen ere berdin balio du: euskalki guztietan ñ ebakitzen baldin bada, ¿norentzat ari gara *marinel* idazten? Gg. port. marinheiro.

miraku(i)lu Azkue'k mirakuilu (AN, B, G, etx-o, L) mirakulu (BN, L), mirakuru (B, Micol) Lhande'k: mirakuilu, mirakullu C, lat. miraculum. Larrazketa'k: miraküllü. Corominas'ek: milagro 1495, miraglo h. 1300, miraclo h. 1140. Emen ispillu itzean bezala sortutako *ll* dugu: lat. speculum, gazt. spillu h. 950, gazt. espejo; eusk. ispillu (eta espillu), beraz *ll* au ere guretzat jatorrizkoa dela esango nuke.

morroil(o) Azkue'k: morroill (AN-b, L-ain) morroillo (B, G); Lhande'k: morroil C, morroll C (H), morrolla (H) Cf. fr. moraille, ou. v. fr. verrouil. Garbi dago *ll* jatorrizkoa dala: gg. verrouiller, verrouillage. Liburuxkako bigarrena iñon ere ezta ageri.

motel, mutil Mutill'en dei-itx bezala *motell* erabiltzen dugu (G), ez motel; motel izen-ondokoa da, ez izena: ori mutil motel bat da, ese es un mozo sin arranque, sin energía; izmotel bat = un tartamudo: gg. "Abendañoxe motela" (XV g. e.). Edatuena, atzizkiarekin' mutilla dala esango nuke, baiña iztegietatik eztago ezer ateratzerik. Jatorriz *ll'*rik etzan, itxuraz.

orapilo, korapilo Ikus *pila*.

pila Corominas'ek dionez' it. *pigliare*'tik (artu, ostu, lapurtu: agian "pilla egiñ eta eraman") Tournier-Lafitte'k: piller = pillatu. Emen ere *ll* jatorrizkoa da.

pozoi(n) Corominas'ek: ponzoña 1335, antiguamente pozón fem. h. 1250. Baliteke euskerazko bi itxurak, pozoi eta pozoiñ, pozón eta ponzoña'tik eratorriak izatea.

sardina Azkue'k: sardiña (B, G, L) xardin (AN-ond, G, L); Lhande'k: sardina C, sardiña C, xardin C (H, A). Itz onen jatorriaz ona zer irakurri ditudan: Webster's New Collegiate Dictionary (Merriam): sardine (F., fr. L. sardina, sarda, fr. Gr. sardene, sarda); Rufo Mendizabal'en Diccionario griego-español'ek sardion eta sard-onyx besterik ez-

tama; The New Webster Dictionary (Grolier): sardine (Fr. sardine, from L. sardinia, so calle because caught near Sardinia). Baiña italeraz ezta Sardinia, baizik eta Sardegna. Gaiñera gg. port. sardinha.

seinale Azkue'k eztama; Lhande'k: seinale, seiñale C (H), seinhale N (Sal). Jatorria garbi dago: fr. signal, gazt. señal, it. segnale. Beste batzuetan bezala' emen ere italerazkoa eta euskerazkoa berdin-berdiñak dira.

tailu ik. *taxu taxu*, *tailu* Azkue'k: *taillu* (L?) manera; (G) *talle*; *taiu* (Bc), *taju* (Gc) traza, porte, estado; *taxu* (AN-b) tanteo, cálculo. Lhande'k: *taillu* I L (A) *manière*, *classe*, *sorte*, *espèce*, *façon*; *thailu*, *thallu* L (H) 1.º *statue*; 2.º *ressemblance*, *semblant*; 3.º *sorte*, *façon*; *talla*, *tallu*, *thallu* (H) V *taillu* I. Beraz Baztan'dik kanpo *taxu* ezta agertzen, eta eztu *taillu*'ren adirazpena, zearo beste itza da; *taillu* Lapurdi'koa da, eta *ll'* duna. Jatorriz gazt. *talle*, fr. *taille* it. *taglia*, beraz *ll'*duna.

toil Azkue'k: 1.º (AN, B, G, L) pez sin escamas, el más sabroso de los de su especie, vulg. *tollo*. Lhande'k: *toil* V. *thoil*; *thoil*, *tholl* (H) *douille* d'une hache, d'une bêche; 2.º *lourd*, *lent*, *apathique*; 3.º (terre) *collante* (béarn. *tolo*). *thoil* L (H) *espèce* de poisson, du genre du congre. De mauvais goût, quand on le prend, on le tue et le rejette à la mer. *thol* V. *thoil* I, II, III. Eztakit zer adirazpenez sartu duden liburuxkan, baiña batasunari buruz egiña baldin bada' uts egiña diduri. Dana dala' naiz *tollo* aldetik, naiz *douille* aldetik' *ll* jatorrizkoa du, eta edatuenik ere *ll'*duna dala esango nuke.

zeinatu Azkue'k: *zeiñatu* (AN-b, B-mu, BN-s, L, R-uzt) *zeinhatu* (BN), *zeinhatü* S; *ziñatu* (B, G) *seiñatu* (B). Lhande'k: *zeinatu*, *zeinhatu* L, N; *zeiñatu* L, N *zinatu*. Larrazketa'k: *zeiñhatü*. Signare, se signer, beraz *ñ* jatorrizkoa du. Gaiñera *ñ'dunak* AN, B, BN, G, L, R, S, beraz euskalki guztietan; *n'dunak* BN, L. Ikus *goilare*'ri buruz idatzi ditudanak.

zeinu Azkue'k: zeĩnu (AN-b-lez, BN-s, R), seiñu (AN-oy, G-and-ber) siñu (B, G) sino (BN-am). Lande'k: zeinhu, zeinu L N; zeñü. Lat. signum, fr. signe. Edatuenak eta jatorrenak ñ'dunak.

zizeilu Azkue'k: zizaillu (AN-lez..., Gc...) zizailu (L-get), zizalu (G-iruroir) zizelu (BN-baig, G-zeg, L-ain) zizillu (G-gab-us) zuzulu (R), züzülü (S), Lhande'k: zizailu L, züzülü S; zizailu L N, zizeilu L, züzülü S, zizelu N-bidarr; zizillu (H). Cf. lat. solisolum: xuxulu Var. de zizailu, züzülü. Larrazketa'k: züzülü. Naiz eta Löpelmann'ek "solisolum" jatorritzat onartu' eztiot itxura aundirik artzen; *esergailu*'ri tankera aundiagoa artzen diot; agian *eseri* latíñezko sedere da. Dana dala' itzaren tankera jatorrena *zizaillu* da, beste guztiak ortatik eratorriak izan bailitezke, baiña au ez besteetatik. Liburuxkaren aukera liteken txarrene-takoa da, Lapurdi'n bertan ere beste itxurakoak bai baitira, eta Lapurteraz kanpo ezpaita iñon agertzen.

Jatorria aski garbi eztudenak baztertzen baditugu, alegia *abaila*, *mutil* eta *zizailu*, 35 itzetatik 33 ditugu jatorrizko sapai-otsa dudenak, eta bi bakarrik itxuraz euskaldunok ezarriak ditudenak: *billo* eta *lamiña*. Beraz jatorrizko sapai-otsa dudenak eunetik larogei eta amalau gertatu zaizkigu (% 94,3). Ori ikusiz-kero' *iñ* eta *ill* ordez *in* eta *il* idatzirik "jatorrago" gelditzen dirala dionari' "barkatu, baiña oker zagode" erantzun bearke diogu. Garbi dago jatorrenak eta edatuenak *ll* edo *ñ* dudenak dirana, eta sapai-otsak galdu diran eskualdeak beti berberak dirana ere bai, eta eskualde oietan ere eztira sapai-otsak itz guztietan galdu: gogoratu *mariñel* eta *lillura*. Idazle manexek beti *ll*'rik eta *ñ*'rik gabe idazten dudenekoa ere ezta egia: gogoratu Axular, Goietxe (edo "Goyhetché") eta Decrept; esate baterako' ona "Maitena"ren lerro bat:

Miñ ezti horrek hurbill ahal du kausitzen erremedio (RIEB 4-160 a) eta ondorengo aiekan: ixillik, siñesten, bañan, ofizio berriarekiñ Ameriketean, guziak bere gañ, milla libera, pillotan, pillotari, egiñ dute, dotia baño gehiagi bill dezaket.

Beraz manex-euskeraz *ll* eta *ñ* idaztea aski zabaldua da, ziberutarrez arauzkoa da; beraz askozaz errezago da batasuna sapaï-otsak adirazirik egitea alderantziz baiño. Batasunak, ja-tortasunak eta oiturak ao-batez *ll*, eta *ñ* idaztea eskatzen digude: ¿zergatik ez idatzi?

Ontatik aterako nuken ondorioa auxe da: itz barruan, eta itzen bukaeretan letra bakartien aurrean' *ill* eta *iñ* idatzi bear genukela, eta bukaeretan letra alkarkoi aurrean *il* eta *in*: ¿*Gain-gaiñean egiñ al-du? Mutill ori mutil zoroa da.*

* * * * *

Donostia, 73-X-26

HAURRAREN MINTZAIRA BEREZIA ETA EUSKARA

Jacinto Fz. Setien

Esan dezadan lehenik: mintzaira, hizketa, hizkuntza, len-goia... delako hitzok eta berauen eremua bereizten edo mugatzen ez naizela sobera ahalegindu; ez-eta ere, hala berean, beste errealitate hauei buruz: hots, fonema, hitz, etab. Ez dut inola gisa horretako eginkizunik leporatu. Arruntkiago edo ximplekiago jokatu dut. "Haurraren mintzaira berezia" eman diot izenburutzat txostenari; hori bai, euskararen ingurumunduaren barne hartzen dut eta euskarari atxiki natzaio ahal bezain batetan.

Haurrak, gure haur euskaldunak, edozein hizkuntzetako haur orok bezalaxe, hizketa molde bat badu bere berea dena, aski apartekoa eta, helduon mintzairarekin parekatzen badugu behinik behin, hainbat eta hainbat xehetasun bereizgarri erakusten dituena. Horregatik, hau da ene eginkizuna: haurraren mintzabidean sartu eta, zenbait berezitasun gogoan harturik, aditzera ematea.

Hala-eta guztiz, aurrerat jo baino lehen, aipa dezadan, beste

zertxobait ere. Alegia, *adierazpideak edo espresio-bideak* esaten direnek sekulako garrantzia dutela eta legez eman ere ematen zaiela gaur egun “eskola berria” delakoaren antolaketan edo haurraren hezketari buruz. Hara, adibidez, gure haurtzaroko eskolak, iduri zuen, matematika zuela ardatz. Zenbat ordu luze eman ote dugu “kontuak ateratzen”, lumeroak egiten edo, berdin dena, matematikak lantzen. Jadanik ez dute halako garrantziarik eta gutiagorik ere haurrarentzat matematikak eskolan. Zer dela-eta? Zernahi makina badelako egun *karkulagailu* izateko egina, pertsonak lumerotan burua hautsi ez dezan.

Eta gainera, denok dakigu teknikak, ez bakarrik karkulagailuen bidez, beste zernahi makina eta aurrerapide sortu duelako, mundu molde berri bat bezala ekarri digula: berria, eta mugikorra bezain aldakorra ere bai. Horregatik, hala diote, heldu den XXI.en mendeko gizartean ez dela jendea ofizio edo lanbide bakarreko izanen: beharko duela agian bizpahiru lanbidetarako prestatua edo, bederen, irekia izan. Halatan bada, irekitasun hau sortzeko eta oinarritzeko ez du egungo eskolak hainbat matematika haurrari ezarri beharrik, eta espresio bideetan barna gidatzea mila bider aberatsago eta jatorragotzat daduka.

Kasu horretan, nork uka lezake espresio-bide bezala hizkuntzak duen garrantzia? Nork uka, bestalde, hizkuntza dela pertsona bere pentsamendu-sendimenduak idatziz nahiz ahoz adierazteko tresnarik egokiena; berdin, bizi den gizartean kidekoekin komunikatzeko ere. Eta ooren buru, praktikoki ikusirik behintzat, itsuenak ere ikusten du egun, matematikak lantzen sobera denbora galdu gabe, hobe duela haurrak bizpahiru hizkuntzaz hein batean edo bestean jabetzea.

Hori horrela, azter ditzagun orain haurraren mintzairak dituen berezitasun batzuk. Hiru puntutan banatzen dut lantxo hau.

- Lehenik, prozesu baten berri emanen dut.
- Gero, zer hiztegi molde eta nolakoa erabiltzen duen adin bakoitzean.
- Eta azkenik, zenbait puntu jakingarri edo ohargarri aipatuko.

1. *Mintzairaren prozesoa haurraren munduan*

Ez da dudarik, mintzaira eboluzio prozesu bat dela esan behar, bereziki, haurrari buruz ari garenean. Hitzaren emankizuna gertatzen da alde batetik, baina ez da emankizun hutsa, bere lehendabiziko hitzak salbu, esanahi batekin edo bestearekin josten bait ditu. Mintzaira gainera, bere adimen eta beste ahalmenen (oharmenaren, idurimenaren, nahimenaren...) hazkuntza edo desarroiloaren ezaugarrietarik bat da. Haurra, hazkuntza prozesu baten barne da, eta nola mintzaira hala beste ahalmen edo dohainak hazkuntza hori moldatzeko elementu edo tresna direla esan nahi dut.

Hara, haurrak lehenik, bere lehen hilabetetan alegia, badu beste zenbait adierazpide. Ez dira hitzak, ez da izanen mintzaira edo lengoaia ere, baina adierazten du zer-nolabait gose dela, edo egarri, hotzez, oinazez... eta horretarako hots batzuk jalgi ohi ditu: nigar, barre, oiho, garrasi, etab izango diran hotsak.

Geroxeago, sei hilabete dituelarik-edo hasiko da: la-la-la eta bala-bala-ka.

Zortzi-hamabost hilabateren tartean emanen ditu haurrak bere lehendabiziko hitzak, hitz soilak eta nolana ere delarik ere hitz bakanak. Zerbait esan nahi luke eta erretolika bizian ihardunen da haro horretan, baina ez du hitz berezi eta ongi moldaturik ematen ahal. Hala ere, esaten dituen hitz bakarrok balio handia dute, zeren-eta hauetan finkatzen bait ditu geroagoko urratsak, hitz hauek ditu abiabide mintzairaren urratsetan. Beste urtebetean zenbait hitz berri esaten ikasiko du, baina hitzen arteko lotura handirik gabe.

Dena dela, lehendabiziko urteetan hitz multzo handia bilduko du haurrak, eta harrigarriena zera da: hitzak ezagutu arren, arrunt hitz guttiz baliatzen dela esaldiak moldatzeko.

Haurra, behin sei urtetara helduz gero, gai da aski trebetasunez eta garbiri espresatzeko, nahiz-eta frango mugatuak izaki bere esaldiak. Familiak eta ikastolak zer-ikusirik handia du haurra espresio aberatsekoa izan dadin.

2. *Haurraren hiztegi moldea*

Arestian aipatu dugu hitz bakarrak, hitz soilak jalgi ohi dituela haurrak hastapenetan. Zein da, galdetzen dugu orain, hitz horien esanahia? Sendimendu, desira, ekintza... ote? Aditza da, beraz, haurraren lehen hitzetan ageri dena, diote batzuek. Axaletik ikusten badugu, ordea, izenaren kideko hitzak dira, eta beraz, gauzakiak deitzeko erabiltzen ditu haurrak bere lehen hitzak. Iduri du, baita, hastapeneko hitzok esaldi baten funtzioa kunplitzen dutela askoren iritzian.

Dena den, arazo eta eztabaida handietan sartzeke badirudi haurrak bere ele-melezko erretolikaren barne: ba, pa, ma, ña, ta edo tta, etab. gisa honetako silabak dituela esaten, edo hoik bereizten hasten dela lehenik. Jakina, eta ondorioz, berehala josten du zenbait hitz oinarri horietan finkatzen delarik: baba, papa, mama, ttatta, etab. Ohar gaitezen euskal haurrak *papa* eta *mama* ogia eta ura adierazteko erabiltzen dituela, baina halere ama eta aita (atta) hitzak lehendabiziko bezala sortuak izan ohi direla gure haurren ezpainetan.

Izena.—Gauzakiak deitzeko erabiltzen da. Haurrak, bederen itxuraz, gauzaki bakoitza izendatzea, gauza bakoitzak duen izena jakitea maite du benetan eta egarri-min handiz agertzen dira adin horretan. Horregatik, ttipien ikastolan: iduriak, koloredun iduriak, iduri mugikorrek duen garrantzia ez da behar bezainbatean sekulan adieraziko.

Izenordea.—Izenaren pareko eta ordain ona du haurrak. *Hau, hori, hura* erabiltzen ditu gehienbat. Zailago zaio plurala.

Izen-lagun edo adjetiboak.—Zazpi urte bitartean behintzat ez du gehiegirik erabiltzen. Adibidez: itsusia-polita; ona-txarra (ohar *txarki* aditzordea nola egiten duten. Ez dakit Bizkaiko haurren ere berdin gertatzen den); handia-ttikia, luzea, urdina, berdea, xuria... goxoa, zikina, etab. baina guztira ere multzo handia ez dena.

Aditza.—Haurren mintzairan aditzaren kasua zer-nola ema-

ten den adieraztea zailago eta korapilatsuago gertatzen zaigu. Hona, halere, zenbait puntu adigarritzat:

a) Aditza agerian ez denean:

— Haa! xakurra (hara! xakurra); haa! pipia; haa! pipia, ttena, etxea... Hau, hori, huraxakurra, pipia, etxea... da adierazi nahi du, baina oraino ez du espreski aditza ematen ahal.

— Amatxo: aita, aita! *Amatxo! aita dator* esan nahi du edo *aapo aita* esaten badu, aita johan dela esan nahi du.

— Akaki pillotan = *Iñaki pilotan dabil* esan nahi du.

Hona hemen lehen urratsa, aditza agerian ematen ez dena.

b) *Aditz laguntzailea*: Hauxe da aditzetan lehenik espreski agertzen dena.

— Hau xakurra da; Mikel gaiztoa da; Maite itsusia da...

d) *Beste aditzak*: Nola adierazten ote ditu gure haurrak ekintza eta mugimendua, edo, berdin dena, nola burutzen ote du aditzaren eginkizuna? Aski ongi esango nuke nik, eta are gehiago, dinamika handia nabari zaiola euskarari puntu honetan. Ez dut etsenplu bat edo beste aipatu baizik eginen.

— Ama, Iker negarrez (dago), esaten dio alabak amari. Edo... esan lezake ere: barrez, lanean, hizketan, korrika, pilotan, etab. Ez da aditza espreski ematen, baina bai aditzaren funtzioa, hots, ekintza-mugimendua.

— Non da Mirentxu? amak galdegiten du.—*Jostatzen*, semeak erantzun. Gisa bereko erantzunak lirateke: garbitzen, jazen, orrazten, lagutzen, eta hainbat eta hainbat. Esan nahi dut jostatzen *dabil* edo jazen *ari da* izanen litzateke erantzun osoa, baina aditza erdizka bakarrik erabiltzen du haurrak kasu honetan. Ez dakit etsenplu honetan ere Bizkaiko hurrek nola jokatzeko duten, zeren-eta bizkaierak *nora* galdegaitzat harturik erantzuteko erabiltzen bait du partizipio molde hau.

— Hemen naiz, amatxo; etorri gara; eskolara doha Joseba; aita dator, asko maite dut andereño, etab. aditza osoki harturik ere entzun ohi ditugu esaldiak haurren ezpainetatik, baina hel-

duxeago behar du izan, eta nolana ere delarik ere aurreko bi etsenpluak dira berezien eta erabilien haurren mintzairan.

Aditz-molde eta denbora desberdinak: aditzaren eremuan badugu beste zenbait gora-behera ere.

Egiaz, ttiki danik moldatzen da haurra aditzaren jokamolde diferenteen esanahia aditzera emateko. Hona hemen zenbait esaldi etsenplutzat, eta denak bi urtetako haurren gandik bilduak:

— Ñik aita ikusi berebilean amatxo = Aita ikusi dut berebilean amatxo.

— Nekanen etxeko xakulak Pintto izena = Nekaneren etxeko xakurrak Pintto du izena.

— Nik ikastola jun nahi, amatxo = Ikastolara johan nahi dut nik.

— Amatxo, Kotxe Marik kenu = Amatxo, Joxe Marik kendu dit edo kendu egin dit.

— Nik arraia dena kan (Plateran arrainkia zuen eta jaten ari zenez...) = Nik arraina, dena jango dut.

— Nik egun on exan andereñori = Nik egun on! esan diot andereñori.

Oro har, indikatibo jokamoldean, intransitiboa nahiz transitiboa, eta sintetikoa berdin, ongi jokatzen dute haurrek, berderen formarik soil eta arruntenetan, eta *bereziki* orainaldian, zeren-eta orainaren baitan murgildurik bizi bait dira.

Halatan bada, behin hiru-lau urtez gero, aski ezagunak dira haurarentzat, adibidez, gisa honetako esaldiak: berebilean dator aita, etorri gara, jostatzen ibili naiz, nik jan dut, lan asko egin dugu ikastolan, etxera noha, maite dut andereño, amatxok esan du, etab.

Lehen-aldiko jokoak zailago zaizkie, eta ohartzen bazara, haurrek maiteago dute: egin dut egin nuen baino; ongi jostatu gara ongi jostatu ginen baino, eta horrelakoak.

Gero-aldia: lan gaitza zaie geroari buruzko zenbait forma erabiltzea, nahiz-eta forma batzuk hainitz aldiz erabili izan: bai, etorriko naiz; Nik egingo dut; esango diot, etab.

Geroaren kasuan ohar bat egin anhi nuke, zeren-eta diferentzia bat ikusten bait dut. Maiz askotan entzun ohi zaie egungo hurrei honelako esaldiren bat: andereño, jostatzen gara? egi-ten dut? abesten dugu? = jostatuko gara? egingo dut? abestuko dugu? esan orde. Erdararen influentzia ote?

Nori edo datiboa delakoa sartzen delarik, sortzen zaie zailtasunik handiena: esan dit, eman diot, eta horrelakoak erabili ohi dituzte, baina xuhurki nolanahi delarik ere.

Ikastolako haurrek berek ere hutsegiterik badute puntu honetan. Adibidez: ikusi dizut, eman nau, etab. ikusi zaitut, eman dit esan beharrean.

Kondizionala eta potentziala: zuzenki mintzatzen da haurra, eta horregatik, ahalezko edo baldintzazko jokamoldea ez du gehiegirik onartzen. Geroago ditu forma hoik hartuko.

Subjuntiboa: berdin esan behar honi buruz ere, baina bada kasu bat harrizkeoa. Hara, haurrak biziki maite du antzerkia, elkarrizketa eta pertsonaiak idurikatzea, eta guztiz haurra dani-
nik gainera. Horra etsenplu bat subjuntiboa non-nola erabil-
tzen duen adierazteko. Neronek entzuna bi urte baino ez zuen
haurrari.

— Ni, Terexa *nintzela* (Terexa karamelu saltzaile den emakume bat da).

— Eta zu, umea *zinela* goxokiak erosten.

Elkarrizketa:

— Terexa.—Ze biez umea?

— Haurra.—Karameluak.

— Terexa.—Tori! (Zegozkion keinu eta jestuak eginaz, berak bakarrik burutu zuen elkarrizketa).

Beraz, “ni Terexa nintzela, eta zu umea zinela”ko kasu hau ez da hain bakana, harrigarritzat badagukagu ere. Edonor ohar-
turik izanen zarete honetaz edo antzekoez hainbat alditan.

Inperatiboa.—Izugarritzko erraztasuna dute agintzeko, desirazko, eta eskatzeko aditz- joko hau erabiltzeko. Hona:

— Batzuetan: ama! ogia; ura; goxokiak; etab. beste gabe eskatzen duelarik.

— Beste batzuetan: ekarri neri, eman, egon hemen, beitu amatxo, ikusi hau, etab. Edo baita, baina gutiago halere: eka-tzu, emaidazu, xato, etab.

Loturak, aditzordeak... Izenordeez bezalaxe (zergatik, non, noiz, zer, zein, hau, hori hura...) hainitz baliatzen da haurra lekuko aditzordeez ere (hor-hemen, hor-han eta geroago he-men-hor-han) erabiltzen dituelarik.

Ez dut etsenplurik emanen, hain gauza ezagunak eta arruntak direnez eta gainera, ez luzatzearren.

Besterik gertatzen zaio, ordea, haurrari loturei buruz, hots, hitz baten eta bestearen artekoei nahiz esaldien artekoei buruz ez da batere aberatsa, aski ongi moldatzen bada ere.

3. *Zenbait puntu jakingarri edo ohargarri*

Ez dut luzatuko azken parte honetan, baina bai laburki bederen aipatuko zenbait gauza arazo edo ondorio bezala:

a) Haurraren mintzaira urratsez-urrats ikasteak hizkuntzaren beraren urratsak ikastera bortxatzen gaitu, hots, haurraren lehen-hitz eta josturek hizkuntzaren oinarrizko elementuen sakonketara garamatzi.

b) Haurrak mintzaira, inguruko pertsonen, giroaren eta bizi den komunitatearen arabera idurikatzen eta moldatzen du. Baina ez da halere, helduon mintzairaren kopia edo oihartzun soila, ez-eta errepikatze hutsa ere.

d) Haurra, helduok berdin hein batetan, hizkuntzaren kreatzaile ere bada. Eginiko molde gogorrei atxikitzen eta berauen barne gara helduok lekutzen. Aitzitik haurra. Izaki berria denez, dena berriki eta begi berriez ikusten du, ekintzari loturik da eta helduon gandiko eitez baliaturik ere, bide berrietan barna bait da abiatzen eta horietatik jokutzen.

e) Haurraren mintzaira, helduonarekin konparatuz gero, aski pobrea eta eskasa izanik, ongi taxuturiko sistema oso bat da, eta gainera, hitzen hedaduraz nahiz aditz-molde eta loturei

buruz duen hutsunea gainezka hornitzen du *musikalitatea* delako elemendua dela medio (azentu, doinu, pausa, galde, erantzun, agindu, hunkipen, duda, etab.) baliatzen delarik.

f) Haurraren mintzairak badu halako berritasun, freskotasun, bizitasun edo mugikortasun bat helduon hizkuntza eginak, hotzak eta geldiak ez duena. Haurrak, adibidez, ez daki deus ideia abatraktoez eta orokarrez, halaber metaforaz ere. Esaterako, badaki harrizko etxea zer den, baina ez zer den harrizko bihotza. Jatortasunean behinik behin ez diogu irabazten.

g) Azkenik, guztiz interesgarri litzateke haurrek euskal-hizkuntzaren moldatzeko ezarri izan duten eragina eta sortu duten hiztegi multzoa (ninia, ttottoa, papa, mama, kokoa, txi-txia) edo beste hainbat bitxitasun aztertzea, baina... aski irizten diot gaurkoz.

* * * * *

73-XI-11

LEKEITIOKO BATZARREA
EUSEBIO MARIA AZKUE-REN OROITZAPENEZ
ETA
EUSEBIO ERKIAGA JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN
SARTZEA OSPATUZ
EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA

Jaun-andreak:

Ehun urte betetzen dira gaur, Eusebio Maria Azkue, Lekeitioko seme prestua hil zenetik. Muga hau ezin utz zitekeen isilik igarotzen, gogoratu beharrekoa zen. Hortarako antolatu dituzuen ospakizun eta jaialdien artean, Euskaltzaindia ere herrira etortzea nahi izan duzue. Eta zuen deiari erantzunez, pozik etorria da Euskaltzaindia Lekeitiora. Eta pozik etorri dela diot, zeren eta herri honek baditu gurekin lokarri berezi-bereziak, eta guk baditugu herri honekin zorrak, eta zor hoiek aitortzeko, ez zen hau une txarra.

Eusebio Maria Azkue jauna dugu Bizkaiak garai haretan eman zuen euskal olerkaririk handiena, ugariena, saiatuena, euskera olerki bidean lantzen gehien arduratu zena. Alde guztietarik begiratuta, gaurko omenaldi eta gorazarre hau zor genion. Aurki entzungo dugu Erkiaga jaunaren mintzaldia lekeitiar prestu honen bizitza eta lanak sakonki aztertuz. Ez dut, bada, hortaz deus esango.

Euskaldun eta euskaltzale handia izan zen Eusebio Maria Azkue. Baina seme bat eman zion Euskal Herriari, oraindion aitak baino ere lan handiagoak burutu zituen: Resurreccion Maria Azkue. Berau izan zen, gainera, hainbeste urtetan, Euskaltzaindi honen lehendakaria.

Gogoan dut —eta ez zait berehalakoan ahaztuko—. 1946 garren urteko uztailean zen. Fresnedo-tar ene ahaideak deiturik, Lekeitiara etorri nintzen bizpahiru egun pasatzera, Comillas-ko kursoa amaitu eta. Biharamonean jaun Txomin Fresnedo zenak esaten dit:

— D. Resurreccion herrira etorrita dago egun honeitan. Bisita bat egin behar deusagu. Neuk lagunduko deusut.

Egia esateko, ni lotsa ere banintzen horren gizon handia ikustera joateko. Gazteegia ere bai orduan. Lotsa alde batetik, baina joateko gogoia ere bai, bestetik. Ordurako ezagunak eta oso estimatuak nituen, ba, Azkue jaunaren euskal lanak. Eta halaxe, Fresnedo jaunak bultza eginik, joan nintzen D. Resurreccion-en etxera. Orduan ezagutu nuen lehenbiziko aldiz Don Resurreccion, hemen, Lekeition. Nahiko luze egon zen gurekin hizketan, eta bere bizitzako gora-behera batzuk kontatu zizkigula ere oroitzen naiz.

Azkue aita-semeek maite, landu eta bultzatu nahi izan zuten ondasun hau —euskera—, hori bera zaindu, gorde eta bizirik atera nahi du Euskaltzaindiak. Eta hortan saiatzea, euskaldun irautea, alegia, izango du Lekeitioko herriak gizon handi hauei leial egoteko modurik onena, eurei opa dakiekeen saririk eta omenaldirik bikainena.

Badugu gaur oraindior beste ospakizun handi bat, Lekeitioko herriaz zer-ikusit duena. Eusebio Erkiaga jaunak, herri hontako seme argiak, Euskaltzaindian egiten du gaur sarrera, euskaltzain oso bezala. Egia da aspalditxotik zegoela izendatua, baina Arautegiak agintzen duen sarrera-hitzaldia egiteko, egun hau eta toki hau hautatu ditu. Hitzaldi horren gaia, hauxe izango da: Eusebio Maria Azkue-ren bizitza eta euskal lanak azaltzea eta aztertzea. Ohitura den bezala, sarrera hitzaldi honi erantzungo dio lehenagotik euskaltzain den beste jaun batek. Gaurko honetan Don Juan Gorostiaga, euskaltzaina eta apaiza, izango da erantzuteko hitzaldi hori egingo duena.

Eta ondoren, euskaltzain oso delako aiterra eta agiria emango zaio Erkiaga jaunari.

Era hortara, gaurko ospatze hau Lekeitioko hiru seme ospetsuren gorazarre izango da: Eusebio Azkue, Resurreccion Azkue eta Eusebio Erkiagarena.

Baina nik esango nuke areago dela gaurko hau Lekeitioko herriari berari egiten zaion gorazarrea eta omenaldia, euskeraren landan herri honek eman izan dituen frutuen eta egin dituen lanen aitortza eta ezagutza ospetsu bat. Eusebio Erkiaga jaunak ere oso gogoan eta bihotzean ekarri du beti bere herri hau. Neurri handi batean, herri honi eta herri honek eman dituen seme euskaltzale eta euskal idazleei eskeinirik daude jaun honen euskal lanak.

Eta berriz ere esango dut: Lekeitiar handi hauei, bai guk eta bai Lekeitioko herriak ere egin diezaiekeen gorazarrerik handiena, eman diezaiekeen sari-pagua, badakizute eta bada-kigu zein den: berek maite eta landu zuten euskera gordetzea eta bizi-bizirik landare berriei aldatzea. Eta hori da Euskaltzaindiak gaur herri jator honengandik itxaroten duena.

Eta jaialdi hau borobiltzeko eta osatzeko, egun hontarako —behar bezalako ospez egiteko, alegia— utzi dira beste bi gertaera pozgarri:

Bata: euskal irakasle titulua lortzeko etsaminak igaro eta gainditu dituztenei, hartako agiriak eta diplomak banatzea.

Axolarik handieneko gauza da euskeraren etorkizunerako euskal irakasleak gertutzea, eta poz-pezik ikusten du Euskaltzaindiak gure jende gaztea batez ere geroago eta gehiago datorrela titulu horren eske, hortarako jarririk dauden ikasketa eta etsaminak eginez, jakina. Urtarrilean, Elgoibar-en, Urruzunoren omenaldian, ehun eta gehiago diploma eman ziren. Eta gaur hemen berrogeitik gora dauzkagu emateko. Zorionak eta eskerak ematen dizkie Euskaltzaindiak irakasle berri hoiei.

Eta beste gertaera: Eusebio Azkue-ren ehun urte betetze hau ospatzeko, Euskaltzaindiak, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz, olerki sariketa bat eratu zuen, eta sari hoiem ematea ere gaurko ospatze honen barruan egingo da, egoki denez.

* * *

Eusebio Azkuek Bizkaiko euskalkian egin zituen lan guztiak. Haren semeak, D. Resurreccion-ek, gauza asko Bizkaiko euskalkian berak ere; baina Euskal Herri guztirako euskera batu eta berdin baten beharrean ginela oharturik, eta gure hizkuntzak gaur duen hutsune horri kasu emanik, batu antzeko hizkera horretan idatzi zuen ez gutxi, eta euskera batu horren hauzia eta problematika sakonki arakatu zuen, gainera. Eusebio Erkiaga jauna ere, bai sorterriko bere euskalkiaz eta bai bestelakoz ere baliatu izan da bere lanetan.

Hortik bide hartuta, eta gaur kontu honetan oker adituak sarri gertatzen direla ikusiz, hitzerdi bat esan nahi dut. Euskaltzaindiak, Don Resurreccion-ek bezala, euskera batu horren premia eta beharra ikusten du, eta horregatik, berari dagokionez, horren alde dago. Horrek, ordea, ez du esan nahi euskalkiak baztertzeko dituenik. Ez bakarrik mintzatzeko, baita literaturako zenbait mailatan ere, gure euskalki literarioek (eta bizkaitarra dugu hoietarik bat, eta beneragarrienetakoa) toki bat izango dute gaurkoz, eta bai luzaroko ere, eta beharbada betiko, gure artean. Euskaltzaindiak nahi du, bada, erabil di-

tezen. Baina euskalki hoién ondoan, batez ere literatura ederrenen hesparruko ez diren idazkietan eta irakaskintzan erabiltzeko, euskera batu eta berdín bat Euskal Herri guztirako behar dela ere ikusten du Euskaltzaindiak, eta horrexegatik horren alde da. Beraz, euskera batua eta euskalkia ez ditzagun elkarren etsaitzat jo. Bientzat dago tokia eta lekua. Hori da behintzat Euskaltzaindiaren asmoa eta gogoa, eta halaxe azaldu du agertuberri duen euskera batuko aditzaren liburuxkan.

* * *

Eta esanak esan ondoren, eskerrik beroenak ematen dizkiot Lekeitioko Udalari eta alkate jaunari. Eskerrak, baita ere, Lekeitioko Guraso Elkarteari. Eskerrak eta zorionak, azkenik, Lekeitioko herriari, euskal baratzean hain frutu gozo-mardul-umoak eman dituelako.

Itxaropen bizia dut, aurrerakoan ere, orain arte bezala, euskaldun jator izaten iraungo duela herri honek. Bere seme prestu-argi hoién jarraitzaile leiala izango dela beti, alegia. Euskaltzaindiak, bere ahal izate apurrean, hortarako zerbait lagun ahal baleza, bere laguntasun hori emateko prest dela jakin arazi nahi dut, gainera. Horrenbeste egitera beharturik gaude, batez ere Euskaltzaindiaz hain loturik den herri honetan.

Eskerrik asko, bada, eta zorionak lekeitiar guztioi!

EUSEBIO MARIA D. AZKUE GIZON ETA IDAZLE*Eusebio Erkiaga*

Jaunok, andreok:

Euskaltzaindi onek, sortu izan zanetik, ba du alako zeri-kusia Lekeitio gure erri maite onegaz. Ain zuzen, Euskaltzain-buru lehena ta illarteraiño gaiñera, gure errikoseme Azkue apaiza izan genduan, orain omena egiten diogun onen semee-tarik ospatsuena.

Ta Juan Bautista Eguzkitza zana ere, lehen orduko eus-kaltzaiña, emen bizi izan zan luzaro.

Azkue abadeak 87 urte zituan arren, ez zan zaharrez il. Bai ordea, Bilboko ibaiera erori, ta ango ur zikiñak kalte egin-da, zortzi egun geroago. Eguzkitza jauna, zaharregi egin gabe joan zitzaigun, bihotza ta gogoia neke-miñez, euskerarentzat egun illun samarretan bizi giñanean joan ere.

Euskaltzain aundi bion ondorengoek urgazle egin ninduen orain ogeta bat urte, eta geroago, merezi gabe noski, euskal-tzain oso.

Itzaldi onen asierakoak, bitez euskaltzain jaunei ene esker ona agertzeko.

Orobat, gaurko jai eder ontan, alkate jaun eta udalgizonei, erriko Guraso-Alkartasunari, ta labor esan, erritarrei ta eus-kaltzale guztioi, eskerrik asko.

Donostian donosti, gorostian gorosti esan ohi danez, gau-den tokiari, omenduari berari ta erri-jendeari dagokienez, ene jardun au emen ohi dugun euskalkiz esanen dut.

* * *

GIZON ETA OLERKARI

Eusebio Maria Azkue Barrundia ageri da soillik, bateoko idazkunean, eta 1813 gn. urteko aprillaren 13-an jaio izan zala emen, Lekeitio. Ta il bere, ementxe egin zan, gaur ehun urte, berak 60 zituala. Il-agirian 68 urtekoa diño, baiña oker dago.

Gaisoaldiaz, "de accidente perlético" (sic) datza (perlático behar eukean), eta izen luzeagoz agertzen deusku, zera, Eusebio Maria de los Dolores.

Gurasoak, Juan Jose Azkue Zalbidegoitia, Zamudioko seme ta ango mediku izan zana, eta Maria Iñazia Barrundia Atxabal, Lekeitioko alabea. Juan Joseren aita, Arrigorriagakoa izan zan.

Goikokaleko 16 ganean. dogu Eusebio Mariren jaiotetxea, ta antxe, ormeari deutsalara dago gomutarria, 1936 gn. urteko San Pedro bezperan, gerratea baiño ogei egun lehenago ezarri genduan arlandua. Arri orrek orduan, euskeraz zituan berbak; orain gitxiago ditu, ta eurek, gaztelaniaz. Egun aretan kalean bertan berba egitea gertau jatan, eta orain, 37 urte geroago bere, barriri dagokit Azkuetarrak goratutea.

Eusebio Marik, Zamudion emon zituan umealdia ta gazte-zaroa. Mutiko zala, latin eta filosofia ikasi zituan Bilbon, aita frantsiskotarren komentuan, aita Uriarte ospatsua ikaskide izanik. Lehenengo karlistadan, talde onetakoekin ibilli zan; orraitio, ez zan bapere gerrazale. Gerogarrenean, Ferrolera jo eban eta an, Nautika-gaiak zertu ta itsasoak austen ibilli zan, pillotu eta kapitan mailletan. Baiña itsasoari agur egin eta lehorrean lotu zan, eta Bermeon, Mundakan eta azkenez Lekeitioko Nautika-eskola barrian jardun eban, beti irakaslekuntzan.

Gizon eder ta sendoa zan, barru zabal eta gibelean arririk bakoa, jator eta atsegiña. Zalduna zirudian. Anton Truebaren esanez be, ba dakigu begikoa, argia ta itxurakeri bakoa zana. Eta labur esan, umore aundiko gizona. Gogoan izan daigun umorea, umore ona jakiña, ez dala edonoren zera. Ezta urrik emon bere. Umorea bere, zeruko dohaia da, ta ez iñundik iñora be, universalala.

Emazte bi izan zituan. Lehenengoa, Laureana Ozerin izan zan, Txorierrikoa. Lau seme-alaba izan zituen: Alfonso Maria, lehena, eta Mundakan jaiok, Carolina, Conrado Maria eta Sol (1856), geure doña Sol, amaikatxu lekittarren maistrea izanikoa.

Emaztea il jakanean, Eusebio Marik bigarrena artu eban Mundakan, Mari Karmen Aberasturi, artean umerik izan bako

alargun gaztea. Zortzi ume izan zituen: Julia, Aurora Maria ta Jesus Maria, Mundakan: eta emen, Lekeition jaio zireanak, barriz, Resurrección de Jesús Maria de las Nieves, Maria Luz, Diana Maria, Julia (bigarrenez izen bardiña, lehena il egin zalako) eta Heliodoro Maria Antonio. Orra ba, amabi- seme alaba eder, etxea bete laguneko sendi mamiña. Orraitio, ainbeste izan arren, ez dogu aen aztarrenik gaur dan egunean.

Izentau ditugunotarik, lau ezagutu genduzan: doña Sol, txiki samarra ta baltzerana zan, lenengo emaztearena. Azkue abadea eta Aurora ta Diana, luzeak eta galantak, azal zurikoak.

Argiro dago olerkietan, Eusebio Mariren izkerea emengoa ez zana. Jakiña, umetan eta gaztetxutan Txorierrin bizi izan zan-eta, angozea egokien arentzat. Agergarri ori naikoa izan arren, orrezaz ganera, gure erritar jaun baten lekukotasuna daukagu: don Ramon Etxebarrietak bere "Gomuta-liburuan" idatzia: Eusebio Mariren berbakerea ez zan emengoa; Bilbo ingurukoa zan, soiñukera apartekoaz ta ez emengo taiukoa.

Matematika zeretan guztizkoa ei zan, erdilo egon arren be, problemarik biurrienak zirt-zart garbitzen zituan. Bizimodu onaren zalea zan eta alaia, kontu-kontaria. Zozo eder bat eukan kaiolan Mundakan, eta zozo orreri, euskalberbak be irakatsi eutsazan. An ezezik, emen bere, izan eban nunbait zozo eder ori, emengo esaeran sarri entzuna dogunak dirausku-ta:

"Azkueneko atetan
zozoa dabil kantetan..."

Zozo orrek zer ete ziñoan? Auxe: "Azkueren zozoa naz ni. Uuuuurra pepito".

Zerbait geitu gura genduke olerkariaren alaba Dianaz. Azkue abadeak euskaltzale aundi bat izan eban noizbait bere inguru; erbestean egoana ta ain zuzen, berberak eratorri ebana barriro Euskalerrira. Gizon ori, Diana bere arrebearentzako senargai egokia izan zeitekeala, uste izan eban gure abadeak.

Alemaniko Köln urian egoala, Azkuek, karta askoren artean, 1908 gn. urteko zezeillaren 24-an, bat egin eutsan adiskide orri.

“Adiskide maitea:

Biotza ausi deust oraintxe eldu baiño egin eztaben zure eskutitz onek. Eneukan irasteko gogorik; batetik, azkenengo egin neutsunari jaramonik be egin etzeustalako; bestetik, arrebeagaz ta zugaz jazo jatanagaitik. Biotz-biotzean neukan sartuta anai izan bear genduala”.

Eta nor ete zan gizon ori, Azkue abadeak anaitzat eta bere arreba Dianagaz ezkondua, gura eban ori?

“Kirikiño” zan, Mañariko Ebaristo Bustintza, Manchako Almansatik bere Bizkairatua. Argitugarri da, orraitio, oraintsu besterik irakurri izan dogu-ta, “Kirikiño” mende onen asieran eldu eta biurtu izana zala Euskalerrira, ez lehenago. Ain zuzen be, 1901 gn urteko zezeillaren 26-an be, Almansan egin ebalako abadearentzako karta bat.

Azkue apaizaren karta orren beste ataltxu bi dakarguz ona: “Biotza ausi deustazulako, osatu nai neuke, ta ona zelan. Adolfo Urkijori adiskide usaiñeko eskutitza egiten diardudala eldu jat zurea. Zuretzako au amaitu daidanekoxe, jarraituko deusat besteari, ta antxe esango deusat, eta baita biotz-biotzez eskatu be zutzat, San Franciscan ogibidea, ba daki nor zarean-ta. Andik, ondo jatortzun orduetan etorri zineiz Institutora”.

Eta karta orren gunez, zirautsan:

“Nire arreba Dianagazkoa gertau balitz edo gerta baledi, or nintzake gorik berako bendeziño andi bat emoteko. Indianu, diruz eta urtez atsituriko indianu-ekkontza ori aurrera bada-roazu, bedeinkatuko zaituet, baiña urrundik. Adiskide beti izango gara...”.

Karta orren izaerea baieztu gura izan neban, eta egin-egiñean, \ “Kirikiño”-ren jaiotza-eunurteburuan, Mañarian eta euren etxean atan be, aren alarguna alboan nebala bazkaldu neban, eta aitatu neutsan ba. Bai, karta ori ez eban gorde Azkuek, bere bidean ezarri baiño. Ondo gogoan eban Basilik, Azkuek “Kirikiño”-ri lotsea emon eutsana, “indianu-ekkontzea” egiteko arriskuan ikusten ebala-ta.

Abade gureak, esaera argia baizen gogorra jaurti bai, baiña baita berba emona bete be. Eta Almansatik Euskalerriratu ebaniari, lenengo bere aldizkarietan lana emon eutsan, geroago Institutuan irakasle-lagun egin eban, eta azkenez, ogibide geigarria lortu eutsan Montellano meatzetako ofizinan.

Jakingarri dira, ganera, Adolfo Urkijo zaldunari gure abadeak egin eutsan egun bereko karta samurraren atal batzuk. Ona jarraian.

“Ha llegado a mis manos carta de mi amigo y sustituto en el Instituto, el doctor vascófilo Bustinza, académico de la primera camada. Yo me permito hablar como el profeta de Israel, de lo futuro con verbos pretéritos, porque nuestra Academia de la Lengua se hará, y antes de mucho”.

“...este muy ilustrado y despabiladísimo joven, Licenciado en Ciencias con notas brillantísimas obtenidas en Madrid, trabajador vasco de la buena cepa, noblote y honrado hasta lo que cabe...”.

“...me permito pedir a Vd. encarecidamente, y hasta me atrevo a suplicarle haga un esfuerzo por proporcionar a éste hombre en San Francisco una ocupación regularcita. Con ello, no sólo prestará Vd. un buen servicio al país, sino que tendría un buen oficinista. Sin algo así, se iría de nuevo sin duda hacia Albacete... y después no sé se le volveríamos a ver. ¿Y dónde encontraríamos vascófilos, uno solo, de su talla? Y usted sabe perfectamente que no andamos sobrados de personal para la constitución de nuestra futura Academia”.

Eta firma ostekoan, geigarria:

“El secreto, el único secreto de que Bustinza no haya sido aún decentemente colocado, ha sido el de su cortedad, pues a pesar de su no común ilustración y disposición brillante y hablar aun el castellano como no lo hacen en Bilbao la mayoría de los hombres de carrera es, para pedir algún favor, romo de carácter como un pistolo.

Adiós, querido Adolfo”.

OLERTIA TA OLERKARIA

Sakona baizen lilluragarria jakun gaia, auxe. Ezin luza-roan gaur onezaz jardun, eta labur-miñez beharko.

Gizon eta olerkari aitatu dogu lehen, baiña gaur dan egu-nean, ezta zertan banandu bata besteagandik. Ez. Gizona da olerkaria, poeta dalakoa; eta olerkari gizon dalako (ala emakume dalako) da. Ez ditugu beraz, bi; bakar bat baiño.

Olerkari danari, berez datorkio alako goi-arnasa, asmo, intuiziño, begikaldi ala bihozkaidea. Lehenagoko gauzak, jazoerak, lagun urko ta urrunekoak, joanak eta oraingoak: aldiko kezka, burruka, maitetasun eta gurariak; gerorako ames, joera, asmo... zerok guztiok, saldueziña dauan bakartade santuan batu eta josiko ditu, ta bere griñaz ta barruko eragiñez, poema deritxan ederlana eratuko deusku.

Olerkaria, besteentzat bitarteko izango da, agertzaille; sarri askotan, iragarle. Ez orraitio gauzen asmatzaille, erakusle baiño. Mundu onetan agirian egon arren, besteentzat ostendurik edo lainoanean illun samar dabiltzan sentipen eta izaerak erakutsiko deuskuz, eta betiro, ain zuzen, izkuntzaren bidez.

Izpiritu-gauzak eta begien aurreko egoera-izaerak batuko ditu olerkariak. Ez arean bere, arek aiñako ezaguerarik eta minberatasunik beste edozeiñek ez daualako, ez. Bai ostera, poeta deritxanak gauzak argiago ta zoragarriago esateko, berezko dohaia daukalako baiño.

Filosofuak zehatz esan daroa esatekoa, baiña otz samar. Olerkariak, barriz, aitatu, burutaratu baiña bero-giroz, sentipenez, garretan bihotza, joranez arimea. Norbaitek esana da, olerkariak iñork itandu bako zeren erantzuna emoten deuskula. Eta olantxe ez ete da? Kantau gura dogunean, zer kantauko dogu? Barrua zabaldu ala miñak arinduteko, zer abestuko dogu? Poeta batek emon deuskun eskatubako erantzuna: poema, kanta, abestia. Zer kantauko leukee gazteek, umeek, erriek, olerkaririk ez baldin balitz, eta izan ez baldin balitz?

Makiñeri ta kimika-mundu barri onetan Olertia behin be-

tiko galduko ez ete dan, itandu izan dabe. Baita zera be! Poesia, mundua mundu deiño izango da; bizitzea ta eriotzea direno.

Poesia, maitetasuna dan ezkeru, ta beste orrenbeste erlegiñoia, jakitunek, irutarik bira doan bardinpena emon deuskue, zera,

erlegiñoia = maitetasuna = poesia.

Eta esanak esan, askorentzat erlegiñoia bera be, poesia besterik ez da. Ta olertia, sortzea baldin bada, gure Jaunak orixe egin daroa guregan, sortu ta sortu eten bage. Orrelan, eguneroko poesia, bizia berbera ta misterio betea, antz-antzeko ditugu. Ta izan bere, zer dogu gure bizitzea, gure izate osoa, eskutapen utsa besterik? Ulertueziña dogun amaibako poesia baiño? Beti misterio ta dana misterio.

Olertia bestalde, ez da kanpoko musika soilla. Barrutikoa da. Arimearen dinamika ta eragiña, izpirituaren dardare ta indarra, ibillia, kemena, goratasuna ta goragurea. Ez da poetarik aundiena lan luzeak egiten dituana.

Poeta bat ez da frutua emoten dauan arbolea lakoia; ezta beti kantu bardiña jotzen dauan txoriaren antzekoa bere. Mundukoa izan behar dau, bere aldikoa, bere lurrekoa ta arokoa, inguruan jazoten danaren barri jakin behar dauana. Ta bere sentipena ez gorde ta ez saldu, agertu egin behar dauana, lagun urkoentzat argi ta itxaropen-emoille izan dedin.

Erantzupena dau, ta ez urria poeta batek, Jaunaren aurrean eta gizartearen aurrean. Eta ain zuzen orretxegaitik, bere lana zintzoa ta arteza izan bedi, ez zurikerizkoa, ez guzurrezkoa.

Lekukotasuna emotea dagokio, testigantza ziurra, ta orretan datza bere mezua, agerpena.

OLERKARIAREN GAIK

Ona ta txarra, motza ta ederra, alai ta mingarria agertzea, zuzena azaldu ta okerra salatzea da aren zeregiña.

Olerkariak esan daiana, ostera, ez dau barriketa utsean esango. Iru-lau bertsoan egoki azaldu leiana, ez dau zertan berrogei bertsoan zabaldu.

Olertia iñoiz, minorien janari-edana zan, burulana, adimen-emoi utsa. Irudi zoroak, esaera egosgogorak, sarri askotan bizitza-usaiñik bakoak, eguneroko gertaeraz urrun, neurri estuetan adimen-joko zorrotzak esatea. Baiña neoklasiku otz zireanen aurka, zorionen batean, alako indar ta oldarrez agertu zirean erromantiku azkatasun ederraren zale aek, jo ta bota zituen arako bide estuegiak. Oraingoan, eta ori ondo, olertituntza izkera argiaz, esan-modu errezez egin daroe, gurariak azaleratu ta alako sentimentu, larrimiña ta urduritasuna sortu-erazoaz. Eta guzti ori —ori guztia idatzi daroe norbaitzuek, demostrativu dalakoari dagokion tokia kenduaz— eta guzti ori, diñogu, eder-ikutuaz txukundua. Itzak premiñazko ditu, ez ostera metaforak, irudi ugariak, mehe, laiñotusak. Neurtitzak bere, ez ditu beti noraezeko. Neurri askatu, bertso zuri eta jaragiñak darabillez eskuarki, eta iñoiz, prosan bertan bere, poesia jori ta aberatsa idoro giñei.

Lehenago bere erdiagertu arren, barriren barri erakutsi izan deuskue, arako parnasista ta simbolisten ondoren, Gizarte-olertia deritxan mueta ori, progresista maillako olertia. Eta ganera, larrimiñez betea dauan joera neketsua, angor, burruka ta bizieziña edo. Behar bada, etorkizunaz daukan geroazko ardua larregia, ezerez uts bihurtzeko bildurra, siñismenaren premiña zulagarria, ala siñismenik barik izan gurea, baiña egoneziñaren aundiz.

Oraingo poesiak geienbat, ez dau odeietan galdurik ibilli gura. Orraitio, gizon-usain eta emakume-arnasea, aragi-ikutua, azal-azur eta odol daitekean poesigaia, bizi-dardarez betea, eguneroko neke, izerdi, lillura ta ametsaren lorratza daukana.

Beti iraungo dau poesiak.

Olerkariak ez dira galduko, ez amaituko.

Oraiñarte lez, entzun eta artuko ditue misterio-dei isil, mehe, sorgiñak, eta txukun dotore eskeiñiko deutsez erritarrei, munduari.

Ez da gaur poeta minorizalerik. Maiorizale bihurtu dira, eta zorionetan dabil gizadia ta mundua.

Jakin daigun behin ta betiko, olerkaria ez dabillela geienbat, bere izatea bakarraren alde. Munduari eskeintzen deutzaz bere intziri, kezka ta gurariak. Bakotxa bere erriari ta berbe-teari emoten deutzaz ederlan bezela, eta betiko emon bere. Olerkaria bera ilgo da; il egingo da gizon dalako, eta izan leiteke aren izena illunetan lotzea, bere.

Baiña poeta baten lana, ona baldin bada, zintzoa baldin bada, or geratuko da mendez-mende. Ta erri bakotzeko literaturan, urrengorik urrengo, gizaldiz gizaldi, balaunaldi barriak erakutsiko ditue bertso ta kanta zaharrak, arro-arro erakutsi bere, erri-ondasun estimagarri bailirean.

Zer da poesi errikoia, olerti zaharra, ain maitagarri etsia emen eta edonun? Kanta eder, alai, zoragarri, nekatsu ta un-kigarri guzti orreek, erriak gorde ditu; baiña ez ditu, ez zituan erriak asmatu ta sortu; poeten lanak dira, olerkari zaharrak asmatu bertsuak eta gero, urteak urte, errikoi bihurtu direanak.

Olerkariak bere bertsuen bitartez, gizona arako Paradisu galdurantza eroan gura leuke barriro. Munduko ta bizitzako edozer da olertikuntzarako gai.

Orraitio, sarri askotan olerkariak ez daki egite-orduan asmoa ala berbak, aria ala irudiak, neurria ala zabaltasuna, itzak ala ritmua bera izango dituen lehenen ta behiñen, arako arima-irakiñaldia jatorkonean.

Poeta onak, samurbera dalako, arako bakartade-jardun eziñesan orretan nekea izan daroa, samiña izaten dau, miñar-tzen dau.

Amak umea egitean lez, olerkariak be, sorketan umegintza-miñak ditu zelanbait beragan. Eta gero, ama barria pozez geratzen danean, poeta minberatsua oster, geienik ez da nasai eta atsegin osoz lotzen; eta zergaitik? Begira: ames-egin ebana, senti-izandakoa, nai baizen argi, gura eban aiña samur, fin eta eder jaio ez dalako.

Baiña esanak esan, olerkaria sortzenekeak artzeko, barriro be, gertu izango da.

Orretxegaitik, poeta batek bere lanean diarduanean dauka sentimentu izugarria ta minberatasuna. Orduantxe bizi da irakiten, eziñegonez, artega ta geraka. Eta idatzi ondoren, ostera, letrak illak dira beretzat, papera otza, poema amaitubarria erdi-illotz, baldin bere ingurukoek artu, ulertu, erabilli ta besar-katzen ez badeutsae.

Olerkariak, erri-jendearentzat lan egiten daualako, ez beretzat soillik, barruko kezka ta indarra gordin eta gori agertu eta emon egiten ditu. Umeak lez, jakintsuak lez, gauzekin arri-tuteko ahalmena daualako, eta umeak lez, egia esaten dakialako.

Ez dau etsiko poeta batek. Ez dau bere lana eten eta bertan behera isilduko. Ez da iñoiz zahar; beti da gazte. Ta miñaroa ta illunaldia, adore ta kemen barriez garaituko ditu, berbere aberrian iraun ala erbeste garratzean, errimiñez baterik, estu ta premiña gorrian bizi.

Bere erreminta bakarra, izkuntzea dau. Eta beraz, irudi-gilleak bere gaia, ala ontzigilleak bere buztinea eskuartean darabilen antzera, olerkariak, arean bere, dagokion izkera ta berbetea sakon eta artez jakiteko alabeharra dau. Unamunok berak esana ei da: "Olerkaria zenbat eta bere errikoago ta aldikoago izan, edonungoago ta edonoizkoago dateke. Ta ezin poeta aundia izan, darabilen izkuntza ori, umetatik jakin ez baldin badau".

* * *

EUSEBIO MARIEN NEURTITZAK

Euskeraz olertigintzan lagun eskas susmetan ebalako, tamalez egon ohi zan Eusebio Mari; eta berak beretara, gogotsu ekin eutsan. Epika-sailleko narrativa ta jolasgarri direan neurtitzak ditu ugarien.

Batzuetan olerkia asi ta amaitu, barruko ibillera jasoaz egin daroa. Beste batzuetan, asmo ta indarra makaltzenago nabari giñeioz. Ez dirudi bere buruaz kritika estuegirik izan ebanik, eta bai egindakoa, egoan egoanean lagaten ebal.

“Parnasorako bidea” deritxa semeak aitaren lanez argitara eban liburuari. Dakigunez, Txorierriko izkerea da or nagusi; itsasaldeko zerbait noizean behin, eta semeak, abade aundi gu-reak, eta ez dogu onetan zalantzarik, an or emen, egiñiko gar-bimiñezko ikututxuak. Izkera-ikaste lan bitxi bakan ori euskal-tzain laguntzaille batek asirik dau, eta bego aren esku azkarren-tan, ain zuzen, txorierritarra da-ta.

Kritiku azkar batek fabulagillea deritxa Eusebio Mari gureari. Beste batek, koplagille. Urrengoak, olerkari errikoitzat jo dau. Esan dogunez, Aita Uriarte gazterik ezagutu eta arrez-kero, ta batez bere biok an Bermeon egon zirean urteetan, adiskide aundi zireanez, fraille orren eritxiz bere, aldi aretako poeta euskaldunetan onentzakotzat jo eban. Eta izan be, Biz-kaian bere sasoiari, alakoxea dirudi, guztizkoa.

Jazoera ta kontaketa saillekoak ditugu aren lanik ugari. Beraz, alkarbidezko ta komunikaziño-olertia izan zan aren jar-dun bedegarrena. Gizarte-ikutuko pasarteak ditu noiztik noi-zera. Labur esan, Eusebio Mariren poeta-joerea ta griñea, liri-karako baiño zirikarako izan zan leratsuagoa. Neoklasiku kutsua ekarren barruan, eta beraz, neurri ta taiua arduraz zaintzen zituan geienbat. Izkera argi ta ulerterreza beti, iñoizka irudi politak bere, erraldatzen ditu. Orduko bertso gilleen antzera, batzuetan itzen ordena jatorra aldatu ta esanaldia bihurritu egin ohi dau.

Jo daigun aren liburura.

Elizako kantuak bere ba ditu; “Dies irae” euskeraz jarria, zabalkiro osterara, eta ain zuzen, Luis Luziano Bonaparte prin-tze frantsesarentzat berariz egiña. “Ave Maris Stella” be, eus-keraz jarria. Pekatari bat, Amar aginduak, Andra Mariari maiatzean eta bere Sorreran, eta Gabon kantak. Norbaiten susmoz, kanta azken oneen doiñua, Juan Blas Altunak ezarria ete dan; ezin osterara, gaur beintzat, zalantza au zuritu.

Lirika arloan, bi edo iru, lan txukunak ditu, bihotzondo samurraren ta minberatsuaren agergarri.

Maitemiñezkoen artean, "Elisa" izenekoa. Entzun ahapaldi batzuek.

"Eztakit zer dan, neure maitea,
neure aspaldiko bizia;
koipea sutan urtuten danez
urtu *iat* gorputz guztia.
Gorputz zuzena, gabi-ardatza lez
dauko, ta bere garria
eraztun batek artuko leuke,
orratz batek lez aria.

Bere ule ederra, seda biguna
ta baltza, erroia lakoa;
ta bekokia zuri ta leuna,
izurrunerik bakoa.

Ugarte baten zeuk nai badozu
atsegin utsen tokia,
zeru-zati bat ekarriko dot
eta biontzat gloria.

Ezin neinte ni zu barik bizi
eta au da egia ziurra;
zeu zara, Elisa, neure arimea
eta zu barik ni ... lurra.

Azkenean dirautsa:

Batu gaitezen beti betiko,
Elisa neure kutuna,
neure atsekabak amaituteko
lastertu daigun eguna.

Sail onetan beste lan bat, gutzizkoa, eder-kutsuz ornidua,
"Maitetasun aundia" deritxana. Ona emen bertso bi:

Biotz bakar bat daukat
ta mila banituz,
milak, neure maitea,
emongo neuskezuz;
eutsi milak langoa
bat, maite neurea,
eta neurean ordez
ekazu zeurea.

Zeu barik ezteust ezek
gogoa betetan,
orduak gogamenak
eztagoz ezetan;
bakar bakarrik nago
zeu barik munduan,
Afrikako ondarretan
letoa moduan.

Azken-bertsoan, zoragarrero dirausku benetako maitetasunaren indarra:

Ilten banaiz, maitea,
bizi zareala,
uste dot Jaungoikoak
itxiko deustala
zeure bornuan beti
munduan ibiltzen,
bada ezta inoiz gogoa
maiteantzat ilten.

Ba dau beste lan bat, ameskoia, poesitsua, ta gizarte-ikutua daukana. "Gaba" dau izena olerki sentikor onek. Ona atal batzuk:

Betor illuna laster
Ama loarena,
zeruko baltasamua
pena guztiena;
datorrela beragaz
gure artera loa,
zerututen mundu bat
erruki bakoa.

Ohar zelako itza darabilen, "zerutu" = mundua zerutu, zeru bihurtu.

Munduan beti dago
gizona amesetan,
gabaz zorakerian
ta egunez benetan.

Orra or gorago adierazo dogun Poesiaren guna, amesetan egunez, amesetan gabaz, beti amesetan.

Betor mundura loa
eta amets zoroak:
bizitza nekatuen
bitarte gozoak.

Betor gaba, ta orduan
pobre ta eukitsuak
loan izango dira
bardinak bitzuak.

Eta auki lei pobreak
loa gozogo,
izanarren bere oia
askoz gogorrago...

Eta Lirika utsezko saila utzi, ta goiazan aren sail zabalenera: Zirikara, zirika betera. Iraizean aitaturko ditugu lanik ugari eta azkenerantz, obeagoak astirotxuago aztertuko.

Gizartekeria ta gizontasuna. Gizon bik izketan diardue, bata okerra da ta lagunik bakoa, eta beste barriz, itsua.

Astoak arrantza. Alako batean diño: “Gizon askotxuk / isilik dirudie / kadera bikoak / berbaz asten badira / lau kaderakoak”.

Enbasuko neskatillen kantak. Ondo ezaguna zan gure kaian kanta au, eta erri osoan bere, sarri bai sarri kantau izan genduan gure gaztezarroan bere: “Aro ona dago, kairantz goiazan / kanpuan dabil iparra / gaurkoa da bai itsasaldia / eztago taiua txarra. / Otzaratxu bat / Otzaratxu bi / arraiña dator / portura beti...”.

Baserritarren erromeria. Zirikaria benetan. Ataltxu bat edo beste: “Paskoetatik negura artean / gazteak dagoz zozorrik / udaegunetan inok eztauko / santu izateko gogorik. / Udabarriak etorrerea / zarrentzat dauko larria / irunsi ezinik euren alaben / iantzi barrien neurria...”.

Edarian otsoa. Eztena ezin agiriago darabil. “Gauza guztiak egin ebazan / Jaunak ederrak eta aundiak / eztira baiña berak egiñak / munduko gizon ordiak”.

Baserritarren jai-domeketako batzarrak. Ariña ta akuluduna dau. Illuntzean, lau baserritar agertzen deuskuz tabernan, musean eta atertu barik edanean. Azkenean... “kontuak ordainduta / guztiak berbetan / erdi oker erdi zuzen / doaz ilunetan”.

Ezkonduteko, negua.

Gabon afari bat.

Gastelugatxera promesa.

Loba besoetako.

Ezkontzak baserrian.

Gizon bakartsua.

Zelo batzuk: ez dira gora aundiko lanak, baiña ba dau bako-
txak bere zer berezia.

Arrantzaleen kantea. Alako ikutu atsegiña dauka lan onek.

Santo Domingo ta Espaiña. Ez da gar andikoa, baiña fante-
siazkoa bai. Ikus daigun pasarte onetan: "Lutxanako zu-
bitik / Deusto bitartean / batzar bat ikusi dot / Nereiden
artean. / Ibaizabalgo ninfa / euskaldun maiteak / eta le-
nago legez / gaur adiskideak".

Eta gerotxuago diño:

"Gaulo saioi labanak / il dabe Amerika".

Eta ingeles en kontra gogor diardu, espaiñolen aldeko itzak
geitzen ditu, jakiña.

Pio IX ta Napoleon III. Lan onetan, frantsesen aurka darabil
bere sua. Baiña fedearen garaipenaz uste sendoa dau oler-
kariak, azkenik.

Castroko abantariei eta Castroko arrantzari. Poematxu biotan
zirikadea guraiña dauka, kai aretako itsastarrentzat, or-
duko estropadak zireala-ta. Aen aurrez-aur, Bizkaiko itsas-
gizonak jarten ditu:

"Emen dagoz Bermeo / mutil abilakaz / eta Ondarroa an-
dia / arrantzaleakaz. / Emen da Lekeitio / leorrez ta itsa-
soz / bardinik eztaukana / bere alboan inos".

Behar bada, arrokeriz beteriko esana da, baiña gure oler-
kariari bere, atsegin jakana, orixe bai.

Ezkonduteko asmoa ta gogoia, Anton Julian, Mundakako ema-
kumeak eta Mediku bi Santu guztien gabea, laurok jola-
serako bizarrez egiñak ditu, geienbat.

Sur bateri. Gaztelaniazko "Erase un hombre" edo olako zer-
baiten asmotua da, baiña bere erara darabil lan arin au,
eta gatzaz eta taiuaz, aitatugarri da.

Gudua, gosea ta izurria. Andikiakaitik dira beti gerrateak,
diño. Baita alperrakaitik bere. Luze samarra da, 44 aha-
paldi ditu.

Munduko zerua. Ba ete dakizue zein dan? Ezkontza ona, ta beraz, emazte ona artzea.

Zugazti barriko ekarriak. Madarikatu daroa gizonen odol-egarria. Gosea ugari baiña maitetasuna, urri. Filantropo izeneko pobregilleeri, lepo betena emoten deutse. Beste batzuen kontra be, ezta isilduko. “Zeinbat botikariok / diruen pozera / daroe eriotzea / nesken zabelera”. / Orduan bere, antza, ba ziran gaurko “Anti” orreen ideko zerak.

Idiak eta burdia. Zuzenzale agertzen jaku egillea: “Jupiter jauna zan urte askotan / mundu guztian alkate / eta gaur bere bera lakoak / topetan errez litzate...”.

Eta ganeratzen dau: “Izanagaitik iaun nagosia / ezeukan begia zurra / eta egitzat artuten eban / begiratuta, guzurra”.

Aldia. Ona emen buru-lana, irakasle antzera egiña. Urrundik bada be, geroagoko “Lizardi”-ren “behera-beharra” kerrua susmau dogu.

Gizon zorigaiztokoa. Lorratza ta grafismu zorrotza daukaz lan onetan zoritxarreko gizona argi ta garbi agertu-guraz. “Edan neban titia / bular bakarreti / eta ez bertati bere / nai nebana beti. / Urte erdi igarota / eneban lez iaten / ondo sartuko nintzan / orraztoki baten”.

Geroago eskolako lorrak azalduko ditu, maisu gaizto borrrerua eta abar. Urrengo, auska ta burrukak, arrika jardute eta ukabilkak. Geroago, dantzari egin zan, baiña iztarra atara eban. Jokorako griñaz asi zan eta, orra, soiñekoak eurak bere, guztiak jokoan galdu zituan. Neska bi maite izan, eta biok ez jakoz ba, iñogaz ezkondu? Azkenean, fraille sartu zan; baiña gobernuak komentu sarratu eta... or konpon, eriotzarako gertu dakusgu gizontxua. Itxaropenez ta fede biziz, ostera.

Emakumeen sendotasuna. Zirikaria, egundo bada! Senarra, noiz ilgo dago, ohean luze. Ta emaztea jagita eta bizkor, baiña gaisoaren irudira, alameniaika ta erostaz, eriotza-eske

Eta onetan, Eriotzea berbera agertzen jako —Balbea gure elelderreko zeretan—, eta ba dirautsa emakume azal-min-duari: “Nor kenduko mundutik?”. Eta gure andra sendoak, izu-lauorri egoanak, erantzuna: “Baldin nai ezpadozu / ioan lagun barik / neure senar maitea / dago or il gurarik”. Baiña, asierako ahapaldian Eusebio Marik sekulako argibidea damosku: “Salomon erregea / gizon iakintsua / andrak gaiti aurkitu zan / galdurik burua; / gazteak eta ederrak / ebazan laztanak / zuri, baltz eta gorri / ta asko baltzeranak. / Eztau emakumeak / Salomonek diño / gutiz maite gizonik / izan oraindiño...”.

Gazteen batzarrak. Alaia da, irritsua; moralista diardu, eta alan be, entzun: “Neska-mutilak ibiltzen dira / gaubean isil-ostuka / eskuetatik alkar artuta / amodioan burruka. / Eztot na, ba dot nai / neskeak dino bai / noizean beinean mosuka. / Gauela baten dagozanean / oilarrak kantau ezkerro / udabarrian txoriak legez / iente gaztea da bero / Ezta alan, bada alan, / gaztea gaubelan / atsuak iges ta gero...”.

Ardi saltokaria. Zorionez, ez dago orain ardirik; lan au, ostera, barreikarria da, ariña, pozgarria. Atsoak eta ardiak darabilen burruka eten bakoa azaltzen dau. Iturriagaren “Atsoa ta arkakusoa”z erkatu leiteke. Azalpen labur eta argia: “Gastaiña kolorea / musturra zorrotza / ankak luzeak eta / arpegia motsa...”

Mogel eta Txaraka. Ikaragarritzko satiraz josia dau lan au. Eskribaurik ezin eban ikusi. Markiñetxebarriko senar-emazte bik alaba ederra ezkondu eben erriko zaldunagaz. Gizon au, orraitino, gatx zakar batek jo eta ohera bota eban. Eta Mogel abadea ta Txaraka eskribaua etor eitezala eskatu eban. Eldu dira gizonok, eta gaisoaren inguru dagoz, zer ikusiko ta zer entzungo. Gaisoak, bestela baitakoan, Jaungoikoaz berbetan diardu, albokoei jaramon egiteke. Entzun deiogun gaisoari:

“Ni, gorako zarra naiz / berako gaztea / ta etxat gogora-

tuten / erdiko nastea. / On bat bear badozu / santua la-
koa / ... or dago Mogel jauna / bana banakoa. / Txar
bat gura badozu / eroan bultzaka / ez inon billa ibili / or
dago Txaraka. / Baldin izango bada / bien bitartean / or
daukazuz ugari / atso-agura artean. / Oindino ezta galdu /
nire adorea / iru urtean birritan / emon dot semea.

“Mogel eta Txaraka / egozan entzuten / zer egoan gais-
duna / Jaunari eskatuten / ta Mogelek edurra / baino
zuriago / esan eban; gizon au / zoratuta dago. / Iges eben
etxerik / iantzita kapelak / bildurragaz nastauta / buru
ta sabelak...”.

“Entzun eutsan lez baina / Iaunak eskaria / sendotu eta
gorde eban / luzaro bizia: / Au zan gizon arteza / biurrik
bakoa / Bizkaitar euskalduna / ta Markinakoa”.

Andra ordia. Gogor joten dau lan onetan emakumeen seta
onen kontra. Oraingoan ez da zirikea, agirakea baiño:
“Andrea da barautan / berba gurea / baina ordirik ba-
dago / itusurea; / barre gangarrak / daukez zantarrak /
ta noizik beinean / zoro-negarrak. / Eskutetan dau gero /
gelan pitxarra / eta bere barruan / matsen negarra; / sarri
izaten da / oean egarri / ta eukiten dau mosuan / pitxarra
sarri.

“Puzkor begiak eta / bekoki illuna / dirudi bost gizonen /
andra alarguna; / daukaz begiak / itzal argiak / eta laster
ilteko / marka guztiak...”.

Alperrak. Zolia ta garratza da; txibitea ta idizilla darabiltz es-
kuetan, eta zigortzat erabilli bere. Soldautza ta gerrateen
kontra diardu. Lan au bere, gizartegai-ikutuz egiña dau.
Alde batetik alperrak, eta bestetik, lan egin gura ta lanik
bakoak agertzen deuskuz. Gizarteko zuzenzale dogu, beraz,
orain eun eta akats urte. Ikus: “ondo ian, bardin edan /
eta gauza ederrak / bearrik egin barik dituez alperrak. /
Zintzoak iaten dabe / bedar ta lastoa / zintzoa beti izan
da / alperren astoa.

“Baiña libre edo lotuta / dagoan lekuan / zintzoa baiño obeto / bizi da munduan; / gaur alperra izateko / eztago lotsarik / gizaldiak eztauko / bizimodu obarik.

“Asko dagoz alperrak / eztirudiela / gizon onen izena / osturik daukela / asko dagoz geldirik / bearrik bakoak / onek eztira alperrak / ezpada zintzoak.

“Baita ba dagoz asko / alper eskekoak / batzen iatorkuzanak / ezkur etxeakoak / onek basaurdak legez / erri guztietan / arto-gariak daukez / inon soloetan”.

Ezkontza bat, beste asko legez. Ziritsua da, neska ezkongureen aurka. Senarra bai senarra, aen guraria. Eta orra ba, senarra lortu; ostera, alper galanta egokitu.

Ioane Bekoerrotako ta Kontze Ganburuko. Auxe da Eusebio Mariren jazokun-ipuiñik luzeena; 80 ahapaldi ditu zortziko txikietan, beti ohi dauan egituraz zertua, puntu biko eta gero beste puntu biko. Mutillaren taiua erakusteko:

“Adonis lango ederra
ta guztiz isila,
alboerri guztian
lenengo mutila.”

Eta bestalde, neskatillearen taiua:

“Kontze Ganburutarra
Markaidako argia,
ogei urte lenago
mundura etorria.
Eun orriko larrosa
usain gozokoa,
Kupidon arnaseak,
ukutu bakoa.”

Ameriketako bere osaba zaharrak Kontze eder au emazteztat gura eban. Neskatileak ezetz eta ezetz. Aita-osabak ostera, bihurri samar, preso artu eben Kontze, etxea kartzela ebala. Gau batean orraitio, Bekoerrotak mutil maiteminduak, baserriko alaba ederra leioan zehar ostu, ta Bilbora daroa; Bizkaiko Jaunordearen emaztearengana eroan bere. Eta agurak estu artu zituan Jaunordeak, eta azkenez,

buru makur, baietzaz lotu zirean gazteak ezkontzeko. Osaba zaharra, zeluz eta bekathez ezin bizi, ta il egin zan. Eta orduan; "Txilin soinua izan zan/ta gori gorria/aberatsena legez/ luze ta zolia./Sarri errezetan eusten/il zan aideari/edo egia esateko / bere diruari. / Eta etzan igaroten / esan barik, gaba: / euki izan baleuz Kontzek / bederatzi osaba!".

Zalduna ta damea. Au be, kontu luzea da. Bost atal ditu eta 70 ahapaldi, neurri bardingadunak. Erriko neska eder, asierako lagunak: "Bata zan Maria ta / bestea Pepita / izar bi zerukoak / mundura iatsita".

Geitu daigun, erri aretara beste "Adonis" bat eldu zala, botikario barria bera, izenez don Juan de Bragas. Eta Mariaren ondorik asi zan gazte bero au. Gerotxuago, or dakusguz biok polito konponduta:

"Bata besteari besoa artuta
kapa barruan biak ostuta
ebilzan Bragas ta Maria,
ianda aparia.

Eldu zanean udagoiena
beti izentauta biak eukena
ezkonduteko: ioan zan Bragas
isilik igaz."

Eta illuntze batez, Mari gaisoa larri, Pepitari esaten ausartu zan:

"Gonea eukala labur aurret
baiña ez atzeta."

Alan bere, gertatuak gertatu, Mari ta Juan alkarregaz ezkondu zirean, abade jaunaren ardurea ta isia bitarteko ziralarik.

Pedro Bentura ta Ana Manuela. Olerki onetan, ganezka egin eutsan irudimenak gure gizonari, ta lar amesezko agertu gura izan deusku, ainbesteko ez dana. Asiera polita dauka, ta egilleak, nunbaite be, barruan izandako egoerea azaltzen dau: "Goletatxu bat etorri da gaur / gatzez ta orioz be-

terik / eta etxetan ezta gelditu / iñor zarrrik ez gazterik. / Aita etorri iat, ama bere bai / ta zu ez, neure laztana / beti betiko munduan lagun / izango zaitudazana”.

Eta amaiera aldean, dirausku: Baina euskaldunak bein berbatuak / biotza eztogu gurea / eta itxaroten iagot Bermeon / Ana Manuela neurea”.

Antxinarik ona. Lehengo aldietara joan jaku oraingo onetan olerkari gurea. Aspaldiko arako Padurako burrukeaz diardu.

“Ordukoak zirean / zintzo Bizkaitarrak / inok goitu ez ebazan / munduan bakarrak. / Bizkaian iaio ta azi / euskaldunak danak / euren legeakaitik / ilgo zireanak”.

Arrezkero izan zirean aldakuntzei buruz agiraka diño: “Parisen ernetan da / moda bat astean / sustraiak dituzana / laster gure artean. / A la frantsesa berba / a la frantsesa ian / a la frantsesa iantzi / a la frantsesa edan. / Euskalduna gorputza / frantsesa arimea / au da len esa dodan / gure mazkarea”.

Urrengo, ingelesaren aurka egiten dau: “Gutziz azpiratuta / ingelesak gaukaz / geuri egiten deuskuzan, zitalkeriakaz...”.

“Ezta gurasoak lez / oraingo gizona / munduak bira egin dau / antxinarik ona”.

Deungak. Lan onetan be, barriren barri ekingo deutsa ingelesaren kontra. Aren eretxiz ingelesak lapur aundi batzuk dira. Frantsesen aurka bere esango ditu berba gogorrek, eta, ostera, Aita Santuaren alde.

Medikua ta gaisoa. Ez zituan gozaro artzen medikuak bere, aita zer orretakoa izan eban arren. Alaia, zorrotza, azken polita emoten deutsa.

“Dama gazte ta eder bat / egoan gaisorik / inok ezekiala / noizik eta norik. / Dameak ondo ekian / bere gatxen barri / baiña Mediku jaunak / ez eban / igarri... Esan eutsan goiz baten / lotsaz gorriturik / etzala beretzako / bear Medikurik, / ez Botikariorik / bazan agurea: / bere

gaisoa zala / ezkondu gurea. / Gurasoen aurrean / surrari eraginez / berrogei berba esanda / Griegu ta Latinez / emon eban Galenok / bere epai aundia: / Gaisoak ian eiala / ezteguko ogia. / Gurasoak entzun ta / egin eben: Ju Ju / gaisorik dagoala / ezin lei ezkondu. / Dameak esan eban / "Nai Ju Ju nai Ja Ja / Medikuen esana / bete egin bear da".

Urtea. Irakaslearen lana da, neoklasiku taiura, urtearen biraldia agertzea. Urtea... "ikusit dabenak sarri / belauna eukiten dau larri / ikuste labur / lepoa makur / gelditu barik eskua / eta tximirrik mosua".

Aria, Zezena, Polux eta Castor, Bikotzak, Karamarru pikuduna, Txakurra, Leoia, Birgiñea, Balantzea, Eskorpio, Auntza, Arrain bi...

Apolo ta Musak. Lan onetan bere, irakasle-ereduz ekin deutsa: Apoloren bederatzi arrebak, Musak, irunako ahapaldi egokietan erakusten ditu. Kalioppe, poetena; Clio, historiarena; Erato, lirikoena; flautadun Euterpe, musikariena; Melpomene, tragediarena; Polimia, berbaldien neurrigillea; Talia, komedigilleak ortxe egia guztiak; Terpsicore, dantzariena musa; eta Urania, eguraldi igarle. Neoklasiku bete-beteko jarduna. Baiña, eta mitologia eta mitoak gaur orraitio? Orra, ba; zaharrak urrunduerazo-ala, gizonak, gizonaren seme dalako, barri-barriak sortu ohi ditu.

Bertsolari edo Koblakaria. Moralista ta irakasle agiri jaku. Asieran dauka arako gora-dei gartsua. Entzun:

"Erdu zerura, koblakaria / goiazan biok batera / au baiño ohea beste mundu bat / an goian bilatutera". Eta urrengo bertso oneek damoskue poeta azkarraren asmo nagusia: "Gizon andia da emen urrea / ta ezereza, kobrea / trumoi sikua jakituria / daukana bada pobrea. / Egia biloiz iantzi bakoak / iges dau gaur gizarteti. / Erdu; goiazan bertsolaria / bera ioan dan bideti. / An ezta egongo biotz sikurik / ez deunga okerrik nagusi / an ezingo da inor galtzeko / guzur lege bat erosi".

Buenos Airesen euskaldunak. Atsekabe ugari, ziur asko, euskaldun erbesteratuak. Izan be, erbesteko aberastasunak ez dira edonorentzat, aberrikoak bertakoak bere, ez direan añaen. Orregaitik olerkariak argiro esango deusku: “Etzaitte urrun ioan / amen magaleti...”. Eta amaz diarduala, entzun benetan, ahapaldi oso auxe:

“Ama langorik inor / eztago lagunik / geure neke andietan / aituten deuskunik; / edozein aiden orde / dagoz makina bat / baina mundu guztian / Ama, bakarrik bat”.

Andra baten adiskideak. Lan barragarri au, satira itzela da, gizon... zertuarena. Ahamena lortzeko, gustu artzeko, oso-osorik irakurri behar izango litzateke.

Bardintasuna. Joan dan mende azkenetara eldu orduko, bardintasunaren zerak eta esanak aintzat artu zituan olerkari gureak. Gizarte-giro neurtitzak ditugu, orain 120 urte idatzia, eta euskeraz idatzia ain zuzen. Gizonak, bardintasunaz amesak ames egin daroaz; Eusebio Mariak, orraitio, ez dau siniste aundirik batasunbide orretaz frutu jatorrik lortuteko. Baiña... ori gora behera, bertan goxo egiterik ez leuke gura: “Ezkaitez an gelditu / gure alegiñean / ta artu daiguzan lurak / danak bardinean; / baina urte bete barru / eztago dudarik / lagun asko egongo da / gizelan bat barik...”.

Goizaldeko loa. Astuna ta nagia ei da gabeko loa. Goizaldekoa, barriz, laburra baiña gozoa. Bihotzondo samur bigun, bertso gozabera ta baketsu. Zoritxarrekoa da, arean bere, goizaldeko loa egiteko aukerarik ez daukana, eta orregaitik ezin zorionik izan, ezin atsegiñik jadetsi. Eta dohakabe orreen kordea, luzea da. Ikus: goizaldeko purgadunak, zorrez beterik bizi direanak, arrantzale goiztarrak, pobre eta goseak, albako mezatara aho zabalik datozenak, agura siku itzarzaleak, goiztarrak, otseiñak eta menpekoak, barkartadean negarrez bizi direanak. Entzun bertso bi:

“Infernura lenengo / ioan zan gizona / etzan izan goize-

tan / beti login ona: / Abel ilteko azurra / ustelduta astoa / topau eban galduta / ...goizaldeko loa.

“Egin nai eztabenak / goizaldean lorik / eztauko zerurako / gaisoak gogorik / eztabelako ikasi / dala zerukoa / munduan egon arren / goizaldeko loa”.

Egiaren ispilua. Eun eta geiago urte dituen bertsuoi gaurkota-suna darioe. “Abadea da gaurko egunean / gizon guztien morroia / bere buruan darabilena / martiriaren koroia”. Ispilu aurrean ainbat lagun ezarten dau. Ikus daiguzan Eusebio Marik ezagutu zituan gizon bihurri muetak: Osagille zoroak, letradu belarri zuhur baiña diruaganaitsuak; alkateen auspo direan sekretarioak, maisu mundutarrak, arotz, iostun, narru-dendari ta zapatariak; tabernetan saltzen dituen katuak (tabernariak, katuak baiño bihurriagoak, noski); masoien ikasle direan itsasgizonak; etxagun andi gazte zoro, diru ta lurak lauzkitu ta lorrinzen dituenak.

Mundua billoizik. Ona emen gizarte-kutsu literaturako antziñeko lan bat. Or salatuko deuskuz olerkarik argi ta garbi; orra or, beraz, protesta-abesti sutsu ta zorrotzak: arpegibiko gizonak, burrukazaleak, odol-egarri direanak, gudu-zale ta alperrak... ederto astinduten ditu. Orraitio, ba ditu sail orretan lagun geiago be: alkar-azpiratzen atsegin dabenak, lapurrak eta mozkor ordiak, aguazillak; euneko berrogei zorko neurria ezarten daben gizon ziztrin zikotxak. Eta euskaldun direala esaten lotsor direanak. Eta orren aurrez-aur, domeka bako langille behartsu ta zehatuak jarten ditu. Munduko gizonak, ordukoak eta arrezkerokoak... “Onek lango gizonak / topetan dira errez / menperatuta daukenak / mundua negarrez”.

Eta azkenen buruan, esan daigun zera, Eusebio Marik bere satira jokoan, bertso labur-laburrak egin zituala, geienetan lau lerroko taiuz, epigramak, “ziri-bertsuak” deritxenak. Orrelakoetan agertzen deuskuz, esaterako, Txanton, gorra, garizua

mako sermoi guztiak entzuten zituana. Iru epigrama, eskribauen kontra. Medikuak be, aho-miñetan darabiltz, eta andrak eurak be, edertotxu astinduten ditu.

Onetariko bat esanaz amaituko dot. Entzun ba, arretaz:

“Andrak galduta dauke mundua,
eta gizonak, andren burua:
alan, galduta dagoz gizonak
mundu ta gonak”.

(Esan dot)

J. GOROSTIAGA JAUNAREN ERANTZUN HITZALDIA

Jaunak-andrak:

Atsegiña bai, Euskalerriko bazterretatik gatozanontzat Lekeitioko erriak —agintariak eta, Euskaltzaindiagaz biotz batez— atondu deuskun Jaialditxu au, ondo-etorri berezkoa erakutsiz eta aurrenekoen jarlekua eskeiniz.

Atsegiña be eta maitekorra Eusebio Maria Azkueri erriko semeari olerkariari eun urteko oroimenean gorespina egiteko Eusebio Erkiaga Jauna Euskaltzain barria errikide izenkide olerkaria bera be autatzea.

Errien aberastasuna semeak dira. Nai ikuspe ezin zabalagorik —itsasoa-Lekeitiok lez auki, nai menditar-tean erdi— illu-nean egon, erribatentzat Amarentzat lez idinarru aberatsena, yoriena bere umeak dira.

Lekeitio baño uri eder galantagorik gitxi gaurko Euskal-lerrian. Ez baño Lekeitio zerra bera be bada ezpadako lekutzat, seme odolargalekotzat artu. Norañokoa zanarri batek, bere ots gogorraz latiñen ganera diñosku: “Terra marique potens Le-

keitio". Itsasoz eta leorrez azkarra, errege-gerraten eta balea-arrantzuan. Orain berreun-irureun urte, Done Petri edo San Pedro jaietara, abadeen jantziakaz sorgin eta deabrukerizko dantza, kaxarranka ikustera edonungo turistak lekeitioratzen ziran: "Muchas personas (que) se hallan dicho día de San Pedro en la dcha villa, como son franceses, flamencos, ingleses y otras naciones".

Baña lur-barruko lanak eta itsas-ganeko bearrak aztu bari, Kultura -ekiñaldietan sartu yaku Lekeitio kementsu; lekeitiarren bitartez gure izkuntzan, ez Euskalerrian bakarrik, munduko jakitun-Akademietan be aintzat eta begi onaz antzen dabe.

Kaxarranka eta Folklore a baño izkuntza da erri bakotxaren ezaugarri argiena eta zorrotzena. Izkuntza dala gizartea egiten dauanak, euskera da Euskalerriri izen eta izana emon deutanak. Euskera da Euskalerritarrok darabilgun treena sarkorrena eta eraginkorrena mendirik mendi aldapotsa lez asaba zarren Aitorren ago-otsa semerik seme alduyakuna. Gaurko jaialditxu onek asko esan gura dau Lekeitioko entzuterako eta etorkizunerako, Jaialditxu au atsegiña eta maitekorra dala asieran esan dot, itxaropnekorra be badala esan bear da.

Goazen aurrera. Eusebio Maria Azkue zelako gizasemea eta zelako olerkaria zan Erkiaga jaunari entzun deutsozue ondo esanda ezin obeto esanda.

Azkue olerkarian gorpuzil-errian ezereztuta egon arren, aren otsa eta kantua ez da galdu. Parnasorako bidea deritxon liburutzuan bi iru lau bider eta millaka bider entzun geinkez kampaien durundia lur atsua aren bezela Azkueren miña eta poza, bakea eta maitea, barrea eta negarra darilla; aren barre-neko taup-biotzkadak eta zinkollak oraindiño gure artean daradara dabiltz. Au da poesiren olertiren miragarria! Zanaren irudia azalekoa betiko estaldu yakun; ez doguz geiago aren atzbegiak arpegikera ikusiko, bai baña aren euskal-arnasak sekula ta beti kili-kili eragingo dau gugan euskal-maitasunagaz.

Antxiñako gerrateak isildu ziran bale(a) bildugarriak urrundu ziran, baka kaxarranka zarra or dabil kinkili orain-

diño Lekeition, eta batez be euskera zarragoa gaurko euskal-zaletasundaz barriztu eta indarturik, zantzoa lez, gorago eta urrunago doa Lekeitiarren gogoetan eta ezpanetan.

Bego bakean bere atsedan-lekuan bere lo-sakonetik beingo batera itzartu eta guregana maitez jaialdi onetara erakarri dogun Eusebio Maria Azkue. Oroimenean gomotan gugaz dago. Ze ikutu samurraz, ze ikutu zeatzaz Erkiaga jaunak Azkueren poesiren edertasuna gure begi aurrean zabalik ipñi!

Eta, Erkiagaren esaeratik, bere euskaratik, aatrako dozue orain bera be zelakoa dan, gizona eta estiloa, bere tankera eta bere egikerea, legea eta bidea, gizonaren biotza eta bere poesiren liraintasuna. Ez gaitezen baña bere gorespina orain egiteketo-an neurritz gankeo zurikeriaz luzeegi ausartu. Ona, apala, osoa, Erkiaga adiskidea lotsaz gorrituko litzakegu.

Ezin baña isildu bere euskeraren alde lanak. Ona emen bikañenaak: "Domingo Agirre" literaturako sari bi 1958 (mille bederatzieun eta berrogeta amarzortzian) eta urrengo urtean. "Loramendi" teatroko saria 1959 (mille bederatzieun eta berrogeta amarbederatzian). AGORA, poesiko saria 1969 (mille bederatzieun eta irurogei bederatzian).

Eta ez aztu Lekeitioko maitasunez, lekeiti oko arrantzaleen maitasunez "Arranegi" nobelatxua, Zarautzen 1958-an (mille bederatzieun eta berrogeta amarzortzian).

Eta geiago. San Martin jaunak bialduta ona emen laburto: Eusebio Maria Azkueri buruz...

E. Erkiagak euskal-literatura lantzen izan ditu bere ekin-tzarik aipagarrienak, ele-berriak, ipuiak, antzerkiak eta olerkiak idatzi ditu euskaraz, eta zenbait biografia gai ere erabili ditu bere herriatrreri buruz (lekeitioarreri buruz). Literatura ekintza honen maila berak hartu dituen sariak adiarazten digute: "D. Agirre" ele-berri sariak 1958 eta 1960garren urteetan; "Loramendi" antzerki saria 1959an; eta "Agora" olerki saria 1969an. Lan sarituok, idazten noiztik hasi zen, zein aldizkaritan argitaratu dituen bere lanak, eta abar *Escritores euskéricos*-en argitaratu nuen fitxak arkitzen dira Geroko "Apén-

dice" delakoan aipatzen zen 1969ko "Agora" olerki saria *Aritz jeikian* izeneko poemegatik.

Lekeitioko arrantzale giroz landua du *Arranegi* (Zarautz, 1958) izeneko ele-berri gaia, bere herriaren maitasunez egina.

Baina herritarrei buruzko lanik aski badu. Eusebio Maria Azkue-ri buruz ere eta lehen aldiz jardutzen, 1960an Zornotzako Larrean egin zen Olerki-egunean eman zuen hitzaldiaren izena, honela zen: *Bizkaiko olerkari bat. Eusebio M.^a Dolores Azkue Barrundia*, gero "Oleriti" aldizkarian argitaratu zena ("Oletri", I-1961, 67/69 orr.).

Era berean egin zituen bere semeari buruzko saiakerak, Resurrección M.^a de Azkue, euskeragatik hainbeste lan egin zuena eta Euskaltzaindiaren sortzaile zen lekeitiarra. Hauek ditu gai hortaz: *R. M. Azkue aundiari omena Bilbao'n. Euskaltzaindiak eratu. "Egan"*, Vol. IX, enero-abril 1957, 62/66 orr. // *Resurrección Maria Azkue-z ene oroipenak, eta entzuna eta irakurriak. "Egan"*, Vol. XXIII, enero-diciembre 1964, 3/18 orr. // Hitzaldia Euskaltzaindiaren sorreraz, Azkue zena ohorez, Euskaltzaindiko urre-eztaiak zirelata (Bilbon Diputazioan, 1969ko uztailaren 10ean), eta "*Euskera*" aldizkarian argitaratua, XVI (1971), 64/71 orr.

Hoiez gainera, lekeitiar euskal idazle bati buruz: *Aita Kandido Basabe, S. J. Euska-idazlea, "Oleriti"* (II-IV, 1963), 111/131 orr. (Zornotzako Larrean 1962ko urriaren 28an irakurri zuen hitzaldia da).

Baita ere, Juan M. Altuna (1868), "*Gernikako arbola*" ta *Lekeitio*, "Egan", Vol. XXVI, enero-diciembre 1967, 3/10 orr.

Ze geiago gura dogu? Opa daiogun euskaltzainkideari bizi luze lankora euskeraren ederarako eta indarrerako.

Eta azkenez agoko ona luzatseko, Erkiagaren poesi-eredutzt, atal eztatxu bi onek ai berak nik baño obeto garanduko ba-leuzkigu!

Lenengoz, Ama Antiguakoari, Lekeitio, bere koronazi-
ñoan, Ereserkiaren berbak, 1960 (mille bederatzieun irurogei
urtean) :

Elerri zuri ganeko
emen deukazu ondoan
Zu zaitugu gure poza
bidea erakusteko
Lekeitiarrentzat edonoiz

— Andra zoragarria,
zeure erria,
ta errukia;
zeru goiko izarra,
Erregiña Zeu zara.

Eta kigarrenez, Lekeitio-abestia, diskoan egiña eta euskal
abestien 111 garren Jaialdian saritua (1966, mille bederatzieun
irurogetaseian).

ITSASONDOAN MENDIEN OIÑETAN DAGON ERRI
TXIKI ZORAGARRIA ENE SEASKA NEURE LEKETIO
ERRI GUZTIETAN MAITIENA...

Poesiren eztitasun eta samurtasun onetatik goan gaitzen
orain euskeraren garratzera.

Nik uste euskerantzat aldi txarrena orain bizi dogula.
Auxegaitik: gitxibatzuk izan euskaldunak euskalzaleak eta ez-
tabaidetan ibili bide argi eta zuzen topa eziñik. Darabilgun
burrukea ez da ez itz barrien edo itz zarren itz gabien edo itz
mordolloan errua.

Euskalerrriak berr bearrezkoa dau euskera bat. Euskera
bat? euskera baur? euskera osotua? euskera baño zer geiago?

Nik uste itzak nai barriak nai kampotarrak erabiltea ez
dala euskeraren gatx latzena.

Indar aundia da erri txiki batentzat Euskalerrientzat Euro-
pako eta ziblizazinoko izkuntzak darabizen itak guk bere eurr-
kin alkar eukitea, aundiagotzen gara.

Nik bere bai uste nai HACREZ NAI ZETAZ nai JOTAZ
ala bestelaz esatea eta izkribitza ez dala eragozpen lodiena eus-
kerea bizkortuteko.

Antxiñako euskaldunak —badakizue— celtatarren eta erro-
maarren ESEA ZETA biurtu eben: UCSAMA UCSAMIS UL-
TZAMA eta OZAMIZ egin eben; SEGAMA ZEGAMA eta abar.
SPIRITU, SUBSELLIU, SOLIDA-CONSOLIDA IZPIRITU, ZU-
ZELU, ZOLDA-KOZOLDA eta abar. Gu giñan lenengo anda-
luritarrak.

Gero Karolingio-aldian germanotarren HACHE eta orain-
diño Zuberon eta Erronkarin dauken AZENTOA (acento de
intensidad), artu eben. Jakin bearda lenago bere celtatarrekin
batera —menpeturik edo alkarturik— germanotarr errialde
batzuk zirala Euskalerrian eta ingauean.

Geogo moruen JOTA artu gendun (Kalifato-aldian eta
ondoren bere moruak, entzute andikoak ziran, nai askenez oin-
peratuak eta kamporatuak).

Ba dira oraindiño kampotarren agotik beste gauzatxuak
(esateko ELE eta ENE ELLE eta EÑE orde, nasalizazionea,
eta Erronkarin batez be diran konsonante batzuen pilloketak
esateko EZDRA ezdira, IKASARAZTRA ikasiazterra, AR-
TRUK arturik eta abar).

Au guzti au zegaitik, baña? Dotorekeriagaitik, arrotzeko-
keriagaitik, barrikokeriagaitik inobismo, vanidad eta ordeaz.

Iñoren burua besteren baño agertu gura, gorago aberatsa-
go jajintsuago arranoago.

Gure asabak guk lez (eta munduko guztiak lez) arrox-
koak ziran (batzuk beintzat Andikiak eta), orregaitik kampo-
ko, batez be agintarien barri modazko oiturak eta itzak artu
gura eben. Orain bere ¿euskaldun indianoak eta bestelakoak
ez gara irrikatzen dollarrekaz, bolibarrekaz eta OLRAI, GUT
BAI HALL etagaz? Zarragoak, baña erri bai esloak dira:
Kaisi agur eta adio.

Olan euskaldun zarrak eta gu ondorengoak JINJAU ZI-
ZIPOZO eta gara. Oraindiño geiago: HACHE ori ZETA ori
bear ez ziran itzetan sartu eben. Gure artean eztabez batzuk
FLUMON, AFELLIDUA, FAFERA TA FLUMA eta abar esa-
ten dotoregeriagaitik?

Esateko, Ama latiñetik datorkigu baña latiñez HACHE BARIK (atzgoaakada-asinación) esaten eben eta olan bere Frantzian eta Espaiñian esaten daba, baña euskaldunak (beste aldekoak batez be; ezdogu emen zegaitikoa azalduko) HARMA hache gaz egiten dogu.

IGITALIA “hoz” da AGIN-TALLA “hoz dentada” baña TALLA au Da DLLA DALLA DALLO guk gaz egiten dogu, olan bere batzuk erdelerrian GAYO GAYINA gallo gallina ordez.

AZKUEK bere IZTEGIAN (ikus ZAPO) diñosku batzuk gure artean SAPO eta ZAPO esaten dabela. Eta bere MORFOLGIAN bera be oker dabil SINETSI SIÑISTU ESEGAZ eta ez ZETAGAZ esan bear dala diñoanean. Detxeparek lengoak ZIÑETSI diño beti... eta au AZKUeri yoan yakon cf ZINEGOTSI eta.

Orain urte bi edo Itaunketa Encuesta bat asi zan euskaltzaiñen eritxiak artuaz euskerak eukazan korapilloak kentzeko eta izkuntz bizkor bat egiteko.

Ona emen euskaltzain batek erantzuna. Erderaz. Zegaitik erderaz? Euskaldun-erdeldunak eta erdeldun-euskaldunak erdiz eta ez euskaldunak osoz obeto ulertzeko, urrean.

Euskeraren batasunez itaunari auxe erantzun eban euskaltzain orrek:

“La única solución viable y efectiva, rápida y fácil sería la adopción ya desde ahora del habla de San Sebastián por parte de escritores, hablistas, profesores y euskaldunes más despiertos.

Ciudad céntrica, internacional, acogedora, ningún otro foso euskérico tan prestigioso para irradiar su influencia.

San Sebastián posee quizá como ninguna otra población mayor el hecho de que todas las clases sociales, populares y altas, practican con amor el idioma, fenómeno que a los mismos forasteros les resulta simpático.

San Sebastián, su dialecto, posee una literatura euskérica creciente en todos sus aspectos: centros culturales, escuelas, cátedras, conferencias, bersolaris, etc., por donde el idioma se propaga.

De mi parte creo que todos, cuando se trata de dar mayor amplitud a nuestras ideas y conversación, tendemos a emplear, a acomodarnos al dialecto donostiarra.

Así el habla de San Sebastián podría ser a mi juicio la KOINE vasca, el idioma común ya existente, ya vivo, que sólo necesita la atención en esta coyuntura histórica para que adquiriera la categoría de lengua literaria y general de la cultura y vida vascas. Cualquier otra formación de laboratorio no la creo adecuada y sí con grandes inconvenientes.

De todos modos esta habla donostiarra, según mis sugerencias, para que resaultara más ágil debería sufrir retoques, sobre todo una poda del sistema verbal acomodándolo a sistemas y estructuras correlativas modernas.

Ello no impide que a la vez se enriqueciera, se matizara, es variara con aportaciones útiles y fáciles de acomodación de dialectismos dignos de generalizarse.

Basten estas indicaciones por ahora. Creo que el problema de un instrumento euskérico apto es de fácil solución teórica y práctica.

Euskera bai, baña osoa ua eta... osatua bat batean presi.

EUSKALTZAINDIA tiene una gran tarea en estudiar y fomentar las soluciones más adecuadas; así también el prestigio de los sabios nacionales y extranjeros supone en esta época en que a ciencia impera un gran paso para ayudar a la revitalización y pervivencia del euskera.

Una lengua muere cuando pierde su necesidad y utilidad. Son en definitiva los vascos los que debemos decir la última palabra vasca.

Si el euskera ha resistido hasta la fecha a la incuria popular y postergación de los dirigentes nativos, a la gran presión de Roma y su tradición literaria, fue por un accidente en que intervino el Renacimiento carolingio al dar a las lenguas populares una ocasión de ser mejor utilizadas en la liturgia, predicación y catequética.

Sin entrar aquí en mayores explicaciones, resumamos: El impulso del Renacimiento carolingio supuso en la vida ge-

neral del Pueblo vasco un paso si no tan decisivo como el romano, sí más rico y progresista al cristalizar dentro del área los embriones de una Euskalerría ilustrada y de una Navarra imperial clánica.

En particular el idioma —el elemento más tangible de la etnia— cobra categoría (EUSKERA paralelo al Theotiska lingua, el alemán o DEUTSCH) y asistimos al punto de partida de una literatura popular (bersolarismo, canción) y de un cultivo gramatical intenso, insospechado, una refacción gramatical germánica, como puede verse si pensamos que p. e. BAT, BI, IRU, LAU y cien y cien más emprunts lexicales morfológicos y fonéticos se copiaron del antiguo alto alemán y otras lenguas germánicas.

Todo ello de factura monacal lograda entre nosotros algo más tarde que en el País vasco-gascón gracias a los monasterios como el de San Zacarías en Sarasa, a las puertas de Pamplona, y al de San Adrián de Argiñeta, en el corazón de Vizcaya, principalmente en la primera época, y más tarde en el período de la clunización en otros también, habiendo desaparecido ya los citados ante el empuje musulmán y que al no estar edificados como luego los grandes monasterios cluniacenses apenas dejaron rastro material (algunos sarcófagos en Eloorrio) y sólo los nombres de ZACARIAS Y ADRIANO, los Papas queridos de la dinastía carolingia. Romanización en su sentido reduplicativo, es decir, romanización y cristianización fueron los fermentos activos que manipulados en la ocasión por políticos y monjes de academia germánica levantarían con HACHE y todo la masa euskalduna y reactivarían ante el detonante musulmán la llama hereditaria sofocada o dormida bajo la Celtiberia y Roma.

Políticos y monjes sabios germánicos encontrarían al fin en políticos y monjes vascos su complemento, gracias a los cuales el euskera se enriqueció, se mantuvo vivo con prestigio durante lo que podemos llamar primer renacimiento vasco".

Onaño erantzun luzetxu ori. Neu be orretan nago. Neurea ete dan? Neurea dalakoan nago, neronena erantzun ori.

Euskerak beste edozein izkuntzak baño arazo garratzak ditu leuntzeko, gozotuteko. Naiko aitatu dogu gourkoz.

Agur ba orain eur urte il-errira yoatean berak azken-agurra egin euskun Eusebio Maria Azkue prestuari. Bego banean bere seme aztu-eziñekoagaz, itxaropen-izeneko Don Resurreccionegaz eta gañerako lekeitiar euskalzalkin: Candido Basa eta

Zorionak millaka —zuen guztienak— beste Eusebiori Euskaltzaindiaren sarrera-itzaldia esan deuskun Erkiaga zintzoari.

Lekeitiar biri, euskaltzale biri, olerkari biri, Eusebio biri —bata yoana illen artean datzanari eta bestea gure artean oñen ganean dabillenari txalo eta txalo. Eurei esker euskera zarra arnasa zarra arnasa barriaz yntzirik bere bidean doa, itxaropen bidean. Doala egun eta eguzki, doala egun eta beti, oran eta gero.

Azken itza: Orain oraingo euskaldunen, euskalzaleen eta euskalarien alkartasuna da gure inguruko beste aberastasuna baño EUSKALERRIAK, bere ederrarako, geien eskertuko deuskun guztiori betiko.

* * * * *

Donostia, 73-XII-28

PLATON EUSKERATZEN

Zaitegi-tar Iokin

Nik neuk Euskaltzaindiaren azken batzarrotan entzun ditudan txostenak azterketa-txosten zoragarritzat iritzi ditut geien bat: zorrotz, ximen, sakon eta iakingarri.

Nere txosten au ezta orrelakoa izango, apalagoa baizik. Enator inori ezer irakastera, deus eztakidala iakitera eldu bainintzen aspaldidanik eta egunero asmo orretara ikasten baitiardut.

Platon-en elkarrizketak euskeratzen ari naiz. Dagoneko argitarazteko gerturik dauzkat amabost elkarrizketa. Lenengo liburuan *Eutrifon*, *Sokrate-ren Apologia*, *Kriton* eta *Jaidon* ematen ditut, nolarebait Sokrate-ren eriotzari buruz ari diranak, alegia. Bigarreanean, *Ifia* txikia eta *Alkibiada*. Irugarreanean, *Karmida*, *Lake* ta *Lisi*, Laugarreanean, *Ifia Nagusia Oturuntza* ta *Jaidor*. Boskarreanean, *Protagora*, *Gorgia* ta *Menon*, eta aurre-rantzean ere Platon euskeratzen iarraitu nai nuke, buka badezat beinik-bein.

Zer dela-ta aukeratu dudan Platon galdetuko balit norbait, auxe erantzungo nioke: bearrak ortaratu ninduela, alegia. Guatemalako San Karlos ikastola nagusiak eladera irakasteko dei egin zidanean, eladerarik etzekitenei irakasteko zein idazle aukeratu? Gaztetan guk Esofo-ren alegiak itzultzen asi ginen. Ertzizaidan eder irizten Ikastola Nagusian Esofo-gandik asterik. Gogoan nituen Xenofonte eta Platon, Loiolan erabili nituen eladerazko idazleak. Unibertsidade bertan Filosofi-saila ere zenez gero, Platon egokiagotzat io nuen: Paris-a eladerazko liburuak eskatu ta orrela asi nintzen Platon itzultzen. Egia esateko, Platon ezaguna nuen alde z aurretik, leen iterantzun dudanez. Loiolan iru ilabeteko epea eman nion Platon itzultzeari: baina, oraindik Filosofi-ko uretan erraza baino errazagoa zela argi ta garbi ikusi nuen, batez ere, Omer, Sofokel eta Zukidibe-ren eladeraren aldean.

Bederatzi urtetan edo Platon eta Sofokel itzultzen ari izan nintzen Guatemala-n: ordurako, Sofokel-en antzerkiak, lenengo liburua argitarazia nuen, Mexiko-n. Platon ezagunago ta laztanago egokitu zitzaidan: bertan asi nuen Platon-eko atarian, eta Miarritze-n bukatu. Alabearrik nere burua Platon-en menpetik atera nuen, idazle oso itsaskorra baita, izan ere. Nere iritzia Platon-i buruz or daukazute beraz, Platon-eko Atarian, alegia. Labur esateko: Platon, gizadiaren barnean izan diren lauzpabost filosofilarien arteko dugu, nik baino obeki dakizutenez.

Liburu arekin Platon-ena egina nuela uste izan nuen. Etorri zetorren euskal-gazte mordoa Platon euskeratzen iarriko zela uste izan nuen neure ez-iakinean. Bai zera!

Gerora, bakarrean bakar, Platon euskeratzen ari izateko egokiera izan nuen Guatemalan.

Platon euskeratzeko eladera ta euskera iakin bear ditugu, nolabaiteko neurrian beinik-bein.

Menendez Pelayo-k dioenez, urte anditan eta oraindik ere erri askotan beinik-bein, erderaz irakurtzen diren Platon-en itzulpenak eladerarik etzekien Azkarate-k eginak izan ziren, frantsesetik itzuli ta kito. Egia osorik esateko, Platon eladeratik erderatzen asiak dira erdaldunak ere. Nik neuk eztut uste Azkarate-nik egin bear dugunik. Bada, izan ere, euskaldunen artean ainbeste eladera dakienik: baina, eztira oraindik ausartzen. Bein Krutwig-ek esan zidanez, Erkiaga-k Platon-en *Parmenide* elkarrizketa euskeraturik zuela. Etorri ta galdetu nion oni: erantzun ezezkoa eman zidan Erkiaga-k. Nola asi eladerarik iakiteke, eratziki zidan. Azkarate-k burutu zuena egin gogo zukeen Krutwig-ek: ortan eta beste gauza azkotan enintzen gure Krutwig-ekin irizkide gertatu, naiz-eta luzaroan ia egu-nero elkar ikusi, ta elkarrekin ari izan.

Eladerazkoa Frantziako Ikastola Nagusiek onartu eta *Guillaume Budé* elkarteak argitarazia erabiltzen dut.

Ezta aski eladera iakitea: euskera ere iakin bear dugu iakin Platon euskeratzeko. Euskeranto deritzan euskera mordoi-loa ezpaitut uste eder izango litzatenik. Zenbait lan irakurri dut damurik, euskeraz ain zuzen, eta oriek ulertzeko erdera nai ta nai ez iakin egin bear duzu, ta ez edonolako erdera, oso ikasia baizik. Ez aal dira bidea galduta ari? Baiezkoan nago.

Ta zer-nolako euskera ote darabilt Platon euskeratzekoan? Neuk dakidantxoa ta kito. Ezpaitaukagu oraindik guzientzat euskera batua daitekenik: ekinaren ekinez zerbaitetara el gaitetze, ori geure aukeran dago-ta.

Urliak nere euskera garbizaleegitza ioten du; besteak eztu orrenbestekorik uste. Sandiak nere euskera alemantzat dauka; berendiak, alderantziz, euskera iatorrenetzat du. Eztut uste ez bata ta ez bestea egia ditekenik. Bakanka egia ertz-ertzetan arkitu oi da, ez-ustekotan agertzen omen baita. Erakleito-k dioenez. Alare, gutartean, atseginetan oilaskoei gangarra moztan ari

izaten direnak badira izan ere, naiz-eta gero oilaskokirik iaten ez iakin. Belaunburuetaraino eltzen etzaizkidan txakurtxoen zaunkadak gora-beera, zakur zaunkatu-arren, aurreruntz io oi dut, sail berriak eta zailak urratuz.

Teknikazko itz gutxi darabil Platon-ek alabearrik: orrelakoetan daudenez daudenean uzten ditut geien bat eta orretan adierazi oi dut aien esan-naia.

Esanaldi laburra dadinetan erraz ematen da euskeraz, ez-baina esanaldia luzetan dabilenetan. Alare, egin-aalak egiten ditut esanaldi luzea ere dagoenez ematen, euskera geiegi biurritu gabe aal dadinean. Besterik ezinean, orrelakoetan bi, naiz iru esanalditan, naiz geiagotan eman bearra izaten dut, Platon-i aalik eta zeatzenik lotuta: frantsesez eta erderaz bezain zeatz, eta eskuarkiro zeatzago, naiz- eta neuk esan.

Argitarazi baino leen, nere adiskide iakitun batek onartua bear izango du nere buruari ezarri diodan neurriaren arabera, ortan *Guillaume Budé*-ren elkartearen araudiari iarraiki.

Erakusburuz, onatx *Protagora* euskeratu berriaren zenbait zati, labetik arako ogi erre berria, naiz surtatik arako saiesketa bezala.

Euskaltzaindiaren agiriak

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-ERREGELAK

Euskaltzaindiaren Arautegiak dioenari jarraikiz (Ikus 41. artikulua), Barne-Erregelak berriz eratu eta gaurkotu dira.

Barne-Erregela hauk, neurri handi batean, lehengoetarik hartuak daude (1920 eta 195koetarik), Elkargoaren egungo egoerari dagozkion berritasun eta aldaketa batzuk sartuaz.

Akademi-Batzarreak

Lehen artikulua.—Akademi-bilkura arrunten ibilpidea eredu hunen arauaz izango da: mahaiburu erdian lehendakaria egonen da, haren eskuinean lehendakari-ordea, eta ezkerrean Idazkaria.

2. art.—Batzar-moderatzaile bat ere egon daiteke. Moderatzaile hunen egitekoak honako hauk dira: batzarrearen haria ipinitako gaien arauaz zuzen eramatea, hitza eskatu duenari tokatzen zaionean ematea, behar denean kentzea, elkar hizketa kidatzea, eztabaidak finitzea, solasaldiaren ondorioak laburki ematea.

3. art.—Gaiak hunako ordena hunetan erabiliko dira: Lehendakariak batzar-gaiak irakurriko ditu. (Aitzinetik dakite gaion berri batzarkideek batzar-deia bidali izan zaienez gero).

4. art.—Ondoren, azken batzarreko agiriari oharrik egin behar ote zaion galdetzen du. (Agiri hau ere aitzinetik ezagutzen dute batzarkideek, bidali zaienez gero). Inork zuzenketaren bat aurkezten baldin badu eta onartzen baldin bada, agiria ohar horren araura jarri beharko da. Agiria ez dela zuzendu behar erabaki baleza batzarreak, ez da zuzenduko, noski, baina urlia batzarkideak eskatutako zuzenketaren berri bertan emanen da. Batzarrearen baimenduaz eta lehendakariak izenpeturik, azken batzarreko agiria bir-onartua gelditzen da.

5. art.—Gero Idazkariak esku-arteko arazorik garrantsi-tsuenak azalduko ditu: hartutako eskutitzak, Elkargoari egin zaizkion eskeak, bulego-arazoak, asmoak, proposamenduak, etab. Arazo hoietarik zenbaitez kontu eman baizik ez da egiten. Garrantsi handienekoak, ordea, batzarreari proposatzen zaizkio, zer egin erabaki dezan.

6. art.—Liburuzainak etxean hartu diren liburu eta egerkarien berri ematen du, bai eta halaber Euskaltzaindiko liburutegirako ekarri direnena.

7. art.—Diruzainak, hiru hilabetez behin, diru-egoeraren berri ematen du.

8. art.—Ondoren, batzar-deian jarritako puntu bereziak tratatzera pasatzen da. Puntu hoiek txostenak edo batzarkide baten estudioak baldin badira, komeni da egileak berak bere lana aitzinetik Euskaltzaindiko Zuzendaritzara bidal dezan. Era hortara kopiak egin eta batzarkide guztiei edo batzuei bederen bana dakizkien, eta garaiz ikusiz, gero batzarrean erantzun, osatu eta solasbidea pizteko modu gehiago egon dadin.

9. art.—Are gehiago komeni da hori egitea —testuaren kopiak atera eta euskaltzain oso guztiei eta eska dezaten laguntzaileei garaiz bialtzea—, batzarreak onetsi edo birretsi behar dituen puntuak ukitu behar direnean.

10. art.—Horrelako agiri edo erabakiak, bai bilkura arruntetan eta bai bilkura berezi barrengoetan ere har daitezke.

11. art.—Urte bakoitzaren azken aldean Zuzendaritzak heldu den urteko batzarrean egutegia presta beza.

12. art.—Batzarrea egin ondoan, Zuzendaritzak agiri labur bat egin edo eragin beza egunkari eta aldizkarietarako.

13. art.—Batzarre arruntak ardurenean Donostian egingo dira, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, gehienek erositakoa gogoan edukiaz; baina inoiz edo behin urtean barrena egin bedi bat edo beste Euskaltzaindiaren etxean eta bai Ordezkaritzetan ere.

Ekonomi arazoa eta Ordainketak

14. art.—Ofizialki ematen zaizkion laguntzak eta bere lanak datozkion etekinak ez dira aski Euskaltzaindikoko gastuen zuloa estaltzeko. Etorpideen urritasun hunek, berriz, obrak aitzinatzen eskuak lotzen dizkio. Horregatik komeni da Elkargoak pertsona bat eduki dezan (baita diruz ordaindua bada ere), Euskaltzaindiarentzat ekonomi laguntzak bilatu eta inguratuko dituen. Pertsona hori Euskaltzaindikoa dena nahiz ez dena izan daiteke.

15. art.—Ordainketa-neurri bat jarriko du Euskaltzaindiak bilkuraketatik, euskaltzain osoen eta izendatutako deituak izan diren laguntzaileen xahupen bereziak kontutan hartuz.

16. art.—Era berean, noiz eta batzarkide bati ohi ez bezalako lanak egotzen zaizkion, edo harat-hunatak dakarzkiten zereginak agintzen, eragindako gastuok ordaintzen ahaleginduko da Euskaltzaindia, eta bai lansaria ematen ere, ahal duen neurrian.

Agerkariak

17. art.—Euskaltzaindiak boletín bat argitaratzen du, *Euskera* deritzana, eta haren agerkari ofiziala dena. Maizago nahiz bakanago atera daiteke, agertzeko diren dokumentu eta lanek nola edo zer eskatzen duten.

18. art.—Euskaltzainburua da boletínaren zuzendaria. Redakzio-batzorde bat ere izanen da. Redakzio-kontseilu hunetan egonen dira, euskaltzainburuaz gainera, buru-ordea, Idazkaria, Idazkari-ordea, eta beste batzuk berriaz izendatuak, nahiz

euskaltzain oso nahiz laguntzaileak. Redakzio-buruzagi bat ere egon daiteke.

19. art.—Redakzio-kontseilu hunen zeregina da boletinean agertzeko dauden lanak eta dokumentuak aztertzea eta onartzea, zenbaki bakoitzaren argitalpena prestatzea, etab.

20. art.—Aldizkari hunetan agertuko dira bilkuretan irakurritako jaun euskaltzainen txostenak (Redakzio-kontseiluak onartu ondoan), Euskaltzaindiaren Agiriak, Elkargoaren bizitze eta obrei buruzko dokumentazio ofiziala, batzar-agiriak, sarrera-hitzaldiak, euskaltzain zenduei buruz berri laburrak, interesgarri izan daitezkeen berri eta liburuen azalpenak, testuen edizioak, bibliografia etab., eta hortaz landara, iker-lanak, baita Euskaltzaindiko ez direnenak ere.

21. art.—Aldizkariaren Redakzio-batzordea Batzarreak hautatzen du, proposamendua Euskaltzainburuak egiten duelarik. Batzordearen iraupena berez bi urtetako da, baina luza daitekeena.

Barne-antolakizun eta ibilpide-arauak

22. art.—Euskaltzaindiak batez ere batzordeen bidez egiten ditu bere lanak; kasu bakoitzean berariaz hartarako jarritako batzordeen bidez. Euskaltzainburuak, Zuzendaritzako lagunekin kontaktuz, batzordea osatuko dutenen izenak hautatzen ditu, eta batzarre arruntean nahiz barrengo bilkura berezian proposamendua egiten du, beste euskaltzain osoek ere beren proposamenduak egiteko aukera dutelarik. Proposamenduok beti izkribuz egin behar dira eta beti arrazoiak emanaz, hau da, pertsona jakin bat batzorderako zergatik hautatu den esanez. Batzordeak, behin izendatua izanez gero, eta bilkurak izendatzea onartu ondoan, egotzi zaion lana egingo du. Batzordea osatzen duten lagunak beren lana aitzinatzeko bildu egingo dira, Euskaltzaindiko Idazkari-ordeak edo Batzordeko bereko Idazkariak dei egiten dietenean.

23. art.—Batzordeak bere lanari edo lan-zati oso bati buru eman diezaionean, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzara pasatuko

du lan hori, hunek batzarrera aurkez dezan, eta batzarreak azter eta baimendua eman diezaion. Behin baimendu hori lortuz gero —euskaltzain osoek bototara joaz, hala beharko balitz—, lan hura Euskaltzaindiaren Agiri ofizialtzat hartuko da, eta hala agertuko da Euskaltzaindiaren agerkari ofizialean. Axola handiagoa duten Agirientzat bigarren onartze edo birronespena beharko da, eta horretan derrigorrezkoa da bozketa egitea.

24. art.—Euskaltzaindiak Ordezkaritzak eduki ditzake, Arautegiak dioenez (16. art.). Ordezkaritza hauk Zuzendaritzak egozten dizkien lanetan enplegatuko dira, egiten zaizkien galderak erantzungo dituzte, eskeei kasu eginez, etab. Horretarako Kontseilu batez osatuak egongo dira. Kontseilu hori Euskaltzaindikiko Zuzendaritzak izendatzen du. Zuzendaritzaren eskubide eta eginbideetarik bat da Ordezkaritza hauen lana ikuskatzea. Ahal delarik, euskaltzain oso den bat izango da, Ordezkaritza bakoitzean, Kontseiluaren buru.

25. art.—Ordezkaritzetako Kontseiluok batzarrean izendatzen dira, proposamendua Euskaltzainburuak egiten duela. Kontseilu edo talde hunen irautea berez bi urtetarako da, baina luza daitekeena.

26. art.—Euskaltzainburua edozein Batzorde nahiz Ordezkaritzaren bilkuretara joan daiteke, nahi duen guztietan, eta hala behar dela uste duen bakoitzean. Orobat egin dezake Euskaltzainburu-ordeak, nahiz —haien mandatari bezala— Idazkari Nagusiak.

27. art.—Lan edo zeregin jakin batetarako sortu ziren Batzordeak, lan hura egin eta, deseginak gelditzen dira.

28. art.—Ordezkaritzei dagokie neurri handi batean —nahiz eta ez berei bakarrik— Euskaltzaindiaren sail handi baten arta izatea: hizkuntzaren jagon-sailarena, alegia (Arautegia, 2. art.).

Etxe-barneko gobernu eta manaiua

29. art.—Kontseilu baten eskuan egonen da etxe-barneko manaiua. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaz osatua da Kontseilu hori; eta obratze hutsezko gauzetan, Idazkari-ordeaz ere bai.

30. art.—Huna hemen Kontseilu huni dagozkion egitekoak:

a) Euskaltzaindiaren erabakiak betetzea, baita literario eremukoak ez direnak ere.

b) Bulego, gela eta bazterren apailatzeari kasu egitea, bai Euskaltzaindiaren etxean eta bai Ordezkaritzetan ere.

c) Etxea, lan-tresna eta haltzariak begiratu, berriztatu eta itxura batean edukitzea.

d) Diruzainak urteoro Euskaltzaindiari aurkeztu behar dion gora-behera-agiria aztertzea eta hartaz iritzi ematea; eta hori bera egin behar du Diputazioei eta Beste Korporazioei Euskaltzaindiak urteoro errendatu behar dien kontuaz ere (haiengandik jasotako sariren kontuaz, alegia).

e) Inprimatzaile eta saltzaileekin Euskaltzaindiko argitalpenen tratua egitea.

f) Diruzainak behar dituen ordain-aginduak gertatzea.

g) Euskaltzaindiari ematen zaizkion emaitzak eta edozein aldetatik heldu zaizkion obariak jasotzea, Elkargoari guztien kontu emanez.

31. art.—Ustegabeko eta ezin luzatuzko ordainbeharretan Kontseiluak erabaki dezake, hurrengo batzarrean Euskaltzaindia denaren jakitun ipiniaz.

32. art.—Monta ttipiko arazoetan diruzainak bere kabuz erabaki beza, egindakoaren berri gero Kontseiluari emanez.
Euskaltzain berrien izendatzea

33. art.—Euskaltzain bat hil, nahiz lanerako ezindurik geldi baledi (eta ezin hori batzarrean, bozketa izkutu baten bidez, ezin erremediatuzkoa dela erabaki ondoan), hutsarte bat gertatu dela euskaltzain osoen artean aitortu behar du Euskaltzaindiak, eta lehen-bai-lehen aitortu ere.

34. art.—Hutsartea betetzeko proposamenduak ondoko bi batzarreetan aurkez daitezke.

35. art.—Euskaltzain osoa hautatzeko egiten den bozketa, izkutuzkoa izan bedi.

36. art.—Lehen aldian lagungaietan nehork ere nagusitasun osorik erdietsiko ez balu, bigarren bozketa egingen da, eta,

behar izatez gero, hirugarren bat ere bai. Hirugarrenean nagusitasun osorik ez egotea gertatuko balitz, aulkia hutsik dagoela iragarriko da berriz ere.

37. art.—Idazkaritzak gutun ofizial baten bidez hautatu berriari hautapena jakin araziko dio, eta bai karguaren hartzeko epea eta egin beharrekoak ere. Hautatua izan denak hila-beteko epea du bere baiezkua emateko.

38. art.—Zortzi hilabetetako epea eman daiteke, gehienez ere, karguaren hartzea ospatzeko. Lehen sei hilabeteak sarrera-hitzaldia idazteko izango dira. Sarrera-hitzaldi hori, hautatuak berak nahi duen gai batez izan daiteke, baina euskaltzain zaharraren (zeinen ondoko bezala sartzen den) aipua edo oroitzapena egiten duela beti ere. Azkeneko bi hilabeteak Euskaltzainburuak, nahiz hark hautatu duen euskaltzain batek, erantzunezko idazkia idazteko izango dira. Sarrera-eguna euskaltzainburuak jarriko du.

39. art.—Harrera-batzarrea, bilkura berezi agerikoa izango da. Hasteko, Idazkariak bilkura hura zertarako den, labur aditzera emango du. Segituan bi euskaltzain lagungaiaren bila joango dira, batzar-tokian sar arazi eta mahairaino lagunduko diote; eta han, buruzagiak adieraz diezaionean, bere hitzaldia irakurtzen hasiko da. Hunen hurrengo, erantzun behar duenak irakurriko du berea. Bukatu eta, oro zutik direlarik, euskaltzainburuak lagungai euskaltzain aitortuko du, eta ageria eta ezautailua emanaz, eskua hertsiko dio; anaitasunezko erakuspen hau beste euskaltzain guztiek ere egiten diotelarik.

Karguen horniketa

40. art.—Euskaltzaindiko kargu guztiak bi urtetarako dira, baina bir-hautapena egin daiteke.

41. art.—Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren karguak hornitzekoan xoil gorde bitez Arautegiko arauak (Arautegia, 28tik 32ra arteko artikulua).

42. art.—Gainerako karguen horniketa batzarrean egingo da, Lehendakariak edo Zuzendaritzak proposamendua egingez;

beste euskaltzain osoek ere bestelako proposamenduak egin ditzateke, eta batzarreak bere onartzeaz ematen dio balioa izendapenari.

Maiztasun-saria

43. art.—Urtebiko bakoitzaren azkenean euskaltzain oso bakoitza batzarreetara zenbat aldiz etorri den neurtuko da. Neurri hori batzar-agirian jar eta *Euskera*-n argitara bedi, xehetasunak emanez, maiztasun handienekotik hasi eta ttipie-nekoraino. Maiztasun-handien hori ohorezko sari bezala hartuko da, beste akademia batzuetan egin ohi den bezala.

Erregela bereziak

Gainetikoa.—Barne--Erregela hauei gehigarri-gisa erantsiko zaizkie Liburutegi, Artxibo, Ordezkaritza, Alfabetatze eta besteren ibilpiderako egin edo egingo direnak, Arautegiak bere 41. artikuluan dioen bezala.

(1974ko urtarrilaren 25eko eta martxoaren 29ko bilkura barrengo berezietan onartua).

REGLAMENTO INTERIOR DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

En conformidad con lo previsto en el art. 41 de los Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca, se ha procedido a la reelaboración y puesta al día del Reglamento Interior.

El presente Reglamento reasume en gran parte los anteriores de 1920 y 1954, pero al mismo tiempo introduce también las acomodaciones y cambios exigidos por el estado actual de la Corporación.

I. Sesiones académicas

Artículo 1.º.—Las juntas o sesiones académicas ordinarias se desarrollarán de conformidad con la pauta siguiente: serán

presididas por el Presidente, estando a su derecha el Vicepresidente y a su izquierda el Secretario.

Art. 2.º.—Podrá haber un moderador, cuya actuación se limitará a mantener el desarrollo de la sesión dentro de los temas previamente propuestos, a conceder la palabra a los que la pidan, a dirigir y moderar las discusiones, a poner fin a las mismas, a resumir las conclusiones a que se haya llegado.

Art. 3.º.—El orden de asuntos será el siguiente: el Presidente da lectura al temario de la sesión, que ya previamente conocen los miembros por el escrito de convocatoria.

Art. 4.º.—A continuación pregunta al Pleno si tiene algún reparo que oponer al acta de la sesión anterior, que también conocen los miembros, por haberseles remitido con antelación. Si algún miembro presenta alguna enmienda y ésta es aceptada, la redacción del acta deberá corregirse de conformidad con dicha enmienda. Puede también estimar el Pleno que la redacción no debe corregirse, pero en tal caso debe figurar en el acta constancia de la petición del citado miembro. Con el asentimiento del Pleno y firma del Presidente, queda ratificada el acta de la sesión anterior.

Art. 5.º.—Seguidamente el Secretario da cuenta de los asuntos de trámite más importantes: correspondencia recibida, peticiones hechas a la Corporación, despacho de asuntos, iniciativas y propuestas. De algunos de estos asuntos se da mera cuenta. Respecto a los más importantes, se someten a la sesión, para que ella acuerde lo que proceda.

Art. 6.º.—El Bibliotecario da cuenta asimismo de los libros y publicaciones recibidas, así como de las adquisiciones hechas para la biblioteca de la Academia.

Art. 7.º.—El Tesorero, trimestralmente, da cuenta del estado económico de la Institución.

Art. 8.º.—A continuación se pasa a desarrollar el temario propuesto en el escrito de convocatoria.

Cuando se trate de ponencias o estudios presentados por algún miembro, será conveniente que con antelación envíe el

autor su texto a la Junta de Gobierno, con el fin de que se obtengan y distribuyan copias del mismo a todos o a varios miembros, para que lo puedan estudiar a tiempo y en la sesión puedan actuar de contraponentes, objetantes o, al menos, contribuir a suscitar y animar el diálogo o la discusión en torno al tema.

Art. 9.º.—Si se trata de puntos que se someten a la aprobación o ratificación de la Academia, con más razón aún se procurará obtener copias del texto en cuestión y remitirlo a tiempo a todos los señores académicos de número y a los académicos correspondientes que lo soliciten.

Art. 10.º.—Dichos acuerdos o decisiones pueden tomarse en las sesiones ordinarias y también en las extraordinarias privadas.

Art. 11.º.—Al final de cada año la Junta de Gobierno confeccionará el calendario de las sesiones académicas que tendrán lugar el año siguiente.

Art. 12.º.—La Junta de Gobierno se encargará de redactar una breve nota informativa de la sesión celebrada, con destino a la prensa.

Art. 13.º.—Las sesiones ordinarias se celebrarán normalmente en San Sebastián, como punto más céntrico, en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa; pero convendrá que se celebre también alguna o varias dentro del año en la Sede central de la Academia y en las Delegaciones.

II. *Gestión económica y dietas*

Art. 14.º.—Como ni las subvenciones oficiales ni los productos de los trabajos y publicaciones alcanzan a cubrir los gastos de la Academia, y, por otra parte, esta cortedad de su situación económica impide o coarta el desarrollo de sus actividades, convendrá que la Institución tenga una persona (incluso retribuida) con el cargo de buscar y recabar ayudas económicas para la Academia. Esta persona podrá ser miembro de la misma Institución, o bien, ajena a ella.

Art. 15.º.—La Academia señalará dietas para las sesiones, teniendo en cuenta los gastos extraordinarios de los académicos numerarios, así como de los miembros correspondientes que nominalmente fuesen convocados.

Art. 16.º.—Igualmente, cuando encargue a algún miembro trabajos extraordinarios o misiones que supongan desplazamientos y gastos, cuidará de abonar al interesado las expensas que la comisión le ha ocasionado y aun de retribuir los trabajos según se lo permitan sus posibilidades económicas.

III. *Publicaciones*

Art. 17.º.—La Academia edita un Boletín, denominado “Euskera”, que es su órgano oficial, el cual aparece con una periodicidad mayor o menor, según la cuantía o importancia de los documentos o trabajos a publicar.

Art. 18.º.—El Presidente de la Academia es el director nato del Boletín. Debe existir un Consejo de Redacción, del que forman parte, además del Presidente, el Vicepresidente y otros miembros, bien sean numerarios o correspondientes, nombrados al efecto. Podrá designarse también un redactor jefe.

Art. 19.º.—Toca al Consejo de Redacción examinar y admitir los trabajos y documentos que han de publicarse en el boletín, preparar la publicación de cada número, etc.

Art. 20.º.—En el boletín se publicarán los trabajos de los señores académicos leídos en las sesiones, siempre que merezcan el refrendo del Consejo de Redacción, los acuerdos de la Academia, la documentación oficial sobre la marcha y actividades de la Institución, las actas de las sesiones, los discursos de ingreso, breves notas biográficas y bibliográficas de los miembros finados, noticias o reseñas de interés, ediciones de textos, bibliografía, etc., además de trabajos de investigación, aun de personas ajenas a la Academia.

Art. 21.º.—El Consejo de Redacción del Boletín lo elige la sesión académica, a propuesta del Presidente. Su duración es bienal, pero prorrogable.

IV. *Estructuración interna y funcionamiento*

Art. 22.º.—La Academia realiza sus trabajos principalmente por medio de Comisiones nombradas al efecto para cada caso. El Presidente, de acuerdo con los miembros de la Junta de Gobierno, escoge los nombres de los que han de integrar la Comisión respectiva y los propone al Pleno o a la sesión Académica extraordinaria privada, sin perjuicio de que los demás académicos de número puedan hacer también sus propuestas. Unas y otras deben ser por escrito, y siempre razonadas, o sea, haciendo constar las razones por las que se propone a una determinada persona para formar parte de la Comisión. Una vez constituida y tras la aprobación de la sesión académica, la Comisión realizará el trabajo que se le ha encomendado. Los miembros de las Comisiones se reunirán para llevar adelante su trabajo según convocatoria que les será cursada por el Vicesecretario General, o bien por el Secretario de la Comisión de que se trate.

Art. 23.º.—Cuando la Comisión creada al respecto haya dado cima al trabajo o a una parte autónoma de él, lo pasará a la Junta de Gobierno de la Academia, con el fin de que ésta lo presente a la sesión académica para su examen y refrendo final. Obtenido éste por votación de los académicos de número si fuere preciso, el trabajo o decisión será considerado como acuerdo oficial de la Academia, y como tal se publicará en el órgano oficial de ésta. Para los acuerdos más importantes se precisará un ulterior refrendo o ratificación, para la cual es inexcusable la votación.

Art. 24.º.—Las distintas Delegaciones que la Academia puede tener según está previsto en los Estatutos (art. 16), realizarán asimismo los trabajos que la Junta de Gobierno les encomiende, evacuarán consultas, atenderán a las demandas que se les dirijan, etc. Para ello estarán constituidas por un Consejo nombrado al efecto por la Junta de Gobierno de la Academia, la cual podrá y deberá supervisar el trabajo de estas Delegaciones. El consejo de cada Delegación estará presidido, a poder ser, por un académico de número.

Art. 25.º.—Los nombramientos para estos consejos de las Delegaciones se hacen a propuesta del Presidente en sesión académica. La duración de este Consejo o equipo de las Delegaciones es de suyo bienal, pero puede ser prorrogada.

Art. 26.º.—El Presidente de la Academia puede asistir a las reuniones de cualquiera de las Comisiones o Delegaciones, siempre que lo desee o juzgue oportuno. Igualmente puede hacerlo el Vicepresidente o el Secretario General en delegación suya.

Art. 27.º.—Las Comisiones creadas para un trabajo o cometido concreto se disuelven una vez realizado el trabajo para el que se crearon.

Art. 28.º.—A las Delegaciones compete de un modo preferente, aunque no exclusivo, el atender a una de las grandes tareas de la Academia, que es la tutelar del idioma (Estatutos, art. 2.º).

V. *Gobierno y administración*

Art. 29.º.—El gobierno interior estará a cargo de un Consejo, formado por la Junta de Gobierno de la Academia, y, para lo puramente ejecutivo, por el Vicesecretario.

Art. 30.º.—Será incumbencia de este Consejo:

- a) Ejecutar los Acuerdos de la Academia, aun fuera del campo de los asuntos literarios.
- b) Mirar por el buen orden y arreglo de las oficinas y dependencias, tanto de la sede o casa central como de las Delegaciones.
- c) Atender a la conservación, restauración y decoro del edificio y del material de trabajo y mobiliario.
- d) Visar e informar la cuenta anual de ingresos y gastos que el tesorero debe presentar a la Academia; y la cuenta asimismo anual, que debe rendir a las Diputaciones y otras corporaciones, de las cantidades que de ellas reciba la Academia.

- e) Negociar con los impresores y comisionados de venta lo referente a las publicaciones de la Academia.
- f) Extender los libramientos de pago que ha de hacer el Tesorero.
- g) Hacerse cargo de los donativos que se hicieren a la Academia, y de los ingresos que por cualquier concepto sobrevengan; dando de todo ello cuenta a la Corporación.

Art. 31.º.—En los gastos extraordinarios y urgentes que se ofrecieren, podrá resolver el Consejo, dando cuenta a la Academia en la Junta inmediata.

Art. 32.º.—Para asuntos de menor cuantía, resolverá por sí el Tesorero, dando después cuenta al Consejo.

VI. *Nombramientos de nuevos académicos de número*

Art. 33.º.—Cuando por defunción o por imposibilidad de colaborar, que la Academia en votación secreta estime irremediable, quede vacante una plaza de académico numerario, la Academia lo declarará así, y lo hará inmediatamente.

Art. 34.º.—Las propuestas para proveer la vacante podrán ser presentadas en las dos sesiones siguientes.

Art. 35.º.—La votación para elegir académico de número será secreta.

Art. 36.º.—Si ninguno de los candidatos obtuviere en el escrutinio mayoría absoluta, se procederá a una segunda votación y, si fuere necesario, a una tercera, declarándose nuevamente vacante la plaza si tampoco resultare en la tercera votación mayoría absoluta.

Art. 37.º.—La Secretaría avisará de oficio al interesado su elección, y el plazo y trámites para que tome posesión, debiendo el interesado enviar su aceptación en el término de un mes.

Art. 38.º.—El plazo para la toma de posesión será a lo sumo de ocho meses: los seis primeros para que sobre el tema que

guste escriba el trabajo que ha de leer al entrar en la Academia. En este trabajo se hará mención o memoria del académico al que el recipiendario sucede. Los dos últimos meses serán para que el Presidente, o el académico por él designado, redacte el escrito de contestación. El Presidente señalará el día para la recepción.

Art. 39.º.—La sesión de recepción será pública y solemne. Empezará con un brevísimo anuncio que el Secretario hará sobre el fin de la reunión. Inmediatamente saldrán dos académicos en busca del candidato, introduciéndole en el salón y acompañándole hasta la mesa, junto a la cual dará lectura a su discurso, cuando se lo indique el Presidente. A continuación leerá el suyo el encargado de contestarle; y concluido, puestos en pie, el Presidente proclamará académico de número al candidato, le entregará el título y la insignia y le estrechará la mano, siguiéndole en esta demostración fraternal todos los académicos.

VII. *Provisión de cargos*

Art. 40.º.—Todos los cargos académicos son bienales, y en ellos cabe la reelección.

Art. 41.º.—Los cargos de la Junta de Gobierno de la Academia serán provistos ateniéndose en todo a las normas prescritas en los estatutos (arts. 28-32).

Art. 42.º.—La provisión de los demás cargos se hará en sesión académica, a propuesta del Presidente o de la Junta de Gobierno, sin perjuicio de que otros miembros de número puedan hacer propuestas diferentes, siendo la sesión la que con su aprobación da validez al nombramiento.

VIII. *Decanato*

Art. 43.º.—Se estimará al final de cada bienio la asiduidad de la asistencia a las sesiones de cada uno de los miembros de número, haciéndose constar en acta y publicando en EUSKERA relación de mayor a menor número de asistencias, que servirá

para una evaluación de decanato, al igual que se hace en otras Corporaciones académicas.

IX. REGLAMENTOS ESPECIALES

Artículo adicional.—Se incorporarán al Reglamento Interior los reglamentos especiales para el funcionamiento particular de Biblioteca, Archivo, Delegaciones, Alfabetización, etc., y otros que se crearen de conformidad con lo previsto en el artículo 41 de los Estatutos.

(Aprobado en las sesiones extraordinarias privadas de 25 de enero y 29 de marzo de 1974).

REGLEMENT INTERIEUR ACADEMIE DE LA LENGUE BASQUE

En conformité avec ce qui a été prévu à l'article 41 des Statuts de l'Académie de la langue basque, il a été procédé à la ré-élaboration et à la mise à jour du Règlement intérieur.

Le présent règlement reprend en grande partie les règlements antérieurs de 1920 et 1954 mais en même temps introduit aussi les adaptations et changements exigés par l'état actuel de l'entité.

I

SEANCES DE L'ACADEMIE

Article 1.—Les réunions ou séances ordinaires de l'Académie se dérouleront en conformité avec la règle suivante: elles seront présidées par le président entouré à sa droite du vice-président et à sa gauche du secrétaire.

Article 2.—Il pourra y avoir un modérateur dont le rôle se limitera à maintenir le déroulement de la séance à l'intérieur des sujets proposés à l'avance, à donner la parole à ceux qui la demanderont, à diriger et modérer les discussions, à y mettre fin, à résumer les conclusions auxquelles on sera parvenu.

Article 3.—Le déroulement de la séance sera le suivant: le président lit l'ordre du jour dont les académiciens ont déjà eu connaissance par la convocation écrite.

Article 4.—Il demande ensuite à l'assemblée si elle a quelque objection à faire au procès-verbal de la séance précédente connu aussi des académiciens puisqu'il leur a été remis à l'avance. Si un académicien présente une modification et si elle est acceptée la rédaction du procès-verbal devra être corrigée en tenant compte de la dite modification. L'assemblée peut aussi estimer que la rédaction ne doit pas être corrigée, mais dans un tel cas, mention doit être portée sur le procès verbal de la demande en question. Après l'assentiment de l'assemblée et après signature du présidente le procès-verbal de la séance précédente est ainsi approuvé.

Article 5.—A la suite, le Secrétaire rend compte des affaires ordinaires les plus importantes: correspondance reçue, demandes faites à l'Académie, expéditions d'affaires courantes, initiatives et propositions. Il sera fait un simple compte rendu de certains de ces sujets. Quant aux plus importants ils seront soumis à l'assemblée pour qu'elle en décide.

Article 6.—De même le bibliothécaire rend compte des livres et publications reçus, ainsi que des acquisitions faites pour la bibliothèque de l'Académie.

Article 7.—Le trésorier, chaque trimestre, dresse le bilan de la situation économique de l'Institution.

Article 8.—Ensuite on passe à l'ordre du jour proposé dans la convocation écrite. Quand il s'agit d'exposés ou d'études présentés par un académicien il conviendra qu'à l'avance l'auteur adresse son texte au bureau dans le but d'en faire et d'en attri-

buer des copies à tous ou certains membres pour qu'ils puissent l'étudier à temps et qu'ils puissent en séance présenter des objections ou du moins contribuer à l'animation du dialogue ou de la discussion autour du thème.

Article 9.—S'il s'agit de sujets qui sont soumis à l'approbation ou à la ratification de l'Académie, à plus forte raison faut-il faire des copies des textes en question et les remettre à temps à tous les académiciens titulaires et aux membres correspondants qui le désireraient.

Article 10.—Les dites décisions peuvent être prises dans les séances ordinaires et aussi dans les séances extraordinaires privées.

Article 11.—A la fin de chaque année le bureau établira le calendrier des séances de l'Académie de l'année suivante.

Article 12.—Le bureau se chargera de rédiger pour la presse une brève note d'information sur la séance passée.

Article 13.—Les séances ordinaires auront lieu normalement à Saint-Sébastien, lieu le plus central, au Palais de la Diputación de Guipúzcoa mais il conviendra que d'autres dans le courant de l'année se déroulent au Siège Central de l'Académie et dans les délégations.

BUDGET ET FRAIS DE DEPLACEMENT

Article 14.—Comme ni les subventions officielles ni les recettes provenant des travaux et publications n'arrivent à couvrir les dépenses de l'Académie et que, d'autre-part, ce manque de moyens économiques empêche ou gêne le développement de ses activités, il conviendra que l'Institution dispose d'une personne (même rétribuée) chargée de rechercher et de susciter des aides économiques pour l'Académie. Cette personne pourra être membre de l'Institution ou non.

Article 15.—L'Académie établira un budget de frais de déplacements pour les séances en tenant compte des dépenses extraordinaires des académiciens titulaires ainsi que des membres correspondants qui seraient personnellement convoqués.

Article 16.—De même quand elle chargera un membre de travaux extraordinaires ou de missions qui supposent des déplacements et des dépenses elle aura à coeur de défrayer l'intéressé des frais occasionnés par la mission ainsi que de rétribuer les travaux dans la mesure où ses possibilités économiques le permettront.

III

PUBLICATIONS

Article 17.—L'Académie édite un bulletin, intitulé "Euskera" qui est son organe officiel paraissant avec une périodicité qui dépend de la quantité ou de l'importance des documents ou travaux à publier.

Article 18.—Le Président de l'Académie est le directeur du Bulletin. Il existe un Conseil de rédaction dont font partie outre le président, le Vice-Président, le Secrétaire, le Secrétaire adjoint et d'autres membres titulaires ou correspondants nommés à cet effet. Un rédacteur en chef pourra aussi être désigné.

Article 19.—Il revient au Conseil de rédaction d'examiner et d'admettre les travaux et documents à publier dans le bulletin, préparer la publication de chaque numéro, etc...

Article 20.—Dans le bulletin seront publiés les travaux lus par les académiciens au cours des séances après qu'ils aient reçu l'approbation du Conseil de rédaction, les décisions de l'Académie, la documentation officielle sur la marche et sur les activités de l'Institution, les procès-verbaux des séances,

les discours d'entrée, les notices biographiques et bibliographique des membres décédés, des nouvelles et comptes rendus ayant quelque intérêt, des éditions de textes, de la bibliographie, etc... outre les travaux de recherche même s'ils proviennent de personnes étrangères à l'Académie.

Article 21.—Le Conseil de rédaction du bulletin est élu au cours d'une séance de l'Académie sur la proposition du Président. Son mandat est de deux ans, renouvelables.

IV

STRUCTURE INTERNE ET FONCTIONNEMENT

Article 22.—L'Académie réalise ses travaux principalement par des commissions nommées à cet effet pour chaque cas. Le Président en accord avec les membres du bureau choisit ceux qui vont former la dite commission et propose leurs noms à l'Assemblée plénière ou à une séance extraordinaire privée sans préjudice que les autres académiciens titulaires puissent faire aussi leurs propositions. Les unes et les autres doivent être faites par écrit et toujours motivées, c'est-à-dire en mettant en relief les raisons pour lesquelles telle ou telle personne est proposée pour faire partie de la commission. Une fois constituée et approuvée par l'Académie, la commission réalisera le travail qui lui a été demandé. Les membres des commissions se réuniront pour mener leur travail sur convocation qui leur sera adressée par le Secrétaire général adjoint ou bien par le Secrétaire de la commission.

Article 23.—Quand la commission créée sur un sujet aura mis le point final à son travail ou à une partie autonome de ce travail elle le transmettra au bureau de l'Académie pour que celui-ci le présente à l'assemblée en vue de son examen et approbation. Celle-ci ayant été obtenue par suite d'un vote des académiciens titulaires dans le cas où cela s'avèrerait nécessai-

re, le travail ou la décision sera considéré comme acte officiel de l'Académie et sera publié dans le bulletin. Pour les actes les plus importants une ratification postérieure sera nécessaire pour laquelle il y aura obligation de vote.

Article 24.—Les divers délégations que l'Académie peut établir ainsi qu'il est prévu dans les statuts (art. 16) réaliseront aussi les travaux que le bureau leur demandera, répondront aux questions urgentes, instruiront les demandes que leur seront faites. Pour cela elles seront dotées d'un conseil nommé à cet effet par le bureau de l'Académie qui pourra et devra superviser le travail de ces délégations. Le Conseil de chaque délégation sera présidé, dans la mesure du possible, par un académicien titulaire.

Article 25.—Les nominations à ces conseils des délégations se font sur la proposition du président au cours d'une séance de l'Académie. Ce conseil est nommé pour une durée de deux ans renouvelables.

Article 26.—Le président de l'Académie peut assister aux réunions de n'importe quelle commission ou délégation chaque fois qu'il le désirera ou le jugera opportun, ainsi que le vice-président ou le Secrétaire général lorsqu'ils seront délégués par lui.

Article 27.—Les commissions créées pour un travail ou un but déterminé sont dissoutes une fois la mission accomplie.

Article 28.—Il appartient aux délégations de s'occuper d'une manière prioritaire quoique non exclusive de l'une des grandes tâches de l'Académie c'est-à-dire la section tutélaire de la langue. (Statuts: art. 2.)

V

DIRECTION ET ADMINISTRATION

Article 29.—La direction intérieure est à la charge d'un Conseil formé par le bureau de l'Académie et pour la partie exécutive par le Secrétaire général adjoint.

Article 30.—Il incombe à ce Conseil:

a) D'exécuter les décisions de l'Académie, même celles qui sont en dehors des sujets littéraires.

b) Veiller à la bonne gestion des bureaux et dépendances aussi bien au Siège central que dans les délégations.

c) S'occuper de la conservation, restauration et de l'aspect de l'édifice, du matériel de travail et du mobilier.

d) Viser et contrôler le bilan annuel de recettes et de dépenses que le trésorier doit présenter à l'Académie; de même le compte rendu annuel qu'elle doit rendre aux "Diputaciones" et autres corporations des sommes que l'Académie reçoit d'elles.

e) Négocier avec les imprimeurs et les vendeurs, ce qui correspond aux publications de l'Académie.

f) Délivrer les ordres de paiement que doit effectuer le trésorier.

g) Prendre en charge les dons qui seraient faits à l'Académie et les recettes de quelque provenance qu'elles soient et d'en rendre compte à l'institution.

Article 31.—Le Conseil pourra décider des dépenses extraordinaires et urgentes qui se présenteront et en rendra compte à l'Académie à la séance suivante.

Article 32.—Le trésorier décidera des dépenses de moindre importance et en rendra compte ensuite au Conseil.

VI

NOMINATIONS DE NOUVEAUX ACADEMICIENS
TITULAIRES

Article 33.—Quand par décès ou par impossibilité de collaborer que l'Académie, par vote secret, estimera irrémédiable, un siège d'académicien titulaire sera vacant, l'Académie fera la déclaration de vacance (dans les plus brefs délais).

Article 34.—Les propositions pour le siège vacant pourront être présentées au cours des séances suivantes.

Article 35.—Le vote pour l'élection d'un académicien sera secret.

Article 36.—Si, au premier tour de scrutin, aucun candidat n'obtenait la majorité absolue, il serait procédé à un deuxième tour et si cela s'avérait nécessaire à un troisième tour, le siège restant vacant si la majorité absolue n'était pas atteinte.

Article 37.—Le Secrétariat avisera officiellement l'intéressé de son élection, du délai et formalités de la prise de possession, l'intéressé devant donner sa réponse dans le délai d'un mois.

Article 38.—Le délai pour la prise de possession sera de huit mois au maximum: les six premiers pour qu'il écrive sur le thème de son choix le discours d'entrée à l'Académie. Dans ce discours sera évoquée la mémoire de l'académicien auquel le récipiendaire succède. Les deux derniers mois serviront au Président ou à l'académicien désigné par lui pour rédiger le discours-réponse. Le Président décidera de la date de réception.

Article 39.—La séance de réception sera publique et solennelle. Elle débutera par une brève annonce faite par le Secrétaire sur le but de la réunion. Aussitôt après deux académiciens sortiront pour chercher le candidat, l'introduiront dans la salle et l'accompagneront jusqu'à la table où il lira son discours quand le Président le lui indiquera. A la suite, celui qui

en est chargé prononcera la réponse; enfin tout le monde se levant, le Président proclamera le candidat académicien titulaire, lui donnera le titre et l'insigne et lui serrera la main, tous les académiciens l'imitant en cette démonstration fraternelle.

VII

POURVOI DES CHARGES

Article 40.—Toutes les charges académiques durent deux ans et elles sont renouvelables.

Article 41.—Les charges du bureau de l'Académie seront pourvues en appliquant intégralement les règles prescrites dans les Statuts (art. 28-32).

Article 42.—Les autres charges seront pourvues au cours d'une séance de l'Académie sur proposition du président ou du bureau, sans préjudice de propositions différentes que pourront faire d'autres académiciens titulaires, la séance où est approuvée la nomination lui donnant toute validité.

VIII

DECANAT

Article 43.—Chaque deux ans l'assiduité aux séances de l'Académie de chacun des académiciens titulaires sera évaluée, un procès-verbal d'assiduité étant rédigé et publié dans EUSKERA et il servira pour déterminer l'ancienneté à l'image de ce qui se fait dans d'autres académies.

IX

REGLEMENTS SPECIAUX

Article additionnel.—Seront ajoutés au règlement intérieur les règlements spéciaux pour le fonctionnement particulier de

la bibliothèque, des Archives, Délégations, Alphabétisation, etc... et autres qui seraient créés en conformité avec ce qui est prévu à l'article 41 des statuts.

(Approuvé au cours de la séance extraordinaire privée du 25 Janvier 1974.)

D MAILAKO IRAKASLE TITULUDUNAK

(1973 urtekoak)

114	Margarita Altuna Olaizola	146	Pako Eizagirre Irure
115	Ana M. ^a Arratibel Galparsoro	147	Jon Aurre Azurmendi
116	Ana Artetxe Elortza	148	Andres Etxeberria Lizarralde
117	Iñaki Azkoaga Bastida	149	Rafael Etxegaray Andueza
118	Esteban Gallastegi	150	Marcos Balenciaga Larrañaga
119	Iñaxita Urrestilla Arrieta	151	Jose Antonio Munduate Maiza
120	Maribel Lizarazu Leizeaga	152	Andoni Martin Alcalde
121	Itziar Alberdi Urzelai	153	Izaskun Alberdi Urzelai
122	Esteban Muruamendaraz Lete	154	Juan Jose Uranga Segurola
123	M. Josune Tolaretxipi Lizarralde	155	Juan Luis Igarza Zubillaga
124	Jose M. ^a Vélez de Mendizabal	156	Jose M. ^a Azurmendi Otaegi
125	Ana M. ^a Toledo Lezeta	157	Alfonso Guilló González
126	Pantxoia Bimboire	158	Andoni Unzalu Garaigordobil
127	Julen Madariaga Agirre	159	Jose Manuel Alemán Astiz
128	Mattin Larzabal	160	M. ^a Pilar Larrañaga Uzin
129	Manex Pagola	161	Ramon Zamalloa Gulias
130	Beñat Oiharzabal	162	Inmaculada Murgoitio Ugaldea
131	Jone Forcada	163	Patxi Elgezabal Arrieta
132	Javier Elozegi Aldasoro	164	Jerardo Elortza Egaña
133	Prudencio Sodupe	165	Jose Ramon Ayastuy Elorza
134	Albert Piernet	166	Pello Arrieta Sorraiz
135	Jesus Maria Zabaleta	167	Alicia Intxausti Olaeta
136	Gregorio Martikorena Aramendi	168	Lina Arego Otazua
137	Emilio Imaz Urrestarazu	169	Miren Lupe Olabarrri Arana
138	Gonzalo Fontaneda Orille	170	Jon M. Urresti Iturriotz
139	Pedro M. ^a Telleria Zeberio	171	Santos Muniozguren Torreal-dai
140	Koldo Izagirre Urreagag	172	Begoña Arrinda Uriarte
141	Eduardo Iriondo González	173	Santos Okina Latorre
142	Xabier Oleaga Arondo	174	Ezoz Leturiondo Aranzamendi
143	Jone Tapia Garmendia	175	Xabier Zubizarreta Lasagabaster
144	Xabier Haltzibar Aretxabaleta	176	Inazio Garmendia Aizpuru
145	Jose Ramon Ezenarro Arriola	177	Josefa Insausti Oiarbide

(1974 urtekoak)

- | | | | |
|-----|---|-----|---|
| 178 | Juan José Arrizabalaga Azkue | 222 | M. ^a Isabel Irizar Aranburu |
| 179 | Xabier Irigoyen | 223 | Jesus Belaustegi Urionabarrene |
| 180 | Jesus Mari Haranburu Oihar- | | netxea |
| | bide | 224 | Pilare Baraiazarra |
| 181 | Jose Antonio Ormazabal | 225 | Mikel Zuazabetia Errasti |
| 182 | Maria Karmen Arostegi Te- | 226 | Luis M. ^a Aristegi Echave |
| | lleria | 227 | Andres Alberdi |
| 183 | Jose Agustin Ozamiz Ibina- | 228 | Joseba Camino |
| | rriaga | 229 | Pantxike Larrañaga |
| 184 | M. ^a Angeles Agirrezabalaga | 230 | Mikel Usabiaga Sukia |
| | Alustiza | 231 | M. ^a Amaia Andonegi Egurbide |
| 185 | Karmelo Urdanpilleta Urdan- | 232 | J. Antonio Leunda |
| | pilleta | 233 | Kontxi Ibarbaran |
| 186 | Iñaki Zubeldia Otegi | 234 | Jose Llerandi Salinas |
| 187 | Agustina Póntesta | 235 | Pilar Sarasola Bulman |
| 188 | Belen Aizpuru Zubitur | 236 | J. M. Larrazabal |
| 189 | Erramun Balenziaga | 237 | Iñaki Arrarte |
| 190 | Jon Sudupe | 238 | Peru Baratchegaray |
| 191 | Arantza Alberdi Urzelai | 239 | Arantza Senosiain |
| 192 | Joxe Larrañaga | 240 | Jose Ramon Eizagirre |
| 193 | Jose Antonio Etxezarreta Su- | 241 | Pilartxo Garmendia |
| | dupe | 242 | Jose Ramon Aizpuru |
| 194 | Joseba Idoyaga Astelarra | 243 | Resurrección Berasategi |
| 195 | Kontxi Zabaleta Labayen | 244 | Koxe Etxebarne |
| 196 | M. ^a Jesus Arriola Agirre | 245 | Josu Aranburu |
| 197 | Gorka Knörr Borrás | 246 | Karmelo Arroiabe |
| 198 | M. ^a Lourdes Sistiaga | 247 | Patxi Ezkiaga Lasa |
| 199 | Gabino Zubeldia Gaztañaga | 248 | Kristina Usobiaga Gisado |
| 200 | Olatz Olarte Lasa | 249 | Bittor Egurrola Albizu |
| 201 | Luis M. ^a Satrustegi Galdona | 250 | Francisco de Borja Barandia- |
| 202 | Edurne Garmendia Garmen- | | ran Prado |
| | dia | 251 | Jesus Migel Zabalo Bilbao |
| 203 | Sabina Arruabarrena Sukia | 252 | Julian Anjel Zabalo Bilbao |
| 204 | Libe Sarasua Gastesi | 253 | Iñaki Lerga Idocin |
| 205 | Arantza Zugazagasti Alberdi | 254 | Joseba Agirreazkuenaga |
| 206 | Gurutz Larrañaga | 255 | Ana Elgezabal Legarreta |
| 207 | Loreto Etxarri Danborenea | 256 | Gillermo Etxebarria Garitaze- |
| 208 | Ester Aizpuru Aizpuru | | laila |
| 209 | Eustasio Egues Aizpiolea | 257 | Fernando Etxeberria Mariez- |
| 210 | Miguel Barandiaran Iztueta | | kurrena |
| 211 | Jon Oyarzabal Zubeldia | 258 | Marcos Olabarri Zurinaga |
| 212 | Pepi Arruabarrena Sukia | 259 | Imanol Olabarri Zurinaga |
| 213 | Izaskun Arrue Goikoetxea | 260 | Arantza Allur Zunzunegi |
| 214 | Maite Zumalde Zumalde | 261 | Alfredo Herbosa Lopez |
| 215 | Elena Aleman Hiribarren | 262 | Miren Azkarate Villar |
| 216 | Felisa Etxeberria Balerdi | 263 | Hendrike Knörr Borrás |
| 217 | Jesus Mari Sagarna | 264 | Josu Cepeda Olalla |
| 218 | Edurne Agirre Zurutuza | 265 | Xabier Bilbao Barrena |
| 219 | Jose Ramon Beloki Zapiain | 266 | Adolfo Arejita Oñarte-Etxe- |
| 220 | Natxo Mendialdua Lekue | | barria |
| 221 | Imanol Añon Albizu | | |

- | | | | |
|-----|-----------------------------------|-----|--|
| 267 | Juan Felix Elorrieta Arronategi | 275 | Juan Luis Urmeneta Galparsoro |
| 268 | Koldo Zuazo Zelaieta | 276 | Luzio Agirre Enparan |
| 269 | Jexux Aizpurua Barandiaran | 277 | Xanti Garmendia Olano |
| 270 | Joseba Etxebarria Uriarte | 278 | Joxe Antonio Agirretxe Arruti |
| 271 | Begoña Urrutia Zalloetxebarria | 279 | Jose Antonio Arin Agirre |
| 272 | Mikel Alkorta Andonegi | 280 | Gemma Larrañaga Juaristi |
| 273 | Karmel Etxebarria Uriarte | 281 | M. ^a Dolores Aginaga Gezuraga |
| 274 | Jose Antonio Ifurritegi Beristain | 282 | Errubén Egaña Zumeta |
| | | 283 | Javier Ortuzar Uribe |
| | | 284 | Asun Rekalde Basterretxea |

H LETRA DELA ETA

Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos delakoak arazo hau ukitu duenaz gero, gauzak diren bezala ezagut daitezzen, *dossier* osoa argitaratzea erabaki dugu. J. Estornés Lasa jaunak egindako eskaria, euskaltzainburu jaunaren erantzuna, eta erantzun honi Idazkari eta Idazkari ordeak jarritako eraskin bana. Dena Euskaltzaindiko batzarrean irakurri zen.

JOSE ESTORNES LASAREN ESKARIA

Donosti'n, 1973'ko ilbeltzaren 6.gn.

EUSKALTZAINBURU JAUNARI

Eskari au izenpetzen dugun Argitaldariok:

Oraĩñaldi ontan, aldizkarietan, liburuetan eta gaiñerako idaztietan dabillen ortografi-naasketa ikusirik, Elkarte Agurgarri orrengana gatoz eskean, egoera naasi au argitu ta zuzendu dezan; jakina, idazle, inprimeri ta argitaldariaik izan dezazketen eskubideak gutxi-etsi gabe.

Oraindik oraingoa den naasketa onek kalte aundia dakar euskerarentzat:

- Ikastoletako umeentzat, ortografi-arauak bereizi bear-ta.
- Euskal-irakurleontzat, oiturik bai-daude alferrikako izirik gabeko ortografiaz irakurtzen.
- Argitaldariantzat, batzutan batzuek eta bestetan besteek orografiari begiratuaz artzen edo uzten bait-dituzte liburuak.

Argitaldariok ikusten dugunez, auek dira ortografia-arauak orain dabiltzanak:

- 1) Euskaltzaindiarena: 1968'an zuena eta eragotzia izan ez dena.
- 2) Euskaltzaindiak "begi onez ikusiko lekeana": H letra "bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea".
- 3) Gorago jo nahi dutenena: "Honek ez du esan nahi saio horiek ez dirala ongi ikusiak izango".

Eskari au izenpetzen dugun Aragitaldariok, geienez, Euskaltzaindiaren ortografia erabili dugu: Euskaltzaindiak ontzat artua zeukana ta eragotzia izan ez dena, Liturji-Batzordeak darabilena; ta ez dugu arrisku-bidetan sartu nai izan: bokal bitarteko H erabilliaz, edo-ta gutxiago, 1968'aurreko arauak baztertu-ta gorago edo beerago jo nai luteken idazleari jarraituaz.

Begi aurrean dauzkagun ondorenak ikusiaz (alde aurretik aisa ikus zitezkean) zatiketa kaltegarria alegia: eskari au izenpetzen dugun Argitaldariok, erabaki au artzen dugu:

"EUSKALTZAINDIAREN ORTOGRAFIA, 1) ERAGOTZIA IZAN EZ DENA, ARGITALDIETAN ERABILLI; ETA; 2) TA 3) -an AGERTZEN DIRAN ARRISKUBIDEAK ERABAT BAZTERTU".

"ALABEREAN EUSKALTZAINDIARI ESKARI AUXE APALKI TA ERRESPETUZ DAGIOGU:

— 1968'ko ORTOGRAFIA (eragotzia ez dena) BERRIZ INDARTU TA BAIETSI.

— 2) ta 3) -an DATOZEN “ARGIBIDEAK” (onelako naaspilla sartu dutenak) ERAGOTZI”.

Euskalerrriaren eta guztien onerako, gure eskari au gogo onez jasoko duzula uste dugu.

Urte askoan gorde zaitzale Jainkoak.

“Agur, Añamendi, Auspoa, Ediciones San Antón, Edili, Goiz Argi, La Gran Enciclopedia Vasca, Itxaropena, López Mendizabal, Ekin argitaldarien izenean bialtzen dizut.

José Estornés Lasa

EUSKALTZAINBURU JAUNAREN ERANTZUNA

Idazki bat jaso dut, Euskaltzainburu jaunari zuzendua, eta José Estornés Lasa jaunak izenpetua. H letraren ortografiaz ari da.

Idazki hontan egiten den arrazoiketa, mamiz, honako hau da: Euskaltzaindiak h gabeko idazkera erabaki zuen eta erabaki hori ez du sekula deuseztatu. Beraz idazkera hortara bihur dadila eskatzen zaio, 1968ko agiri hura baztertuz.

Nik dakidala, gauzak ez dira izan azalpen hontan aditzera ematen diren bezala. Ez da egia h gabeko ortografia Euskaltzaindiak sekula erabaki duenik. Aitzitik, Euskaltzaindiak, sortuberri hartan, euskeraren abezea edo alfabetoa zein den erabaki zuen, eta euskeraz erabil daitezkeen letren artean, han dator h ere. Ikus “Euskera” I (1920), n.º 1, p. 64.

Idazki honen egileak ez daki, nunbait, Euskal Herria bai mugaz hemengo aldean eta bai mugaz beste aldean ere badela. Eta Euskaltzaindia Euskal Herri guztirako dela. Eta haren batzarkideen artean beti egon direla h letraz idatzi ohi zutenak, eta idazkera hori Euskaltzaindiak ez duela behin ere gaitzetsi.

Hemen egon dena zera izan da: gertatzezeko bikoiztasun bat: batzuek h letra erabiltzen zutela eta beste batzuek ez, eta Euskaltzaindiak, gertaera bat bezala, onartu edo, hobeki esateko, jasan izan du bikoiztasun hori, ohitura desberdin hau garaitzeko hiderik ikusten ez zen bitartean.

Geroago, berriz, eta bikoiztasun hori garaitzen hasteko, lehen urrats bat eman zuen: "Se ha acordado aceptar como forma académica en los dialectos meridionales el signo h, aun no correspondiendo a pronunciación aspirada, en determinados casos de evitación del hiato de vocales, como *ohore*, *ahate*, *zuhurra*, etc.; o en algún caso de diferenciación semántica, como *ori-hori*, *ura-hura*, *ari-ahari*, etc., siendo naturalmente correcto el no uso de dicho signo h". Ikus "Euskera", octubre 1954, p. 27.

1968an beste urrats bat eman zen, sentidu berean, eta gomendio gisa emana.

Nahaspila sortzen dela h letra dela eta? Bai. Goizetik gauera ezin sar daiteke honelako ohitura bat. Epe bat, zenbait urteren tartea behar da, era honek hemengo aldean erroak egiten ote dituen ala ez ikusteko. Epe horren buruan izango da beharbada garaia puntu hau bir-kontsideratzeko, orain ez, ene ustez.

Euskaltzaindiak bere hitza esan du. Ez du inor behartzen. Baina berari dagokion bezala, batasuna lortzeko bidea zein izan daitekeen erakutsi du.

Emandako deklarazioa ukatuaz nahaspila kenduko litzakeela uste du eskatzaileak. Hortan oker dago. Euskaltzaindia euskal aldizkari, argitaldari, orri eta liburu guztien jaun da jabe balitz, orduan bai beharbada: bere idazkera jarriko luke denetan, eta horra nahaspila garaitua. Baina gauzak ez dira hala. Eta Euskaltzaindiak gauza bat esan, beste bat esan, egunoro ikusi ohi dugun bezala, bakoitzak berari hobekienik derizkion bidetik joko du.

Ohar bat oraindik "alferrikako izkirik gabeko ortografiaz". J. Estornés Lasa jaunak badaki segurki mundu guztiko hizkera literarioetan gertatzen den akatsa dela hau, eta ezin utzizko

gaitza dela, gainera. Bakoitzak bere txokoko aho hizkerari bakarrik kasu eginez idatzi nahi duenean, orduantxe sortzen da nahaspila, nahaspila ikaragarria, aho hizkera tokitik tokira desberdin izanik. Eta pixka bat konbentzionalki izango bada ere, era berdin bat hartu beharra izaten dute hizkuntza guztiek, nahiz eta letra batzuk oso beharrezkoak ez izan beti guztiontzat. Bide honetatik joan dira, nik dakidala, munduko literario hizkera guztiak, eta gaitz honentzat ez da orain artio erremediirik bilatu.

Gainera, eta bukatzeko: Ni euskaltzainburu naizela ez dira hartu, bistan da, erabaki hoiek: ez 1920koa, ez 1954koa eta ezta 1968koa ere. Baina nik kontu hontan ondare bat hartu dut, herentzia bat alegia, eta Euskaltzaindiaren Arautegiak ondare hori zaitzeko agintzen dit. Hartutako agiri eta erabakiak zaitzea da euskaltzainburuaren eginbide berezia. Ikus Estatutos, art. 9, letra b).

Hau da, beraz, ene eginbeharra, Euskaltzaindiak berak besterik agintzen ez didan bitartean.

Horra idazki horri nik erantzun nezaiokena.

Fr. Luis Villasante

Donostia, 30-3-1973

IDAZKARI JAUNAREN XEHETASUNAK

1968ko urrian eman zuen Euskaltzaindiak batasun biderako, kontseiluz, H letra erabiltzen hastea.

Eta ordutik honako euskarazko liburuak honela argitaratu dira:

1968an	40 liburu	34 H-gabe	6 H-kin
1969	49 "	30 "	19 "
1970	55 "	30 "	25 "
1971	56 "	18 "	38 "
1972	56 "	17 "	39 "

Hau ikusirik, argi dago idazlerik gehienak ontzat hartu dituztela Euskaltzaindiaren kontseiluak, maioriak erantzun dio 1968an Arantzazun eman zen adierazpen agiririari. Gainera, eginaren buruan ikus genezakeana, idazleak H erabiltzeko kontseilutzat hartu zutela agiri hura.

Nere ustez, orain, Euskaltzaindia ezin da joan idazle maioria horren kontra. Baina, hala ere, ni konforme nengoke Euskaltzaindiak era batera edo bestera erabaki zehatzago bat harzera behartuko balitz, edo gutxienez, nere kargutik begiraturik, neronek eskatuko nioke H kontu hau zer mailatan erabili behar dudan. Erabagia betetzeko gertu nago.

IDAZKARIAK,

IDAZKARI ORDEAREN OHARRAK

EDITORIALEN ESKABIDEAREN FORMAZKO HUTSAK

1. Ene ustez hutsik nabarmenena da, editorialak ez dutela firmatzen Jose Estornes Lasa jaunak baizik.
2. Bestalde Jose Estornes Lasa jaunak baditu bere iritzia agertzeko bideak, beste era batekoak, Euskaltzaindikoa baita.
3. Izkribuan ez da agertzen Jose Estornes Lasak ze editorialetan parte duen eta ze kargurekin.
4. Jose Estornes Lasa jauna hor zitatzen diren editorialen elkarteren baten buruzagia da edo? Bestela bere izenean ari da.
5. Beste danen izenean ari bada, non du poderio agiria?
6. Ene ustez editorial bakoitzeko zuzendariak firmatu behar zuten.
7. Bestela ez dakigu egiaz ari den ala ez.
8. Eta kasua da ez dela denekin egiaz ari, zeren Jose M.^a Martin Retana jaunak, "Editorial La Gran Enciclopedia Vasca" eta "Agur" aldizkariaren zuzendariak esan

du, neri esan zidan aipatzeko, berak ez duela firmatu horrelako izkriburik, naiz eta aurkeztu ziotela egia bada ere. Gehiago da bera ez egoela puntu batzuekin ados eta bestalde ez diola horretarako ezeren poderiorik eman Jose Estornes Lasa jaunari. Beraz "La Gran Enciclopedia Vasca" ez da firmatzaile. "Agur" aldizkariaren zuzendari bezala beraz, Martin Retana jaunak, ez zuela firmatu, baina ez dakiela redaziokoren baten firmatu duen ala ez. Idazki baten zuzendariak firmatzen du eta bere baimenez besteren batek. Hemen ageri da ez dela egiazko representazioarekin ari.

9. Jose Estornes Lasa jaunak Administrazioako arazoetan bezala "acuse de recibo" eta guzti aurkeztu zuen bere idazkia, azken batzarrean Euskaltzaindiaren Idazkariari. Forma hori hain berarrezkoa izan ez da, nola ez ditu beste forma asko bete?

BATZAR AGIRIAK

1973 - I - 28

Elgoibarren, herriko etxean, 1973ko urtarrilaren 28an, goizeko hamar eta erdietan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Irigoyen, Lafitte eta Zavala jaun euskaltzainak; Altuna, J. Azpeitia, S. Garmendia, Kintana, Lizundia, Oregi, Ruiz Urrestarazu, Uribarren eta Zatarain jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Larzabal eta Satrustegui jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko agiria onhartzean, Kintana jaunak aditzera ematen du, Euskaltzaindiak San Millan de la Cogolla-n bilera bat egitea berak eskatu zuela agirian jarri nahi lukeala.

A) HAR-EMANAK:

Elgoibarko udaletxearen gutun bat irakurtzen da, Pedro Miguel Urruzuno elgoibartar euskal idazlearen omenez, herriko kale berri bati bere izena ipini diotela adieraziaz.

Bilboko Aurrezki Kutxa Muzicipalaren gutun bat, diru-etxe honetan Euskaltzaindiaren izenean kontu bat irikitzen dutela eta 25.000,— pezeta jartzen dituztela bertan 1973 urteko laguntzaz. Eskerrak ematea erabaki da.

Goikoetxea-Maiza jaunaren gutuna, Gamizen idazkietan hizkuntza alde literatura alde bezain baliozkoa delarik, utz-ezinezkoa derizkiola aditz eta fonetika estudioa haren omenerako egitea; beraz, hortarako gauza den bat Euskaltzaindiak berak izendatzea eskatuaz. Textoen fotokopia eta mekanokopia bat izendatzen denaren eskuetan uztea, bere kontu hartzen duela. Hendrike Knörr arabarra izendatzen da lan hori egiteko.

Jon Mirande laguntzailearen hil-berria ematen digu Lafitte jaunak, Peillen adiskideak gutunez aditzera eman dionez.

A. Zavala jaunak, Uztapide bertsolariaren izenean eskerrak ematen ditu laguntzaz eman zaizkion 5.000,— pezetagatik. Iturriri beste hain

beste ematea idazkari-ordearen esku gelditzen da. Arrue jaunak dionez, 13.000,— pezeta inguru gelditzen dira bertsolari batzordearen kajan.

Eibarren, Abenduaren 30ean, Euskaltzaindiak lan honetarako irailaren 29an mahai-buruko izendatu zituen A. Irigoyen, P. Altuna, S. Garmendia eta X. Kintana jaunak eman dute esaminaren berri. 51k parte hartu zuten eta 39ri ematen zaie irakasle titulua. Onartuen izenak: Jose Maria Zugasti, Manuel Arregi Urrutia, German Kortabarria Igartua, Juan Ignacio Intxaurreaga, Javier Zorroza, Karmele Zubiaurre Olaizola, Jose A. Zubeldia Gaztañaga, Izaskun Zaldua Olabeaga, Mikel Zabaleta, Juan Jose Zearreta Urgoiti-aldekozea, Jose Mari Ulazia, Mikel Zalbide, Jose M. Larramendi, Imanol Larrañaga, Josu Legarreta, M.^a Pilar Martiartu Lasuen, Endika De Miguel D' Anjou, Franzisko Olaskoaga, Juan M.^a Perez Cañizal, Xabier Portugal Arteaga, Joseba Tovar Arbulu, Juan Luis Goiakoetxea, Gurutze Bazterrika, Jon Etxeberri Iturbe, Jose Martin Elixpuru, Sabino Egileor Totorika, M. Jone Azurza Ariztegieta, Angel Ansa Goenaga, Jose Agustin Arrieta Ugartetxea, Mari Karmen Garmendia, Javier Allur, Jose Antonio Azkue, Mertxe Aranzamendi, Jose Antonio Aranburu, Jesus M.^a Arrieta, Antxon Arzuaga, Justo Azagirre, Luis M.^a Alzibar, Rikardo Badiola.

B) DENDA IZENDEGIZKO TXOSTENAREN BIGARREN ZATIA:

Kintana jaunak jarraitzen dio abenduko batzarrean uztu zuen bigarren parteari. Izenak banan-bana irakurtzen ditu eta egiten zaizkion oharrei elkarrizketa jarraituaz. Bukatzean, behar diren ohar-zuzenketak egin ondorean, lista euskaltzain osoei igortzea erabaki da, epe baten bakoitzak bere oharrak egiteko eta hauek kontuan harturik ondoren birreztia emateko.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE

Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN

Idazkaria

1973 - II - 23

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1973ko otsailaren 23an, arratsaldetako lauretan, bildu dira: Villasante euskaltzainburua, Haritschalhar buruordea, Arrue, Lafitte, eta Satrustegi euskaltzain jaunak; Beobide, Estornés Lasa (Jose), Fernandez Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Goenaga, Intxausti, Lizundia, Loidi eta Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Irigoyen eta Larzabal jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko agiria onhartu da.

A) HAR-EMANAK:

Elgoibarko alkateari eta Ongarri elkarteari eskerrak ematea erabaki da, P. M. Urruzunoren omenezko antolaketan eman ziguten laguntzagatik.

Radio Popular de San Sebastian E.A.K.-eko Iñaki Zubizarreta jaunaren gutuna irakurri da, Euskaltzaindiko batzarretera kasetalari bezala etorri ahal izateko baimena eskatzen digu. Baietza erabaki da.

Txomin Peillen eta Juan Azkarate Isasmendi jaunaren gutunak, irakasle tituluaren eskariz. Honetarako izendatua den epai-mahaiaren esku uzten da.

Haritschelhar jaunak euskera irakasle titulua hartzeko Baionan esaminak antolatzeko premia gogoarazten du. Mugaren bi alderdietakoekin lehen epai-mahaia hautaturik.

Berriatua eta Kintana-ren idazki bat. Etor-ek agertu duen "Adiztegi" taula, agertu den bezala, askok uste izango dutela Euskaltzaindiarena dela eta oharpen bat egin behar zaiola. Gertatua aztertu ondorean, ohar hau zabaltzea erabakitzen da: "Adiztegi" taula horretan, onhartuak ere sartuarren, ez dala Euskaltzaindiaren "Adiztegi" ofiziala.

Satrustegik adierazten du, Nafarroan Euskaltzaindiaren ordezkaritza jartzea bide onetik dohala, eta honetarako "Principe de Viana" rekin har-emanetan direla.

Yon Etxaide Itharteren gutuna, "Bait"i buruz, EUSKERA aldizkarian agertu denari oharrez. Kontu honetan erabagi zena, zehatz, agiritan emana dela esan da. Ikusi EUSKERA (1972koa) 278garren orrialdean. Lohonagoko baten jarraipenez, 273. orrian ikusi genezakeanez.

Jesusen Lagundiko Loyola probintziako zuzendaritzaren gutuna, Vi llasante Euskaltzainburuak aldizkarietara zabaldu duen adierazpenezko idazkiagatik zorionak emanez. Era berean Klaretianoen Kantabriako Probintziako nagusiak, gauza beragatik. Elgoibarko Felix Etxeberriak, herri honetako euskaltzaleen eskariz eta izenean, zorionak emanez eta eurak ere bat datozela agertuaz. Eta "Goiz-argi" adierazpen ori argitaratzea ukatuaz.

Budapest-ik Vilmos Bonezik jaunaren gutuna, euskal literaturaren berriak eskatuaz. Berriki argitaratua den G. Diaz-Plaja-L. Villasanteren *Literatura Vasca* liburuaren ale bat bialtzea erabaki da.

HARTU DIREN LIBURUAK: Jakin argitaldaria emanik, Paul Tllich-en *Fedearen dinamika* eta elkar-lanean osaturiko *Koperatibak*; Gero argitaldaria G. Ansolaren *USA-ren agintaritzeta eta dolarren ahulezia*; J. M. Satrustegik, *Laminzulo*; Ramiro Larrañagak bere *Un guipuzcoano desconocido*, *Ramón de Gorosta*; P. Lafittek *Gure Almanaka 1973*; Federación Vasco-Navarra de Montañismo-k, *Catálogo de Cimas*; eta gainerako separata hauek: "Homenaje a A. Tovar"; "Supement zu Azkues Wöttorbuch aus Barandiarans Folkloretexten", K. Bouda; "Die Syntax einiger baskischer Kaussus", K. Bouda; "Bemerkungen zu den baskischen Texten in FLV III, 1971", K. Bouda.

DIRU KONTUAK: Erkiaga diruzain jaunaren ordezkari ordezkari irakurri ditu kontuak. Diru-etxeetan zegoana, 219.364,64 pezeta; gehitua, 322.300, 55; urritua, 404.081,67; dagoena, 137.583,52 pezeta. Zerrenda batean ematen dira sarreraren eta urrituen xehetasunak.

B) LAFITTE JAUNAREN TXOSTENA, EUSKAL-ADITZEKO HIRU -KE ATZIZKIAK:

-KE atzizkiaren hiru forma adiarazten ditu. Izen-ordedunetan, adiz-izenari lotzen zionetan eta gainerako korapilatsu batzuk agerrera azaltzen ditu. Hiru -ke horiek egiazki hiru diren, ala batetik sortuak, galdetzen du, eta bere eritziak azaltzen ditu.

Ondorean, txostenetik aparteko berri batzuk ematen ditu: Hiribarrenen *Laboraria* izeneko poemaren esku-izkribua bilatu dela. Eta, Zuberoan Galarrotsak (= Xaribari).

D) BARNE ARAUDIAK BERRITZEAREN BERRI:

Villasante euskaltzainburuak goizean euskaltzainak izan duten batzarren berri ematen du, barne araudiak berritatzeari buruz: batzarrak, batzordeak, ordezkariak, liburutegia, argitalpenak eta abar aztertutako direla eta lehen zeudenetan oinharriturik berritze borradore batzuk gertatutako direla ondoko batzarretan zehatzago aztertutako.

E) EUSKAL KULTURAREN INGURUKO EMEROTEKAREN HORNITZEA:

Idazkariaren txostena. Gure bibliotekan euskal kulturaren inguruko emeroteka bat ere hornitu beharra azaltzen du. Naiz euskaraz edo naiz erdaraz euskal kulturari buruz edo euskarari buruz ari diren aldizkariak bilketa eginaz. Bilketa hau EUSKERA aldizkariaren trukez lortuaz. Biblioteka aberastuaz bat Euskaltzaindikoen eta bertara berri eta agiri bila datozenen zerbitsurako. Eta hogeta hamahiru aldizkariaren titulu eta zuzenbideak agertzen ditu, guziak euskal kulturazko emeroteka on bat osatzeko behar beharrezkotzat.

F) UDAKO UNIBERTSITATEA:

Haritschelhar jaunak datorren udaran Baionako edo Donibane-Lohizuneko Lizeoan egiteko baimena dutela. Udarako Unibertsidade hau hamar egunez egingo dela. Baionan izatera uztailaren azken egunetan edo abuztuaren lehen egunetan eta Donibane-Lohizunen bada abuztuaren azken egunak edo irailaren lehen egunak. Mugazandiko laguntza ofizialak lortuak dituzte eta Euskaltzaindiaren babesa ere nahi dute, hau gure ohoretan delarik. Erabiliko dituzten gaiak: Literatura, Liguistika, Kondaira, Geo-

Bestalde, maiatzaren 3, 4, 5 egunetan Bordeleko Unibersidadean batzarrak dituzte, XIX. mendearen lehen parteari buruz (1789tik hasita). Eta honako ere Euskaltzaindiaren babesa nahiko lukeala. Ontzat hartu da eta babesa ematen zaio.

Euskaltzaindikoeri eskaintza hau egiten zaie: norbaitek ponentziaren bat egin nahi badu, oso pozik hartuko dutela.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

1973 - III - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1973ko martxoaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Irigoyen, Lafitte, Satrustegi eta Zavala euskaltzain jaunak; Altuna, Etchehandy, F. Setien, Gandiaga, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Goenaga, Goikoetxea-Maiza, Intxausti, Kintana, Lizundia, Loidi, Santamaria eta Zatarain jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Erkiaga, Irigaray eta Larzabal jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Agiria onhartzean, Altuna jaunak, Etor-ek argitaratutako "Adiztegia"ari buruzko "uste" izate horri ohar hau erastea eskatzen du: Taulak ez dioela Euskaltzaindiaren baimena duenik. Era honetan, ontzat hartua gelditzen da.

A) HAR-EMANAK:

Jose Estornés Lasa laguntzaile jaunak euskaltzainburu jaunari zenbait argitaldarene izenean egiten dion gutuna irakurri da. Bere funtsean, eragotzia izan ez zen ortografia zaharrari jarraituko diotela eta 1968ko agirian datozen "Argibideak" eragozteko eskatuaz. Euskaltzainburuak bere erantzuna irakurten du: Arantzazuko Agiria orain indargabetzeak ez dirudiela mugoneko, batez ere 1920ko, 1954ko eta 1968ko agiriak kontuan edukiaz; eta era berean euskaraz argitaratzen diren liburuen estadistikari begiratuz; eta, azkenik, idazkian nabari diren prozedurazko hutsei oharra eginez.

Espasa-Calpe, S. A. argitaldaria, igazko azken sei hilabeteetan Azkue zenaren *Euskalerraren Yakintza*-ren salketetatik, 5.258,40 pezeta ordaintzen dizkigu.

HARTU DIREN LIBURUAK: Carlos Goenagak *Giza-bizia*; Cinsak irakasle talde batek egindako *Euskalduntzeni* L. Villasantek "D. Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario", Anuario del S.F.V. Julio de Urquijo; A. Goenagak, berak itzultitako H. Schuchardt-en lanak, "Vascuence y romance" eta "Sobre la formación de las reflexiones de relación del verbo vasco, B.R.S.V.A.P.; A. Goenagak bere "Gogo en Dechepare", "Gogo en refranes antiguos", "Gogo en Tartas" eta "Gogo en Leizarraga", F.L.V.; eta P. de Yrizarrek "Sobre las concordancias morfológicas de la Lengua Vasca con las lenguas caucásicas y con otras lenguas", Anuario del S.F.V. Julio de Urquijo. Guziari eskerrak ematea erabaki da.

B) A. GANDIAGAREN TXOSTENA, "4 ERROMANTZE" GAIAZ:

Oinatiko Araotzen berak ahoz-aho jasotako erromantzeen adierazpena, kanta bakoitza magnetofonoz ematen du bere oharrak erantsiaz. Zorion beroak jaso ditu.

D) PIARRES LARZABALEN TXOSTENA, "EUSKALDUNEK ZER BEGIZ DITUZTEN ABEREA IKUSTEN"

Ohitura zaharretako joerak banan bana adiarazten ditu, bizi emaitzari agurrezkoetatik hasita, abere sakratuak; euskaldun eta frantximentak desberdin ikustearen adierazpenez: behia, zakurra, marroa, akerra, zikiroa, mando orotsa, ziminoa, biligarroa; ondoren, izen-goiti gaiak eta funts-gabeko izen-goitiak aztertuz. P. Lafitte jaunak irakurri du txostena.

E) KINTANAREN TXOSTENA, DENDA IZENDEGIAZ:

Xabier Kintana jaunak gertatutako kargu, lanbide eta denda izendegiaren azkerketa egin da. Oharrik gabeko izenak onhartutzat eman dira eta ohardunak banan-bana erdiraino begiratu dira, behar diren zuzenketak eginaz. Gainerakoak urrengo batzarrerako utzi dira.

F) GOIZEKO BILKURA BEREZIAREN BERRI:

Goizean euskaltzain osoen artean egindako bilkura bereziaren kontu eman da. Euskaltzain laguntzaile eta ohorezko berriak izendatzeaz jardun da. Bete behar hau, araudiak 37, 38 eta 39. artikuluetan dion eraz egingo da.

Horrez gainera, nortasun osotze arazoa, ekonomia eragile baten beharra oraingoz idazkari-ordezkoak betetzea, eta egungo diru egoera erabili dira. E. Erkiaga diru-zain jaunak bere kargu aldaketa eskatzen duelarik, beste bat izendatu beharra erakutsi da.

G) APIRILEKO BATZARRAK:

Apirilaren 6 eta 7an, Bilbaon, Euskaltraindiaren etxean, euskaltzain osoek eta aditz batzordeko jaunek parte hartuz, aditz batuaren bigarren zatia aztertu eta onhartzeko batzartuko dira. Arautegiak 25. artikulua agintzen duen prozedura jarraituko da.

Apirileko batzarra Gasteizen izango da Juan Bautista Gamiz sabandotarraren berrehungarren urtea ospatzeko. Bilerak irekiak jarraituko dio. Hizlariak: J. Goikoetxea-Maiza, *Gamiz literaturan*; E. Knör, *Gamizen aditza*; A. Irigoyen, *Zigoitiako plurala*. Urrengo igandean, apirilaren 29an, Sabandon bertan Gamizi oroitharria jartzea.

H) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Irigoyen jaunak aditzera ematen du, Iturriren omenezko bertso-saioa egiteko baimena lortu dala eta maiatzaren 13rako jarri dala eguna.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

1973 - IV - 27

Gasteizen, Euskaltzaindiaren Arabako Odezkaritzan, 1973ko apirilaren 27an, goizeko 11etan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar burordezko, Irigoyen eta Lafitte euskaltzain jaunak; Altuna, Baztarrika, J. A. Etxebarria, K. Enbeita, Goenaga, Goikoetxea Maiza, Intxausti, Kintana, Lizundia, P. Martin, Plazido Mujika, Ruiz Urrestarazu, Uribarren eta Zaitegi laguntzaile jaunak; Hendrike Knör arabarra eta J. M. Laborda Loiolako nagusi jauna, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Larzabal jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak agurrezko hitz batzuekin gogorazten du bihar bertan beteko direla berrehun urte Gamiz arabar idazlea Bolonian hil zala eta gaur batzar hau Gasteizen bere ohorez egiten dela.

Martxoko Batzar agiria onhartzean, huts hauen berri ematen da: P. Larzabal jaunaren txostena, "Euskaldunek zer begiz dituzten abereak ikusten", Haritschelhar jaunak irakurri zuela eta ez Lafitte jaunak. Gaurko bilerako gaietan Irigoyen jaunak irakurriko duen txostenaren titulu zehatza honela behar duela: "Artikulua deklinazio pluralean" (Zigoitiako euskararen berezitasun bat). Gainerakoan, agiria, onhartzeko da.

A) HAR-EMANAK:

Idazkari-ordezkoak irakurri ditu 1973ko lehen hiru hilabeteetako diru kontuak, E. Erkiaga diruzainaren ezin etorria adieraziaz. Diru-

-etxeetan zegoana, 137.583,52; gehitua, 203.519,35; urritua, 313.447,31; *dagoena*, 27.655,56 *pezeta*. Bilbo eta Donostiako diru-etxeetan dirua zelan dagonaren xehetasunak ematen ditu, eta ondorean sarreren eta urrituen zertzeladarik aipagarrienen berri.

Aurten, Eusebio M.^a Azkue, *Parnasorako bidea*-ren egilea eta Euskaltzaindiaren sortzaileetarikoa eta buru zenaren aitaren heriotzako ehun urteburua denez, Lekeitiotik zer egin ditekaneanaren galdea jaso da. Jaialdia eta literatura sariketa egitea aipatu da, eta azaroaren 11garrena hautatzen da.

HARTU DIREN LIBURUAK: "Gero" argitaldaria Martin Ugalderen *Itsasoa ur-bazter luzea da* eta Juan Mari Lekuonaren *Muga beroak*. Juan Bta. Merino Urrutia jaunak *Notas a "Contribución al estudio de la toponimia riojana"*, "Berceo" aldizkariko separata.

ADITZ BATASUNAZ:

Bilbon Euskaltzaindiaren etxean hil honen 6 eta 7an aditz batzordekoak eta euskaltzain osoak izan dituzten bileren berri eman da, aditz laguntzailea onhartu zela eta gaur bertan zabaltzen zaiela euskaltzain oso guziei beren oharrak jasotzeko, eta oharrok ikusi ondorean onetsi ofiziala emango zaiola.

ONGI-ETORRIA:

Atzerritik etorri berri eta gaur gure artean dugun Zaitegi'tar Jokin euskaltzain laguntzaileari, aspaldiko urteetan gure bazarretara agertu ez den Aita Plazido Mujika euskaltzain laguntzaileari eta Gamiz zenaren ohorez etorria dugun J. M. Laborda Loiolako nagusiari, batzarkide guziena izenean ongi-etorria eta eskerrak ematen dizkie euskaltzainburuak.

B) DENDA IZENDEGIA ONHARTZEA:

Kintana jaunak aurkezten ditu lehengo batzarrean ikusteko gelditu ziren oharrak. Hauekin bukatutzat gelditzen da eta bereala egingo da hauen zabalkundea.

D) JOAN BATISTA GAMIZ EUSKAL IDAZLE;

Joan Goikoetxea Maiza-ren txostena:

J. Goikoetxea Maiza jaunak irakurri du bere txostena. Idazle arabarhonen bizitzaren berri batzuk, euskal idazle eta olerkari eta erdarazko idatzi berri ematen du. Lehen partean erdarazkoak egin omen zituen eta hauetarik ugariago direla euskarazkoetatik baino. Bietariko zati batzuk ere irakurtzen ditu, batez ere euskaraz idatzietarik. Zer literatura mota eta nondikako kutsuak dituen ere agertzen du.

E) GAMIZ-EN HIZKERAZ ZERTXOBAIT;

Hendrike Knörr-en txostena:

Aditz formak eta fonetikari buruzko oharrak egiten ditu, non dituen Bizkaiko euskalkiaren joerak eta non nafarrarenak. Adibiderako, Gami-zen bertso batzuk irakurtzen ditu.

F) ARTIKULUA DEKLINAZIO PLURALEAN

(Zigoitiako euskararen berezitasun bat)

A. Irigoyen jaunak irakurri du bere txosten hau. *Gu-ren* ordez *Guek* nola erabiltzen zuten adieraziaz, eta lekuko, magnetofonuz zigoitiar zahar bati hartutako hitzak ematen ditu. Gaiari buruz zenbait argibide geitzen ditu.

G) URKABUSTAIZKO EUSKAL SUSTRAIZKO TOKI IZENAK

(Estudio baterako aintzin-solasa)

Kepa Enbeita jaunak irakurtzen du Arabako Urkabustaizko lurretan jaso ahal izan dituen euskal sustraizko toki-izen zerrenda. Honetaz Diputazioari edo behar den erakundeari eskari bat egitea komeni dela esan du, zeren "Concentración parcelaria"ren lanekin toki-izenik gehienak galtzeko zorian bai daude.

Aditzera ematen da, deian esaten den bezala, 29an, igandea, Gamiz-en sorterri den Sabandon, Arabako Diputazioaren babespean, gorasarrezko jaialditxo bat izango dala arabar idazlearen ohorez: 12etan, Sabandoko parrokiari elkar-meza, eta ondorean Joan Bta. Gamizi oroit-harria agertzea.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

1973 - V - 25

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1973ko maiatzaren 25ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Lafitte eta Satrustegi jaun euskaltzainak; Aresti, Enbeita, Garmendia (Salbador), Intxausti, Lizundia, Oregi eta Zatarain jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Irigoyen, Larzabal, Lojendio, Mitxelena eta Zavala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko batzar agiria onhartzen da.

A) HAR-EMANAK:

Donostiako "Goizaldi" taldearen gutuna, beren 25. urteburua dela-ta, dantzeri buruzko literatura sariketa eratzen dutela eta epai-mahaia osatuko dutenak izendatzea eskatzen digute. Dantza kontuetan trebe diren Gaizka Barandiaran eta Xabier Gereño-ren izenak ematen zaizkie.

HARTU DIREN LIBURUAK: Buenos Aires-ko "Ekin" euskal argitaldariak bidalia, José Hernández-en *Martín Fierro*, *Matxin Burdin*, Jaka-kortaxarenak euskaratua; Gallastegi'tar Kauldi jaunak, bere *Amets eta egi*; "Gero" argitaldariak Txomin Peillenen *Gatu beltza*; "Jakín" sortak Joxe Azurmendiren *Kultura proletarioaz*; Piarres Lafitte jaunak J. P. Etxeberry-ren *Familia otoitzean* eta Iruriko Etxahunen *Zantxo azkarra* pasturala; eta G. Arestik bere *Hiztegi tipia*-ren bi ale (Lehen entrega: A-B-C-D); Junta de Cultura de Vizcaya-k *Homenaje a la memoria de D. Julio de Urquijo*; L. Villasantek *Ritual Urrejolano*, separata "Scriptorium Victoriense"; L. Mitxelena *Léxico vasco y etimología*, separata "Festschrift Wilhelm Giese", Helmut Buske Verlag Hamburg 1972; P. Lafittek bere *Autour des études gascones*; eta M. Onandiak bere *Ermua II*. Egileei zorionak eta guzieri eskerrak ematen zaizkie.

B) GOIZEKO BILKURA BEREZIA ETA LAGUNTZAILE ETA OHOREZKO BERRIAK IZENDATZEA:

Goizeko bilkura bereziaren berri eman da. Bildu diren euskaltzainek: Villasante, Haritschelhar, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Lojendio, Satrustegi, San Martín eta Zavala antolakizuneri buruzko xehetasun batzuk begiratzez aparte, euskaltzain laguntzaile eta ohorezko berriak izendatzea izan dute helburu. Hamalau boto bildu dira, lau poderiozko. Eta, botoetara, maioriaz, laguntzaile berri hauek hautatzen dira: Gregoire Eppherre, Mikel Zarate, Jon Bilbao, Jose Miguel Zumalabe, Martín Ugalde eta Manuel Olaizola "Uztapide". Guziak alde aurretik idazkiz aurkeztu ziren bakoitzaren ohoreak eta dohainak adieraziaz, eta araudiak eskatzen duen bezala, bi euskaltzainek izenpeturik. Ondorean, lehendik laguntzaile ziren Karl Bouda, Norbert Tauer eta Antonio Tovar jaunak ohorezko izendatu dira.

D) LEIZARRAGAREN ADITZA DALA TA:

J. Oregi jaunak irakurri du *Fontes*-en Arestik argitaratutako lanari oharrez gertatu duen txostena, puntu batzuk argitu nahiez. Aresti jaunak, ondoren bere eritziak agertu ditu. Biak eskertzen dira eman dituzten argibideagatik.

E) DETXEPAREREN "KONTRAPAS" IZENENKO POEMAREN AZTERKETA:

Haritschelhar jaunak, Detxepareren "Kontrapas" olerkiaren azterketa egiten du, literatura mota aldetik dituen berezitasunak azalduaz. Olerki

honetan dira euskarari lehen aldiz egiten zaizkion laudorioak, lau-neurtitzeko bertsoetan. Bertso molde zaharra Oihenartek zionez. Baina batez ere, gaiari dagokion aldetik, poema honen asmoak agerrerazten ditu, literaturan sarrerako ekintza nabarmenki erakusten duelarik. Ondorean zenbait oharpenezko elkarrizketak iharraitu dute.

F) EKAINEN BATZARRA ARRASATEN:

Euskaltzaindiaren urrengo batzar arrunta, agerikoa ondorean izango duela, Arrasateko udaletxean izango da, ekainaren 21ean goizeko hamaitketan hasita. Hamabi terdian batzar irekia: hitzaldi laburrez, J. Kerexeta, Juan Karlos Gerra idazle eta Heraldikalarik; J. A. Arana eta Vllasantek, Sebero Altube-ren lanei buruz.

G) IRAKASLETARAKO AZTERKETAK:

Irakasle titulurako azterketak Arrasaten egitea erabakitzen da, uztaillaren 7an, arratsaldeko 4retan, bertako "Escuela Profesional Politecnica"n. Eta irailaren 8an, arratsaldeko 3retan, Donibane Lohizunen.

Eusebio Azkueren omenaldirako lekeutioarrak oraindik ez dute ezer gertatu baina Azaroaren hamaikagarrena hautatzen da gorasarrea egiteko. Olerki sariketa bat ere antolatuko da. Bizkaiko Aurrezki Kutxari egingo zaio honetarako eskaria.

H) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Zatarain jaunak, *Soiña, gorputza al-da ala ez al-da?* izeneko txostena irakurtzen du, itzulpen batzuetan oinharriturik bere eritziak adiaraziaz. Elkarrizketa bat iharraitu da, eta ikusten denez, lehenagoko batzar haietan erabili ziren argudioez gainerakorik ez da ezer agertzen.

Salbador Garmendiak aditzera ematen du aditz batuaren zerranda orrietatik ehun kopia atera dituela Donostiako Santo Tomas Lizeoko irakaskintzarako.

Azkenik, Haritschelhar jauna mintzatu da Donibane Lohizuneko "Udako Euskal Unibertsitatea"-ren xehetasunak emanez. Lehen aldiz egiten diren ikastaro hauek Ministère de l'Education Nationale delakoaren izenean Bordeleko Unibersitateen erretorearen baimenarekin eta Euskaltzaindiaren, Lapurdi, Baxe-Nabarre eta Ziberoko deputatuen, zenaturren, kontseilari jeneralen eta auzapezen batasunen gerizapenarekin, Donibane Lohizuneko "Maurice Ravel" Lizeo edo Ikastegian, abuntzuaren 28tik, irailaren 8ra arte. Bertan erabiliko diren gaiak: Literatura, Linguistika, Ixtoria eta Edergintza, Ekonomia, Matematika, Antropologia, Pedagogia eta Gogoeta saila. Hogetazazpi irakasle eta hizlarik parte hartuko dute. Goizetan mintzaldiak emango dira eta arratsaldez talde edo multzoka irakasle eta ikasleak erabiliko dituzte elkar-hizketak. Guziak euskaraz mintzatuko dira. Argitasun eta xehetasun gehiagoren ukaiteko, galdetu zuzenbide huntarat: IKAS. 15,rue Port-Neuf. 64100 Bayonne. Telf. 25 64 26.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

1973 - VI - 21

Arrasateko Udaletxean, 1973ko ekainaren 21ean, goizeko 11tan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Irigoyen eta P. Lafitte euskaltzain jaunak; K. Enbeita, G. Eppherre, J. Garmendia, J. Kerexeta, X. Kintana, M. Lasa, J. L. Lizundia P. Uribarren eta J. M. Zumalabe euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Larzabal eta Sastrustegi jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko batzar agiria onhartu da.

A) HAR-EMANAK:

1. Gaur bertan Ataunen Jose Miguel Barandiaran-goaren omenez egingo den bazkaritarako deia du euskaltzainburuak, elkarte honen izenean joan zedin. Honegatik, telegrama bat bidaltzea erabaki da: "Euskaltzaindia gaur Arrasaten bildua zurekin bihotzez".
2. Nafarroako Foru Diputaziotik Jesús Ezponda jaunaren gomita, hil, honen 24an Lizarran Nafarroako ikastolak izango duten bilerara.
3. Eusebio Erkiaga jaunaren gutuna, ezin etorria adieraziaz eta Altube zenaren lanak goraiatuaz.
4. Aditz batuaren birrespena uztailleko batzarrean egitea erabakitzen da. Aurrez, batzordea bilduko da jaso diren oharrak aztertzeko.
5. Caja de Ahorros Vizcaina-ko gutuna, gureari erantzunez, eta aditzera emanez, "Eusebio M.^a de Azkue" poesia sari berezirako 25.000 pezeta jartzen dituela, lehen saritzat. Eta antzerki sariketa, "T. Alzaga" izenekoa, datorren urterako uzten dala. Sariketaren araueri artikulua bat gehitzea erabaki da, lehengo 8 eta 9garrenen tartean (9.a 10.era pasatzeko eta 10.a 11.era). 9garren joango den honek hau agerrera izango du: "Mahaikoek literatur balioak hartuko dituzte kontuan bereziki epaia ematerakoan".
6. HARTU DIREN LIBURUAK: Justo Garate euskaltzain laguntzaile jaunak Argentinatik bidaliak, *Reflexiones ante los nuevos médicos* (hitzaldia), *Los colegios de las Vizcainas y Vergara del siglo XVIII* (hitzaldia) eta *El Caballero Valentín Foronda, "ilus-trado alavés"* (Boletín "Sancho el Sabio"ko separata).

7. Denda Izendegia Bilboko Asociación de Comerciantes del Casco viejo-ri eskaini zitzaion argitaratzerik gura balu, baina ezetza eman du.
8. Irigoyen eta Lizundia jaunak eman dute Colegio R. M. Azkue-k, gure ardurapean dugun ikastolak, lege berriaren aurrean dituen eragozpenen berri.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

1973 - VII - 27

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1973ko uztailaren 27an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar bururordezko, Arrue, Diharce, Irigoyen, Lafitte eta Satrustegi jaun euskaltzainak; Altuna, Andiazabal, Berriatua, Garmendia (Jon), Intxausti, Kintana, J. M. Lekuona, Lizundia, Oregi, Santamaria, Sarasola, Zaitegi, Zatarain eta Zumalabe jaun laguntzaileak, San Martín idazkaria dala.

Dassance, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Lafon, Larzabal, Lojendio eta Mitxelena jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Ekaineko agiria onhartzean, Garmendia jaunak, Eusebio Maria de Azkue-ren oroitzapenezko olerki sariketa araudiak ongi irarriak jarri ote diren zalantza agertzen du. Ekaineko batzarrean, araudiari artikulua bat gehitzea erabaki zela, bederatzigarrena hain zuzen, eta batzarrean bertan hitzez-hitz idatzi eta hala irakurri zela batzarkideen artean eta agirira pasatu zuela ezortariko aldakuntzarik gabe, agerrarazten du idazkariak. Irigoyen jaunak dio, araudi inprimatuan "bereziki" hitza janda agertu dela, baina agirian ongi jasoa dagoala. Beste gabe, ontzat hartu zen agiria.

Euskaltzainburuak aditzera ematen du Nafarroako Arbizun Joan Goi-koetxea Zabalo euskaltzain laguntzailea hil dala, eta Antonio Zavala euskaltzainari ama hil zaiola. Batzartuen doluminak agertzea erabakitzen da.

A) HAR-EMANAK:

Karl Bouda eta Norbert Tauer-en gutunak irakurri dira, eskerrak emanez euskaltzain ohorezko izendatuak izan direlako.

Bizkaiko Aurrezki Kutxari eta Abadiñoko Aitumentuari Urkiolako bertsolari saiorako eman zигuten laguntzagarrik eskertzea erabakitzen da. Bai eta ere, Jabier Retegi Arrasateko Escuela Profesional Politécnica-ko zuzendari jaunari irakasle esaminetarako eman dizkigun erreztasunagarrik.

Donostiako aiantamentuko gutuna, aurtengo urterako 15.000 peze-tako laguntza ematea erabaki dutela aditzera emanez. Eskertzea erabaki da.

A. Zavala jaunaren gutuna, "Xenpelar" bertso-paper sariketari buruz. Igazko araudi bera jartzea erabakitzen da eta epai-mahaineko Antonio

Zavala, Alfonso Irigoyen, Juan Maria Lekuona, Mikel Itzaina eta Fernando Artola "Bordari" jaunak izendatzen dira.

Nafarroako Foru Diputazioari egin zaion gutuna irakurtzen da, euskarazko irakasle tituluari buruz eta handik jaso den erantzuna. Gai honi buruz, Satrustegi jaunak eman ditu gertatuaren argitasunak.

Irigoyen jauna, Euskaltzaindiaren personalidad juridika eta Bilbon bere ardurapean dituen ikastoleri buruz mintzatu da, egungo egoera adiaraziaz.

HARTU DIREN LIBURUAK: Joan Iruretagoyena Zarauzkoak emantik, liburu zahar hoiek: A. Basilio Joannateguy-ren *Bihotz Sacratuaren hilabetekeo escu-liburua* (Bayona, 1894); A. Fray Jose Cruz Etxeberrriak euskaraz jarritako *Deboziozko bizitzarako sarrera* (Tolosa, 1885); A. Agustín Cardaveraz-en *Escu-liburua edo cristauaren eguneroko ejercicioac* (Tolosa, 1906); *Jesusen bihotz sakratuaren alderako debocionearen exercicio izpiritualac* (Baiona, 1831); *Uscara, libru berria eta Khiristiaren egun orozco exercicio espiritualac* (Lehen Editionia, Oloroun); Gregorio Arrue-ren *Cristauaren dotriñaren jaquinbide azaldua edo Astetearen esplikacioa* (Tolosa, 1895); Abade euscaldun batec eusquerara biurtua, *Iesusen Biotz Sagradua edo Baguilla Iesusen biotziari consagratuac* (Tolosa, 1902); Titulu eta egilerik gabe, orriak falta dituztelako, bi liburu, bata zuberotarrez; *Baionako Dioses-ako Katichima* (Baiona, 1938); J. Etchepare-ren *Beribilez* (Baiona, 1931); Pierre Duhour-en *Erramako itzulia* (Bayona, 1931); **ARGIA** egutegiak 1923, 1924, 1925, 1929, 1930, 1931, 1932, 1934 eta 1935 urteetakoak. Hoziez gainera, Joan Iruretagoyena jaunak, bere obra hauek ere oman ditu: *Gau-ostatua* (Donostia, 1921), *Karmengo Andre Mariari bederatzuurrena ta asteroko ikertzia* (berak gipuzkeraz jarria, Zornotza, 1927), *Sutan biotza* (Zarautz, 1931), eta *Igandero'ko berriona*, I eta II tomoak (Zarautz, 1932). Gure eskerrik beroenak agertzea erabakitzen da.

B) ADITZ BATUARI BURUZ BERRI EMATEA:

Euskaltzainburuak aditzera ematen du goizean euskaltzain oseak eduki duten bileraz, aditz laguntzaile bateraturako batzordeak presentatutako lanari onespena ematea zelan egin den, aurrez euskaltzainen artean kopiak balduaz eta goizeko bilera hortan jaso diren oharrak begiratu eta aztertuz eta azkenik botoetara joaz. 15 boto baietz eta 0 ezetz.

Aditz laguntzaile batu hau. ahalik eta azkarren argitaratuko du Euskaltzaindiak, eta argitaratzen denetik sei hilabeteren epean Euskaltzaindiak izango ditu eskubideak. Epe horren barnean argitaratu, nahi duenak Euskaltzaindiaren babesa beharko du, har-eman bidez babesteko. "Jakin" argitaldariak 1.000 ale hartuko dizkigu argitaratu bezain azkar, sei hilabeteko epe horren barnean.

D) ZORTZI URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIA:

Goizeko bilera horretan, zortzi urte arteko ikastola hiztegia (seigarren hitz zerrendara arte) aho batez onhartu da batzordeak egindako lana,

Orain, euskaltzainei kopia bana zabalduko zaie bakoitzak bere oharrak egin ahal izateko eta irailean euskaltzain osoen batzarrean, hiztegi batzordekoeri ere dei eginaz, hauek oharrarazitakoei beren eritzia agertzeko eta azken erabakia hartu ahal izateko.

USA LEKU-IZENA ETA BERE ESAN NAHIA:

J. San Martin-ek irakurri du gai honi buruzko txostena. Leku izenetako USA-k gehienetan herri-baso edo herri-lurrak direla agerreraziz, eta ez hainbeste askok uste duten uso (paloma) sustraitik. Leku-izen hauek XIV-XVIII. mendeetako agiri zaharretan nola eta non aurkitzen diren, esan nahiaren eritziak eta agiriak, leku-izen honen maiztasuneko zerrenda eta uso-tik (paloma-tik) nekez etorri ditezkenak adiaraziz.

F) LEIZARRAGA, BONAPARTE ETA BESTE:

J. Oregi-ren txostena, maiatzekoaren osagarri. Leizarragak ETXEKI eta IEXEKI aditz flesioak bi eratara erabili zituela agerrerazten du, Bonapartek hala uste ez bazuen ere, Leizarragaren itzulpena Ginebra-ko argitalpenetik ezinezkoa zen, 1588.ekoa dalako, eta bertatik frantseseratu 1616.ekoa, Leizarraga berarena 1571ko zenez. Olivetan-en itzulpen zaharrago batez baliaturik egin bide zituztela Leizarragak eta beste horiek. Azkenean, argi utzi nahi du, ETXEKI eta IEXEKI bi aditz izan eta gero nahastekatu ote diran, ala lehenbizi bakar zena harroz gero bitaratu ote denekoa beste hauzi bat dugula.

G) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Aditzera ematen da, abuztuko batzarra, Donibane Lohitzunen izango dala, hilaren 31an, arratsaldeko 4retan. Udako Euskal Unibersitatea bide bertan izanen dugun aukeragatik. Haritschelhar jaunak oharrarazi ditu Udako Unibertsitateko antolaketa izan dituzten gora-beherak.

Azaroan Lekeition Eusebio M.^a Azkue-ren omenez egingo den batzarrean, E. Erkiaga lekeitiar euskaltzain jaunak emango du hitzaldia: "Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia, gizon eta olerkari" gaiez, era berean euskaltzain sarrera hitzaldia izango da.

Urrengo esaminak, euskara irakasle titulua lortzeko, Donibane Lohitzunen izango dira, irailaren 8an.

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

1973 - VIII - 31

Donibane Lohizunen, Maurice Ravel Lizeoan, 1973ko abuztuaren 31n, arratsaldeko lau t'erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Irigoyen, P. Lafitte, P. Larzabal eta L. Mitxelena euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. L. Alvarez Enparantza, J. Echeverry, B. Gandiaga, A. Goenaga, M. Jaureguiberry, X. Kintana, J. L. Lizundia, T. Monzon, P. Txarritton, J. Zaitegi, A. Zatarain euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce eta Eppherre jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko batzar agiria onhartu da.

HAR-EMANAK:

Zarauztik Juan Martin Elexpuru jaunak *euskera lantzen* izeneko lan bat eskaini du eta eskerrak ematea erabakitzen da.

Arabako Foru Diputazioak euskararen alde hartu dituen erabakien berri ematen du idazkari-ordezkoak. Zorionak ematea onhartu da.

Eusebio Maria Azkue izeneko olerki sariketarako epai-mahaia izendatzen da: T. Monzon, J. Azurmendi eta M. Lasa.

Alvarez Enparantzak J. Intxaustiren ezin etorria adiaraziaz, beronen ordezkari, "Jakin" argitaldaria argitaratu duen batasun lan guzieren bildumaren berri ematen du. Lanok, Euskaltzaindiak orain arte erabaki dituenak izango dira.

HARTU DIREN LIBURUAK: Jakin argitaldaria Martin Etxeberriaren *Euskaldunen ipuin harrigarriak*; Piarres Bordazaharre "Etxahun"ek argitara berri duen *Pette Berettor* pastorala; eta Piarres Lafittek "Fontes" aldizkarian argitaratu zuen *Autour de "gizon bat" et "gizon bi"* lanaren separata. Guzieren zorionak eta eskerrak ematea erabakitzen da.

Ondorengo gaien entzule bezala, Udako Euskal Unibersitatean parte hartu dutenei sarrera ematen zaie.

B) AITA BLAS BABAQUY MENDIONDOKOA (1873-1914):

Piarres Lafitte jaunaren txostena euskal idazle honen ehunurte buruan. Sorlekua, bizitza eta bere liburuaz mintzo da. Lekarotzeko Kaputxinoetan aurkitu direla zenbait prediku-izkribu eta haren izkribatzeko manera adiarazten du.

D) "IKUSTEN DUZU GOIZEAN" KANTUAREN AIREAZ BI SOLAS:

Louis Dassance euskaltzain jaunak eritasunez ezin etorria izan duenez, bere izkribu-txostena J. Haritschelhar euskaltzain buruordezkoak ira-

kurri du. J. B. Elissamburuk "ikusten duzu goizean" kantuaren airea "Horrara nun den Urnieta..." hastapenezko hitzak zituen zortziko batetik hartua zuela, dio, beste zenbait oharrekin batean.

E) HISTORIA AGERPENAK EUSKAL IZENETAN:

Xabier Kintana jaunak, bere txostenaren bidez adierazten dizkigu euskarazko zenbait hitz noiz eta nondik hartuak diren klasifikatzeko zer arau jarraitu behar den, etsenplu oharrak jarriaz, lehengo mendeetatik gaur egunera arte. Honetarako, gure hizkuntzan eta hauzokoetan izena noiz eta nola zabaldua izan denaren adibideak jarriaz.

Batzarraren bukaeran, euskaltzainburuak irakasle eta ikasleak agurtzen ditu Euskaltzaindikoen izenean.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

1973 - XII - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1973ko irailaren 28an, goizeko hamar terdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxelena eta J. M. Sartrategi euskaltzain jaunak; I. Berriatua, J. F. Setien, S. Garmendia, X. Kintana, J. A. Loidi, I. Sarasola, M. Ugalde, M. Zarate, A. Zaratain eta J. M. Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

L. Dassance, X. Diharce, G. Eppherre eta A. Zavala jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abuztuko batzar agiria onhartu da.

A) HAR-EMANAK:

Literatura sariketetako epai-mahaien erabakien berri ematen da: "Eusebio Maria Azkue" olerki saria, Bizkaiko Aurrezki Kutxak jarritako 25.000 pezetako sari bakarra, Bitoriano Gardiaga jaunari *Tzakolinaren 2. ospatze* lanegatik; eta aipamen bereziak X. Lete jaunaren *Hitz neur-tuetan* eta A. Urretavizcaya andereñoari *Malko baten magalean* lanegatik. T. Monzon, M. Lasa eta J. Azurmendi jaunek osatzen zuten epai-mahaia. "Xenpelar" bertso-paper saria honela banatu da, lehen saria, 12.000 pezetakoa, Fernando Aire "Xalbador" jaunari, *Gure artzain etxolari* eta *Mendian galdu direnei* izeneko lanegatik; bigarren saria, hiru zati berdiñetan banatu da, bakoitzari 4.500 pezeta, Segundo Kalonje jaunari *Ondartzara joan nintzan* lanegatik, Manuel Matxain jaunari *Azken berdiña-gatik* eta Inozentzio Olea jaunari *Gazteentzat* delakoagatik. A.

Zavala, A. Irigoyen, J. M. Lekuona, M. Itzaina eta F. Artola jaunek osatzen zuten epai-mahaia.

Euskal irakasle titulurako Arrasateko esaminak (uztailean eginda-koak) ondo pasatu zutenak: Margarita Altuna Olaizola, Ana Maria Arratibel Galparsoro, Ana Artetxe Elortza, Iñaki Azkoaga Bastida, Esteban Gallastegi, Iñaxita Urrestilla Arrieta, Maribel Lizarazu Leizeaga, Itziar Alberdi Urzelai, Esteban Muruamendiaraz Lete, Ana Maria Toledo Lezeta, Jose Maria Velez de Mendizabal, Miren Josune Tolaretxipi Lizarralde jaun-andereak; eta Donibane Lohizuneko esaminak ondo pasatu zituztenak: Manex Pagola, Beñat Oyharzabal, Jone Forcada, Pantxo Bimboire, Julen Madariaga, Mattin Larzabal, Javier Elozegi, Prudencio Sodupe, Albert Piernet eta Jesus Maria Zabaleta jaun-andereak.

Urrengo esaminak, urriaren lehen larunbatean, hilaren 6an, Arrasateko Escuela Profesional Politécnica delakoan izango direla aditzera ematen da.

HARTU DIREN LIBURUAK: Gero argitaldariak emana, Sabin Irizar-en *Txingo. Gertaldi eta ibilkeriak*; Ibon Sarasola laguntzaileak berak gertatu duen *Gerra ondoko Euskal-Poesia Antologia (1945-1964)*; Dominique Peillen laguntzaileak bere lanen separatak, "*Lehenagoko artzaiñen jakitaitia: arresen altzatzia, minak, eritarzünak*", Jean eta Dominique Peillen, "*Bulletin du Musée Basque*", N.º 38, 1967; "*L'élevage ovin dans de Pays de Soule*", D. Peillen, "*Bulletin du Musée Basque*"; "*Recueil des recettes vétérinaires de Jaureguiberry*", D. Peillen, "*Bulletin du Musée Basque*", N.º 57, 1972; *Planet*, izeneko gales aldizkariaren zuzendari den Ned Thomas jaunak aldizkari honen zenbaki batzuk; *Ardatz Rapid*, S. A.-ko zuzendari den J. M. Kruzeta jaunak beren espezialitateko katalogu tekniko bat bost hizkuntzadun nomenklatorra duena eta beren artean euskarazkoa.

B) HERRI ETA HERRITARREN IZENDEGIKO BATZORDEAREN AZALPENA:

Luis Mitxelena jaunak J. L. Lizundia batzordeko idazkariaren etorri ezina agerrarazi du eta berak ematen du batzarrean erabaki zenaren berri. Irailaren 11.ean bildu zen batzordea eta egin diren lanak eta oraindik egin gabe dauden parteak aztertu ziren, osatzeko gelditzen denaren arduradunak izendatuaz. Baita ere, zalantzazko puntu asko zer-nola erabaki norma batzuen araura, eta ahal bada, Eguberrietara arteko epean lanari bukaera eman.

D) EUSKERA IRAKASKINTZAN ERABILTZEAZ DONOSTIAKO UDALETXEAN ERABAKI DENARI BURUZ:

A. Arrue junak eman ditu berriak. Donostiako Udaletxean, Bilboko eta Gasteizko ordezkariak han zirelarik, euskerari eskoletan lekua ematea erabaki zutela, gure hizkuntza biziarazten laguntzeko, eta Euskaltzaindiarekin kontaktu nahi dutela liburu-testuak hautatzeko eta gertatzeko

baita ere programaren antolakizunetarako eta abar, egunkarietan aditze-ra eman duten bezala. Hartu duten erabaki honegatik zorionak ematea eta gure laguntza eskaintzea erabaki da.

E) EUSKAL HIZKUNTZA ETA KULTUR TITULU DEIAZ:

Xabier Kintana mintzatu da gai honetan dugun premia larriaz. Euskal Kultura gaiak inongo ikastetxetan erakusten ez direnez, andereño, maisu eta gainerakoentzat irakasketak bideratzeko, euskarazko irakasletzarekin egin den bezalatsu zerbait egin beharra dagoela. Baina gure bete beharra hizkuntzaren ingurukoa soilik denez gero, beste instituzio, mintegi edo elkarte batzuekin kontatu beharko ginuke, edo behar bada Udako Euskal Unibersitatearen ardurapean utzi. Gai hau programatzea X. Kintana, J. L. Lizundia eta J. San Martinen esku usten da, gaiak mugatzeko eta irakasle izenez hornitzeko, gero antolakizuna onduen bete lezakeanari eskaintzeko.

F) ETXEGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO HIZTEGIAREN GERTUKETA:

Jose Migel Zumalabe euskaltzain laguntzaile berri jaunak, bere sarre-ra gisa, etxegintza eta arkitektura hiztegi bat hornitzeko jarraitu duen metodologia eta iturrien berri eman du. Bere oinharirik handiena Azkue zenaren hiztegia izan du, zeren 1.100 hitz jaso bai ditu bertatik arkitektura gaiari loturik direnak. Lan honetatik, aspaldi arkitektoen Kolegioak eskatzen zigan hiztegia osatuko du, hitz hautatuekin, eta gainerako fitxa guzuen kopia bat Euskaltzaindiko artxiborako geldituko da.

G) LITERATURA-MOTAK MUGATU NAHIEAN:

Martin Ugalde jaunak, euskaltzain laguntzaile berria hau ere, sarre-ra gisa, literatura-moten bereizketa eta mugatze aski zehatz bat egiten du, batez ere ele-berri, kontu eta ipuien artean egiten diren nahasketak argituaz, eta era orokorrean adiarazten ditu mota bakoitzaren azalpenak, balioak eta mugak. Gogoz entzun da eta erabili diren eta erabiltzen diren bereizketaz elkarizketak jarraitu dio. Eta literatura-moten hiztegitxo baten beharra agerreraztan da.

H) "Ñ" ETA "LL" IDAZTEAREN ALDE:

A. Zatarain Jaunak, txosten baten bidez, "Ñ" eta "LL" idaztearen alderako eritziak agertu ditu, hoiien jatorriaren agiriak agerreraiz. Jarraitu duen elkarrizketan, ifarraldeko, Nafarroako eta Bizkaiko parte askotan ez dela "ñ" eta "ll"rik ahozten eta bata bezain bestea forma jatorrak dirala; baina, "ñ" eta "ll" baztertu gabe, euskara idatzi bateratuan "n" eta "l" erabiltzea gomendatzen zela, era bat hautatu beharrez.

Gainera beste zenbait arrazoi agertu ziren latinetikako hizkuntzak ez direnen artean "n" eta "l" erabiltzeko joeraz.

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu zen batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

1973 - X - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1973ko urriaren 26an, arratsaldeko 4retan, bildu dira: L. Villasante buru, A. Arrue, A. Irigoyen, P. Lafitte eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; Gregorio Eppherre, N. Etxaniz, J. Fz. Setien, Garmendia (Salvador), Garmendia (Jon), Lizundia, Loidi, Zaitegi, Zatarain eta Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

J. Haritschelhar, X. Diharce, G. Eppherre, E. Erkiaga eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak Anjel Goenaga laguntzailearen hil-berri beltzaren berri eman du.

Iraileko batzar agiria onhartu da.

A) HAR-EMANAK:

Bizkai eta Gipuzkoako Diputazioetatik "Revista de Ciencias de la Educación" aldizkariaren zuzendaritzatik hartu dituzten gutunak bidali dizkigute eta irakurri dira. Euskara irakaskintzan erabiltzearen berriak nahi ditu, geroago azaldu nahi dituzten lan batzuetarako.

Urriaren 6an, "D" mailako irakasle titulurako Arrasaten egin diren esaminetan ongi irten direnak: Jose Ramon Ezenarro Arriola, Pako Eizagirre Irure, Jon Aurre Azurmendi, Andrés Etxeberria Lizarralde, Rafael Etxegaray Andueza, Marcos Balenziaga Larrañaga, Jose Antonio Munduate Maiza, Antoni Martin Alcalde, Izaskun Alberdi Urzelay, Juan Jose Uranga Seguroa, Gregorio Martikorena Aramendi, Emilio Imaz Urrestarazu, Gonzalo Fontaneda Orillo, Pedro M.^a Tellería, Koldo Izaguirre Urreaga, Eduardo Iriondo Gonzalez, Xabier Oleaga Arrondo, Jone Tapia Garmendia, Xabier Haltzibar Aretxabaleta, Juan Luis Igarza, Jose M.^a Azurmendi Otaegi, Alfonso Guillo Gonzalez, Andoni Unzalu Garaigordobil, Jose Manuel Aleman Astiz, Maria Pilar Larrañaga Uzin, Ramon de Zamalloa Gulias, Inmaculada Murgoitio Ugaldea, Patxi Elgezabal Arrieta, Jerardo Elortza Egaña, Jose Ramon Ayastuy Elorza, Pello Arrieta Soraiz, Alicia Intrausti Olaeta, Lina Arego Otazua, Miren Lupe Olabarria Arana, Jon M. Urresti Iturriotz, Santos Muniozguren Torrealdei, Begoña Arrinda Uriarte, Santos Okina Latorre, Ezoz Laturiondo Aranzamendi, Xabier Zubizarreta Lasagabaster, Inazio Garmendia Aizpuru, Josefa Insausti Oiarbide.

HARTU DIREN LIBURUAK: Jakin argitaldariai emanak, J. M. Satrustegiren *Ekaitza* eta J. M. Torrealdaiaren *Iraultzaz*; Gero argitaldariai, Anjel Lertxundiren *Goiko Kale*; Etxebarria'tar Juan Anjelek, laburpen eta oharrez gertatu duen *Euskal idazleak. Basabe'tar Kandido, S. J. (1867-1928)*; J. M. Satrustegik, berak euskaraturik "Panpina" saiak argitaratu duen Hoffman-en *Intzaur koskailu*; Fher argitaldariai "Laida" sailean Bizkaiko Alfabetatze Taldeko irakasleek euskaraturik argitaratu dituzten *Edurtxu eta zazpi gizonttoak*, *Xano gorritxo*, *Berunezko gudarittoa* eta *Katubotaduna*; Bizkaiko Aurrezki Kutxak *Una gran obra social al servicio de Vizcaya: El Instituto de Educación Especial "Princesa de España"* de la Caja de Ahorros Vizcaina. Guzieri zorionak eta eskerrak ematea onhartzen da.

Idazkari-ordezkoak, diruzainaren ezin etorria adiaraziaz, 1973ko apiril-iraila bitarteko diru kontuen berri ematen du: Diru-etxeetan zegoana, 27.655,56; gehitua, 458.191,95; urritua, 390.260,33; *dagoena*, 95.587,18 *pezeta*. Irailaren amaieran dirua non-zenbat dagoenaren berri ematen du, eta sarreraren eta irteren zertzeladarik aipagarrienak agertzen ditu.

Eusebio M.^a Azkue-ren gorasarrearen berriak ematen ditu burugoak. Azaroaren 11garrenean, izango da Lekeition. Aurreko astean zenbait hitzaldi izango dira. Lekeitioko udaletxeak bere babesema eman du. Igan-deko programa honela izango da: goizeko hamar t'erdietan elkar-meza, bukatzean aurrezkua plazan, eta une berean Euskaltzaindiko batzarra udaletxean, har-emanak soilik erabiliko direla. Eguerdiko 12etan, batzar irekian, Eusebio Erkiaga euskaltzaina mintzatuko da Eusebio Maria Azkue zenaren bitzita ta lanari buruz. Hitzaldi hau, era berean, euskaltzain sarrerakoa izango da eta Juan Gorostiaga euskaltzainak erantzungo dio ongi-etorria emanaz. Ondorean "D" mailako irakasle titulurako esamietan ongi irten direnei diplomak emango zaizkie, eta bukatzeko Eusebio M.^a Azkue olerki sariak banatuko dira. Ondorean bazkaria. Arratsaldeko bostetan Bizkaiko bertsolari txapelketaren amaiera herriko frontoian.

A. Irigoyenek eman ditu bertsolari-txapelketaren xehetasunak. Durangon, Gerediaga elkarteak egingo duen liburu azokaren inguruan egingo da azken-aurreko saioa, hilaren batean, Lekeition amaitzeko.

Bertsolari txapelketa horietarako epai-mahaiko izendatzen dira A. Zabala, A. Irigoyen, M. Zarate eta A. M. Andrinua, baina azken orduan beste norbait ere sartu dezakete, horren premiarik baldin badute.

B) ARAUDI BATZORDEAREN BILKURAREN BERRI EMATEA:

Euskaltzain buruak eman du goizeko 10,30etan izan den bileraren berri. Barne araudia berrizatzeko gertatu den lehen partearen berridorea aztertu da, lan hau 1920 eta 1954ko araudietatik egin da, ahal izan den guztian haiari jarraituz egin da eta ez du izango aldakuntza garrantzikorik, formaren aldetik izan ezik. Borradorearen kopia bana igorriko zaie euskaltzain guzieri bakoitzak derizkion oharrek egiteko eta beste bilera batean hoiek aztertutik azkena osatzeko.

D) IKASTOLA HIZTEGIAREN 4., 5., eta 6. ZERRENDEN BIRRESPENA:

Euskaltzainburuak ematen du erabili den normaren berri. Azkenengo zabaldu diren zerrendak ez dutela oharrik izan, eta prozedurari jarraituz onhartuak gelditzen direla.

Zer prozedura jarraitzen den gogorazten du. Prozedurari buruzko elkarrizketa izan da, eta zenbait eritzi eman dira; batez ere, hitzak erabiliaz oinharritzen direnez, hemendik zenbait urteren buruan ere zuzenketak egin beharra izanen dela.

E) "BIDARRAITARRA" ETA "ARRANUA BORTIETAN" BI KANTUETAZ:

Gregorio Eppherre jaunak irakurri du hontaz gertatu duen txostena. Bi herri-kanta horiei buruz egin dituen ikerketen berri ematen du, eta bietan, Aita Donostiak jaso zuenaren eraz, doinu berdineko kanta biren bertsoak nahasturik arkitzen dituela, "Bidarraitarra"renean "Ostatuan..." hasten den kanta batenak, eta "Arranoa bortietan" eta "Hartzen diat ofiziu" bi kanta desberdin doinu berdinagatik nahasturik direla A. Donostiak josatako 14 bertsoetan. Eta berak egin dituen bereizkuntzak agertzen ditu.

F) HAUREN MINTZAIRA BEREZIA ETA EUSKARA:

Jazinto Fernández Setién jaunak irakurri du gai honi buruzko txosten bat. Sarrera labur baten ondoren, mintzairaren prozesoa haurraren munduan, haurraren hiztegi moldea, eta zenbait puntu jakingarri edo ohargarri adiarazi ditu, une bakoitzean zehatz mehatz ikertze lana argi agertuaz.

G) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Arrue jaunak, euskara eskoletan sartzeko Donostiako udaletxean dituen asmoak nola doazen (aurreko batzarrean erabili zen gaia) galdetu zaionean, irakaskintzako lege berria bide, lenguas vernáculos sailean izango ditugula berri on batzuk, dio, bere ustez zintzotasunez aurrera eramateko asmoetan direlako.

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

Lizundia, I. Sarasola, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkaria dala.

Arrue, Lafitte eta Zavala jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak J. M. Lojendio euskaltzain jaunaren anaiaren hilberria eman du eta batzarkideen doluminak agertzea erabaki da. Bestalde, azken Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos-ek dakarrenez (vol. XIX, núm. 92, pp. 36/41. Buenos Aires, 1973), Luis González Etxebarri, laguntzaile izana, direla bi urte hil zela. G. B.

A) HAR-EMANAK:

HARTU DIREN LIBURUAK: A. Irigoyen liburuzainak irakurri du hartu direnen zerrenda: L. Villasante jaunak emanik, bere *Axular-en Hiztegia* izeneko lan mardula; Manuel Lekuona jaunak, bere liburu eta lanen separatak; *Ignacio Zuloaga*, Las Diapositivas comentadas, Edic. Luzyson sailekoa; *Iesu aurraren bizitza*; "Xenpelar'en urtea Errenterian", *Egan*, 1969; "Usurbil Erri Bilduaren seireungarren urtea", *Egan*, 1972; "En homenaje a D. Julio de Urquijo", *Anuario del Seminario "Julio de Urquijo"*, 1971; "Nota lingüística sobre el proceso de romanización del País Vasco", *Estudios de Deusto*; Joaquin Berasategi jaunak, bere aldetik, Orixe zenaren *Euskaldunak poema eta olerki guziak*; Jose Angel Irigaray jaunak bere *Euskera eta Nafarroa*; "Gero" argitaldaria Joxe Erzibengoaren *Pedagogia gaur*; Gabriel Aresti jaunak, "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", *Fontes*, 1973; Caja de Ahorros Vizcainak emana, Jacinto Gómez Tejedor-en *Naturaleza y medio ambiente en Vizcaya*; Gasteizko Caja de Ahorros Municipal de Vitoriak emana, *El Príncipe Negro en Alava*.

Abenduaren 13an Axularri Nafarroako Foru Diputazioan egin zaion omenaldiaren berri eman du idazkariak. Omenaldi hortan Villasante euskaltzainburuaren *Axular-en Hiztegia* liburuaren aurkezpena egin zen. Principe de Viana Institutioak antolatua egoan eta zenbait euskaltzain ere agertu ziren. Vicente Galbete "Principe de Viana"ko zuzendaria, Irazoki eta Ezponda nafar deputatuak, J. M. Satrustegi euskaltzaina, J. Intxausti laguntzailea Jakin argitaldaria izenean eta Villasante euskaltzainburua mintzatu ziren, Axularri buruz eta euskaltzainburuak argitaratu berri duen lanari buruz.

Batzarkideak zorion bereziak eskaintzen dizkiote Villasante jaunari bere lanagatik.

B) GOIZEKO BILKURAREN KONTU EMATEA:

8 urte arteko hiztegitzaren 7,8 eta 9garren listak begiratu eta onhartu dira. Eta egin diren zuzenketa berri eman da.

Euskaltzaindiaren enplegaduen alogeraz hitz egin da, eta bizitzaren garestea kontuan harturik neurri berean jaso beharra agertuaz.

Zumalabe jauna, lehendik ere Donostiako bulegoan hiztegitzain laguntzaile bazen ere, batzordeko izendatzen da. Eta Joan J. Zearreta Euskaltzaindiaren izenean diru eskariak egiteko.

D) AURTENGO BATZARRETAKO TXOSTENEI GAINBEGIRATU BAT ETA DATORREN URTEKO BATZAR EGUTEGIA:

Euskaltzainburuak eman du urtearen barna euskaltzain eta laguntzai-leak irakurri dituzten 27 txostenen gainbegiratua. Eta idazkaria-ordezkoak helduden urteko batzar egutegiaren berri, proposamendu bezala:

Batzar bereziak, Apirilean, Aste Santu egunak aprobetxatuaz, Arantzazun Herri eta herritarren nomenklatorra aztertzeko; Ekainean San Millan de la Cogolla-n Instituto de Estudios Riojanos-ekin batean, Berceo-ren gorazarrez, Abuztuari, Urdazubini Axularren gorazarrez; eta urtearen azkeneko batzarra, Abendukoa, Bilbon Euskaltzaindiaren etxean. Gainerakoak, batzar arruntak, ohi den bezala Donostian.

E) JOKIN ZAITEGI JAUNAREN TXOSTENA "PLATON EUSKERATZEN" GAIAZ:

Euskaltzainburuak egin du agurrezko aurkezpena, eladeratik hainbeste lan euskaratu dituen Zaitegi jaunari buruz eta bere lanen egituraz.

Zaitegi-tar Jokin euskaltzain laguntzaile jaunak bere asmoen xehe-tasunak agertzen ditu. Argitaratu dituen lanak, bereziki Sopokel eta Platon, eta honetarako erabili dituen aburuak eta iturriak. Eritzi zehatzak *Platon'eneko atarian* liburuaren sarreran "Nere asmoa" izeneko orrialdeetan eman zituela dio. Iturritzat erabili dituen itzulpenez gainera, behar-beharrezkoa dela eladera eta euskera egoki jagitea, aditzera ematen du.

Ekintzatik atera duen ikaskizuntzat du, argi dagoena argi itzularaztea eta berez iluna dena den bezala ilun uztea. Eta, Platon-en ba omen da iluntasunik aski. Bukaeran, itzulpen adibidez, itzuli berri duen Protagoras-en elkarriketaren ataltxo bat irakurri du.

Itzulpenen aburu joeraz elkarriketak jarraitu du, eta Zaitegi jaunari zorionak eta eskerrak eman zaizkio batzarkideen izenean.

F) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Lekeitioko udalari eta bertako Guraso Elkarteari eskerrak ematea erabaki da, Eusebio M.^a Azkue zenaren oroiz bertan egin genuen batzarrerako eman ziguten laguntzagatik.

Burugoak, aditzera eman du, Durangon eta Lekeition egiteko ziren bertsolari saioak, Bizkaiko bertsolari txapelketa egiteko, Bizkaiko Gobernadore jaunak galerazi zituela, "no procede" esanez.

Baita ere, aditzera ematen da, Eneko gizonezko izena berriz ukatu duela Madrilen Dirección General de Registros y Notariado-ko zuzendaritzak. 1973ko azaroaren 12an auzi hortaz idatzia duten agiria irakurri da eta batzarkideak harriturik gelditzen dira bertan agertzen diren eritzi kaxkarrez.

A. Irigoyen jaunari eskatzen zaio izen hortaz eginak dituen ikertze lanak *Fontes*-en argitaratzea merezi dutela, lehenago San Martinek *Unai*

izenez egin zuen antzera, eta geroago batean agiri horiekin baliatuz, behar bada, posible izango dela eskaria berritzea.

LUIS VILLASANTE
Euskaltzainburua

JUAN SAN MARTIN
Idazkaria

ELGOIBARREN PEDRO MIGUEL URRUZUNO ZENAREN
GORASARREZ BATZAR IREKIA

Elgoibarren, urtarrilaren 17tik 28ra bitartean, Pedro Miguel Urruzunoren omenezko hitzaldi, jaialdi eta erakusketak ospatu dira, bertako udaletxeak eta Ongarri elkarteak Euskaltzaindiaren babespean antolatuturik. Azken egunean, Euskaltzaindiak berak zuzen parte hartu du P. M. Urruzuno euskal idazle eta Euskaltzaindiaren urgazle zenaren ohorez.

Beraz, 28an, goizeko hamar t'erdietan elkar-meza San Bartolome parrokian Carlos Agirre erretore jaunaren zuzendaritzapean P. M. Urruzunoren izenean. Hamaika t'erdietan, herriko etxean, Euskaltzaindiaren hileroko batzarra, eta hau bukatzean, eguerdiko ordu batak laurden gutxiagotan hasi zen Pedro Miguel Urruzuno zenaren gorasarrezko bilera irekia.

Mahaiburuko: Anjel Ajubita herriko alkatea, Luis M.^a Ulazia Ongarri elkarteko lehendakaria, Euskaltzainburua, buruordezkoa eta gainerako euskaltzainak.

Idazkariak bileraren programaren berri ematen du. Euskaltzainburuak agurrezko hitzekin irekitzen du biltzarra. Ondorean, 113ri euskal irakasle tituloak ematen zaizkie, diploma bana eta karneta. "Curriculum vitae", eta Bilbao, Donostia eta Eibarren egin ziren etsaminen azterketaren bidez "D" mailan lortuak.

Hitzaldi laburrak: Antonio Arrue euskaltzainak, *Urruzunoren aroa;* Antonio Zavala euskaltzainak, *Urruzuno, idazle;* eta Julene Azpeitia euskaltzain laguntzaileak, *Pedro Miguel Urruzunoren oroitza.* Hiru hitzaldiok anitz txalotuak izan ziren.

"Urruzuno ipuin saria"ren irabazlea jakinarazi zen. Sari bakarra *Hamalauzango* izenekoari ematen zaiola agertzen da, "Hurbil" izenpean dagoena. Plika irekirik, Antxon Haranburu dala egilea adierazten da. Egilea bileran egoanez, ipuina irakurrarazten zaio.

Bukatzeko, Haritschelhar euskaltzain buruordezkoak bi hitz eskaintzen ditu Urruzuno eta biltzarkideari azken-agurrez.

Barrutia jatetxean bazkaria, herriko agintari, antolatzaile, Euskaltzaindiko eta euskal irakasle berriak, elkarturik eta humore onez.

Idazkaria

ARRASATEKO BATZAR IREKIA

Arrasateko Udaletxearen eta herriko "Danok" elkartearen laguntzarekin, 1973ko ekainaren 21ean, Udaltzeko batzar gela nagusian izan dira batzar irekiak.

Euskaltzainburuaren agurrez eman zaio hasiera. Ondorean, euskaltzain laguntzaile berriei eman zaizkie diplomak: Gregoire Eppherre, Mikel Zarate, Jose Miguel Zumalabe eta Martin Ugalde jauneri. Manuel Olaizola "Uztapide" eta Jon Bilbao jaunak ezin izan dira etorri, bata osasunagatik eta bestea Ifar-Ameriketara bizi dalako.

Jaime Kerexeta jaunak, "Juan Karlos Gerra, Idazle eta heraldikalari" gaiez hitzaldia.

Jose Antonio Arana jaunak, "Sebero Altuberen bizitza, musika lanak eta bibliografiari buruz". Azkenean Euskaltzaindiak Gernika eta Lunoko Udalaritza Altuberen izena jar dezaion eskabide bat egitea proposatzen du. Onartzen da.

Aita Luis Villasante jaunak, "Sebero Altuberen testamentua oroituz".

Juan Garmendia "Zeleta" jaunak, bi hitz, "Altuberen anaia"ri buruz.

Eta, azkenik, bukatzeko, Jean Haritschelhar Euskaltzaindikoko buruordeko jaunak agurrezko hitzak.

Idazkaria

LEKEITIOKO BATZAR IREKIA,

Eusebio M.^a AZKUE zenaren omenez

Lekeition, Eusebio Maria Azkue zenaren omenezko jaialdia eta batzar irekia, hitzaldiz, bere heriotzaren ehungarren urteburua delako.

1973ko azaroaren hamaikagarrenean, goizeko 10 terdietan, eliz-nagusian elkar-meza. Ondorean, Amorotoko "Egunguentzia" dantza taldeak zenbait dantza eliz-atarian.

Hamabietan bilera irekia. Udaletzeko gela nagusia jendez bete zen. Cazalis alkate jauna eta herriko beste zenbait agintarirekin batean, Villasante buru zela, Gorostiaga, Erkiaga, Irigoyen, Akesolo, Alzola Gerediaga, Arkotxa, J. Berrojalbiz, Gandiaga, S. Garmendia, Kintana, Lete, Lizundia, Oleaga, Oregi, Zaitegi eta Zarate Euskaltzaindikoko jaunak osatu zuten mahaiburua, San Martin idazkari zela.

Idazkariak bileraren asmo eta helburuak agerrarazi zituen.

L. Villasante euskaltzainburu jaunak agurrezko hitzak, Azkuetarrak eta Eusebio Erkiaga lekeitiarren gorasarez. Eta honen euskaltzain sarrera hitzaldia aurkeztu zuen.

Ondorean, Irigoyen eta J. San Martin euskaltzainak gela nagusitik atera eta kanpoan zain zegoen Eusebio Erkiaga jauna sarrarazi zuten, euskaltzain sarrera-hitzaldia irakur zezan.

Eusebio Erkiaga jaunak, "Eusebio M.^a Azkue, gizon eta idazle" zuen hitzaldiaren gaitzat, eta E. M. Azkue zenaren bizitza zertzeladak zehatz-mehatz agertu zituen, haren olerkari dohainak zenbait gaitan adiaraziaz, tarteka haren bertso batzuk irakurriaz eta hark zuen idazkera bitxia goratuaz.

Bukatzean txalo hots handia jaso zuen.

Ohi denez, Juan Gorostiaga euskaltzain jaunak erantzun zion, Eusebio Erkiagaren meritu eta idazlanen berri emanez, eta olerkari zein eleberrigile bezala irabaziak dituen sariak aipatuaz, eta, azkenik, euskara batuari buruzko eritzi batzuk agerrarazi zituen.

Ondorean, Euskaltzaindiaren izeneko euskara irakasle tituluak banatu ziren Arrasaten eta Donibane Lohitzunen eratu ziren esaminetan ondo irten zirenen artean.

Azkenik, "Eusebio M.^a Azkue olerki saria", Moral Etxebarrieta Lekeitioko Bizkai Aurrezki Kutxako zuzendari jaunaren eskutik Bitoriano Gandiagari eta aipamenezko sariak X. Lete eta A. Urretavizcayari eman zitzaizkien.

Bukatzeko, idazkariak, herriko agintariak, Guraso Elkartekoak eta Lekeitioko herria Euskaltzaindiaren izenean eskertu zituen egungo bilera egiteko eman zituen erraztasuna eta laguntzagatik.

Idazkaria

Berriak

ELGOIBARREN URRUZUNOREN GORAZARREZ

Aurten da berrogeitamar urte, Pedro Migel Urruzuno, euskal idazle eta euskaltzain laguntzaile jaun apaiza hil zela. Hori dela eta, joan den urtarrilaren 28an Elgoibarren bildu da Euskaltzaindia.

Hamar t'erdietan meza, herriko elizan. Ondoren, udal txean, Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arrunta egin zuen. Hau bukatu eta, batzar idikia egin zen, Ajubita herriko alkate jauna eta euskaltzainburua, mahaiburuko zirela. Aita Villasantek eman zion hasiera batzarrari agur hitz batzuk esanez. Ondoren, 113 jaun-andreei euskal irakasle tituluak banatu zitzaizkien. Jaun-andre hoiek, hortarako pasatu behar diren azterketak gainditu dituzte.

Gero, berriz, Antonio Arrue euskaltzain jaunak hitzaldia egin zuen "Urruzunoren garaia" gai harturik. Bigarren hitzaldia Antonio Zavala euskaltzainak, "Urruzuno jaunak gizon eta apaiz bezala zituen dohaiak gogoratu zituen.

Batzarra bukatzekoan, Urruzuno Ipuin Sariaren irabazlea ezagutzera eman zen. Sari hau Ongarri taldeak jarria da. Eta Antton Haranburu irakasle gaztea gertatu da irabazle.

Azkenik, herriko agintari, euskaltzain, Ongarri taldeko lagun eta irakasteletarik askok anaitasunezko bazkari bat egin zuten Barrutia ostatuan.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria)

LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA CELEBRA LA CONMEMORACION DE URRUZUNO EN ELGOIBAR

El domingo se celebró en la villa de Elgóibar el cincuentenario del fallecimiento del que fuera escritor y académico Pedro Miguel Urruzuno.

Después de la misa concelebrada en la parroquia de San Bartolomé, la Academia celebró su sesión ordinaria mensual en el salón de sesiones del Ayuntamiento de Elgóibar.

Una vez finalizada la reunión privada, comenzó la pública, presidida por el alcalde, señor Ajubita, y el presidente de la Academia, P. Villasante, abriendo éste la sesión con un breve saludo alusivo a la figura de Urruzuno. Inmediatamente se procedió a la entrega de los diplomas acreditativos de profesor de lengua vasca a 113 aspirantes que superaron las pruebas de aptitud exigidas.

Disertó después el académico de número don Antonio Arrue sobre el tema "La época de Urruzuno", y a continuación el también académico de número P. Antonio Zavala sobre "Urruzuno escritor euskérico"; cerrando las intervenciones la miembro correspondiente doña Julene Azpeitia, sobre la figura humana del homenajeado.

Terminó el acto con la proclamación del ganador del premio literario de cuentos "Urruzuno", organizado por la Sociedad Ongarri, y que fue adjudicado al joven profesor Antton Haranburu.

Finalmente autoridades, académicos, miembros de la entidad organizadora "Sociedad Ongarri" y numerosos profesores se reunieron en una comida de hermandad en el Restaurante Barrutia.

JOAN BAUTISTA GAMIZ-EN OSPAKIZUNAK ARABAN

Joan Bautista Gamiz arabar olerkariaren berrehungarren urteburua gogoratuz, Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra Gasteizen egin zuen, bere Ordezkaritzan, apirilaren 27an.

Batzarrean gai hauek erabili ziren (har-emanetakoez gainera).

Denda izendegiaren azterketari buru eman zitzaion. Euskaltzaindiak onartutako Izendegi hau lehen-bai-lehen argitaratzea erabaki zen.

Aita Goikoetxea-Maiza euskaltzain laguntzaileak txosten bat irakurri zuen, Joan Bautista Gamiz-en bizitza eta idazlanei buruz.

H. Knörr jaunak beste lan bat irakurri zuen, J. Bta. Gamiz-en aditz-formak aztertuz.

Alfonso Irigoyen euskaltzain jaunak, Zigoitiako euskera-tik bide hartuz, azterpen bat egin zuen puntu honi buruz: "Sintagma plurala deribatuetan".

Bukatzeko, Kepa Enbeita euskaltzain laguntzaileak aintzin-asmu bat irakurri zuen Urkabustaizko toki-izenei buruz.



Hurrengo igandean, berriz, apirilaren 29an, Sabando-ko herrixkan J. Bta. Gamiz-i gorazarre bat eskeini zitzaion.

Eguerdiko hamabietan, Meza konzelebratua euskeraz, herriko elizan, Coro Araba-k parte hartuz. Ondoren oroitarri bat agertu zen. Bertan zeuden Arabako Gobernadore, Diputazioko Lehendakari, zenbait euskaltzain, euskaltzale, Sabandoar, Albo-erri eta Gasteiztik etorritako makina bat jende. Aita Goikoetxea-Maizak hitzaldi egoki bat egin zuen, arabar honen bizitza eta lanak aipatuz. Arabako Diputazioko txistulari eta dantzariak beren saioekin gorazarrezko jaialdi hura burutu zuten.

(*Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria*)

CENTENARIO DE JUAN BTA. GAMIZ EN ALAVA

En conmemoración del segundo centenario del fallecimiento del poeta alavés Juan Bautista Gámiz, la Academia de la Lengua Vasca celebró su sesión mensual en la sede de la Delegación en Vitoria, el 27 de abril de 1973.

Además de los asuntos de trámite se aprobó el Nomenclátor Comercial Vasco y su publicación inmediata.

El P. Goicoechea-Maiza, académico correspondiente, leyó un interesante trabajo sobre la vida y obras de Juan Bautista Gámiz.

El Sr. H. Knörr disertó sobre las particularidades de las formas verbales euskéricas de J. Bta. Gámiz.

D. Alfonso Irigoyen, académico de número, leyó su ponencia sobre el sintagma plural en los derivados, tomando como base el euskera del valle de Cigoitia.

Finalmente, el miembro correspondiente Kepa Embeita habló sobre la toponimia del valle de Urcabustaiz.



El domingo siguiente, 29 de abril, se celebraron varios actos en homenaje a J. Bta. Gámiz, en su pueblo natal de Sabando.

A las doce del mediodía tuvo lugar una misa concelebrada en euskera en la iglesia parroquial, participando el Coro Araba. A continuación se descubrió la lápida conmemorativa, asistiendo al acto el Gobernador Civil de Alava, Presidente de la Diputación, Presidente de la Corporación académica, académicos y numerosas personas que se habían desplazado de Vitoria y pueblos comarcanos, además de todo el vecindario de Sabando. El P. Goicoechea-Maiza hizo una adecuada semblanza de este poeta euskérico alavés, de una zona que tiempo ha perdido el tesoro de su lengua autóctona.

Los txistularis y dantzaris de la Diputación Foral de Alava cerraron con su alegre intervención esta jornada conmemorativa.

ARRASATE-KO BATZAR IREKIA

Ekainaren 21ean Euskaltzaindiak bi bilkura egin zituen Arrasateko Udaletxean: bata barrengoa eta bestea agerikoa.

Barrengo bilkuran har-emanetako gai batzuk ukitu ziren, hala nola: Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz eraturako "Eusebio M.^a Azkue" olerki sariaren oinarriak jartzea; J. M. Barandiaren jaunaren omenezko jaialdira telegrama bialtzea, eta abar.

Bilkura ageriari hasiera ematekoan, agur-hitz batzuk esan zituen Aita Villasantek: nola batzar hura Arrasateko Udalaren eskariz egiten zen, nola herri hartako euskaltzain eta euskaltzalaren oroitzapenez egiten zen, eta abar.

Ondoren, euskaltzain laguntzaile berriei diplomak eman zitzaizkien. Zarate, Eppherre, Bilbao, Zumalabe, Ugalde eta Olaizola jaunei, alegia.

Lehen hizlariak (Jaime Kerexeta apaizak), Juan Karlos Gerra euskaltzain eta heraldikalari jaunari buruz egin zuen bere hitzaldia. Arrasateko harma-harridun etxeak bana-banaka izendatu zituen, J. K. Gerraren obretarik xehetasunak hartuz.

Jose Antonio Arana lege-gizonak beste hitzaldi bat egin zuen Sebero Altube jaunaren bizitza eta lanei buruz, bai hizkuntzalari eta bai musikalari bezala dituen mereziak agirian jarritz.

Aita Villasantek euskeraren bizitzari buruz Sebero Altubek emandako dotriñaren muiña azaldu zuen, eta bereziki euskera idatziaren batasuna egiteari Altubek ematen dion garrantzia azpimarkatu zuen.

Juan Garmendia "Zeleta" jaunak hitz batzuk esan zituen Benigno Altube, Seberoren anaiari buruz.

Azkenik, Haritschelhar euskaltzainburu-ordearen hitzekin bukatu zen batzarra.

(Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren Agiria)

SESION PUBLICA EN EL AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

La Academia de la Lengua Vasca celebró dos sesiones, una privada y otra pública, en la Casa Consistorial de Mondragón. En la primera se trataron varios asuntos de trámite, como la aprobación de las bases del concurso de poesía "Eusebio María de Azkue", patrocinado por la Caja de Ahorros Vizcaina; la adhesión al homenaje de don José Miguel Barandiarán, que se celebraba el mismo día en Ataun, etc.

En la pública intervino en primer lugar el presidente, Padre Villasante, saludando a los capitulares y público asistente al acto y recordando cómo la propia Corporación municipal había solicitado que la Academia fuese a Mondragón, gesto que era de agradecer y que la Corporación lingüística aprovechaba la coyuntura para honrar a dos figuras relevantes de la cultura vasca y de Mondragón.

Después se procedió a entregar los diplomas a los nuevos miembros correspondientes señores Zárate, Eppherre, Bilbao, Zumalabe, Ugalde y Olaizola.

El primer ponente y académico correspondiente, don Jaime Querexeta, disertó sobre la figura del que fuera destacado heraldista y académico Juan Carlos Guerra. Enumeró todas las casas solariegas del municipio de Mondragón, que fueron tratadas por el que fue su notario durante muchos años, el mencionado Guerra.

Don José Antonio Arana, abogado, analizó la figura de Severo Altube, trazando su biografía y haciendo una exhaustiva bibliografía de su gran obra lingüística, musical y otras disciplinas.

El P. Villasante, que se ha ocupado en repetidas ocasiones de la figura de Altube, recalcó la gran obra de don Severo, deteniéndose en poner de manifiesto la vigencia de las tesis del mondragonés sobre la vida del euskera y la importancia de la unificación literaria.

I UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Egin da lehen aldikotz Donibane Lohitzuneko "Lycée Maurice Ravel" deitzen den bigarren maileko ikastegian. Hasi da agorrilaren 28an eta bururatu irailaren 8an. IKAS batasunak antolatua zen Euskaltzaindiaren babespean.

Egia erran Baionako euskal asteen segida hartzen du bainan urrats bat gehiago eginez ofizialtasun bat ukanez bai "Frantziako erakaskuntzako minixtroaren ganik, bai Pirene-Atlantiketako Kontseilu jeneralaren diru laguntza lortuz.

Euskal Herriko zazpi hegaletatik etorri dira ikasleak eta erakasleak. Mintzatu dira: literaturaz Aita Luis Villasante Euskaltzaindiko lehendakaria, Ibon Sarasola eta Jean Haritschelhar; linguistikaz Luis Michelena, Alfonso Irigoyen eta M. Mourguiart; Ixtoria eta edergintzaz Pierre Narbaitz, J. L. Lizundia, J. San Martin; ekonomiaz eta bereziki laborantzaz Irigaray Pariseko erakasle gaztea; antropologiaz J. M. Satrustegi, J. M. Barandiaran eta Gehexan Bidart; pedagogiaz Aita Altuna, Lertxundi eta Donostiako talde bat; gogoeta sailan J. Azurmendi, P. Charriton eta Aguirre Balzategi.

Ikus ditaik erakasle talde on bat bazela; ikasle multzo on bat ere, ehunetarik eta ehun eta hogoi ta hamarretaradino izan baitira. Agian hanitz urtez iraunen du!

J. H.

EUSEBIO M.^a AZKUEREN GORAZARREZ

Azaroaren 11an, Eusebio Maria Azkue olerkariaren men-deurrena ospatzeko (Euskaltzaindiak batzarre agiria egin zuen Lekeitio-n. Herriko udalaren eta Lekeitio-ko Guraso Elkartearen laguntzaz antolatu ziren egun horretako ospakizunak.

Euria gora-behera, txistulariek goiz-goizetik alaitu zituzten herriko kaleak, euskaltzain eta kanpotarrak heldu orduko. Hamar t'edietan, herriko elizan konzelebraziozko meza, erretore jaun Vicente Urkitza, Aita Villasante euskaltzainburua eta Juan Gorostiaga euskaltzaina meza emale zirela.

Mezatic irtetean eta auresku ondoren, Euskaltzaindiaren batzarre ageria herriko etxean. Herriko alkate Cazalis jauna, Aita Villasante eta San Martin Euskaltzaindiko idazkaria, ma-haiburu zirelarik.

Batzarreari hasiera emanez Aita Villasantek agur hitz batzuk esan zituen, Euskaltzaindia egun hartan zergaitik eta zertara etorria zen Lekeitio-ra azalduz. Lekeitio-ko herriak, eta batez ere Azkue aita-seeek euskal kultura eta literaturaren alde egin dutena gogoratu zuen.

Ondoren Eusebio Erkiaga jaunaren hitzaldia. Jaun honek bere hitzaldi honekin Euskaltzaindian sartzea egin zuen, Hitzaldi-gaia: Eusebio Maria Azkue-ren bizitza eta lanak. Lekeitiar olerkariaren olerki bidea aztertu zuen, haren olerki asko aipatu eta ezagutzera emanez. Udaletxeko areto nagusia betetzen zuten entzuleak adi eta zoli egon ziren mintzagaia entzuten.

1951. urtez geroztik euskaltzain oso den Juan Gorostiaga jaunak egin zion erantzuna. Erantzun honetan Erkiaga jaun beraren euskal lanak aipatu zituen.

Ondoren, euskal irakasle titulua iritzi dutenei hartako diploma eta karnet-ak eman zitzaizkien. Hirurogeitik gora dira azkenaldi honetan, etsaminak gaindituz, euskal irakasle titulu hori lortu dutenak.

Azkenik, Lekeitio-n Bizkaiko Aurrezki Kutxak duen etxe-ko zuzendariak (Moral Etxebarrieta jaunak), olerki sariketan irabazle gertatu diren B. Gandiaga. A. Urretabizkaia eta X. Leteri sari bana eman zien.

Herriko etxetik ateratzean, Amoroto-ko "Egunsentia" taldeak dantza saio bat egin zuen.

Ayuntamiento jaun, euskaltzain, Guraso Elkarteko, irakasle berri eta herriko asko Egaña jatetxean bildu ziren elkarrekin bazkaltzera. Eta bertan "Itxas-Soinua" ume kantari taldeak kanta sorta polita eskeini zuen bazkaldarren omenez, S. Ortuondo jaunaren gidaritzapean.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria)

CENTENARIO DE EUSEBIO MARIA AZKUE EN LEQUEITIO

El 11 de noviembre de 1973, y a fin de conmemorar el centenario del escritor Eusebio M.^a Azkue, la Academia de la Lengua Vasca celebró una sesión solemne en Lequeitio. Los actos se hicieron en colaboración con el Ayuntamiento de la villa y de la Asociación de Familias de Lequeitio.

A pesar de la lluvia, los txistularis alegraron las calles de la villa, antes de llegar los académicos y forasteros. A las diez y media, misa concelebrada en la basílica, siendo concelebrantes D. Vicente Urquiza, párroco; fray Luis Villasante, presidente de la Academia y D. Juan Gorostiaga, académico numerario.

A continuación de la misa y del aurreku tuvo lugar la sesión académica pública en la sala capitular del Ayuntamiento. Presidían el acto, Sr. Cazalis, alcalde de Lequeitio, el P. Villasante y el Sr. San Martín, secretario de la Academia.

Abrió la sesión el P. Villasante saludando a los asistentes y explicando el porqué de la presencia de la Academia en Lequeitio. Recordó lo que el pueblo de Lequeitio y sobre todo dos de sus hijos, Azkue, padre e hijo, habían hecho en pro de la cultura y literatura vascas.

A continuación habló D. Eusebio Erquiaga. Con ello hacía el discurso protocolario de entrada como académico numerario. Su disertación versó sobre la vida y trabajos de Eusebio M.^a Azkue. Analizó exhaustivamente la obra poética del vate le-

queitiano. El numeroso público que llenaba el amplio salón de sesiones escuchó con sumo interés y atención el tema desarrollado.

Le contestó el que es miembro de número desde el año 1951 D. Juan Gorostiaga. En su respuesta enumeró los méritos del Sr. Erquiaga.

Seguidamente se procedió al reparto de los diplomas y carnets de capacitación de profesor de lengua vasca, que se habían examinado en las distintas conmemoraciones del año. Pasan de sesenta los que tras riguroso examen han conseguido el diploma.

Por último, el Sr. Moral Echevarieta, director de la cursal de la Caja de Ahorros Vizcaína entregó el premio de poesía convocado para esta fecha a D. Victoriano Gandiaga y dos accésits a la Srta. Arantza Urretavizcaya y D. Javier Lete.

A la salida del acto el grupo folklórico "Egunsentia" de Amoroto ofreció un repertorio de sus danzas.

AXULAR-EN HIZTEGIA ETA AXULAR-I GORAZARREA NAFARROAKO DIPUTAZIOAN

AXULAR - EN HIZTEGIA ETA AXULAR - I GORAZARREA

Abenduaren 13an handiriko ospatu zuen Nafarroako Diputazioak Axular-en gorazarrea.

Bi xede zituen ospaketa hunek: 1 Axular-en Hiztegiaren presentazioa egitea, egun horretan irten bait zen liburu hori kalera. Eta 2. Nafarroak ahaztuxea eduki duen bere seme ospetsuari justiziaz zor zaion gorazarrea egitea.

Egunkari eta aldizkarietan erruz azal dutako artikuluen artean, bat jaso nahi izan dugu, Euskera-n lekukotasuna geldidadin.

Oraintsu gure Aita Villasante, euskal idazle argi ta purukatuak *Axular: Mendea, Gizona, Liburua* deritzaion saiakera bikaina argitara eman zuen. Gerediaga Elkartek ihazko libururik onena bezala jo duena, noski.

Oraingoan, berriz, *Axular-en Hiztegia* delako liburu mardul ta gotorrarekin datorkigu plazara: mardula ta gotorra benetan: 673 orrialde badaramazki, gutxienez.

Axular maisua ongi ezagutu nahi duanarentzat laguntzaile apartekoa ezezik, beharrezkoa izango dela, nik uste.

Honez gero ezin hasiko gera Axularrek euskal literaturan daukan maisutza paregabea gorai patzen. Polliki asko adirazten digu Aita Villasantek berak Hiztegi honen Sarreran bertan: "Euskal literatura zaharrean gailen agiri zaigu Axular-en liburua. Begien bistakoak eta nabari-nabariak bait dira haren dohain eta balioak, bai hizkuntza aldetik eta bai idaztanka, jakitate eta euskal jite eta jeinu aldetik ere. Nabaria haren trebetasuna, gai aski goratu eta korapilotsuak erabiltzen. Nabaria itzulika jatorretan duen joritasuna. Nabaria, baita ere, erdal hizkuntzetan ernetako pasarteak euskerara itzultzeko maisutasunaz. Nabariegiak dira gauza guzti hauek. Dohain hoiekin jantzitako liburua ezin egon zitekeen izkutuan. Axular izan da euskal prosaren benetazko kreatora".

Ta euskal literatura zaharrean dugun maisu paregabe hau hobekiago ezagutzeko datorkigu, hain zuzen *Axular-en Hiztegia* jator hau. Aita Villasantek berak aitortzen digu bere xedea eta jo-muga: "Axular-en Gero-n dauden hitzen bilduma: horra hiztegiak zer nahi duen izan. Hitz bakoitzari buruz etsenplu edo esaldi batzuk aipatzen dira, eta ondoren, hitz hura aurki daitekeen beste anitz leku iragarritz, geure egitekoa hor bukatzeko dugu... Baina hitz soila bere gorrian ematea, gauza guti da. Bere ingurunean murgildua atxemaiten duzunean, orduan da interesgarri. Ta berezki, hitz hortarik heldu diren modismo, itzulika eta esanmolde jator bereziei ohartzeko zarenean. Guzti hori, ahal dela, eman nahiz, etsenplu ugarietz aberastu dugu hiztegia eta, aparteko modu batean, esanmolde berezi hoiengatik ematen arduratu gara.



Nafarroako Diputazio jauregian Axular-en Hiztegiaren presentazioa eta gorazarrea. Acto de presentación del "Azular-en Hiztegia" y homenaje a Axular en el salón del Consejo Foral Administrativo del palacio de la Diputación de Navarra.

Gero-n ageri diren pertsona eta toki izen propioak ere ja-soak daude liburuan”.

Eta hortara ikasi genezake, polliki asko, *Axular* maisu handiak euskal alorretan daukan aberastasun ta maisutza harri-garria.

Bizpahiru bat hitz emango ditugu, adibidez:

SAMUR: blando, tierno frágil / mou, tendre, fragile.

“Bitiña, ahuntz-umea, gazte deiño, on da iateko, samur da, uxter da, sasoa da; ordea galtzen du adiñak.”

Zeinen egoki zehazten duen *Axular*-ek pasaporte hontan ahuntz-umearen guritasun eta biguintasuna: *samur da, uxter da, sasoa da*. Badirudi idazten bakarrik ez, baizik eta mahai baten inguruan, pozlorietan, antxumea dastatzen eta jaten ari dela bere lagunekin.

IAN: comer, devorar / manger, dévorer.

“Harra da, konzientzian barrena dagoen bekatua, eta harrak bezala, gau eta egun, hautsikitzen du, iaten du, larrutzen du.”

Bekatuak gure barnean sortzen duen kontzientziko kezka larria ez dago hobekiago ematerik: *harra bezala da, hautsikitzen du, iaten du, larrutzen du*.

Ta horrelaxe, hitzez-hitz, *Gero* deritzaion liburu guztia erantzi, eta hiztegi jator batetan zehaztua, moldatua eta kokatua eman digu Aita Villasantek: *Axular-en Hiztegia* delakoan, noski. Hitz bakoitza, erderaz eta frantsesez itzulia ematen du, gainera.

Bestalde, *Axular-en Hiztegia* hau garai eta tenore egokian datorkigu, gaurko gure hizkuntzaren egoera nahastu hontan, *Axular* handiaren maisutzak gure euskera zaharrarentzat bide jatorra bilatzen lagundu diezaigun.



Axular nafartarra izaki, jaiotzez: Urdazubi-ko herrian sortua, hain zuzen. Hala ere, lurralde haietan, mendeak zehar,

ahaztuxea iduki dute *Axular* euskal idazle gorena. Oraingo hontan, zorionez, *Axular-en Hiztegia* delako liburuaren aurkezpen ospaketa zela-ta, Nafarroako Diputazioak bere ateak zabaldu eta berealdiko gorazarre ta omena eskeini dio *Axular* bere seme prestuari. Iruineko Diputazio jauregian ospatu zen dena. Ezponda eta Irazoki Diputadu jaunak buru ziralarik, "Príncipe de Viana"-ko Zuzendari den Galbete jauna, Aita Villasante Euskaltzainburua, Joxe Mari Satrustegi, Euskaltzaindikoa, eta *Jakin* delako liburu sailaren gidari dugun Aita Intxausti eseri ziran mahaiburuan. Baziran Sara-ko eta Urdazubi-ko ordezkariak ere. Jendea, berriz, astegun zuria zelarik, abenduaren 13an noski, polliki bildu zela aitortu beharko. Diputazio Foraleko saloia bete-betea agiri zen, behintzat.

Galbete jaunak eman zion hasiera ospaketari, omenaldi hura dena *Axular* handiari eskeiniatz. Satrustegi euskal idazle prestuak, berriz, *Axular*-ek herrifolklorean utzi duen aztarren harrigarria azaldu zigun, laburkiro. Aita Intxaustik ospaketa harek zer adierazi nahi zukean erakutsi zigun guztioi, alegia: euskera *nafartarren hizkuntza* delarik, Nafarroak eginkizun haundi ta estu bat daukala gure euskara zaharraren barrutian. Iruineko Diputazioari alor hontan egiten ari den lanagatik eskerrik beroenak emanez, bukatu zuen bere saioa. Aita Villasantek, berriz, bere txanda iritxi zenean, *Axular-en Gero* deritzaion liburua aipatu ta goratu ondoren, *Axular-en Hiztegia* delakoa zertarako moldatu duen erakutsi zigun polliki-asko: *Axular-en Gero* liburu jatorra baztartzeko ez, baizik eta hobe-kiago dastatu eta jaso dezagun dena.

Azkenik Irazoki eta Ezponda Diputadu jaunak mintzatu zitzaizkigun, Nafarroak euskerarekin daukan zorra ta erantzukizun haundia gogoraziaz, eta Iruineko Diputazioaren lanerako borondate ona azalduaz, gainera.

Solasaldi guztiak bitara eman ziran, euskaraz ta erdaraz, noski.

Eta gorazarre bikaina, eta *Axular-en Hiztegia*-ren ospaketa jatorra atera zela, aitortu nahi nuke bertatik.

Idazlantxo hau bukatu baino lehen *Jakin* delako liburu el-

karteak ere aipamen aparteko bat merezi duela, “Aránzazu” hontatik, nik uste.

Azkenaldi hontan liburu ederrik atera du plazara. Eta hori gutxi bailitzan sail berri batekin datorkigu oraingoan: *Jakin Bide* delakoarekin. Hiztegi ta Jakintza liburuak izango dira sail hontakoak, “baina liburu sorta hau, Aita Intxaustik adierazten digunez, nornahirentzat pentsatua da: etxeko liburutegirako, ikastolarako... Euskal kultura jasoago bat nahi duen edozeinek beharko du *Jakin Bide* sorta hau”.

Ta *Axularren Hiztegia* izan dugu, hain zuzen, lehenengo fruitu mardula eta jatorra.

Ekin eta jarrai gogotik lanean.

AZTIRI

“Aránzazu”, enero 1974.

H I L B E R R I A K

JUAN GOICOECHEA ZABALO (1905-1973)

Euskal nortasunean Naparroako apaizetarik jatorrenetako bat joan zaigu. 1973-ko ekainaren 30-ean, Donostiako gaixotegi batean uste gabe itzali zaigu Juan Goicoechea Zabalo, Arbizu-ko erretorea. 69 urte zituen.

Lezaeta-ko seme honek, naparra izanik, Gasteiz-en egin zituen ikasketa guziak. 1928-an apeztu zen eta Ilarregi-n hasi zen apaizgoari buruz lanean. Arbizu-n egin zuen, halare, egonaldi emankorrena, 1933-tik heriotzaren deia hartu arte.

Berrogei urte hauetan, bere buru argi eta bihotz zabalean arkitu izan dute beti Sakanako apaizkideek kontseilari jatorrena. Euskaltzale kementsua, Arbizu-ko herria dugu bere lan sakanaren lekuko. "Halako apaiz asko behar zituela Eskuale-riak", errepikatzen zen ahoz aho; eta hauxe da egin genezakean aipamenik hoberena. Arbizu-ko herriak omenaldia egina dio.

Iruñen, "Principe de Viana" euskal aldizkarian idazten jarraitu zuen zazpi zortzi urtez, eliza gaietaz. Euskaltzaindiko laguntzale genuen.

Goian bego, on Juan Goicoechea Zabalo apaiz argi eta eskualdun sutsua.

J. M. S.

GOTZON GOENAGA S. J. (1915-1974)

Udazkeneko arrats euritsu batean, ez bat ez bi hil zitzai-
gun Gotzon Urumea hibai ondoan, U.S.A.-tik etorri berria ze-
larik, E.U.T.G.-ko Filosofia saileko Dekanotza ostera hartu be-
rria zuelarik eta euskararen aldeko lan latzetan buru eta be-
larri sartu-sartua zegoen garaian. Goian bego.

Zegaman jaioa zen 1915ean. Aita tolosarra zuen eta ama
oiartzuarra. Lagundiko ikaskuntzak Tournai-n eta Marneffe-n
(Belgikan) eta Burebako Oiñan burutu zituen. 1945ean egin
zen apaiz. Indautxun eta Kanarias-en eskolak ematen lau-bost
urte aritua zen, Bartzelonan Filosofiako Lizentzia, ez-ohiko sa-
riaz, eskuratu zuenerako.

Karrera bukatuz gero, Iruineko eta Donostiako jesuiten
ikastetxeetan, Donostia bertako Gizarte-Laguntzaileen eskolan
eta Zabalegi Erakundearen jarraitu zen eskolak ematen. E.S.T.E.
sortu zenean, hara igaro zen Etika eta Natur-Eskubidezkoak
irakastera.

Garai honetan ekin zion, txolarteez baliaturik, Doktor Te-
sisari. 1966an aldeztu zuen Madrilen, epai-mahaiean Zaragüeta,
Adrados eta Lapesa zituelarik, bere HUTS hitzari buruzko te-
sisa. E.U.T.G.-ko Filosofia saileko Dekano zen urte haietan.

Gehiago ikasi nahiez eta gogoan zituen euskal lanak ho-
beki burutzeko bere burua areago trebatzarren, U.S.A.-n sei
urte handi eman zituen. Garai hartan berrogeitahamaika urte
zituen gure Gotzonek. Columbiako Unibertsitatean *visiting
scholar* izan zen eta Fordham eta Syracuse-koetan Espainiako
Literatur irakasle.

E.U.T.G.-ra itzultzean eta bere bizitzako azken urtean, le-
hen esan bezala, Filosofia saileko Dekanotza hartu zuen berri-
ro. U.S.A.-n hasiak zituen euskal lanak osatzen ari zelarik atze-
man zuen herioak. Hona eskuartearen zituen zenbait:

“Sikologi hitzen euskal hiztegia”.

“IZAN EGON-EGOKA EDUN-EDUKI eta euskal izatea”.

“Ahal izatea eta ezina. Nahitaezkoa eta badaezpadakoa”.

“ARI-IHARDUN-EGIN: galdegaia”.

“GEI, GAI, GA(I)TIK, ERAZI: kausalidadea”.

“ALDI, ALDE, ALDA: lekua, denbora, mugimendua”.

Baina GOGO zuen hitz denetarik maiteena eta aztertuen bere azken urteetan. Hitz horren zentzu sakona, hobeki esan, dituen zentzu guztien barren-barrengo muina zein zeitekeen kezkatu bizi zen. Antzinako eta geroagoko iturrietara jo eta Dtxepare, Tartats, Oihenart, Axular, Leizarraga, Mendiburu-engan eta atsotitz zaharretan agertzen zen pasarte guztiak ikertzen eta aztarrikatzen ari zen. “Fontes Linguae Vasconum”-en argitara zituen lan horietarik gehienak.

Lehendik argitaratuak zituen beste honako lanok:

Schuchardt-en “Baskisch und Romanisch”, BRSV-en.

Aristóteles, Cicerón, Kant eta Hegel-i buruzko idazlanak “Revista de Ideas estéticas”-en.

“Agurea ta itxasoa”, Hemingway-ren novela ezaguna.

Hamaika lan utzi du osatu gabe; milaka fitxa utzi ditu pilaturik, berak gogoan eta eskuartean zituen lanetarako ger-turik eta besterentzat baliagarri nekez izateko eran. Besterik utzi digu, ordea, bere ondoan bizi gineno sekula ahaztuko ez zaiguna: euskal lanetarako seta eta gelako lan isilean ordu luzeak euskal kultur bizia lantzen emateko ohitura.

Euskaltzaindiko laguntzailea zen 1965etik. Goian bego.

P. Altuna

A U R K I B I D E A 1 9 7 4

<i>Pierre Lafitte.</i> —RENE LAFON ZENAZ ZONBAIT HITZ	5
<i>Xabier Amuriza.</i> —AURRIZKIAK	9

G A I L A B U R R A K

<i>Justo Garate.</i> —APORTACION A LA HISTORIA DE LA EUSKAROLOGIA —CARTA DE CITRA—, TUMBA A DON BONIFACIO DE ECHEGARAY	105
<i>Zatarain-dar Ambrosi.</i> —I LETRAZ BUKATZEN DIRAN ITZAK ...	115
<i>Zatarain-dar Ambrosi.</i> —AR BUKAERA DUDEN ITZ BATZUTAZ	119
<i>Zatarain-dar Ambrosi.</i> —EDUR, ERUR, ELUR: ZEIN DA ZARRENA	121

B A T Z A R T X O S T E N A K 1 9 7 3

Elgoibar, 73-I-28: Urruzunoren gorazarrea	
<i>Euskaltzainburua.</i> —AGURRA	125
<i>Antonio Arrue.</i> —URRUZUNOREN AROA	128
<i>Antonio Zavala.</i> —URRUZUNO, IDAZLE	135
<i>Julene Azeitia.</i> —URRUZUNOREN OROITZA	148
Donostia, 73-II-23	
<i>Pierre Lafitte.</i> —EUSKAL ADITZEKO HIRU -KE ATZIZKIAK ...	152
Donostia, 73-III-30	
<i>Bitoriano Gandiaga.</i> —LAU ERROMANTZE	156
<i>Piarres Larzabal.</i> —EUSKALDUNEK ZER BEGIZ DITUZTEN ABEREAK IKUSTEN	163
Araba, 73-IV-27 eta 29.—Joan Bta. Gamizen gorazarrea	
<i>J. Goikoetxea-Maiza.</i> —GAMIZ, EUSKAL IDAZLE	167

<i>Hendrike Knörr.</i> —GAMIZ-EN HIZKERAZ ZERTXOBAIT	218
<i>Kapa Enbeta.</i> —URKABUSTAIZKO TOKI-IZENAK	230
Donostia, 73-V-25	
<i>Josu Oregi.</i> —LEIZARRAGAREN ADITZA DALA TA	233
<i>Gabriel Aresti.</i> —SUA IZTUPARI BEZALA GATXETZA GU EUS- KARARI	239
Arrasate, 73-VI-25	
<i>Euskaltzainburua.</i> —AGURRA	241
<i>Kerexeta-tar Jaime.</i> —JUAN KARLOS GERRA, ARMARRI-ZALEA	242
<i>Luis Villasante.</i> —ALTUBEREN TESTAMENTUA OROITARAZIZ	249
<i>Jose Antonio Arana.</i> —SEBER ALTUBEREN BIZITZA, MUSIKA LANA ETA BIBLIOGRAFIA	256
Donostia, 73-VII-27	
<i>Juan San Martin.</i> —USA LEKU-IZEMA ETA BERE ESAN NAHIA	267
<i>Josu Oregi.</i> —LEIZARRAGA, BONAPARTE ETA BESTE	276
Donibane Lohitzune, 73-VIII-31: I Udako Euskal Unibertsitatean	
<i>Pierre Lafitte.</i> —AITA BLAR MENDIONDOKOA (1873-1914)	278
<i>Louis Dassance.</i> —“IKUSTEN DUZU GOIZEAN” KANTUAREN AIREAZ BI SOLAS	281
<i>Xabier Kintana.</i> —HISTORI AGERPENAK EUSKAL HITZETAN	287
Donostia, 73-IX-28	
<i>Jose Migel Zumalabe.</i> —ETXEGINTZA ETA ARKITEKTURARA- KO HIZTEGIAREN GERTUKETA	291
<i>Martin Ugalde.</i> —LITERATURA MOTAK MUGATU NAHIAN ...	295
<i>Zatarain-dar Ambrosi.</i> —“Ñ” ETA “LL” IDAZTEAREN ALDE	302
Donostia, 73-X-26	
<i>Jaxinto Fz. Setien.</i> —HAURRAREN MINTZAIRA BEREZIA ETA EUSKARA	312
Lekeitio, 73-XI-11 Eusebio Maria Azkue-ren gorazarrea	
<i>Euskaltzainburua.</i> —AGURRA	320
<i>Eusebio Erkiaga.</i> —SARRERA HITZALDIA - EUSEBIO MARIA AZKUE, GIZON ETA IDAZLE	325
<i>Juan Gorostiaga.</i> —ERANTZUN HITZALDIA	349
Donostia, 73-XII-28	
<i>Zaitegi-tar Iokin.</i> —PLATON EUSKERATZEN	358

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

Euskaltzaindiaren barne-erregelak	363
Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca	370
Reglement interieur de l'Académie de la Langue Basque	378
D mailako irakasle tituludunak (1973 eta 1974)	387

H letra dela eta	389
1973 urteko batzar agiriak	396

BERRIAK

Elgoibarren Urruzunoren gorazarrez	423
Conmemoración de Urruzuno en Elgóibar	424
Joan Bautista Gamizen ospakizunak Araban	425
Bicentenario de Juan Bta. Gamiz en Alava	426
Arrasateko batzar irekia	427
Sesión pública en el Ayuntamiento de Mondragón	428
I Udako Euskal Unibertsitatea	429
Eusebio Maria Azkueren gorazarrez	429
Centenario de Eusebio Maria Azkue en Lequeitio	431
Axular-en Hiztegia eta Axular-i gorazarrea Nafarroako Diputa- zioan	432
Hil berriak	438